XIX. mendearrekin, Zuberoako euskarak gramatika deskripzioen arreta berezia erakarri zuen.¹⁸ Larramendiren zordun (Urgell 2017a § 6.4), Léclysek bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera dialekto nagusitzat hartu arren (1826: 30), hiru euskalki bereizten zituen Akitanian: lapurtera, behe nafarrera eta zuberera, “celui de Soule et Mixe” (*ibid.* 9); guztiarekin ere, Chahorendako Léclyse aitzindaria izan zen zuberera euskalki beregain kontsideratzen: “M. Léclyse a le premier établi, d’après les conseils de mon père, l’existence d’un dialecte particulier dans l’ancienne province de Soule (*Ziberoa*). Cependant il n’en parle pas dans son travail sur les dialectes, où il s’est borné à citer Larramendi” (1836: 37). Halaber, Léclysek Zuberoako ehunka forma sartu zuen bere hiztegian.¹⁹ Ondoren, Chahoren lanek —gramatika, Antoine d'Abbadierekin batean sinatua (1836) eta hiztegia (1856)— zedarri bat markatu zuten Zuberoako euskararen deskripzioan. Chahok honela justifikatu zuen zuberera bere lanaren iturri nagusi hautatu izana:

Dans le choix que nous avons fait du dialecte souletin comme sujet de nos études, nous ne nous sommes pas laissés aller seulement à un amour étroit de notre province. Le dialecte de Ziberoa nous est plus familier, il est vrai, et cette considération n’était pas sans importance [...]; mais l’idiome du Labourd n’est pas resté hors du cercle de nos études. C’est là seulement que nous avons pu étudier le peu de littérature que la langue basque ait livré à la presse. [...] D’un autre côté, celui de la Soule n’a mis au jour que trois pièces fugitives [...]. Le génie labourdin a fait irruption jusque dans nos livres les plus élémentaires de la liturgie. Cependant ce dialecte a déjà méconnu le futur simple dans la conjugaison isolée du verbe, et il exprime le plus souvent ce temps par la forme composée *izanen naiz*, tandis que le Souletin dit simplement *nizate*. (1836: 7-8)

¹⁸ Bestelakoa dugu Archuren saioa. Izan ere, Archuk ez zuen ez Zuberoako ez beste inongo euskararen deskripziorik egin behar: *Bi mihiren gramatika* (1852) helburu didaktikoz idatzi zuen, *euskal herrietako* haurrei zuzendua, eta xede horri begira egin zituen bere hizkuntza hautuak.

¹⁹ “Dans le [Vocabulaire] basque-français, outre les mots labourtains, j’ai inséré plusieurs centaines de mots souletains, tels que : *ekhia* soleil, *arguizaguia* lune, *celuya* ciel, *zuhaina* arbre, etc.; mais, dans le français-basque, j’ai tâché de n’employer que des mots usités dans le dialecte labourtain, qui est le basque classique des Français; on n’en trouvera donc qu’un très-petit nombre, qui soient étrangers à ce dialecte. Telle est la raison pour laquelle le Vocabulaire basque-français se compose de 5.700 mots, tandis que le français-basque n’en contient que 5.000” (Léclyse 1826: 173).

Beste pasarte batean, Chahok zuberera loriatzen du euskalkien artean: “Nous avons employé le plus régulier et le plus parfait des dialectes vascons, qui est le souletin” (1836: 156-157).²⁰ Eta ber justifikazioa erabili zuen Inchauspek: “Nous l’avons pris [le verbe] dans le dialecte Souletin qui est celui qui le possède le plus complet dans ses formes et en même temps le plus simple et le plus régulier dans ses flexions” (1858: viii-ix). Garai hartantxe, Francisque-Michelek Zuberoako euskararen apartekotasuna nabarmendu zuen:

Tout basque français ou espagnol doit se rattacher au labourdin ou au souletin, seuls dialectes vraiment distincts. Selon un excellent juge, que je suis impatient de citer, le labourdin conserverait mieux la forme et le génie antique de la langue, et le souletin la représenterait adoucie dans ses sons et plus subtile dans ses tournures, suivant la tendance des esprits et des mœurs publiques à l’époque moderne. (1857 : 218).

XIX. mendearen azken herenean abian zen Bonaparte printzearen proiektua. Orain arte onartu izan da Zuberoan Printzearen laguntzaileak nagusiki Archu eta Inchauspe izan zirela, eta bi izen horiei beste batzuk gehitzen ahal zaizkiela.²¹ Aldiz, Bonaparterekin jardun zuen beste pertsona baten izena ahanzturarik bidegabeenean egon da: Anna Urruty anderearena.²² Ezaguna denez, Bonapartek (1869) *literatur dialekto* etiketarekin ohoratu zituen lau mintzo —haien artean Zuberoakoa—, gainerakoak *dialekto* huts geldituz. Alta, halako desbide bat antzeman daiteke mota bateko eta besteko euskalkien artean bereizteko irizpideetan: labor erraiteko, *literatur euskalkiak* ahozko mintzoen ezaugarri ahalik eta garbienen bidez definitu nahi izan zituen, hain zuzen, ahozkoa mespretxatzen zen garai batean.

Bonapartek dialektoen arteko muga garbiak nahi zituen, Menéndez Pidalentzat “concepto unitario arcaico de los dialectos” delakoaren seinale (1921: 27, *apud* Camino 2009a: 495).

²⁰ Ohartarazi behar da bere hiztegian Chahok *dialecte souletin, navarro-souletin* zein *vasco-souletin* deiturak erabiltzen dituela.

²¹ Deustuko Unibertsitateko Bonaparte Proiektuak (Pagola *et al.* 2004) Alkat Barkoxekua, J.B. Barneix eta Iriart aipatzen ditu “beste laguntzaile” horien artean. Alcat de Barcus bertsolariak zortzi berseteko kantorea dedikatu zion Bonaparteri (González Echegaray 1983: 97). Barneix ere koblakaria izan zen, Atharratzekoa, eta sei bertso ondu zuen Bonaparterentzat, orotara 52 ahapalditan; nahiz eta Pagola *et al.* 2004ko lanean edo Auñamendi entziklopedian “J.B.” inizialekin aipatua den, González Echegarayk (1983: 94) J.P. esleitzen dio ponte izenarentzat. Azkenik, Iriart errejent izan zen Larrañen; hark ere bertso bat dedikatu zion Printzeari.

²² Anna Urruty Bonaparterekiko elkarlanean aritu zen, Euskal Herritik bezala Londresetik ere. Ezaguna da Printzeak Archuren itzulpenak gainbegiratzeko eskatu ziola, bere mintzoa zubereraren eredutzat jotzen baitzuen (cf. Bonaparte 1928: 429 eta Arana Martija 1991: 285). Etorkizun den lan batean Urrutyren bizia eta lanak ikertuko ditugu.

Tokiko barietate bat euskalki batean edo bestean sartzeko, lehenetsitako hizkuntz atalak nagusiki aditz morfologiarenak zituen; Caminoren hitzetan “*det* edo *niz* erabiltzea aski zela mintzo bat gipuzkeran edo behe nafarreran sarturik izateko, baina aldi berean, beharrezkoa zen hizkera horretan *det* edo *niz* erabiltzea aipatu euskalkietan kokaturik izateko” (2009a: 495). Fonetika-fonologiari beste tradizioetan baino garrantzi gutxiago eman zion (*ibid.*).²³ Gogoratu behar da Bonapartek, behin-betiko proposamenera iritsi arte, behin baino gehiagotan birdefinitu zuela zubereraren eremua.²⁴

Nolanahi ere den, Bonapartez geroztik zuberera dialekto beregain zein *literatur euskalki* izan da kontsideratua. Adibidez, Van Eysen sailkapenean ere zuberera sei euskalkietarik da (1879: 1), sei horien arteko lau nagusietarik ere —hots, Bonaparteren ber lau *literatur euskalkiak*—. Garai horretan kokatzen da, halaber, Gèzeren gramatika (1873), zubereraren funtsatua.²⁵ Geroztik, zuberera euskalki beregain gisara aipatua izan da (Azkue 1922-1925 [Echaide 1984], Lhande 1926; Gavel 1920 & 1929; Larrasquet 1928 & 1939; Lafon 1958, 1959 & 1963; Mitxelena 1977a [1961], 1981 & 1988; Haritschelhar 1969-1970; Zuazo 1989b; Oyharçabal 1991 eta Yrizar 2002b, besteak beste). Larrasqueten hitzek Zuberoako euskararen hautemate orokorra ordezkatzeko dukete:

Par d'autres raisons, qu'il importe de noter, le parler euskarien de cette région constitue linguistiquement et surtout phonétiquement, un tout parfaitement homogène, de caractères très nettement propres. [...] Si le souletin conserve l'unité des caractères qui le distinguent très

²³ Bonaparte Zuberoa beren baitan hartzen duen edo zuen hainbat ezaugarri baliatu zen. Garrantzi berezia ematen zien bokal asimilazioez gainera, fonologian honakoak aipa ditzakegu: bokal sudurkariak, /y/ bokala, hasperena, **j*-ren emaitzak; izenaren morfologian *-ek* ergatibo pluralean, *-er* datibo pluralean, bizidunen inesiboa (*-gan* ala *-(r)en baitan*), *ura* / *gura* / *kura* erakusleetan, *-tik* / *-(r)ik* ablatiboan eta *-ra* & *-(r)at* / *-ala* & *-alat* adlatiboan; aditzaren morfologian *-gi-* ala *-za-* aditz erroen erabilera, **iron* aditza, botiboa, indikatiboko geroaldia, iraganeko *-n* / *-ø* bukaerak, *-ko* / *-(r)en* geroaldian, aditzoina *irrealis* balioetan, *ukan* / *izan* bereizkuntza; sintaxian TOGen, *bait-* aurritzia erlatibozkozko egituretan eta *-a* galderazko morfema; pragmatikan zuketa (Camino 2009a: 494-499).

²⁴ Lehenbiziko sailkapenean (1861-1831): Zuberoa (Domintxaine), Erronkari, Zaraitzu, Luzaide eta Orreaga (zalantzan). Bigarrenean (1864-1865): Zuberoa, Zaraitzu, Erronkaria, Garazi eta Amikuze. Hirugarren sailkapenean (1866-1868), Bonapartek nafar-zuberera multzoa proposatu zuen, ondoko azpieuskalkiekin: Zuberoako zuberera (*berezkoa*), erronkaria, zaraitzua, garazi-amikuzera (Garazi, Amikuze, Bardoze eta Arberoa) eta Aturriera (Urketa, Lehuntze, Beraskoitze, Mugerre-Elizaberi eta Hiriburu). Laugarren eta azken sailkapenean (1869), Bonapartek Zuberoan eta Erronkarin kokatu zuen zuberera. Halere, ondoren erronkarieraren apartekotasuna aipatuko zuen (Yrizar 2002b: 2).

²⁵ “J’ai reconnu que, pour ne pas me perdre dans les détails, je devais me borner à l’explication d’un dialecte. Le souletin m’a paru offrir les formes verbales les mieux conservées et les plus complètes” (Gèze 1873: vi).

nettement des six autres dialectes basques, il le doit aux limites naturelles qui l'isolent du Béarn, de la Basse-Navarre et de la région basque-espagnole qui confine à Sainte-Engrâce et Larrau. (1928: 16)

Badakigu isolamendu geografikoa betiere erlatiboa izaten dela eta, batez ere, desberdina izan dela Basabürüatik, Pettarratik edo Amikuzetik begiratu. Bestenaz, Larrasquetek Zuberoako euskararen barne zatiketaren afera —Oihenartek lehenbizikoz iradokia²⁶— jorratu zuen, Zuberoa Garaia eta Beherea bereizi beharra markatuz.²⁷ Bi eremuen markatzaile gisara, Larrasquetek bokal bilkuren asimilazioa (*ia > i*) eta aditzen uzkurdua fonetikoak aipatu zituen (*düzüü → züü*)²⁸ —gure ikusteko moduan, bi ezaugarri horiek hiztunentzat hautemangarri bezain hizkuntzaren azalekoak dira—. Haren lana “lexikologiaren eta dialektologiaren aldetik zinez baliagarri da oraindik ere” (Camino 2009a: 505).

Euskal filologiaren beste mugarri bat izan da Mitxelena. Ekialdeko euskalkiei dagokienez, maisuak Bonaparteren sailkapenetik distantzia hartu zen, azterketa kontrastiboaren bitartez Erronkari, Zaraitzu eta Zuberoako mintzoen arteko loturen definitzeko. Rodriguez Adradosak (1952) proposatu bereizkuntza erabakigarria gurera ekarri zuen, dialektoen ezaugarriak arkaismo, hautu eta berrikuntzen artean sailkatuz: Fonologiazko bederatzi ezaugarritan oinarriturik,²⁹ zaraitzuera eta erronkaria elkarrengandik hurbil zirela ondorioztatu zuen, eta zubereratik urruntzen zirela (1964a).

Ondoren, Zuazok ere lan egin du zubereraren gainean. Haren izate bereziaren arrazoi geografikoei administratiboak gehitu dizkie (1989b: 610), nagusiki arrondizamenduen

²⁶ Bere *neurthitz* bildumari erantsi hiztegiñoan, Oihenartek hitz batzuei *S* (=Soule) marka esleitu zien, eta beste batzuei *SM* (=Soule Méridionale, “qui est le quartier de la montagne, appelé vulgairement *Bassaburua*” (1657: 68)).

²⁷ “Il est nécessaire, indispensable, de distinguer linguistiquement la « Haute-Soule » et la « Basse-Soule », dont le parler est aujourd’hui très différent : pour celui qui ne se borne pas à les observer, *par le dehors*, mais qui les *pénètre*, les *connaît* et les *parle*, il est aussi impossible de les confondre que d’appeler du même nom le dialecte d’Hérodote ou Homère, d’une part, et celui d’Isocrate ou Démosthène, d’autre part” (Larrasquet 1939: 17).

²⁸ “a) En Basse-Soule, les diphtongues sont contractées, sauf de très rares exceptions dues à des raisons particulières ; en Haute-Soule, les courants de contraction atteignent à peine le tiers du domaine et peut-être le tiers ou le cinquième des mots à diphtongues, qui sont innombrables | b) Les types phonétiques *χάππεσον* au lieu de *χατέπεσον*, —*χάλλιτε* au lieu de *χατ-έλιτε* que l’on trouve dans l’*ionien* sont très fréquents et obligatoires en Basse-Soule, où l’on dit *jìn zü* au lieu de *jìn düzüü* ; « il (elle) est venu » ; *eder tük* au lieu de *eder düitük*, « ils sont beaux », « elles sont belles », etc. ” (1939: 17).

²⁹ Hauexek: 1) *u > ü*; 2) *i_u > u_u*; 3) *au, eu > ai, ei*; 4) sinkopak; 5) *h*; 6) **j*-ren emaitzak; 7) bokalarteko *j*-ren emaitzak; 8) ozen ondoko herskariak; eta 9) **rz > st*.

ezarpena (1790) eta berrantolaketa (1926), bai eta, zeharka izan arren, elizbarrutien antolamendua ere (2003: 29). Euskalki honen ezaugarritatzeko, Zuazok pisu handia esleitzen dio fonologiari, eta ondoren aditz morfologiari (1989b).³⁰ Bestenaz, Basabürüa vs. Pettarra banaketarako ezaugarri zenbait aipaturik ere,³¹ dialektologo honek zubereraren barne batasuna nabarmentzen du, nonbait ipar-mendebaldean hautsia, Amikuzetik hurbil. Azkenean, euskalki beregain gisara aurkeztu ondoren, Zuazok zubererak beste mintzoekin partekatzen dituen ezaugarriak aipatzen ditu, ezaugarri eksklusiboak oso bakanak direla ondorioztatzeko.³²

Azken urteetan paradigma aldaketa bat obratu da euskalkiei —eta biziki haien iraganari— begiratzeko moduan; cf. sarreran Lakarraren eta Caminoren lanez erran dena. Hortaz, Bonaparteren mapako euskalkien mugak —eta orobat Zuazoren mapa berrikoak (2008)— besterik gabe XVI. menderat proiektatzeak arrisku handiko ariketa dirudi zeren, adibidez,

³⁰ Fonologian Zuazok hogeit bat ezaugarri aukeratzen du, izenaren morfologian sei, aditz sisteman hamabost, eta sintaxian hiru. Hain zuzen ere, Zuazok ondokoak aipatzen ditu: bokalismoan *ü* fonema, *i - ü > ü - ü* aldaketa, *o > u* hestea, bokal sudurkariak, *ea > ia* bezalako eufonia bokalikoak, *-i, -e, -u, -ü > -i* berranalisia, *au > ai* eta *eu > eü (> ei)* bilakabideak, eta bokal bilkuren asimilazioak (*i + a > i; u + a > u*); kontsonantismoan /z/ eta /ʒ/ txistukari ahostunak, *j*-ren [ʒ] ebakera, dardarkarien ahultzea, ozen ondoko leherkari ahoskabeak, **rz* mantentzea, lat. *k, t + j > /č/*, eta kontsonante elkarketaren ondoriozko ebakera zenbait; azentuan indar azentua izatea eta azentu paroxitonoa; izenaren morfologian *-er* datibo pluralean, adlatiboaren polimorfismoa, soziatiboaren morfemak, mugatu vs. mugagabe, *hurak* erakuslea eta *-sa* atzizkia; aditz morfologian zuketa, botiboa, indikatibozko geroaldiak, aoristo zaharrak, aditz trinkoak, *izan ≠ ükhen*, **iron* aditzaren erabilpena, *-(r)en & -ko* geroaldian, datibo komunztaduraren afera, 1. p. singularreko morfema, iraganeko adizki alokutiboetan *-ø, -nd-* adizkietan, aditzoinaren testuinguruak, *-te & -tze* atzizkiak, *beit-* eta *-a* galdera morfema; joskeran TOGen, AL-AN hanpadura, eta [part + *bait-*] egitura.

³¹ Hauexek: 1) *í + a > í; ú + a > u* asimilazioak usuago iparraldean; 2) bokalarteko *r*-ren galera markatuago iparraldean; 3) indar azentua —iparraldean desegiteko bidean—; 4) zuketa, hegoaldean biziago; eta 5) hitanoaren *-n* eza iparraldean. Zuazok honakoa ondorioztatzen du: “Ezaugarri hauetako zenbaitek aditzera ematen duenez, beraz, Basabürüriako hizkerak zahartzaileago eta iparraldekoak, aldiz, berritzaileago direla ematen du” (1989b: 644).

³² Batetik, zubererak atxiki dituen arkaismoen sailean, Zuazok honakoak ematen ditu: bokal sudurkariak, ozen ondoko herskari ahoskabeak, **rz*, azentu moldea, mugatzailerik gabeko erabilerak, botiboa eta “indikativoko geroaldiak” (1989b: 644); gure ustez, zerrenda hori asko emanda litzateke. Bestetik, arazo bat ikusten dugu “Zubererak burututako berrikuntzak” deitzen duen zerrendan (*ibid.* 645), bertako ezaugarri batzuk egiazki ez baitira berrikuntza (*-ki* komitatiboa), eta ez dakigu zehazki nondik abiatu diren —menturaz zuhurrago litzateke ekialdeko mintzoek garatu dituztela erraitea—. Bestalde, Zuberoa gaintitzen duten ezaugarrien kontu errendatzean pankronismorako joera ikusten da: arkaismoak, hautuak eta berrikuntzak batera dira emanak, eta berdin aipatzen dira loturarik gabeko berrikuntza paraleloak nola berrikuntza hedatuak (*ibid.*). Azkenean, “urria da, beraz, zubererara bakar-bakarrik mugatzen diren ezaugarrien kopurua. Hiru baizik ez gure kontuen arabera: *izanenko* gisako geroaldi pleonastikoak eta hala /f/ nola **j*- kontsonanteek euskalki honetan hartu duten ebakera berezia” (1989b: 646); baina “sarri askotan, ezaugarri jakin batek zubereran erdietsi duen maiztasun eta sistematikotasunak emango dio euskalki honi bere nortasun berezia” (1989b: 646).

nola berma *ekialdeko behe nafarrera* eta *zuberera* bi zirela XV. mendean? Ez ote ziren egun baino hurbilagoak, menturaz halako batasunean?

Iraganari begiratzean, Zuberoako euskara ekialdean kokatu beharra dugu, Nafarroa Beherea —behintzat ekialdeko eskualdea—, Erronkari eta Zaraitzurekin batera; zenbaitetan, aldiz, eremu hertsiago batean, funtsean zuberu-erronkarierarena. Horrela hasi da ulertzen, eta ikuspegi diakroniko batetik mintzo baten edo bestearen ezaugarriak besteekin lotuz iraganeko hizkuntz zatiketen puzzlea pittinka osatzeko oinarriak ematen hasi da —Caminoren ekarpenek *state of the art* markatzen dute—. Ekialde horri lotzen bagatzaizkio, aldiz, Zuberoako euskara inguratzen duten mintzoen iragana ezezagunagoa da, berorrek baino askoz lekukotasun gutxiago duten heinean —Caminok artoski aztertuak (2008 & 2011)—. Horregatik guztiagatik, eta zuhurtziaz jokatu nahian, tesi honetan gaindi usuenik *Zuberoako euskara* deitura lehenetsiko dugu, eta ez *zuberera*.

2. Alderdi metodologikoak

2.1. Lan filologikoa

Tesi honek mintzo baten iraganaren deskripzioa egin nahi du, eta horretarako filologiaren eta hizkuntzalaritza diakronikoaren metodoetan funtsatzen da. Beraz, oinarrizko urratsa iturrietara jotzea izan da, gehienetan oinarrizko lan filologikoa eskatu duena zeren, gero xeheki azalduko denez (§ 3.4), Zuberoako euskararen corpusaren egoera eskasa da, bai ezagutzaren, bai edizioen, bai azterketen aldetik.

Lehenbiziko eginkizuna Zuberoako euskararen corpora osatzea izan da, testuak zerrendatzen eta horien aleak bilatzen. Hortik abiatuz, corpuseko testu gehienak transkribatu ditugu, eta azterketarako prestatu ditugu, bilaketak egiteko moduko bertsioak prestatuz, eta bertsio horiek ahal bezain fidel izan daitezen saiatuz. Labur erranik, filologiari —bere adiera hertsian— zein testukritikari dagozkien eginkizunak bete ditugu, eta soilik oinarrizko lan filologiko hori beterik testuen azterketa linguistikoari lotu gataizkio. Lan filologiko horri esker, Zuberoako euskararen corpora nabarmen hobetu da; esperantza dugu heldu diren urteetan zenbait lanek argia ikusiko duela.

2.2. Lan linguistikoa

Fenomeno edo alor aski zehatz batera mugatu gabe, tesi honen xederik azkena hizkuntzaren bilakaera orokorraren berri —ahal bezain zehatz— ematea izan da.

2.2.1. Aztergai diren ezaugarrien hautuaren azalpena

Horretarako, lehen eginkizuna Zuberoako euskararen ezaugarri multzo zabal bat hautatu dugu —ikus aurkibidea—. Hautapen horretan halako lehentasuna eman diogu morfologiaren —nahiago bada, morfosintaxiaren— ikertzeari, euskalaritzaren tradizioan gertatzen ohi den bezala, bariasionismotik berreraiketaraino, jada azaldu diren arrazoiengatik (cf. § 3.4.4.4).

Gehienetan, ezaugarri horiek ez datoz bat Zuberoako mugekin, hedadura zabalagoko edo murriztagoko isoglosatakoak baitira. Halaber, ezaugarri horien garapen diakronikoari dagokionean bada denetarik: EBZ-etik irauten duten arkaismoak, aspaldiko hautuak, eta garai zaharragotan ala berriagotan egin diren berrikuntzak, arrakastatsuak ala ez. Denboraren eta espazioaren ardatzetan kokaturik ikertu ditugu, Zuberoako euskararen bilakaerari argi emateko, eta izari batean ekialdekoarenari ere.

Erran bezala, fonologiaren azterketa sistematikoa baztertu dugu. Haatik, fonologiazko bi fenomenoren azterketa proposatzen dugu, biek aski ezaugarritzatzen baitute Zuberoako euskara, eta aldi berean ez baitira orain arte azterketa filologiko sistematikoren objektu izan. Itxura guztien arabera, bi ezaugarri horiek hizkuntza ukipenari estuki lotuak dira, eta zehazkiago biarnesaren eragin azkarrari: 1) bokal sudurkari “berriak”, erran nahi baita hitz bukaerako *-ĩ & -ũ (latĩ, sasũ)*; eta 2) txistukari ahostunak.

Izenaren morfologian bi alor ikertu dugu: batetik kasu sistema, eta bestetik eratorpenezko zenbait morfema. Kasu sistemaren azterketa aski zabala egin nahi izan dugu. Hastapen batean irizpide morfologiko hutsetik abiatu gara, nolabaiteko aldakortasuna erakusten duten kasu-marken azterketa pribilejiatuz. Bigarren fase batean, irizpide semantikoa ere baliatu zaigu, marka horien balioei arta emanez. Hortaz, mota bateko edo besteko kanbiamendurik obratu den kasuen zein markentzako azterketari lotu gatzazkio. Labur erraiteko, datiboaren adierazpenean ez badugu aldaketarik sumatzen —komunztadura fenomenoek landara—, ez ditugu datiboaren edo haren markaren ikertzearen urratsak abiatu.³³ Eratorpenari dagokionez,

³³ Hemen gaztigu bat egin behar da. Dударik gabe, erran daiteke Zuberoan datiboaren markek ez dutela aldaketarik jasan, bederen aldi historikoan: singularrean beti *-ari*, eta pluralean *-er*. Gure corpusa Zuberokoa izanik, konstatazio horretaraino baizik ez dugu heltzen ahal izan. Pluraleko markei dagokienez, aldiz, Zuberoa gaintzen duen eremu batean badateke zer aztertu. Jakin badakigu XVI. mendean datibo pluralaren *-er* atzizkia, Leizarragaren hitzetan, *Çuberoa eta aldirietan* baliatzen zela (1571: 1214). Kontua, hain zuzen ere, *aldiri* horien definitzea litzateke, batez ere ikuspegi diakronikoan. Caminoren arabera (2011: 123), *-er* ondokoetan usatzen da: “Zaraitzu-Erronkari, Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko ekialdean”. Marka horrekin batean, Lapurdin *-ei*

zaticako ikertze bat egin dugu, mailegatuak diren morfema multzo baten agerpena aztertuz: *arra-* aurrizkia, gehi *-aje*, *-dant / -lant*, *-ot* eta *-sa* atzizkiak.

Aditz sistemarena izan da ikerketaren atalik zabalena, eta horregatik tesi honen hiru kapitulu eskaini zaizkio. Ezaugarri dialektalei lotzen zaien ikuspegia baino, sistema osoaren ikuspegia baliatu zaigu. Lehen partean, aitzineuskaratik datozkeen ezaugarri morfologikoak hautatu ditugu (**e-* aurrizkiaren iraupena eta **ra* morfema kausatiboa), gehi forma jokatu gabeen bilakaerei lotu hainbat ezaugarri eta fenomeno. Bigarren partean, forma jokatu gabe aztergaiak bildu ditugu. Azkenik, hirugarrenean modua eta modalitatea landu dugu (ahalezkotasuna, aginduak, agiantza eta baldintza).

Azkenik, syntaxiko gai batzuk ikertu ditugu, mota bateko edo besteko interesa zutelakoan: ala kasu sistemari estuki lotuak ageri direlako (*barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioekiko egiturak); ala deskribatu gabe zeudelako (subjektu iragangaitzen genitiboa), ala ukipen fenomenoek sorraraziak direlako (zubereraren formula aurkezlea).

Zilegi bekigu erraitea, atal honen hesteko, hainbat ezaugarri konkretutarik abiatuta ere, azkenean sistemaren ikuspegia gailendu zaiola zaticako azterketari. Kasu batentzat, **iron* aditzaren formen berri eman zitekeen, baina horrek ez luke zentzu handirik **ezan* aditzarekiko lehiaz arranguratu ez bagina. Orobat erran daiteke Zuberoako formula aurkezleaz: Euskal Herri osokoak diren aurkezleen azterketari lotu gabe herren geldituko zen; edo kasu-marka baten edo bestearen bilakaeraz: azkenean soilik ikuspegi sistematikoago batetik egon gaitzke fenomenoen behar bezala konprenitzeko maneran. Seguruenik, ezaugarri guztiak ez dira sakontasun maila berarekin jorratuak izan; hala eta guzti, lanaren emaitzek Zuberoako euskararen bilakaeraren berri egokia eman dezaketelakoan gaude.

2.2.2. Ezaugarri bakoitzaren aurreko ezagutza

Behin hizkuntzaren azterketa egituratu behar duten ezaugarrien multzoa definiturik, bakoitzean aitzinetik erran direnak bildu ditugu, halako *status quæstionis* laburra eginez. Bistan denez, puntu honetan euskalaritzaren tradizioa jaso dugu, baina ez bakarrik: beharrezkoa izan denean, nazioarteko literaturara ere jo dugu.

& *-erri* ere ezagunak dira. Hazpainen ca. 1750ean datatu dugun izkribu batean hiru markak gertatzen dira, *-erri* nagusi delarik (Padilla-Moyano 2011: 41-42). Hiru aukeren erlazio etimologikoa ez da garbia; halaber, Iparraldeko mintzoak besarkatzen dituen eremuan, marka horien arteko lehia deskribatzeke dago.

2.2.3. Corpusaren ustiakuntza

Honainokoa sumatzen denez, gure lana gobernatzen duten irizpideetarik bat da osotasunarena, bi parametrotan ulertua: a) mintzoaren atal gehientsuenen aztertzea (cf. I, § 2.2.1); eta b) azterketa ahal bezain corpus zabalean oinarritzea (cf. I, § 3). Bada, osotasun hori datuetan ere xerkatu nahi izan dugu: inpresionismotik urruntzeko, ezaugarri bakoitzaren barnean aztertu beharreko aldagai bakoitzaren agerraldi kopuruak idoki dira —absolutuak eta erlatiboak—. Hau da, lekukotasunak “mintza” daitezen utzi dugu.

Hemen preseski aipatu nahi dugu baliatu zaigun beste irizpidea: jatorrizko grafiarekin lan egitea —corpusaren deskripzioan zehaztuko da zein kasutan ez garen irizpide horren pean aritu—. Bilaketak korapilatu arren, bistan denez, grafia originalen errespetuak bestelako abantailak eskaintzen ditu.

2.2.4. Beste mintzoezko konparantza

Hizkuntzaren azterketan gaindi, hainbat ezaugarritan Zuberoako corpusaren xeheki ustiatzea ez da aski, maiz ezaugarri horien isoglosak eremu zabalagoak direlako. Zuberoatik kanpoko datuen premia, oro har, bi neurritan sentitu dugu: a) batzuetan, ekialde zabalagoko ala hertsilagoko mintzoetara jotzea aski izan da; b) besteetan, euskalki guztietako testigantzak bildu ditugu —normalki aztergaiaren izaera orokorra gogoratzeko aski den berria ekarriz, baina zenbaitetan bere osotasunean ere (adibidez optatiboan)—. Zeregin honetan, gure deskripzioaren osatzeko beste ikertzailearen lanetara ere jo dugu (Mounole 2011, adibidez).

Normala denaz, Lapurdiko tradizioko testuen datuak ohikoak dira tesian zehar. Euskara Arkaikoari pentsa, ezin ahantz Etxepare eta Leizarraga, biak ekialdekoak —hainbat ezaugarritan haien datuak ekarri ditugu—; XVIII. mendeko erreferentzien artean Lopezen itzulpena erabili dugu (Camino 2013). Zenbait ezaugarriren azterketan, Maisterren *Imitacionia* Iparraldeko beste lau itzulpeni erkatu diogu (Pouvreau, Arambillaga, Chourio eta Inchauspe); hori ez ezik, latinezko originalarekin eta ingelesezko bertsiio batekin ere konparatu dugu.

Azkenik, delako fenomeno baten aitzinean, corpusean bildu ez ditugun Zuberoako testu berriagotara ere jo dugu (*Eskualduna* agerkaria, pastorgintza modernoko testuak, etab.); datu dialektologikoren bila, halaber, *EHHA* eta *Norantz* proiektuaren datu basea baliatu zaizkigu. Egungo zubereraren datuen berri jakiteko, Maider Bedaxagarren eta Argitxu Camusen urgazgoa gauditu dugu.

2.2.5. Taulen eratzea

Datuen oihana goitik ikusteko, eta irakurleari lagungarri zaiolakoan, azterketatik idoki zifrak taulatan antolatu ditugu —ehun eta hogeitik goiti taula—. Aurkezteko molde hori bereziki egokia gertatzen da mintzo bateko baino gehiagotako joeren konparantzan, edo lehian diren bi aldagairen artekoan. Tauletako hurrenkera irizpide nagusia kronologikoa da, eta printzipioz corpus osoa ordezkaturia izaten da —batzuetan soilik delako ezaugarria lekukotzen duten lekukotasunak sartu ditugu, baina betiere corpus osoan xerkaturik—. Finean, herri tradizioko lekukoak ilunduxe agertzen dira, irakurleak literatur tradiziokoetarik aise bereiz ahal ditzan.

2.2.6. Azalpenen xerka

Corpusetik idoki datuen interpretatzean, hizkuntzalaritzaren tresna ohikoenak erabili ditugu: tipologia, gramatikalizazioaren teoria. Horiei beste bi esparrutako ezagutzak gaineratu dizkiegu: soziolinguistika historikoarenak eta, modu berezi batean, hizkuntz ukipenaren gainekoak.

Hizkuntzalaritza orokorrari lotuz, tipologiaren laguntza ere aipatzea komeni da. Azken hamarkadako euskalaritzak haren beharra barneratu du (Lakarra 1995, 2006a, 2006b, 2008a eta ondokoak; Martínez-Areta 2009; Igartua 2002; Mounole 2012; Manterola 2015). Ahaide ezagunik gabeko hizkuntza baten kasuan, tipologiak munduko hizkuntzen unibertsalen, joeren eta murriztapenen berri ematen digu, diakronistek formula ditzakegun hipotesien aitzinean guztiz kontuan hartzekoak. Tipologiari uztartua, gramatikalizazioaren teoriak (Meillet 1912; azken hamarkadetan berpiztua, cf. Heine & Kuteva 2002) aitzinamendu handiak ekarri ditu hizkuntzalaritza historikoan, eta emankor gertatu da gurean (bereziki Lakarraren bulkadari esker); hizkuntz aldaketaren mekanismoen funtzionamendua eta osagai linguistikoen bilakaera hobeki konprenitu da.

Ezaguna da euskara bezalako hizkuntza bakartu batean, hizkuntz ukipen fenomenoaren azterketaren premia areagotzen dela. Nolabait, euskararen ahaide ezagun mentsaren desabantailak pittin bat konpentsa daitezke inguruko hizkuntzekiko ukipen sakon eta iraunkorren ezagutzaz. Azken bi mila urteetan euskarak latina eta inguruko erromantzeekiko hunkitze etengabea iraun du, eta hortxe datza euskararen bilakaeraren konprenitzeko gako nagusietarik bat. Erran gabe doa, ukipen egoerak biziki azkarrak izaten dira bazterreko mintzoetan, Zuberoako euskara lekuko (cf. ATALASEAN, § 3.4.4.6). Zuberoako euskararen ezaugarrien azterketak agerian utziko duenez, ukipen azkar horiek hizkuntza hartzailearen

hiztunen arteko elebidun gradu altua ekartzen ohi du, eta aldaketak hizkuntzaren egituretan (Thomason & Kaufman 1988: 50).

Gehiago dena, Zuberoan hizkuntzen arteko ukipen egoera konplexua izan da, bi hizkuntza baino gehiagoren bidegurutzean baita. Hortaz, zuberotarrek —azken mendeetan bederen— komunitate eleaniztuna osatu dute (Padilla-Moyano 2017a & 2017c). Horregatik guztiagatik, (hizkuntzaren) garai historikoko Zuberoan populazioaren zati bat gutxienez elebidun izan delako hipotesiarekin lan egin dugu. Izan ere, historian eta munduan zehar inon ez da elebakartasuna *par défaut* egoera izan, ez eta, kontrako irudia hedatu den arren, Europan ere (Braunmüller & Ferraresi 2003). Bistan da, historian euskaraz idatzi dutenak populazioaren zati gutxienez elebidun horretakoak izan dira, eta horrek ondorioak eragin ditu, ezinbestean, idatzizko ekoizpenean —izan dadin itzultzean oharkabean itzurtzen diren mailegu eta kalkoak, izan dadin idazleek beren idazkiari jasotasuna emateko nahita egiten dituztenak—. Beraz, ukipen fenomenoaren ulertzea beharrezkoa da hizkuntzaren bilakaeraz jabetzeko, azken urteetako literatura emankorrak erakusten duenez (Matras & Sakel 2007a; Comrie 2008; Sigmund & Kintana 2008; Laakso 2012; Gardani, Arkadiev & Amiridze 2014).

Aitzineko ideiak beste alor batera igortzen du: soziolinguistika historikora (Schneider 2002; Hernández-Campoy & Conde-Silvestre 2012; Schendl 2012), eta zehazkiago hizkuntzaren historia *behetik* deitu izan den hurbiltzea (*language history 'from below'*; cf. Elspaß, Langer, Scharloth & Vandenbussche 2007; Elspaß 2012; Van der Wal 2007; Van der Wal, Rutten & Simons 2012; Van der Wal & Rutten 2013), gizarte maila ertain eta apaleko kide gutxi alfabetatuek idatzi dokumentuak —eta bereziki *ego-dokumentuak*— iturri gisara abantailatzen dituen, iraganeko ahozko mintzotik hurbilena baita. Bistan denez, Zuberoako euskararen corpusak ez du *behetiko* hurbiltze horren abantailatzea ahalbidetzen, ez baitauka gizarteko maila apaleko jendakien idazkirik, eta are gutxiago ego-dokumenturik. Haatik, *Le Dauphin* gutuneria bezalakorik ezean (Lamikiz, Padilla-Moyano & Videgain 2015), tesi honetan euskal dialektologia historikoan ongi errotua den bereizkuntza gogoan erabiltzen dugu, hots, idazle jaso vs. idazle xumeen artekoa (Camino 2003), ondorioak dakartzana testuen izaera erlatiboki diatokipoan (Camino 2009a: 313-318): batzuk ezaugarri translektalen islatzeko ekarriagoak, eta besteak tokiko ezaugarrietarik hurbilago; cf., halaber, testu dialektalak vs. ez-dialektalen arteko oposizioa (Ulibarri 2015: 60-65).

Iragan lekukotua erlatiboki laburra duen mintzo baten historiaren egiteko tenorean, zenbait saio eredugarri iruditu zaigu. Hasteko, Sauvageoten lan klasikoak, hungarieraren (1971) eta finlandieraren historiaz (1973), erreferentzia ditugu. Hizkuntza horiek familia ezagun bateko

kideak izanik ere, manera berezian finlandieraren historiatik nolabaiteko paralelismorik atera dezakegu euskararentzat: lekukotasun luzeak XVI. mendean hasten dira, eta estandar batuaren ezak bidea markatzen du. Hizkuntza zeltikoei begira, Zuberoako euskararenari pareka dakiokkeen *corpusa* duen Man Uharteko gaelikoari begiratu diogu —*gaelg vanninagh*, ingelesez *manx* eta euskaraz *manxera*—: Wheeler hizkuntzalariak azken urteetan egin dituen ikerketek (2015 & 2016), lan filologiko sakonean oinarrituek, gure ustez barietate horren iraganaren (*Classical Manx*) deskripzio kanoniko gisara irauen dute.

Euskalkikako deskripzioak direnaz bezainbatean, eta barne historiaren ikuspegitik, Bizkaiko Euskara Arkaiko eta Zaharraren gaineko lan jada klasikoa dugu (Lakarra 1986); bi hamarkada berantago, hainbat ezaugarritan oinarritutako azterketa sistematikoa egiten ari da (Zuloaga 2017). Ekialdeko mintzoen iraganaz, ezinbestekoak ditugu Caminoren lanak, hego nafarreraz (2003a & 2003b), Nafarroa Behereko euskara zaharraz (2008) eta ekialdeko barietate multzoaren iraganaz (2011). Azken urteetan lan filologikoan oinarritzen diren eremukako azterketak burutzen ari dira, hala Aiaraldeko euskara galduaz (Ulibarri 2015) nola Nafarroa Garaiko mintzoen iraganaz (Reguero 2017). Beste molde bati jarraikiz, lapurtera klasikoaren ondoko tradizioaren ikertze saioa aipatu behar da (Pikabea 1993). Horietan guztietan atzeman dugu zer ikas.

Azken finean, tesi honek tradizio filologikotik zein egungo hizkuntzalaritzatik edaten du. Zentzu horretan, ez du halako berrikuntza metodologikorik egiteko xede. Ekarpen metodologikorik egin behar badu, lan filologikoaren sakontzean dagoke: Zuberoako euskara zaharraren corpus ahal bezain zabala osatzen, testuetara ahal bezain leialki hurbiltzen, eta haien ustiakuntza ahal bezain zorrotz eta sistematiko egiten ahalegindu gara.

3. Corpusaren deskripzioa

3.1. Corpusaren mugak

3.1.1. Denbora eta espazioa

Tesi honen izenburuak adierazten duenez, gure xedea Zuberoako euskararen bilakaeraren berri ematea da, XVI. mendetik XIX.era arte, hots, hizkuntzaren iragan *historikoa* deskribatzea. Corpusaren lehen lekukotasunak, beraz, tamaina bateko lehen testuak dira, XVII. mendean idatzi zirenak, haietako batzuk —atsotitz bildumak— lehenagoko hizkuntza egoeraren isla diratekeela ahanzi gabe (§ 3.3.4.1). Corpusaren hestea XIX. mendearen azken partean erabaki dugu, batez ere ondoko bi arrazoiengatik: i) Zuberoako euskararen bilakaera

“naturala” deskribatzekotan, Bonaparteren garaiko arauemaileen idazlan *kontzienteenak* kanpo utzi ditugulako; eta ii) egungo eta, oro har, XX. mendeko *zuberera* egoki deskribatua izan delako (Larrasquet 1939; Lafon 1958, 1959 & 1963; Haritschelhar 1969; Oyharçabal 1991). Ondorioz, garai horretan azaleratzen den *zuberera* arautuago, *xahüzaleago* den hori corpusetik kanpo utziko dugu, bai eta, maila apalago batean, garaikideak diren almanakak. Hori guztia kontuan izanik, corpora hesten duten lanak Anna Urrutyren itzulpenak,³⁴ *Sen Grat* testu laburra (1879) eta *Catuchuma españoul* itzulpen argitaragabea (1899) dira, azken biak ahoskeratik biziki hurbilak iruditu zaizkigulako, menturaz orduko hizkuntzalarien eragipenetik askeago idatziak izan baitziren.

Corpusaren geografia mugei dagokienez, Zuberoarenak dira: Zuberoko testuak edo bertan sortu diren idazleenak, printzipioz guztiak corpusean sartzeko hautagai gertatu dira. Bistan da, horrek ez du kentzen Zuberoatik kanpoko testuekin ere lan egitea (§ 2.2.4).

Azkenik, testuen izaerari begiratu gero (§ 3.3.4), idatzizko tradizioko testuekin osotasunaren irizpidea baliatu zaigu —edo behintzat osotasunetik ez urruntzearena—. Ahozko literaturaren tradizioa, ordea, kasik zurtz uzteko erabakia hartu behar izan dugu: erran zaharren bildumak corpusean sartu ditugu, baina ez baladak eta ipuinak; ahozko transmisioetik jasoa den Etchahunen lirika ere sartu dugu. Herri antzertiari doakionean, corpusaren egoerak ez du exhaustibotasuna bideragarri egiten, eta testuen hautapen bat egin behar izan dugu. Laburbilduz, diseinatu dugun corpusak Zuberoako tradizio idatzia ia osorik hartzen du bere baitan, eta herri tradizioaren zein herri antzertiaren ordezkapen bana proposatzen du.

3.1.2. Etchart, Zalgize, Oihenart, Tartas... eta Archu

XVII. mendeko idazle zaharrenek maiz Zuberoan guztiz ezezagunak diren ezaugarriak, bai eta ezaugarrien konbinazioak ere, ematen dituzte: hizkuntzaren azterketan zehar ikusiko denez, Etchart, Zalgize, Oihenart eta Tartas hein handi batean corpuseko gainerako lekukotasunen datuetarik urruntzen dira. Izan ere, haien testuetan Zuberoaz kanpoko idatzizko eredu baten

³⁴ Anna Urrutyk (1826-1900) lehenagoko euskara zaharrago, tradizioari lotuago denaren eta arauemaileek moldatuago, eta garbizaleago denaren artean koka dezakegu, biografia mailan ere. Urrutyk gazterik utzi behar izan zuen Zuberoa. Sehaskako mintzoa atxikiko zukeen, haren bizitzako proiektu nagusiari ekiteko, hots, Jainkoaren hitzaren euskaldunentzat eskuragarri eta konprenigarri errendatzea. Aldi berean, Urrutyk Vinsonekin, Archurekin eta Bonaparte printzearekiko elkarlanean aritu zen. Ezaguna da Bonaparteren iritzia, Anna Urruty zubereraren eredutzat jotzen baitzuen Archuren aitzinean.

zantzuak sumatzen ditugu —edo, behintzat, Zuberoa gainditzen zukeen eredu batenak— (cf. § 3.3.4.3).

Beharbada kasurik begien bistakoena Tartasena da, bere hizkuntz hautuez idatzi zuelako; zehazki, honela deskribatu zuen bere euskara: “badu orotaric çerbait, çuberoac, Bassanauarrec, eta lapurdic emandrauco çerbait, baina ez oro, aruen eguindut neuré peça pobria” (*Onsa* 6). Darricarrèrek *Onsaren* testua aztertu zuen, amikuzera zela ondorioztatu: “Or le langage qu’il ne nomme pas, quoi qu’il l’ait catégoriquement mis à part, et en dehors des dialectes qu’il dénomme, c’est à coup sûr celui qui est encore usité dans le ci-devant pays de Mixe” (1911: 16; hurrengo orrialdeetan bere hipotesia sustengatzen duten datuak iruzkintzen ditu).

Etcharti doakionean, ez ditugu haren hizkuntz ideiak edo haren hautuen arrazoiak ezagutzen, baina zernahi gisaz giro jakin batean kokatzen da: Zalgizen, Tartasen eta Oihenarten munduan —azkenaren aita ordea izan zen, gainera—. Idazle hauek, bada, Maule aldeko handikiak ziren, zeinentzat Lapurdiko tradizioa erreferentzia bide baitzen idaztean —edo, agian, Zuberoa gainditzen zuen idatzizko usantza orain ezezagun bat—.

Zalgizeren erran zaharren zuberotartasuna denaz bezainbatean, hona Sarasolaren hitzak:

A pesar del propósito claro de atenuar algunas particularidades suletinas que puede apreciarse en la grafía de los refranes de Sauguis, hay ciertos detalles que evidencian el origen del autor más claramente que en el caso de Oihenart, pero no tanto como en el de Bela. (*Contr* 187)³⁵

XIX. mendean antzeko zerbait gertatzen da beste autore batekin: J. B. Archu. Bere garaian zubereraren tradizioa egina eta finkatua izan arren, Archuren proiektuak bestelako eredurik behar zuen: Peillenen hitzetan, haren *Aleghiak* (1848) zubereraz baino gehiago “Iparraldeko koine” batean itzuliak lirатеke (1992a: 93). Ondoren, Archuk *uskalherrietaco haurrentzat* egin zuen bere gramatika (1852). Gure ustez, Archuren lana ez da behar bezala balioetsi, *zuberotar* batengandik *zubereraz* idaztea igurika baizik ez bageneza bezala, eta ez Euskal Herriko eskoletan erabiltzeko hizkuntza batuago baten oinarrien funtsatzea.

³⁵ Sarasolak honako ezaugarri grafikoekin argudiatzen du bere baieztapena: i) bost bokaleko sistema; ii) Oihenartek ez bezala, *e + a > ia* bilakabidea islatzen du; iii) *u + a* bilkura hiru itxuratan ematen du Zalgizek: *üa*, *ua* & *uia*, hautua sistematikotasunik gabe gertatzen delarik; eta iv) hasperena ekialdeko arauari lotzen zaio, Oihenartengan mendebaldekoa sumatzen denean (*hoin*, *hon*, *humia* vs. *oin*, *on*, *umea*).

Hori guztia erranik, gure erabakia izan da Etchart, Zalgize, Oihenart, Tartas eta Archu corpusean sartzea. Batetik, haien testuak ez-dialektal kontsidera badaitezke ere, haietan *Zuberoako euskararik* ere badatekeelako; bestetik, soilik testuetan datzanaren ikertze eta erkatze sistematikotik —eta ez hamaika aldiz errepikatu ideia demostratugabeetatik— ezagut dezakegulako egile horiek zein neurritan besarkatu zuten kanpoko eredu bat, eta zeinetan islatu Zuberoako euskara.

3.1.3. Corpusetik kanpoko testuak

3.1.3.1. Testu galduak

Vinsonek egun —eta zenbaitetan orduan ere— galduak diren Zuberoako testuen berri ematen du. Haien aipamen bedera egin nahi genuke, corpora noizbait osatua izanen delako esperantzan. Lehenbiziko testu galduaren berri Belapeirek ematen digu, berearen aurretik egin zen katixima baten aipatzean. Vinsonen bibliografian 41. erreferentzia dagokio: “catéchisme en souletin, 1686”. Hona pasarte, informazio zehatzagorik ez emana halako induljenziaz justifikatuz:

Eta amorecatie uscaraz onsa ecin minçatciaren penac guibel etcitcen, ez herabezi: nola ere haboroec ezpaitucie hon ediren herri hontaco Apez gazte batec gutiz honat uscarala utçuli dian Catechima, eta ezpaitciereye hartçaz cerbutchatcen: Segur ere baita, eçagutcen ezpagunu haren eguiliac Teologian iakite cian beno guehiago, onsa eguin nahia Ciala, Justicia garratcian ediren gunukiala, haren lanaren bai Doctrinan, bai uscaran hitz gogor, baita houx ouste gabian eguin dutian hanitz; çoin hontarçunez orai guehiago aipatu gabe uzten baitutugu, bere lanian bere icena gorde diana, damu gutiagoreki bara dadin. (Bp I 20-21)

Ene adisquidia, haur duçula helcen mementoua cein baitouha Eternitate battetara... Eta orai berri Salaber, Haurec imprima eraciriq (J. P. Vignancourt, Paue, 1783). Vinsonek bigarren argitaraldi baten berri ematen du (122.b), aitortuz horren alerik ez duela ikusi; beraz, konpreni dezakegu lehen edizioko alerik bai ikusia zuela. Guk ez dugu inon atzeman.

Eguiateguyk aipamen berezia merezi luke: haren izkribuetan *liburu hirurguérréna* deitu zuena, *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* izenburua zukeena, “Pauen 1782. urtean argitaratu behar zena, J.-P. Vignancourt-en moldizkidian” (Peillen 1983b: 13) egun galdua da;

haatik, 1960. hamarkadan Gizpuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegira iragan omen zuen³⁶ —guk ezin izan dugu aurkitu—. Azken buruan, Juseff Eguiateguy hunkitzen duen orok misterioz inguratua dirudi; guk ezin baikenezake Mitxelenak baino egokiago adieraz, hona haren hitzak, *liburu hirurguérréna* delakoaz mintzo:

Irakurleak ikusi duenez, D. Peillenek, ehiztari ernearen antzera, euskal idazle ezezagun baten aztarnak aurkitu ditu. Berak aurkitua, hain zuzen ere, hemen agertu zaigun beste misterio ilun baten gainera dator, hori argitzeko beharbada, are ilunago bihurtzeko agian. (Mitxelena 1963b: 78)

3.1.3.2. Corpusean sartu ez ditugun testuak

Puntu honetan Zuberoako euskara historikoaren corpusean, arrazoi batengatik edo bestegatik, zein testu ez dugun sartu ere esplizitatu nahi genuke. Erran gabe doa, erabaki horrek ez dakar testu horietara jotzeko debekurik, komeni izaneren delarik.

Gorago erran bezala, *zuberera idatziaren* tradizioan —nahiago bada *literatur zubereran*— XVI, XVII eta XVIII. mendeetan osotasunaren irizpidea baliatu zaigu; aldiz, XIX. mendean testu kopurua aski emendatzen da, eta zenbait testuren corpusetik kanpo uzteko deliberoa egin dugu. Halaber, herri antzertiaren tradizioko testuekin ere hautapen bat egin behar izan dugu, gainerakoak corpusetik kanpo utziz.

Corpusean sartu ez dugun testurik zaharrena Mongongo Dassançaren liburuaren zubererazko moldaketak dira, Urkizuk (1999) argitaratuak. Testu hauen datazio eta egiletasun egozpen

³⁶ “Donostiako Aldundegi liburutegirako Gotzon Irigaray euskaltzain jaunak Eguiateguyren *hirugerren libüría* eroserazi zuen; etxe-ekonomiazko lana da *Aberastarziün güzien giltz bakhoitza*, Pauen 1782. urtean argitaratu behar zena, J. P. Vignancourt-en moldizkidian” (Peillen 1983b: 13). Lino Akesoloren artikulua batean, Mitxelenaren ondoko ohar argi emangarria txertatua da:

ACLARACION. A propósito del ms. de Juseff Eguiateguy titulado *Aberastarzun gussién guils bakhoitza*, *liburu hirurguérréna*, que se encuentra actualmente en la Biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa, me permito agregar unas indicaciones a las que en su muy erudito artículo hace el Padre Aquesolo. Mis noticias son que fue precisamente don Angel Irigaray quien señaló su existencia y es por eso mismo la persona más autorizada para puntualizar cuál puede ser su procedencia. Mi intervención personal no pasó en todo esto de haber mencionado que el tal ms. existía, cuando Dominique Peillen dio noticia de que, en la Bibliothéque Nationale de París, hay también, entre los donativos de d'Abaddie y de Hérèlle, otra obra, al parecer inédita, del mismo autor, cuyo título es: *Filosofo huscaldunaren ekheia*, y en la que se menciona como trabajo anterior el *Aberastarzun gussién guils bakhoitza*. Las observaciones de Peillen, con algún añadido mío, pueden leerse en *Egan* 1963, 1-3, p. 75-81 (Mitxelena, in Akesolo 1964: 364).

okerren zergatien berri jakiteko, ikus Peillen 2001. Azkenean, Peillenek (2016) Dassançaren testuaren eta horren zenbait bertsioren —zubererazkoak ala ez— edizioa argitaratu du.

Juseff Eguiateguy idazle ezohikoa dugu Zuberoako euskal literaturaren historian. XVIII. mendearen azken partean *Zuberoan errejent* izan zen honek —ala baitio bere lehen liburuaren hastapenean— zenbait lan idatzi zuen. Eguiateguyren izkribuen parterik handiena *Bibliothèque Nationale de France*-n gordetzen dute, D'Abbadie funtsaren 155. zenbaki pean. Azken hamarkadetan *Filosoffo-Huscaldunaren Ekheia* izenburu duena argitara emana izan da, bi partetan (Peillen 1983b & 2011), zeinetarik lehena baizik ez baitugu corpuseko hautatu —egiazki filosofiaz mintzo den bakarra; “bigarren liburua” puska ezberdinez osatua da—. Goraxeago erran bezala, Eguiateguyren egitasmoak beste testu bat du: *Aberatztarzun gussién guils bakhoitza, liburu hirurguérrena* (cf. § 3.1.3.1).

XIX. mende erditsuan bada obraño argitaratu bat, *Mariaren haiürren Congregacioneco Erreglamentia* izenburukoa (ca. 1850) (Vinson 250). Lau orrialdeko testu hori Azkue Bibliotekan dago (IZK.: 46062). Guhaurrek transkribatu arren, ez dugu corpusean sartu: ezaugarri berezirik gabekoa izanik, eta XIX. mendeko testu inprimatu gehientsuenak jada sarturik, haren sistematikoki tauletan agerrarazteak ez luke deus handirik ekarriko. Munta handiagoko beste lan bat ez dugu sartu, haren generoa corpusean deja ongi ordezkatua delakoan: *Cantica espiritualac* (Foré eta Lasserre, Baiona, 1846); testu hori lapurterazko *Cantica izpiritualac* ezagunen moldaketa da:

Recueil formé d'après les précédents ; il est en dialecte souletin. Ce recueil comprend des morceaux de divers auteurs et de diverses époques. Il y a quatre *Noëls* d'Etcheberri (n° 15 ci-dessus : les premier, troisième, onzième et douzième), un *Noël* de Gazteluçar (n° 39), corrigé par M. Larreguy, curé de Bassussarry (n° 114), le sixième, etc. (Cf. Fr. Michel, *Le Pays basque*, 1857, in-8°, p. 503-507). (Vinson 100.y)

Beti XIX. mendean, Zuberoan Inchausperen obra da egile bati egotz dakioken zabalena. Haren ekoizpenean hiru garai nagusi bereizi beharretan gara: goiztiarra, Bonaparte printzearekiko elkarlanari dagokiona eta berankorra. Hortaz, haren bi testu hautatu ditugu corpusean sartzeko: bat garai goiztiarrekoa eta bestea Bonaparteren garaikoa (*Kurutchiaren bidiaren debocionia* eta *Iturriagaren Elhestaldiak*, hurrenez hurren), gainerakoak kanpo geldituz, haien artean:

- *Doctrina cristiana en el dialecto suletino de Tardets* eskuizkribua (ca. 1850; Echegaray 1983 § 266). Asteteren dotrina, Bonaparterentzat itzulia, hurrengo bezala.

- *Doctrina cristiana en el dialecto suletino de Barcus* eskuizkribua (ca. 1850; Echegaray 1983 § 267).
- *Jincouac guiçonareki eguin patoac, edo eguiazco religionia* (Foré eta Lasserre, Baiona, 1851). Bigarren argitaraldian izenburua aldatu zen: *Uscaldunaren laguna, edo escuco libria* (Foré eta Lasserre, Baiona, 1852). Bosgarren ediziotik aitzina, beste aldaketa bat izenburuan: *Uscaldunaren guthunac. Edicione berria, arrahoukirc eta emendaturic* (Lamaignère-ren alarguntsa, Baiona, 1866). Idazlan horrek ikertze berezi bat merezi luke.
- *Le Saint Évangile de Jésus Christ selon Saint Mathieu traduit en basque souletin par l'abbé Inchauspe, pour le prince Louis-Lucien Bonaparte.* (Lamaignère-ren alarguntsa, Baiona, 1856).
- *Canticum trium puerorum in septem praecipuas vasconicae linguae dialectos versum* [zubererazko bertsioa] (Londres, 1858).
- *L'Apocalypse de l'apôtre saint Jean, traduit en basque souletin* (Londres, 1858).
- *Jesu-Kristen imitacionia / Zuberouco uscaralat utzulia* (Lamaignère, Baiona, 1883).
- *Maria Birjinaren Hilabetia edo Mayatzian egun oroz egiteko irajournaldiak Maria Virginaren bizitze etea berthute ederren gainen* (Vignancour, Paue, 1894).

Bonaparte printzearentzat lan egin zuen beste idazle zuberotar bat dugu J.-B. Archu. Haren izena Lafontaineren alegien itzulpenarekin ordezkaturia da gure corpusean, baina haren beste itzulpenak kanpo utzi ditugu, orduko hizkuntzarekiko hartzen duen distantziagatik; zirkunstantzia hori Printzeak idatzitako gutunetan aipatzen da.³⁷ Itzulpenez gain, Archuk

³⁷ Archuren eta Bonaparteren irizpide arras desberdinez, ikus Cid 2010. Ezaguna da Bonapartek ez zuela sobera estimatzen Archuren euskara idatzia, ez baitzatekeen zuberera *pürü*; hona 1889ko otsailaren 8an sinatutako gutunaren bi pasarte [in *Gure Herria* 1928, 427-429]:

“Je commence donc pour vous dire que M. Archu dans ses traductions emploie toujours *zien* pour *zian*, ainsi que *zutien* pour *zutian* [...] ; de même qu’il emploie *zuten* pour *zien* et *zituzten* pour *zutien* [...], et ainsi *dagouen*, *nayen*, etc., pour *dagouan*, *nayan*, etc. Ou je me trompe fort, ou M. Archu s’est amusé à mêler les dialectes, chose que, pour mes études, j’abhorre comme la peste, ainsi que les archaïsmes et les mots (d’origine basque ou non) qui ne sont pas en usage général dans le dialecte littéraire dans lequel on écrit.” (Bonaparte 1928 : 427-428)

“Je pense que M. Archu n’emploie pas, du moins dans ses terminatifs, un souletin pur ; car ils ne sont pas toujours ceux que nous avons recueillis ensemble en Soule, ni ceux de votre *Verbe*, ni ceux de Mlle Urrutz [sic], employés dans la traduction de l’Evangile de Saint Jean et des trois lettres de Saint Pierre, ni ceux enfin, de Mrs Abbadie et Chaho.” (Bonaparte 1928: 429)

Kantu patriotikak liburuxka argitaratu zuen (Lasserre, 1848), bai eta euskaraz osoki egindako gramatika bat, bigarren edizioan elebidun atera bazen ere. Hona corpusetik kanpo utzi ditugun Archuren lanak:

- *Bi sos. Kantu patriotikak* (Lasserre, Baiona, 1848).
- *Uskara eta franzes gramatika uskalherrietaco haurrentzat eguina* (Lasserre, Baiona, 1852).
- *Ruthen libria, Salomounen kantiken kantika & Jonasen libria* (Baiona, 1888).³⁸
- *Daviden gorantzak edo psalmiak* (eskuizkribua, Nafarroako Agiritegian).
- *Moisasen lehen libria Jenesa deithia* (eskuizkribua, Nafarroako Agiritegian).

Azkenik, Sallaberry mauletarraren lanak ere ez ditugu corpusean sartu. Haren *Chants populaires du Pays Basque* (Lamagnière-ren alarguntsa, Baiona, 1870) liburuan bildu kantuek³⁹ ahozko tradiziori lotu arazoak pausatzen dizkigute, funtsean datazioaz inprimatzeko prestatzerakoan erantsi/kendu diratekeen ezaugarriez. Sallaberryk badu oraino beste testu bat, politikaz, corpusean sartzea mereziko lukeena, baina horretarako berantegi eskuratu duguna: *Uskalduner!* (Garet, Paue, 1889) (Vinson 670), Berdoly hautagai errepublikazalearen alde.

3.2. Lekukotasunen zerrenda eta iruzkina

3.2.1. XVI. mendea⁴⁰

[Buru bakoitzean, letra beltzez, testua identifikatzeko baliatu laburdura datza]

Lç: “Çuberoaco Herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac”, in Johanes Leizarraga, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria* (Pierre Hautin, Arroxela, 1571).

Izan ere, Printzeak bestelako eredurik zuen zuberera *garbiarentzat*: “Bonaparte, en su carta a Inchauspe de 8 de febrero de 1889 menciona estas dos obras de Anna Urruthy como modelos de suletino” (Arana Martija 1991: 285).

³⁸ Jon Bilbaoren arabera, liburu hau Londreseko Biblia Elkarteak argitaratu zuen. Bonapartek Anna Urrutyren lagunza izan zuen; halere, Printzeari emaitza ez bide zitzaion gustatu (Arana Marija 1991a: 150).

³⁹ 50 kanta, zeinetarik 31 Zuberoakoak baitira, eta 19 Lapurdikoak edo Nafarroa Beherekoak.

⁴⁰ XVII. mendean bilduak izan arren, Belaren, Zalgizeren eta Oihenarten atsotitz bildumak XVI. mendeko lekukotasunen multzoan sartu ditugu, haietan Euskara Arkaikoaren ezaugarriak aurki daitezkeelako — nabarmenenaren baizik ez aipatzeko, “aoristo” deitura tradizionalaz deitu adizkera—. Gure corpusean erran zaharrak dira, Leizarragaren hiztegiñoaz landara, Euskara Arkaikoari begiratzeko dugun euskarri bakara.

Euskaltzaindiaren edizioa erabiliko dugu, Linschmann & Schuchardtek 1900ean argitaratu zutenaren faksimilea. 1213.-1214. or. Hiztegiño laburra izanda ere, testu honen baliagarritasunak fonologia eta lexiko kontuak gainditzen ditu; cf. datiboaren gaineko oharra, edo mugagabearen erabilerak ematen duen lekukotasun paregabea. Lakarraren arabera (1992: 277), “Leizarragarena hitz bilduma berrien sortzaile izan zen”. Azkenik, Urgellek (2017b) hiztegiñoaz lan egin du, egileak haren laguntzaile zuberotarretarik izan behar zuela ondorioztatuz.

Bela: Jacques de Béla-ren erran zaharrak. Poligrafo protestanteak (1586-1667) hainbat atsotitz bildu zuen bere *Tablettes* lan argitaragabe erraldoian. XIX. mende akabantzan haietako 45 argitaratuak izan ziren (Clément-Simon 1896: 104-107), baina “mal copiados” (*TAV* 186). Peillenek Cément-Simonek eman ez zuen beste dozena bat argitaratu du (1996). Mitxelenaren edizioa baliatuko dugu (*TAV* 183-187).⁴¹

Saug: Zalgizeren erran zaharrak. Guztira 205 atsotitz dira, eskuz idatziak, Oihenarten paperen artean ageri zirenak. Urquijok 1908an argitaratuak, Sarasolaren bertsioa erabiliko dugu (*Contr* 163-187). Berriz ere, badirudi jatorrizko iturria galdua dela (*Contr* 173).

O Pro: Arnaut Oihenarten atsotitzak. Oihenartek bildu erran zaharrak hiru iturritarik etorri zaizkigu.

- a) *Les proverbes Basques recueillis par le Sr d'Oihenart plus les poesies Basques du mesme auteur* (Paris,⁴² 1657). Liburu honetan lehen 537 atsotitzak ageri ziren (1-46. or.), frantsesezko itzulpen eta azalpenez horniturik (47-80. or.). Ondoko edizioak: Michel 1849, Urquijo 1935 (*RIEV*, bukagabea), Urquijo 1936 (faksimile), Txillardegi 1971, Orpustan 1992 eta Altuna & Mujika 2003; xehetasunendako ikus Altuna & Mujika 2003: 23-24.

⁴¹ “El editor [Clément-Simon] poseía cinco de los seis tomos de que se componía la obra [*Tablettes*], pero, por desgracia, desconocemos su paradero actual y nadie parece haber dedicado su atención al ms. desde la fecha de su publicación. Algunas dudas que quedan podrían haber sido resueltas si Clément-Simon hubiera incluido siempre el contexto francés y los paralelos en otras lenguas” (*TAV* 186). Agirrek dioskunez (2016), *Tablettes* horiek Paueko Departamenduko Artxiiboetan daude, Clément-Simonen garaitik hona beste liburuki bat desagertu delarik (IV.a).

⁴² “L'absence de tout nom d'imprimeur ou de libraire indique à mon avis que le livre ne fut point mis en vente et qu'il en fut tiré seulement un très petit nombre d'exemplaires qu'Oihenart distribua à ses amis” (Vinson *Essai* 26a); izan ere, pentsatzen da Oihenarten atsotitzak Parisen ziren pertsona ikasientzat inprimatuak diratekeela (Arcocha & Oyharçabal 2009).

- b) *Atsotitzen Urrhenquina* (J. Desbaratz, Paue, 1665). Emendakin honetan Oihenartek beste 169 atsotitz argitaratu zituen, 538-706 zenbakiak esleitu zaizkienak. Ondoko edizioak: Brunet 1859, Haristoi 1892, Baiona 1892, Urquijo 1936, Txillardeggi 1971, Orpustan 1992 eta Altuna & Mujika 2003; xehetasunendako ikus Altuna & Mujika 2003: 23-24.
 - c) Urquijok aurkitu zuen kaier eskuidatzian badira *Refranes y Sentencias*-eko hamazortzi errefracu (299-306 eta 327-336), gehi beste hogei (307-326), 1964 arte ezezagunak (TAV 174-175). *RS*-ekoak baitziren, azken hauei Mitxelenak 540-559 zenbakiak esleitu zizkien (ikus Lakarra 1996: 79).
- a) eta b)-n azaldu diren atsotitz multzoetarako, Altuna & Mujikaren edizioa erabiliko dugu.

3.2.2. XVII. mendea

Etchart: Zuberoako eta Erronkariko ibarren arteko korrespondentzia ofiziala. Erregeren prokuradoreak Zuberoan, Gabriel d'Etchartek, eta Erronkariko notarioak, Miguel de Rosek, idatzitako gutun sorta (1616-1617). Dokumentazioa Jose M^a Arriola jaun bilbotarraren funts pribatuetan da, Sotheby's etxeak 2008an antolatu enkantean erosi zuenetik. Orotara hamazazpi gutun dira; hamazazpietarik bederatzi Erronkarin idatziak dira, eta zortzi Zuberoan. Etchart mauletarra zen, Arnaut Oihenarten aitaordea. Haren zortzi gutunak Maulen datatuak dira, 1616ko maiatzaren 26tik ondoko urtarrilaren 14ra bitartean; gainera, bada Erregeren botere bat, iduriz berak itzulua. Dokumentu hauek frantsesezko eta euskarazko bertsiotan emanak dira, salbu hiru gutun, euskara hutsean direnak. Administrazio testuen ordezkaria, gutun bilduma hau Frantziako Erregeren goi zerbitzari baten idatz moldeak erakusten ditu. Etchartek igorri dokumentazioa kaligrafia aski onean egin da. *Monumenta Linguae Vasconum III* (UPV/EHU) ikerkuntza proiektuaren baitan egin den edizioa baliatuko zaigu (Bilbao, Gómez, Lakarra, Manterola, Mounole & Urgell, argitaratzeaz).

O Po: Arnaut Oihenarten neurtitzak. Euskal literaturaren historian Arnaut Oihenarten ekarpena ezin utzizkoa da. Oihenartek erabili zuen barietatea goiti beheiti (cf. § 3.1.2), haren lanak corpusean sartzeko deliberoa egin dugu. Hizkuntzaren azterketa sistematikoa egin ondoan, Oihenarten idazlanek bere sort hizkerarekiko urruntze hori norainokoa den oinarri sendoagorekin ezartzeko maneran izanen gara. Oihenarten poesiei doakienez, bi sorta dugu:

- a) *O^{ten} gastaroa nevrthizetan - La Jeunesse d'O en vers basques*, atsotitzekin batean Parisen argitaratua, 1657an. Bildumak 22 olerki du.

b) Eguiateguyk dioenez, 1664an Oihenartek *neurthitzen* beste edizio bat argitaratu zuen, lehengoak gehi beste zenbait olerki emanik, haren arabera *Zaharzaroa ere neurthitzetan* (Peillen 1983: 28). Baionako Liburutegian dagoen Oihenarten 1657ko liburuaren aleak josia du beste liburu baten zati bat, Francisque Michelek aurkitua, beste zazpi olerkirekin —eta zortzigarren baten hastapena—; egiantzekoa oso da zazpi neurtitz horiek Eguiateguyk zioen bigarren ediziokoak izan litezen (Urkizu 1994: 297; Altuna & Mujika 2003: 22). Altunak & Mujikak XXIIItik XXIXra zenbatzen dituzte, lehen sortakoen jarraian.

Neurthitzen ondoko edizioak honakoak dira: Michel 1847 —1657koak gehi “Autres pièces et fragments”, hots, berak aurkitu zazpi poema horiek gehi zortzigarrenaren hastapena—, Urquijo 1936 —soilik 1657koak—, Txillardeggi 1971, Orpustan 1992 eta Altuna & Mujika 2003; xehetasunendako ikus Altuna & Mujika 2003: 23-24. Corpusean osorik iritsi zaizkigun 29 neurtitzak sartu ditugu, baina ez 1665ean bere *Art poétique basque* eskuizkribuan jaso zituenak (Lafitte 1967: 205-234). Guk Altuna & Mujikaren edizioarekin lan eginen dugu.

Tt *Onsa*: *Onsa hilceco bidia. Ivan de Tartas Arueco erretorac euscaraz eguina. Moneineco Iaun Marquizari dedikatia* (Jacques Rouyer, Orthez, 1666). Vinsonen “le premier livre souletin” kontsideratu zuen (1885), eta Urquijok bigarren edizioa argitaratu zuen (*RIEV* 1907-1909). Badugu testu honen edizio modernorik (Eguzkitza 1975 & Altuna 1995). Tartasen bi liburuetarako J. Lavinen bertsio elektronikoak baliatuko zaizkigu, *Euskal Testuen Gordailuan* kontsultagarri (http://www.vc.ehu.es/gordailua/tartas_1.htm), bai eta faksimileak ere.

Tartasek berak aitortu baitzuen, erabili barietateak ez zukeen soilik bere sort mintzaira islatu, Frantziako hiru euskal herrietako euskaldunentzat ahalegindu baitzen (Urgell 2015b). Dena den bezala, gogoan darabiltzagu Lafittek Tartasen obrez erranak: “Chubero-ko mintzaira berezia funtsez eta errotik nahi duenak ikertu, behar ditu bata [*Onsa*] nola bertzea [*Arima*] arthazki iragan, eskuratzen ahal baditu segurik: ezen lili arradoak dira” (1931: 48).

Tt *Arima*: *ARIMA PENITENTAREN OCCVPATIONE DEVOTAQ. Orationia, Barura, eta Amoyna. Hirur Yrico Iaunary, Montirandé deithatcen den Iaun Abadiary dedicatiac. Iuan de Tartas Arueco Retoraz eguinac* (Jacques Rouyer, Orthez, 1672). Tartasen bigarren liburuak 135 orrialde ditu, *Onsa*-renak baino askoz kaxa txikiago batez. Jakingarri bibliografiko zein transmisioaren gaineko informaziorako, ikus Vinson 34 eta Altuna 1996: 9-13. *Arima* badu edizio kritiko modernorik (Altuna 1996); horretaz gain, xede literario hutsez egin den Tartasen testu hautatuen bilduma aipa genezake (Mujika Iraola 1998).

PrS: *Pronus Singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Euangelium populo legendus* (1676). Liburuxka honek 33 orrialde ditu, eta bigarren partea (28-33. or.) hilentzako elizkizunetan erabiltzekoa da. Zati horren iturria d'Olce Baionako apezpikuaren lan batean datza: 1651n *Pregarioac* (lapurterazko originala) eta *Pregariac* (behe nafarrerazko egokitzapena; cf. Camino 2008: 107) testu “bikiak” argitara eman zituen. Bada, zubererazko pronua lapurterazko *Pregarioac*-en moldapena da (Agirre 1998a: 5). Ondoren d'Abbadiek berrargitaratu zuen: *Les prières du prône en basque (dialecte souletin), publiées par Mgr Arnaud-François de Maytie, Evêque d'Oloron, en 1676* (Lamagnière-ren alarguntsa, Baiona, 1874) (Vinson 36b).

Pello Agirrek testu honen ikerketa eta edizioa egin du (1998a). Bertan Belapeireren egiletza hipotesi sendoa plazaratu du; hizkuntzaren azterketatik idokiko denez, guk zenbait argudio gehituko diogu hipotesi horri —labur erraiteko, testu honetan Belapeireren *zuberera* kausi daiteke—. Corpusean Agirreraren edizioa erabiliko dugu.

Bp: *Catechima laburra, et Jesus-Christ goure Gincou jaunaren eçagutcia, Salvatu içateco. Çuberoa Herrico Uscaldunen eguina, Athanase Balapeyre, Hanco jaun officialaz, eta Sorhoëtaco Erretoraz* (Jerôme Dupoux, Paue, 1696). Katixima hau bi partetan egina da, liburu berean (176 eta 136 orrialde, hurrenez hurren). Aitzinsolas gisara, Belapeirek 1695an egindako ordenantza txertatzen du, Zuberoan *ororen eskolak* abiarazteko manua.

1686ko katixima galdu batez ari, Vinsonendako, “Le livre de Belapeyre n'a pas eu meilleur sorte que celui de son prédécesseur” (*Essai* § 41). Izan ere, elizbarrutiko barne gatazkak zirela medio, hamarkada bat berantago *Oloroeko katixima* gisara aipatzen den testuak ordezkatu zukeen. Belapeireren katixima *laburrak*, beraz, luzaz iraun du berriz argitaratua izan arte, egileak literatur hizkuntzaren lantzeko suen berezi bat erabili arren. Egun, egikera desberdineko bi edizio dugu: Davant 1983 eta Agirre 1996 (tesi argitaragabea, UPV/EHU) —guk Agirrerarenekin lan eginen dugu—. Belapeireren gaineko ikerketaren *state of the art* Agirrek markatu du. Frantsesezko iturriaz —Bossouet-en katiximaren (1687) zati bat— (1998b) eta edizioaz gain, oroz gainera grafia (2001a), fonologia (2001b) eta lexikoa (2010) jorratu ditu.

3.2.3. XVIII. mendea

CatOlo: Jacques de Maytieren *Oloroeko katixima* (1706). Literatur zubereraren tradizioaren egituratzean hau da, gure ustez, garrantzi handien izan duen testua (ikus I, § 3.3.4.3.2),

hainbat ediziotan berrargitaratua. Hortaz, zenbaitetan halako lehentasuna eskainiko diogu. Hona lehen edizioaren izenburu osoa:

CATECHIMA Oloroeco Diocezaren Cerbutchuco ecinago Ylustre eta ohoragarri Messire JOSEPH DE REVOL hanco Aphezcupiaren manuz eguina. Eta Çuberoa herrico uscaldunen amorecatic uscarala utzulia Messire JACQUES DE MAYTIE Oloroeco Calongiaz eta hanco Vicari Generalaz (Jerôme Dupoux, Paue, 1706).

Izenburuak berak dioenez, liburua *Çuberoa herrico uscaldunen* itzulia da, frantsesezko iturritik —Joseph de Revol apezpikuak idatzi zuen katiximatik—. Biarnesezko bertsioa ere argitara eman zen, Pierre de Lailhacar-ek itzulia. Egiazki, usuen *Oloroeko katixima* gisa ezagutzen dugunak (*OEH*-ren aipamen sisteman ere *CatOlo*) funtsez bi bertsio du. Lehena, Joseph de Revolek 1706an manatua (Vinson 44a), Vinsonen ezagutu ez zuen 1723ko bigarren edizio batekin, Agirrek aurkitua (1998b: 348). Bigarren bertsioa, testu *emendatia* dakarrena, ondoko urteetan ageri zen: 1743, 1746, 1770, 1784, 1788 (bostak Pauen), 1788 eta 1817 (biak Tolosan); hots, Vinsonen bibliografiako 44 b, c, d, e, f, g & h. Izenburuan François de Revol ala Villoutreix de Faye apezpikuen izenak ageri, bigarren multzoko edizio guztiek ber testua zerratzen dute. Hona 1746ko edizioaren izenburua:

CATECHIMA Oloroeco Diocezaren Cerbutchuco JOSEPH DE REVOL hanco Apphezcupiaz eguina, emendatia eta berriz imprimatia FRANÇOIS DE REVOL Oloroëco Apphezcupiaren manuz (Jean Dupoux, Paue, 1746).

Guk lehen bertsioa (*CatOlo*, 1706) eta bigarrena (*CatOlo2*, 1743tik geroz) bereiziko ditugu. Bien artean bada zenbait desberdintasun, batez ere edukiaren arranjamenduan, baina ez bakarrik: François Revol apezpikuaren *mandamentian*, estiloaren aldetik denboraren higaduragatik obratu aldaketen justifikazioa egiten da, hizkuntza mailako doitze batzuk ekarriz; hona pasartea:

Haren obragia osso eta perfeita cen bere populiari eman cianian, eta egun onxa difficil liçate hartan cerbait emendatcia edo herçia, munduco manerac ezpalira themporareki khambiatcen: badakicie ene anaye ecinago maytiac, diala hoguey eta hamar ourthe parfait eta complitu ciren gaicec eztiela uduri egun badiela ber goustia, ber indarra eta arranjatceco ordian eman çayen ber chahutarçun eta agradamentia. (*CatOlo2* iv)

Corpusean sartu testuak guhaurren edizio argitaragabeari dagozkio: batetik, lehen bertsioarena (1706), Azkue Bibliotekan gordetzen duten kopian oinarritua, eta bestetik bigarren bertsioaren testua, 1746, 1770 eta 1788ko edizioetan oinarritua (Vinson 44c, 44d & 44g, hurrenez hurren).⁴³

Othoitze: *Othoitze eta Cantica Espiritualac. Çubero Herrico* (1734). Berriz ere, lan honen izenburuak *Çubero Herrico* destinatiboa dakar. Bere bibliografiaren 56. notizian, Vinsonek hiru edizioen berri ematen du: 1734 (Jean Dupoux, Paue), 1748 (Paue) eta 1823 (Roch Daguerre, Maule); bestalde, Urquijok 1778ko edizio ezezaguneko ale bat erosi zuen (Urquijo 1907). Zenbait grafia aldaketa goiti beheiti, lau edizioetako testua bat eta bera dela berma dezakegu, orrialdeztapena bera ere dutela —guk 1734ko eta 1778ko edizioen ale banaren gainean lan egin dugu⁴⁴—. 36. orrialdera arte otoitzak biltzen ditu, eta hortik akabantzaraino kantikak. Vinson balizko iturri hau seinatu zuen:

Ce livre est peut-être une traduction ou une imitation du suivant, cité par M. Louis Lacaze [1884]: *Prières et cantiques spirituels à l'usage des missions de Pères de la Compagnie de Jésus*. À Pau chez Jérôme Dupoux, 1721.

Mota horretako kantika bildumak oso ohikoak izan ziren; Oloroeko diozesan bada beste hau, frantsesez: *Cantiques spirituels imprimés par ordre de Monseigneur François de Revol, s l'usage de son diocèse* (J.P. Vignancour, Paue, 1766).

Mst: *Jesu-Kristen Imitacionia Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apheç bateç, bere Jaun apheçcupiaren baimentouareki utçulia* (Dugué eta Desbaratz, Paue, 1757). Hau da Thomas de Kempis-en *Imitatio Christi*-ren zubererazko lehen bertsioa. Inchausperean arabera, itzultzailea Martin de Maister Ligiko erretorea zatekeen, eskaintzan M. M. sinaturik (*apud* Vinson, *Essai* 85b).

Liburu hau zuberera klasikoaren gailurtzat hartu izan da. Francisque-Michelendako, Maisterren *Imitacionia* “c'est, après la traduction de l'Évangile de S. Matthieu par M. l'abbé Inchauspe, le meilleur modèle peut-être du dialecte souletin” (1857: 484). Lafittek honela

⁴³ 1706ko edizioa: Azkue Bibliotekako fotokopia, IZK.: 48079 signaturaz; jatorrizko dokumentua egun Chicagon da, L. L. Bonaparteren liburutegiko funtsean. 1746ko edizioa: Azkue Bibliotekako alea, IZK.: 46218 signaturaz. 1770ko edizioa: Azkue Bibliotekako alea, IZK.: 16186 signaturaz. 1788ko edizioa (Tolosakoa): Koldo Mitxelena Kulturuneko alea, J.U. 4775a signaturaz.

⁴⁴ 1734ko eta 1778ko edizioen aleak Koldo Mitxelena Kulturunean daude, J.U. 4021 eta 4021b signaturekin, hurrenez hurren.

goraipatu zukeen: “Ziberotar gaztek on lukete, hari jarraitzea. Tartas baino aiphagarriago zaiku, bai gochoz, bai jakitatez, bai hitzkuntzaz” (1931: 101). Haren gaitasuna ez bide zen euskarara mugatzen: “Le latin de sa dédicace est supérieur au latin ordinaire des hommes d'Église” (Vinson, *Essai* 85b).

Maisterren itzulpenak bi edizio *zahar* izan du: 1757koa eta 1838koa (P.-A. Vivent, Oloroe), Vinsonenean 85a & 85b, hurrenez hurren. XIX. mendean Inchauspek ere Kempisena zubereratuko zuen (Lamagnière-ren alarguntsa, Baiona, 1883). Maisterrena hain itzulpen landua, hain hizkuntza goretsia duena izanik, pentsatzekoa da Inchausperi Maisterren euskararen zenbait ezaugarri zaharkitu iduri lekion. Gure denboran Maisterren *Imitacionia* edizio moderno baten sujet izan da (Davant 2009), baina ez zaigu zerbitzatuko. Hortaz, baliatuko dugun bertsoa bestelakoa da: I. & III. liburukietarako Klasikoen Gordailukoa, grafia eguneratuan —faksimilera ere joko dugu—, eta II. & IV. liburukietarako Pello Agirrerena, jatorrizko grafian (argitaragabea).

IP: *Igantçtaco Pronoua, eta Hilen Pronoua* (Dugué eta Desbaratz, Paue, ca. 1757). 1676koaz geroz, hau da Zuberoako argitaratu den bigarren pronua. Egiakzi hiru pronu biltzen ditu, zeinetarik hirugarrena (13-16. or.) 1676ko *PrS* testutik hartua izan baita, hitzez hitz.

Grafian —baina ez bakarrik— oinarritutako argudio sendoak emanik, Agirrek (1998a) Maisterren egiletza postulatu du; jada Vinson grafia eta molde kidetasunaz ohartu zen “Même orthographe et mêmes caractères que l'*Imitation* souletine de Maister” (*Essai* 86). Hizkuntzaren azterketan ageriko denez (cf. 211. & 444. oharra), guk hipotesi hori berresten dugu. Beraz, bada halako paralelismoa 1676ko eta 1757ko zubererazko pronuen artean: lehena Belapeirek egin zukeen, eta bigarrena Maisterrek, biek sinatu gabe.

1757az geroztik Maisterren pronua ez da sekulan berrargitaratua izan; beraz, guk originalera joko dugu, Koldo Mitxelena Kulturunean 243. signatura pean gordea den alera hain zuzen.

Ressegue: *Sacramentu-Saintiaren AURHIDEGOUACO MANIAC ETA CHEDIAC. Esquiulaco parrochia eličan, Andredonamariaren Conceptionecouan, eçaria. Benoît hamalaurden goure Ayta Săintiaren Bullareky, eta Oleronco Jaun Apphezcupiaren manu eta baymentieki. Franceseti, Uscarala utçulia, Aurhidegouaren manuz, P. Ressegue, bestela Mercy, Aurhidegouaco Prioreaz edo gueienaz.* (Isaac Charles Desbaratz, Paue, 1758).

Ressegue, *bestela Mercy*, Eskiulako familia ezagun bateko seme izan zen, notario. 52 orrialde dituen itzulpeneko liburuño hau bi aldiz inprimatu zen, 1758. urtean (Vinson 87a & 87b), baina geroztik ez da berriz argitaratua izan. Hortaz, originalera jo dugu, guhaurren edizioa

erabiliz; horretarako, Eusko Legebiltzarraren Liburutegiko alea kontsultatu dugu, 90012422. zenbakiarekin. Ale honek ondoko eskuzko oharra dauka: “Único libro vasco de Olorón con su dialecto. Rarísimo. 1ª edición. 87a Vinson. 2. Muy raro”. Beraz, testu honen —bai eta Eskiulakoa den ondokoaren— interes linguistikoa handia da: Zuberoako ipar-ekialdeko euskararen orduko lekukoak dirateke.

StJul: *Saint Julien d'Antioche* (1770). Orain arte argitaratu den pastoral testurik zaharrena da hau, eskuizkribu bakar batean kontserbatua. 1770ean antzeztu zen, Sarrikotapean, errejenta eta izkribuaren kopiagile nagusia Simon d'Alchurrut izanik (Loidi 2004: 5-7). Lehen *pheredikiak* 117 berset ditu, eta trajeriaren testuak 1.307. Pello Agirrerek Lodiren bertsioaz egindako transkripzioa baliatuko zaigu.

Mercy: *ANDERE DONA MARIA SCAPULARICOUAREN CONFRARIACO BULLA, DECRETA, STATUTAC, ETA MANIAC EDO CHEDIAC. Esquiulaco parrochia eličan, haren conceptionnecouan eçaria. Franceseti uscarala utçuliac, Jaun Directorraren eta beste Officieren manuz, ALEXIS MERCY Praticienmaz.* (J. P. Vignancour, Paue, 1780).

Alexis Mercy aurreko liburuaren egilearen iloba izan zen, hau da, Resseguerena. Bi testuak oso antzekoak dira: haurridego baten araudia (honek 43 orrialde ditu), Eskiulan eginak, eta frantsesetik itzuliak. Kasu honetan, gainera, frantsesezko iturria aurkitu ahal izan dugu: *Réglements et statuts de la Confrérie Notre-Dame du Scapulaire de la paroisse d'Esquiule en 1772, en remplacement de la Confrérie Notre-Dame du Mont-Carmel, qui existait depuis 1686* (Lucuix 1995).

Lehenengoan bezala, testu honek ez du edizio gehiagorik izan, eta Eusko Legebiltzarraren Liburutegian gordetzen den alera jo dugu (signatura: A-B8, C6), guhaurren edizioa eginik.

NLilia: *Noelen Lilia composaturic huscarez* (1782). Testuak dozena bat kantika biltzen ditu 16 orrialdetan. Liburuño honek hiru edizio izan zuen:

- a) *Noelen Lilia composaturic huscarez Jesusen incarnationiaren ouhouretan* (Paue, 1782).
- b) *Noelen Lilia composaturic huscarez Jesusen incarnationiaren ouhouretan, Eta oray harçara Barneix Alçabehetic arra imprima eraciric* (Toneten Alharguntsa, Paue, 1821).
- c) *Noelen Lilia composaturic huscarez Jesusen incarnationiaren ouhouretan, arra imprimaturic* (Lapeyrette, Oloroe, ca. 1844).

Vinsonek ez zuen liburuxka honen lehenbiziko edizioako alerik ezagutu, 1821ko eta 1844ko edizioetakoak baizik (121b & 121c, hurrenez hurren). Guk Koldo Mitxelena Kulturuneak atxikitzen duen 1821eko alea editatu dugu. Barneix Alçabeheti ez zen autorea, berrargitaratzailea baizik. Vinsonek ere gaztigatzen baitu, erran behar da testu hau ez dela mende luze bat berantago karrikaratuko zen beste honekin nahasi behar: *Uskal Noelen Lilia hounturik Jesusen Inkarnazioren ouhouretan* (Ligugé, Vienneko Departamendua, 1897).⁴⁵

Duela gutxi — baina berantegi corpuseko bertsioaren aldatzeko — lehenengo edizioako ale bat atzeman dugu Pariseko *Bibliothèque Nationale de France*-n. 1821eko edizioako aleari erkatuz, orrialde banaketa ez dator bat, baina bai edukia. 1782ko edizioan Barkoxeko erretorea eta Oloroeko bikario handia zen De Suharek *nihil obstat* delakoa sinatzen du —1821eko edizioan ber dataz agertzen da—; aldiz, 1844koan desagertu da, eta haren plazan San Bernaten aldeko otoitz bat erantsi da.

Egiat I: Juseff Eguieteguyren *Filosofo-huscaldunaren ekheia*, ca. 1785.⁴⁶ Ez dakigu nongoa zen egilea.⁴⁷ Eskuizkribuaren azalean Frankfurten, 1785ean argitaratua balitz bezala aurkezten da,⁴⁸ baina bi mendez iraun du argitaratu gabe. Bertan hiru testu kontsidera daitezkeen arren

⁴⁵ Izenburuetan arras antzekoak badira ere, edukian ez da hala gertatzen. Hona irakurleari zuzendutako aitzinsolas laburra:

“Diala ehun eta hamabost ourthe inprimatu zutien, lehentze eta berhez, hamabi Noel; geroztik, dakigularik, arramouldaturik izan dira berritan, huts berekin, ezpazien ere haboro. Noel haietan baziren zounbait arrimu gabe, beste batzu aldiz, ezinago gaichiki mouldatiak, bertsiak batian luzegi, bestian llaburregi.

Orai argitara emaiten dutugu hamabi Noel, ahaire ederrenak dutienetarik. Hartu tugu, parte handiena Noelen lilian; bat Othoitce eta Cantica espiritualak den librian; bestiak, azkenik ziberoutarrez inprimatu kantiketan. Noula, erran bezala, huts hanitch beitzien, berhiziki Noelen Lili-koek, ahalaz ountsa chuchuentu tugu, zounbait ere kasik osoki arra berritu. Lan aski idorra eta gaitza izan zaio, inprima erazliari besteren obren chuchuentzia; eta zounbat nahi artha eman dian lan horri, ezta nahibezala burutan joan, ezinbestian, eta denbora esakazez. Halere, esparantcha du, diren bezala houn hartuko dutiela Noel horik Ziberoan.

Daigun ourthian, Jinkoak laguntzen gutialarik, emanen dutugu kartilla berhezi batetan bilhatu ahal izan diren Noelak oro bere ahairekin, laphourtarrak ziberoutarrak bezala”. (*UNLilia* 2)

⁴⁶ Testua ez da erraz datatzekoa. Datu seguru bakarra *post quem*-ekoa da: Larramendiren hiztegiaren eragina (1745). Bestalde, eskuizkribuaren kopiagileak 1785.eko data agerrarazten du, argitalpen urte gisara. Azkenik, bigarren partean Eguiateguyk Belako Zaldunaren heriotzari erreferentzia egiteak testua “1796-1797.ean berriz ukitu zuela” erakusten du (Peillen 2011: x).

⁴⁷ Peillenentzat (1983b: 10), Eguiateguyrenak: “Pettarreko (Zuberoaren beterriko) euskararen kutsua dauka: *hüillen, belar, igorraiten, serisatze, batztü* hitzek salatzen duten bezala”, eta horregatik Yrizarrek “Basse-Soule - Pettarra” etiketaren pean sailkatzen du haren lekukotza (2002b: 43).

⁴⁸ Orain arte inork ez du balizko edizio horren aztarnarik atzeman zeren, seguruenik, liburua ez zelako sekulan inprimatu. Garai hartan, idazleek beren liburuaren azala ere prestatzen zuten inprentara joatekoa zen

(§ 3.1.3.2), corpusean bakarria baizik ez dugu sartu: *lehen liburua* (Peillen 1983b), alde askotatik begiratu hain berezia den idazle honen hizkuntzaren lagin bezala balia dakigun. Hortaz, arazoak baditu ere (cf. 73. oharra), Peillenen ediziora jo dugu, eskura dugun bakarria delako —zehazkiago, Armiarman dagoen bertsio elektronikoa erabili dugu—.

Edipa: *Edipa pastorala* (1793). Corpuseko bigarren trajeriaren errejenta eta kopiagilea Jean Mekol Garindañekoa da (Bilbao 1996). Lehen *pheredikiak* 60 ahapaldi dauka, trajeriaren testuak 1041, eta *azken pheredikiak* beste 16; beraz, orotara testua 1.117 bersetez osatua da. Bilbaoren edizioa baliatuko dugu.

UskLi: *Uscara libria confessioniaz, comunioniaz, eta meçaco sacrificio saintiaz, bicitceco erreglamentu bateki. Bayonan, Cluzeau anayen baithan* (data gabe). Liburu hau Zuberoan arrakasta handien izan dutenetakoa da, Oloroeko katiximarekin eta *Uskaldunaren guthunarekin* batean; gutxienez hamalau edizio izan zuen (Vinson 132a - 132o bitartean). Lehenbizikoa datarik gabe ageri zen, eta gure hipotesia da edizio hori Iraultza ondoko urteetan atera zela.⁴⁹

Vinsonek dioenez, “On ne connait pas l'auteur de ce livre de piété, mais à en juger par l'orthographe et le style, on peut dire qu'il était originaire de Barcus”⁵⁰ (132a). 1834tik aitzina testua arramoldatuko da:⁵¹ *Uscara Libria, confesioniaz, communioniaz eta meçaco sacrificio*

eskuizkribua txukun egiterakoan; ohitura horren erakusgarriak dira Añibarroren *Nekea arindurik* eta *Geroko gero* lanen azalak. (Urgell, bekoz beko).

⁴⁹ Vinsonentzat “L'édition doit être du dernier tiers du XVIIe”, baina dudarik gabe *XVIIIe* irakurri behar dugu. Intxaustik 1775ean kokatzen du lehen inprimaldi hori, baina beharbada zuhurrago litzateke data hori poxi bat berantatzea. Batetik, arraro litzateke bigarren ediziora arte kasik berrogei urte pasatzea, eta handik hogeita hamasei urtera hamalau edizio karrikaratzea. Bestetik, ez da komeni ahanztea Iraultza ondoko urteetan lan asko datarik gabe argitaratu zirela (Urgell 2013: 33), eta halakoa izan liteke *Uscara Libria*ren lehen edizioaren kasua.

⁵⁰ Vinsonek ez du zehazten zertan oinarritzen den, baina Zuberoako euskararen ezaugarri infradialektalik behar zuen gogoan erabili. Gure iduriko Zuberoako ipar-ekialdea hegoalde menditsutik bereizten duten ezaugarrietan ohargarriena asimilazio bokalikoa litzateke, eta *Uscara Libria*ren horren adibide ugari atzeman daitezke, bereziki “Alexis Saintiren Bicitce admirabilia” izenburua duen atalean (211-228): *saintiren* 211, *hamaçazpy guerrenin* 212, *Saintiren* 212, *Emperadoriren* 212, *ciradila* 212, *çutukin* 212...

⁵¹ “Les deux éditions qui précèdent [132.g (Baiona, 1834) & 1321.h, (Maule, s.d.)] ne sont pas semblables aux anciens *Uscara Libria*. Le basque de ces derniers a été revu et corrigé ; la table des fêtes mobiles est en souletin, et les prières du matin et du soir sont tirées, non plus de l'ancien catéchisme d'Oloron, mais du nouveau catéchisme d'Astros. Les en-têtes des prières latines sont en basque. On a ajouté les vêpres des principales fêtes de l'année et les vêpres de sainte Lucie [...]. Le basque des parties nouvelles est de M. Etchegoyen ; il est en général assez soigné” (Vinson 132h).

saintiaz, bicitceco erreglamentu bateki çougni juntaturic beita Jesus-Kristen passionia, uscaralat utçulia M. Etchegoyen Mauleco erretoraz (Cluzeau, Baiona, 1834).

Beraz, gure ustez bi bertsio desberdin aipatzea komeni litzateke (cf. 51. oharra), tesi honetan *UskLi* eta *UskLi2* laburdurak esleituko zaizkienak. Guhurrek *Uscara Libriaren* lehen bertsioaren edizioa prestatu dugu, 1814ko eta 1828ko edizioen ale bederatan oinarriturik (lehenena Azkue Bibliotekakoa, CD-0100 dokumentu digitalizatuan, eta bigarrena Koldo Mitxelena Kulturunekoa, 243. signaturaz).

3.2.4. XIX. mendea

SteEli: *Sainte Elisabeth de Portugal* (1750 / 1810). Trajeria hau bi iturri nagusitatik heldu zaigu. Lehena Baionako Euskal Erakustokiaren Liburutegian gordetzen da (Ms 14), 1593 bersetekin, eta haren *ex-libris*-a Jauliber kopiagileak sinatua da, Eskiulan, 1750eko datarekin.⁵² Bigarrena Pariseko *Bibliothèque Nationale de France*-n dago (*celtique et basque* 208), Antoine Bayhaut errejent edo kopiagile delarik, 800 bat bersetez osatua.

Hérellen arabera, “La pièce de S^{te} Elisabeth parait très bien faite, et en bon basque” (*Notes sur pastorales basques*, s.d., 20-21). Guhurren edizio argitaragabea erabili dugu; testua Jauliberren eskuizkribuan oinarritua da, zero hipotesian Zuberoako ipar-ekialdeko barietatea lekukotuko lukeena —hizkuntza ezaugarrien azterketaren atalean ikusiko denez, hala dirudi—

DKhi: *Doctrina khiristia haurren instruccionetaco* (Cluzeau, Baiona, 1812). Liburu hau memento berezi bati dagokio: Iraultzaren ondoan Baionako elizbarrutiak lehengo Akizekoa zein Oloroekoa bildu zituen, eta beraz Akitaniako euskaldunak oro; bestela erranik, eliza egituretan zuberotarrak beren anai-arreba biarnesengandik berezi ziren. Horrek ondoriorik ekarriko zuen, Zuberoako testuen historia markatuz (cf. ATALASEAN, § 3.3.4.3.2).

Nolanahi ere, *Doctrina khiristiak* guztiz ahantzirik iraun du. Vinsonek (171) ezagunagoa den eta lapurteraz idatzia den Loisonen katiximarekin —edo Inperioarenarekin— batera biltzen

⁵² 1750eko data ez dagokio kaier osoari, azken hiru orriei baizik. Kaiararen gainerako orrien papera 1805ean izan zen ekoitzia; beraz, kopia 1810ean inguru egina izan zela postula daiteke (Segurola 2015).

du. Bi liburu horien arteko diferentzia ez da soilik euskalkia, baizik eta frantsesezko iturri desberdinetarik moldatuak direla;⁵³ hona bien izenburu osoak:

Francesen imperadorearen eremuetaco eliča gucietacotz eguina-den catichima / J. J. Loison, Bayonaco Jaun Apezpicuaren manuz imprimatua, haren diocesan bakharric iracatsia içateco (Cluzeau, Baiona, ca. 1807) (Vinson 171a)

Doctrina khiristia haurren instruccionetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati (Cluzeau, Baiona, 1812). (Vinson 171c)

Vinson bera berantago ohartuko zenez, frantsesez ere baziren Inperioaren katiximaren bi bertsio diferente: luzeago bat, eta beste bat laburragoa:⁵⁴

Je viens d'apprendre également qu'il y a eu un abrégé en français du Catéchisme de l'Empire dans le diocèse de Bayonne. Ce petit volume comprendrait 71 p. in-18 et porterait en tête le mandement spécial de Mgr Loison, du 30 juillet 1808. Son titre serait le suivant : « Abrégé de la doctrine chrétienne pour l'instruction des enfants, tiré littéralement du Catéchisme à l'usage de toutes les églises de l'Empire français, etc. Bayonne, Cluzeau, 1808. » On voit que c'est le prototype de la version souletine. (1896: 65)

Afera argiturik, corpusean *Inperioaren katiximaren* zubererazko bertsioa sartu dugu, zeinaren frantsesezko iturria *Abrégé* delakoa baita. Horretarako, Baionako Elizbarrutiaren Liburutegian

⁵³ Vinsonentzat “Traduction un peu abrégée du même livre en dialecte souletin”, 171c erreferentzian emana. Baina zubererazko bertsio hau ez zaio lapurterazkoari jarraitzen. Sintaxia, hiztegia eta hainbat adierazpide urrunegi gertatzen dira bata bestearen zordun izateko. Lapurterazko itzulpenaren egileak lexiko zainduagoa darabilen bitartean, zubererazkoarenak anitzez ere maileguzaleagoa da, euskarazko ordainen xerkatzeko ahalegin handirik egin gabe. Baina susmoen mailatik segurantzta batera iragaiteko, zubererazko bertsioaren itzultzailea frantsesetik abiatua zela argi ikusiko da ondoko pasarteetan: “*Erran eçaçu Symbolua latiz [...] Erraçu Symboloua franceses*” (*Doctrina khiristia* 16). Ber jarraibidea atzematen dugu otoitz guztietan, eta arras bitxia liteke erretorek haur xiberotarrei frantsesezko otoitzak erranaraz liezazkieten, zubererazko eta latinozkoen gain. Aldiz, lapurterazko bertsioan esperokoa aurkitzen dugu: “*Erraçu symbola latinez. [...] Erraçu escaraz [...]*” (*Francesen Imperadorearen eremuetaco eliča gucietacotz eguina den catichima* 38). Beraz, *Inperioaren katiximaren* lapurterazko eta zubererazko bertsioak ezin dira liburu baten edizio diferenteak kontsideratzen ahal, Vinsonen bibliografian egin zuen bezala. Itzulpen beregainak dira, biak frantses originaletik abiatuak, testu diferenteak eskainiz. *Mutatis mutandis*, Maisterren eta Inchausperekin Kempisen itzulpenen zenbaki bakarrean biltzea bezalako zerbait litzateke.

⁵⁴ 1812ko *Doctrina Khiristia* liburuan J.-J. Loison apezpikuak ondokoa dio bere mandamenduan: “Franciaco Eliza ororen usageco Catichimaren publicacioniaz gueroz, informatu guira, goure visitetan haurren instructioniaz cargaturic direnen zelo eta applicationiaz hain eguinbide handi haren cumplitceco; eta errepresentacione eguin çaicunetan gaignen haurric hoborouec etciela ikhasten ahal catichima berria oro, çouin hedatiegui beita particularqui herrietaco haurren.” Baionako diozesan *Catéchisme à l'usage de toutes les églises de l'empire français* —bertsio luzea— lanaren 2.000 ale inprimatu ziren; eta *Abrégé* —bertsio laburra— delakoaren 1.000 (*Bibliographie de la France*, 1811-1812: § 1260).

gordetzen den alea baliatu dugu (orduan katalogatzen), haren transkripzioa eginik. Ondoren beste ale bat atzeman dugu *Bibliothèque Nationale de France*-n; ez da desberdintasun markagarririk haien artean, biak aski estatu onean edirenik.

Xarlem: *Charlemagne* (ca. 1835). Trajeria honen testua bi iturritatik berreskuratua da: Bassagaixen eskuizkribua, 1641 bersetekin (Eskiula, 1835), eta Saphores-ena, 1496rekin (Atharratze, 1854) (Oyharçabal 1991). Oyharçabalek Saphoresen kopiari ematen dio lehentasuna testuaren ezartzean, bietan osoena delako, bestea oharretan emanik. Oyharçabalen edizioa transkribatu dugu.

AztBeg: *Azti Begia, Agosti Chaho Bassaburutararak Ziberou herri maitiari Parisetic igorririk beste hanitchen aitzindari arguibidian goiz izarra* liburua argitaratu zen (P. Dondey-Dupré, Paris, 1834). Egun, bilduma horretako testuek edizio modernorik dute (Urkizu 1992), eta horiexen bertsio elektronikoa, —*Klasikoen Gordailuan* eskuragai— baliatuko zaigu.

Hizkuntzari doakionean, hor dautzan hamasei testuak ez dira guztiak euskalki berean, batzuetan izenburuetan bertan igartzen baita. Horri esker, zenbaitetan *zubererazkoak* vs. bestelako mintzairatan idatziak direnak erkatzen ahalko ditugu.

Etch: Etchahunen lirika. Zuberoako bardoa den Pierre Topet *Etchahun* barkoxtarrak (1786-1862) hainbat bertso ondu zuen bere bizi bihurrian, haren paperak erre ziren. Hortaz, zenbait biltzailek Etchahunen lirika herriaren ahotik jaso dute. Etchahunen bizitzaz eta poesiaz, Haritschelharren lana da erreferentzia nagusia (1969-1970); corpusean Haritschelharren ediziotik aterea den bertsio elektronikoa erabiliko dugu (Klasikoen Gordailuan kontsultagai).

Khuructh: *Khurutchiaren bidiaren eguiteco praticac eta othoitciac, J. D. R. Ciberoutar batez uscaralat utçuliric* (P. A. Vivent, Oloroe, 1838) (Vinson 218). Hamar urteren ondoan, 42 orrialdeko liburuxka honek bigarren argitaraldi bat izanen zuen. Lehen edizioaren ale bat erabili dugu (Koldo Miltxekena Kulturunea, J.U. 3970 signaturaz), baina ments ditu 25-30 orrialdeak.

Medit: *Meditacioniac khoristitarçuneco eguia, oblicacione eta berthute principalez; hayen ondotic meça sainduco, confesioneco, communioneco eta agoniaco othoitciac, concienciaren examena, Iganteztaco vesperac eta Arima phenatien consolacioniac; oro laphourdico*

uscaratic, ciberoucoualat cerbait khanbioreki utçuliric (Lapeyrette, Oloroe, 1844). (Vinson 125p)

Liburu hau *Petites Méditations* direlakoan zubererazko moldapen dira, Baratciartek⁵⁵ lapurteraz argitaratu zituen ospetsuetarik abiatuak —*Grandes Méditations* Duhalderenak baitira—. *Meditacioniac* zuberotarrak Baionako elizbarrutian batzearen ondorioz azaleratuko den fenomeno berri baten erakusgarri dira: lapurteraz argitaratu zenbait liburu arrakastatsu eta ospetsuren *zubereratzearena* (cf. § 3.3.4.3); pentsa bedi Baratciarten “meditazione ttipiak”, 1784-1864 bitartean, hamalau aldiz eman zirela argitara (cf. Vinson 125).

Azkue Bibliotekako alearekin lan egin dugu (IZK.: 16727), hura editatuz. 255 orrialde ditu, eta huts gutxi duela erran daiteke. Zuberotarrentzat egindako moldaketa izan arren, zenbait ezaugarritan Lapurdiko tradizioaren eragina sumatu dugu.

KurBD: *Khurutchiaren bidiaren Debocionia, Bayounaco Jaun Aphezcupiaren baimentiareki imprimaturic* (Foré et Lasserre, Baiona / Roch Daguerre, Maule, s.d.). Vinsonek (238) 1847an datatzen du, Inchauspe egiletzat emanik; beraz, testu hau Inchausperen ekoizpen goiztiarraren ordezkaria genuke. Gurutzearen bidearen debozioaren bigarren testua da gure corpusean; cf. *Khurutch* liburua. 1838koan ez bezala, honek egile ezaguna du.

Vinsonek soilik lehen edizioaren berri ematen du. Guk ondoan zehaztuko den edizioaren alerik aurkitu dugu, Chicagoko Newberry Library-n —UPV/EHUko Arabako Campuseko Bibliotekan kopia mikrofilmata dago—, eta horren transkripzioa dugu erabiliko:

Kurutchiaren bidiaren debocionia, Bayounaco Jaun Aphezcupiaren baiareki imprimaturic. Bayonan, Foré eta Lasserre, Jaun Aphezcupiaren eta Eliçaguiçonon Imprimaçalen libruinguian. Eta saltcen da Roch DAGUERRE Maulecouaren etchen. 1852.

Archu: J.-B. Archuren *La Fontainaren Aleghia berheziak* [...] (Pasquier, La Réole, 1848). Chahoren zenbait idazkirekin gertatzen den bezala, Archuren *aleghiak* ez lirateke, printzipioz, XIX. mendeko zubereraren islarik leialena; Peillenen hitzetan, alegiak zubereraz baino gehiago “Iparraldeko koine” batean itzuliak lirateke (1992a: 93) eta, seguruenik, horregatik

⁵⁵ A. Baratciart argitaratzailea izan zen, baina ez egilea: “S’il faut en croire le bibliographe qui a aidé M. Fr. Michel à rédiger le chapitre XVI de son *Pays basque*, Baratciart n’aurait été que l’éditeur. Le véritable auteur serait un prêtre basque, originaire de Ciboure ou de S. Jean-de-Luz, “ancien curé”. Son manuscrit, qui existe encore, aurait été recopié avec quelques retouches et quelques abréviations, par Baratciart” (Vinson 125). Baratciartek argitaratuek *Meditacione cerurat heltceco baitezpadacoac* zuten izenburua.

jasan du halako kondena (cf. 37. oharra). Hala ere, Archuren alegiak corpusean sartu ditugu, nagusiki ordezkatzan duten generoagatik; testua Armiarmako bertsio elektronikoa da, Ricardo Gómezek (1990) egin ediziotik aterea.

MaiMarHil: *Maiatza edo Mariaren hilabetia. Meditacioniac maiatzeco egun guciez eguitecoac, egunecoa egunian, ama birjinaren bicitciaren misterioetan gaiñen, uscal herrico aphez batec uscaralat eçaria* (Lapeyrette, Oloroe, 1852).

Lehen iruzkindu beste erreferentzia batekin gertatu bezala (vid. *DKhi*), Vinsonek lapurterazko liburu batekin zerrendatzen du hau: *Andredena Mariaren ilhabetea, edo Maihatza, Jaincoaren amaren loriactz contsecratua* [...] (Cluzeau, Baiona, 1838), *OEH*-ren sisteman *MarIl* laburdura duena. Vinsonen hitzetan, zubererazko bertsioa “a été faite sur un texte français arrangé par M. l'abbé Bordachar (directeur du Collège de Mauléon), par M. l'abbé Hagon (de Mauléon)” (1984 [1891a]: 426).

Lapurterazko eta zubererazko liburuak erkatu ondoren, erran dezakegu aski diferenteak direla: lapurterazkoak 324 orrialde ditu, eta zubererazkoak 161, lehenaren kaxa ere kargatuagoa delarik —40 karaktere x 28 lerro, vs. 35 karaktere x 23 lerro—. Beraz, lapurterazkoak duen eduki franko falta da zubererazkoan, honek funtsezkoena baizik ez baitauka: egun bakoitzeko meditazioa, eta anitez ere manera laburragoan.

Koldo Mitxelena Kulturuneko alearen (J.U. 4281) guhaurren transkripzioarekin lan egingen dugu.

Myst: *Ciberouco guthuna ≈ Eguia eta Misterio guehienac* (1852-1862). XIX. mendeko zubererazko liburuen artean badira hiru estuki lotuak, Vinsonek bi erreferentzian emanak:

- 254: *Ciberouco guthuna edo libria* (Vignancour, Paue, 1852), “Par l'abbé Iribarne, curé de Sauguis” (Vinson 254).
- 272.a: *Mysterio eta eguia guehienac* (Desplan, Baiona, 1856) (Vinson 272a).
- 272.b: *Ciberouco guthuna Eguia eta Misterio guehienez* (Vignancour, Paue, 1862).

OEH-ren erreferentzia sisteman 1852ko liburuari *CibGut* laburdura esleitzen zaio, eta ondoko biei *Myst*, lehenaren berrargitalpenak direlakoan —azken bien arteko konparantza eginik, zenbait diferentzia ikusi dugu, sustut edukien arranjamenduari doakionean—. Davantek (2008: 63) hiru edizioak Jean Iribarneri egozten dizkio, 1879ko *Sen Grat* testuarekin batean (vid. *infra*). Iribarne (Altzabeheti 1814 - Zalgize 1890) erretore izan zen Zuberoako parroikia andana batean, eta *Almanak uskara edo Ziberouco egunaria* aldizkariaren zuzendari izan zen (1887-1890).

Guk Koldo Mitxelena Kulturunean gordetzen den 1862ko edizioaren alea transkribatu dugu (J.U. 3990). Sancho el Sabio Fundazioan 1856ko edizioaren ale bat dago (ATV 10196).

Ip Dial: *Dialogues basques : guipuzcoans, biscayens, par don A. P. Iturriaga, le P. J. A. de Uriarte; labourdins, souletins, par M. le Cap. Duvoisin, M. l'abbé Inchauspe; accompagnés de deux traductions, espagnole et française* (Londres, 1857).

Zubererazko bertsioa Inchauspek egin zuen. Haren itzulpenen artean (§ 3.1.3.2), Iturriagaren elestaldiena hautatu dugu, generoaren eta gaien aldetik corpusaren aniztasunaren faboretan baitoa. Testuan hogeit hamar solasaldi ematen dira. *Klasikoen Gordailuan* kontsulta daitekeen bertsioa erabiliko dugu (Pagola *et al.* 2004 lanetik hartua).

HOrdre: *Heren-Ordreco escu libria igante-bestetaco officio berrieki. Jaun Aphezcupiaren baimentiarekin* (B. Lapeyrette, Oloroe, 1860) (Vinson 314). Hau da, beharbada, zubereraz inprimatutako liburuen arteko arraroenetarik. Eskapatzen zaizkigun arrazoiengatik, ez da orain arte baliatua izan —adibidez, *OEH* erreferentziatarik absent da—.

Testu honen frantsesezko iturria denaz bezainbatean, XVII. mendetik *Règle du Tiers-Ordre de la pénitence* ezaguna da hainbat ediziotan. Iduri du XIX. mende erdiaren inguruan *Manuel du Tiers-Ordre de notre séraphique père Saint François dit de l'Ordre de la Pénitence* delakoa argitaratzen hasi zela —adibidez Guyot Frères-en edizioa, Lyon, 1849—. Zein-nahi ere den frantsesezko iturria, zubererazko bertsioa laburragoa da: 208 orrialde, frantsesezkoek 400 edo 500 ohi dituztelarik. Akitaniako euskal lurraldeetan *Règle du Tiers-Ordre* delakoaren gainean argitaratuko ziren zortzi liburuen zerrendako lehenbizikoa da zubererazkoa (cf. Lafitte 1977).

Heren-Ordreco escu libriaren bi ale atzeman dugu, bata Koldo Mitxelena Kulturunean (J.U. C4853) eta bestea Eusko Legebiltzarraren Liburutegian (90012065 zenbakia). Bigarrenaren kasuan J.P. Arbelbide jo dute egiletzat, *Eusko Bibliographian* oinarriturik; aldiz, arras bestelako testuak dira. Kontua da Arbelbideren lanaren izenburuan *Heren-Ordre* hitza datzala: *Erlisioea, Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak: heren-ordreko chehetasunekin eta meza-bezperen othoitzekin* (Vinson 677). Mementoko, zubererazko *Heren-Ordreco escu libria* (Vinson 314) anonimo gelditzen da.

CatS: *Catichima edo Fedia laburki Paul-Thérèse-David d'Astros, Bayonaco Jaun Apphezcupiac imprima eraciric; Haren Diocessan berebera eracoutsiric içaiteco* (E. Lasserre, Baiona, 1872).

OEH-k *CatS* laburdura pean erabiltzen duen testua 1872ko edizioari dagokio, Vinsonek “traduction souletine du Catéchisme de d'Astros” bezala ematen duena (*Essai* 191f), baina zubererazko bertsio hori lehenagotik dator. Izan ere, Vinsonek aipatu ez zuen beste ediziorik ere badugu; gehiago dena, guk edizio horiek baino nabarmen lehenago datatu dugu zubererazko bertsioa, zehazki 1834 baino lehen.⁵⁶

Bestenaz, zubererazko katixima ez zaio frantsesezko originalari jarraikitzen, lapurterazko itzulpenari baizik, “moldaketa duin bat”, Agirrerren hitzetan (2016). 1872tik aitzina, testuak aldaketak izan zituen, Vinsonen arabera Inchauspek eginak (1984 [1891a]: 425). Corpusean 1872ko edizioaren bertsio elektronikoa erabili dugu, *OEH*-ren corpusekoa, grafia eguneratuan.

EbS: Anna Urrutyren *Ebanjelio saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* (Cazals, Baiona, 1873). Zuberoako euskaraz argitaratutako liburuen zerrendan Anna Urrutyren itzulpenak ezinbestekoak dira. Guk dakigula, andere honek bi liburu argitaratu zituen Baionan, hau eta hurrengoa (*Epit*), urte berean eta moldiztegi berean. *Ebanjelio Saintiak* badu bigarren ediziorik (Goude-Dumesil, Orthez, 1888; ikus Vinson 438 & 439). Agirrek bikain erakutsi duenez (2016), Urruty andereak, Joanesen ebanjelioaren itzulpena egitean, Ostervalden Biblia zein Sacyrena (Port Royalekoa), bi-biak erabili zituen.

Anna Urrutyren (1826-1900)⁵⁷ izena eta obra estali duen ahanztura luze eta bidegabea desegiteko tenorea delakoan gaude, Roquek ireki bidetik. Ordura arteko xiberotar emazteki idazle bakarra dugu, eta protestante sutsua. Bonaparterentzat haren zuberera eredugarria zen; pentsa bedi Archuren itzulpenak gainbegira zitzan eskatu ziola: *Ruthen libria*, *Salomounen kantiken kantika & Jonasen libria* (cf. 38. oharra). Anna Urrutyren gaineko jakingarrientzat, ikus Roque 2013.

⁵⁶ Azkue Liburutegian badira 1860 eta 1868koak diratekeen aleak, AK-42/46 eta NAS 73342 ERD sinaturekin, hurrenez hurren. Baina gure ustez Astrosen dotrinaren zubererazko bertsioak are lehenagokoa behar du izan: Vinsonek berak gaztigitzen duenez, 1834tik aitzina *Uscara Libriaren* goiz eta arratseko otoitzak Astrosen katiximatik hartuak izanen ziren (cf. 51. oin-oharra). Guztiak azterturik, bermatzen dugu 1872ko *CatS*-eko otoitzek ber testua dutela, *ergo* Astrosen dotrinak berantenez 1834ko zubererazko bertsioa izan behar zuen. Hau guztia kronologikoki igurika daitekeenarekiko koherentea da, zeren Astrosen katiximaren lapurterazko bertsioa 1823 inguruan argitaratu baitzen (Vinson 191a), seguruenik frantsesezko originalarekin batean —biak datarik gabe ageri ziren, baina bietan aginduak 1823ko data dakar—; beraz, aski bitxia liteke zubererazko bertsioa mende erdi berantago atera ledin.

⁵⁷ Urrutyren sortze eta heriotza datak guhaurrek atzeman ditugu, haren biografia zirriborratzen hasiak baikara.

Koldo Mitxelena Kulturunean bi edizioen ale bana kontserbatzen dute (J.U. 4655a eta 4655b); bietan oinarritutako guhaurren edizio argitaragabea erabiliko dugu.

Epit: Anna Urrutyren *Jondane Phetiriren epitriac* (Cazals, Baiona, 1873). Urruty anderearen bigarren itzulpena da hau; aitzinekoak bezala, badu bigarren edizioa, 1887an, Baionan egina —halere, azken orrialdean *Pau - Impr. Veronese* irakurtzen da—. Agirrek dioskunez, Epistolen itzulpen honen iturria ez da Joanesen ebanjelioaren kasuan bezain garbia.⁵⁸

Oro har, Urrutyren edizioak zainduak dira, huts gutxirekin; beraz, lehenengo edizioetarik bigarrenetara ez da kasik aldaketarik. Koldo Mitxelena Kulturuneko bi edizioen aleen gainean lan egin dugu —1873koa J.U. C4714b signaturaz, eta 1887koa C4714z—; guhaurren edizio argitaragabe hori baliatuko zaigu.

SGrat: *Sen Grat Oloroueco aphezcupiarentaco Mous de Lasalle Catradaleco eretorac erran dutianac uscaraz ezariric* (Vignancour, Paue, 1879). Liburuño honek 27 orrialde ditu. Davanten arabera, Jean Iribarne dateke zubererazko bertsio honen egilea (2008: 63), hots, *Ciberouco guthuna edo libria* (1852), *Mysterio eta eguia guehienac* (1856) zein *Ciberouco guthuna Eguia eta Mysterio guehienez* (1862) lanen egile bera (cf. § 3.2.4, *Myst*). Hitzaldi bat izateagatik, testu honek zerrendako gehienek baino hizkuntza biziagoa islatzen duke, ahozkotik hurbilagoa. Sancho el Sabio Fundazioan dagoen alea transkribatu dugu (ATV 10105).

Catuchuma: *Catuchuma Españoul, Erdaratic Ziberoutar utzulua*. (Hauze, 1899). Itzulpen honek tradizio idatziko testuen zerrenda hesten du. Guhaurrek aurkitu eskuizkribu argitaragabea da, Baionako Diozesaren Liburutegian kaier batean dagoena. Testua 68 orrialdetan hedatzen da, eta izkirio xahu, zaindua du. *Catuchuma españoul* abantaila argiez hornitua da:

- a) Datazio eta kokapen zehatzak dakartza, kaieraren akabantzan: Hauzen, 1899ko urriaren 23an.
- b) Egilearen izena izan daitekeena ere agertzen da: J. Hastoy.
- c) Izenburuko *españoul* horrek iturria seinalatzen du: Gaspar Asteteren *Catecismo de la Doctrina Cristiana*.

⁵⁸ “Ostervaldi jarraitzen zaio maiz, baina ez da goitik behera haren testua itzultzen ari. II. *epitriaren* 1. kapituluari, aitzitik, Ebanjelioaren itzulpeneko jokabide bera ikusten dut: Ostervald eta Sacy ditu mahai gainean, eta batez ere protestanteari segitzen dio” (Agirre 2016).

- d) *Last, but not least*, izkribuaren grafia ahoskeratik bereziki hurbila da: adibidez, bokalarteko *r*-ren galera ia sistematikoki islatzen du (1. orrialdean *Jincoæn*, *juamentuic*, *Lutxuiazco bekhatuic*, etab.), gainerako testuetan ahoskeran galdutako *r* horiek oro har markatzen direlarik.

Arrazoi horiengatik egoki iruditu zaigu *Catuchuma españoul* corpusean sartzea; gainera, 1899koa izanik, XIX. mendea sinbolikoki koroatzen du.

3.2.5. Astolasterrak (fartsa xaribariakoak)

Fartsa xaribarikoen tradizioa gure corpusean ordezkatua izatea nahi genuke, baina ditugun edizioak (§ 3.4.1) ez dira behar bezain fidagarri eta, bestalde, eskuizkribu horien transkribatzea ez zitzaigun tesi honen epemugen barnean posible. Gauzak horrela, erabaki salomonikoa hartu dugu: batetik, datatuak izan diren fartsak corpusean sartzea; bestetik, haien lekukotza ez baliatzea sistematikoki. Corpuserako zazpi fartsa hautatu dugu, *Klasikoen Gordailuan* eskuragai diren bertsiotakoetan, gehienak grafia eguneratuaz; hona zerrenda:

- *Petit Jean eta Sebadina* (Zalgize, 1769). 113 berset. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 169-178.
- *Jouanic Hobe eta Arlaita* (Olhaibi, 1788). 148 berset. Solasaldi elebidunak, zuberera eta biarnesez. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 164-175.
- *Bala eta Bilota* (Olhaibi, 1788). 57 berset. Solasaldi elebidunak, zuberera eta biarnesez. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 102-106.
- *Chiveroua eta Marceline* (XVIII. mendearen 2. erdia). 436 berset. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 127-163.
- *Malqu eta Malqulina* (Arue, 1807). 595 berset. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 222-266.
- *Petitun eta Peti-Hun* (1836). 51 berset. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 279-282.
- *Kaniko eta Belxitina* (*CanBel* laburduraz) (Larribarre, 1848). 573 berset. Bertsiotakoaren iturria: Urkizu 1998: 176-221, Arestiren transkripzioa (1971) erabiltzen duena.

3.3. Corpusaren izaera

Euskararen corpusaren ezaugarriak dira, oro har, zubererarenak: berankortasuna, urritasuna, homogeneousitasuna eta asimetria (Lakarra 1997; Urgell 2005).

3.3.1. Berankortasuna

Stricto sensu, euskararen aldi historikoa *Linguae Vasconum Primitiae* liburuarekin hasten da (1545). Europako hizkuntza batentzat bost mendetako historia izatea beharbada ez da gehiegi, adibidez inguruko erromantzeen historia luzeekin konparatzen bada, haien lekukotasunak latineraino iristen baitira *continuum* batean. Dena den, munduko hizkuntza gehienen iragana euskararena baino ilunagoa dela gogoratu behar da.

Zuberoako euskararen historia Etxepare baino kasik mende bat berantago hasten da: Etcharten gutunak lehen lekukotasun luze bezala kontsideratuz, gehienez ere 1616. urteraino gibelatzen ahal gara. Zuberoako lehen liburua —azaldu diren erresalbu guztiekin (§ 3.1.2)— Oihenartena da (1657), eta ondoren Tartasena (1666). Kasurik hoberenean, Zuberoan lau mendetako lekukotasunak azter ditzakegu. Hala ere, ahozko tradiziotik jasoak izan diren testuek lehenagoko hizkuntz egoeren informazioa gordetzen dute: hortaz, XVII. mendean bildu atsotitz bildumek XVI. mendeko zenbait ezaugarriren berri eman dezakete.

3.3.2. Urritasuna

Zuberoako euskararen corpusa, bestalde, ez da nahi genukeen bezain oparoa, eta urritasun hori guztizkoa da Eusara Arkaikoari dagokionez: aldi horretan soilik sar genitzake, hein batean, atsotitz bildumak (§ 3.3.4.1).⁵⁹ Guztiarekin, konparantzak erlatibo bihurtzen ahal du urritasunaren hautematea: egia da mendebaldeko euskararen corpusak testu arkaikoen ordezkapen duina duela, baina egia da, halaber, ekialdeko gainerako mintzoenei erkatuz, Zuberoko corpusa ez dela hain urria.

3.3.3. Heterogeneotasuna eta asimetria

Zuberoako corpusean hiru tradizioren artean bereiziko dugu:

4. Mendetako ahozko tradiziotik jaso diren testuena.

⁵⁹ Bere corpusean, Mounolek (2011) Euskara Arkaikoaren barnean kokatzen ditu Oihenarten atsotitzak.

5. Bigarrenik, herri antzertiko testuena, ahozkotik hurbilago egon nahi lukeena, baina azken batean oinarrian idatziz gauzatzen dena eta literatur genero baten konbentzioak betetzen dituen; hortaz, antzetzan guk *tradizio misto* kontzeptua erabiliko dugu.
6. Hirugarrenik, idatzizko tradizioaren testuak, maiz literatur hizkuntzari forma eman diotenak. Tradizio honetan idatziaren modu zainduagoak bilatzen dira, hein batean edo bestean.

Hiru tradizio horien barnean izaera eta helburu arras desberdineko testuak ditugu: kateketikoak, aszetikoak, filosofikoak, administratiboak, literarioak, satirikoak, kazetaritzakoak eta etnografikoak. Lekukotasun inprimatueta mugatzen bagara, aldiz, heterogeneotasun hori galtzen da: moldiztegiatarik jalgi diren gehienak eliz testuak dira.

3.3.4. Corpusaren hiru tradizioak

3.3.4.1. Ahozko literaturaren tradizioa

Ahozkotik hurbilen den tradizioan, lehen begi kolpean idatziaren moduekin zerikusirik gabeko testuak ditugu: atsotitzak baladak, ipuinak eta lirika; bestalde, ez dakigu ahozko erregistrotik idatzizkora iragaitean biltzaileek zein irizpide baliatu zuten, edo nolabaiteko egokitzapenik egin zuten. Hizkuntzaren historiari dagokionez, komeni da gogoratzea herri tradizioko testuak bilduak izan zireneko baino lehenagoko hizkuntza egoera islatzen dutelako irizpidea onartzen dela (Lakarra 1996); hortaz, zuhur jokatzuz ere, Belaren, Oihenarten eta Zalgizeren atsotitzek XVI. mendeko ezaugarri batzuk gordetzen dituztela onar daiteke.

3.3.4.2. Herri antzertiaren tradizioa

Zuberoako herri antzerkietan, alde batetik pastoral zaharren corpora dugu (*trajeriak*), eta bestetik fartsa xaribarikoena (*astolasterrak*). Testu hauek literatur hizkuntza baino ahozkotik hurbilago dira: ahoz erraiteko eginak dira, herritarrek antzetzekoak baina, aldi berean, idatziz gauzatuak dira, eta literatur genero baten konbentzioak betetzen dituzte —hortaz, *tradizio misto* terminoa—.

Tradizio honetako testuak kopiarik kopia ibiltzen ziren, egungo *egiletasun* kontzepturik gabe, eta maiz errejenten aldaketak gertatzen ziren. Beraz, transmisio ohiturek ezinezkoa errendatzen dute originalaren berreraikitzea, testu bakoitzaren lehen bertsiorik ez dugulako, eta transmisio-katearen hainbat begi faltan dugulako, *stemma* ezinezko bilakatzeraino. Dena den, hizkuntzaren historialariarentzat, horrelako bizitza nahasia duten testuetan helburua ez litzateke originalaren berreraikitzea: kate-begi bakoitzak bere interesa du.

Hizkuntzari begira, herri antzertiko testuak bertsoan onduak izateak zenbait murriztapen ezartzen du, eta horrek nahitaez ondorioak ditu emaitzaren naturaltasunean. Guztiarekin ere, pastoral zaharretako euskara aberatsa iruditzen zaigu; ildo horretan, ez da komeni ahanztea egileak, erran nahi baita orduko Zuberoako errejentak, pertsona alfabetatuak zirela. Betoiz Oyharçabalen hitzak:

Il faut bien reconnaître que la langue des pastorales tragiques n'est pas des plus séduisantes et je ne crois pas que cela résulte des emprunts, ni même d'une syntaxe parfois calquée, mais simplement d'une espèce de refus des pastoraux à s'exprimer autrement que dans un langage qui pouvait s'accorder au genre de la pastorale tel qu'il le concevait.

En effet, quoi qu'il en soit des emprunts, on est frappé à la lecture de *Charlemagne* par la bonne qualité de la langue où l'on ne relève au bout du compte que fort peu d'incorrections, ou de fautes, contrairement à ce que laissent entendre certains auteurs. (Oyharçabal 1991: 100)

Zuberoako herri antzertiaren tradizioa ezin uler liteke testu satirikorik gabe, eta zehazkiago fartsa xaribarikorik gabe. Genero honetako testuek berezitasun bitxi bat erakusten digute: bertan erabiltzen den behe erregistroa, dudarik gabe euskara osoaren lekukotasun guztien arteko lotsarik gabekoena, batzuetan lizun eta gordinena ere. Askatasun horrek luzaz kondentatu bide ditu testu horiek: “El argumento [de *Canico et Beltchitine*] [...] está, por otro lado, desarrollado en un lenguaje tan libre y grosero, que la representación [...] en cualquier pueblo de Vizcaya, Guipúzcoa o Labort provocaría unánimes y ruidosas protestas” (Urquijo *apud* Urkizu 1992: 79).

3.3.4.3. Zubereraren tradizio idatzia

3.3.4.3.1. Sarrera

Euskara letra hizkuntza bilakatzean, zergatik sortu da idatzizko eredu bat Zuberoan? Galdera egokiro pausatu du Peillenek (1992a: 63-64): “zerkatik hainbeste idatzi den Zuberoan”. Ihardespenean, Peillenek marxismoaren ikusmoldearen eragin okerra egozten dio Sarasolari (1976). Laburbilduz, Peillenen arabera: a) Zuberoan literatura ez bide zen *hirian* agertu, Oihenarten garaian Maulek Barkoxek baino populazio urriagoa baitzuen; eta b) herri batek aberastasun ekonomiko maila bat erdietsi beharko balu literatura sortzeko, orduan ez litzateke esplikatu zergatik XVII. mendeko Gipuzkoan ez zen literaturarik egin. Argudiatze horretan,

bide batez, Peillenek XVIII. mendeko euskal letren beheititzearen azalbide ekonomizistaren kritika egiten du.⁶⁰

Hiri zer den eztabaida baliteke ere —Maulek bizizale gutxiago ukan arren, handiki gehienen bizilekua zatekeen—, zentzuzkoa iruditzen zaigu Zuberoako euskararen idatzizko tradizioaren sorreraren azalpena baldintza ekonomikoetarik kanpo bilatzea edo, behintzat, ez soilik baldintza ekonomikoetan. Hasteko, soziolinguistikari begiratu behar zaio: Hego eta Iparraldeko alfabetatze tasak ez ziratekeen parekagarriak.⁶¹ Hori ez ezik, badakigu historikoki Espainiako euskaldunak ez direla euskaraz alfabetatu; bai, ordea, Frantziako Erresumakoak —Iraultza arte bederen, *petites écoles* edo ooren eskoletan; cf. 3.3.4.3.2—. Badakigu, halaber, XVII. mendean populazioaren multzorik zabalena euskaldun elebakarrek osatzen zutela (cf. Oyharçabal 2001a & 2001b). Hori guztia ulerturik, logikoa da Iparraldeko euskararen tradizio idatziak Hegoaldekoak baino erro sendoagoak eman izana.

Leiarra Zuberoan paratuz, idazteari lotu zitzaizkionean, Oihenartek eta Tartasek ez zuten Maister bati baliatuko zitzaiokeen tradizioa, baina ordurako Akitaniako euskarak bazuen idatzizko eredu bat: lapurtera klasikoa eta, gutxi ala asko, biak zerbitzatu ziren tradizio hartaz. Oihenartentzat (1656), bestalde, Lapurdikoa zen Akitaniako euskararen ordezkari garbiena, eta ekialdekoa (Zuberoakoa) haren endekamendu eta higaduraren ondorioa. Oihenartek eta Tartasek, halaber, bestelakoak zituzten helburuak: biak Zuberoa gainditzen zuen irakurlego bati zuzendu zitzaizkion (cf. Urgell 2015b, eta ikus § 3.1.2). Mende erdi lehenago ere, lekukotasun motaren aldetik guztiz desberdinak diren Etcharten gutunetan (1616-1617) idatzizko eredurik sumatzen ahal dugu, hasteko euskararen erregistro aski jasoan. Erregeren zerbitzari ala Elizaren kargulant, Etchart, Oihenart eta Tartas, hirurak handiki ditugu. Zuberoa

⁶⁰ Lafittek euskarazko ekoizpenaren beheraldiaren kausa Utrechteko Itunaren ondorio ekonomiko gaitzetan xerkatu zuen, eta ikusmolde horrek bestelako arrazoirik estaliko zukeen: “protestanteak Euskal Herritik eta Frantziatik akasatu ondoren ez zela ideologia borrokarik izan, eta Elizak orduan liburugintza onaren egitea utzi zuela” (Peillen 1992a: 64). Ondoren Oyharçabalek (2001a & 2001b), arrazoi soziolinguistikoei so eginik, bestela azaldu du euskal letren bilakaera: euskarazko liburugintza elebakarren premiei erantzuten baitzion, Akitaniako euskal herrietan frantsesaren ezagutza hedatu ahala euskarazko liburugintza horren beharra apalduz joan zen, elebakar egoten zirenei —hots, populazioaren zatirik xumeenari— lerratuz.

⁶¹ Erregimen Zaharreko alfabetatze datuen neurtzearen zailtasunak goiti-beheiti, eta horretaz dakigun gutxiari soño bat egiteko, Frantzian 1786-1790 bitartean sinatzen zekiten gizonezkoen kopuruak, (Frantziako) iparraldetik kanpo, soilik Pirinio Apaletan eta Alpe Garaietan gainditzen zuen %70a (Grosperin 1984: 159). Alfabetatze ehuneko altuenetakoak Pirinio Apaletakoak izatea —dudarik gabe Biarnoko datuengatik— ez dateke halabeharrezkoa.

gainditzen zuen harreman sare batean plazatuak ziren, eta bide dugu pentsatzeko hirurak sare horren idatzizko usantzen partalier zirela. Hein batean, Zuberoako lehen testuen sorrera *testu komunitate* kontzeptuari lot lekiok: “The term ‘text community’ refers to literate people in a particular place and time who share particular range of written texts” (Meurman-Solin 2012: 467).

Akitaniari doakionean, euskararen tradizio idatzia bereziki Lapurdin, eta ondoren Zuberoan izan da azkarren: lehenik lapurtera klasikoa, eta bigarrenik Belapeire abiatu zuen zuberera klasiko garbia, Iparraldean horiek izan da idazle gehienen hautuak. Aitzineko mendeetan euskaraz idatzi eta, batez ere, argitaratu testuen parterik handiena erlijiosoa izanik, gure ustez Eliza Katolikoaren egiturak gogoan izan behar ditugu galdera horri erantzuteko. Iraultza baino lehen, Akitaniako euskal herriak hiru elizbarrutiren artean banatuak ziren. Baionakoak Lapurdi eta Nafarroa Behereko hegoaldea eta mendebaldea hartzen zituen, Akizekoak Nafarroa Behereko ipar-ekialdea, eta Oloroekoak Zubero herria.⁶² Oloroeko diozesan Biarnoko hegoaldeak —hots, egun Paueko eta Oloroeko arrondizamenduak— Zuberoarekin bat egiten bazuen, Biarnoko iparraldea Lescarreko eta Tarbeko elizbarrutien artean zatitua zen. Beraz, bai euskaldunak, bai biarnesak hiruna elizbarrutitan barreiatuak ziren. Antolamendu hartan Oloroeko elizbarruti zaharra bi arrazoirengatik iruditzen zaigu aipagarri. Lehenik, haren baitan zuberotarren batasuna errespetatua zelako; bigarrenik, haren meneko euskaldun guztiak zuberotar zirelako.

Gure ustez, egoera horrek berezitasun bat markatzen zuen euskarazko —zubererazko— testuen argitaratzeko beharrunea pausatu zenean. Zubererazko lekukotasunen inprimatzaile eta argitaratze lekuei erreparatuz, lehen inpresioa da XIX. mendeak joera aldaketa bat dakarrela: ordura artio Paue baldin bazen zubererazko liburuen agerleku nagusia, Iraultza ondoan Baiona bihurtu zen erreferentzia nagusi. Hain da horrela non, Erregimen Zaharreran zubererazko libururik bertan ez argitaraturik (2. TAULA), Iraultzatik 1879. urtera arteko hogeitau inprimatuen erdia Baionako moldiztegiatarik aterako baitzen (3. TAULA). Aldakuntza hori ez zen halabeharrez gertatu:⁶³ Iraultzaren osteko Frantziako Eliza Katolikoaren

⁶² Nafarroa Behereko hegoaldea mendebalde eta ipar-ekialde horiek lurraldea bitan zatiturik definitzen dira: lehenean Garazi, Ortaize-Baigorri eta Arberoa, eta bigarrenean Oztibarre eta Amikuze (erdalduna zen Bidaxune, eta ingurukoak ere). Xehetasun gehiagorentzat, ikus Moreau (2003 [1981]: 13).

⁶³ Nola ez, inprimatzearen egoerak ere badu garrantzia. Intxaustiren arabera, Baiona ez zen beti inprimaleku egokia suertatu: “Badakigu hiri honetako moldiztegi batean inprimatutako lehen liburua 1642koa dela, Vinsonek

berregituratzeak —Akizeko zein Oloroeko diozesak desegin, eta euskaldun guztiak Baionako elizbarrutian bilduz— bere herexa utziko zukeen euskarazko liburugintzan.

3.3.4.3.2. Zuberera idatziaren sorrera, Oloroeko diozesari lotua

Frantziako Erresuma Eliza zaharraren eta erreformatuaren arteko gerlen lekuko bilakaturik, Trentoko Kontzilioaren ondorioak laster sentituko ziren katekesian, beharbada Espainian baino indar handiagoz —eta are gehiago Biarnoko elizbarrutietan⁶⁴—. Ezaguna denez, Erregimen Zaharreko Frantzian eskolatze sistema bat abian jarri zen, erregearen eta bereziki Eliza Katolikoaren babespean. *Petites écoles* zirelakoek xede kateketikoa zuten; gehiago dena, katekesia betearazteko baitezpadako bitarteko gisara ziren antolatuak. Errana dugu, XVII eta XVIII. mendeetan —bai eta XIX.ean ere— Iparraldeko populazioaren zati handiena elebakarra zen. Hortaz, Elizak euskararen beharra zekusan Jainkoaren hitzaren jende xumeengana helarazteko. *Petites écoles* haiek, beraz, euskaraz pasatzen ziren Frantziako euskal probintzietan.

Agirrek (1998b) eta Oyharçabalek (1999) ohartarazten gaituzten bezala, Belapeirek *ororen eskolen* antolabidearen berri ematen digu bere katiximan. Orduko egoeraz pleini ondoan,⁶⁵ Zuberoan Oloroeko apezpikuaren *official* kalitatean egin ordenantzan, Belapeirek honakoak ezartzen ditu:

Çuberoaco Juge espiritual beçala ordenatcen dugu Herri hontaco erretor, edo Vicari orori, Jesus-Christen doctrina uscaraz eracax eta enthelega eraci diecen bere Parropiacoer, gutiena igante oroz, Meçaco guihaurec aspaldian uscaraz eguin dericiegun pronoarean ondoan. (Bp I 19)

esaten digunez, eta handik aurrerakoetan ere Baionatik kanpo egin (behar) izan zirela sarritan inprimaketa-lanak geroago ere, XVII.ean noski, baina baita hainbat aldiz XVIII.ean ere” (2004: 861). Dena den, erran behar da zubererazko eliz liburuek ez zuketela aparteko eskakizun tekniko edo artistikorik eskatzen, hein handiengan irakurlego xume bati zuzenduak baitziren. Hala iruditu zaigu corpuseko liburu gehienak aztertzean eta bereziki, itzulpen edo moldaketa direnen kasuan, frantses edo lapurterazko iturriei erkatzean.

⁶⁴ Biarno eliza erreformatuaren gotorlekua izanik, erlijio lehiak grina berezi bat hartuko zuen. Horrek ondorio positiborik ere ekarri zuen: Frantziako alfabetatze ehuneko altuenetakoak; cf. 61. oharra.

⁶⁵ “Neanmoins, par une negligence Criminelle, la plupart des Curés dudit païs obmettent toujourns de répandre ces consolations salutaires à leurs peuples, parce qu’ils n’ont jamais eu le soin de faire établir des Maîtres d’Ecole dans leurs Parroisses, pour disposer d’avance les enfans chaque semaine d’apprendre le Catechisme, distribué pour le Dimanche en suivant, pour le reciter publiquement dans l’Eglise” (Bp I 8).

Erretor eta Vicariec biciki escola eraciren dutie bere Parropietaco haur gaztiac, chipiçaroan ihiki ikhas, eta hartia hobeki bethicoz beguiratcen ahal dielacoz. Hala goure Jaun Apezcupiaren ordenancen arau, Norc bere Parropietan, Orogen escolabat eçar eraciren die ahalic sarriena, çognez arrancura berhecibat Ukenen baitie bere erretoretaco eguinbidec lekhu derieno, auher eztaudian, nontic sortcen baitira vicioac; edo beste escola burçagui onsa ikhassi, bicitce honetaco, eliçaco Javez onhexi datian, bati eraguinen. (Bp I 22-23)

Mende erdi berantago, Oloroeko elizbarrutian irakaskintza haren arautzeko liburuxkan, J.-F. Montillet apezpikuak irudi klar bat eskaintzen digu:

La Priere étant faite, le Maître d'Ecole donne un signal pour faire lever les enfans, que sans faire de bruit, étant levez font une inclination profonde au Crucifix, et se remettent en leurs places. Alors le Maître fera repeter quelque chose de l'abbregé du Catechisme aux plus petits enfans, après quoy il interrogera ses autres écoliers sur l'article du Catechisme qu'il leur aura donné à apprendre ; lors que le Maître verra qu'on ne sçait pas bien l'article, il donnera le même a répéter le lendemain : cet exercice doit se faire tous les jours à l'Ecole du matin, et on ne doit y employer qu'un quart d'heure ou oune demie heure au plus, et le Samedy l'Ecole du matin doit être employée toute entiere à faire répéter à tous les écoliers, les articles du Catechisme qu'ils auront étudié pendant le cours de la Semaine. Et le soir en finissant l'Ecole, il leur aprendra à chanter quelque Cantique (Montillet 1740, art. III).

Revol eta Montillet leinuetako apezpikuen gotzainaldietan (1705-1783) hezkuntza izan zen arrangura nagusia: apezzen formakuntzaz bezala —Oloroeko apezgaitegia⁶⁶—fidelenaz ere arta hartu zuten —katixima eta *ororen eskolak*—. Euskararen tokiari dagokionean, apezpiku batzuen jatorri euskalduna azpimarratu izan da faktore faboragarri gisara (Intxausti 2004: 857), baina ez da komeni ahanztea euskaldun ez ziren beste batzuek diozesako hizkuntzen erabilera kateketikoa defendatu zutela, bereziki Revol-Montillet familiakoek (Castagnet 1997: 86-87). Erran izan da, halaber, François de Revolek euskara eta biarnesa ikasi zituela (Laborde 1924: 21), bederen bere ikuskatzeetan hurrei galdegin ahal izateko bezainbeste.

⁶⁶ 1708an Frantziako Erregeak Oloroeko apezgaitegiaren ezartzea onesten du; ikastegi berriaren eremuak Zuberoa hartzen zuen (Moreau 1981 II: 53-54). Oloroeko elizbarrutiaren apezgaitegiaren gaineko xehetasunendako, ikus Castagnet 1997: 71-77.

1. TAULA. Oloroeko apezpikuak XVII. mendetik

Apezpikua	Gotzainaldia
Arnaud IV de Maytie	1597-1623
Arnaud V de Maytie	1623-1646
(tarte egongaitza hiru apezpikurekin)	
Arnaud-François de Maytie	1659-1681
Charles de Salettes	1681-1705
Joseph de Revol	1705-1735
Jean-François de Montillet	1735-1742
François de Revol	1742-1783
J.-B. A. Villoutreix de Faye	1783-1790
B. J.-B. Sanadon	1791-1793

Belapeirerengana itzuliz, *Catechima laburra* “zuberera klasikoaren” sortze agiritzat har daitekeen arren, oihartzunari eta harrerari erremarkatuz gero, hamar urte berantagoko Oloroeko dotrinak gehiago eskatzen du gure arreta. Izan ere, diozesaren barneko kereila eta aharrak zirela kausa,⁶⁷ Belapeirerenak ez zukeen luzazki indarrean iraun: 1706an Oloroeko apezpikuak, Joseph de Revolek, berea inprimaraziko zuen, Zuberoako bikario jenerala zen Jacques de Maytiek itzulirik. Belapeireren testua baino aski laburragoa, dotrina horren indarraldia luzea izan zen: Inperioaren parentesi laburraz landara (Agirre 1998b: 350) mende oso bat, eta harago ere;⁶⁸ haren edizioetarako, ikus ATALASEAN, § 3.2.3. 1743an François de Revolek bere osabak ezarri testua arraberrituko zuen, denborak eragiten dituen kanbiamenduen justifikazioaren pean:

⁶⁷ Larrieu jaunaren arabera, “Belapeyre paraît avoir été l’être le plus processif et le plus batailleur qu’il soit possible d’imaginer”; ondoren, haren prozes eta auzien kontu errendatze bat eskaintzen du (Vinson 1891: 142-144).

⁶⁸ “Ce catéchisme [...] était encore en usage dans le pays, pendant le vingt premières années du siècle présent” (Menjoulet 1869: 336). Ezagutzen dugun azken edizioa 1817koa baita, pentsa daiteke *usage* hori komuna zela. Harago, XIX. mende akabantzako Zuberoan Oloroeko katixima zaharraren garra ez zen oraino guztiz iraungia: “Diala berrogei ourthe etzen neke khausitzia gogoz katichima zakinik. Egun aldiz ehi liateke khountatzen, nahi bada eskola hedatiago den. Ezagutzen dut haregati Maule ondo ondoko guizoun zaharttobat (badutu laur eta hoguei ourthe igaranik) egundano ahantzi ez tiana bere katichima, Oloroueko katichima zaharra; eta artetarik orano so zounbait eguiten dero” (*Almanak Uskara* 1887: 24).

Haren obragia osso eta perfeita cen bere populiari eman cianian, eta egun onxa difficil liçate hartan cerbait emendatcia edo herçia, munduco manerac ezpalira themporareki khambiatcen: badakicie ene anaye ecinago maytiac, diala hoguey eta hamar ourthe perfekt eta complitu ciren gaicec eztiela uduri egun badiela ber goustia, ber indarra eta arranjatceco ordian eman çayen ber chahutarçun eta agradamentia (*CatOlo* 1746: iv).

Beraz, egungo ikuspegitik bi lan nagusik (Belapeirerenak eta Maisterrenak) eklipsatua iduri lukeen katixima xume hark garrantzia ezin ukatuzkoa ukan zuen, nezesarioki, zuberera idatziaren kodetzearen finkatzean. Gauzak bere testuinguru historikoan, nahi bada *materialean* kokatuz, zuberotarrak Oloroeko katiximarekin izan ziren eskolatuak, mende luze batez. Haren grafiekin laketu ziren, eta haren moldeetan ikasi zituzten Jainkoaren manuak, edo egun orozko otoitzak errepikatu. Eta ez da ahantzi behar katiximaren hainbat pasarte osoki emanen zela beste liburutan. Horrela, *Uscara libriaren* 1828ko edizioan GOIÇANCO OTHOITCIA, DIOCESACO CATICHIMATIC goiburu pean Oloroeko dotrinarena datza (bertsio *emendatiarena*, 1743az geroztikakoa), Oloroeko egoitza 1801etik desegina zenean —1834tik aitzina otoitza Astrosen katiximatik hartuko da (cf. 51. oharra)—.

Itzul gaitezen zubereraren testu inprimatuen zerrendara. 1789ko haustura gogoan, ondoko taulan aise ohar daiteke zubererazko ekoizpenaren izaera:

2. TAULA. Zubererazko testu inprimatuak Iraultza arte.

Oloroeko elizbarrutiari lotuak			Hitz
1676	???	<i>PrSing</i>	1.254
1686		katixima galdua	?
1696	???	Bp	23.071
1706	Paue	<i>CatOlo</i>	10.751
1734	Paue	<i>Othoitce</i>	9.216
1757	Paue	Mst	48.300
ca. 1757	Paue	<i>IP</i>	1.995
1758	Paue	Ressegue	5202
1780	Paue	Mercy	5360
1782	Paue	<i>NLilia</i>	2.222
1783	Paue	<i>Ene adisquidia</i>	?
ca. 1790	Baiona	<i>UskLi</i>	15.210
			Orotara
			123.679
Bestelakoak			Hitz
1657	Paris	<i>O Pro</i>	4723
1657	Paris	<i>O Po</i>	4800
1666	Orthez	<i>Tt Onsa</i>	33.150
1672	Orthez	<i>Tt Arima</i>	15.824
			Orotara
			58.498

3.3.4.3.3. Zuberera idatziaren beharraz eta egonkortasunaz

Oihenartenak izan ezik, 2. TAULAKO liburu guztiak erlijiozkoak dira, eta haien arteko gehienak Oloroeko apezpikutzari estuki lotuak. Argi da diozesak interes bizia erakutsi zuela zuberotarren erlijioan heztean, liburuen bitartez. Argi da, halaber, helburu horretarako zuberotarren *mintzajetik* hurbilenik zatekeen hizkuntza idatzi bat baliatu behar zela; funtsez, Belapeirek erabili zuena. Erran den bezala (§ 3.2.2), Pello Agirrek (1998a) 1676ko pronuaren egilea seguruenik Belapeire izan zela argudiatu du —eta guk hipotesi hori onetsi eta azkartu—. Oihenarten eta Tartasen obrak ez bezala, *Pronus Singulis diebus* testua *expresis verbis* Zubero Herriko idatzia da —egilearen hitzetan *pro Patria Solensi (PrS 27)*—. Hortaz, 1676ko pronuak hasiera ematen dio Oloroeko elizbarrutiaren babespean inprimatutako euskal liburuen zerrendari. Hiru hamarkada berantago, Joseph de Revolek honakoa zioen, bere katiximaren argitalpenaren aginduko prosa ederrean:

Dieu n'ayant pas voulu que nous eussions la consolation de pouvoir instruire de vive voix une partie de nos Diocesains desquels le langage Nous est barbare, et ausquels le notre l'est peut être aussi, & qui sans ce secours ne pourroient pas repondre *Amen*, comme dit l'Apôtre à nos

Benedictions & Exhortations. Nous avons choisi cette forme de Catechisme ou Instruction familière préférablement à toute autre, parce que Nous connoissons par une longue experience de plusieurs Dioceses ou Nous avons travaillé, qu'il est à la portée des plus foibles & des plus ignorans, & que les personnes les plus avancées ne laisseront pas s'ils veulent, d'en profiter, & qu'a l'instruction elle ajoute des principes de pieté tres utiles & tres édifiants. Et pour assurer de la fidelité d'une traduction qui ne Nous exposât pas à donner à nos chers enfans le poison pour le pain et le serpent pour le poisson, Nous nous sommes assurez, pour en faire la traduction, de personnes dont la capacité et la probité Nous sont également reconnues, ayant choisi pour la langue Basque, Messire Jacques de Maytie, Chanoine de notre Eglise Cathedrale et notre Diocese qui est en Soule : & en Bearnois Maître Pierres de Lailhacar Curé de Leguignon & notre Promoteur ce qui fait que Nous esperons que vous recevrez ce petit ouvrage de notre part, comme le lait dont ont besoin ceux qui ne sont pas encore capables d'une plus forte nourriture. (Revol 1712: 14-15).

XVII eta XVIII. mendeetan, euskarazko liburuen paratestuetan euskaraz idaztearen beharra kasik *topos* bilakatu zen. Euskaldun elebakarren arimen gidaritzaren euskaraz egiteko beharra zen euskarazko ekoizpen editorialaren justifikabide gehiena. Zuberoako adibide batentzat, hona hemen Maisterren eskaintza gutunaren bi pasarte, François de Revol gotzainari:

Eta noula çoure carguian, eta escupian den diocesaren pharte batec ecin escola houn hoyetariec ajuturic ukheiten beicican, bere sortcepeneco lengouagia baicic etçakialakoç, hartacoç hanco içalec ere, bestec hebentic idokitcen dutien abantalletaric, ukhen lecen pharte, hen uscarala utçuli içan den librugnou haur çoure handitarçunaren gomendiaren, bai etare sustenguiaren pian eçarri içan duçu (Mst iii-iv).

Besthalte escolan dabiltaçan hurrec uduri da abantalla haur jardiexiren diela, uscararen iracourten ikhasten dielaric, hala noula latia eta francesa ikhasten beicutie, hanitcheç ehignerago gogouan ethekiren dutiela catichiman eracousten çaitcen eguia saintiac, eta Jincouaren laidoriouen canticouac; erregentec eracouxi deikeyenian bere lengouagiaren hagn laster iracourten, noula bestetan trebatcen beicutie (Mst ix-x).

Azken finean, bada lotura estu bat Iparraldeko egoera soziolinguistikoaren eta euskarazko liburugintzaren artean. Lehen aipatu dugunez (§ 3.3.4.3.1), XVIII. mende inguruan euskarazko ekoizpen editorialaren beherakadak soziolinguistikan du esplikabidea, eta ez ekonomian: frantsesa Akitaniako euskal herrietan sartu arau, euskarazko liburuek gero eta irakurlego mugatuagoa zuketean. Beraz, Materrak eta Axularrek gogoan zituzten euskal

irakurle haiek, seguruenik gizarte erdi-mailakoak zirenek, tokia utziko zieten Lopezek aipatu *jente praubeer*.⁶⁹ Zubereraren tradizioa lapurterarena baino mende bat berantago hasirik, ez da beheititze hori igartzen; erran daiteke zubererazko liburugintza bere sorreratik izan zela gizartearen maila apaleko irakurleei lerratua.⁷⁰

Egitate baita Belapeireren denboratik, zuberotarrentzat eginikako liburuak Zuberoako euskaraz idatzi izan dira. Baina hala izan behar zen bortxaz? Lehenagotik tradizio ongi ezarria zuen lapurtera ez ote zen baliagarri? Beste euskal herrietako liburuek ez zuten sarbiderik Zuberoan? Ez dirudi, herri xehe harengana modu zuzenean heltzea zenaz kestione, lapurtera zeukatenik bide egokiena. XVII edo XVIII. mendeko testuetan ez da afera aipatzen, guk dakigula. XIX. mendean, aldiz, barne itzulpenen fenomenoak zalantzarako tarte gutxi uzten du (ikus § 3.4.3 eta Urgell 2017a § 3.3.6). Hortik ondorioztatu behar dugu, ezinbestean, Zuberoa Baionako elizbarrutian sartzean Lapurditik idatzitako testuek ez zuketela beren funtzioa betetzen ahal Zuberoan, hizkuntz arrotasun puntu batengatik —baina baita zuberotarrak zubereraz irakurtzen laketuak izateagatik ere—:

Hori ikhoussiric, *eta etcielacoz ounxa enthelegatcen ahal Ciberouan*, ouste ukhen die libru hau eçagutcen cienec houn çatekila eta abantailous *Ciberouco uscara baicic praticatcen ez dienantçat lengouage hountan meditacione hoyen eçartia*. Lan hau hartu dianac ez du dudaric edirenen dela parropietan hanitch persouna disposaturic meditaicone hoyez ounxa baliatceco; ez balitz ere içaten aphur baicic, balio die, segur, lan hounen hartceco phena, çougnen harçalia gomendatcen beita hayen oracionetara (*Meditacioniac* 7).

1812ko *Doctrina khiristia haurren instruccionetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati* liburuaren kasua —“Inperioaren katixima” deitua— desberdina da. Lapurterazko bertsioa lehenago argitaratu arren, ikusi denez (§ 3.2.4, *DKhi*) bi bertsioen arteko erlazioa ez da *ama-alaba* erakoa, *ahizpak* lirakekeela baizik, biak izan baitziren

⁶⁹ Oyharçabalen hitzetan, “Désormais ce genre de texte [euskaraz argitaratua] s'adresse aux gens des campagnes de peu de moyens, et il convient de leur fournir des textes ni trop longs ni trop onéreux” (2001a: 29). Hona Lopezen pasartea: *Lanaren lucetarçunaz cen beçambat, ene Adiskidiaren seindimendia çuçun laburtzcia hobe cela, Liburu hedatu horren pparte bat gende comunaren hoben denaren choilki Heuzcarala itçuliz, eta besthiak utciz; ceren halaz Liburia labur-ago baitate eta merkiago, eta hantic gende praubec ihikiago erossiren, eta aboroc probetzchaturen*. (Lopez 1782: 6).

⁷⁰ XIX. mendean liburu merkeagoen argitaratzeko premia preseski aipatzeraino iritsi ziren: “Çoure ganat ene bihotz behariac eraikiric nuntian aldi batez, entçun çuntudan erraiten: damu da, Ciberouan ezelacoz libru guti baicic, eta direnac khario” (*Mysterio eta eguia guehienez*, eskaintza gutunaren hastapena, 1862).

frantsesetik itzuliak. Orobat gertatzen da *Maiatza Mariaren Hilabetia* (1852) lanarekin, *Andre-dena Mariaren ilhabethea* (1838) lapurterazkoaren testua ez baitator harekin bat; izan ere, zubererazko testua “a été faite sur un texte français arrangé par M. l'abbé Bordachar (directeur du Collège de Mauléon), par M. l'abbé de Hagon (de Mauléon)” (Vinson 219e). Zernahi gisaz, zubererazko bertsiio baten premia agerian da berriz ere. Kontua da Iraultza ostean, edo hobeki erraiteko Oloroeko diozesaren desegitearen ondoren, hasi zela zenbait liburu lapurterazko bertsiioetarik zubererara itzultzen, edo gutxienez moldatzen. Hala edo nola, Zuberoako eliz gizonen Baionara edo Larresorora begira egon beharrak ondoriorik ekarri zukeen hizkuntza idatzian.

3. TAULA. Zubererazko lekukotasun inprimatuak (1789-1879)

Baionako diozesari lotuak			Hitz
1812	Baiona	<i>Doctrina Khiristia</i>	11.823
ante 1834	Baiona	<i>CatS</i>	20.240
1834	Baiona	<i>UskLi 2</i>	11.490
1838	Oloroe	<i>Khurutch</i>	2.158
1844	Oloroe	<i>Meditacioniac</i>	26.835
1846	Baiona	<i>Cantica Espiritualac</i>	≈ 10.000
1847	Baiona	<i>Ip KurBD</i>	2.736
1850	?	<i>Mariaren haurren</i>	537
1851	Baiona	<i>Ip Uscaledunaren laguna</i>	≈ 18.800
1852	Oloroe	<i>MaiMarHil</i>	13.650
1852	Pau	<i>CibGut / Myst</i>	7.530
1860	Oloroe	<i>HOrdre</i>	12.798
1879	Paue	<i>SGrat</i>	2.776
		Orotara	141.373
Besteak			Hitz
1834	Paris	<i>Chaho AztBeg</i>	985
1844	Baiona	<i>Chaho Ariel & Le Messenger</i>	?
1857	Londres	<i>Bon/Ip Dial</i>	5.203
1856	Baiona	<i>Ip Mat</i>	≈ 18.000
1858	Londres	<i>Bon/Ip CantTP</i>	413
1858	Londres	<i>Ip Apok</i>	9.533
1858	La Réole	<i>Archu Fab</i>	7.912
1873	Baiona	<i>EvS</i>	14.567
1873	Baiona	<i>Epit</i>	3.219
		Orotara	> 60.000

Atal honen finitzeko, eta zuberera idatziaren (barne) egonkortasunaren kontzeptuarekiko kontrastean, beharbada zubereraren ibilbidea eta haren pisua literatur hizkuntza gisara ez dateke lineala:

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera Akizeko elizbarrutian Nafarroa Behereko ekialdeko hizkerak oinarritzat hartzen dituzten obrak argitaratu ziren, hala nola Aulanen dotrina (c. 1740) eta Lopezen itzulpena (AR, 1782), eta azken honetan bederen zubereraren eragina sumatu da (Camino 2008). Arrazoizkoa da pentsatzea, bada, lehenagoko garaietan elizbarruti honetan Oloroeko argitalpenak baliatu zituzketela, linguistikoki hurbil izanik. Honek eredu konplexu batera eramango gintuzke, non zubererak denbora batez halako hegemonia bat izan baitzukeen ekialdeko hizkeretan literatur euskalki gisa, beste hizkera batzuk ere idatzira iritsi ahala kolokan jarri bide zena. (Urgell 2017a § 7.4)

3.3.5. Gogoeta periodizazioaz

Periodizazioaren aferari lotuz, zentzuzkoa dirudi Lakarra 1997 eta Gorrochategui, Igartua & Lakarra 2016 lanek markatzen dutena kontuan hartzea. Aldiz, bazterreko mintzo baten kasuan, Akitanian kokatua, bestelako kontsideraziorik ere egin genezake. Lehenik, XVII. mendearen azken partean Belapeireren lanak ditugu mugarri argia (1676 & 1696): Oloroeko elizbarrutiko euskal testuen zerrenda zabaltzen dute, literatur zubereraren oinarriak finkatuz.

Bigarrenik, Frantses Iraultzak mende laurdeneko etenaldi bat eragiten du tradizio idatziko testuen corpusean; gehiago dena, 1782 (Mercy) eta 1812 (*Doctrina* khiristia) bitartean ez zen, guk dakigula, zubererazko libururik argitaratu.⁷¹ Eten horrekin bat egiten du Oloroeko diozesa zaharraren desagiteak, 1801. urtean zuberotarrak Baionako apezpikugoaren menera iragan baitziren. Ikusiko denez (§ 3.3.4.3), literatur euskalkiaren sorrera eta egituratzea Oloroeko diozesari estuki lotua izan zen. Beraz, Zuberoko euskarari begira, zilegi dirudi XVIII. eta XIX. mendeen arteko haustura gogoan erabiltzea.

Hirugarrenik, XIX. mendean dudarik gabe Chaho aipatu behar da: hura da zubereraren lehen gramatikagilea (1836) zein hiztegiagilea (1856), eta kazetaritza lanetan ere aitzindari. Garai bertsuan Archuk irakaskuntzara bideratzen ditu bere ahaleginak (1852), bere itzulpenetan halako *koiné* bat sortuz Iparraldeko euskaldunendako.

⁷¹ Salbuespen bakarra *Uscara libria* izan liteke; haren lehenbiziko edizioaren datatze aferaz ikus XXXX.

Laugarrenik, XIX. mendearen azkentzeko gorabeherak ere kontuan hartu izan dira euskal hizkuntzaren eta literaturaren historietan. Literaturari doakionean, 1876ko data sinbolikoa baliatu izan da literatur kritikoei “Pizkundera” deitzen duten garairenean abiapuntutzat. Hizkuntzari begira, ordea, Lakarra 1997 eta Gorrochategui, Igartua & Lakarra 2016 lanek Iparraldearentzat *Escualduna* aldizkariaren sorrera (1887) eta Hegoaldearentzat Azkueren *Euskal Izkindea* (1891) hautatu dituzte, hurrenez hurren, Bigarren Euskara Modernoaren abiapuntu gisara. Aldiz, Zuberoari begira, Erregimen Zaharra Iraultzarekin joanda —eta harekin batean Zubero Herriaren ezagutza juridikoa ere—, badira periodizazio batentzat lagunt lezaketen bestelako gertakizunak eta prozesuak. Ezen, ezin da ukatu XIX. mendearen hirugarren zatian Inchauspek eta Bonapartek zedarri ezin utzizkoa markatzen dutela: datu bat baizik ez aipatzeagatik, Bonapartek ezarri grafia berriak zubereraren idazkera aldatu zuen, <u> vs. <ü> grafema pareta sarraraziz (Urgell 2017a: § 4.1.4).

Maila apalago batean, XIX. mendearen akabantzan azaleratzen den *zuberera* arautuago, *xahüzaleago* horren garaikide ditugu almanakak, orduko giro politikoaren isla eta partaide. Batetik *Le Réveil Basque* errepublikazalea dugu, eta bestetik *Almanak Uskara*, kontserbadorea eta elizkoia. Haiekin batean, *Escualduna* agerkarian ere testu anitz argitaratu zen zubereraz. Ikuspegi soziolinguistikotik, hamarkada eskas batzuen ondoan Lehen Mundu Gerlak ondorio sakonak eraginen zituen, Akitaniako euskaldunen identitatea Frantziako Errepublikari lotuz (Bidegain 2014) eta, preseski Zuberoan, frantses hizkuntzaren ezagutza eta erabilpena orokortuz.

3.4. Corpusaren egoera

3.4.1. Edizioez

Testuen egoeran datza Zuberoako euskaren azterketaren zailtasun handienetarik bat, eta etorkizunari begira guretako erronka. Zuberoako testu gehienak editatu gabe daude oraino. Hori dela kausa, orain arte egin diren azterketak zatikako corpus batean oinarrituak dira, horrek dakartzan ondorioekin. Oro har, eta euskara osoarekin gertatzen den bezala, filologiaren ahaleginak lekukotasun zaharretara bideratuak izan dira, normala denez. Ondoko paragrafoetan gaindi Zuberoako testuen egoera laburzki deskribatuko dugu, protohistoriarekin has, idatzizko tradizioarekin segi, eta herri antzertiko lanekin buka.

Erdi Aroan *Censier gothique de Soule* da Zuberoako euskararen lekukorik osoena —XV. mendeko errolda hau, haatik, XVII. mendeko transkripzio baten medioz heldu zaigu—; ezinbesteko testigantza horren edizioa eta ikerketa dugu (Cierbide, Grosclaude & Orpustan

1994). Halaber, Orpustanek Erdi Aroko datu onomastiko franko bildu du (1999), eta orobat Goyhenechek (2011).

XVII. mendeko Zuberoako testuak, oro har, filologiaren eskakizun maila betetzen duten edizio modernoetara ekarriak izan dira —edizio horien berri zehatza izateko, ikus § 3.2.2—. Oihenarten atsotitzek eta neurtitzek hainbat edizio izan dute; horien artean Lafonena (olerkiak: 1955a & 1955b), Orpustanena (1992a) eta Altuna & Mujikarena (2003) nabarmentzen dira. Belaren (*TAV* 183-187) eta Zalgizeren (*Contr* 163-187) erran zaharrak ere bertsio fidagarrietan ditugu eskura. Tartasen kasuan, Altunaren edizioak ditugu: *Onsa hilceco bidiarena*, (zatikakoa 1987an, eta osoa 1995ean) eta *Arima penitentaren occypatione devotaq* liburuarena (1996). XVII. mendea hetsiz, 1676ko pronuaren eta Belapeireren *Catechima laburraren* edizio bikainak ditugu (Agirre 1998a eta 1996, hurrenez hurren). Azkenik, mende honetakoa da Gabriel Etchart eta Miguel Ros jaunena arteko gutuneria (Maule/Erronkari 1616-1617); espero dezagun horren edizioa, *Monumenta Linguae Vasconum* ikerkuntza proiektuaren baitan eginga, laster argitara emana izatea (Bilbao, Gómez, Lakarra, Manterola, Mounole, & Urgell, argitaratzeaz).

XVIII. mendeko testuei doakienean, egoera aski desberdina da. Oloroeko diozesari lotutako liburuen artean, berriz argitara eman den bakarra Maisterrena da (Davant 2009), baina haren edizioa ez da xede filologikoz eginga.⁷² Beraz, Oloroeko katixima (1706), *Othoitce eta Cantica*

⁷² Hutsen kopurua goiti beheiti, Davantek egungo zubererarentzat proposatu den grafian ematen du Maisterren testua, praktikan *Sü-Azia* elkartetik azken hamarkadetan hedatu den sistemaren barnean. Ondorioz, testuaren hainbat ezaugarri fonologiko desitxuratu da: bokalen bilkuretan aldi historikoan bederen —eta beharbada sekulan— ahoskatu ez diren *ü* etimologikoak agerrarazten ditu (*gaia* → *gaiüa*), eta aspaldi gauzatuak diren aldaketak desagerrarazten (*etchia* → *etxea*); herskari hasperendunak ere kenduak dira. Edizio horren kontu errendatze batentzat, ikus Rebuschi 2012; hona hastapeneko oharra:

“Pourquoi publier, au début du 21e siècle, non pas une création littéraire souletine, mais une *traduction* en souletin du milieu du 18e ? La réponse devrait être évidente : pour faire connaître la langue de l'époque telle qu'elle apparaîtrait dans ce texte.

Le choix s'imposait donc, soit de restituer intégralement l'orthographe originelle, comme J.-L. D. l'avait fait lui-même il y a une trentaine d'années, pour le texte d'A. Belapeyre (1696), soit de la modifier minimalement, comme Txomin Peillen l'avait fait à la même époque pour le livre d'Eguiateguy (1785) [...].

Le choix de cette édition [...] est malheureusement très différent : J.-L. D. a ainsi délibérément (intro. p.10) choisi d'adopter l'orthographe souletine moderne, instituée en 1978, modifiée pour la rapprocher des autres dialectes et du basque unifié. Ainsi, même dans le seul dialecte où il y a des paires minimales opposant des plosives sourdes aspirées ou non, le *h* a été supprimé après *p*, *t* et *k*, et aussi après *n* et *l*, bien que l'aspiration soit également significative dans ces cas. De plus, la fermeture, tout aussi typique de cet *euskalki*, de *e* et *ü* devant *a*,

Espiritualac Çubero Herrico (1734), *Igantçtaco pronoua* (ca. 1757), Eskiulako haurridegoen araudiak (Ressegue 1758 eta Mercy 1780) eta *Noelen Lilia* (1782) argitaragabe daude beren denboratik. Oloroeko diozesaren eraginpetik kanpoko testuei doakienean, Eguiateguyren izkribuen zatikako edizioak ditugu (Peillen 1983b & 2011), baina ez zaizkigu asetzeko manierakoak iruditzen.⁷³

XIX. mendeko testuen egoera ez da hobea: Baionako elizbarrutiko zubererazko liburuen artean (cf. § 3.2.4), ez dugu bakar baten edizio modernorik ezagutzen. *Literatur euskalki* horren tradizioan Chahoren idazki bilduma (Urkizu 1992) eta Archuren *Alhegiak* (Gómez 1990) berriki editatu dira. Bonaparterentzat egindako itzulpenen faksimilea ere aipa genezake (Arana Martija 1991b), edo lan horien edizioak (Pagola *et al.* 2004). Azkenik, Epeldek errezeten bilduma baten eskuizkribuaren edizioa paratu du (2008).

Zuberoako herri antzertiaren tradizioa etorriz, Hérèlle da abiapuntua: hark egin zuen testuen katalogoa (1927), bai eta *Canico et Beltchitine* xaribariaren edizioa (1908); pastoral baten lehen edizio kritikoa *Sainte Hélène de Constantinople*-rena da (Léon 1909). Azken hamarkadetan pastoraletan *Charlemagne* (Oyharçabal 1991), *Jean de Paris* (Mozos 1995), *Sainta Catherina* (Loidi 1996), *Edipa* (Bilbao 1996) eta *Saint Julien* (Loidi 2004) testuen edizioak egin dira. Errana dugu, *Charlemagneren* kasuan, Oyharçabalen lana edizioaz anitzez harago doa (cf. § 3.4.4.4). Astolasterrei dagokienez, gutxi editatu eta ikertu dira, seguruenik lekukotzen duten estilo ahalkegabeagatik. Aresti izan zen aitzindari (1971); Mozosek (1986) bi testu editatu ditu, eta Peillenek bat (1982), baina oroz gainetik Urkizuk (1973, 1984 &

où ces voyelles (restituables évidemment dans d'autres contextes phoniques) sont neutralisées au profit de *i*, —et de *o* en *u* dans le même contexte— en dénature profondément la nature morphophonologique.

J.-L. D. fait bien allusion [...] aux débats sur « la bonne » manière d'orthographier le basque, mais la question n'est pas là. Ainsi, si Maister écrivait *huna* et *Jinkua*, et non *hona* et *Jinkoa*, c'est parce qu'il devait prononcer une voyelle d'arrière fermée et non médiane, et c'est précisément ce type de fait qui importe quand on s'intéresse à un état de langue ancien !" (2012: 852)

⁷³ Hona hemen Pello Agirreren iruzkin bat, Peillenen edizioen arazoan erakusgarri: “Belako Zaldunaren hiztegiari egin hitzaurrean, Peillenek dio Eguiateguyk tildea darabilela bokalen sudurkaritasuna adierazteko [...], baina Eguiateguyren liburuaren hitzaurrean ez da halakorik aipatzen. Bestalde, Peillenek, grafien azterketarik eman gabe eta aldaketaren xehetasunak adierazi gabe, testua grafia modernoan eman duenez, ezin ditugu jatorrizko grafiak aztertu. 36. orrialdean eskuizkribuaren zatitxo baten argazkia eskaintzen du, eta 37.ean zati horren transkripzioa. Peillenek aldaketak egin ditu: jatorrizkoan *Estiélaric* dago, edizioan *etzielarik*, inolako oharrik ezarri gabe; jat. *gendé guzia*, edizioan *jende güziak*; jat. *minkaitz-Etzaz*, edizioan *minkaitzentzaz*; jat. *jaunarē khortian*, edizioan *Jaun khortian*. Edizioak ez dirudi, beraz, fidagarri.” (2001a: 316, 54. oharra)

1998) argitara eman ditu asto laster gehien. Salbu —beharbada— Mozosena, edizio horiek ez dira pastoral zaharrendako aipatu direnen mailakoak eta, beraz, ez gaituzte asetzen.⁷⁴

Herri literaturaren alorrean, Sallaberryk 50 kanta zaharren bilduma argitaratu zuen (1870), zeinetarik 31 Zuberoakoak baitziren. Francisque-Michelen lanean ere kantu zahar zenbait aurki daiteke, eta orobat Azkueren kantutegian. Euskal baladen biltze eta aztertzean, halaber, Lakarra, Biguri & Urgell 1983 lana dugu. Azkenik, Zuberoako bardoa den Etchahunen lirika, ahozko tradiziotik jaso, testu kritikaren iragazkitik pasatu da (Haritschelhar 1969-1970), edizilogileak hizkuntzazko ohar interesgarri andana batez horniturik.

Esperantza dugu tesi honen ondoren Zuberoako lekukotasunen egoera poxi bat hobetuko dela, gure zenbait ediziok argia ikusiko duelakoan. Etorkizuneko lan horien artean lehentasuna, batetik, Oloroeko diozesako testuei emanen diegu (XVIII. m.) eta, bestetik, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriari (ca. 1810).

3.4.2. Testuen iturriez, transmisioaz eta egiletasunaz

Euskarazko liburuen bibliografia lanen aitzindariak ahaztu gabe (Oihenart eta Larramendi, besteak beste), XIX. mendean Francisque-Michelen lan gogoangarria (1857) aipatu behar dugu. Beste hainbat jakingarriren artean, Francisque-Michelek euskal idazleez eta testuez berri arras interesgarriak bildu zituen, bereziki Akitaniako euskal herrietakoez. XIX. mendean badira beste lan aipagarriak (Hovelacque, Picot & Vinson 1880), baina guztien artean Vinsonen *Essai* (1891) delakoa dugu erreferentziarik osoena. Gure ustez, eta bederen

⁷⁴ Adibidez, Arestik anitzetan testua aldatzeko libertatea hartzen du, ezaugarri morfosintaktikoak aldatuz; bihoaz pare bat etsenplu, halabeharrez antzemanak. Lehenik, 65. bersean bada kode-amalgama bat, perpaus berean frantsesa eta euskara konbinaturik. Frantsesezko zatiak, erlatibozko egiturak, perpaus nagusiko subjektu funtzioa betetzen du: *çelui qui manquera / phaquaturen du phitchera*, eta Arestik ergatiboa itsasten dio frantsesezko egitura osoari: *celui qui manquerac / phakatüren dü phitxerra* —ohart, bestenaz, *r* → *rr* aldaketez—. Bigarrenik, 484. bersean Arestik hainbat aldaketa morfologiko (eta are sintaktiko) obratzen du. Hona originaletik egin dugun irakurketa: *Ukhen bagunu bira tripa / nahiago gunuquen, / ceren eta haboro / janen beigundien*. Hona Arestiren edizioa: *Ükhenen bagünü bira tripa, / nahiago günükian, / zeren eta haboro / janen baikünian*. Zuberoako corpus osoan geroaldiko formatan oinarritutako baldintzazko egiturarik ez da behin ere ageri, eta Arestik ematen duen *ükhenen bagünü* agerraldi bakarra izateak originalera jotzera bultzatu gaitu; apodosiaren egitura ere aldatua izan da, beste zenbait kanbiamenduren artean.

Urkizuren edizioei doakienez, zilegi bekigu adieraztea haietan transkripzio akats ugari dela. Horretaz gainera, inoiz edizilogileak testuaren zentzua ulertu ez duela erakusten du, ondoko passartean ezarri duen puntuazioak salatzen duenez: *Cer phenxatcen duq, Boubane, / ezteçala etchia kita? / Lehenago emaztiary / urra yçoq tripa*. (*Boubane* 94). Izan ere, *ezteçala* ez da *phenxatu* aditzaren konpletiboa, ezezko agintera baizik, Akitaniako mintzoetan historikoki *-la* atzizkia hartu duena.

Zuberoako euskal liburuei doakienean, Vinsoen bibliografia ez da oraino gainditua izan; zorionez, JUMIk 1984an argitaratu edizioan Vinsonen bibliografia Urjijoren oharrez aberastu da. Tesi honetan baliatu zaizkigun datu bibliografikoak, hein handi batean, Vinsoni zor dizkiogu.

XX. mendean Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* lan erraldoia dugu lan nagusia. Zuberoako liburuei doakienean, hala ere, informazioa Vinsonen lanetik jasotzen du, eta ez osoki. Bonaparteren menpeko testuei begira, González Echegarayren katalogora (1983) eta Arana Martijaren lanera igorri behar da (1991a).

XX. mendeko Zuberoan bokal sudurkariak egongaitz ziren, eta hiztunentzat haien hautematea ez bide zen erabakigarri gertatzen. Menturaz ez da halabeharrezkoa Biarnon eta Bigorran bukaera sudurkaritu horiek galtzeko zorian direnean Zuberoan ere franko ahul egotea. Azkenik, Zuberoako bokal sudurkari *berriek* harago doakeen paralelo bat dute egungo Lapurdin. Bertan frantsesaren bokal sudurkariak euskaran sartzen ari dira, maileguen bidez. Baina, Zuberoan ez bezala, Lapurdin bokal sudurkaririk ez izatetik bokal sudurkariak izatera ari da iragaten. Bidean den aldaketa (potentzialki) sakonago hori erkidegoko hiztun guztiak sortzeko elebidun izateak du ekarri (Epelde & Jauregi 2011).

2. Txistukari ahostunak Zuberoan

- 2.1. Sarrera
- 2.2. Bi hitz euskararen txistukariez
- 2.3. Zubereraren txistukari ahostunak: hurbilpena
- 2.4. Txistukari ahostunak Zuberoako testuetan gaindi
 - 2.4.1. Atarikoak: grafiez
 - 2.4.2. /z/ eta /z/ fonemen agerpena
 - 2.4.3. Afrikatu ahostunen agerpena
- 2.5. Txistukari ahostunen sorrera, zuberera historikoaz harago
- 2.6. Ondorioak

2.1. Sarrera

Atal honetan zubereraren txistukari ahostunei eskainiko diegu arreta, honelako ibilbidea proposatuz: euskararen txistukarien saila gogoraturik (§ 2.2), zubereraren txistukari ahostunetara lerratuko gara (§ 2.3). Ondoan hots horiek Zuberoako testu zaharretan duten agerpenaren berri emanen dugu, modu honetan: lehen grafiaren oinarrizko ardatzak deskribatuko ditugu (§ 2.4.1), eta gero igurzkari ahostunen (§ 2.4.2) zein afrikatu ahostunen (§ 2.4.3) lekukotza zehatza ekarriko. Azkenik, txistukari ahostunen sorreraren gaineko gogoeta bat egingen da (§ 2.5), ondorioetara etortzeko (§ 2.6).

2.2. Bi hitz euskararen txistukariez ¹⁰⁴

Ezaguna da euskararen fonemen inbentarioa aberatsa dela txistukariei doakienean; inguruko erdarenak baino aberatsago, bederen. Hizkuntzak hiru artikulazio-guneren arabera txistukariak garatu ditu: /s/ igurzkari apikaria, /s/ bizkarkaria eta /ʃ/ sabaikaria, bakoitzak bere kide afrikatua duelarik: /tʃ/, /ts/ eta /tʃ/. Deus baino lehen, komeni da oinarrizko hiru fonema

¹⁰⁴ Fonetika eta fonologiazko terminologiarentzat Oñederra 2004ko proposamenari lotuko gataizkio. *Txistukari* terminoa bere adiera zabalenean erabiliko dugu, tradizioagatik eta arrazoi praktikoengatik, hiztunen hautespenean lotuak diren hots igurzkari zein afrikatuendako (ing. *sibilant*, gazt. *sibilante*, fr. *sifflante* edo *sibilante*). Aldiz, uko egiten diogu *ziztukari* / *txistukari* (edo *txetxekari*) banaketari —hau da, batetik /s/, /tʃ/, /s/ & /ts/ eta bestetik /ʃ/ & /tʃ/—. Horren arrazoia da Hegoaldeko hiztunek igurzkari apikaria ekoizten dutenean, segidan aipatuko denez, Iparraldekoek igurzkari erretroflexua ahoskatzen dutela. Horrek ekarri du alde bateko eta besteko neutraltze fenomenoak norabide diferenteetarik ibiltzea (cf. 105. oharra); horren ondorioz, Iparraldeko euskarari begira *ziztukari* / *txistukari* sailkapena nahasgarria suerta liteke. Bestalde, *lepokari* gabe *bizkarkari* baliatuko dugu /s/ fonemaren eta bere kide afrikatu zein ahostunentzat.

igurzkarietz aritzea. Izan ere, Iparraldeko mintzoetan Pirinioez hegoaldera ezagutzen den igurzkari apikariaren kokagunea gibelago gertatzen da, ikertzaile batzuk hots hori erretroflexu gisara sailkatzera bulkatu dituen; besteak beste, Lafon —“mi-chuintée, cacuminale en souletin” (1958: 115)—, Oyharçabal 1991, Hualde 2004 eta Coyos 2008. Beraz, Zuberoan igurzkari bizkarkari, erretroflexu¹⁰⁵ eta sabaikariak ditugu, bat bederaren kide afrikatuekin.

7. TAULAK euskara orokorraren fonema txistukariak biltzen ditu.

7. TAULA. Euskararen fonema txistukariak.

	IGURZKARI	AFRIKATU
APIKARI (<i>Hego</i>)	ś	tś
BIZKARKARI	s	ts
ERRETROFLEXU (<i>Ipar</i>)	ʂ	tʂ
SABAIAURREKO	ʃ	tʃ

Iparraldetik hunkitu dituen erdarek ez bezala, euskarak ez zuen txistukari ahostun eta ahoskabeen artean bereizten. Gehienez ere, txistukari ahostunak testuinguruak baldintzatutako hotsak baizik ez ziren: “En la mayor parte de los dialectos, las sibilantes fricativas sonoras no son más que variantes de los fonemas /ś/ y /ʂ/, precisamente ante consonante sonora: *esne* o *ezne*, que se puede pronunciar [eźne] o [ezne], a.-nav. guip. *esnatu*, etc.” (FHV § 14.1). Euskararen fonotaktikari doazkion ingurune horietaz landa, ordea, Zuberoan eta Baxenabarreko iparraldean izaera desberdineko txistukari ahostunak azaleratu dira.¹⁰⁶

2.3. Zubereraren txistukari ahostunak: hurbilpena

Orain arterainokoa laburbilduz, kontsonante ozen aitzin hainbat barietetan [i z l a r i], [a z m a t u] edo [g a z n a] bezalako ahoskerak gerta daitezke. Halakoetan [z] edo [ź] —Iparraldean [z]— ez dute balio fonologikorik, /s/, /ś/ edo /ʂ/ fonemen gauzatze hutsak baitira. Aldiz, ekialdeko eremu batean txistukari ahostunek erro sakonagoak eman dituzte:

¹⁰⁵ Erretroflexuaren artikulazio gunea sabaikariarenetik hurbila izanik, bi hots horien arteko kontrastearen galtzea hasi da gertatzen, euskal eremuaren beste hegalean gutxienez XVII. mendetik abiatua den /ś/ eta /ʂ/ fonemen arteko neutraltzearen parekoa.

¹⁰⁶ Era berean, aipatu behar da bizkaieraren zenbait barietatek txistukari ahostunak garatu dituela. Nabariena da Bizkaiko mendebaldeko *ia* > *idxe* bilakabidea, sabaiaurreko ahostuna eman duena: *estidxe* [e ś t i z e], *mendidxe* [m e n d i z e], hitz hasieran horren kide afrikatua agertzen delarik: *joan* [d z o a n], *jakin* [d z a k i n] (Hualde 2004: 16). Halaber, Lekeitioko hizkeran [dz] afrikatu bizkarkari ahostuna baliatzen da zenbait onomatopeiaren hastapenean: *dzanga*, *dzapart*, *dzart*, *dzaust*... (FHV 280; Zuazo 1989b: 624).

El suletino y al menos parte del bajo-navarro, por el contrario, conocen fonemas sonoros /z/ y /z/, que contrastan con los sordos en los mismos contextos. Aparecen normalmente en préstamos de aspecto no muy arcaico (sul. *arrazũ, aizína, plazént, aisa, kási*), pero también en «liaison»: *deüsé* (< *deus ere*), *ez úntsa*, etc. A juzgar por las anotaciones de Larrasquet, se diría que hay además en suletino una africada sonora [dž]: [edžámen], [edžámína], [edžéplü].¹⁰⁷ (FHV § 14.1)

Ekialde horren gehiago zehaztekotan, Caminoren datuak ekar daitezke, egungoak badira ere: “Baxenabarreko ekialdean dauden Amikuze eta Arberoa ibarretako euskarán” (Camino 2013: 59).

Gauza jakina da ekialdeko Euskal Herrian hainbat hitzetan bokalarteko kokagunean txistukari ahostunak baliatzen direla. Hauetarik batzuk atzo goizeko mailegu berriak dira, frantsesetik etorri berriak, baina badira beste hitz batzuk, euskal jatorrizkoak edo mailegu zaharrak izanik, bokalarteko txistukari igurzkari ahostuna dutenak. Zuberoako euskarán nabarmena da hori eta aspalditik dago honen lekukotasuna. (*op. cit.* 58).

Ekialdeko mintzo batzuek, beraz, modu berezian barnatu dituzte txistukari ahostunak. Horregatik, /z/ bizkarkaria, /z/ erretroflexua eta /z/ sabaiaurrekoa zubereraren ezaugarri markagarrienetarik batentzat kontsideratu izan dira (Zuazo 1989b: 623). Larraineko hizkeraren aztertzean, Lafonek zehazki deskribatu zuen hots hauen kalitatea:

Existence de trois spirantes sonores correspondant respectivement à la sifflante pure notée *z* (analogue au *s* français de *si*), à la mi-chuintée notée *s* (cacuminale en souletin) et à la chuintante notée *x*, analogue au *ch* français de *chant*, mais avec une nuance très prononcée de mouillure. La première de ces spirantes sonores est analogue au *z* français de *zèle*; la troisième, au *j* français de *je*, mais avec une nuance très prononcée de mouillure; la seconde est intermédiaire entre fr. *z* et *j* (sorte de *z* français mi-chuinté) (1958: 115).

Igurzkari horien kide afrikatuez denaz bezainbatean, kontuak ez dira hain garbiak. Larrasqueti jarraikiz, Mitxelenak [dž] afrikatu apikaria aipatu zuen (*vid. supra*). Berrikiago, Caminok (2011: 129) /dž/ apikaria eta /dʒ/ sabaiaurrekoa jaso ditu. Horrekin, zubereraren txistukarien serieak kasik dozena bat hots leukake, 8. TAULAK erakusten duenez:

¹⁰⁷ Dagokion unitatea *erretroflexu* deitzearen alde egin baitugu, horren arabera [dz] notazioa hobetsiko genuke.

8. TAULA. Zuberoako txistukariak.

	IGURZKARI		AFRIKATU	
	ahoskabe	ahostun	ahoskabe	ahostun
BIZKARKARI	s	z	ts	dʒ (?)
ERRETROFLEXU	ʂ	ʐ	tʂ	dʐ
SABAIAURREKO	ʃ	ʒ	tʃ	dʒ

Dena den, sistemaren oparotasuna ez zaigu garrantzizkoena iruditzen, txistukari horietako batzuek fonema-tasuna erdietsi dutela baizik. Urri izan arren, bada haietan pare bereizle minimorik: *jüjéna* /ʒy'ʒe na/ 'de los jueces' y *xüxéna* /ʃy'ʃe na/ 'derecho'; *jóko* /'ʒo ko/ 'juego' y *xóko* /'ʃo ko/ 'rincón' (Lafon 1958: 128-130). Xehekiago:

En dehors du cas cité, jamais deux mots ne se distinguent l'un de l'autre par la présence d'une spirante sourde dans l'un et d'une spirante sonore de la même classe de localisation dans l'autre. Dans quelques cas, en nombre peu élevé, deux mots se distinguent entre eux par une spirante sonore qui s'oppose à une affriquée sourde appartenant à la même classe de localisation ou à une spirante sourde appartenant à une autre classe de localisation. Il existe seulement un très petit nombre de mots qui se distinguent entre eux par la présence d'une spirante sonore dans l'un d'eux et d'une autre consonne, de quelque nature qu'elle soit, sourde ou sonore, dans d'autres (*ibid.*).

Guztiarekin, txistukari ahostunak maiz aipatu izan dira zubereraren fonema kalitatean (Mitzelena 1977a: 280; Zuazo 1989; Hualde 2004: 18). Igurzkari ahostunen fonema estatusak argia dirudien bitartean,¹⁰⁸ haien kide afrikatuen artean /dʒ/-rena baizik ez da seguru, eta /dʒ/-rena oso litekeena. Nolanahi ere den, euskalkien artean halako hotsak inon natural bihurtu badira, dudarik gabe Zuberoan eta Baxenafarroako iparraldean izan da; pentsatu behar da, halaber, txistukari ahostunen saila, batetik, elementu kualitatiboa dela hiztunen hautematean¹⁰⁹ eta, bestetik, maiztasun altueneko ezaugarria ere. Puntu honetan, diakronistak bere buruari pausatu beharreko galderak honakoak dira: a) txistukari ahostunak noiztik lekukotzen dira ziurtasunez? eta b) nola agertu dira?

¹⁰⁸ Guztiarekin, Oyharçabalendako soilik /ʒ/ sabaiaurreko ahostunak luke fonema izaera osoa (1991: 120).

¹⁰⁹ Ezaguna da Zuberoako hitz zenbait arras ahoskaintz gertatzen zaigula zuberotar ez garenei; zailenen artean, beharbada, *Jesüsek* [ʒe z' y z'e k]; halakoak zubereraren ahoskeraren *markatzaile* gisara ere baliatuak dira.

2.4. Txistukari ahostunak testuetan gaindi

2.4.1. Atarikoak: grafiez

Les anciens auteurs basques redoublent le *s* entre deux voyelles ; nous ne les imiterons pas. Nous pensons, avec les Biscayens et Guipuzcoans, que ce redoublement est vicieux et inutile. Il faut croire que les écrivains navarrais l'adoptèrent, par égard pour le dialecte qui a un *s* doux entre deux voyelles, dans un petit nombre de mots, que nous sommes porté à sacrifier. Nous n'avons pas de caractère spécial pour cette sifflante douce, en typographie, et sans nous tourmenter à en créer un, nous laisserons à nos compatriotes intelligents le soin de prononcer le *s* doux ou fort, selon l'usage de leur dialecte, et dans les mots qui demandent cette différence d'articulation. Il suffira d'avertir le lecteur que le *s* doux garde toujours en euskarien le sifflement plein et nourri qui caractérise cette consonne. Il manque aussi une lettre dans l'alphabet, au *z* doux des Bas-Navarrais et Souletins. (Chaho 1856: 13)

Chahoren hitzetarik informazio baliagarria idokitzen da: i) *antzinako autoreek <ss> & <s>* para baliatzen zuten; ii) egile baxenafarrek ezarri zuten usantza grafiko hura; iii) baxenafarrek eta zuberotarrek *s* zein *z* ahostunak dituzte. Ikusiko denez, XVII. menderako Zuberoako idazleen artean delako usantza grafikoa arras ohikoa zen. Puntu batean halako distortsiorik hautematen dugu: corpusaren datuen arabera, *s* ahostunak ez dirateke presente “dans un petit nombre de mots”, gehiengo batean baizik —seguruenik Chahok *langue euskariennezko* hitzak baizik ez zituzkeen gogoan, eta ez maileguak—.

Bistan da, iraganeko hotsen xerkatzeko arrasto grafikoetan baizik ezin gara oinarritu. Agirrek (2001b) frogatu du txistukari ahostunen lekukotza Belapeireren denboratik: hari zor diogu <s> & <s> parearen bereizkuntza zein <z> grafema markatuaren balioa Zuberoako zenbait testu zaharretan erakutsi izana. Agirrenren azterketatik abiatuz, guri da hark markatu ildoen corpus zabalago batean bermatzea edo ñabartzea. Ondoko bi ataletan xehekiago ikusiko denez, oro har, txistukari ahostunen testigantza aiseago aurki daiteke testu zaharretan berrienetan baino, grafien bilakaera dela medio. Funtsez, /z/ erretroflexuaren ozentasuna, betiere bokal artean, <s> & <ss> grafien bitartez bereizi izan da, eta /z/ bizkarkariaren ozentasuna defektiboa den <z> grafemaz, hau ere bokal artean. /z/ sabaiaurrekoaren

adierazpenak ez digu arazorik pausarazten, Zuberoan *j-ren ahoskera baizik ez delako eta, beraz, garaian garaiko <j> edo <g^{e,i}> grafien bidez islatu izan delako.¹¹⁰

- Lehen testuetarik bada joera garbi bat bokal artean <s> eta <ss>¹¹¹ grafemen baliatzeko, igurzkari (egun) erretroflexu¹¹² ahostunaren ala ahoskabearen bereizteko, tradizio erromantzeetan ahoskabe/ahostun oposizioarekin gertatzen den bezala: *gosse* ['g o ʃ e], *hassi* ['h a ʃ i], *osso* ['o ʃ o] vs. *arrosa* [a 'R o ʒ a], *miseria* [m i 'z e r j a], *presou* [p R e 'z ũ]. Usantza hau ez da autore guztiengan bete: Oihenarten proposamen grafikoan txistukari ahostunek ez dute berezko grafiarik.
- Zuberera klasikoaren garaian, Belapeirerekin has eta XVIII. mendean gaindi, bada usantza defektibo bat, bokal artean <z> grafema markatua dela medio, bizkarkari ahostuneren —bai eta, zenbaitetan, erretroflexuen ere— islatzeko: *plazer* [p l a 'z e R], *dezir* [d e 'z i R], *arrazou* [a R a 'z u] edo *arrafuza* [a R a f 'y z a] & *abizu* [a 'β i z y]. Grafia markatuak bereziki argigarriak gertatzen dira hitz mailegatuaren itxura etimologikoaren aurka erabiliak direlarik: *proces/proceza* edo *Pilatus/Pilatuzen* bezalako pareak txistukariaren ahostuntzearen seinale ezin argiagoak dira.
- XIX. mendetik aitzina <z> grafia gero eta gehiago egokituko zaie bizkarkari ahoskabeei —gainerako euskalkietan bezala— eta, beraz, txistukari ahostuneren eta ahoskabeen arteko bereizkuntza grafikoa indargabetuko da. Paradoxikoki, XIX. mendeko egile bakan batzuek maiztasun baxueneko hotsa den /dz/ markatuko dute <dj> digrafoaren bidez. Haiek baino anitzez lehenago Etchart izan zen aitzindari bakana, <dg> digrafoarekin.

¹¹⁰ Grafietarik ez dezakegu aise jakin Zuberoan *j-ren emaitza noizdanik ahoskatzen den /ʒ/ sabaiaurreko ahostun gisara. Pentsa liteke *Iaun / Jaun* edo *Iainco / Jainco* bezalako grafiek zantzurik eman lezaten, baina betiere aieru hutsa litzateke. Gehienez ere, XIX. mendean ahoskera hori deskribatua izan zela gogoratzen ahal dugu; bihoa, beraz, Lécluseren iruzkina: “*Jesus, jauna, jaten dute*, se prononcent, en Soule, comme si c’etoient des mots français ; mais dans le Labourt, on prononce *Yesous, yaouna, yaten doute*, et dans le Guipuzooa, *Khesous, khaouna, khaten doute* [kh = /x/]” (1826: 15).

¹¹¹ Grafema hauetan s luzea sartzen dugu, alografo hutsa baita.

¹¹² Erran dezagun tesi honetan *erretroflexu* hobetsi dugula, Iparraldeko egungo euskararen Hegoaldeko apikariari dagokion hotsa izateagatik; aldiz, ez dakigu noizdanik ahoskatzen den igurzkari erretroflexua. Hortaz, terminoa erabiltzean ez dugu, inondik inora, testuen garaian *erretroflexu* ahoskatu denik asumitzen —ez eta kontrakoa ere—; soilik unitate fonemiko batez ari gara.

- Azkenik, Zuberoako zenbait hizkuntzalarik eta arauemailek txistukari ahostunen markatzeko arrangura agertu dute: Inchauspe¹¹³ (1858) eta Larrasquet¹¹⁴ (1939) — baina ez, ikusi dugunez, Chaho—.

Erranak erran, garrantzitsuena da testu zaharretako grafia sistemek era naturalean islatzen zituztela txistukari ahostunak. Ondoko ataletan zehar txistukari ahostuneren agerpen grafikoa aztertuko dugu, testuz testu.

2.4.2. /z/ eta /z/ fonemen agerpena

Atal honetan zubereraren corpus historikora joko dugu, grafia eguneratua jaso ditugun lanak apart utziz.¹¹⁵ Gure bilaketak bi ingurune fonologiko du jomuga: i) bokal artean, eta ii) hitz akabantzan, ondoko hitza bokalez hasiko denean (*liaison*). Oro har, XIX. mendera arte <ss> & <s> parearen arteko kontrastea indarrean da erretroflexu ahoskabe eta ahostuneren bereizteko. Bestalde, bokal aitzinean <z> grafema nekez aurkitzen ahal da bizkarkari ahoskabeentzat; beraz <ça>, <ce>, <ci>, <ço>, <çou> & <çu> aurkituko ditugu, (euskalki guztietan bezala. Horien aldamenean, <z> grafia markatua /z/ bizkarkari zein /z/ erretroflexu ahostunak adieraz ditzake; beraz kasuan kasu, hitzaren arabera, determinatu beharko da zein hots datzan <z>-ren gibelean.

Erran izan da txistukari ahostunak maileguren bidez sartu direla ekialdeko euskararen: “Dans les mots d’origine romane, à moins que l’emprunt ne soit extrêmement ancien, lorsqu’une s provient d’une s sonore intervocalique romane, elle conserve en souletin la qualité sonore” (Gavel 1960: 294); “Aparecen normalmente en préstamos de aspecto no muy arcaico” (FHV 280); “Arrunt zaharrak ez diruditen maileguetan batik bat” (Agirre 2001b: 744). Mailegu horien zerrendatzerakoan, Agirreren lana arras baliagarria gertatzen da, Larrasqueten hiztegian mota bateko zein besteko txistukari ahostunak dituzten hitzak banan-banan jasotzen baititu (2001b: 746 & 748, hurrenez hurren). Aldiz, Larrasquetek jaso ez zituen hitzendako, *zero hipotesia* baliatuko zaigu, hots, ez dago arrazoirik pentsatzeko zubererak erromantzearen s ahostun edo ahoskabeak aldatu dituela: ahostunak ahostun mailegatuko zituzkeen eta

¹¹³ Inchauspek bere bi lanetan markatu zituen txistukari ahostunak, s eta z karaktereak etzanik emanez: *Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauera* eta *Apokalipsia* (Agirre 2001b: 744).

¹¹⁴ Larraquet <S> eta <Z> larriez baliatu zen ahostuneren markatzeko.

¹¹⁵ ATALASEAN, § 3.2 atalean deskribatu dugun corpora da, honako lanak kendurik: Oihenarten poesia eta atsotitzak, Maisterren I eta III liburukiak, Eguiateguy, Chaho, Archu, Inxausperen *Elhestaldiak* eta *CatS*.

ahoskabeak, ahoskabe —memento batetik aitzina bederen—. Segitzen diren orrialdeetan zehar txistukari ahostunen agerpen grafikoa aztertuko dugu, testuz testu.

ETCHARTEN GUTUNAK (1616)

Etchartek <s> & <ss> grafien bidez bereizten ditu erretroflexuak. Horrela, honakoak ditu erretroflexu ahoskabe: *asseguraturic* 1-1v, *assopitzeco* 1-2r, *cassa* 5-1r, *cassatzeco* 6a-1r (2), *comissione-* 1-2r, 2-1v, 3-1r (3), 3-1v (3), 4-1r, 5-1r, 6a-1r (6), 7-1r (2), 7-1v, 7-3r, 8-1r (6) & 8-1v, *commissari-* 1-1v & 2-1r, *embassadoria* 3-1r (2), *expressuqui* 3-1v, *hamassey* 5-2r & 8-1v, *hassi* 7-1v & 9-1r, *ikoussiren* 1-1v & 5-1v, *ikoussiric* 3-1r, *messagier-* 2-2r & 9-1r, *necessario* 3-1r & 6a-1r (3), *necessarioqui* 2-1v, 2-2r, 3-1v, 7-1r & 5,1r, *osseguarria* 1-1r, *osso-* 1-2r, 3-1r, 6a-1r, 7-1r (2), 8-1v & 9-1v, *passadge-* 1-1r, 1-1v & 9-1r, *passioniac* 8-1r, *paussuric* 4-1v, *permissionia* 7-1v, *possible* 9-1v, *promessac* 5-2r, *promessen* 5-1v (3) eta *puissança-* 2-2r, 6a-1r (2), 7-1r (3), 8-1r & 9-1r. Salbuespen bat atzeman dugu: *casu* 8-1r.

Ondokoetan erretroflexu ahostuna datza: *advisu* 8-1v, *causa-* 1-1v (3), 2-1r, 2-1v & 3-1r, *composa* 1-2r, *composicioneric* 8-1r, *desordre* 1-1r & 1-1v, *empresonatzeco* 8-1v, *occasione* 1-1v & 9-1r, *presa* 1-1v, *proposa* 1-2r & *usurpacione-* 1-1v, 1-1r, 2-1v & 9-1r. Kasu batean ez gara segur txistukariaren artikulazio guneaz: *divisione* 1-1v.

Bestalde, Etchartek <z> grafia erabiltzen du bizkarkari ahostunarentzat, baina batzuetan erretroflexuarentzat ere: *preza-* 5-1v & 5-2r (2), *reffuza* 7-1r, *contenciozetara* 1-1v, *deuzere* 9-1v, *deuzez* 2-1r, *francezetic* 3-1v, *repozic* 4-1v, *rezuma-* 3-2r, 5-1v, 8-1r (2), 9-1r (2) & 9-1v eta *abizui* 4-1r. Eta besteetan igurzkari bizkarkariarentzat: *authoriza* 1-1r, *dezir-* 3-1r, 3-1v (2), 4-1r, 5-1r, 6a-1r & 9-1r baina *desiric* 8-1v & *desiratzen* 1-1v (erretroflexu ahostunari esleitzen zaion grafiaz), *desplazer* 7-1v, *plazer* 2-1r, 3-1r & 7-1v, *plazera* 1-2r, *Gieziren* 8-1v, *arrazoina* 7-1v, *arrazon* 7-1r, *arrazona* 7-1r, *arrazonari* 8-1r, *arrazonic* 5-1r eta *razon* 5-2r. *Liaison* kasuen artean jadaneko ageri diren ondokoak aipa daitezke: *repozic*, *contenciozetara*, *francezetic*; eta ez da falta euskararen barneko *liaison* etsenplurik: *deuzere* & *deuzez*.

Zenbakitan adieraziz, bokal arteko <s> eta <ss>, orotara, 106 dira, eta guztiak igurzkari erretroflexuaren ozentasunaren arabekoak. <z> grafema 37 aldiz ageri da, erretroflexu zein bizkarkari ahostunentzat. Txistukarien kalitate ahostun ala ahoskabearen markatzeaz denaz bezainbatean, Etcharten gutunetan kasik ez da kontra-etsenplurik: salbuespen bakar batekin, <s> *beti* egokitzen zaio bi igurzkari ahostunetako bati, <ss> *beti* erretroflexu ahoskabeei, eta <z> *beti* egokitzen zaio txistukari ahostun horietako bati.

Labur emanik, Etchartek aski era sistematikoan bereizten ditu txistukari ahoskabeak eta ahostunak, haren sistema grafikoak zenbaitetan ahostun/ahoskabe oposizioa lehenesten duelarik bizkarkari/eretroflexu oposizioaren eretzean. Etcharten lekukotasuna balio berezikoa da: batetik, Leizarragaren ondotik Zuberoako lekukotasunik zaharrena delako, eta bestetik bere eskutik idatzia delako. Horren guztiaren arabera, XVII. mende hastapeneko Zuberoan txistukari ahostunak sartuak zirela ondoriozta daiteke.

BELA ETA ZALGIZE

Zalgizek <s> eta <ss> artean bereizten du: batetik *eztacussan* 57 & 59, *gossec* 51, *gossia* 113, *hassi* 104, *hassic* 194, *mihissiaz* 134; bestetik *presenta* 28, *nahas-ago* 90 (*liaison* ote?). Behin <z> ematen du: *razoinac* 21. Belaren kasuan, adibide kopuru txikiegia da: batetik *Assec gosse ezta koussa* 2, *dakoussanac* 16, *gossia* 27 & *ussuric* 18, eta bestetik *pharadusutic* 19, *presentac* 34. Gogora bedi Oihenarten proposamen grafikoak ez zuela tarterik utzi txistukari ahostunen markatzeko.

TARTAS: ONSA (1666)

[Lagina: 1-10 & 101-110.] Arueko erretoreak <ss> & <s> parearen erabilera koherentea egiten du. Horrela, ondoko grafiek eretroflexu ahoskabea islatzen dute, maileguak izan ala euskal ondare zaharreko hitzak: *Bassanauarrec* 2 & 6, *Bassanauarren* 8, *caussitu* 9, *coffessioné* 101, *confessione* 107, *compassioné* 102, *gossiac* 103, *handitassuna* 3, *hassiz* 106, *iccussy* 8, *icussicodu* 3, *icussiric* 9, *ihessi* 110, *ikhuss ahal* 108, *ikhussi* 105, 107, 108 & 110, *ikhussiric* 105, 109 & 110, *Illustrissimouarén* 7, *iossiric* 102, *passione* 4, *paussiaren* 103 —baina *pausia* 103-104 (orrialde artean)—, *paussatu* 102 eta *reverendissimo* 7. Salbuespen bakarra kausitu dugu: *osagarria* 109.

Eretroflexu ahostunen sailean: *Athanasio* 109, *causa* 5, *Cesar* 2, *composatia* 7, *desalteratu* 102, *desegin* 105-106, *deseguiten* 102 & 107, *desencusatçen* 6, *desertian* 104, *desertu* 104, *desirac* 6, *deusic* 9, *disposatçeco* 9, *eresiaren* 3, *Erresuma* 110, *resuma* 4 & 7, *resumaren* 3 & 4, *resumari* 3, *guisa* 104, 105 & 107, *inuisible* 1, *miserable* 105, 106 & 108, *miserabilia* 106,

miserabliagoric 106, *miseria* 106, 107 & 108, *miseriaz* 108 & 110, *paradusia* 110 & *paradusocoac* 2,¹¹⁶ *representatcendu* 104, *representatu* 104, *tesor* 105 eta *visible* 1.

Azkenik, ez dirudi Tartasek <z> grafia markatua sistematikoki erabil zezan. Izan ere, atzeman dugun adibiderik argiena azaleko *Marqvizari* da, baina gure laginean bederen dudazko *liaison* kasu bat baizik ez da ageri: *deuz ediren* 106. Aldiz, Zuberoan /z/ fonema duen hitz ezagun bat edo beste <c> & <ç> grafemekin emana da: *arraçoin* 6, *arraçoiña* 109 & 110, *arraçoiñez* 109, *raçoiñac* 106; *placer* 2, 104 & 105, *placera* 104, *placerac* 105, *placeren* 104 eta *placerman* 104.

BELAPEIRE (1676 & 1696)

Txistukari ahostunen adierazpen grafikoaz denaz bezainbatean, Belapeire lehenagotik zetorren sistemari lotzen zaio. *PrS* gisa laburtzen dugun 1676ko pronuan <ss> eta <s> parearen banaketak ongi funtzionatzen du: *cofessa* 15, *cofessatcen* 7, *cofessatcera* 7, *cofessaturen* 33, *erossi* 12, *ossagarria* 19, *osso* 2, 7 & 17, *ossobat* 33, *ossoqui* 16 & 32, *paradussia* 13, eta *paradussuco* 17 & 30 vs. *erresuma* 18 & 21, *Iesu* 2, *misericordian* 17 eta *Pilatusen* 3.

Catechima laburrari doakionean Agirreren lanera igortzen dugu (2001b: 744-749). <z> grafemaz denaz bezainbatean, erran behar da agerraldi guztietan bizkarkaria datzala: *Elizabetec* I 42, *Nazaret* II 33, *plazer* I 110, I 134 & II 132 eta *plazerac* II 57. Kopurua baino, garrantzitsuagoa da *placer* bezalako grafiarik ez izatea testu osoan; aldiz, *Santa Elisabeten* I 148, *Elisabet* II 100, *Elizabetec* II 101 eta *Elisabeten* II 112 ageri dira —gogoratu behar da XVII. mendean frantsesez *Elisabeth* dela forma hedatuena, *Elizabeth* ere posible izanik—.

OLOROEN KATIXIMA (1706)

Hamar urte berantago, Oloroeko katiximak erretroflexu ahostunak eta ahoskabeak bereizten ditu <s> & <ss> parearen medioz. Batetik *arrerossy* 2, *cofessa* 6, *cofessatcen* 10, *hassi* 7, *intercessioniaz* 3, *ossoki* 2 & 6, *passioniaren* 5, *ppharadussuco* 3; eta bestetik *baliouaz* 2, *desira* 6, *erresuma* 8, *Jesu* 2, *resolutioné* 3. Halere, Maytiek gehiago baliatzen du <z>

¹¹⁶ “Sohütako erretorearen *paradussia* / *paradusia* bikotea zalantza grafikoa da, ziur asko. Mailegu horrek *s* ahoskabea izango zuen, antzinako autoreek *ss* digrama eman baitzioten (*Pronus*, *CatOlo*, *OthoiCant*, *IganPr*, *Ress* eta *Mercy*). Gure corpusean behin bakarrik idoro dugu -S-, Maytieren katiximan hain zuzen (*Ppharadusia* 19), baina bestelako adibide askoren artean bakartuta agertzen da han. Larrasquetek *pha(r)adiüssü* transkripzioa dakar, eta Intxauspek ebakera hori berori aipatu zuen” (Agirre 2001b: 745).

grafema, erretroflexu zein bizkarkari ahostunendako. Horrela, /z/-rentzat: *deziratu* 37, *guizaz* 41, 56, 86 & 93, *guizataco* 49 (2), *baliouzarentaco* 105, *deuzere* 37, *esdeuzetarie* 2, 13, 23 & 25, *Jesuzen* 26 & 30, *Pilatuzen* 9, *procezer* 70, *prepauzic* 40; eta /z/-rentzat: *compozatia* 38, *Elizabetec* 54, *plazer-* 34, 42, 43 & 106, *arrazonable* 68 eta *arrazoric* 75. Hau da, Maytiak lehentasuna ematen dio <z> grafemari txistukari ahostunen markatzean (26 aldiz vs. 5 aldiz bokal arteko <s>), hainbeste non /z/ maizago egoten baita <z> grafemaren giblean bokal arteko <s>-an baino (17 vs. 5 agerraldi, hurrenez hurren).

Grafia batzuk arras markagarriak iruditzen zaizkigu, etimologiaren kontrakoak izanik, s-ren ahostuntzea bermatzen baitute, *liaison* dela medio (*Jesuzen*, *Pilatuzen*...). Halaber, markagarria da *discourza* 74, kasu bakana delako kontsonante ondoan —halere, ezin bazter liteke hutsa izatea <x>-ren ordez—. Katiximaren bigarren bertsioan (1746ko ediziotik aitzina), lehengoi beste zenbait ere emendatuko zaie: *lucezago* (*CatOlo2* vii), *deuzere* 33, 40, 56 (2), 71, 72 & 73, *noizere* 89 & 92 eta *zelo-* iii & iv (2).

OTHOITCE ETA CANTICA ESPIRITUALAC ÇUBERO HERRICO (1734)

XVIII. mendeko gainerako testu inprimatuak gehiago itzuliko dira <ss> / <s> parera, <z>-ren agerpena murriztuz. *Othoitce* liburuan <z> lautan baizik ez da agertzen: *plazer* 19, *plazerrac* 50, *zeloreki* 31 eta, beharbada interesgarriena, *solaz erhouac* 50, euskararen barneko *liaison* delakoaren adibidea. Aldiz, bokal arteko erretroflexuak sistematikoki bereizten dira <s> / <ss> parearen bidez. Ahoskabeak ditugu *arrerossi* 12, *blassa* 30, *coffessione* 8, *coffessa-* 8 & 19, *coffessione-* 18, 20 & 22, *confessiona* 21, *confessore* 69, *desseignen* 90, *gosse-* 30 & 42, *goussia* 41, *hardiessa* 21, *ik(h)oussi-* 79, 80, 89 & 91, *ikhoussaçu* 93, *impressione* 28, *isseia* 88, *itchassoua* 62, *jessan* 103, *nabassiki* 72, *necessari-* 5, 8, 18, 32 & 49, *osso-* 7 (5), 11, 13, 24, 25, 27, 28, 37, 39, 47, 60, 86 & 98, *paradussu-* 21, 36, 39, 71, 73, 79, 80, 81, 87, 98 & 100, *passione-* 13, 20, 29, 53, 54, 77 & 104, *paussa* 31, *paussia* 31 & 82, *possible* 74, *possedi-* 27, 28, 63, 89 & 97, *possessionia* 31, *pressa* 97, *princessa* 69, *promesser* 25 eta *ressignoletac* 61.

Ondokoak ahostun interpretatzen ditugu: *aisa* 65 & 88, *aisaki* 61 & 79, *arrosa* 68, *ausat* 49, *ausatcen* 20, *avariciousari* 41, *balioussa-* 12, 68, 88 & 103, *balioussic* 87, *bisita* 93, *causatcen* 75, *circoncisionia* 6, *conclusionia* 47, *confusione-* 21 & 77, *dangerousac* 92, *desabusa* 77, *desir-* 13, 27 (2), 30 (3), 31, 34, 49, 63 (2), 65, 75, 79, 81, 82, 83, 84 & 100, *desolatcen* 42, 75 & 91, *desouhouratu* 22, *deusec* 74 & 75, *disposa-* 29 & 24, *disposicione* 25, *dohasu* 5, *errafusaturen* 19, *errepresentatcen* 92, *erresista* 29, *erresolitu* 12, 16, 22 & 23, *erresolucion-* 8, 13 (2), 22 & 34, *erresuma-* 97 & 99, *espousa* 97, *ezdeuseric* 12, *francesen*

83, *generousa* 49, *gloriousa*- 59, 79, 88 & 96, *glosa* 86, *guisa*- 7, 28, 52, 54, 74, 76 & 87, *illusi*- 56 (2) & 99, *Jesus* 5... *Jesusec* 77... *Jesusi* 63... *Josefi* 38, *Judasec* 45 & 58, *lausencatcen* 50, *malerousa* 20, *malerouser* 44, *mesdisent* 44, *miserable*- 23, 45, 52, 69, 75 & 81, *misereria*- 20, 51, 66, 79 & 92, *miser cordia*- 14, 19 (2), 22, 31, 33 & 34, *misteriosa* 68, *occasione*- 13 & 24, *oppositcen* 64, *præsencia*- 14 (2), 30 & 36, *present*- 56, 59, 88 & 99, *presentatcera* 20 & 26, *presentia* 99, *presonteguian* 86, *resoliticen* 60, *resolucione*- 39 & 49, *sasitu*- 39, 41, & 87, *succesetan* 35, *tesor*- 27, 31, 63, 76 & 84 eta *urossa* 88.

Azkenik, zalantza grafikorik ageri da: maizenik *coffessa*- (*vid. supra*), baina *coffesorari* 45, *ikhousacie* 90 (normalean *ikhoussi*-) eta *pausuzco* 30, baina *paussia* 31 & 82. Erran behar da *kofesa*- zein *pausu* erroetako erretroflexua aski kanbiakorra bide dela zuberera historikoan; cf. Agirre 2001b: 747.

MAISTER (1757)

Maisterren 2. eta 4. liburukietan zehar <z> grafia markatuaren agerraldi bakarra atzeman dugu: *zelo* II 5, 1. Bestalde, <z>-rekin idatzi izan ohi den hitz bat <c>-rekin ageri da: *desplacer* (II 1, 8).

Maisterren laginean <ss> bikoitzak erretroflexu ahoskabea islatzen du salbuespenik gabe: *arrerossi* IV 1-12, *asse* IV 4-4, *assecian* IV 15-4, *asseciareki* II 2-2, *asseciatuç* IV 14-1, *asseciaturic* IV 17-5, *bessarca* IV 9-2, *bessarcatceco* IV 1-10 & 7-2, *bessarcatcen* II 4-1, 7-1 & IV 3-4, *bessouac* IV 8-1, *cofessa* IV 7-1 & 9-3, *cofessatcera* IV 10-3, *cofessatu* IV 7-3, *cofessione* IV 7-1, *cofessionetçaç* IV 3-2, *cofessionia* IV 10-4, *cofessioniareni* IV 10-3 & 10-4, *dessegn* IV 3-2, 7-2 & 10-5, *dessegna* IV 2-4, *gosse* IV 16-2, *gosseric* IV 2-1, *gossia* IV 14-1, *gossiaren* IV 3-4 *hassi* IV 9-2, *hassia* IV 4-2, *ihessi* II 12-11, 8-3 2, 12-9, 12-10, IV 18-3 & 6-1, *ihessiric* II 12-4 & 12-6, *ikhassi* II 10-3 & 9-3, *ikhoussi* IV 1-9, *ikhoussia* IV 13-1, *ikhoussiren* II 1-1, 2-1 & IV 15-4, *ikhoussiric* IV 17-3, *ikoussaçu* II 3-2, *isseiatcen* II 3-3, *issey* IV 5-3, 8-1, *isseyatcen* IV 10-2 & 18-1, *isseyaturen* IV 4-4, *isseyetan* IV 1-10, *nabassiaç* II 8 (izenburuan), *nahassiren* II 4-1, *nahassiric* II 11-3, IV 4-5 & 7-2, *osso* IV 1-1, 7-1, 7-3, 8-2..., *ossoç* IV 1-8, 15-3, 15-4..., *ossoki* II 1-1, 1-7, 1-8... *ossoric* IV 2-5 & 8-2, *passione* IV 10-1, 10-6, 4-5 & 5-3, *passioneco* II 11-1, *passionen* IV 7-1, *passioner* II 3-1 & IV 7-2, *passionia* II 12-4, *passioniac* II 5-1, *passionian* II 1-4, *pharadussu* II 12-10 & 8-2, *pharadussuco* IV 11-5, *phaussa* II 1-4 & IV 11-3, *phaussaguya* IV 12-1, *phaussatcen* II 9-8, *phaussatciaç* IV 5-2, *phaussia* II 1-1, 10-1, 12-7... *phaussian* II 3-1, *phaussiaren* IV 7-2, *phaussu* II 1-6, 6-1 & 6-2, *phaussuçco* II 1-4 & 8-3, *phaussuric* II 1-3 & 3-1, *passioniac* IV 4-2 eta *ussintçaç* IV 3-2.

<s> bakunak igurzkari ahostunak ordezkatzeko ditu, bizkarkari zein erretroflexu izan: *abantallousagoric* II 12-15, *abisamentu* II 8-3, *abisatiago* II 9-4, *abisatu* II 10-5, *apaisatceco* IV 8-1, *apaisatcen* II 2-2, *apaisatuç* IV 14-1, *apisatceco* IV 4-4, *baliousa* IV 15-2, *baliousarentaco* IV 13-3, *bisita* II 9-4, *bisitac* IV 17-3, *bisitaren* IV 15-1, *bisitari* II 10-2, *bisitatcecoua* IV 14-3, *bisitatcen* II 1-1 & 9-5, *bisitatcian* IV 1-9, *causa* II 9-8, IV 4-5, 10-4, 10-5, 11-2, 11-4 & 14-1, *desir* IV 14-3 2, 17-1 & 17-3, *desira* II 12-2, 8-4, IV 3-1, 17-2 & 17-4, *desirac* II 10-3 & IV 17-4, *desiraçale* II 11-1, *desiragarri* II 9-1, *desiraren* IV 14-1, *desiratcen* II 10-4, 12-10, 4-1, 6-2, 8-1, IV 1-2, 10-4, 2-2, 3-1, 8-2, 11-3, 13-1, 14-3, 16-1, 17-1, 17-1 & 17-2, *desiratcia* II 12-9, *desiratiaren* IV 17-5, *desiratu* II 12-14, 12-5, IV 3-1, 9-5, 17-1 & 17-2, *desircunte* II 4-1, IV 8-2, 9-5, 11-1, 11-3 & 17-2, *desircunten* II 9-3, *desircuntia* IV 10-7, & 13-3, *desireki* IV 17-2, *desiric* IV 17-1, *desplacer* II 1-8, *deusec* II 1-8 & IV 15-3, *deusenere* II 3-2, *deusere* II 1-5, 11-4 2, 12-14, IV 12-2 & 17-2, *deusetan* II 9-1, *eçdeusetara* II 6-1, *erresoma* II 1-1 3, *erresoman* II 12-15 & IV 11-3, *erresomaren* II 11-1, *espousaren* IV 17-3 2, *gloriousaç* IV 13-3, *guisa* II 1-2; 11-4, 12-8, 7-2, IV 3-2 2, 4-3, 7-1, 7-3, 8-1, 10-4, 10-5 & 12-4, *guisaç* II 8-5 & IV 18-3, *guisatacouen* IV 4-3, *Jesus* II 1-1... *Jesuseki* II 1-5... *Jesusen* II 1-4... *Jesusi* II 1-2... *loriousac* IV 17-2, *miracullousa* IV 5-1, *miserable* II 1-1 & IV 10-2, *miseria* IV 13-2, *miseriaç* II 12-7, *miseriac* IV 7-1, *miseriaçco* II 12-10 & IV 11-4, *miserico[r]diaç* IV 3-2, *misericordia* II 9-6, IV 2-1, 9-6 & 17-5, *misericordiac* IV 14-3, *misericordiala* IV 16-2, *misericordiaren* IV 10-1 & 16-3, *misericordiari* IV 9-3, *Moisa* IV 1-4, *photerousagoric* II 11-5, *preciousetara* II 1-4, *present* IV 4-2, 11-1 & 14-2, *presentaç* IV 3-1, *presentcia* IV 1-5, *presentciaç* IV 16-3, *presentcian* IV 17-3, *presentciaren* IV 16-2, *presounteguian* IV 11-4, *promesa* II 9-7, *tresaur* II 8-2, *usatiaç* IV 10-2, *usatu* II 9-4, *visita* IV 3-2. <s> grafema soilik hiru kasutan ageri da txistukari ahoskabe ukan lezaketan hitzetan: *arrerosi* IV 9-3, *casu* II 1-7 & 11-5 & *casuric* II 2-1 & 6-2.

Maisterrek arras era sistematikoan baliatzen du <ss> & <s> parea: lehenak salbuespenik gabe erretroflexu ahoskabea irudikatzen du, eta bigarrenak kasik beti igurzkari ahostunak —89 formatatik 86tan—.

RESSEGUE (1758)

Eskiulako lehen itzultzaileak ere arras ongi lotzen zaio <ss> / <s> bereizkuntzari. Erretroflexu ahoskabeak <ss> grafemaz, beraz: *arra-errossy* 50, *confessa* 6, *confessatcen* 7 & 30, *confessatcez* 22, *confessaturen* 17, *confessaturic* 6 (2), *confessione* 4 & 17 (2), *confessionea* 33, *confessioniaz* 15, *confessoraren* 17, *confraïsser* 6, *dessein* 46, *erossia* 40, *hamasseigarren* 9, *hamasseygarren* 9, *hassiren* 28 & 33, *hassiric* 27, *ikhoussiren* 32 & 34, *ikhoussiric* 9 & 12,

issour 51, *issourtez* 14, *issoury* 40, *itchoussi* 23, *jossi* 25, *jossiric* 15, *nahassi* 30, *ossagarri* 11 & 44, *osso* 6, 7, 24 & 30, *ossoki* 3 & 25, *ossoua* 41, *ossouaren* 17, *passionearen* 42, *Passioneo* 9, *permissione* 14, *ppharadussian* 48, *ppharadussiaz* 3, *processione* 7, 10, 12, 13, 14, 24 (2), 25 & 31, *processionetan* 8 & 24, *processioneti* 14, *processionian* 18. Soilik biga formatan hautsi da araua: *Jessus* 52 —lerro artean datza— eta *phaussuz* 13 dudazkoa.

Igurzkari ahostunak <s> grafemaren pean dira emanak: *avisez* 17, *baliousa* 22 & 25, *baliousenac* 38, *bisitaturen* 6 & 7, *causa* 35, *desir* 46, *desiratcen* 5, *desiratu* 52, *deusere* 12 (2), 31, 37, 38 & 39, *deusic* 12, *diocesan* 5, *erresoma* 45 & 50, *ezdeusentaco* 8, *franceseti* 1, *glorousec* 49, *guisa* 3, 7, 22, 25, 29, 39 & 47, *guisaco* 13, *guisan* 10, 13, 18 (2), 19 (2), 27 & 30 (2), *guisataco* 15, *guisazco* 23, *guisetan* 34, *heresien* 7, *Jesus* 3... *Jesusen* 6... *miser cordia* 51, *miser cordian* 6, *pphausu* 46 & 48, *presenz* 37, *prosa* 46, *Thomasen* 46 & 47, *tresorierac* 24 & 37, *tresorieraren* 32, *tresorierari* 39, *usatiaren* 7. Ondokoak arauaren aurkako balizko etsenplutzat har litezke: *confraïsec* 5, *designatcen* 14 eta *Domisaintore* 9.

<z> grafia doakionean, Resseguek Maisterrek baino maizago agerrarazten du: *Cezar* 9, *rozario* 22, *Davancaze* 39, *nouizere* 8, *plazer* 44 & 45, *plazeraz* 44 eta *zelo* 22.

MERCY (1780)

Eskulako bigarren itzultzailea lehena baino are sistematikoa da <ss> & <s> grafien erabilpenean. Hona erretroflexu ahoskabeak: *Assomptioneco* 9, *Assomptionia* 12, *coffessatcen* 20, *coffessaturic* 6 (3), *coffessioniaz* 17, *compassione* 4, *confessione* 4, *confrayssa* 6 & 7, *confrayssac* 7, *confrayssec* 5, *confrayssen* 7, *confraysser* 6, 8, *confrayssez* 7, *desseigna* 19, *dessein* 5, *hamasseydenetic* 9, *hassico* 20, *ikhoussico* 6, *ikhoussiric* 9, *issourtez* 17, *jossien* 17, *nahassiric* 14, *necessitate* 11, *osso* 4, *ossoua* 6 (3), *permissione* 17, *permissioniareki* 8, *posible* 17, *ppaussuz* 16, *pphausseraciren* 20, *processione* 8, 12 & 16, *processionetan* 8, *professionetaco* 19, *professioniac* 19, *puissança* 3. Eta bizkarkari/erretroflexu ahostunak: *bresaren* 16, *casi* 14, *confusione* 3, *desir* 20, *desiratcen* 3 & 17, *deusetaco* 9, *deusic* 8 & 16, *deüsic* 9, *diocesan* 5 & 9, *dolorousaren* 4 *franceseti* 1 *gloriousaren* 20, *guisa* 11, *guisatan* 8, *guisatara* 9, *guisaz* 8, *Jesus* 3, *Jesusen* 6 & 12, *Jesusenarekila* 14, *miserabliac* 3, *miser cordian* 6, *miser cordiaren* 3, *miser cordiaz* 3, *presentatu* 20, *refusatcen* 13, *representatcen* 10, *resolucione* 4, *usatu* 8, *visita* 10, *visitatuco* 6, *visitaturen* 7. Dudazko ozentasunaren etsenplu bakarra *casu* (13) formarena dateke.

Azkenik, Mercyk *Cezar* (10), *plazer* (4 (2), 11, 12, 13, 15 (2), 30 & 31), *plazereki* (15), *plazeric* (33), *arrazou* (11, 15 & 31) eta *arrazoureki* (10) darabiltza. Oro bil,

ahoskabe/ahostun bereizkuntzari begira, erran daiteke Alexis Mercyren fidagarritasun grafikoa %100ekoa dela.

NOELEN LILIA (1821 [1782])

Liburu honetan <ss> gutxiago agertzen da; erran liteke egileak edo inprimatzaileak aitzineko guztiek baino ardura gutxiagorekin jokatu duela <ss> & <s> pareari dagokionez. Batetik, <ss> digramak zazpi agerraldi ditu: *erossi* 5, *hassi* 13, *ikhoussiric* 9, *impossible* 10, *Messiac* 5 & 12, *necessari* 13 eta *osso* 4; baina beste zazpitan <s> grafiak erretroflexu ahoskabea islatzen du: *besouen* 9, *erosi* 2, *mesia* 11, *Mesiaz* 8, *phausu* 4, *poseditu* 2 eta *ppharadusiala* 15. Bestetik, ondokoetan <s> grafemak erretroflexu ahostuna islatzen du: *casy* 7, *causa* 6 (2), *composaturic* 1, *cortesiareki* 5, *desir* 10, *desobediencia* 6 (2), *espousa* 8, *graciousa* 8, *guisa* 3 & 10, *Herodesec* 14, *Herodeseky* 14, *Herodesen* 9 & 14, *ignominiosa* 8, *irousenetic* 13, *Jerusalem* 4, *Jesus...* 1, *Josephec* 7... *preciousa* 8, *present* 7, *presentac* 11, *presentatcen* 4, *presentatu* 13, *presentequi* 2, *presentez* 7 & 9, *presentian* 10 & 15, *repausatu* 9, *seisitu* 11, *visitatcera* 11.

<z> grafiaz denaz bezainbatean, *Noelen Lilia* liburuan *Baltazar* 9 & *bathezatu* 13 aurkitu dira. Azken aldaera beste inon lekukotu gabea da, beharbada erromantzearen txistukaria atxikirik.

TRADIZIO MISTOA: SAINT JULIEN (1770)

Herri antzertiko errejentek eta kopiagileek ere <ss> vs. <s> grafemez zerbitzatu ziren. Horrela, *StJul* trajeriaren lehen ehun bersetetan <ss> grafiak beti erretroflexu ahoskabea irudikatzen du: *Basilissa* 016, 018, 031... *Basilissaren* 023, 029, *bessarca* 073, *desseina* 021, 10, 11, 97 & 98, *desseinac* 17, *desseinian* 14 & 52, *desseinic* 29, *ekhoussy* 074, *ekoussiren* 096, *ekoussiren* 0104 & 80, *ekoussy* 041, 054, 0100 & 24, *erreussitcen* 060, *hassy* 032, 063 & 088, *ikoussy* 072, *impossible* 58, *isseiac* 53, *isseiatu* 053, 19 & 7, *nahassia* 73, *ossoky* 2, 28, 52, 74, 75 & 91, *ossouagaty* 25, *possible* 0101, 13 & 73, *premissioniareky* 0117, *pressatu* 012, *pressuna* 027, *princessa* 0107, *printcessa* 0107, *reussitu* 057. Horietaz gain, *resçuscitatu* 087 erdi etimologikoa ageri da.

Aldiz <s> grafiaren erabilpena ez da hain sistematikoa, gehienetan igurzari ahostuna islatzen badu ere: *aisa* 0109 & 32, *aisa* 32, *arrafusatcecoric* 82, *avisez* 035, *bourgoueseq* 051, *Clovisen* 0106, *curiousagoricq* 0106, *desesperatu* 082, *desobeditu* 56, *desolatia* 045, *deuseq* 037, *deusere* 048, 092, 42, 47, *deusetan* 54, *erresoumala* 65, *guisa* 076, *guisaz* 099, *Jesus* 24... *martirisatu* 05, *miserable* 070, *occasione* 33 & 37, *phausa* 80, *present* 100, *presentian* 0116, *presiden* 047, *presou* 095, *presouan* 093, *presounteguy* 054, 077 & 080, *proposatcen*

059 & 89, *proposatu* 09 & 87, *propositione* 021, *refusa* 46, *refusatceco* 47, *religiousa* 043, *representantioniacq* 0104, *representationiaz* 0115, *representatu* 03, *representaturen* 026, *trankilisa* 92. *Saint Julien*-eko laginean <s> zortzi aldiz ageri da erretroflexu ahoskabeari lotua: *arrerosy* 6, *erosiren* 050, *erruisy* 75, *presouna* 25, *presuna* 07, *presunentaco* 13, *reusitceco* 11 eta *suscesioniaren* 41.

<z> grafia markatua ere ageri da: *merdeziacq* (1266) & *merdezina* (1268; pare honetaz ikus 99. oharra), *arrazou* (1023) eta *Scienza infuzo* (1041). Azken adibide honetan etimologiaren kontrako <z> markatua kontraste bizian da <sc> etimologikoarekin.

TRADIZIO MISTOA: EDIPA (1793)

Edipa pastoralaren lehen *pheredikia* lagin bezala harturik, bestelako egoera deskriba daiteke: <ss> oso minoritario bilakatu da, eta beraz <s> grafiaren gibelean erretroflexu ahoskabe zein ahostun gerta daitezke. Hona etsenpluak: *abisac* 025, *abisec* 008, *abisez* 034, *acusatcen* 051, *causa* 034, *causaturen* 056, *causaturic* 042, *composaturic* 060, *desiratcen* 001, *espousaturen* 019, *guisala* 021, *malerousa* 019, *malerousac* 054, *permisione* 044, *phausuric* 042, *presou* 049, *presouner* 050, *representa* 041 & 052, *representatu* 003 & 005, *representaturen* 066 eta *eresouman* 017; ondokoak ahoskabeari dagozkio: *deseigna* 001 & 037, *desein* 054, *icousiren* 053, *ikhousiren* 041, 045 & 064 eta *ikhousy* 039 & 043. Lagin berean <ss> bikoiztuaren maiztasuna askozaz ere baxuagoa da: *princessa* 047, 048, 050 & 052, *princessareky* 065, *passey* 070, *Thebasseko* 001, *Thevasseko* 398 & 418 eta *Thevasseq* 455 & 497, baina *Thebaseco* 004 & 017.

<z> grafiari doakionean, zazpi hitzetan atzeman daiteke: *arrazou* 891 & 148, *arrazoua* 872, *arrazouen* 571, *arrazouric* 873, *arrazouriq* 716, *arrazounamentu* 911, *arrazonamentiac* 876, *cauza* 992, *dozena* 192 & 1018, *guizas* 636, *hazart* 052, *plazer* 075, 141, 142, 143, 321, 358 & 394, *plazerez* 303, *plazerric* 557 eta *Thevazen* 312. Horien pare grafia neutroa ere erabilia da: *placer* 010, 046, 067, 139, 145, 337, 527, 575, 725, 728, 736 & 1014, *placera* 245 & 299, *placerra* 468, *placeraren* 300, *placerez* 009, *placeric* 599, 602 & 827, *placerric* 972.

TRADIZIO MISTOA: CHARLEMAGNE (~1800)

Oro har, *Charlemagne* trajeriaren izkribuan modu kanbiakorrean bereiz ditzakegu txistukari ahoskabe eta ahostunak. Oyharçabali jarraikiz (1991: 120), bizkarkari ahostuna markatu zein markatu gabe ager daiteke (*plazer*, *plaçer*), eta erretroflexu ahostuna normalean <s> grafiaz (*trebesa*, *espousa*, *Tolosa*); gainera, “Il semble que le *ss* qui apparaît parfois indique néanmoins toujours une sourde: *osso*, *ossagarritan*, *erossy*, mais jamais *gisa* avec *ss*” (*ibid.*).

Testuaren hastapenean inpresio hori berresten ahal da. Ondoko formek erretroflexu ahostundunak dira: *Sarrasien* 4, *Sarrasi* 23, *Parisen* 9, 16, *austrasia-* 10, 15, 19, *oliveroseq* 10di, *bousabatetan* 10di, *jrousa* 14, *abisa* 17, *resouma-* 17, 25, *resoma* 22 edo *Jesusen* 23 — hona kontra-etsenplu bat: *besarca* 27di—. Beste hauek, ordea, ahoskabeak: *puissanbatequi* 28, *bassanavarra* 54, *puissant* 54, 92, *princessa* 60, 62, 68, 83, 104, 134..., *Passeia* 79di, *commessionias* 81, *comessionia* 85, *desseing* 85, *theadossa* 88di, 135..., eta *ossaba* 137.

Charlemagnen <z> grafema guti baliatua da: bizkarkari ahoskabea duen *dozeparen* 325 —*docepare* & *doçepare* 25 aldiz ageri dira—, eta bizkarkari ahostuna duen *plazer* 147, 148, 205 & 639 eta *plazera* 136, baina *placer* 86, 129, 624 & 730, *plaçer* 100, 131, 134, 138, 143, 304, 612, 982, 1006, 1043, 1095, 1162, 1173, 1256, 1369, 1371 & 1435, *plaçera* 1001, 1134 & 1308, *plaçeraq* 1106, *plaçeresco* 1471 eta *desplaçerez* 1263.

TRADIZIO MISTOA: SAINTE ELISABETH DE PORTUGAL (~1810)

Sainte Elisabeth trajeriaren kopiagileak, Jauliberrek, manera aski sistematikoagoan bereizten ditu txistukari ahostun eta ahoskabeak. Hona hemen lehen 500 ahapaldietarik idoki datuak.

Espero bezala, <ss> bikoitzaren gibelean erretroflexu ahoskabea datza, kasik kontra-etsenplurik gabe: *assassinercaci* 440, *asse* 499, *assetcera* 367, *assistentac* 51, *bessarka* 183-di & 190-di, *bessoua* 241, *bessouen* 40 & 54, *buruçaguissa* 318, *cassu* 108, *desseigna* 124 & 141, *desseigne* 296, *desseignic* 152, *dessein* 69, 129 & 392, *erreussitcen* 441, *gossez* 314, *gossia* 264 & 313, *grossier* 243 & 246, *hassi* 6, *hassia* 259, *iharraussiren* 236, *ihessi* 59, *ikhoussi* 78, *impossible* 88, *inpossible* 397, *isseiac* 404, *kassiac* 127, *khaussituren* 495, *necessari* 164, *necessitatetan* 195 & 203, *necessitiaren* 278, *ossagarri* 220, 284 & 315, *ossagarrian* 107, *osso* 64, *ossoki* 39, 66, 117, 168, 220, 307, 329, 345, *ossoua* 326, *ostatussa* 227, *passeia* 190di, 206-di, 293-di & 450-di, *passeiatcez* 125-di, *passeiuz* 404-di, *passcus* 114-di, 393-di, 437-di, *passioneko* 250, *passioner* 302, *passioniaren* 316, *permissioniareki* 61, *phaussa* 487-di, *possible* 295 & 354, *princessa* 5, 58, 82...

Orobat erran daiteke <s> bakunaz: *abusatcia* 239, *abusatu* 436, *abusioneric* 105, *aisaki* 450, *Ambroisa* 190di... *arrafusatcen* 327, *arrafusatcera* 307, *ausart* 92 & 409, *ausatcen* 12, 307, 372 & 405, *ausatia* 257, *ausatu* 407, *avisa* 103, , *casi* 262 & 422, *causa* 320 & 348, *causaz* 251, *cesa* 96, *cofesa* 254, *cofesatcera* 243 & 248, *cofesatcia* 295, *cofesorec* 41, *Denisec* 190di... *desabusatu* 38 & 41, *desira* 126, *desirari* 312, *desiratcen* 1, 108, 162, 177, 185 & 283, *desiratciaz* 86, *desiratu* 292, *desiriala* 317, *desodre* 12, *desouhoure* 298, *desouhouria* 268 & 297, *deusere* 134, 299 (2), 324, 380, 412, 413, 447 & 472, *deusetan* 411, *deusetara*

120, *deusez* 375, *disposa* 50, *Elisabeth* 5, 41... *errefusatceko* 304, *erresouma* 75, 166, 383 & 430, *erresoumalat* 175, *erresoumarentako* 171, *erresoumatic* 32, *erresouomari* 418, *erreusitcen* 389, *eskusaliatcen* 283, *eskusaric* 303, *espousa* 86 & 160, *exesic* 240, *ezdeusa* 232, *fachousic* 447, *geloserazten* 439, *Guisa* 95, 329 & 351, *guisako* 463, *guisaz* 111 & 429, *ilusitceko* 318, *irousic* 4, *irousic* 441, *karitatusagoric* 194, *miserabliac* 202, *miseria* 196, 199 & 256, *miseriaric* 467, *misericordia* 252, *miserikordia* 238, 244 & 253, *miserikordiat* 365, *miserikordiazko* 241, *miserikordiez* 250, *oposatu* 9, 14, & 155, *premissioniareki* 113, 124, 129 & 176, *present* 64, 165, 265, *presentatcen* 127, *presentciala* 2, *presentciati* 37, *presentian* 105, 128 & 148, *proposicionia* 141, *refusatceko* 10 & 142, *refusatcekoric* 134, *refusatcia* 90 & 157, *repausu* 368, *representacionia* 62, *representatcera* 372, *represidant* 53, *resolitu* 69, *resolituric* 375, *resolucione* 243, *Rodrigasec* 57, *sesitu* 78, 117 & 323, *sesituric* 22, *trankilisatu* 447, *tesor* 277, *usagia* 210, *visibleki* 252, *visitac* 223, *visitatcen* 9, *visitatcia* 202 & 203, *visitatciac* 7 & 220, *visitatu* 45 & 201. Halere, zenbaitetan erretroflexu ahoskabea ageri da: *buruçaguisa* 323, *casu* 91, *erredusitu* 403, *ikhousaçü* 306, *ikhousi* 27, 53, 87, 147 & 236, *ikhousiric* 380, *itchousi* 432, *redusitu* 84 eta *redusituren* 102.

Bi grafemen agerraldiak oro kontuan hartuz (232 aldiz), hamar hauste baizik ez dugu atzeman. Beraz, *Sainte Elisabeth de Portugal* eskuizkribuan <ss> & <s> parearen fidagarritasuna erretroflexu ahoskabe/igurzkari ahostunen bereiztean arras altua da: %95ekoa, nonbait.

<z> grafiaren agerpena ere anitzez garbiagoa da *Sainte Elisabethen* gorago aztertu diren *Edipa* edo *Charlemagne* pastoraletan baino. <z>-ren agerraldi gardenak aurkitu ditugu, eta kontra-etsenplurik gabeak: *phaussuzago* 913, *complazentzia* 353, *desplazer* 720, 841 & 1182, *desplazereki* 983, *desplazerez* 833, *plazer* 54, 112, 114, 177, 190, 197, 210, 222, 285, 305, 307, 326, 338, 490, 537, 625, 684, 718, 749, 900, 930, 931, 1024, 1078, 1092, 1217, 1260, 1356, 1426, 1447, 1465 & 1532, *plazera* 310 & 1101, *plazereki* 469 & 1255, *plazeretan* 109, *plazeriala* 327, *Cezear* 164, *medezi* 223 & 1034, *medezia* 952, 955, 957, 959, 960, 976, 979, 987, 1273, 1282 & 1283, *medezietaric* 1286, *arrazou* 86, 178, 824, 1162 & 1477, *arrazoua* 169, 627, 677, 1152, 1394 & 1532, *arrazoun* 600, *arrazounable* 90, *arrazounableki* 548, *arrazoureki* 1475, *arrazouric* 731, *arrazouz* 1338, *desarrazounable* 698, *desarrazounableric*

1247 eta *desarrazounablia* 1364. Kasu bakan batean <z> grafema hitz hastapenean ageri da: *zapartatcen* (833).¹¹⁷

DOCTRINA KHIRISTIA (1812)

[Lagina: 1-20 & 60-70. or.] Inperioko katiximaren zubererazko moldaketa honetan <ss> grafiak, espero bezala, erretroflexu ahoskabea irudikatzen du: *Cofessionia* 64, *coffessatceco* 64 & 67, *coffessatcen* 67, *coffessatcera* 66, *coffessatu* 66 & 67, *coffessionia* 66 & 69, *Coffessioniaz* 66, *coffessoararen* 68, *necessari* 5, 6 & 67, *omissionez* 11 & 67, *ossagarria* 70, *osso* 70, *ossobat* 61, *ossobatequi* 8, *ossoqui* 65 & 67, *ossoua* 61, *possessione* 62, *possible* 63, *remissionia* 12 & 13.

<s> bakunaren maiztasuna altuago bada ere, haren balioak garbi jarraitzen du ahostunarena izaten: *accusacionia* 66, *avisac* 68, *causa* 6 & 20, *cofesatcen* 12, *desirac* 62, *desirari* 65, *desiratcen* 62, *desirezco* 62, *deuseniala* 18, *deusere* 7, *Diocesaco* 5 & 6, *Diocesan* 3 & 6, *errepresentacione* 5, *erresolucionen* 64, *erresouma* 8, *ezdeusetaric* 17 & 19, *franceses* 16, *guisa* 69, *guisaz* 68, *Jesus* 4... *malerousic* 20, *miseriac* 20, *miseriordia* 11, 12, *miseriordiatu* 69, *miseriordiaz* 5 & 10, *miseriordien* 7, *miseriordiousac* 12, 14, *ocasionen* 8, *ocasioner* 11, *ocasioniari* 8, *phausia* 8, 10 & 11, *Pilatusen* 9, *presencian* 7 & 10, *presenta* 6 & 17, *Resolucionen* 65, *resolucionen* 67, *resolucionia* 67, *resolutionia* 8, *usageco* 3, 5, 6, *usagia* 69, *usagiala* 6, *visitetan* 5. Hona kontra-etsenplu bakarra: *hamaseiguerren* 64.

XIX. mendeko zubererazko liburugintzan <z> grafema gero eta gehiago erabiliko da ahoskabeekin, eta biziki *a* & *o* bokalen aitzin. Honek indarra kentzen ahal die txistukari ahostunen balizko agerraldiei, baina /z/ fonemak iraun zuen, ez bazen hedatuago bilakatu. *Doctrina Khiristian* adibide batzuk aurkitu ditugu: *aperendizagia* 4, *plazer* 36, *zelo* 5, *zeloz* 6, *arrazou* 6 eta *arrazouzco* 53, baina *arraçou* 78, *diezogun* 8, *azotaturic* 76. Azkenik, *u* bolakaren aitzin biga hitz baizik ez da liburu osoan: *zuhurtarçunaz* 17 eta *gorozuma* 39, *Garizumaco* 245 & 251, *Garizumaraino* 244. Ez da dudarik lehena ahoskabea dela, eta orobat

¹¹⁷ Pentsa liteke azken forma hori euskararen barreneko garapena izatea, menturaz onomatopeiak eragin lukeena, baina badakigu egungo *manexek* bederen /z/ ahoskatzen dutela. *Cezear* grafiak, halaber, iruzkina merezi du: /s e z a r/ ahoskeraren isla da, non <ze> = /z/, <ge> edo <je> digrafoekin gertatzen den bezala (*protegea*, *iugea*...). Ondoko forman <z>-k ez du ahostunik markatzen: *hazeraci* 591 & 592.

gorozuma,¹¹⁸ baina *Garizuma* aldaerarentzat, gure ustez, ez liteke [k a 'r e z m a] → [g a r i 'z (y) m a] bezalako bilakaerarik baztertu behar.

USCARA LIBRIA (1814)

[Lagina: 31-40 & 101-110] XIX. mendeko Zuberoan *Uscara Libria* zabalkunde handienetako testua izan zen. Liburu honetan <ss> / <s> pareak bere balio bereizgarria atxikitzen du klarki. Lehenak erretroflexu ahoskabeentzat: *Coffessatcen* 31, *coffessatuco* 31, *coffessione* 31, *Coffessioniare* 101, *compassione* 40, *compassionezco* 38, *confessione* 107, *hassi* 36, *ikhussiren* 106, *intercessionias* 107, *itchasso* 101, *itchasso* 104, *Itchassouan* 101, *nahassiric* 36, *necessari* 40, *osso* 31, 40 *ossoki* 107, *possible* 32, *ppharadussu* 106, *pressatu* 110, *remissionia* 31.

Eta bigarrenak erretroflexu ahostunentzat: *Berguisala* 107, *confusionia* 102 & 107, *desaprobaten* 103, *desiratcen* 110, *desirezco* 110, *disposaturen* 110, *errepresentatcen* 37, *erresolucionen* 102 & 106, *erresolucionetan* 107, *erresolucioniac* 33, 35, 36 & 37, *erresolutionetçaz* 32, *escastasunac* 104, *esdeusentaco* 103, *flurdelisaren* 34, *gloriousac* 104, *guisa* 108, *Herodeseganic Pilatusegana* 34, *irousec* 106, *Jerusalemeco* 35, *Jesus* 32... *miserable*, 40 & 102, *miser cordia* 31, *miser cordiasco* 109, *miser cordiatic* 40 & 106, *miser cordiosena* 107, *miser cordious* 106, *miser cordiousa* 101, *miser cordiousac* 31, *Piilatusen* 33, *Pilatusec* 34 & 35, *preciosa* 105, *presencian* 103 eta *Presentatu* 36 & 38. Hortaz, ez dakigu *dusunaz* 109 hutsa ote den.

Bestalde, testu honetan <za> grafia ahoskabeetara hedatzen hasi bada ere (*Meza* 26, *apphezarekila* 26, *elizaren* 27...), *Jeruzalemeco* 32 bederen nabarmendu nahi genuke, toponimoaren etimologiaren kontrakoa baita; gainerakoan *desplazer* 204 & 220, *plazer* 25, 41, 42, 45, 53, 59, 61, 67, 203, 204 & 229, *plazerac* 58, *plazeragatic* 66, *plazereki* 58 edo *plazereky* 219; baina *placer* 17, 70, 73, 115, 125, 218, 220, 229 & 238, *placera* 120, *placerac* 100, *placere* 231, *placerezco* 122, *placereki* 123 eta *plazereky* 223 ere.

MEDITACIONIAC (1844)

¹¹⁸ Gure corpusean, *Doctrina Khiristia* barne, *gorozüma* forma <ç> eta gero <ch> grafiekin aurkitzen da: *gorozuma* (*PrS* 15; *Bp* I 47, II 39, II 40, 41... *CatOlo* 6 & 77; *DKhi* 41 & 75) eta *gorochuma* (*Medit* 235 & 236; *HOrdre* 13, 15, 117, 196; *Myst* 29), [s] > [j] bustiduraren lekuko. Larrasquetek *goxîmâ* notazioa dakar (1939 s.v. *goroxima*). Zuberoan *garizüma* aldaerak kanpotik sarrarazia iduri luke; hona hemen haren lekukotza: O *Pro* 181 & 395; Tt *Onsa*; Chaho "Lapurtar laborarier, ofixialer eta langileer" (*AztBeg* IX); *Medit* 244 & 245 & *MaiMarHil* 151 & 158.

[Lagina: 31-40 & 151-160.] Baratciarten meditazioneen zubererazko bertsioan erretroflexu ahoskabe zein ahostunen markatzea sistematikoa da. Beraz, <ss> grafiaz: *bessarcatuco* 35, *caressa* 41, *cassuric* 38 & 39, *cofessatu* 160, *confessora* 159, *dessegnian* 156, *desseignac* 160, *hassi* 151, *ikhoussi* 151 & 156, *ikhoussico* 33, *itchoussiala* 38, *itchoussiena* 151, *ixoussiz* 156, *naussi* 39, *naussia* 32, 39 & 152, *osso* 32 & 160, *ossoki* 151, 157 & 158, *ossouac* 160, *pharadussian* 36, *resolucionia* 39, *ussiago* 159, *ussiegui* 160 eta *ussu* 39, 40 & 159. Laginean aurkitu dugun salbuespen bakarra *besarcatu* da (152).

Hona <s> bakunaren pean diren ahostunak: *aisaki* 40, *amouriousa* 153, *balioussenac* 33, *besarcatu* 152, *causa* 37 & 158, *complasentcia* 159, *curiosotate* 158, *curiositatie* 160, *curiosegui* 39 & 158, *curiositatez* 37, *curiositatezco* 37, *desarmatu* 153, *deseguiten* 34, *desesperacionezco* 160, *desir* 35 & 156, *desira* 40, *desiratcia* 160, *desolacione* 33, *desouhouratu* 156, *deusec* 152, *deusen* 33, *deusic* 155, *dispositione* 152, *erresoumaco* 31, *erresouman* 34, *escrupulousec* 158, *excusa* 153, *excusatceco* 153, *gloriousac* 156, *guisa* 38, *guisan* 156, *Jesus* 158, *Jesusen* 31 & 32, *Jesusi* 35, *langerousec* 40, *malerousa* 39, *miserable* 33, *miseria* 33, *miseriaric* 32 & 35, *misericordia* 153 & 160, *misericordiac* 154, *misericordiaren* 153, *Moïsa* 37, *Moysen* 37, *ocasione* 39 & 40, *ocasioner* 39, *ocasionia* 40, *presenteco* 154, *resolucione* 151 & 152, *resolucioniac* 151 eta *usantcha* 157.

Erretroflexu ahoskabe/ahostun bereizketarekiko koherentzia grafikoaz gain, *Meditacioniac* liburuak antzekorik erakusten du bizkarkariei doakienean: *aizina* 6, 55, 67 & 114; *arrazou* 23, 89, 104 & 199, *arrazouac* 121 (2) & 137, *arrazounamentuz* 161, *arrazouaren* 128, *arrazouec* 151, *arrazouez* 152 eta *arrazouric* 121 —baina *arraçouac* 48—; *desplazer* 35 (3), 90, 140 & 213, *desplazeretan* 115, *desplazeric* 148, *plazer* 8, 26, 39, 40, 41, 44, 49 (3), 54, 60, 62, 63, 79 (2), 89, 95 (2), 96, 99, 113, 120, 122, 123 (2), 128, 130, 131, 132 (4), 146, 195, 210 & 213, *plazera* 10 (2) & 22, *plazerac* 18, 31, 57, 61, 77, 112, 128, 136 & 146, *plazeraz* 146, *plazereki* 106, 113, 126, 149, 156 & 195, *plazeren* 17 & 221, *plazeretan* 115, *plazerez* 66 & 123, eta *plazeric* 131 & 159. *Deziraturic* 196 salbuespena da, arestian ikusi denez erro hau <s> grafiaz agertzen ohi baita.

MAIATZA, EDO MARIAREN HILABETIA (1852)

[Lagina: 1-20 & 71-80]. *MaiMarHil* liburuak <ss> grafiaren erabilera defektiboagoa erakusten du, <ss> vs. <s> parearen kontrastea ahulduz. Hona <ss> grafema duten erretroflexu ahoskabeak: *ikhassi* 80, *ikhassiren* 10, *ossöa* 11, *ossoa* 5 eta *passione* 71; gutxi horien kontra ondokoak idoki ditugu: *besöac* 15, *hasi* 72, *ihesi* 75, *ikhousiric* 72 & 78, *pasione* 73, *pasioner* 71 eta *pasioniac* 76.

Erretroflexu ahostunak normalki <s> grafiaz dira emanak: *aisinaren* 10, *arrosarioaren* 13, *ausarki* 75, *biguisaz* 8, *bisita* 10 & 11, *cofesaturen* 11, *desohoria* 76, *desordre* 76, *deusec* 80, *deusetan* 18, *deusi* 79, *excusa* 18, *guisa* 9, 13, 77, 79 & 80, *guisaz* 76, *herodesec* 72, 73 & 74, *intresec* 79, *intresez* 16, *Jerusalemara* 78, *Jesus* 8, 72, 78... *Jesusec* 73, 75, 78... *Jesusen* 12... *Jesuseki* 79, *Josef* 72, 76, *miserable* 19, *miseria* 76, *sasounco* 9 eta *usatcen* 8.

Testu honetan gutxitan aurkitu dugu <z> grafema bokal artean. Hona bizkarkari ahostunaren lekukoak: *plazera* 22, *plazerez* 16, *plazeren* 28... *dozena* (109), *Garizumaco* 152 & 158 eta *Garizumaraino* 152 —azkenak beharbada *Meditacioniac* testuaren zordun—, bai eta *Nazareten* 80 ere, <z> etimologikoa badu ere. Aldiz, *goizanco* 21 edo *nekezago* 27 *liaison* kasu arras zalantzazko gisara ekar genitzake, besteak beste.

HEREN-ORDRECO ESCU LIBRIA (1860)

[Lagina: 1-10 & 81-90]. Liburu hau aitzinekoa baino anitzez modu garbiagoan lotzen zaio erretroflexu ahoskabe/ahostuneren arteko bereizkuntza grafikoari. Espero bezala, <ss> grafia dutenak ahoskabea dute: *bessarcacera* 5, *bessarcatu* 6, *buruçaguissa* 83, *cofessione* 8, *Frances Assisacouac* 3, *grossierez* 9, *jossiric* 9, *khaussitcia* 83, *moussac* 9, *necessari* 7, *premissionia* 7 & 8, *professione* 8, *professionia* 7 & 8 eta *professioniaren* 8; salbuespen bakarra da *arrerossiric* 86.

Orobat erran daiteke <s> grafiaz: *abisareki* 9, *abisatu* 5, *bisiturrec* 9, *deusetan* 83, *excusatcen* 9, *guisa* 10, *guisan* 7 & 9, *guisaz* 7, *heresiaren* 5, *Jesu* 3... *loriousac* 4, *miseriordia* 3 & 86, *miseriordiac* 86, *miseriordiaren* 81, *miseriordiari* 83, *miseriordiousa* 82, *Oremusian* 87, *presentatcen* 6, *presounteguitic* 4, *sacandalousen* 10, *usagen* 9, *usatcen* 9 eta *usatu* 6 & 8.

Azkenik, <z> ageri da bizkarkari ahostunentzat, baina maiztasun baxuan: *Nazereïcoua* 34, *plazer* 203 & 206, *plazerac* 182, *arrazou* 9, 12, 16 & 27, *arrazouz* 26 & 27; baina *placerac* 189 eta *placerekin* 193 (5).

ANNA URRUTY: EVANJELIO SAINTIA (1873)

[Lagina: VII eta VIII. kapituluak]. Urruty <ss> / <s> banaketari lotzen zaio, baina erretroflexu ahoskabearentzat bada salbuespenik: *hassi* 7 28, *hassiric* 8 9, *ikhassi* 7 15, *ikhoussi* 8 38 & 8 40 eta *Naussia* 8 4 grafien ondoan bi hitzetan <s> ageri da ahoskabearentzat: *osoki* 7 23 eta *ikhousi* 8 56 & 8 57. Erretroflexu ahostunarentzat Urrutyk <s> baliatzen du salbuespenik gabe: *accusatceco* 8 6, *accusatcen* 8 10, *desira* 8 44, *desiratu* 8 56, *desouhouratcen* 8 49, *errepausuco* 7 21, 7 22 & 7 23, *guisa* 7 43, *Jerusalematar* 7 25, *Jesus* 7 1... *Moïscac* 7 19, 7 22 & 8 5, *Moïsaren* 7 23, *Pharisienecc* 7 32, 7 47, 8 3 & 8 13, *Pharisienetara* 7 45 edo *tresora* 8

20. Finitzeko, <z> grafia markatuak /z/ islatzen du: *plazer* 8 29, *circoncizionia* 7 22 (2) & 7 23 eta *arrazoua* 3, 19.

2.4.3. Afrikatu ahostunen agerpena

Orain artekoan ikusi denez, Zuberoako testu zahar gehienetan bada /z/ & /z/ igurzkari ahostunen agerpen grafikoa aski segurua, gehienetan koherentea, eta anitzetan sistematikoa ere. Halere, gogoratu behar da maiz bi hotsak <s> grafemaren pean emanak zirela, <ss>-rekiko kontrastean. Bestalde, gogoratu behar da /ʒ/ igurzkari sabaiaurreko ahostuna ez dela *j zaharrak Zuberoan duen ahoskera baizik —noizdanik zehazki ez dakigu; cf. 110. oharra—. Gainerako txistukari ahostunentzat datuak anitzez ere eskasagoak dira. Kontua, funtsez, /dʒ/ afrikatu sabaiaurreko ahostunera mugatzen da. Hots hau inoiz <dg> edo <dj> digrafoen bidez irudikatu izan da, etsenplurik zaharrenak gaskoiaren tradizio grafikoaren zordun direlarik.

Etcharten gutunetan (1616) <dg> digrafoak hamasei agerraldi du: *iudga* 1-2r & 3-2r, *lengoadge* 3-1r, 5-1v, *lengoadgeaz* 4-1r, *lengoadgeaz* 5-1v, 6a-1r, 7-1r, 7-1v, *lenguoadgiaz* 6a-1r, *peadgeaz* & *passageaz* 1-1r, *peadgia* & *passadgiez* 9-1r, *peadgiaz* 8-1r eta *peadgieren* 1-1v. Erran behar da hitz hauek afrikatua markatu gabe ere ageri direla: *iugatzeco* 2-1r, 3-1r, *iugaturen* 1-2r, *lengoage* & *lengoageric* 2-1r edo *passageaz* 1-1r. Corpuseko beste hiru testutan <dj> digrafoa ageri da, ber balioaz: *Edipa* trajeria (*adjutatcera* 105), Etchahun (*adjüent* “Gaztalondoko prima”) eta oroz gainetik 1856ko *Maiatza, edo Mariaren Hilabetia: ebandjeliöac* 33 & 43, *endjogui* 12 & 28, *endjoguienic* 12, *landjer* 35, *landjeren* 29, *landjeretan* 114 & 117, *landjerez* 98, *landjerous* 80, *landjerousetaric* 34, *mandjatera* 60 eta *mandjateran* 60. Azkenik, Maisterrek behin <tj> digrafoa du, gure interpretazioan ber hots afrikatu ahostuna adierazteko: *arrantja itçaçu* (II 12, 3).

2.4.4. Laburbilduz

Honaino datuen oihana. Zuberoako testu zaharretan txistukari ahoskabe eta ahostunen irudikatze grafikoa § 2.4.1 atalean deskribatu diren ildo nagusietarik doa.¹¹⁹ Labur erraiteko,

¹¹⁹ Ildo nagusietarik at, bestelako baliabide grafikorik ere atzeman dugu txistukari ahostunen irudikatzean. *Saint Julien* pastoralean *japartatcen* 987 & *arrajou* 1025 grafiak ageri dira bizkarkari ahostunarentzat. *zaparthatü* hitzak berezitasun bat markatzen du: hitz hastapeneko igurzkari ahostuna dakar, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerian <z> grafemaz lehenbizikoz lekukotua: *zapartatcen* 833 (ikus 117. oin-oharra).

erretroflexu ahoskabe ala ahostunei doakienean, Zuberoako egile gehienak erromantzetik mailegatutako <ss> vs. <s> oposizio grafikoari jarraitzen zaizkio, salbuespenak salbuespen. Bizkarkari ahostunerako, XIX. mendera arte <z> grafia defektiboa baliatu izan zen. Oso gutxik islatu dituzten afrikatu ahostun sabaiaurrekoa, <dg> eta <dj> digrafoen bidez. Testu batzuetan txistukari ahoskabe/ahostunei dagozkien baliabide grafikoen erabilera ez da hain sinple. Caminok Lopezen grafien azterketa egitean dioskunez:

Liburu honetako ohiturak grafiari dagokionez frantsesarenak direnez, <ss> / <c & ç> letrek bokal arteko ahoskera ahoskabea adieraziko lukete igurzari apikari eta lepokarietarako, eta <s> / <z> letrek, berriz, bokal arteko ahoskera ahostuna igurzari apikari eta lepokarietarako. [...] kontuak hori baino anitzez konplexuago direla eta “grafia → hotsa” nahiz “grafia → fonema” egokitzapena ez dela hain unibokoa. (2013: 58).

Erlazio ez-uniboko horiek kontuan harturik, bederen erran dezakegu bokal arteko <ss> grafia *beti* egokitu zaiela erretroflexu ahoskabea duten hitzei, ondare zaharrekoak ala maileguak izan. Bokal arteko <z> grafiak, aldiz, gehienetan bizkarkari ahostuna islatu du, baina batzuetan erretroflexu ahostuna ere —bistan dena, bokal arteko igurzari ahoskabeari esleituko zaionean ahostunaren markatzeko aukera galduko da—. Egile zenbaitek ahoskabe/ahostun oposizioa lehenetsi balute bezala idatzi dute. Bokal arteko <s> bakunari dagokionez, kontuak ñabarragoak izaten dira zeren, ahoskabe/ahostun bereizkuntza eginik ere, salbuespenak beste norabide batean gertatzen dira: erretroflexu ahoskabea duten hitzei <s> grafia ematearenean.

2.5. Txistukari ahostunen sorrera, zuberera historikoaz harago

Txistukari ahostunak jada Zuberoako lehenbiziko testuetan aurkitzen dira. Haien agerpen testuinguruak orain arte zuberera deskribatu dutenek ezarritakoak dira: a) mailegu berriak eta ez hain berriak, lehenak frantsesari eta bigarrenak gaskoiari hartuak nagusiki; b) euskal ondare zaharreko hitzak, *liaison* delakoa gertatzen delarik (*deusez, deusere*) edo *des-* aurrizkia duten formetan (*deseguin...*). Ekialdeko testu zaharragoren xerka Chahoren aipua datorkigu burura: “Il faut croire que les écrivains navarraïis l’adoptèrent, par égard pour le dialecte qui a un *s* doux entre deux voyelles” (1856: 13). Ez dakigu Chahok zer egile nafar zaharrak zituen gogoan; bistan dena, *navarraïis* deitura Nafarroa Behereko ulertu behar da, eta bertako egile zaharren zerrenda oso laburra da.

Etxepareren liburuarekin has, Mujikak <z> grafia markatua seinalatzen du *plazer, arrazoin & ayzina (aycina)* bezalako maileguetan, gehi *liaison* ager lezaketen kasu hauek ere: *apezeq &*

ezetare (1997: 67). Erretroflexuen sailean, aldiz, ez dirudi Mujika <ss> & <s> parearen funtzioaz osoki ohartu den.¹²⁰ *Linguae Vasconum Primitiae* liburura jo ondoren, zenbait datu adierazgarri dakargu. Eskaintza gutunean, Etxeparek bokal artean <ss> grafia baliatzen du erretroflexu ahoskabeentzat: *ossagarri*, *assayatu* & *iqhussiric*, batetik, eta bestetik <s> *causa* & *deusere* ahostunentzat. <z> grafia markatua ere badakar: *plazer* & *solaz eguiteco*, azkena hitzen arteko loturan. “Doctrina Christiana” olerkiaren lehen berrehun lerroetan, Etxepare banaketa horri hertsatzen zaio. Lehenik *eztacussat* 13, *osso* 61 & 161, *confessatu* 198, *confessionia* 66 & 193, *dacussadan* 76, *dacussat* 83, *iossiric* 88, *erossi* 110, *passione* 112 eta *confessione* 181 grafiak erretroflexu ahoskabeari dagozkio, biga kontra-etsenplu atzeman dugularik: *eztacusat* 105 & *cenacusan* 126. Bigarrenik, *gloriosa* 49, *precioso* 118, *miserericordiaz* 58 & 131 eta *present* 188 erretroflexu ahostunari dagozkio. Hirugarrenik, *aizina* 156. Gauzak horrela, erran daiteke Etxepareren liburua, salbuespenak salbuespen, txistukari ahostunen lekuko fidela dela.

Leizarragak ere <ss> & <s> para baliatu zuen, Mujikaren ustez¹²¹ beharrik gabe, “haren euskararen ez baita frantsesez-eta bezala *ss* ahoskabea eta *s* ahostuna berezi beharrik” (1997: 119). Mujikak dakartzan Leizarragaren adibideetan bederen (*op. cit.* 120), guk argi ikusten dugu Zuberoako testuetan azaldu den <ss> & <s> ahoskabe eta ahostun banaketa garbia, *liaison* kasuak barne (*deusere*).

XVIII. mendearen akabantzan, Lopezen itzulpenak ere ahoskabe/ahostun bereizkuntza grafikoa erabiltzen du, eta oro har bat dator gure txostenean aurkeztu diren Zuberoako testuetako datuekin (§ 2.4.4).

Zuberoako testurik zaharretan bezala Etxepare eta Leizarragarengan ere txistukari ahostunak ongi lekukotuak direla ikusirik, maileguetan bezala hitzen arteko lotunetan ere

¹²⁰ “Galdegin daiteke, hori bai, zer alde dagoen bokalarteko idazkera bikoitz horretan. Esanguratsua al da alde hori ala esanahirik gabeko aldaera soil eta hutsak ote dira? Maileguetan jatorrizko grafia gordetzen du besterik gabe, bestetan ere inoiz egiten duen bezala: fr. *accusé* > *acusatu*, fr. **essayé* > *assayatu* [...]. Euskal jatorrizko hitzetan, ordea, *ss* bitua idazten du gehienetan, /s/ ahoskabearen adierazgarri.” (Mujika 1997: 68).

¹²¹ Ez dagokigu Leizarragaren ekoizpenak egiazki bere sort-hizkera islatu zuenez ebatzea. Mujika Schuchardtengan oinarritzen da: “Das man damals zwischen Vokalen *ss* schrieb (*ikussi*, heute *ikhusi*) ist ebenfalls den Romanen nachgemacht worden, aber ohne im Baskischen irgend welchen Zweck zu erfüllen; denn wenn im Französischen und im Altspanischen neben dem stimmlosen *ss* das stimmhafte *s* steht, so kennt das Baskische den letztere Laut nicht” (Schuhardt 1900: xxx *apud* Mujika 1997: 120). Batak zein besteak ez dute gaskoia aipatzen, frantsesa baino lehenagoko auzoko hizkuntza nagusia Akitaniako euskal herrietan.

(*liaison*), atal honetako ondorio nagusiak hauxe behar du izan: igurzkari erretroflexu zein bizkarkari ahostunak Erdi Aroko (gutxienez azken) mendeetan sartu ziren ekialdeko mintzoetan. Hein batean, Zuberoan bederen, afrikatu ahostunak ere sartu ziratekeen (cf. § 2.4.3), baina hiztunek ez dute igurzkariekin bezain klarki jokatu: adibidez, biarnesaren *-adje* [adʒe] atzizkia [aʒe] ahoskera igurzkariaz egokitu da (*bidaje*, *mintzaje*; cf. Coyos 2008: 925).

Azken buruan, Akitaniako euskaldunek inguruko erromantzeetarik mailegatu zituzten “txistukari ahostun” etiketa peko hotsak, eremu hertsiago batean fonema bilakatu. Beraz, erromantze horien historiari begiratu beharko zaio igurzkari ahostunen sorrera eta hedapena datatzeko bederen.

2.6. Ondorioak

Egungo zubererak du, euskalki guztien artean, txistukarien sailik konplexuena. Artikulazio-gunearen arabera bizkarkariak, erretroflexuak eta sabaiaurrekoak dira. Hiru serie horiek afrikatu eta ez-afrikatuetan adarkatzen dira, kide ahoskabe zein ahostunak dituztela. Ondorioz, Zuberoan hamaika-hamabi txistukari dituzte.

Ikuspegi diakronikotik, gure corpusaren datuek garbi erakusten dute igurzkari bizkarkari eta erretroflexu ahostunen isla grafikoa segurua dela jada lehenbiziko testuetan, hitz mailegatuetan bezala euskal ondareko hitzetan ere, bai eta *liaison* delakoetan —hots, egungo zubereran aurkitzen diren ber testuinguruetan—; beraz, Agirrek (2001b) erakutsi duena berresten dugu, lautan hogeitaz urtez aitzinatuz. Azken mendeetako lekukotasunetan gairi ez dugu aldaketarik edo bilakaerarik antzematen; gehiago dena, Etxepare edo Leizarragaren testigantzak kontuan hartuz, ondorioztatu behar da Zuberoa gairitzen zuen ekialde batean txistukari ahostunen saila *egina* iritsi zela garai historikoetara.

Txistukari ahostunen artean Zuberoako euskara zaharrak batetik /z/, /z/ & /ʒ/, eta bestetik /dʒ/ afrikatu ahostuna garatu zituen, lehen testutik (Etchart, 1616) garbi ageri denez. /dʒ/ afrikatua berriagoa bide da, eta zernahi gisaz erabilpen urriagokoa ere. Zubererak bere egin du /ʒ/ sabaiaurreko ahostuna, Iparraldeko gainerako mintzoetako /j/ ordezkatzuz: /ʒinko/, /ʒun/ vs. /jajnko/, /joan/. Afrikatu ahostunen isla grafikoa defektiboa izan da; halere, tradizio gaskoiaren zordun, <dg>, <dj> eta <tj> digrafoek nolabaiteko agerpena izan dute zuberera historikoan. Azken hau biarnesaren eraginari egotzekoa dela postulatzeko egiantzekoa da oso.

XIX. mendera arte bokal artean <z> grafia markatua da —nagusiki bizkarkari ahostunentzat, baina zenbaitetan erretroflexu ahostunentzat ere—; bokal artean grafema hau nekez atzeman

daiteke txistukari ahoskabeekin. XIX. mendearen azken partetik aitzina <z> grafema bokal arteko bizkarkari ahoskabeetara hedatuko da, ahostunen markatzeko ahala galduz. Halere, kasu batzuetan maileguen etimologiaren aurkako grafietan aurki dezakegu <z>, txistukari ahostunaren irudikapena delako seinale argia.

Hots hauen jatorria auzo erdarekiko ukipenaren bidez azaltzekoa da: gaskoiak eta frantsesak igurzkari bizkarkari zein sabaiaurreko ahostunak partekatzen dituzte —euskararen hirugarren seriea, erretroflexu ala apikari kontsidera dezagun, absente da bi hizkuntza horietan—, eta orobat erran daiteke *liaison* fenomenoez. Gaskoiak, gainera, afrikatu sabaiaurreko ahostuna du. Hori erranik, gogoratu behar da txistukari ahostunak ekialdean bazik ez direla garatu. Egun funtsez Zuberoan, Amikuzen eta Arberoan ezagunak dira, baina ikusi denez Etxeparek eta Leizarragak aski ongi islatu zituzten txistukari ahostunak. Beraz, ezin bazter daiteke garai historikoaren hastapenean txistukari ahostunak egun baino hedatuago izan litezen; aieruen mailan, beste aukera litzateke pentsatzea idazle arkaiko jaso horiek “jasoago” zatekeen ahoskera *biarnestu* bat imitatu zutela.

II. KAPITULUA

KASU SISTEMA

1. Genitiboa eta hartarik abiatu diren kasu-markak
2. Kasu lokatiboak

1. Genitiboaren eta hartarik abiatu diren kasu-marken azterketa

- 1.1. Sarrera
 - 1.2. Euskararen genitiboa
 - 1.2.1. Oinarrizko jakingarriak
 - 1.2.2. Genitibo zaharra, kasu polisemiko bat
 - 1.3. Genitiboa datibozko balioaz
 - 1.4. Benefaktiboa eta prolatiboa
 - 1.4.1. Genitibo-benefaktiboa: abiaburuak
 - 1.4.2. Genitibo-benefaktiboaren lekukotza
 - 1.4.3. Genitiboa denborazko balioaz
 - 1.4.4. Benefaktiboaren marka berriak: *-(ar)entzat* & *-(ar)entako*
 - 1.4.5. Genitibo-prolatiboa
 - 1.4.6. Prolatiboaren marka berriak: *-tzat* & *-tako*
 - 1.5. Motibatiboa
 - 1.5.1. Abiaburuak
 - 1.5.2. Genitibo-motibatiboa
 - 1.5.3. *-gati(k)* markaren agerpena Zuberoan
 - 1.5.4. Motibatiboaren marka, genitibo berriaren gainean?
 - 1.5.5. Katearen azken begia: benefaktiboaren atzizkien hedakuntza motibaziora
 - 1.5.5.1. Abiaburuak
 - 1.5.5.2. *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* motibatiboaren adierazpenean Zuberoan
 - 1.6. Komitatiboa
 - 1.6.1. Abiaburuak
 - 1.6.2. Komitatiboaren polimorfismoa Zuberoan
 - 1.6.2.1. *-(r)eki(la)* vs. *-(r)eki(la)n*
 - 1.6.2.2. *-kila(n)* atzizkia
 - 1.6.2.2.1. *-kila(n)* atzizkiaren balioaz
 - 1.6.2.2.2. *-kila(n)* atzizkiaren lekukotza
 - 1.6.2.3. *-(r)eki(n)ko* & *-(r)ekila(n)ko* sekuentziak
 - 1.6.3. Ondorioak
 - 1.7. Ondorioak

1.1. Sarrera

Euskararen kasu sistemaren garapenak garbi erakusten du zenbait kasu-marka genitiboaren gainean eratu direla: komitatiboa (soziatiboa), motibatiboa eta benefaktiboa. Beraz, egungo kasu-marka horiek behiala genitiboari jarraituz zitzaizkion postposizioen gramatikalizaziotik sortuak dira. Marka hauek oraino morfologikoki gardenak gertatzen dira, eta polimorfismo gradu bat erakusten dute.

Euskararen historian, genitiboari erantsi zaizkion markak kasu sistemaren hazkunde edo garapenean kokatu behar dira: *-(r)eki(n)*, *-(ar)(en)gati(k)* edo *-(ar)entzat* kasu-markak postposizioen gramatikalizazioaren bidetik sartu dira kasu sisteman —izan ere, munduko hizkuntzetan horixe izaten da kasu-marka berrien garatzeko biderik ohikoena (Kulikov 2009: 441)—.

Beraz, aipatu ditugun kasu-marka (erlatiboki) berriek ez zuten lehenagoko kasu-markarik ordezkatu, kasu berriak ekarri zituztela baizik. Marka horiek azaleratu baino lehen, beroiek adierazten dituzten balioak —edo haietarik gehienak, bederen— genitibo zaharrak zituen karreiatzen. Horrela, marka berriak lehenagoko kasu *zentral* eta polisemiko baten baliotara lerraturik ageri ziratekeen, azkenean sistemak kasu berriak garatuz. Hipotesi hau egiantzekoa ez ezik, logikoa da, eta gehiago dena: euskal testu zaharrek, eta bereziki ekialdekoek, marka berriak baino lehenagoko egoeraren aztarna garbiak lekukotzen dituzte.

Tesiaren atal honetan euskararen kasu sistemaren garapenaren ardatzetarik bat aztertuko dugu, beraz. Xede horrekin, lehenik euskararen genitiboaren zedarritzatzeko jakingarri batzuk gogora ekarriko ditugu (§ 1.2.1), kasu polisemikoaren kontzeptua azpimarkatuz (§ 1.2.2). Hori egin eta, genitibo zaharraren balioak bederaka azterkatuko dira, lehenik haren aztarnak ekarriz, eta gero balio horretan espezializatua den delako markaren lekukotza aztertuz. Balio horien artean, genitiboak hartzailea adierazten dueneko fenomeno aski ezezagunaren berri emanen dugu (§ 1.3). Ondoren kasu benefaktiboa eta prolatiboa (§ 1.4), motibatiboa (§ 1.5) eta azkenik komitatiboa (§ 1.6) ikertuko ditugu, ondorioetara etortzeko (§ 1.7).

1.2. Euskararen genitiboa

1.2.1. Oinarrizko jakingarriak

Deus baino lehen, komeni argitzea da *genitibo* terminoa nola erabiliko dugun. Azken hamarkadetako gramatikagintzarentzat euskarak *-(r)en* baizik ez du genitibo marka, nahiz eta *-ko* atzizkia ere maiz hartu izan den genitibo batentzat, hots, “leku genitibo”, eta arrazoi praktikoengatik kontsiderazio horrek aski hedatua jarraitzen du.¹²² Izan ere, *-ko* beste zerbait litzateke, erdaretan *suffixe relationnel* edo *relational suffix* deitzen dutena, Manterolak

¹²² Gavelek “génitif déterminatif” eta “génitif attributif” deitzen zituen *-(r)en* eta *-ko*, hurrenez hurren (1929 II: 16); Lafonek “les deux génitifs” aipatzen ditu (1965).

erlaziozkoa gisara ekarria (2015: 38).¹²³ Sintaxitik semantikara iraganez, azterketa honetan *-ko* atzizkiaren balioen arteko bi zaizkigu interesatzen: 1) *-ko* prospektiboa; eta 2) *-ko* destinatiboa. Ikusiko denez, biak estuki lotuak dira.

Genitiboaren forma zaharra ez bide zen *-(r)en*, *-(r)e* baizik, eta horri *-n* morfema erantsi zitzaiokeen. Horrela proposatu zuen Lafonek (1964 & 1965b), eta Mitxelenak onetsi (1972: 297). Gehiago dena: *-(r)e* lekukotua da Erdi Aroko onomastikan: *Lope iaun Ortire semea* —bi aldiz dokumentu berean— (Irache, 1125) (Mitxelena 1969: 10), *Orcire çorita* (1110) → *Orçiren çorita* (1284) (Irigoyen 1976). Euskara historikoak, eta egungoak, genitiboaren forma zaharraren aztarna argiak atxiki ditu, begien bistakoenak izenordainetan: *ni-re*, *hi-re*, *gu-re*, *zu-re*, *ber-e*, etab., edo *are* bezalako fosiletan. Horietaz gainera, deklinabide konplexuan Zuberoako testuek aise lekukotzen dituzte *-n* gabeko formak: *haregati(k)*. *Last, but not least*, benefaktiboaren edo motibatiboaren markekin gertatzen ez den bezala, komitatiboarenak *-n* gabeko genitibo zaharraren forma du bere baitan: *-(r)eki(n)* eta ez **(r)enki(n)*.

1.2.2. Genitibo zaharra, kasu polisemiko bat

Tipologikoki, genitiboak adieraz ditzakeen rolen artean, hauek dira ohikoenak: edule, kanpoko edule, espermentatzaile, onuradun/kaldetun edo hartzaile; hau da, egungo euskararen kasu-marken sailkapen estandarrean edutezko genitiboak, destinatiboak eta datiboak adierazten dituztenak, besteak beste. Beraz, genitiboa maiz kasu polisemikoa izaten da (cf. Nikiforidou 1991; Lander 2009). Euskararen genitiboak ere polisemia erakusten du, haren balioa ez baita bat eta bera.¹²⁴ Lafonerentzat, genitiboaren bi balio nagusiak

¹²³ “Its principal function may be readily described: any constituent of adverbial function, regardless of its internal structure, may take the suffix *-ko* to produce an adjectival modifier which precedes its head noun. The only limitations on this process are semantic ones” (Trask 2003: 144); hari jarraikiz, *-ko* atzizkia ondokoetan aurkitzen ahal dugu: a) aditzondo bakunetan; b) *-la(n)* atzizkiaren bidez eratutako modu aditzondoetan; c) morfologikoki konplexuak diren aditzondoetan; d) kasu lokatiboetan diren izen sintagmetan; e) komitatibozko izen sintagmetan; f) batzuetan, instrumentalean diren izen sintagmetan; g) *lotsa gabe* bezalako postposizio sintagmetan; h) *-ka* atzizkiaren bidez eratutako aditzondoetan, izan daitezela determinatzailerik gabeko izen sintagmak ala bestelako sekuentziak; i) *-ta / -(r)ik* partizipio adberbialetan; j) perpaus jokatueta —batez ere denborazkoetan—; eta k) *-(e)la* atzizkia duten perpaus kompletiboetan (*ibid.* 145-147). Trasken markatzen duen salbuespen bakarra *-ki* atzizkiak eratorritako adjektiboena da (*ibid.* 147).

¹²⁴ Hori arras ohikoa izaten da munduko hizkuntzen kasu sistemetan. Zenbaitetan kasu-markek balio zehatz eta unibokoak ukan ditzaketen arren, maiz polisemian kokatzen dira. Haspelmathek azaldu bezala, aukera bat litzateke delako kasu-markak adierazi balioak isla litzakeen etiketarik proposatzea, baina horrek ezin bukatuzko

determinazioa eta destinazioa dira (cf. § 1.4.1). *Destinazioaren* ideian guk bi ñabardura bereiziko ditugu: 1) denborazkoa, “*gerorat igortzea*”; eta 2) ez-denborazkoa, “norbaiten edo zerbaiten alderat igortzea”. Hurrenez hurren, bi ñabardura horiek balio prospektiboari (cf. *izanen, ikhusiren, hartüren*) eta benefaktiboari lotuak dira; (1) & (2) adibideek ilustratzen dituzte.

- (1) *Prioria hirour ourtheren date, bena continuatcen ahal dukeye.* (Mercy 36)
- (2) Gure behiaren chahala gure. (Zalgize 195)

-(r)en markaz denaz bezainbatean, beraz, jada hiru balio nagusi ditugu: edutezkoa, denborazkoa eta benefaktiboa; horiei beste zenbait gehitu behar zaie: prolatiboa (3), motibatiboa (4) eta, estonagarri iduri arren, datiboari dagokiona ere, zenbaitetan genitiboaren markak *hartzailea* adieraz baitezake (5).

- (3) *Virgina sacratia, Ginfoaren ama, haitatcen çutut ene buruçaguifa guehienaren, eta ene ama maithagarriaren.* (CatOlo 10)
- (4) *Ceren dioyé goure falvaçalia untatu edo sacratu dela? | I. Ceren eta ayta æternalac erregue eta aphez sacratu ukhen beytu.* (CatOlo 27)
- (5) *Ene haur maiteak, goraintzi Granganek eta Ganisek; erran zijautanen hire goraintzjak emateko falta gabe* (Marie Darburu. *Le Dauphin* 20, 3v)

Azkenik, ezin ahantz daiteke ekialde handiko mintzoetan —eta behiala euskara osoan— perpaus jokaturagabeen osagarri zuzena genitiboan errendatzen dela, euskalaritzan *transitive object genitive* (TOGen) deituraz ongi ezaguna (6), eta orobat aditz iragangaitzekiko perpaus jokaturagabeen subjektua, guk proposatu dugun *intransitive subject genitive* delakoa (Padilla-Moyano 2013c) (7).

- (6) *Ginco aytari mundiari urhentcialano, hortan ouhoure orotaco handienaren errendatceco.* (UskLi 89)
- (7) *Bonurra dugunaz gaignian / arkort içateko heben, / ene alhabaren içateko / erreguina Portugalen.* (SteEli 159)

Ez da dudarik, beraz, euskararen iraganean genitiboa kasu aski polisemikoa izan zela, eta ez bakarrik haren sorreran, aldi historikoan ere balio aniztasun horren aztarnak gorde baititu. Puntu honetan, genitiboarentzat zerrendatu ditugun balio gehienak bederaka aztertuko dira: lehenik, genitiboak datiboaren balioa adierazten dueneko fenomeno (§ 1.3), eta ondoren

dinamika batera bulkatuko ginduke, eta ez litzateke batere praktikoa. Adibidez, latinaren datiboaren etiketak ondoko ñabardurak bildu beharko lituzke gutxienez: “dative-possessive-benefactive-experiential”; horren ordez, Haspelmathek mapa semantikoaren metodologia proposatzen du (2009: 511).

kasukako azterketak eginen ditugu, benefaktiboa eta prolatiboa (§ 1.4) zein motibatiboa (§ 1.5) preseski ikertuz.

1.3. Genitiboa datibozko balioaz

Guk dakigula, orain arte ez da aipatu euskararen genitiboak hartzailea adieraz ahal lezakeenik, berez datiboaren balio zentrala dena (*core meaning*). Argudia liteke (5)-eko *hire* forma genitibo-benefaktiboa dela, eta interpretazio hori ezin da baztertu; izan ere, semantikoki hartzailea eta onuraduna biziki hurbil gertatzen dira. Dena den bezala, normalki datiboa eskatuko luketen, baina horren ordeztu genitiboa agerrarazten duten adibide sorta bat dakargu (8)-(14), gehienak *egin & eman* aditzekikoak.

Le Dauphin kortsu ontziko gutuneriatik (Lapurdi, 1757) bi etsenplu dakargu, balio honen lekukotza nonbait Zuberoatik kanpo ere kokatzen duena (8)-(9). Oloroeko katiximaren testu berria ezartzen duen 1746ko edizioaren aitzinsolasean adibide hirukoitz bat atzeman dugu (10); bertan, euskararen logikatik genitiboak benefaktiboa adierazten duela interpreta daitekeen arren, frantsesezko originalak hartzaileak ematen ditu.¹²⁵ Bestenaz, guztiz markatzekoak dira (14) & (15)-eko pasarteak, non genitiboa eta datiboa sintagma berean emanak baitira, gure ustez genitiboaren markak datiboaren balioa adierazten ahal zuelako frogantza argia eta, beraz, zenbaitetan trukagarri gerta zitezkeela. (15)-ekoan, gainera, aditzaren datibozko indizea pluralean da, izen sintagman datzan datibo marka singularrekoa denean —baina koordinazioaren bidez *mundu ororen* baturik—.

- (8) *Neure semea Joannis gomendacen dauçout otoy çoure qonpania oná eguiteás.* (Joana de Salla. *Le Dauphin* 13, 2r)
- (9) *Ene haur maiteak, goraintzi Granganek eta Ganisek; erran zijautanen hire goraintzijak emateko falta gabe* (Maria Darburu. *Le Dauphin* 20, 3v).
- (10) *Catechima hontan cerbait khambiamenturen eguitia, orano aysiago, facilago, eta hobiago errendatceco, ez solamente haur tchipien bena orano guehiagouen eta handien.* (*CatOlo2* vii)
- (11) *Ene deseignen countre / nahy iça espousatu? / Ene changry eguitera / nahy inçatia ausatu?* (*Edipa* 883)
- (12) *Mundu oro duçu harez / amiraturic jçanen, / eta Gince hounaren / alagrancia duçu emanen.* (*SteEli* 1030)
- (13) *Zure bihotzian zer den / ene ahal zira deskubritzen.* (*Chiveroua* 73)

¹²⁵ Hona frantsesezko originala: Pour le rendre encore plus propre et plus utile, s'il est possible, non-seulement aux petits, mais encore à ceux d'un âge plus avancé, et aux grands même. Hau da, rendre à quelqu'un, datiboa à preposizioaz markatua delarik.

- (14) *Eguiçu, ene eta heben guiren orori, misterio adoragarri hortan çor deiçugun religionia, amorioua eta devocionia. (Meditacioniac 176).*
- (15) *Hor erremestiatcen çutut nihauri eta mundu ororen eguin deiskutçun graziez. (Meditaiconiac 210)*

Zuberoako testuen testigantza hesteko, bada corpusean bikoizketa bat, *Pater noster* otoitzaren formula bati lotua: zenbaitetan *gouri oguen eguiller*, baina besteetan *goure oguen egiller* agertzen da (16)-(22). Pentsa ote genezakea datiboarekiko etsenpluetan [[*guri ogen egin*] -*le*] inflexiozko atzizkiaren ¹²⁶ araberako sintaxia dela, hots, ‘guri ogen egiten digutenei’ adierazteko, -*le* atzizkiak *guri ogen eguin* perpaus osoa hartzen duela oinarri, baina genitiboarekikoan [*gure [ogen egile]*] posesibo hutsa datzala? Ala bietan, datiboarekikoan nahiz genitiboarekikoan, -*le* atzizkiak perpaus osoa gobernatzen duela? Gure ustez bigarren aukera lehenestekoa da, eta frantsesezko iturrietara joz geroz, inpresio hori indartzen da, zeren ez baita posesiboarekiko egiturarik, mendeko perpausa baizik.¹²⁷

- (16) *Hala nola guc parcatcen baitutugu gouri oguen eguiler. (PrS 21)*
- (17) *Hala noula guc parcatcen baitutugu goure oguen eguiler. (Bp I 41)*
- (18) *Hala nola guc ppharcatcen baytutugu gouri oguen eguiler. (CatOlo 9)*
- (19) *Hala noula guc ppharcatcen beytutugu goure oguen eguiler. (CatOlo 52)*
- (20) *Hala noula guc pharcatcen beitutugu gouri oguen eguiler. (IP 6)*
- (21) *Hala noula guc pharcatçen beitutugu gouri oguen eguiler. (DKhi 8)*
- (22) *Hala nola guc pharcatzen beitugu gouri ogen egiler. (Catuchuma 20)*

Hizkuntza batzuetan genitiboaren datiboazko balioa sinkretismo baten ondorioa da, erran nahi baita lehenagoko bi kasu bat etorri dira; antzinako persierak horren adibide egokiaz hornitzen gaitu (Benvenuto & Pompeo 2012 & 2015). Hori ez ezik, tipologikoki posesioaren eta hartzailearen arteko lotura ongi ezaguna da. Egungoan bezala, euskararen genitibo zaharraren balio zentrala edutezkoa zen —oro har, hizkuntza guztietan den bezala; cf. Lander 2009: 501—, gainerako balioak hartarik hurbilago edo urrunago gertatuz. Benvenutok & Pompeok semantikaren *kategoria radial* kontzeptua kasuaren semantikan aplikatzen dute:

Tanto minore sarà la quantità di tratti presenti in un dato membro della categoria, tanto più questo sarà periferico e lontano dal prototipo. Da ciò deriva l’etichetta di “categoria radiale” usata per definire questo tipo di strutturazione concettuale. Di conseguenza, quando tale


¹²⁶ -*le* & -*tzaile* inflexio atzizkiak ikus Fernández, Oihartzabal, Landa & Sarasola 2010.

¹²⁷ Oloroeko katiximaren frantsesezko bertsioan honelakoa da formula: Et pardonnez-nous nos offenses, comme nous pardonnons à ceux qui nous ont offensés (Catéchisme à l’usage du diocèse d’Oléron, réimprimé par l’ordre de monseigneur Jean-Baptiste-Auguste de Villoutreix de Faye, évêque d’Oléron. 1743, 13. orr).

modello interpretativo è applicato a un caso polisemico, vale a dire caratterizzato da una gamma di usi differenti, questi vengono a essere organizzati secondo una struttura radiale, dove la funzione centrale —solitamente la più frequente non solo nella lingua in esame ma anche in prospettiva tipologica— costituisce il prototipo dal quale si dipartono le altre funzioni, relativamente meno frequenti e più periferiche. (Benvenuto & Pompeo 2012: 156)

1.4. Benefaktiboa eta prolatiboa

1.4.1. Genitibo-benefaktiboa: abiaburuak



1. IRUDIA. Posesibo-benefaktibo lotura (Malchuvok 2010)

Lafonentzat, genitiboaren balio garrantzitsuenetarik bat da *destinazioa*:

Les deux génitifs [-(*r*)*en* et -*ko*], a l'indéfini, au singulier et au pluriel, sont susceptibles de deux emplois principaux : déterminant d'un substantif ; expression de la destination (la plupart du temps comme prédicat, ou comme attribut d'un verbe). Le génitif destinatif, contrairement au génitif déterminant, ne peut pas être lui-même décliné. (1965: 175)

Gorago erran bezala, *destinazio* horren barnean bi ñabardura bereizten dugu: denborazkoa (prospekzioa) eta ez-denborazkoa (benefaktzioa). Beraz, hemen *destinazioaren* adiera zabalagoa darabilgu euskalaritzaren tradizioan errotua den *destinatibo* kasuari dagokiona baino, erran nahi baita, -(*ar*)*entzat* & -(*ar*)*endako* markek adierazten dutena, Hualde & Ortiz de Urbinarekin Manterolak eta haiekin guk *benefaktibo* deitzen duguna. Kasu sistemari so, destinatiboa -*rako* segidak adierazten duenera hertsatuko dugu (Hualde & Ortiz de Urbina 2003); xehetasunendako II, § 2.4.4. Benefaktibora itzuliz, hona kasuaren definiziorako hurbiltze apropos bat, *benefiziaro* edo *onuradun* roletik abiatuak:

The beneficiary is a participant that is advantageously affected by an event without being its obligatory participant (either agent or primary target, i.e. patient). Since normally only animate participants are capable of making use of the benefit bellowed upon them, beneficiaries are typically animate”. (Kittilä & Zúñiga 2010: 2)

Hastapenean, beraz, euskararen genitiboak bere baitarik adieraz zezakeen benefakzioa —eta malefakzioa ere, bistan denez, baina euskarak ez du balio hori markatzen¹²⁸—. Afera da benefaktiboaren marka berriak garatu eta, testuek —partikularzki ekialdekoek— genitiboaren erabilpen zahar hau jarraituko dutela lekukotzen: “Especially in old texts, the destinative [= benefactive] function is also sometimes expressed by the simple (either possessive or locative) genitive: Tt. *gu-ré oro-ren* ‘for all of us’, RS. *gibel(-e)-ko* ‘for the liver’, Oih. *hortz(-e)-ko* ‘for the tooth’” (Santazilia 2013: 273). Eta testuetan ez ezik, Lafonen denborako Zuberoan genitibo-benefaktiboa ez omen zen arraro:

On l'emploie [le génitif] encore assez souvent tel quel, notamment en souletin : *Jaun hoi hun zia hie eta hie etxekuen* « cet homme a été bon pour toi et pour tes parents » ; *jinen zia bi egunen* « vous viendrez pour deux jours ». (1965: 193)

Caminoren arabera, egun ere arkaismo hau bizirik da ekialde hertsiko mintzoetan:¹²⁹ “Edute genitiboko atzizkiak adiera destinatiboa [= benefaktiboa] du euskara zaharrean; egun ere hala da Baxenabarreko Arberoan, Amikuzen, Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan, bederen” (2011: 106). Dirudienez, ekialde ez hain hertsian genitibo-benefaktiboaren fosilak atxiki dituzte; kasu batentzat, Larresoron oraino entzun daitezke *kaka hire!*¹³⁰ bezalako erramoldeak (Epelde 2003: 89). Halere, erran daiteke egungo euskaldun gehienentzat balio hori ilun, ulergaitz bihurtu dela edo, bederen, ez dutela modu produktiboan atxiki.¹³¹

¹²⁸ Munduko hizkuntza batzuek, haien artean japonierak, malefakzioa markatzen dute. Benefakzioaren eta malefakzioaren gaineko ikuspegi tipologiko batentzat, irakurleak Zúñiga & Kittilä 2010 lanera jo dezake.

¹²⁹ Oztibarreko mintzoari eskaintzen dioen lanean, Caminok horren etsenplu batzuk biltzen ditu: “*etxen hil kabale baten etzu erraiten* (Bunuze); *hoi norendako da? amain* (Jutsi); *noendako? goazamain* (Jutsi); *kaka hire to!* (Larزابale)” (2015: 21).

¹³⁰ Casenave-Harigilek latinaren *in mala crucem* erramoldearen ordain gisara dakartza *habil kaka egitera & kaka hire* (2002, s.v. *crux*). Egun ere erabilia izan arren, XVIII. mende akabantzako testu batean *-tako* markarekin ageri da: *Si quierez etender / kaka dela cientako* (*Edipa* 248). Orobat datazio zehatzik gabeko asto laster batean: *Intercus canis ore vert, Latiz dira hitz hoiiek oro, / Üskaraz erran nahi dit, / Horaren kaka dela haien orentako*. (*Recoquillart eta Arieder* 236), eta 1848ko beste batean: *Khaka to hiretako* (*CanBel* 467).

¹³¹ Zentzu horretan, interesgarria da *Norantz* proiektuaren datu basean “destinatibo” galderari eman zaizkion erantzunen kontsulta egitea. Inkestagileek bi galto egin dute destinatiboaren gaineko informaziorik biltzeko: 1)

Euskalaritzaren tradizioan, guk dakigula, Gavel izan zen lehenbizikoa *-ko* atzizki soilaren balio destinatiboaz ohartarazten:

Les deux génitifs basques servent souvent aussi à exprimer l'idée de destination qu'indiquent en français la préposition *pour* et en espagnol *para*. La manière normale de rendre cette idée, avec les noms de choses, propres ou communs, est même de se servir du génitif attributif : *Ba-zen egun letera hainitz Ligiko, eta batere Athereiko* « Il y avait aujourd'hui beaucoup de lettres pour Licq et pas tu tout pour Atherey ». [...] Mais c'est surtout avec les substantifs verbaux que cet emploi du génitif attributif est fréquent. [...] Le génitif déterminatif peut lui aussi servir de destinatif ; (il est particulièrement fréquent dans cet emploi en souletin). Une mère désirant se faire embrasser par son enfant lui dira par exemple : *Nun düzü amaren potta ?* « Où est le baiser que vous destinez à votre mère ? » (1929 II: 21)

Baina fenomenoaz oharrik zehatzena Lafonek egin zuen (1965: 192-194), *-(r)en* & *-ko* markak batera ikerturik, eta analisia nork-nahi konprenitzeko moduko kontraste batetik abiaturik: *biharko lana* “le travail de demain” vs. *Badut lana frango biharko* “j'ai beaucoup de travail pour demain”. Ondoan Oihenarten atsotizetako etsenpluak iruzkintzen ditu:

Apezak azken hitza bere « le prêtre prêche enfin pour soi » (O. pr. 29), litt. « le prêtre (à l'actif) la dernière parole (au nom.) pour soi (gén. de *ber* « soi-même ») » ; phrase sans verbe ; *bere* est prédicat ; il signifie « qui a rapport à soi-même, qui appartient à soi », d'où « destine à soi ». On a à faire à une phrase du même type dans le pr. 435 : *Zetabea berri deno holtzeko, gero ere saguaren holtzeko* « un sas neuf est tenu en réserve en la paroi pour servir au besoin, mais cependant la souris l'entame », litt. « le sas, tant qu'il est neuf, en rapport avec la paroi, puis aussi en rapport avec la dent de la souris ». Le pr. 223 montre comment on est passé d'un sens très général à l'expression de l'orientation vers l'avenir : *Haurzaroko orbaina ezaba daite gaztaroko* « la cicatrice reçue en l'enfance s'efface pour le temps de la jeunesse », litt. « la cicatrice de l'enfance peut/pourra s'effacer (comme cicatrice) de la jeunesse » ; *gaztaroko* « de la jeunesse » est attribut du sujet de *ezaba daite*, potentiel présent-futur qui signifie « peut/pourra s'effacer ». (Lafon 1965: 192-193)

Jarraian Lafonek inesiboan ematen diren denborazko perpausak aipatzen ditu. Hauek *-ko* har dezakete denborazko *igortze* baten balioaz, baina ezinezkoa dute *-(r)en* hartzea: *Ahunz*

destinatibo bizidunentzat, *J'ai apporté le livre pour l'homme* galdera; eta 2) destinatibo bizigabeentzat, *C'est bon pour les yeux*. Bada, item horiek euskaratzean, 59 informanteetarik, guztiak Akitaniako euskaldun, bakar batek eman du genitiboa: *Ekharri dit libria gizonan* & *Hun düzü begien* —halere, beste moldea ere onartzen eta baliatzen zuela adierazi du—. <http://www.norantz.org/web/galdera/guztiak#>

duguneko zubi “Faisons des ponts pour lorsque nous aurons des chèvres” (O *Pro* 14) (*ibid.*). Oihenarten beste adibide interesgarria iruzkintzen du Lafonek: *Noren ari aiz? Lo datzanaren* “Pour qui travailles-tu ? C’est pour celui qui dort” (*Pro* 340). Punturik interesgarriean, Lafonek genitibo-destinatibo hau agerrarazten duen erlazio mota definitzen du:

Et lorsqu’il est employé tel quel avec valeur destinative, soit dans la vieille langue, soit dans la langue moderne, la destination apparaît comme une spécification de l’idée générale de relation. *Oilarbat aski da oilo hamarbaten, hamar gizon ez emazte baten* (pr. 356) « un coq suffit a dix poules, mais dix hommes ne suffisent pas à une femme » ; *aski da* signifie « il est suffisant, il suffit » ; *bat ehunen, ehun ez baten* (70) « un en vaut cent, et cent n'en valent pas un », litt. « un pour cent, cent pas pour un » ; *zuhur arditaren, erho dugataren* (534) « chiche pour le liard, et large pour le ducat ».

1.4.2. Genitibo-benefaktiboaren lekukotza

Lafonen azterketatik, beraz, abiatuko gara *-(r)en* genitiboaren balio benefaktiboak Zuberoako testuetan duen lekukotzaren aztertzeke.¹³² Oihenarten atsotizetako adibideak dja Lafonek iruzkindurik (§ 1.4.1), ondoko testuetarik hasiko gara. Zalgizek adibiderik ematen du (23), eta beti XVII. mendean Tartasek eta Belapeirek ere (24)-(31). Oposa liteke *ororen eskola* sintagman (27) *ororen* edutezkoa dela —guk benefaktiboa dela sinesten dugu—, baina *uscaldunen eguina* (26) eta gainerakoetan *-(r)en* markaren balio benefaktiboa ezin

¹³² Zeharka balitz ere, ez genituzke *Linguae Vasconum Primitiae* azterketa honetatik guztiz kanpo utzi nahiko. Hain zuzen, liburuko olerkirik ezagunenetarik baten izenburuan datza, gure ustez, genitibo-benefaktiboaren etsenplu bat: *Amorosen gaztiguya*. Afera da Lafonek beste manera batean interpretatu zuela: “*Gaztigu* ne signifie pas ici « châtement », mais « réprimande ». Donc « critique des amoureux »” (1952: 766). Behingoz ez gara Lafonen interpretazio batekin akort, zeren guk *gazitiguya* ‘aholku’ ulertzen baitugu, eta *amorosen* formaren genitiboa, adiera benefaktiboz. Beraz, *Amorosen gaztiguya* ‘Conseil pour les amoureux’ itzultzea proposatzen dugu. *OEH*-k etsenplu hau “Aviso, consejo” adiera pean sailkatzen du, ondokoa preseski aipatuz: “Lafon traduce “critique des amoureux”, tal vez por estar precedido de genitivo” (s.v. *gazitigu*). Olerkiaren edukiak gure interpretazioaren alde eginen luke. Bihoa bigarren ahapaldia: *Amorosac nahi nuque honat veba valite / Honliçaten gaztiguric aguian enzun liroyte / Amorebat hantaceco conseylubat nequeye / Balinetan seculacoz gogoan sar valequie*. Zeren, nola ulertu, bestela, ez bada ‘haientzat on litzatekeen kontseilurik agian entzun lezakete’? Beraz, *gazitiguya* hitzaren zentzua horrela definiturik, ezkerreko genitiboaren balio benefaktiboak ez du dudarako tarte handirik uzten. Zuzen jokatzeko, gogoratu behar da Lafonek Etxepareren hizkuntzaren gaineko azterketa “Les deux génitifs” lana (1965) baino dozena bat urte lehenago egin zuela. Gugandik hurbilago, Altunak “Disputa de amantes” itzultzen du (Altuna & Kintana 1995).

eztabaidatuzkoa iruditzen zaigu. (30)-eko pasartean *hilen & exayentaco* batera ageri dira, menturaz *-taco* markak biak hartzen dituelarik.¹³³

- (23) *Noren hon, noren gaitz nafar arnoa.* (Saug 26)
- (24) *Haren hilzia abantaillos, eta prezios izanen zela gure ooren.* (Tt Onsa)
- (25) *Akisizaliak ezin bere konserbatzen dutu [hon haiek].* (Tt Arima)
- (26) *Çuberoa Herrico Uscaldunen eguina.* (Bp, azala)
- (27) *Norc bere Parropietan, Ooren escolabat eçar eraciren die.* (Bp I 23)
- (28) *Baita ahalaz eçariren berhez nescatilen, serora edo beste burçaguissa berhalacoac.* (Bp I 23)
- (29) *Gincoa, cinez sinhesten diçut badela Paradussu bat gente perestien.* (Bp I 49)
- (30) *Bici eta hilen, goure exayentaco ere Gincoari othoitz eguitia.* (Bp I 50)
- (31) [...] *orotan gainti hon dira iracourtçen eztakiene.* (Bp I 123)

izan da,¹⁶⁶ baina hemen saihestuko dugu, egiazki komitatiboaren barneko ñabarduretarik bat baizik ez delako. Hungarierak du, edo zuen, komitatiboaz gainera, soziatibo beregain bat (Stolz, Stroh & Urdze 2013),¹⁶⁷ honakoa adierazteko: “The person in whose company (cf. Latin *socius*) the action is carried out, or to any belongings of people which take part in the action (together with their owners)” (<http://en.wikipedia.org> s.v. *sociative case*). Oro har, munduko hizkuntzetan komitatiboa kasu polisemikoa izaten da: haren balio nagusia konpainiaren adierazpena da, ondoren koordinazioa (→ pluralgilea), bai eta instrumentua ere; horiezaz gain, komitatiboak balio anitz adierazten ahal ditu, aski ñabarrak (cf. Arkhipov 2009 & 2016).

Euskararen komitatibo marka genitiboaren gainean eraikia da, baina *n* gabeko itxurak salatzen duenez, genitibo zaharraren garaian erantsi zitzaiokeen: *-(r)e + ki*. Van Eysek (1879: 76) **(r)-e-kide-n* etimologia proposatu zuen, *kide* postposizioaren gramatikalizazioz, gehi inesiboaren *-n*, ‘norbaiten konpainian’:¹⁶⁸ **(r)-e-kide-n > -(r)e-kie-n > -(r)-eki-n*; etimologia

¹⁶⁶ Ez da hautu bakarra izan. Frantses idatzitako literaturan *unitif* terminoa kausitzen ahal dugu (Darrigol 1830; Belsunce 1858 [Mounole 2003]; Gavel 1929; Lafittek 1944; Lafon 1951a, 1955b...); gainera, *accompagnatif* ere baliatu izan da (Oyharçabal 1991).

¹⁶⁷ “In Hungarian, two inflectional case suffixes in the noun paradigm partially compete with each other when it comes to encoding comitatives. First, there is the so-called comitative-instrumental suffix *-val/-vál* ‘with’. This suffix is polysemous because it may either have a comitative reading marking the companion (e.g. *barátjával* ‘with his friend’), or it may mark an instrument (e.g. *tollal* (< *toll* + *-val*) ‘with a pen’). Thus, *-val/-vál* reflects the familiar pattern of identity. In addition, there is the so-called *associative* case marked by *-stul/-stül* ‘with’. The functional domain of this suffix is restricted to the comitative proper, i.e. it marks companions (e.g. *családostul* ‘with family’, *gyerekestül* ‘with child’). Put differently, *-stul/-stül* has the typical traits of a morpheme showing differentiation. It is important to note that the associative can never be used with an instrumental reading. However, *-stul/-stül* and *-val/-vál* can be substituted one for the other if a comitative reading is intended” (Stolz, Stroh & Urdze 2013).

¹⁶⁸ Etimologia hori Schuchardtena (1893: 29 *apud* Manterola 2015: 469; 1947 [1923]: 61) zela pentsatu izan bada ere, egiazki Van Eysena da, Lafonek (1936: 67-68) argitu zuen bezala, eta Gómezek gogoratu (2005: 275, 5. oharra). Hona Van Eysen hitzak:

Comme *kin* régit un génitif, il est probable que c'est [sic] une locution adverbiale, un nom au locatif, comme *aurrea* ‘devant’, *gibelea* ‘derriere’, et que comme *aurrea* (pour *aurrea-n*) signifie ‘dans le devant’, *kin* équivaldra à ‘dans la compagnie’ ou à quelque autre expression analogue. Il faudra donc décomposer *kin* en *ki-n*. Le seul mot que nous sachions dont *ki* puisse dériver, c'est *kide*. Le *d* s'élide assez souvent en basque pour admettre que *kide* + *n* se soit contracté en *kin*, surtout si l'usage fréquent l'a réduit à n'être plus qu'un suffixe, dont la signification s'est très peu éloignée du sens original.

Kide signifie : pareil, semblable, égal, et en est arrivé à correspondre, dans les mots composées, à ‘cum’ latin et à ‘con’ français ; ainsi ‘consanguin’ est rendu par *hauride* et ‘commun’ est rendu par *bakid* de (*bat-kide*). Ces mots (*cum*, *con*) expriment participation, et *kide* + *n* pourrait donc signifier ‘en participation, en compagnie’, et de là le génitif qui précède. *Gizonarekin* ‘avec l'homme’ voudra donc dire ‘en compagnie de l'homme’ (1879 : 76-77).

horren bigarren urratsa arras ongi lekukotua dugu.¹⁶⁹ Euskalaritzaren tradizioak Van Eysen etimologia onetsi badu ere (Lafon 1965b: 196; Mitxelena 1972: 297; Trask 1997: 210), Manterolak zenbait objekzio egin dio.¹⁷⁰

Aldi historikoan gaindi, eta egungo euskararen ere, komitatiboaren morfemak aldakortasun gradu bat erakusten du. Batetik, ekialdeko mintzoetan atzizki honek bukaerako sudurkaria peitu du: *-(r)eki* —Gavelekin (1929: 26), uste dugu ekialdekoa dela komitatiboaren forma zaharrena¹⁷¹ —. Bestetik, betiere ekialdean, *-(r)ekila(n)* morfema ager daiteke, *-(r)eki(n)* aukerarekin bat.

Alderdi semantikoari dagokionez, ezaguna da komitatiboaren markak behiala koordinazioa ere adieraz zezakeela, *X-rekin Y* ‘X eta Y’ bezalako sintaxietan, Lakarrak (1983) mendebaldeko mintzoetan deskribatu duena, arkaismo gisara, eta ekialdekoetan ere gero eta gehiago lekukoturik ageri zaiguna (Oyharçabal 1991: 135; Lakarra 2008b; Padilla-Moyano 2011: 76-77; Camino 2011: 105). Erabilpen zahar horren aztarnek aldi historikoan iraun dute, eta egun nolabait haren azken txinpartak kausitzen ahal ditugu ekialdeko hiztunen gramatikan.¹⁷²

¹⁶⁹ Lapurdin. *EKC-k 600* agerralditik goiti eskaintzen ditu, gehienak ondoko egileengan: Haraneder, Arambillaga, Urte, Etxeberri Ziburukoa, Gasteluçar eta Argaignarats.

¹⁷⁰ Hona Manterolaren hitzak: “Zenbait arazo ditu hipotesi honek: *ide* aldaera aintzat hartuta, badirudi herskaria berria dela (*EHHE* s.v. *ide/kide*), hitza elkartuetan bigarren osagai gisa agertzearen ondorio, eta ez dirudi sintagma modu horretan *-kide* aldaera agertzeko aukerarik dagoenik (*-ide* agertu beharko litzateke); *-ki* eta *-kila* aldaerak baditu sozietiboak, eta *-kien*, arkaismo moduan azaldu beharrean, bestela azal liteke, ez baita, beharbada, kasualitatea gen. pl. *hekien* eta halakoak dituzten hizkeretan aurkitzea; azkenik, errazagoa litzateke, gainera, aditzondoetako *-ki* atzizkiarekin lotzea, Schuchardtek berak nahi duen bezala. Bestalde, hona zer dioten Heinek eta Kutevak: “The data supporting this pathway are not entirely satisfactory” (2002: 91-92). Beste aukera bat izan liteke *-ki* atzizkia izatea hor, *-n* inesiboarekin.” (2015: 469, oin-oharrean). Manterolaren iruzkina interes bizikoa iruditzen zaigu. Komitatiboaren sorrera **(a)ren kide(n)* izan ez balitz, *-ki* atzizkia du seinalatzen; hein batean, lotura hori aspaldidanik egina zen, alderantzizko norabidean egina ere: “Les prétendus adverbes en *ki* ne doivent pas être tenus pour des mots indéclinables, s'ils sont déjà déclinés; or est-il difficile d'apercevoir que la terminaison *ki* n'est autre chose que le cas unitif dont nous avons parlé?” (Darrigol 1830: 87). Gavelek ere ber ideia zuen: “[Les diverses formes de la désinence de l'unitif] comportent ensuite un élément *ki* que l'on peut très vraisemblablement identifier avec le suffixe *ki* utilisé pour former des adverbes à l'aide des adjectifs” (1929: 25).

¹⁷¹ “La forme la plus primitive de la désinence caractéristique de l'unitif serait donc *-eki*, mais on a pris l'habitude de lui ajouter souvent un suffixe exprimant une idée de *locatif*” (Gavel 1929: 26). Berrikiago, Trasken *-ki* berrikuntza zatekeela proposatu zuen, *-ekiko* bezalako sekuentziek eragin analogiaz sortua; aldiz, Mitxelenak eta Gómezek kontrakoa uste dute (Gómez 2005: 275).

¹⁷² Azken urteetako pastoral batean *X Y-rekin* ‘X eta Y’ sintaxiaren etsenplu hau aurkitzen ahal da: *Gero apezküpüa elizgizonekin* “puis l'évêque et les clercs” (Bedaxagar, *Alienor* 16. jalkaldiko antzez-ohar batean).

Koordinamolde zaharraren galerarekiko kontrastean, azken mendeetan komitatiboaren marka bestelako balioak hartuz joan da, partikularzki instrumentalaren bidez adierazten zirenak: “In western dialects, the instrumental has been lost in productive usage and the comitative is used in its place to express instrument or means” (Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 186); beraz, erran daiteke kasu honek nolabaiteko hedakuntza semantikoa garatu duela. Halere, atal honetan ez dugu azterketa semantiko exhaustiborik enterprenituko, arreta alderdi morfologikoetan pausatuko baitugu. Funtsez, Zuberoako corpusean zertan den bukaerako sudurkariaren agerpena (§ 1.6.2.1), eta testuek noiz ematen duten *-(r)ekila(n)* atzizkia, haren balioak ikerturik (§ 1.6.2.2); azkenik *-(r)eki(la)(n)ko* sekuentzia iruzkinduko dugu (§ 1.6.2.3).

1.6.2. Komitatiboaren polimorfismoa Zuberoan

1.6.2.1. *-(r)eki(la)* vs. *-(r)eki(la)n*

Les désinences déclinatives varient dans chaque dialecte ; elles expriment avec précision les nuances les plus fugitives de la pensée : *ganat* ‘vers, jusqu’à’ désigne le mouvement et la tendance ; *gana* détermine la proximité. Les désinences *tara* et *tarat*, *ki* et *kin*, présentent les mêmes différences de signification. (Chaho 1836: 36)

Zorigaitzez, Chahok ez zuen komitatiboaren atzizkiez gehiago zehaztu; halere, ez dirudi deus konkreturik deskriba zezakeenik,¹⁷³ jakin badakigulako *-ki* & *-kin* pareak banaketa diatopiko hutsari obeditzen diola: oro har, *-n* gabeko forma ekialdeko mintzoetakoa da —

Erran behar da Bedaxagarrek berak egin duela frantsesezko itzulpena; bistan da, guztiz posible zukeen *puis l'évêque avec les clercs* ematea, baina koordinaziozko zentzuaz itzuli du perpausa, zerbait adieraziko lukeena, gure gustuko.

¹⁷³ Idazle bezala, Chahok berak ez zituen *-n*-dunak eta gabeak diferenteki baliatzen. *Ariel*-eko haren idazkien arteko batzuk ez dira zubereraz eginak, *nafar-lapurterarat* gehiago ala gutxiago hurbiltzen diren barietateetan baizik, edo amiküzeraz. Horrela, “Espainako berriak” izenburu duenean (*AztBeg* IV & VI), honako *-n*-dun komitatiboak ageri dira: *emaztiarekin*, *alabarekin*, *eskuekin*. Donapaleuko populian eta republicain aldeko pharthez laborarier, ofizialer, langiler eta Braseruer” (*AztBeg* VIII): *horiekin*, *maskerekin*; “Nekazale baten kontseilua Lapurtar laborarier, ofizialer eta langileer” (*AztBeg* IX): *legekin*, *egitearekin*, *gelditzearekin*, *harekin*, *batzuekin* & *argituekhin*. “Jaunak!” (*AztBeg* XI) [lehen adizkia *dautazien* da]: *seindimendiekin*. Berez, zubereraz idatziak direnen artean, hauek aurkitu ditut: *aphaltziarekin* (XVI), *hainatziarekin* (XVI) & *familiarekin* (XVI). Halere, Chahok *-eki* erabiltzen du maizenik.

hego-nafarrera, behe nafarrera,¹⁷⁴ zuberera gehi Pirinioetako mintzoak—. Beraz, Zuberoako tradizioan printzipioz *-n* gabeko aukerak igurika genitzake;¹⁷⁵ halere, bada *-n*-dun alomorfoaren agerraldirik. Oihenart¹⁷⁶ edo Tartasen —bai eta Maisterren *hekin* (IV 18, 3) guztizko salbuespenaren— abstrakzio eginez, XIX. mendean hasiko da, han eta hemen, *-(r)ekin* agertzen: *Meditacioniac* liburuan (1844), baina bereziki Archuren itzulpenean (1848), *Maiatza, Mariaren hilabetia* (1852) edo *Heren-Ordreco escu libria* (1860) liburuetan; datu zehatzetarako, ikus 15. TAULA.

Uscara libriak hasitako “sagan” izenburuetan sumatzen ahal dugu aldaketa: lehen ediziotik *bicitceco erreglamentu bateki* errepikatzen bada (salbu 1838koan), 1845ekoan *concentciaren examen batekin* ageriko da, eta 1856koan *jaun aphezakupiaren baimentoarekin*. Gogoratu behar da liburu honen lehen edizioa XVIII. mendearen azken laurdenekoa dela, eta azkena 1856koa (Padilla-Moyano 2015a). Beraz, testu honen transmisioa Oloroeko diozesaren sehaskatik Baionako elizbarruti berrantolatura iragan zen. Bestalde, *-(are)kilan* moldearen agerpena diferentea da: Maisterrek eta *Charlemagnek* eiki lekukotzen dute: 13 eta 26 agerraldi, hurrenez hurren.

Oro har, *-n* aiseago ageri da *-kilan* morfemari lotua *-kin* aukerari baino. Alde horretatik, Maisterren testigantza aipatzekoa da zeren, beti *-ki* emanik (434 aldiz), atzizki luzatua erabiltzekoan *-n*-duna nahiago du (13 aldiz, vs. 2 *-kila*). Zuberoan *-n*-dun aukerak ezagunak izan arren, uste dugu kanpoko eraginei lotuak direla. Hainbatetan ikusi den bezala, Oihenartek edo Tartasek joera nabarmena dute Zuberoatik kanpoko hizkuntza ezaugarrien agerrarazteko, eta kasu honetan ere horrela ajitu dukete. XIX. mendeko lekukotasunak direnaz bezainbatean,

¹⁷⁴ Caminoren hitzetan, “Soziatiboko *-ki* nahiz *-kila* atzizkiak aspalditik ageri dira Nafarroa Beherean: XVI-XIX. mendeetako idazkietan ditugu. Atzizkioi atxiki *-n* morfema ez da ezezaguna Nafarroa Beherean: idazlea antzinakoagoa den heinean, inesiboko morfemaz agertzeko aukera handitzen da eta geografian ekialdera jotzen dugun heinean ere, ez agertzeko aukera handiagoa da” (2008: 146).

¹⁷⁵ Komitatiboaren atzizkien bilakaera batentzat ikus Iglesias 2005. Haren ikertzean zubererazko corpora gurea baino mugatuagoa da, lekukotasun bakoitzaren izaeraren gaineko kontsideraziorik egin gabe. Hortaz, nork eta Oihenartek edo Tartasek zenbaitetan *-kin* ematetik ezin da, besterik gabe, zubererarentzako ondorioz atera. Izatekotan, XIX. mendean *-n*-dun komitatiboak sartuko ziratekeen zenbait egile zuberotarren testuetan.

¹⁷⁶ Atsotitzetan, Oihenartek honakoak ematen ditu: *guziekin* 543, *gutirekin* 543, *ihabaliarekin* 629 & *hilarekin* 637; komitatiboaren gainerako agerraldietan *-eki* (29 aldiz). Atzizki luzatuari dagokionez, atsotitzetan bada *etsaiekila* 89, *azkarragoarekila* 645 & *urthearekila* 677, baina behin ere ez *-kilan*. Neurtitzetan ere *-n*-dun alomorfoa gutxiengoan da: *zurekin* XVI 9, XXV 1 & XXV 4, *hanbatekin* XX 5, *hauekin* XX 5, *pikoekin* XXVI 25 & 26 (*-n* gabea 26 aldiz ematen du) eta, errefracuetan bezala, ez da *-kilan*-ik, baina bai *-kila*: *zurekila* IV 7, *batekila* XII 1, *handirekila* XX 20 & *begiekila* XXI 1.

guk proposatu dugun bezala (Padilla-Moyano 2015a), ageri diren *-(e)kin* nolabait Oloroeko diozesaren desegitearen ondorioz Baionara so dauden zenbait egileren lanetan ageri dira.

Azkenean, komeni da herri antzertiaren tradizioko testuetan gertatzen dena aztertzea. 15. TAULAK erakusten duenez, trajeria eta asto lasterretan *-n-dun* komitatiboen lekukotza praktikan *-kilan* atzizki luzatuari estekatua da: bestela erranik, bada *-kilan*, baina ez *-kin*. *Chiveroua eta Marcelina* fartsaren kasua arras ilustragarria da. Antzezlan honetan bada *españul* bat (izenik gabe, zuzen *Españula* deitua) eta Arnegi izeneko *manexa*. Pertsonaia hauen karakterizazio linguistikoan zuberotar ez diren hizkuntz ezaugarriak agertzen dira — *douçou* bezalako bokalismoak adibidez—, eta horien artean plazatzekoa da komitatiboaren atzizki *-n-duna*: *nirekin* 110, *zurekin* 168 & 172, *markekin* 119, *hunekin* 185 — bestenaz, *-(r)eki* 44 aldiz agertzen da—.

15. TAULA. Komitatiboaren polimorfismoa.

	-KI	-KIN	-KILA	-KILAN
<i>LVP</i> 1545	29	-	14	-
<i>O Pro</i> ca. 1600	29	4	3	-
<i>Bela</i> ca. 1600	3	-	-	-
<i>Zalgize</i> ca. 1600	7	-	-	-
<i>Etchart</i> 1616	67	-	-	-
<i>O Po</i> 1657	26	7	4	-
<i>Tt Onsa</i> 1666	38*	39	17	-
<i>Tt Arima</i> 1672	21	12	15	-
<i>PrS</i> 1676	20	-	-	-
<i>Bp</i> 1696	137	-	-	-
<i>CatOlo</i> 1706	59	-	-	-
<i>Othoitce</i> 1734	60	-	-	-
<i>IP</i> 1757	11	-	1	-
<i>Mst osoa</i> 1757	432	1	2	13
<i>Ressegue</i>	38	-	-	-
<i>Petit Jean</i> 1769	16	-	2	-
<i>StJul</i> 1770	113	-	14	-
<i>Mercy</i> 1780	32	-	1	-
<i>NLilia</i> 1782	25	-	2	-
<i>Egiat I</i> 1785	61	3	66	-
<i>Chiveroua</i>	44	5*	16	-
<i>Bala</i> 1788	-	-	1	1
<i>Jouanic</i> 1788	7	-	3	-
<i>Boubane</i>	25	-	2	-
<i>Edipa</i> 1793	106	-	10	-
<i>Xarlem</i> ca. 1800	158	-	26	7
<i>SteEli</i> ca. 1800	122	-	19	-
<i>Malqu</i> 1807	45	-	7	5
<i>DKhi</i> 1812	61	-	-	-
<i>UskLi</i> 1814	104	2	20	-
<i>CatS</i> 1836	125	2	-	-
<i>Khurutch</i> 1837	18	-	-	-
<i>Medit</i> 1844	179	1	-	-
<i>Ip KurBD</i> 1847	25	-	-	-
<i>Etchahun</i>	99	14	16	1
<i>CanBel</i> 1848	32	27	7	9
<i>Archu</i> 1848	13	5	-	1
<i>Chaho *</i>	36	15	3	3
<i>Myst</i> 1852	49	-	-	-
<i>MaiMarHil</i> 1856	94	16	1	-
<i>Ip Dial</i>	40	-	-	-
<i>HOrdre</i> 1860	67	8	1	-
<i>Urruty (dena)</i> 1873	105	-	-	-
<i>SGrat</i> 1879	24	-	-	-
<i>Catuchuma</i> 1899	43	-	-	-
Orotara	2816	161	259	40

1.6.2.2. *-kila(n)* atzizkia

1.6.2.2.1. *-kila(n)* atzizkiaren balioaz

Ekialdeko euskalkietan, *-(r)eki(n)* atzizkiarekin batean, komitatiboan ezaguna da *-(r)ekila(n)* morfema. Traskentzat atzizki hau “appears to have been extended by means of the adverbial suffix *-la*” (1997: 202), eta Santaziliak bere egiten du ikuspegi hori (2013: 270). Orpustanek (1994) “atzizki luzatu” deitzen du, ablatiboan eta motibatiboan arras bakanki ageri diren *-tila* eta *-gatila* bezala, hurrenez hurren.¹⁷⁷ Beraz, euskalarien artean *-(r)ekila(n)* morfema bigarrenkaria delako ustea zabala da, “atzizki luzatu” deiturak salatzen duenez, eta kasu horretan berrikuntza litzateke —berrikuntza zaharra, Etxepare eta Leizarraga lekuko—. Erran daiteke komitatiboaren atzizkiek ber balioa adierazten dutela.

Halere, baliteke historikoki kontuak diferente izan litezen. Gavelek euskararen komitatiboaren atzizkien garapenaren ikuspegi orokor bat eskaintzen du, zeinaren arabera:

- i) *-eki* baita komitatiboaren atzizkirik zaharrena;
- ii) *-n* erantsi baitzaio lokatiboaren ideia adierazteko;
- iii) *-ekila* atzizkiak bi interpretabide baititu:
 1. = *-ala* adlatiboa, eta beraz *-ekila* segidak mugimenduari lotu komitatiboa adierazten zuen; edo
 2. = *-la* moduzkoa, eta beraz komitatiboaren ideia indartzen zukeen, kasik pleonastikoki;
- iv) *-ekilan* atzizkirik berriena baitateke; eta
- v) denborarekin, komitatiboaren aukerek adieraz zitzaketen ñabardurak galduz joan baitira. (1929: 26)

Gavelen iruzkin semantikoak biziki interesgarriak iruditzen zaizkigu, egun aldakortasun librean diren alomorfoak behiala morfema bereiziak zirelako hipotesia funtsatzen baitute.¹⁷⁸

¹⁷⁷ *-tila* morfema luzatuaren iruzkin batentzat, ikus § 2.2.3.3.

¹⁷⁸ “La forme la plus primitive de la désinence caractéristique de l'unitif serait donc *-eki*, mais on a pris l'habitude de lui ajouter souvent un suffixe exprimant une idée de *locatif*; cela est fort naturel, puisque, la plupart du temps, l'idée d'union précise, jusqu'à un certain point, un lieu : quand je dis : « Mon frère était avec moi », je donne par la même une indication sur l'endroit où se trouvait « mon frère ». Il est à présumer qu'au début on employait la forme *-ekin* uniquement lorsque l'idée d'union s'accompagnait d'une idée de locatif sans mouvement, puisque [...] le suffixe *-n* est la caractéristique de cette sorte de locatif. Quant à la forme *-ekila*, si son élément final *-la* est à identifier avec le suffixe *-la* = *-ra* qui sert à exprimer le mouvement vers un lieu, la forme *-ekila* aura été employée d'abord lorsqu'il y avait mouvement, par exemple dans les phrases telles que « venez avec moi ». Si, au contraire, ce même élément est à identifier avec le suffixe *-la* qui sert à exprimer une idée de manière, son addition à la désinence *-eki* ne nous surprendra pas trop non plus, puisque, après tout, indiquer avec qui ou avec quoi se trouve une chose ou une personne, c'est préciser sa manière d'être. Quoi qu'il en soit, il a dû arriver un moment où les trois formes *-eki*, *-ekin* et *-ekila* se sont employées à peu près indifféremment, et où même une

Lacombek bere denborako garaztar baten testigantza interesgarria jaso zuen, *-ki(n)* & *-kila(n)* parearen arteko kontrasteaz:

Au témoignage d'une dame qui fut la plus assidue des auditrices de M. Lacombe pendant les six années qu'il fit un cours libre de langue et littérature basques à la Sorbonne, *-kin* et *-kilan* ne sont pas synonymes en cizain : *egoin nuzu zu(r)ekilan*, par exemple, s'opposerait (idée de permanence) à *zurekin jiten bada* (action transitoire, si j'ose dire). (Lafon 1936: 68)

Ondoren Lafittek Gavelen proposamena laburbildu zuen, *-(ar)ekila* atzizkiak adierazten zukeen mugimendu mota zehazturik:

La désinence de l'unitif se présente sous diverses formes qui ne sont en somme que des cas différentes de l'élément unitif *-ki* : nominatif *-ki*, inessif *-kin*, adlatif *-kila* et la forme surdéclinée *-kilan*. [...] *-kin* marque l'union réalisée : *aitarekin da* 'il est avec son père', *aitarekin doa* 'il va avec son père'. *-kila* marque un mouvement pour se joindre à quelqu'un : *aitarekila igorri dut* 'je l'ai envoyé avec son père'. *-kilan* est emphatique pour *-kin* ou *-kila*. Beaucoup de Basques ne respectent pas ces nuances. (1944 § 142)

Salbu Oyharçabalek,¹⁷⁹ ondoko euskalariak ez dute (Gavelen oinarritutako) Lafitteren erremarka bere egin; halaber, ez dirudi hiztunek, azken gizaldikoek bederen, haren ñabardurak erabili izan dituzten. Zail da Gavel-Lafitteren formulazioaren gibelean intuizioa noraino datzan neurtzea; nolana ere, proposamenak halako *mugimenduzko komitatiboa* (Gavel) edo *komitatibo-adlatiboa* (Lafitte) suposa lezake, hots, ohiko komitatiboaz gain — edo komitatibo-instrumentalaz gain—, mugimenduari edo batzearen ideari lotua litzatekeen komitatibo bereiz bat, morfema batez markatua. Komitatibo berezi hori nonbait existitzen da, ohiko komitatiboarekin batean.¹⁸⁰

quatrième forme *-ekilan* a pris naissance par addition du suffixe *-n* que nous trouvons dans *-ekin*. Seulement le souletin paraît à peu près être le seul dialecte qui ait conservé concurremment les quatre formes ; dans la plupart des autres régions, l'usage n'en a finalement retenu que deux ou trois, ou même une seule (en labourdin et en bas-navarrais la forme usuelle est *-ekin*)” (1929: 26).

¹⁷⁹ Charlemagneren edizioan, *enequila* formaren iruzkintzean, konpreni daiteke Oyharçabalek ontzat ematen duela *-(ar)ekila* morfemaren semantika zaharraren hipotesia, testuaren garaian ahuldua izan arren: “La surdéclinaison à l'adlatif sur *-ki* [...] serait induite par le verbe de mouvement (Lafitte § 142). La nuance est en voie de disparition, et *-kila(n)* n'est le plus souvent qu'une variante libre de *-ki(n)*.” (1991: 132). Bestenaz, Orpustanek ere gogoan izan du Lafitteren erremarka, baina ez du “Oihenarten hitzetan holakorik senditzen” (1994: 141).

¹⁸⁰ Munduko hizkuntza batzuek mugimenduari lotutako komitatibo berezia dute beren kasu sisteman. Halakoa da chantyal hizkuntzaren kasua —tibetar-birmaniar familiakoa, Nepalen erdian mintzatua—, komitatibo eta

1.6.2.2.2. *-kila(n)* atzizkiaren lekukotza

Aitzineko puntuan ikusi denez, Gavelek eta Lafittek ez dute *-kila* atzizkiak adieraz zezakeen mugimendua berdin definitzen: lehena oro har adlatiboaz mintzo denean, bigarrenak adlatibozko mugimendua lagundua denarengana dela zehazten du; bistan denez, Lafitteren formulazioa hertsia da. Ñabardura posible horiek gogoan, 15. TAULAK corpuseko *-(r)ekila* atzizkiaren agerraldi guztiak sailkatzen ditu, Etxepare eta Leizarraga ere azterketan sarturik.

Euskara Arkaikoan, Etxeparek eta Leizarragak *-(r)ekila* atzizkia erabiltzen dute, baina haien artean badira diferentzia markagarriak. Etxeparengan *-eki* eta *-ekila* alomorfoak liriateke, Lafonendako “sans différence de valeur, et pour les besoins du vers” (1951: 737). LVPko adibide guztiak miraturik, bat gatoz Lafonekin: Etxeparek *-(r)ekila* 14 aldiz ematen du, betiere izenordainekin,¹⁸¹ baina haietarik komitatiboa hirutan baizik ez da mugimenduari lotua ageri, (285)-eko pasartean adibidez; hori ez ezik, *-(r)eki* marka ere mugimenduari estekatua deneko kontra-etsenplurik ageri da (286). Bestalde, *Testamentu* osoan Leizarragak behin baizik ez du *-(r)ekila* atzizkia bere horretan eman, aditz estatibo batez (287), baina lau aldiz *-(r)ekilako* sekuentzia, gure ustez ñabardura semantikorik klarki atxikitzen duena (cf. § 1.6.2.3).

adlatibo/komitatibo gisara etiketatuak izan diren kasu-markak bereizten dituen. Chantyal hizkuntza ergatiboa da, guztiz atzizkizalea eta eranskaria; euskaraz gertatzen den bezala, haren bi dozena kasu-markak izen sintagma osoari gehitzen zaizkion klitikoak dira (Noonan, Bhulanja, Chhantyal & Pagliuca 1999: 3-4). Ondoko adibidetik konprenitzen denez, chantyal hizkuntzaren *-siŋ* kasu-markak adlatiboaren eta komitatiboaren balioak konbinatzen ditu:

Tʰokhər nə diŋŋa-siŋ ʰiya-ro ʰiya-ro.
orain topikoa abere-COM joan-IMPjoan-IMP

“Orain joan, joan abereekin.” (Noonan, Bhulanja, Chhantyal & Pagliuca 1999: 537).

Modu orokorrago batean, bada nolabaiteko lotura semantikoa adlatibo eta komitatiboaren artean. Horrela, Europako hizkuntza batzuetan —ingelesa eta frantsesa tartean— predikatu asko adlatibozko zein komitatibozko preposizioen bidez markatzen dira —cf. ing. *to talk, link, associate to/with*; fr. *parler, attacher, associer à/avec*—; Europatik kanpo ere polisemia hori hedatua da (Hagège 2010: 278).

¹⁸¹ Norequila minço yčan han agoen artian (I 28); Honequila albayteça bethiere conuersa (I 209); Harequila segur dugu vehar dugun gucia (II 63); Harequila bat banadi vihoça zayt harricen (V 11), Harequila egoytiaz ezpaneynde enoya (VI 8); Çurequila ecin vathuz vihocian erracen (VI 12); Minzaceco çurequila gaubat nahi niqueci (VI 15); Harequila ninçanian enuyen nic faltaric (VII 4); Secretuqui vehardit harequila minçatu (VII 11); Nic veharren nuyen gauça daramaçü çurequila (IX 16); Iamas çurequila enaynde enoya (X 8); Enequila minçaciaz gayçiq ecin duqueçu (XII 20) & Çurequila gayzqui vaniz nola vicininçande / Ene vihoz eta arima çurequila dirade (XII 33-34).

- (285) *Çurequila ecin vathuz vihocian erracen* (E VI 12)
 (286) *Iauguinenda rigorosqui saynduyequi cerutic.* (E I 330)
 (287) *Ia borthá ertsia duc, eta ene haourtchoac enequila dituc ohean: ecin iaiqui niaitec hiri emaitera.* (Lç Lk 11, 7)

Corpusean xerka, Zuberoan ere *-kila(n)* atzizkia lehen testuetarik ageri da, betiere gutxiengoan *-(r)eki* atzizkiaren eretzean —datu zehatzetarako, ikus 17. TAULA, komitatiboaren atzizkien lekukotza modu sistematikoan jasotzen duena—. Oihenarten atsotizetan *-kila* hirutan ageri da, zeinetarik bitan komitatiboak mugimendua inplikatzeko baitu, zentzu hertsian —*accompañee* delakoarengana, Lafittek hertsatu bezala— (288)-(290). Neurtitzez orobat erran daiteke, lau agerraldietarik bitan hauteman baitugu *-kila-k* adlatibozko komitatiboaren balioa duela (291)-(292), baina beste bietan errimaren arabera (293)-(294).

- (288) *Berant debila nehor konseilu bilha, eskukara jinez gero etsaiekila.* (O Pro 89)
 (289) *Min bilha dabila, gudukara dohena azkarragoarekila.* (O Pro 645)
 (290) *Urthearekila, iragan dateeno, kexa ezdadila.* (O Pro 677)
 (291) *Bat enaint'ehun / Urtez behin zurekila* (O Po IV 7)
 (292) *Aspaldian nabila / Hor, hebe, laztan bila / Et' orai, nahi-nola / batu naiz batekila.* (O Po XII 1)
 (293) *Lehia handirekila, / Haren bila [...]* (O Po XX 20)
 (294) *Zeren zur' oldez sendatu / Behar nauena, miratu / Dut neure begiekila.* (O Po XXI 1)

Tartasek komitatibo guztien bostenean *-(r)ekila* atzizkia erabiltzen du, eta mugimenduari lotutako ñabardura semantikoa nonbait suma daiteke: *Onsako* agerraldien erdian, eta *Arimakoen* herenean (ikus 16. TAULA); horren erakusgai dira (295)-(298)-ko pasarteak.

- (295) *bere semia eta bere zerbutizariak harturik berekila, ioan zela mendi haren zolala* (Tt Arima)
 (296) *Zeren uste duzu Abraham patriarka saindiak bere jendia kitatu ziala mendi haren zolan eta berbera bere semiarekila ioan mendi haren tinira bere kolpiaren egitera?* (Tt Arima)
 (297) *Iinkoari ohoroskatzen eta harekila unitzen baita arima debota* (Tt Arima)
 (298) *hirurak elgarrekila iunto direnian* (Tt Arima)
 (299) *Hirur prinzesa hoiek ere elgarrekila direnian, inprenable dira eta inbinzible.* (Tt Arima)

XVIII. mendean Maisterren lekukotza nabarmentzekoa da: *-(r)ekila(n)* atzizkia 15 aldiz ematen du, zeinetarik 12tan mugimendurekin konbinatua baita, eta hauen arteko 9tan mugimendu horrek Lafitteren hertsapenak beteko lituzke, hau da, higidura edo kanbiamendu bat inplikatzeko du *accompañee* delakoarengana. (300) eta (301)-eko pasarteetan komitatiboaren bi morfemak kontrastean ageri dira. Kasu gehienetan mugimenduzko zentzua

ez da egiazki espazioari lotua, metaforikoa baizik, kontzeptu abstraktuekin gertatzen den bezala.¹⁸² Gehiago dena, *-(r)ekila(n)* morfemak mugimendurik gabeko erlazioa adierazten dueneko hiru kasuetan halako kontzeptu abstraktuei dagozkie (307)-(309), eta besteekiko muga lausoa da —oro har, mugimenduzko zentzua den ala ez ebazteko aditzari begiratu diogu—.

- (300) *Juntaturen dutucie, ene anaye maitiac, cien oracioniac gourenekila eta erranen dugu alkhareki.* (IP 11)
- (301) *Eci hec eguiareki eçagutcen die bere Jauna, oguiaren haustian, ceren hen bihotça su ecinago handi bateç bethatcen beita, Jesus hekilan ebilten denian.* (Mst IV 14, 2)
- (302) *Gogoiia emaçu hekilan esteca etcitian.* (Mst II 1, 4)
- (303) *Gaiça aphurra duçu, çuc soferitcen duçuna, parrian eçarten balin baduçu, hagnbeste soferitu dienekilan.* (Mst III 19, 1)
- (304) *Praube eta merechi gabe bat har deçaçun çoure cerbutcharitaco, junta deçaçun çoure maitekilan.* (Mst III 10, 2)
- (305) *Ene semia, ene gracia preciatu duçu, ecin ounhesten diçu, campotico gaicekilan, eta lurreco consolacionekilan, nahastecatu içatia.* (Mst III 53, 1)
- (306) *Badouatçu gaiçac oro, eta çu hekilan.* (Mst II 1, 4)
- (307) *Bestekila nahi baduçu bakia, eta junto içatia.* (Mst I 17, 1)
- (308) *Bestekilan ere bakeç bicitcen beitira.* (Mst II 3, 3)
- (309) *Bat bederac gogo hounec bakia eta amourioua etchekiten du, bere sendimentuco diren gentekilan.* (Mst II 3, 2)

Maisterren ondoren, *-(r)kila* morfema lekukotzen duten testu gehienetan haren ñabardura semantikoa gero eta gutxiago hautematen da; ñabardura semantikoa ez ezik, atzizkiaren beraren agerpena gero eta ezohikoago bihurtzen da (ikus 15. TAULA), XVIII. eta XIX. mendeen artean diren lau testu salbuespen izanik. Batetik, Eguiateguyk orekan ematen ditu *-(r)eki* & *-(r)ekila* (64 eta 66 agerraldi, hurrenez hurren), baina badirudi harengan bi morfemak bariazio librean direla. Aldiz, garai horretako hiru trajeriatan *-(r)ekila* morfemak bere semantika zaharra aiseago atxikitzen du: *Edipan*, *Charlemagnen* gehiago, eta hein tipiagoan *Sainte Julien* eta *Sainte Elisabeth de Portugalen* (310)-(320) —gogo eman dezagun antzertian mugimenduzko aditzek eta kasu-markek testu erlijiosoetan baino usuago islatzen dituztela erlazio espazialak (cf. 182. oin-oharra)—.

- (310) *Enekila gitia / proposatu nahy neiçun, / eta Antiochaco hiriala / jouan nahy nunduçun.* (StJul 290)

¹⁸² “Most of the ancient Basque texts are religious texts, and consequently cannot be expected to provide abundant illustration of the expression of genuine spatial relationships, but rather of the metaphorical use of spatial cases” (Creissels & Mounole 2011: 173).

- (311) *Othoy, arren, ene semia, / sinhexy behar naiçu, / eta enekila etcherat / behar duçu erretiratu. (StJul 1014)*
- (312) *Erran eçadac noula den / bertan hire icena / Nahy bahiz ebily oray hebe / enekila lasterka. (Edipa 061)*
- (313) *Bagouatça bortun gaigna / bi arçaignaq algarequila (Edipa 110)*
- (314) *Jocasta hiliq eta / ecin ereman enekila. (Edipa 760)*
- (315) *Ene guerla gentia / formatan dit Eçariren / humolt eta rolan / Enequila dutuçu ginen (Xarlem 27)*
- (316) *Retira Çite Renaud / Ene seme maitia / Çu ere bai oger / biaz algarrequila (Xarlem 399)*
- (317) *Gente eraiqui eçaçu / Eta bertan adela / Eçar bertan canpagnan / Çoure gentequilan (Xarlem 1118)*
- (318) *Gaur enekila çuc / etçan behar duçu. (SteEli 303)*
- (319) *Aigu hox enekila / batere dudatu gabe. (SteEli 448)*
- (320) *Eta çoure cherkhara / guitiçu gu igorten, / eta gourekila gitez / çutu, madama, othoitcen. (SteEli 834)*

*Sainte Elisabethen izan & *edun* parean aditz nagusi gisara ageri da *-(r)ekila* morfemarekin batean (321) & (322). Gure ustean, pasarte horietan *izan & *edun* mugimenduzko balioaz hornituak dira —cf. *adlatibo berbalizatua* (Mujika 2008)— baina, ohi ez bezala, mugimenduzko adiera konferitzen diena ez da *adlatiboaren* morfema, komitatiboarena baizik.

- (321) *Bena guerla dela causa / erregue badate beharretan; / goure contre dukeçu ezpaguira / harekila gu bertan. (SteEli 1257)*
- (322) *Dugun aldiz bethi / bihotça Gincouarekila. (SteEli 1098)*

Errana dugu, *-(r)ekila* morfemaren maiztasuna behehituz doa, maiz haren balio zaharra izan daitekeena ere galduz. Hortaz, XIX. mendean semantika zaharraren aurkako adibideak nagusi dira, *Uscara Libria* lekuko (323)-(325). Guztiarekin, herri tradiziotik hurbilago diren testuetan *-(r)ekila(n)* atzizkiak aiseago gordetzen dituzke bere balio zaharraren aztarnak (326)-(328).

- (323) *Ardura errayten duçu Jauna dela cieki... Arrapostu emayten deroçu: Bay eta çoure ezpiritarekila ere. (UskLi 24-25)*
- (324) *Sacrificio Saintu hori apphezarekila Gincouari offritcen duzula. (UskLi 26)*
- (325) *Eguiazco dolumen batekila ppharcamentu galtha eçoçu. (UskLi 68)*
- (326) *Aigü, jaik adi, / behar diük jin enekila. (CanBel 260)*
- (327) *Bulgifer oraico aldian / garhaitu diagu satan / bena gure soldataq / eraman tiq berequilan. (CanBel 522) [errima]*
- (328) *Zirekila lotzia eztiziüt galthatzen. (Etch “Mendiko herrian” IV 3)*


16. TAULA. -(r)ekila atzizkiaren semantika.

	mugimendua lagunduarengana	mugimendua lagunduarekin	mugimendua, orotara	mugimendurik ez
<i>LVP</i> 1545	2	1	3	11
<i>Lç Test</i> 1571	5*	-	-	1
<i>O Pro</i> ca.1600	2	-	2	1
<i>O Po</i> 1657	2	-	2	2
<i>Tt Onsa</i> 1666	5	3	8	9
<i>Tt Arima</i> 1672	2	2	4	11
<i>PrS</i> 1676	-	-	-	-
<i>Bp</i> 1696	-	-	-	-
<i>CatOlo</i> 1706	-	-	-	-
<i>Othoitce</i> 1734	-	-	-	-
<i>Mst</i> 1757	9	3	12	3
<i>IP</i> 1757	1	-	1	-
<i>Ressegue</i> 1758	-	-	-	-
<i>Petit Jean</i> 1769	-	2	2	-
<i>StJul</i> 1770	2	2	4	10
<i>Mercy</i> 1780	1	-	-	-
<i>NLilia</i> 1782	-	-	-	2
<i>Egiat I</i> 1785				
<i>Bala</i> 1788	-	-	-	2
<i>Jouanic</i> 1788	-	1	1	2
<i>Boubane</i>	-	-	-	2
<i>Chiveroua</i>	-	6	6	10
<i>Edipa</i> 1793	1	5	6	5
<i>Xarlem</i> ca.1800	5	17	22	11
<i>SteEli</i> ca.1810	5	3	8	11
<i>Malqu</i> 1808	-	1	1	11
<i>Dkhi</i> 1812	-	-	-	-
<i>UskLi</i> 1814	2	3	5	17
<i>CatS</i> ca. 1836	-	-	-	-
<i>Khurutch</i> 1838	-	-	-	-
<i>Medit</i> 1844	-	-	-	-
<i>KurBD</i> 1847	-	-	-	-
<i>CanBel</i> 1848	2	3	5	11
<i>Etchahun</i>	4	1	5	12
<i>Chaho</i>	1	2	3	3
<i>Archu</i> 1848	-	-	-	1
<i>MaiMarHil</i> 1852	1	-	1	-
<i>Myst</i> 1856	-	-	-	-
<i>Ip Dial</i> 1857	-	-	-	-
<i>Hordre</i> 1860	1	-	1	-
<i>Urruty</i> 1873	-	-	-	-
<i>SGrat</i> 1879	-	-	-	-
<i>Catuchuma</i> 1899	-	-	-	-

* -(r)ekila(n)ko sekuentzia

16. TAULAK *-(r)ekila(n)* morfemaren agerpena sistematikoki biltzen du, haren balioa sailkatuz: batetik komitatiboa mugimenduari lotua denean (Lafitteren eta Gavelen formulazioak bereizita), eta bestetik mugimendurik gabeko semantika.

Orain arte ikusi denez, Zuberoako testuek *-(r)kila(n)* morfemaren ñabardura semantiko zaharraren aztarna garbiak lekukotzen dituzte, hein handiagoan ala tipiagoan. Oro har, azken mendeetan gaindi *-(r)ekila(n)* atzizkiaren balioa lausotuz joan da, gero eta gehiago *-(r)eki(n)* komitatibo —edo komitatibo-instrumental— hutsaren alomorfo bilakaturik. Onartzen bada komitatiboaren kronologian *-(r)eki* forma zaharrena dela, eta *-(r)ekin* hari inesiboaren *-n* eranstearen emaitza, orduan nekez idoki liteke *-(r)ekila* morfema *-(r)ekin* baino berriago izatea. Beraz, Gavelen eta Lafitteren iruzkinak gogoan (§ 1.6.2.2.1), *-(r)ekila* morfema zaharra postula genezake, printzipioz *-(r)ekin* bezain zaharra —edo berria—. Aldiz, *-(r)ekilan* aldaera komitatiboaren aukerarik berriena litzateke.



Hastapenean *-(r)ekila* morfema horrek balio berezia zukeen: *-ki* komitatiboa eta *-la* adlatibozkoa baturik, halako “komitatibo-adlatiboa” zatekeen, lagundua (*accompañee*) jomuga zuen adlatiboa, *-(r)ekin* inesibozko kutsua zukeen bezala —hots, Lafittek formulatu zuen balioa—. Denboraren iragaitearekin, *norbaitekila joan* (\approx *norbaitegana joan*) \rightarrow *norbaitekila joan* (= *norbaiten konpainian joan*) aldaketa gertatuko zen; beraz, bigarren fase batean *-(r)ekila* morfema oro har komitatiboa gehi mugimendua adieraztera iragan zatekeen —hots, Gavelen formulazioa—. Ondoren, *-(r)ekila* morfema mugimendurik gabeko testuinguruetara ere hedatuko zen, azkenean *-(r)eki(n)* atzizkiarekiko bariazio librea gertatzeraino eta, beraz, alomorfo huts bihurtzeraino. 17. TAULAK *-kila(n)* komitatiboaren bi aukera nagusien arteko kontrastearen bilakaeraren gaineko hipotesia irudikatzen du, manera sintetikoan.

17. TAULA. Komitatiboaren bi atzizkien balioen bilakaera.

	I. fasea	II. fasea	III. fasea
<i>-(r)eki</i>	komitatibo	komitatibo-instrumental	komitatibo-instrumental
<i>-(r)ekila</i>	komitatibo-adlatibo	komitatibo + mugimendu	

-(r)ekila morfemaren jatorrizko semantikaren galera horretan, Zuberoako testu batzuk egoera zaharrago baten isla dirateke, hots, gutxienez *-(r)ekila*-k komitatiboa mugimenduari lotua adierazten zueneko garaiarenak. Morfema batek beste baten baliora asimilatzen denean, funtsean bi emaitza dira posible: a) bariazio librean erabilia izatea —alomorfo bihurtzea—, eta b) desagertzea, ez baita gehiago haren beharrik; hauei hirugarren posibilitate bat emenda dakieke: bi morfemak forma berri batean konbinatzea.¹⁸³ Puntu honetan, nabarmendu behar da Zuberoako testuetan *-(k)ila(n)* atzizkiaren lekukotza irregularra dela (ikus 15. TAULA): zenbait testu luzetarik guztiz absent da, eta present denetan semantikoki berezi izan daiteke ala *-(r)eki* atzizkiarekiko bariazio librean (16. TAULA). Azkenik, ondoko puntuan erakutsiko denez, *-(r)ekila(n)ko* sekuentziak *-(r)ekila* morfemaren jatorrizko balioaren aldeko argudio sendorik ematen du (§ 1.6.2.3).

1.6.2.3. *-(r)ekiko & -(r)ekila(n)ko* sekuentziak

Genitibo zaharraren morfemaren gainean eraikia den komitatiboaren atzizkiak bestelako eransketarik onartzen du, zehazki *-ko* erlazio atzizkiarena. Hortaz, egungo euskara batuan erabiltzen den *-(r)ekiko* segida testuetan lekukotzen dugu, komitatiboak erakusten duen polimorfismoaren araberako aldakortasunaz: Zuberoan *-(r)ekiko*, *-(r)ekinko*, *-(r)ekilako* eta *-(r)ekilanko* aldaerak kausitu ditugu. Guk dakigula, Leizarraga da *-(r)ekila(n)ko* sekuentziaren lekukorik zaharrena (329)-(333).

- (329) *Zure anhitz berthuterekilako autoritate handian esporzu harturik* (Test, eskaintza gut.)
- (330) *Baldin horlaco bada guizonaren emaztearequilaco beharquia, eztuc on ezconcea.* (Mt 19, 10)
- (331) *Erran nahi dut, çuen eta ene elkarrequilaco fedearaz consola nadinçát.* (Rom I 12)
- (332) *Iesus Christ gure Iaunaren bere saindu guciequilaco aduenimenduco.* (1 Thes 3, 13)
- (333) *Estebenequilaco disputá* (Test “Erideiteko taula”)

Zuberoan *-(r)eki(la)(n)ko* segidaren agerpena ohikoa izan ez arren, segurki lekukotua da (334)-(345). Eransketa honen etsenplu gehientsuenak *-la*-dun aldaerarekikoak izatea nabarmentzekoa iruditzen zaigu. Archuk *vademecum* hitzaren euskal ordaina proposatzen du: *habil-enekinko* (341), euskararen syntaxian ere perpausa izen bilakaturik.

¹⁸³ Bi morfemen balioen neutraltzearen ondorioa da mintzo batzuetan komitatiboan soilik *-kila(n)* izatea. Lafoni idatzi gutun batean, Lacombe dio amiküzeraz *-kila(n)* baizik ez zela erabiltzen, bederen Donapaleun —“du moins en était-il ainsi dans le basque parlé par ma mère”— (Lafon 1936: 68).

- (334) *Thempora llaburretan barnen çourekilancouac eguin dikeçu.* (Mst I 23, 1)
 (335) *Jesusekilaco adichkidegoua nabassiaç.* (Mst II 8, izenburu)
 (336) *Bena behar ere baduçu / moian ezcapatceko, / haiekilako langereticq / livre içateco.* (StJul 288)
 (337) *Jesus-Christekilaco entretenimentia edo conversationia Meça saintuco themporan.* (UskLi 32)
 (338) *Gasturekiko hankortarzunak, oinezko egiten ditu zaldunak.* (O Pro 518)
 (339) *Zer othe ùkhenen nin pattako hekiko.* (Etch 320)
 (340) *Familiarekilanko nahaspuletan baratuko niz.* (Chaho AztBeg XVI)
 (341) *Uskal-herriko haurrek beharlukete, hola da ja ene ustea, habil-enekinkobat gramatikabat.* (Archu, “Aitzin-beghi”)
 (342) *Etzirade hün / alkharrekilanko beizi.* (CanBel 401)
 (343) *Harekilako segretik behar tün bai ützi* (Etch 412)¹⁸⁴
 (344) *Hartacoz, içan cite, othoi, çu, ene Jesusenkilaco unioniaren oropiloa.* (MaiMarHil 79)
 (345) *Emaztekilako da / ene ofiziua, / emaztek emaztetara / dizie bere biziua.* (Saturna 5)

Semantikaren aldetik, *-(r)eki(la)(n)ko* honek usuen *-(aren)gana(t)ko* segidaren bidez adierazten den balio bera du, sentimendu eta halako kontzeptu abstraktuen eremuaren barnean. Puntu honetan, *-(r)ekila(n)ko* sekuentziak *-(r)ekila* morfemaren balio zaharraren alde egiten du: batetik, haren semantika adlatibozko balio abstraktuari legokioke;¹⁸⁵ bestetik, *-(r)ekila* morfemaren balio zaharraren aztarnak luzazkien gorde dituen eremuan *-(r)eki(n)ko* anitzez ere gutxiago ageri da.

1.6.3. Ondorioak

Zuberoan komitatiboak nolabaiteko aldakortasun morfologikoa erakusten du. Lehenik, haren morfemek *-n* agerraraz dezakete, baina ekialde hertsiko mintzoetan, eta beraz Zuberoan, komitatiboaren aukera tipikoki *-n* gabea izaten da: 2816 *-(r)eki* vs. 161 *-(e)kin*. Bukaera sudurkaria aiseago ageri da *-(r)ekila(n)* morfeman *-(r)eki(n)* aukeran baino —zazpietarik bat, vs. hamazazpietarik bat, hurrenez hurren—. Semantikoki, nahiz eta *-(r)ekin* atzizkiak jatorriz *-n* inesiboa erakusten duen, komitatiboaren *-n*-dun eta gabeko aukeren artean ez da

¹⁸⁴ Lhanderen bertsoia; “Bi ahizpak” bertsoan Haritschelharrek Larrasqueten bertsoia hautatzen du testuaren ezarpenerako, bestelako sintaxia ematen duena: *Segretik behar düttün bai ützi hareki* (Etch 412).

¹⁸⁵ Erlazio espazial abstraktuen adierazpenean *-(r)ekilako* & *-(ren)ganako* sekuentziak balia daitezke. Bigarrenak berez adlatibozko atzizkiaren gainean eratua da, salbuespenik gabe: *harenganako fidantza*, posible da, baina ez ***harengango fidantza*. Hortaz, ekialdean *-(r)ekila(n)ko* anitzez gehiago agertzea *-(r)eki(n)ko* adierazgarria da oso: komitatiboan *-la* elementua duen morfema minoritarioa izanik, sekuentzia honetan proportzioa ifrentzukatzen da *-la* elementua duenaren alde: hamar *-(r)ekila(n)ko* vs. bi *-(r)eki(n)ko*. Gure ustez datua ez da halabeharrezkoa: *-kilako* berez adlatibozko erlazio abstraktu bati lotua da, *-ganako* den hein berean. Gure corpusean *-gana(t)ko* eransketa hemeretzi aldiz ageri da —destinatiboaren azterketarako, ikus § 2.4.4—.

batere diferentziarik, Zuberoan ala kanpoan. Zuberoan errotuen ikusi dugun aukera *-(r)eki* morfemarena da, bukaerako sudurkaria gabe; onesten dugun ikusmoldean, hauxe litzateke komitatiboaren morfemaren itxurarik zaharrena (Gómez 2005: 275). Errotuago ez ezik, erran daiteke Zuberoan *-(r)eki* dela komitatiboaren aukera *naturala*, *-(r)ekin* aukera nagusiki kanpoko eragipena salatzen duten testuetan lekukotu baita: Oihenart, Tartas eta, arras era minoritarioan bada ere, XIX. mendeko zenbait testutan ere. Gehiago dena, herri antzertiko lan batean *-(r)ekin* aldaera Zuberoatik kanpoko euskaldunen hizkuntza karakterizazioan baliatu izan da.

Bigarrenik *-(r)eki(n)* & *-(r)ekila(n)* pareak genuke, azkenak *-la* morfoaren bidez eratua. Bi aukera nagusi hauek ber balioa dutela erran izan bada ere, Zuberoako testuetan lehenbizi Gavelek eta gero Lafittek deskribatu zituzten ñabardura semantikoen aztarnak atzeman ditugu. Zehazkiago, *-(r)ekila(n)* morfemak komitatiboa eta mugimendua batzen dituzke, zenbaitetan adierarik hertsienean —batzearen ideiak berez dakarren mugimendua, *accompañee* delakoarengana—, eta besteetan adiera zabalagoan —*accompañee* delakoarekin batean gauzatzen den mugimendua—. Gure ikuspegian, bigarren ñabardura horren erabilpenak jatorrizko balio hertsia goaren iluntze, lausotze eta azkenean galtzea ekarriko zukeen, denboraren iragaiteaz *-ki(n)* & *-kila(n)* parearen arteko kontrastea neutralduz. Diakronikoki, ez dugu aldaketarik deskribatu *-(r)eki(n)* & *-(r)ekila(n)* parearen arteko banaketan: lehen testuetarik biak ageri dira, betiere *-(r)eki(n)* aukeraren nagusigoa garbia izanik. Garai historikoan zehar, *-(r)eki(n)* morfemaren aldeko proportzioa 10 eta 1ekoa da *-(r)ekila(n)* morfemaren eretzean (2977 vs. 299).

Azkenik, komitatiboaren morfemaren gainean eraikia den *-(r)eki(la)(n)ko* sekuentziaren agerpena aztertutik, ondoriozta daiteke haren semantika *-(ren)gana(t)ko* adlatibozko egiturarenaren parekoa dela. Ekialdean *-(r)ekila(n)ko* anitzez maizago ageri da *-(r)eki(n)ko* baino, gure ustez *-(r)ekila* morfemaren balio zaharraren hipotesiaren aldeko argudio sendoa dena.

1.7. Genitiboa eta hari lotutako kasu-markak: ondorioak

Euskara historikoak, batez ere ekialdean, lehenagoko kasu sistema sinpleago baten aztarnak atxiki ditu. Egungoa bezala, lehenagoko kasu sistema hura hiru hankatako gisara irudika daiteke: lehen hanka kasu gramatikal deitzen dituguneg egiten zuten (ABS, DAT, ERG), bigarrena genitiboak, eta hirugarrena kasu lokatiboek. Beraz, sistemaren hanka bat genitibo zaharraren gainean eraikia litzateke. Bere garai prehistorikoan, ez oso urrun (Erdi Aroan),

euskarak bazuen genitibo marka bat aski polisemikoa, exhaustibo izan gabe edulea, esperimantatzailea, onuraduna/kaltetuna, kausa, motiboa, iraupena, “prolazioa” eta are hartzailea adieraz zitzakeena.

Postposizio zenbaiten gramatikalizazioaren ondorioz, Erdi Aroan kasu-marka berri multzo bat azaleratu zen. Menturaz, lehen komitatiboarena izan zen, eta bigarrena motibatiboarena — Mitxelenaren ustez, erromantzeari egindako kalkoan—. Azken markak *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* izan ziren, prolatibotik abiatuak, eta genitibo-benefaktiboak adierazten zituen balioetara hedatu zirenak. Haren gainean eratutako kasu-marken sorreraren ondorioz, genitiboaren morfema balio zehatzago batera lerratuz joan zen, hots, egun erabiltzen duguna —funtsean edutezkoa—, marka berriak espezializatu izateko sortu baitziren.

Kapitulu honetan zehar aski erakutsi denez, euskararen genitiboak ez zuen bere balio zaharren adierazteko ahala egun batetik bestera galdu, mintzoan mintzo, kasuan kasu, luzaz atxikiko zuela baizik. Semantikaren *kategoria radialaren* ideari lotuz, genitiboaren marka soila lehenago gelditu zatekeen prolatiboaren adieraztetik, balio zentralari hurbilenak zitzaizkion adieren baino. Zentzu horretan, kasu berrien artean aipagarriena benefaktiboa dugu: Euskara Arkaikoan, genitiboaren marka hutsaren balio horrekin lekukotzen da euskalki guztietan, ondoren bakarrik Akitaniakoetan, eta azkenik ekialde hertsiago batean. XX. mendeko Zuberoan ohikoa zen genitiboaren balio benefaktiboa, eta egun ere haren aztarnak entzun daitezke ekialde hertsiko mintzoetan. Benefaktiboaren marka berriak direnaz bezainbatean, Zuberoako euskara historikoak *-(ar)entako* abantailatzen du, *-(ar)entzat* ere ezaguna delarik —baina herri tradizioko testuetarik guztiz absent—.

Bestalde, Zuberoako testuetan genitiboaren marka hutsak motibatiboaren balioak —kausa eta motiboa— adierazten zitueneko aztarna garbiak aurkitu ditugu, XIX. mendera arte. Halere, lehen testuetarik *-gati(k)* morfema guztiz usatua da. Haren lekukotzak erakusten digunez, Zuberoan *gati(k)* markaren erabilpena banaketa zaharrari hertsatzen zaio berant arte: izenen singularrean absolutiboaren ondoan emana da; erakusle eta bestelako determinatzaileetan ere absolutiboaren ondoan; azkenik, izenen pluralean eta erakusleen singularrean zein pluralean *-gati(k)* ustezko genitibo zaharrari jarraitzen zaio, *-egati(k)* itxura ematen duena.

Orain arteko analisiak azaldu gabe uzten dituzten zenbait asimetriaren kontu eginik, motibatiboaren markaren gibelean omen datzan genitibo zaharra, *-egati(k)* segidan azaleratzen dena, beste zerbait izan daitekeela proposatu dugu. Izan ere, *-e-* hori erakusleetan eta, oro har, deklinabidearen paradigmaren azaleratzen den *e* bera da, noizbait epentesi bezala definitua izan dena, eta berriki Lakarrak (2016) lehenagoko morfema baten aztarna gisara analizatu duena.

Aldakortasunari doakionean, *-k*-dun eta gabeko aldaerek ez dute sekuentzia kronologiko argirik erakusten. Zein-nahi kasutan, motibatiboaren aukera horiek ablatiboarenetikiko paralelotasunean dautza, *gati(k)* markaren sorreran *-ti* prosekutibo edo perlatibo zaharraren morfema zegoelako hipotesia indartzen duena.

Motibatiboarekin finitzeko, XVII. mendetik hona Akitaniako mintzoetan kanbiamendu bat abiatu da motibatibo eta benefaktiboaren arteko loturan. Lapurteran, eta ondoren zubereran, benefaktiboaren marka motibazioaren adierazpenera hedatu da, Pirinioez hegoaldera bien arteko bereizkuntza atxiki delarik (*-gatik* vs. *-(ar)entzat*). Aldaketa hori inguruko erromantzeek dituzten onuradun/motibo/agente pasiboa hirukotearen barneko lerrotatze dibergenteen ondorioa da. Zehazkiago, Akitaniako euskaran benefaktibozko morfemak frantsesean *pour* preposizioak adieraz ditzakeen balioak bereganatzen hasi dira, eta bereziki motibatiboarena —haren adiera hertsian, erran nahi baita motiboa, eta ez kausa—, baina baita prolatiboa eta denborazkoa. Lapurdin aldaketa XIX. menderako aski gauzatu bazen, Zuberoan prozesua berantago abiatu da. Ordezkatze hori Lapurditik irradiatua delako hipotesi sendoa kronologiak bermatu ez ezik, Zuberoako testuek erakusten digute erabilpen berria *-(ar)entzat* markari lotuago dela *-(ar)entako* aukerari baino; hau da, ekialdean maiztasun anitzez ere baxuagoa duen benefaktibozko morfemak du usantza berria karreiatzen, nolabait kanpoko eraginei so zeudekeen idazle edo hiztunen eskutik etorri delako seinale.

Kasu-marka berrien azterketaren hesteko, komitatiboa ikertu dugu, haren polimorfismoa bi ardatzetan iruzkinduz: batetik, *-n*-dun eta gabeko aukerak, eta bestetik *-(r)ekila(n)* morfema vs. *-(r)eki(n)*. Lehen pareari doakionean, Zuberoan, ekialde hertsian espero bezala, *-n* gabeko aukerak guztiz nagusitzen dira, *-n*-dunak praktikan kanpoko tradizioei irekiago ziren idazleen lanetan agertzen direlarik —guztiarekin ere, betiere gutxiengo markatuan, *-n* aiseago azaleratzen da *-(r)ekila(n)* morfeman *-(r)eki(n)*-en baino—. Puntu honetan, gure azterketaren emaitza interesgarrienak *-(r)ekila(n)* morfemaren balioa hunkitzen du. Gavelek (1929: 26) eta Lafittek (1944 § 142) proposatu ñabardura semantikoak gogoan, Zuberoako testu zaharrek *-(r)ekila* morfema konplexuaren jatorrizko semantikaren etsenplu garbiak eskaintzen dituzte. Jatorriz, *-(r)ekila(n)* morfemaren erran-nahi zehatzak *accompanee* delakoarenganako mugimendua adierazten zukeen, eta denborarekin *accompanee* delakoarekin batean egiten zen mugimendua ere adieraztera iragan zatekeen, azkenean *-(r)eki(n)* morfemaren balioarekin nahasteko. Komitatiboaren gainean eraikia den *-(r)ekila(n)ko* sekuentziak *-(r)ekila* morfemaren jatorrizko adlatibozko balioaren alde egiten du, ekialdean nekez aurkitzen baita *-(r)eki(n)ko* (cf. *-gana(t)ko*, baina ***-gango*).

Azken buruan, genitiboaren eta haren gaineko kasu-marken bilakaerak Zuberoako euskarak arkaismorako duen jitea agerrarazi du berriz ere. Hizkuntza osoaren kasu sistemaren berrantolatze batean, kasu-marka berriak garatu ondoren, ekialdeko euskarak genitiboaren marka soilaren balio zaharrak luzaz atxiki dituela erakutsi dugu. Beste aldetik, Zuberoako testuen lekukotzan oinarrituz, eta paralelo tipologiko garbi baten laguntzaz, ekialdeko euskarak behiala bi komitatibo bereizten zituelako hipotesia aldarrikatu dugu: *-(r)eki(n)* komitatiboa vs. *-(r)kila* komitatibo-adlatiboa, azkena garapen berria (“atzizki luzatua”) delako ustearen aurka.

2. Kasu lokatiboen azterketa

- 2.1. Inesiboa mugagabe arkaikoan (edo *inesibo arkaikoa*)
 - 2.1.1. Kontzeptualizazioa
 - 2.1.2. Inesibo arkaikoa Zuberoako testuetan
 - 2.1.3. Inesibo + *-ko*
 - 2.1.4. Ondorioak
- 2.2. Ablatiboaren polimorfismoa
 - 2.2.1. Sarrera
 - 2.2.2. Partitibo-ablatibo arkaikoaren markaren iraupena
 - 2.2.3. Ablatibozko marka berriaren eta berriagoaren arteko lehia
 - 2.2.4. Ondorioak
- 2.3. Adlatiboaren polimorfismoa
 - 2.3.1. Sarrera
 - 2.3.2. *-ra(t)* vs. *-ala(t)*
 - 2.3.3. *-t* vs. $-\emptyset$
 - 2.3.3.1. Abiaburuak
 - 2.3.4. Ondorioak
- 2.4. Adlatiboaren gainean sortutako kasu lokatibo konposatuak
 - 2.4.1. Sarrera
 - 2.4.2. Hurbiltze adlatiboa, *-t* morfoaz landara
 - 2.4.3. Muga adlatiboa
 - 2.4.4. Destinatiboa
 - 2.4.5. Ondorioak
- 2.5. *Baitha*- kasu lokatiboetan
 - 2.5.1. Sarrera
 - 2.5.2. *Bait(h)an* postposizioa nondik norakoak
 - 2.5.3. *Baitha*- postposizioaren diakronia
 - 2.5.4. Ondorioak

2.1. Inesiboa mugagabe arkaikoan (*inesibo arkaikoa*)

- 3.1.1. Kontzeptualizazioa
- 3.1.2. Inesibo arkaikoa Zuberoako testuetan
 - 3.1.2.1. Tema + *-(e)n*
 - 3.1.2.1.1. *aspaldin*
 - 3.1.2.1.2. *aurten*
 - 3.1.2.1.3. *etxen*
 - 3.1.2.1.4. *ihizen*
 - 3.1.2.1.5. *ondon*
 - 3.1.2.1.6. *soñen*
 - 3.1.2.2. Bi kasu ñabar: *arrats* eta *goiz*
- 3.1.3. Inesibo + *-ko*
- 3.1.4. Ondorioak

2.1.1. Kontzeptualizazioa

[*egiten, entzuten* bezalako aditz-izenez] “Habría acaso que advertir que se trata del inesivo indeterminado, ya muy poco corriente fuera de ahí. Creo que alguno, ¿Lafitte?, lo llama *inesivo arcaico*.” (Mitxelena 1970-1980: 369; cf., halaber, 1979: 395).

Ezaguna da Zuberoan oraino *etxen* erabiltzen dela, bai eta *etxian* ere. Lehena zehaztugabea bide da, toponimoa bailitzan, eta bigarrena zehatza (ikus § 2.1.2.1.3). Euskalaritzan bada nolabaiteko tradizioa halako *-a* gabeko formei *inesibo arkaiko* deitzeko, baina beharbada zehatzago litzateke *inesibo mugagabe arkaikoa* erabiltzea —cf. “mugagabe arkaikoa” (Manterola 2015: 45)—; aldiz, Lafonen hitzak oposa litezke: “On ne peut pas dire de ces inessifs en *-n* de noms communs s'ils appartiennent au singulier défini ou à l'indéfini” (1970: 170).

Y como abundan las muestras, identificables como arcaísmos, de inesivos en *-(e)n* sin marca formal ni de indeterminación, *-ta-*, ni de determinación, *-a-*, me atrevería a concluir que la introducción material de éste en inesivos como *etxe-a-n* ‘en casa’ (ronc. sul. *etxen, etsen*), *lurr-e-a-n*, etc., no es, hablando en términos relativos, demasiado antigua. Sobran ejemplos a añadir al que se acaba de citar de los llamados «inesivos arcaicos»: sustantivos verbales como *egi-te-n*, vizc. *bat-en*, más antiguo que *batean* o *batetan* como decía hace poco A. Irigoyen (¿b.-nav. lab. *betan* ‘a la vez, etc.’ no será esto mismo, metatizado?), la desinencia de comitativo *-ki(e)n*, etc. Ahora bien, si *-a-* fuera ahí de introducción reciente, *-o-* sería otra innovación datable por las mismas fechas. (Mitxelena 1979: 395)

Inoiz horrela azaldua izan bada ere, singularreko inesiboan agertzen den *-a-* (*etxean*, *lanean*, *mendian*) batzuentzat ez da artikulua, eta orobat Zuberoako eta Erronkariko

adlatibozko *-a-* (zub. *ala(t)*, erronk. *-ara*). Horrela proposatu zuen Jacobsenek (1977 *apud* Azkarate & Altuna 2011: 119), zeren sintaxiaren aldetik honako hurrenkera espero bailitzateke: [[izena (izenondoa) + artikulua]_{IS} + (lotura bokal / kontsonantea) + kasu-marka]. Aldiz, *lurrean* bezalako formetan *-a-* artikulua balitz, lotura bokalaren eskuinean letzake, hori ezinezkoa izanik.

De Rijkek (1981) **-ga-* atzizki bat postulatu zuen: **lurr-e-ga-n > lurrean*, eta Traskek *gain > gan* bilakaera, *gain* jatorriz postposizioa baitzatekeen. Azalpen horren arabera, **gan* hark ‘gain’ erran-nahia atxikiko zuen, gero lokatibozko baliora lerratzeko (1997: 203). Azkenean, bere berreraiketa proposamenean Manterolak erakuslea dakusa deklinabidean agertzen den *-a-* horretan, haren forma zaharrean: **ha*. Inesibo singular mugatuan **han* zatekeen erakusle hura: **lan han* ‘lan hartan’ > **lan-e-han > lanean* (2009 & 2015: 255). Nonbait, Manterolaren interpretazioak zirkulua hesten du:

Manterola’s account of the inessive *-an* is actually a return to the views held previous to Jacobson (1977), according to which the *-a* of *-an* is nothing but the article (< 3rd grade demonstrative). It was already defended by Schuchardt (1947 [1923]), Lafon (1999 [1970]) and Castaños-Garay (1979: 139). According to these authors, the *-a* of the inessive [...] would simply be the article, incorporated into the inessive marker *-n* at a late stage by analogy with the grammatical cases, which do have *-a-*. (Santazilia 2013: 254).

Lafon lehenbizikoa izan zen *-(e)n* soileko inesibozko formak kokatzen. Gure ustez, Lafonek ihardespren hoherena eman zien halako formek pausatzen dituzten galderei:

Mais des formes comme *etxen* [...], *ihizin* [...], *itsason barnen*, [...], ainsi que l’emploi des substantifs verbaux a l’inessif en *-n* dans la conjugaison, [...], montrent qu’à une certaine époque il n’y avait qu’une forme d’inessif, sans distinction de défini et d’indéfini. Lorsqu’on voulait indiquer qu’il s’agissait d’un objet déterminé on se servait d’un démonstratif placé après le substantif : *etxean* « dans cette maison », *etxea* « cette maison ». (1975: 230).

Zuberoako testuetan ez ezik, Mendebaldekoetan bada lekukotasun gehiagorik (1)-(2). Eta testuetan ez ezik, egungo zubereran bezala bizkaieran ere gorde dira mugagabe arkaikodun inesiboak;¹⁸⁶ beraz, bi muturretako mintzoez atxiki izanak ezaugarri honek behiala orokorra izan behar zuelako hipotesiaren alde egiten du.

¹⁸⁶ Egungo Bizkaian ezagunak eta erabiliak dira halakoak: Nerbioi ibarrean, Arratian, Mungia aldean eta Gernika aldean —batzuetan beharbada eremu zabalagoan— *Itaurren* ‘idi aurrean’, *itillaurren* ‘itailaren aurrean’ (golde

- (1) *Beor çarrari orbiden neque da yracasten. “A yegua vieja mostrar andadura es trabajo” (RS 104)*¹⁸⁷
- (2) *Choria, gazteteguiâ ezpadaguic abia, zaarza gachen eldu doc hire bicia. “Páxaro, si no hizieres ê mocedad nido, en mala vejez ha llegado tu vida.” (RS 401)*

Lafittek ere zenbait inesibo arkaiko bildu zuen: *ihizin* ‘ehizan’, *haitzurren* ‘aitzurraz lanean’, *garraion*, *iraulden* eta *etxen* (1944 § 137); horietako batzuk 2.1.2.1 atalean aztertuak izanen dira. Bestenaz, Urgellek (2015a) Axularren forma batzuk *inesibo arkaiko* gisara iruzkindu ditu (*garraion* 20-9 & *golde nabarren eta arhen* 261-7/8), ezaugarriaren iraupenaren eta hedaduraren hobeki konprenitzeko arras interesgarria dena. Lafonen hitzetarik konprenitzen da forma hauek arkaismotzat jotzen zituela:

La déclinaison des noms propres de lieux donne, l'ablatif mis a part, une idée précise de ce que la déclinaison primitive des noms communs et des adjectifs qualificatifs a du être en basque. De plus, si certains cas du singulier défini se forment à partir du thème nu et sans l'aide d'un article défini tiré du démonstratif de 3^e personne, c'est que, primitivement, il n'y avait sans doute pas un défini distinct de l'indéfini. (1970: 171)

Izan ere, Santaziliak gogoratu bezala (2013: 256), baditugu oraino bi testuinguru zeinetan artikulua ez baitu inesibo arkaikoa hunkitu: 1) partizipio imperfektiboa; eta 2) toponimia. Gure azterketaz denaz bezainbatean, ez dagokigu leku kasu-marken jatorriaren gaineko hipotesirik egitea: bide hori aspaldi urratu dute euskalariak, eta azken hamarkadetako ekarpenek halako klartasuna eman dute. Aski izan bekigu, beraz, inesibo arkaikoaren iraupenaren berri ematea eta, horrelakorik balitz, morfologia arkaiko horrek adierazten dituzkeen ñabardura semantikoaren iruzkintzea.

2.1.2. Inesibo arkaikoa Zuberoako testuetan

Zuberoako euskara historikoaren corpusean xerkaturik, inesibo arkaikoaren etiketa pean bil daitekeen hainbat forma atzeman dugu. Lehenik erabilera *beregain* deit genezakeenean —hau da, inesibo arkaiko hori sintaktikoki buru izanda—, honako hauek: *arratsen*, *aurthen*, *barnen*, *etxen*, *gañen*, *ihizen*, *heben* & *soñen*; horietarik batzuk orokorrak dira (*aurten*, *hemen*) eta

mota bat), *atxurren* ‘aitzurrarekin lanean’, *baten* ‘batean’, *lapurren* ‘lapurretan’, *hiru biderren* ‘hiru aldiz’ (ez leku askotan), gehi *-ginen* atzizkiaren bidez eraturakoak: *umeginen* ‘erditzen’, *txixeginen* ‘txiza egiten’, *egurginen* ‘egurra moztzen’, etab. erabiltzen dira (Eneko Zuloaga, gaztigu pribatuan; *itaurre* formarendako ikus Zuloaga 2005).

¹⁸⁷ Edizio gilearen oharrean hauxe da *orbiden*: “Inesibo arkaikoa, gero aditz-izenean eta *bat*-ekin gorde dena gehienbat” (Lakarra 1996: 288).

besteak ekialdeari hertsatuak (*etxen, ihizen*). Bigarrenik, *barne(a)n & gañe(a)n* postposizioekiko egituretan, ezkerreko sintagman (cf. VII, § 1): *Arraçoun gañen* (Mst I 14, 3), *arthelin gagnen* (Bp II 12), *batheyun gagnen* (Bp II 27), *biden gañen* (Etch 638), *bihotcen barnen* (Epit I 3, 4), [*mendi*] *bizkarren gainen* (Chaho AztBeg XVI), *boronten gañen* (CatS), *burun gagnen* (UskLi 76; EvS 19, 2), *chochan barnen* (Mst I 20, 5), [*Mariaren*] *Conceptionen gagnen* (Bp II 91), *criman gaignen* (Xarlem 828), [*dembora*] *laburren barnen* (Epit II 1, 14), *ene bihotcen barnen* (HOrdre 99), *ene interiorren barnen* (SteEli 1306), *eniçanen gagnen* (Mst III 8, 1), *estumaken gañen* (CatS), *eztuçunen gagnen* (Mst I 23, 7), *feden gagnen* (Mst IV 18, 3), *giten gagnen* (Bp II 15), *glorian barnen* (NLilia 13), *hassin gaignian* (SteEli 743), [*olio*] *herakin barnian* (StJul 092), *hilcen gagnen* (Etch 624), *hirin barnen* (Xarlem 592, 630 & 1301), [*Gincouaren*] *hitcen gaignen* (UskLi 91), *houren gagnen* (EvS 6, 19), *içan cirenen gagnen* (Mst III, 18, 2), *jugeamentun gaiñen* (UskLi 57), *khurutchen gagnen* (CatOlo 31; Othoitce 70), *laxun-laben barnen* (SteEli 516), *lurren gagnen* (Mst II 12, 11; StJul 1305; Edipa 042; Epit I 1, 17), *Calvariaco mendin gaignen* (UskLi 29), *Sinai mendin gagnen* (Bp II 73), *mihin gaignen* (UskLi 93), *ohen gaignen* (SteEli 908-di & Malqu 252), *passione saintun gaignen* (UskLi 27), *persounan gaignen* (DKhi 54), *presounteguin barnen* (Edipa 817), [*Althare*] *Saintun gaignen* (Xarlem 1188), *sougnen gagnen* (CatS; Medit 146), *sükhalten barnen* (Boubane 60), *thupan barnen* (StJul 788), *thurbutarçunen gagnen* (Mst I 25, 7), *urguluñ gaiñen* (HOrdre 196), *urhen gaiñen* (Tt Arima), [*bere privilegiouen*] *usagen gagnen* (HOrdre 18), *zaurin gainen* (O Pro 425), *zilharren gaiñen* (Tt Arima), *delitaren zirkonstanzian gainen* (Chaho AztBeg XVI).

2.1.2.1. Tema + -n

2.1.2.1.1. ASPALDIN

OEH-k *aspaldin* aldaera jaso du: Etchahun 552, *Baladak* 110, *Euskal jokoak bertsoan* 104, J. A. Irazusta *Bizia* 119, “Uztapide” *Noizbait* 79 (s.v. *aspaldian*); beraz, agerraldi gehienak oso berriak dira, eta nonbait kutsu herrikoi batez. Gure corpusak beste agerraldi bat dakar Zuberoan, Etchahunenaz aparte, guztietan lehena (3). Gipuzkoako lekukotasunetan bezala, Etchahunenean —transmisioaren arazoak direnak direla—, oso litekeena da *aspaldian* > *aspaldin* asimilazioa gertatu izana —baina forma “osoa” ere ematen du: *Aspaldian ebili hiza dendariaren ondun?* “Ahargo eta Khanbillu”—. Alta, *Saint Julien* trajerian ez da halako asimilazio bokalikoen aztarnarik. Guztiarekin, *aspaldin* egiazki inesibo arkaikoa izatea dudazkoa da, corpusean *aspaldian* baita nagusi, Etchartekin has eta Anna Urrutyrekin buka.

- (3) *Aspaldin ezpeitut / hanbat onxa trompetatu (StJul 703)*
- (4) *Donaphaleiin zira aspaldin jüje (Etch “Üdoien prozesaren khantoria”)*

2.1.2.1.2. AURTHEN

Ustekaberik ez, Zuberoan ere euskara osoan usatzen dena gertatzen da:

- (5) *Aurthen amore berriagatic eztut utciren çaharra. (Bela 3)*
- (6) *Gueroz aurthen Incoaren aiutu saindiarequila battian, eguidut (Tt Arima)*
- (7) *Eztit niq ja asky gage hory, / aurthen engagatceko (Edipa 180)*
- (8) *artoua eta oguia Segur nuq / aurthen merque guntuquiela (Xarlem 783)*
- (9) *[...] bi urthez Elektur izanak, aurthen Elektur eztirenak (Chaho AztBeg XII)*
- (10) *Nouiz hilen niz? Aurthen ala gueroco ourthian? (Medit 51)*

2.1.2.1.3. ETXEN

Erran izan da inesibo mugagabe arkaikoan den *etxen* nor bere etxeaz mintzo delarik erabiltzen dela (XX. mendeko zubereraren bederen), eta mugatua nornahirenaz; hala dakar zubereraren azken gramatikak: “Etxen (*ene etxean*) ≠ *etxean (zoin-nahi etxetan)*” (Etxebarne 2011: 64). Lafonek “*etxen* « à la maison » (chez moi, chez toi, etc.),” gisara itzuli zuen (1970: 169). Gèzek, aldiz, ñabardura hori jasorik ere, hautazkoa zela zioen:

Quand quelqu'un emploie ce mot pour désigner sa propre maison, son *chez soi*, il use, à certains cas, des désinences des noms propres ; ainsi il dira : *etchen da*, il est à la maison ; *etchera* et *etcherat joan da*, il est allé à la maison ; *etcheric elki da*, il est sorti de la maison. Cependant on peut très-bien dire, et on dit aussi : *etchian da*, *etchiala joan da*, *etcheti elkhi da*. (1873: 22-23)

Belapeire baino lehenagoko testuetan inesibo mugatua da nagusi, mugagabe arkaikoak bi agerraldi baizik ez duenean. Banaketa semantikoa ñabarra da: ustezko arauaren arabera, (11), (14), (15) & (16)-ko adibideetan *etxen* espero genuke eta, aldiz, (18)-koan *etxean* (kopuru absolutuendako ikus 18. TAULA). Belapeirek beti *etxen* ematen du, nahiz eta bi kasutan posesibo edo genitiboarekin erabilia den.

XVIII. mendean, Oloroeko katiximan, *Othoitce* liburuan eta Maisterrengan erregela ongi betetzen da, baina badirudi geroko egile batzuek forma baten ala bestearen alde egin dutela, norbere etxeaz ala nornahirenaz mintzo ere: Resseguek, Mercyk eta *Sainte Elisabethen* errejenta den Jauliberrek —hirurek Eskiulan— *etxen* baizik ez dute erabiltzen, eta ber gauza gertatzen da *Doctrina Khiristian* edo *Uscara Librian. Meditacioniac* liburuko bi agerraldiek ifrentzikatuak dirudite (38) & (39). Oro har, XIX. mendeko testuetan *etxen* gailentzen zaio *etxian* mugatuari, ezkerreko modifikatzailea genitiboarekin ere.

- (11) *Campoan lilirita, etchian marguerita.* (Saug 142)
- (12) *Soinuguiliaren etchian oro dançari.* (Saug 165)
- (13) *Urte gaitzari bihur daite belazki, arto et' urdai etxen duena aski.* (O Pro 470)
- (14) *Aski du hon et' errekeitu, etxean deus eztenak peitu.* (O Pro 45)
- (15) *Kanpoan urzo, etxean bele.* (O Pro 107)
- (16) *Emaztea har dezana handitarik eztate etxean grina gabetarik.* (O Pro 135)
- (17) *Hoboro daki erhoak ber' etxean, ezi ez zuhurrak bertzerenean.* (O Pro 626)
- (18) *Gauaz, epaizkaz, zur'etxen sartuz.* (O Po V)
- (19) *Eta etchen, aldirietan, edo bortian abelçain diratianian.* (Bp I 107)
- (20) *Pilataren etchen açotatcia.* (Bp I 148)
- (21) *Hil beldurrian Etchen, [...], berriz Eliçan, batheyatu behar dia?* (Bp I 61-62)
- (22) *Sainthoralen etchen erecevitcia.* (CatOlo 56)
- (23) *Gincouaren etchian.* (Othoitce 31)
- (24) *Ehiago da etchen gorderic egoitia.* (Mst I 20, 2)
- (25) *Nahi çutut ene etchian sar eraci.* (Mst IV, 3, 1)
- (26) *[...] edukiren ahal dutu beraren edo priorearen etchen.* (Ressegue 38)
- (27) *Eta ene aitaren etchen orory / erraiten ahal duq.* (StJul 991)
- (28) *Idola hayen etchian / debriaren etchian.* (StJul 1148-9)
- (29) *Bere etchen eguinen dutie [...] othoitciac.* (Mercy 27)
- (30) *Oithian fleu handi hori / ene etchen behar niana?* (SteEli. 1246)
- (31) *Saldouetan gossia / duçu ene etchian, / madama, ostatatia.* (SteEli 264)
- (32) *Cluzeau anayen, Jaun Aphezcupiaren [...] imprimaçalen etchen.* (DKhi 3)
- (33) *Jerusalemeco particular baten etchen.* (UskLi 89)
- (34) *Prince bat çoure etchen errecevititu behar baçunu.* (UskLi 96)
- (35) *Euphemienen etchen.* (UskLi 224 & 232)
- (36) *Houra ahal cila harec bere etchen logeacez.* (UskLi 225)
- (37) *P. A. Vivent dona Mariaco martchan librairiaren etchen.* (Khurutç azala)
- (38) *Caïphasen, Pilatusen, Herodesen etchen.* (Medit 65)
- (39) *Noun hilen niz? Etchian ala campouan?* (Medit 51)
- (40) *Saltcen da Roch Daguerre Maulecouaren etchen.* (Ip KhurBD 2)
- (41) *Etchen bardin eraikiten delaric, erran beçala, althare bat.* (MaiMarHil 11)
- (42) *Hirour hilabetez egon cen Maria Elisabeten etchen.* (MaiMarHil 47)
- (43) *Soguïn deçogun Mariari bere Nazareteco etchian.* (MaiMarHil 80)
- (44) *Nouiz eta ere lanian ariren beitira besteren etchen [...].* (HOrdre 12)
- (45) *Eliçan edo etchen.* (HOrdre 43)
- (46) *Esclava dena ezta bethi egoiten etchen; semia bethierecoz etchen da.* (EvS 8, 35)
- (47) *Bada egonguira hanitx ene Aitaren etchen.* (EvS 14, 2)
- (48) *Çoure khantian, çoure etchen.* (EvS 17, 5)
- (49) *Ordian Mariareki etchian cien Judiouac.* (EvS 11, 31)
- (50) *Dicipulu harec hartu cian bere etchian.* (EvS 19, 27)
- (51) *Egon ledin etchen, beranta beitcen.* (SGrat 10)

Gure corpusak bi formak arrunt lekukotzen ditu, baina bereizkuntza semantikoa ez da beti hain garbia; beraz, iduri luke Gèzeren erranak besteek baino modu osoagoan jaso lezan errealitatea. Ikuspegi diakroniko batetik, eta beste aukeren artean, honelako kronologia erlatiboa proposa liteke *etxen/etxian* parearen esplikatzeko: i) *etxen* bakarrik; ii) *etxen* eta

etxian lehia inesibo mugatua sortu eta; iii) banaketa semantikoa non *etxen* ‘nor bere etxean’ adierazteko berezitua den; iv) *etxen* galeran, ‘at home’ adieran *etxian* ere sartzen hasia delarik; v) *etxen* forma atxiki, baina banaketa argirik gabe.

18. TAULA. *Etxe(a)n & etxe(n)ko*.

	ETXEN	ETXEAN	ETXENKO	ETXEKO
O <i>Pro</i> ca.1600	1	7	-	4
Zalgize ca.1600	-	2	-	2
O <i>Po</i> 1657	1	-	-	-
Tt <i>Onsa</i> 1666	-	4	-	-
Tt <i>Arima</i> 1672	-	-	1	-
Bp 1696	4	-	-	5
<i>CatOlo</i> 1706	1	-	-	-
<i>Othoitce</i> 1734	-	1	-	-
Mst 1757	1	2	-	-
Ressegue 1758	2	-	-	1
<i>StJul</i> 1770	1	2	-	1
Mercy 1780	2	-	-	-
Egiat I 1785	12	3	1	4
<i>Chiveroua</i>	-	-	1	-
<i>SteEli</i> ca.1810	3	1	-	-
<i>Malqu</i> 1808	-	-	-	1
<i>DKhi</i> 1812	1	-	-	-
<i>Uscara Libria</i> 1814	8	-	-	-
<i>Khurutch</i> 1838	1	-	-	-
<i>Medit</i> 1844	1	1	4	1
Ip <i>KurBD</i> 1847	1	-	-	-
Etchahun	15	1	1	4
Chaho	-	-	-	1
<i>MaiMarHil</i> 1852	3	1	1	-
<i>HOrdre</i> 1860	2	-	-	-
<i>EvS</i> 1873	5	2	1	1
<i>SGrat</i> 1879	2	-	-	1
Oro	67	27	10	26

2.1.2.1.4. IHIZEN

Lafittek eta Lafonek aipatutako *ihizin* forma ez da gure corpusean ageri, baina bai bera bezain *inesibo arkaikoa* den *ihizen*; hitzaren inesibozko agerraldi gehiagorik ez da. (52)-ko pasartean *ihizen* kasik aditz-izen portatzen da; imperfektibozko perifrasiaren gramatikalizazio aitzineko garaiko *-te/-tze + -n* aditzetiko izenen usain bera dario *ihizen* inesibo arkaikoari —bidenabar, egungo Bizkaian usatzen diren inesibo arkaikoei darien bera; cf. 186. oin-oharra—.

- (52) *Goizan izan nüzü Ahargon / asto xar baten xerkhatzen, / eta errenkontratü dit Phantzart / ari beitzen ihizen.* (*Planta eta Eleonora* 53)

2.1.2.1.5. ONDON

Forma hau XVIII. mende bukaeran koka daitekeen *UskLi* testuan lekukotu da, bai eta Etchahunen bertsoetan ere. Kronologia ez ote da berankorregia testu horiek inesibo arkaiko behiala orokor baten lehenbiziko agerraldiak izan litezen? Gehiago dena, pentsa liteke *ondon* Zuberoako ipar-ekialdetik abiatutako bokal asimilazioen emaitza den, eta ez egiazko inesibo arkaikoa; izan ere, bi testu horietan bokal asimilazioak ongi eta segurki lekukotuak dira. Kontua da halako aldaketak gauzaten dituzten barietateetan *o + a* bilkuraren emaitza ez dela *o, u* baizik, eta horrelaxe aurkitzen dugu bi testuetan: *ondouan* hamaika agerralditan *Uscara Librian*, eta zortzi Etchahunen bertsoen bertsoetan. Horretaz gainera, *ondon* balizko inesibo arkaikoaren lekukotza ez da hor fini: [INE+-ko] segidan ere ediren dugu (§ 2.1.3).

- (53) *Hola bici ondon hain beste demboraz.* (*UskLi* 223)
- (54) *Hory ençun ondon Euphemien sartu çuçun.* (*UskLi* 225)
- (55) *Urço aphalac bere compagna galdu ondon beçala.* (*UskLi* 227)

2.1.2.1.6. SOÑEN

Azkenik, *soñen* da ezagutzen ditugun beste inesibo arkaikoetarik bat. Corpusean behin baizik ez da lekukotu (61), inesibo mugatua orotara zazpi aldiz ageri denean; paradoxikoki, *soñen* bakar hori *soinean/soñian* guztiak baino berankorragoa da.

- (56) *Bide luzean, lastoa ere sorta soinean.* (*O Pro* 99)
- (57) *Egurra dagienak leku gaitzetan, ekarri beharko du soinean.* (*O Pro* 126)
- (58) *Ez holla, Usmena, handiki gorapenak soinean diakarken beherapena.* (*O Pro* 160)
- (59) *penitenciaren cegnharetan ekharri baitie burian edo sognian.* (*Bp I* 142)
- (60) *Aitaren thonak semiak diütialakoz soñian ekarriren.* (*Egiat I* 8)
- (61) *Plazan bistüis diütüzü, / bai eta hanitx entrada, / arropa ederrak soñen eta / bilhüa oro pumada.* (*Malqu* 482)

2.1.2.2. Bi kasu ñabar: goiz & arrats

Zuberoan ezagunak dira *goizan & arratsan* formak, bai eta *goizian, arratsian & arratsen*; bistan denez, soilik azkena kontsidera daiteke inesibo arkaiko.¹⁸⁸ Hona Oyharçabalen iruzkina *goizan* formaren kari:

¹⁸⁸ “Adierazgarria da Etxahunen erabileraz Haritzelharrek egiten duen oharra: “*Arratsan*: inessif archaïque; cf. *goizan, etxen*. Actuellement on dit *arratsen*” (1970: 509); *arratsen* ere inesibo arkaikotzat joa du lehenago” (1970: 353). (Manterola 2015: 258, orri peko oharrean).

Forme souletine de l'inessif sur *goiz* « matinée ». Le souletin distingue *goizan*, « ce matin », *bihar goizan* « demain matin », et *goizian* « le matin ». Etxahun : *hil beharcien goician* (*Complainte Heguilus. Str. 2. L'oeuvre poetique*, p. 624): « Le matin où ils devaient mourir ». Dans *St Julien* (p. 92): *goïçanco Içarra* « Étoile du matin ». La forme en *-zan* est probablement la plus ancienne. Elle a survécu dans certains emplois précis, cf. *etxen / etxian*. Faut-il supposer un ancien **goiza* qui expliquerait le *-z* final, et non l'affriquée dans la forme usuelle ? Ou est-ce l'instrumental ? (1991: 177)

Manterolak ez du bat egiten Oyharçabalen kronologiarekin, *-e-* epentesidunak zaharrago hartzen baititu, eta *goizan* & *arratsan* berriago, ondoko argudioetan oinarrituz:

- Zubereraz, hitz horietatik kanpo, beti dago *-ean* (*-ian*) sintagma mugatueta.
- Hitz horietan ere badira mugag. *-en* eta mug. *-ian* aldaerak [...].
- Euskal eremu osoan zubereraz baizik ez daude, *OEH*-ren arabera, eta, hortaz, aukera bat da zubereraren berrikuntza izatea.
- *Goizan* duten autoreek badute *arratsen* ere: Belapeirek eta Maisterrek, adibidez.
- Testuen kronologiari begira, *arratsan*, *arratsian* eta *arratsen* aldaeren artean badirudi *arratsen* zaharragoa dela *arratsan* baino [...].¹⁸⁹
- Esanguratsua da, deklinabideari dagokionez hainbat puntutan zubererarekin bat egiten duelako, erronkarieraz ez izatea *arratsan*-ik [...]; bai, ordea, *arratsen* [...]. (Manterola 2015: 257-258)

Manterolak honako azalpena proposatzen du: mugagabeko formatik abiatuta (*arratsen*), hitzaren egitura bisilabikoa hautsi gabe, **goizen* → *goizan*, *arratsen* → *arratsan*. “Ohartu behar halako hitzak [...] aski lexikalizatuak daudela, eta horregatik gertatu da bilakaera ezohiko hau, nire ustez. Azalpen honetan, noski, ez da baztertzekoa ABS *goiza*-ren eragin analogikoa (cf. Etxart zuberotarraren gutunetako 04.1v 11 *ustallan* eta 05.2r 9 *agorrillaco*)” (2015: 259). “Funtsean, beraz, absolutiboko eta beste kasu gramatikaletako morfologia gailentzen da inesiboan ere” (*ibid.*). Honi ber itxurako beste forma bat gaineratzen ahal diogu: *huran* ‘urean’ (cf. VII, § 1.4, (83)-ko etsenplua). 19. TAULAK *arrats* eta *goiz* hitzen inesibo

¹⁸⁹ Testuen kronologiari doakionean, Manterolak 1870ean kokatzen du *arratsan* formaren lehenbiziko agerraldia (2015: 258), baina gure corpusak mende eta erdia aitzinatzen du —ikus (65)eko adibidea eta, agerraldi kopuruarentzat, 19. TAULA—. Bistan denez, horrek ez du Manterolaren arrazoibidea indargabetzen.

arkaiko vs. mugatu singularraren agerraldi guztiak biltzen ditu (-n, -an & -ean). Honat aukera horien zenbait etsenplu:

ARRATS

- (62) *Itsasturuaren emaztea, goizean senhardun, arratsean alhargun.* (O Pro 286)
- (63) *Christiac etçan beno lehen, arraxen cer eguin behar du?* (Bp I 135)
- (64) *Arratsen oherat gabe erran behar den oracioniaz.* (CatOlo 8)
- (65) *Erran paterra devoki, bena particularki goyçan eta arratsan.* (CatOlo 53)
- (66) *Erran nahi beita goizan edo arratsen.* (Mst I 19, 4)
- (67) *Goizian edo arratsaldian.* (Mst “Iracourçaliari”)
- (68) *Goïçan jaiquitian, arraxen etçatian* (DKhi 30)
- (69) *Arraxen eguiçu çoure othoitcia familiareki.* (UskLi 67)
- (70) *Arraxan ayhal ondouan.* (UskLi 229)
- (71) *Goiz batez juan eta arratsen ez sarthü.* (Etch “Belhaudiko bortian”)
- (72) *Arratsan heltu ciren portu chipi batetara* (MaiMarHil 109)
- (73) *Ondouan, ber egunian, arraxen erran decela 3 Pater noster* (HOrdre 20)

GOIZ

- (74) *Arratsian, goizian, eta egunerditan hirur Misterio [...] (Tt Onsa)*
- (75) *Cergatic egun oroz goïçan, egüerditan, eta arraxen hirourna cegnu khaldi emaiten dira eliçan?* (Bp I 131)
- (76) *Goyçan, goure salvaçaliaren hiletaric pphitciáz orhitceco: egoerdiz, haren passioniaren orhitçarretan, eta arratsen; berhala haren incarnationiaren orhitçarretan.* (CatOlo 5)
- (77) *Eta bihar goïçan Boturan / Behar duqueçu partitu* (Xarlem 226)
- (78) *Bihar, goïçan guero / emanen dirot arrapostia* (SteEli 132)
- (79) *Goyçan iratçarri ondouan ceinhacite* (UskLi 63)

19. TAULA. *Goiz & arrats* parearen inesiboak.

	ARRATSEN	ARRATSIAN	ARRATSAN	GOIZIAN	GOIZAN	GOIZANKO
O <i>Pro</i> ca.1600	-	3	-	2	-	-
Zalgize ca.1600	-	1	-	-	-	-
O <i>Po</i> 1657	-	1	-	-	-	-
Tt <i>Olsa</i> 1666	-	10	-	14	-	-
Tt <i>Arima</i> 1672	-	8	-	4	-	-
Bp 1696	3	-	-	-	5	2
<i>CatOlo</i> 1706	3	-	2	-	4	5
<i>Othoitce</i> 1734	-	-	-	-	1	2
Mst 1757	2	1	-	-	1	-
Ressegue 1758	-	-	-	-	1	1
<i>StJul</i> 1770	-	-	-	-	-	1
Mercy 1780	-	-	-	-	-	1
Egiat I 1785	-	21	-	-	3	-
<i>Boubane</i>	1	-	-	-	-	-
<i>Xarlem</i> ca.1800	-	-	-	-	2	-
<i>SteEli</i> ca.1810	-	-	-	-	1	1
<i>Malqu</i> 1808	-	-	-	-	2	-
<i>DKhi</i> 1812	2	-	-	-	2	1
<i>UskLi</i> 1814	1	-	1	-	2	2
<i>CatS</i> ca. 1836	4	-	-	-	1	5
Etchahun	7	-	1	-	1	-
<i>Medit</i> 1844	-	-	-	-	-	3
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	-	1	-	-	-
<i>Myst</i> 1856	-	-	-	-	1	1
<i>HOrdre</i> 1860	1	-	-	-	1	-
<i>Epit</i> 1873	-	-	-	-	-	1
<i>Orotara</i>	24	45	5	28	28	25

2.1.3. Inesibo + *-ko*

Atal honek Zuberoako euskarak atxiki duen beste arkaismo bati helduko dio: inesibo markari *-ko* atzizkia gainjartzeari (*etxenko*, *goizanko*). Euskara osoaren fosil batzuek segida hori gorde dute: *ondorengo*, *hemengo*, *aurtengo*, eta abar. Azkue inesiboari *-ko* atzizkia ezin erants dakiokela dioen arauak salbuespenak zituela ohartu zen: *egunean eguneango* (Añ), *asteen asteango* (FrB), *berban berbango*, etab. (1925 *apud* Azkarate & Altuna 2001: 99, idazle zaharregandiko ondoko adibide sorta ematen dutenak). Euskalki guztietako autore zaharregan kausi daitezke halakoak:

- Hetango *klaritatea* (Lç, *Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina... denari*)
- *Eta haren icena baithango fedez* (Lç Act 3, 16)
- *Eta airean iragaiten ciradela iracasten cituzten hetangoac* (Lç Act 16, 4)
- Gorpuceango araguioc (Lazarraga 1184v)
- *Emon egiguzu egunean eguneango gure ogia* (Bet)

- Guerorengo demporetan. (Añ GGero 340)
- Urteango confesiño au. (Añ GGero 340)
- *Ta neuregango dator au* (Mg PAb 131)
- Elcarrengo amoréa (Lizarraga, Coplac 434)
- Oñeztar barruangoac (TAV 83), XV. mendekoa.

Datu horien argira, Mitxelenaz geroztik ez da dudarik *lekuko* bezalako formen sakoneko egituran **lekuanko* bat datzala (Mitxelena 1972; Azkarate & Altuna 2001). Zuberoako testuetan honakoak bildu ditugu: *aurthenko*, *berthanko*, *hanko*, *hebenko*, *goizanko*, *landanko*, *ondoanko*. Bistan da, horietako batzuk orokorrak dira. Bestalde, komitatiboaren *-ki(n)*, *-kila(n)* morfemetako *-n*, sortzez inesiboaren *-n* bera da (cf. II, § 1.6.1), Zuberoako zenbait testutan *-ko* atzizkiaren oinarri gisa lekukotu da (80)-(81):

- (80) Familiarekilanko *hanaspületan baratuko niz* (Chaho AztBeg XVI)
 (81) *Ziek etzirade hiin / alkharrekilanko beizi*. (CanBel 401)

Jarraian [-n + -ko] segidako forma horien etsenpluak dakartzagu; *etxenko* & *goizanko* ikertze berezi baten sujet dira aitzinago. Oihenartek *bertanko* baliatzen du bere olerki batean (82). Agerraldi bakarreko forma izan arren, ezin erran salbuespena den: *-n* gabeko aukera ere behin baizik ez da ageri (83).

- (82) *Ezkontidearen hil-kexua, Museen kontra bertanko ilhots haur gaztaroan egina ez / Izanagati* (O Po XVII)
 (83) [...] *religione bertako*, / *khiristi eta catoliko* (SteEli 102-103)

XVIII eta XIX. mendeetan *ondo(a)n* inesiboa *-ko* hartuta ageri da (84)-(88), behin inesibo arkaikoaz (89); inesiborik gabeko *ondoko* aukerak 33 agerraldi ditu.¹⁹⁰

- (84) *Eliça batian eta ondoancoan beste eliçan*. (CatOlo2 viii)
 (85) Ondoanco *lehen igante edo besta egunian*. (Ressegue 15)
 (86) *Çouin beitira apostolien ondouancouac gutara drano*. (DKhi 27)
 (87) *Aita saintien haren ondouancouen princiaren caidera*. (DKhi 27)
 (88) *Nourenac dira hitz ondouancouac [...]*? (DKhi 50)
 (89) *Apostolier eta hayen ondoncouer [...]*. (UskLi 78 & 90)

XVII. mendean bildu atsotitz batean bezala, XIX. mendeko bi lekukotan ere *aurthengo/aurthenko* ageri da:

- (90) Chazco *ouhouñac (diren) aurthencoen urkaçale*. (Bela 13)
 (91) Chazco *ohoina, aurthengoan vrkhazale*. (Saug 41)

¹⁹⁰ Tt *Onsa* (3 aldiz), *Arima* (behin), Bp I 26, Bp II 16, 21, 27, 70, 31, 55, 78, 1127 & 121; *CatOlo* 40-41 & 77; *Ressegue* 23; *Egiat* I 25 & 39; *SteEli* 1493; *DKhi* 4, 24, 25 & 77; Etch “Musde Hegove”; *Medit* 190 & 244; *MaiMarHil* 137 & 152; *HOrdre* 15, 31, 44 & 188.

- (92) *Xazko epaslea, aurtengoen urkazalea.* (O Pro 478)
- (93) *Aurthengo Elektur berhexietarik pharte handi bat* (Chaho AztBeg XII)
- (94) *Bena aurthenko huntan trunpatiüren dira.* (Etch “Eihartxe eta Miñau”)

Landanko forma XVIII eta XIX. mendeetako testutan ageri da (95)-(99); badirudi Zuberoan haxe izan dela ohikoa, zeren *-n* gabea behin baizik ez baita ageri (100).

- (95) *Priorepecoac edo guehieneti landancoac behar du içan enthelegu handitan prioriareki.* (Ressegue 23)
- (96) *Uztarilaren hamasseydenetic landanco lehen igantia.* (Mercy 9)
- (97) *Confrariaco personnen hilcety landanco bilkhuran.* (Mercy 34)
- (98) *Comunionetic landanco actiac.* (Medit 207)
- (99) *Comunione landanco othoitcia* (HOrdre 208)
- (100) *Landakotik beitziren bia phitxer kholkun.* (Etch “Gaztalondoko neskatilak”)

[-n + -ko] segidak egitate zahar baten arrastoa dela suma badezakegu ere, zenbaitetan testuek kontrakorik iradoki lezake. Bada, *etxe(n)ko*-ren kasuan, Tartasen agerraldi bakanagatik ez balitz, *etxenko* guztiak nahiko berankorrek dira; hori ez ezik, *-n* gabeko forma maizago ageri da *etxenko* baino (zifrentzat ikus 18. TAULA).

- (101) *Etcheco suia etcheco hautsaz estal.* (Saug 202 & O Pro 170)
- (102) *Bihia peitu den etxeko gauza guziak dira saltzeko.* (O Pro 100)
- (103) *Ezin konserbatzen badu exenکو bakia bere senharrareki* (Tt Arima)
- (104) *Beraz Jesus-Christen etchecon saintutarçuna certan çagoan?* (Bp II 37)
- (105) *Jesus-Christez, eta haren etchecon saintiez* (Bp II 37)
- (106) *Bere mainater eta etchecon* (Ressegue 22)
- (107) *Etxeko liskar baterez lotsa eztena* (Egiat I 1)
- (108) *Haren ezne anaia aldiz etxeko lan güzietan eskia zian ezarten* (Egiat I 4)
- (109) *etxeko semiak primiak beno baliosago diradiala* (Egiat I 15)
- (110) *Aizoer meskabürük e'lirókiana, ezütino lehenik etxenکوak tzapatu.* (Egiat I 17)
- (111) *etxeko menajia ere orai / harek egiten dü.* (Malqu 223)
- (112) *Etchenco laner jarraikitcen den emaitia.* (Medit 10)
- (113) *Etchenco berriac campouan khountatcen badutie.* (Medit 194)
- (114) *Ichilka etchenco houna saltcen edo emaiten [...]* (Medit 197)
- (115) *Ezpadutie etchecon hounac, berayenac balutie beçala konserbatcen* (Medit 194)
- (116) *Etchenco bestic “Les autres membres de la famille”* (Etch 174)
- (117) *Bost etchecon “Cinq personnes de ma famille”* (Etch 180)
- (118) *Eta etxenکو berrien jakiteko / gitian hebeti retira.* (Chiveroua 162)
- (119) *Jincoa eta etchenco lanac baicic eztutu gogoan.* (MaiMarHil 80)
- (120) *Etchenco bortha cerraturic celaric* (EvS 20, 19)
- (121) *Sinhetxi cian berac eta bere etchecon oroc.* (EvS 4, 53)
- (122) *Etcheco horic elhestan jaun horreki.* (SGrat 5)

Etxenکو formak ez bezala, *goizankok* salbuespen bakarra du corpus osoan (128) & (129). Ohart bedi *goizeko* *bederatz*i *orenak* bi maneratan emanak ageri direla (129) & (130).

Halaber, markagarria da *goizanko* / *arratseko* kontrastea (126) & (131): ***arratsenko* edo ***gaianko* ezezagunak dira guztiz. (133)-n, *gaii*-ri lotutako *-ko* atzizkiak balio destinatibo-prospektiboa hartzen du, (127)-ko *goiçanko*-k bezalaxe. Azkenik, ohart (75)-eko inesibozko hirukotea, (76)-an hautsia.

- (123) *Igantê batez goiçanco bederatçu orenen ungunian.* (Bp II 71)
- (124) *Goyçanco othoitciaren landan.* (CatOlo 5)
- (125) *Goiçanco içarra eta / arguy beritablia.* (StJul 455)
- (126) *Goiçanco eta arratseco othoitciary* (Mercy 31)
- (127) *Bihar goiçanko houna nukeçu.* (SteEli 1417)
- (128) *Celuco bortha, Goyceco içarra, othoi eguiçu gouregati.* (DKhi 86)
- (129) *Goyceco bederatçu orenen ungunia* (DKhi 77)
- (130) *Goizanko bederatzü orenetan.* (CatS)
- (131) *Çoure goyçanco eta arraxeco othoitcez campo.* (UskLi 99)
- (132) *Eguna arguitcen has artino, eta goiçanco içarra jeiki artino.* (Epit II 1, 18)
- (133) *Beste Noel bat Nathivitate gaico.* (NLilia 6)

2.1.4. Ondorioak

Bazterreko mintzoez, eta partikularzki zubererak, euskalaritzaren tradizioan *inesibo arkaiko* deitu izan den ezaugarria gorde dute, hau da, inesiboaren *-n* marka zuzenean temari eranstea —horixe da haren jatorrian aditz-izenarekin, edo oro har toponimoekin gertatzen dena—. Zuberoako testuen azterketak inesibo mugagabe arkaikoaren etsenplu franko eman du: *arratsen*, *barnen*, *etxen*, *gañen*, *ihizen*, *ondon*, *soñen*, gehi orokorrak diren *aurthen* edo *heben* bezalakoak ere.

Baina inesibo arkaikoa arrunt ageri *barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioen ezkerreko sintagman, gure corpusaren arabera testuinguru horretan inesiboaren horrela deklinatzea emankorra baita, bederen XIX. mendera arte. Halere, inesiboaren molde arkaiko horren pare, Zuberoan *agorrikan*, *arratsan*, *goizan* edo *huran* bezalako forma berriak ageri dira lehen testuetarik.

Alderdi semantikotik, egungo zubereraren gramatikagileek *etxen* vs. *etxian* formen erran-nahien artean ezartzen duten bereizkuntza ez da garbi lekukotzen Zuberoako corpus historikoan.

Azkenik, inesibo arkaikoari zein mugatuari begira, [-n + -ko] morfemen segida aztertu dugu. Euskara Arkaiko eta Zaharrean ohikoa zen segida hori, mintzo guztietan (*eguneango*, *hetango*), egungo euskaran soilik zenbait fosilek atxikirik (*aurtengo*, *ondorengo*). Zuberoan, fosil orokorrez harago, [-n + -ko] bestelako formatan ere ageri da: *etxenko*, *goizanko*, *landanko* edo *ondo(a)nko* ongi lekukotuak dira, eta gehiago dena: *goizanko* edo *landanko* parean salbuespen dira *-n* gabeko formak.

2.2. Ablatiboaren polimorfismoa Zuberoan

- 3.2.1. Sarrera
- 3.2.2. Partitibo-ablatibo arkaikoaren markaren iraupena
 - 3.2.2.1. *-(r)ik* izenordainekin
 - 3.2.2.2. *-(r)ik* izen arruntekin
 - 3.2.2.3. *-(r)ik* leku izenekin
 - 3.2.2.4. *-(r)ik* denborari lotutako *da(n)* postposizioarekin
- 3.2.3. Ablatibozko marka berriaren eta berriagoaren arteko lehia
 - 3.2.3.1. *-ti* & *-tik* parearen agerpena Zuberoako testuetan
 - 3.2.3.2. Ikertze berezi bat: *hebe(n)ti(k)*
 - 3.2.3.3. *-tila* morfema luzatua
 - 3.2.3.4. Informazio intradialektalik ote?
- 3.2.4. Ondorioak

2.2.1. Kontzeptualizazioa

Egungo euskarak badu ablatibo bat, mugimenduaren abiapuntuari erreferentzia gisara ulertua (*nondik*, *norengandik*), denborazko balioa ere har dezakeena (*noiztik*, *noizdanik*).¹⁹¹ Ablatiboak polimorfismoa erakusten du: *-tik*, *-tika(n)* edo *-(r)ik* morfemei bizidunentzako aukerak gaineratu behar zaizkie: *-a(ren)gandik*, *-ganik*, *-aren baitatik/baitarik*. Denboran gibelera eginik, badira oraino morfema gehiago: Araba eta Bizkaiko testu arkaiko eta zaharretan ezaguna da *-rean* morfema, bai eta *-reanik* haren bertsio pleonastikoa. Hori ez ezik, mendebaldeko mintzoetan, orain *ablatibo* deitzen dugunaren baitan XVIII. mendera arte bi kasu bereizten ziren: 1) egiazko ablatiboa, *-(r)ik* eta *-rean(ik)* morfemen bidez adierazia, eta 2) prosekutiboa, *-ti(k)* morfemaz (Lafon 1948; Lakarra 1984). XVIII. mendez geroz, ablatibo vs. prosekutibo bereizkuntza lausotuz doa.¹⁹²

Grâce à la comparaison de dialectes d'une même époque, on peut voir que le suffixe casuel d'ablatif *-tik*, soul. et bisc. *-ti*, est un ancien suffixe de dérivation servant à former des adjectifs. Ceux-ci pouvaient entrer dans des syntagmes du genre de lat. *ibant nocturni*. Dans le biscayen du XVI^e siècle, le cas en *-ti* n'indique jamais l'origine ou l'éloignement, mais l'endroit par lequel, à travers lequel on passe. (Lafon 1970: 171)

¹⁹¹ Frantsesez egindako euskalaritzan, *allatif* terminoak ondoko baliokideak ditu: *discédent* (Haritschelhar 1970) eta *élatif* (Lafon 1948, Oyharçabal 1991 edo Orpustan 1994, besteak beste).

¹⁹² Bilakaera horren laburpen egoki batentzat ikus Santazilia 2013, beste akademiko batzuen ekarpenak biltzen dituen.

Ekialdeko mintzoei doakienean, erran behar da ez dela, lehen testuetarik, kasu prosekutiborik, balio hori zenbait postposizioen medioz adierazten delarik (*bortüan gaindi, mendian zehar*). Ablatiboan funtsean bi aukera lekukotzen dira ekialdeko euskarari: *-(r)ik* & *-ti(k)*. Ikusiko denez, *-(r)ik* ablatiboaren marka zaharrena kontsidera dezakegu, *-ti(k)* berriak gradualki ordezkaturia, eta mugagabeko zein pluraleko paradigmataria plegaturia (*-etarik*), bai eta bizidunen *-ganik* markara ere. Halaber, marka berria ez da beti bat: bada *-ti* vs. *-tik* lehia bat, bigarrenaren alde ebartziko dena. Bestalde, Etxepareren etsenpluz harago, Ekialdean *-tika* morfemaren bi aztarna atzeman dugu, biak *-tikako* segidan:¹⁹³

(134) *Santa Theresac celuticaco maniac coffessoraren arguietarat uzten dutu (Medit 162)*

(135) *Hounec sortceticaco utxu cenari beguiac çabaltu dutianaz gueroz (EvS 13, 37)*

Begiak historiaurreko egoeretara itzuliz gero:

There is great controversy as to the origin and grammaticalization process of these morphemes. Although Uhlenbeck (1903 [1909/10]: 107) postulated an evolution *-tik* > *-ti*, Lafon (1999 [1948]: 199) is right when he states that there are no grounds for such an assumption. Michelena (*FHV*: 236) is of the same opinion as Lafon [...]. Schuchardt (1947 [1923]: 51), in turn, proposed that *-tik* was the juncture of *-ti* plus *-(r)ik*. He related the former element to the *-ti* denoting 'place' [...]. This would not account for the variant *-tika*, already present in Dch. (*zeru-tika* 'from heaven') and Laz. (*Gaztela-tika* 'from Castile'), nor for the variant G. *-tikan*, derived from it. (Santazilia 2013: 263-264).

Lafonek (1948: 200-202) ablatiboaren *-ti* eta adjektiboak eratortzen dituen *-ti* morfema lotu zituen (*negarti*), horretarako sintaxiaren berranalisia proposatuz, hain zuzen ere subjektuaren aposizioa aditzaren osagarri bihurtzea, zeinaren zantzuak XVI. mendean aurki bailitezke, Oihenartek bildu zenbait erran zaharretan (44, 85, 106, 288, 418 edo 443; ikus azkena (136)-an). Behin izenaren morfologian sartua, ondoko urrats batean *-ti* morfemak *-tik* alomorfoa garatuko zukeen.

¹⁹³ Morfema hori prosekutiboaren *-ti* marka zaharrenean gainean eraikia dateke, izaera adberbialik duen *-ka* luzapena erantsirik. Araban eta Nafarroa Beherean lekukotua da: *Cerutica iayxi cedin harçaz amatoruric (LVP* "Emazten fabore"); *De villa en villa, lecutica lecura (Lcc)* eta *Gaztelatica jentil onbre bat orayn etorri ey jacu (Lazarraga 1180r)*. Gure corpusean *-tikako* segidan fosildua ageri da, biga etsenplutan: *Santa Theresac celuticaco maniac coffessoraren arguietarat uzten dutu (Medit 162)* & *Hounec sortceticaco utxu cenari beguiac çabaltu dutianaz gueroz (EvS 13, 37)*.

(136) *Suretic espala* “Le coupeau tient de la nature du bois duquel il est tiré” (O *Pro* 443)¹⁹⁴

Azken buruan, Lafonek (1948: 206) “très ancienne” bezala kalifikatzen duen denbora batean, euskarak ez zukeen *-ik* partitibo bat eta *-ti(k)* ablatibo bat, *-ik* partitibo-ablatibo bakarria baizik; hortaz Zuberoan toponimoentzat usatzen den ablatiboaren *-(r)ik* moldea: *Horra diüzü Maulerik* “il vient de Mauléon”.

Zuberoako euskara historikoaren ablatiboaren aukerak funtsez egungo euskalkiarenak dira (ikus 20. TAULA); aldea gehiago ageriko da aukera horien banaketan, eta *-ti(k)* morfemaren *-k* gabeko itxuraren erabilpenean. Atal honetan Zuberoako ablatiboaren bilakaeraren berri emanen dugu lehen testuetarik. Nagusiki, bi aferatan pausatuko dugu arreta: lehen, *-(r)ik* ablatibo arkaikoaren agerpenaren testuinguruak eta iraupena; eta bigarrena, *-ti* eta *-tik* marken arteko lehia eta, halakorik balitz, banaketa.

20. TAULA. Egungo zubereraren ablatiboa.

	MUGAGABE	SINGULAR	PLURAL
iz. arruntak	<i>-(e)tarik</i>	<i>-(e)tik</i>	<i>-etarik</i>
iz. bereziak	<i>-(e)rik / -tik</i>	-	-
bizidunak	<i>-(e)nganik</i>	<i>-a(ren)ganik</i>	<i>-énganik</i>

Iturria: Etxebarne 2011: 74

2.2.2. Partitibo-ablatibo arkaikoaren markaren iraupena Zuberoan

2.2.2.1. *-(r)ik* izenordainekin

Izenordainen deklinabidea bereiz aztertu beharreko atal bezala ikusten dugu; hemen pare bat ohar baizik ez dugu eginen. Bada, oro har, Zuberoako testuek hiruko sistemaren irudia eskaintzen dute izenordainen kasu lokatiboetan (ikus 21. TAULA): lehenik, **-ga* morfema erakusten duen aukera; bigarrenik, mugagabeari lotzen zaion *-ta* morfema agerrarazten duena¹⁹⁵ eta, hirugarrenik, *baitha* postposizioaren gainean eraikia.

¹⁹⁴ Beraz, Lafonek erremarkatzen duen bezala (1948: 205-206), “*sureti(c)* signifiait primitivement « qui tient de la nature du bois » et en est venu a signifier « (vient, est tiré) du bois »”.

¹⁹⁵ 22. TAULAN ikusiko denez, Zuberoako testuetan lehen moldea nagusitzen da. Halere, d’Abbadie & Chahoren gramatikan ez da izenordainen paradigmatan agertzen; “se déclinent au mode indéfini, suivant la règle commune. *Ni* ‘je, ou moi; *Nik* ‘je, ou moi’; *Nitaz* ‘de moi, par moi’; *Nitan* ‘en moi, dans moi’; *Niri, neri, eni* ‘à moi’; *Niren, nere, ene* ‘pour moi’; *Nireki, nereki, eneki* ‘avec moi’, etc. (1836: 42).

21. TAULA. Izenordainen kasu lokatiboak Zuberoan.

	INESIBO	ABLATIBO	ADLATIBO
1.s.	<i>nitan / ene beithan</i>	<i>ni(re)ganik / nitarik / ene beitharik</i>	<i>ni(re)gana / nitara / ene beithara</i>
2. s.	<i>hitan / hire beithan</i>	<i>hi(re)ganik / hitarik / hire beitharik</i>	<i>hi(re)gana / nitara / hire beithara</i>
1.p.	<i>güitan / gure beithan</i>	<i>gu(re)ganik / gütarik / gure beitharik</i>	<i>gu(re)gana / gütara / gure beithara</i>
2.p.	<i>züitan / zure beithan</i>	<i>zu(re)ganik / zütarik / zure beitharik</i>	<i>zu(re)gana / zütara / zure beithara</i>

Izenordainen kasu lokatiboetako hiruko sistema horretan, ablatiboari dagozkion aukera morfologiko guztiek *-(r)ik* morfema zerratzen dute, hizkuntzaren lehenagoko fase batean partitiboari zein ablatiboari lotua zena. Corpus osoan ez da ageri ***-gandik* edo ***-gantik*, beste mintzo batzuetan posible dena. Gaztigatu behar da *baitha-* moldea arras gutxitan baliatua dela inesibotik kanpo: izenordaineekin, corpus osoan 16 agerraldi ablatiboan edo adlatiboan, vs. 149 inesiboan (cf. § 2.5 eta, zehazkiago, § 2.5.2.2). Erran gabe doa, izenordainen forma indartuekin ber aukera morfologikoak eratzen ahal dira, eta orobat singularreko 1. pertsonan *ene* formaren gainean eraikiak.

- (137) *Certain hutz eguin derat ene ganic hola hurruntceco? (MaiMarHil 63)*
 (138) *Çuq nitaric desiratcen duçunaren eguiteco. (Mercy 3)*
 (139) *Noure beitaric, [...] orai gogoz eta bihotcez erraiten diçut (MaiMarHil 125-6)*
 (140) *Jalkitcen gutucq hireganiq / alagrantciaz bethericq. (StJul 1223)*
 (141) *Erho behar dugu / graçariq goureganiq / Ezpeitie merechi. (Xarlem 1242)*
 (142) *Artçain guehienac gutaric egurukiten dian beçala. (CatOlo2 5)*
 (143) *Hanitz ouhoure çuganic / errecebitcen beitut. (SteEli 170)*
 (144) *Ezagutcen diçugu eztugula deusere çutaric giten eztenic. (DKhi 7)*
 (145) *Çoure beithatic diocia hori, ala bestec erranic nitçaz? (EvS 18, 34)*

Baina *-ganik* eta *-tarik* ez dira beti ber baliotakoak: agerraldi gehienetan ablatibo bezala ulertzen bada ere, *-tarik* markak batzuetan bestelako ñabardura semantikorik adierazten du. Hola, (146)-ko etsenpluan *nitarik* formak komunzki instrumentalez eratzen den egitura ordezkatzeko du, testuetan ongi lekukotua: *Çu cira ene jabia; eguiçu nitçaz plazer duçuna (Medit 213)*. (147) & (148)-ko pasarteetan *gütarik* partitibo garbiak dira, eta (149)-ko *nitarik*, *dudarik* batere gabe prosekutiboa. Hauekiko kontrastean, *-ganik* markak beti ablatibo hutsa adierazten du, hots, mugimendu edo norabidearen abiapuntua, eta batzuetan jatorria.

- (146) *Eguiçu nitaric, ô ene Jincou houna, creatura berri bat. (MaiMarHil 126)*
 (147) *Eta arren gutaric nourc haitatuco du Ifernuco suian egoitia? (Medit 76)*
 (148) *Nur da gütarik / hori egiten estienik? (Pierris 39)*
 (149) *Ni niz bortha; nitaric nourbait sartcen bada, salbatuco da. (EvS 10, 9)*
 (150) *Ceren ordu da jujamentia has dadin Jincouaren etchetic; eta hasten bada lehenic gutaric, cer içanen da Jincouaren evangeliouari obediten ez tirenen acabantça? (Epit I 4, 7)*

Orobat erran daiteke *baitharik* moldeaz zeren, haren agerraldiak bakanak izanik ere —corpus osoan hamasei—, horietan halako espezializazio semantiko bat sumatzen ahal baita (ikus II, § 2.5). 22. TAULAK izenordainen ablatiboaren bi aukera hauek duten agerpen zehatza biltzen du.

22. TAULA. Izenordainen ablatiboaren aukerak Zuberoan.

	<i>nitarik</i>	<i>hitarik</i>	<i>giitarik</i>	<i>ziitarik</i>	orotara	<i>eneganik</i>	<i>ni(re)ganik</i>	<i>hi(re)ganik</i>	<i>gu(re)ganik</i>	<i>zu(re)ganik</i>	orotara	<i>baitharik (oro)</i>
<i>O Po</i> 1657	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
<i>Tt Onsa</i> 1666	-	-	-	-	-	7	1	-	2	2	12	-
<i>Tt Arima</i> 1672	-	-	-	-	-	3	4	-	-	-	7	-
<i>Bp</i> 1696	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
<i>CatOlo</i> 1706	1	-	1	-	2	-	-	-	-	1	1	-
<i>Othoitce</i> 1734	-	-	-	-	-	3	1	-	-	9	13	-
<i>Mst</i> 1757	2	-	-	1	3	13	2	-	1	1	17	3
<i>StJul</i> 1770	-	-	-	-	-	2	-	2	1	5	10	-
<i>Mercy</i> 1780	1	-	1	-	2	-	-	-	1	1	2	-
<i>Egiat I</i> 1785	-	-	1	1	2	-	1	-	-	1	2	-
<i>Chiveroua</i>	-	-	-	-	-	2	-	1*	-	2	5	-
<i>Edipa</i> 1793	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1	2	-
<i>Xarlem</i> ca.1800	-	-	-	-	-	2	-	-	1	-	3	-
<i>SteEli</i> ca.1810	-	-	-	-	-	3	-	-	-	2	5	-
<i>DKhi</i> 1812	-	-	-	1	1	-	-	-	-	1	1	-
<i>UskLi</i> 1814	-	-	-	-	-	-	6	-	-	3	9	-
<i>CatS</i> ca. 1836	-	-	-	1	1	1	-	-	-	-	1	-
<i>Khurutch</i> 1838	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
<i>Medit</i> 1844	-	-	4+1*	-	5	9	-	-	-	12	21	-
<i>CanBel</i> 1848	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1	-
<i>Etchahun</i>	-	-	-	-	-	1	1	2	-	-	4	-
<i>Chaho</i>	-	-	1	1*	2	-	-	-	-	-	-	-
<i>Archu Alh</i> 1848	-	-	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-
<i>MaiMarHil</i> 1852	1	-	-	-	1	1	-	-	1	1	3	5
<i>Myst</i> 1856	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4	4	-
<i>HOrdre</i> 1860	1	-	-	-	1	1	-	-	-	-	1	1
<i>EvS</i> 1873	1	-	-	-	1	-	-	-	-	2	2	2
<i>Epit</i> 1873	-	-	2	-	2	-	-	-	-	-	-	-
<i>Catuchuma</i> 1899	-	-	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-
<i>Orotara</i>	7	0	13	5	25	49	16	5	8	51	129	11

* Izenordainen forma indartuak

2.2.2.2. *-(r)ik* izen arruntekin

Puntu honetan oroz gainetik *etxerik* formaz arituko gara —vs. *etxeti(k)*—. Pare horretaz landara, *-(r)ik* morfemaren erabilpena izen arruntekin guztiz ezohikoa da; adibidez, ez dugu atzeman ***bortharik*, ***bortürrik*, ***elizarik*, ***herririk* edo ***mendirik* bezalako ablatiborik, izen horiek guztiak *-ti(k)* morfemaz hornituak ageri direnean. Bai, ordea, *biderik* forma, behin baizik ez (151).

(151) *Eta elaité makhur haren bideric, ez esquin, ez ezkhuer* (Tt Onsa 113)

Gatozen, beraz, atal honetako *vedette* hitzari lotzera. Egungo Zuberoan *etxerik* vs. *etxetik* bereizkuntza egiten omen da: “Etxerik (*ene etxetik*) ≠ *etxetik* (*zoin-nahi etxetarik*)” Etxebarne (2011: 64), *etxen* & *etxean* parearen antzora (cf. § 2.1.2.1.3). Larrasquetek distintzione hori aipatu zuen:

« de chez moi », « de chez toi », etc., quand il s'agit de la personne qui parle, se dit *etcherik* (prononcé *etcheyk*). On n'emploie l'ablatif de *etche* que lorsqu'il s'agit d'une autre maison. On dit *horra duzu etcherik* « il vient de chez lui », mais *horra duzu kharrikako etcheti* « il vient de la maison du village » (1939: 141, s.v. *-ik*)

Gèzek bikoiztasunaren berri eman zuen, bereizkuntzarik gabe: “*etcheric elki da*, il est sorti de la maison. Cependant on peut très-bien dire, et on dit aussi: [...] *etcheti elkhi da*” (1873: 22-23). Ñabardura semantiko hori argi dea testuetan? Corpusean hamazazpi aldiz ageri da *etxerik*, eta sei *etxeti(k)*. Ondoko adibideak balizko erregelaren kontrako dira, zentzu batean ala bestean: (153), (155), (156), (159), (160), (161), (163), (165) edo (170). Euskalaritzatik *etxerik/etxetik* pareari adiera bereziak esleitu zaizkion arren, badirudi testuetan, besterik gabe, forma zaharra atxiki duten egileek dutela erabiltzen, dagokion pertsonaren etxea izan ala ez. Hariari tiraka, ohart gaitezke nola bi autorek forma bata ala bestea eman dezaketen ber pasartean; cf. batetik (161) & (162), eta bestetik (165) & (166).

- (152) *Armak eskuan, [...] bere etsaiaren bere etxetik, [...] akazatzeko.* (Tt Onsa)
- (153) *Khorpitçaren hartcera içan diratian etcheti haren hobialadrano.* (Mercy 35)
- (154) *Khen ladin khorpitza etxerik ta arakietara urthik.* (Egiat I 22)
- (155) *Gure etxerik etzira / seküla elkhiren.* (Malqu 244)
- (156) *Jauzeraziren derot / neskatua etxeti.* (Malqu 47)
- (157) *Nik emanen derat ostatü / etxerik nahi bahai aitak idoki.* (Cabalçar 54)
- (158) *Estiik ikusiren Marzelinarik, / eia ehaidanez idekiren etxerik.* (Chiveroua 270)
- (159) *Phenxatcen dia bere aitaren / etcheric idekitia?* (SteEli 1135)
- (160) *Guero berhala arropa desguisatu bateky jalki bere etcheric.* (UskLi 214)
- (161) *Jesus-Christ Caypharen etcheric Pilatusen etchera eraman ciela.* (UskLi 75)
- (162) *Guero eraman cien Jesus Caiphassen etcheti.* (EvS 18, 28)

- (163) *Hik igorri ene etxerik erranik han deüs enila.* “Tu m'as renvoyé de chez moi, me disant que je n'y possédais rien” (Etch 240)
- (164) *Mithil atrebit batek bere nausia etxetik kanpo [...] aurthikitzen diala.* (Chaho AztBeg XII)
- (165) *Goure Salvaçale divinouac Khurutchiaz cargaturic igaran cien bidia erran nahi beita Pilatusen etcheric eta Calvarioualaco thermagnia çouintan.* (Khurutch 3)
- (166) *Goure Salvaçaliac khurutchiaz cargaturic igaran cien eremia, erran nahi beita, Pilatusen etchetiç Calbariouala dranoco artia* (Ip KurBD 3)
- (167) *Eztialaric laur ourthe baicic; pharticen da etcheric.* (MaiMarHil 24)
- (168) *Hen heiagorala etcheric elkhi cen halçaiña.* (MaiMarHil 116)
- (169) *Etcheric deus eman edo idoki dianeç, jaben ichilic.* (HOrdre 194)
- (170) *Noun ezten bere etcheric bi orenen bidian.* [= ‘norberaren etxetik’] (Myst 25)
- (171) *Ceren ordu da jujamentia has dadin Jincouaren etchetiç.* (Epit I 4, 17)

2.2.2.3. *-(r)ik* leku izenekin

Gèzeren gramatikan leku izenei *-(r)ik* esleitzen zaie “ablatif de mouvement” delakoan (1873: 21); egungo lan deskriptiboen arabera leku izenekin *-(r)ik* marka erabiltzen da (cf. Casenave-Harigile 2001 eta Etxebarne 2011), baina *-tik* ere posible delarik. Haritschelharrendako, hau zubereraren ezaugarria litzateke: “emploi du partitif [*-(r)ik*] en souletin alors que dans les autres dialectes on emploie le discédent [*-tik*]” (1970: 585). Logikoa da pentsatzea denboran gibelago begira ahala, lehentasunezko posibilitatea *-(r)ik* morfemarena izan dela: hona Oyharçabalek *Bordeleriq* formari egiten dion iruzkina “Avec un élatif en *-riq*, régulier dans la pastorale sur tous les noms propres de lieu” (1991: 214).

Zuberoako testurik zaharrenetan beti *-(r)ik* espero arren, Etchartek gotorki erabiltzen du *Mauleotic* —izan ere, data ematen duen orotan: 2, 2r; 3, 2r; 4, 1v; 6a, 1r; 7, 2r; 8, 1v & 9, 1v— (172); paradoxikoki, bi mende berantago *Mauleti* ageriko da (183). *Charlemagne* trajeriak lekukotza argia ematen du: *Españarekin* izan ezik,¹⁹⁶ gainerako leku izen

¹⁹⁶ Aldiz, Charlemagnen *-ti(k)* morfema ere ageri da toponimoekin: houna nuçu *Espaignatiq* / berri gaistos beteriç (847); moro gentia oro / *Espaignatiq* Jdoquiric (938); moyhen haren *Ezpagnatiq* / beitateque jauç erastia (610) edo Jouan çitayen françiarat / *Espagnatiq* Jhesi (1079). Beharbada leku izen zehatz honekin baizik ez da gertatzen? Hala dirudi, ezen corpus osoan ez baita **Españarik behin ere ageri; cf. *Españatik* erakari gabe huna. (Chiveroua 180) & Marzelina *Españatik* / gezures nizu erakari (Chiveroua 190). Kurioski, Frantziarekin kontrakoa gertatzen da: ez da **Frantziatik, betiere Frantziarik: *franzariq* berririç / Estuq eramanen (Xarlem 1333); Guero jouanen guira / bertan Franciara; / eta *Franciaric* landan / bertan Alemanietara. (SteEli 1348); *Frantziarik* zer berri / deitadazie ekarten neri (Chiveroua 108); *Frantziarik* kanpo gure dihariak galdu gabe. (Chaho Ariel 1852-2-19). Honek guztiak badu bere kontrapartea adlatiboan: Zuberoako testuek Españala(t) baina Fran(t)ziara(t) lekukotzen dute (cf. § 2.3.2.2.6).

guztiek in *-(r)ik* ediren dugu (174)-(179), eta orobat erran daiteke *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriak (180)-(182).

- (172) *Mauleotic urrietaren hoguey eta borz guerrenian.* (Etchart 6a, 1r)
- (173) *Noiz utçuli cen Egiptaric?* (Bp II 33)
- (174) *Çerentaco gascognariq hiq / behar ihan phartitu* (Xarlem 1356)
- (175) *Castilariq bertan / Jdoqui ditçagun* (Xarlem 880)
- (176) *Andalouçariq castilanouaq / beguiratu behar dutugu* (Xarlem 1039)
- (177) *Bordeleriq jalqui gabe / galduren duq Biçia* (Xarlem 416)
- (178) *Partitu nuq barcelonariq / hire destruitcec* (Xarlem 766)
- (179) *Ayta Saintia edireiten da / Erroumariq canpo* (Xarlem 1200)
- (180) *Hanitz duçu, sira, [...] Portugaleric houna / bidian eçartia.* (SteEli 110)
- (181) *Sira, salutatcen çutut; / Grenadaric houna nuçu.* (SteEli 1130)
- (182) *Madama, Galiciaric / orai heltcen nuçu* (SteEli 1262)
- (183) *Güre ama Mauleti / ingoiti huna zeiküzü* (Malqu 68 & 77).
- (184) *Bethania ezpeitcen hurrin Jerusalemeric.* (EvS 11, 18)
- (185) *Judieuq igorri beiciren Jerusalemetic.* (EvS 1, 19)
- (186) *Madrillerik Alemanietara artino hanitxek irakurri die.* (Chaho Ariel 1852-2-19)
- (187) *Jacaric abiatcen, hiritic jelkhi dienian, uzten bera...* (SGrat 13)

Baliteke toponimo batzuek portaera zehatzik ukaitea; *Españaz* eta *Frantziak* erran denaz gainera (ikus 196. oin-oharra), beti *Barkoxerik* & *Erromarik*, baina *Baionatik* & *Galileati* aurkitu dugu; *Pariserik* aukerari salbuespen bakarra oposa lekioko.¹⁹⁷ Nolanahi ere den, honela laburbil daiteke leku izenen ablatiboaren bilakaera: salbuespenak salbuespen, zenbatenaz testua zaharrago izan, hainbatenaz *-(r)ik* maizago, eta *-ti(k)* bakanago.

2.2.2.4. *-(r)ik* denborari lotutako *-da(n)* morfemarekin

Denborazko aditzondoetan *-da(n)* morfema ager daiteke, maizenik ablatiboz: *jada*, *jadanik*, *atzodanik*, etab. De Rijken proposamen iradokigarrian (1992 & 1995), behiala **da* zatekeen euskararen hitza lat. *nunc* adierazteko, gero *orain* maileguak ordezkatu zukeena, frantsesaren historian *maintenant* berriak *or* zaharra ordezkatu zuen bezalaxe. Maizenik **da* patrimonialaren fosilek inesiboaren marka atxiki dute. Alta, Lakarrak (2006a, 2006b, 2008a) ez du De Rijken etimologia hobesten: batetik **d-* > *l-* bilakatzea espero genuke eta, bestetik, aldi historikoan *da-* hastapeneko zenbait adizki sintetikok geroaldia adierazi dute; hortaz, Lakarrarentzat *da-* imperfektibozko marka izan liteke.

¹⁹⁷ Gèzek *Máuleric* ematen du, baiian *Bayounáric/tic* (1873: 21). Bestenaz, gure corpusean *Barkoxerik* (Etch 566, 578 & 590); *Errumarik* (Xarlem 1200 & *UskLi* 202); *Pariserik* (Etch 522, 532 & 590; Xarlem 224, baina *Parisetik* Ariel 1849-9-29); *Baionatik* (Ariel 1848-6-30); *Galileati* (EvS 7, 41 & 7, 52).

Gatozen harira, afera honetan etimologiek ez baitute gure xedea baliogabetzen. Bere berreraiketan, De Rijkek preseski aipatu zuen zubereraren baliagarritasuna, bazter hizkera den izarian eta, zubereraren barnean, Inchauspereen testigantza. Hain zuzen, Inchauspereengan atzeman zituen *oraidara* ‘usque modo’ balizko arkaismoaren lekukotasun bakarrak (1992: 355).¹⁹⁸ Ablatibotik kanpo, gure corpusean *geurzdara* ‘heldu den urtea artio’ (188) eta, batez ere, *bihar dara* ‘bihar arte’ (198) aipatu behar dira —*d(r)ano* ere bai; ikus. § 2.4.3.2—.

Bestalde, eta ablatiboazko morfemekin gertatzen ohi denez, *-danik* espazioari lotutako hitzei erantsia ere ageri da, *goradanik* forman bezala non, paradoxikoki, adlatibo eta ablatiboaren markak batera baitautza (189), edo *hürriin & hüllan* parean, De Rijkek ere aipatua (193) — biak hedaduraren seinale argia—; guztiarekin, formarik bereziena Maisterren *gihaurdanik* iruditzen zaigu (192). Ohart, bestenaz, “denborazko ablatibo” deit genezakeenaren azken agerraldiak Anna Urrutyrenak direla (204)-(205)¹⁹⁹ Corpusaren lekukotzaz harago, erran daiteke De Rijkek bildu forma guztiak ez ziratekeela arkaismo, hedadurak baizik: *-da-* zaharra da, dudarik gabe, baina gure ustez haren zenbait erabilpen halako emendamendu batean ulertzeko dira.

- (188) Aurtenddanik geurzdara, anhitz eki eta euri. (O Pro 56)
- (189) Manu Jaungoiko aitaganik, / Goraddanik / Hetara bidaldua. (O Po XX)
- (190) Nola atzo danik egun draiño, egun danik bihar draiño (Tt Onsa)
- (191) Aitcindanic erran çutian, Jesus-Christec egariren çutian gaitçac. (Bp II 105)
- (192) [...] guihaurdanic eçkitakiala hagnbeste itchoura hounen uduriaren pian gordatcen-den exayari buhurt (Mst xviii)
- (193) Ceren bere buriac apha daduçcaner Jincouac hullandanic so eguiten beitu; gora daduçcaner aldiç eç hurrundanic baicic. (Mst xx)
- (194) Confraria piouso eta debot bat [...] jadanic eraikiric. (Ressegue 5)
- (195) Ezititan deusetaco balia, bena ordiandanic deüsic baliotaco diren. (Mercy 9)
- (196) Lehenddanik potheria dereiodala behardünentzat Jinkoak eman. (Egiat I 4)
- (197) Goure armadaren Erdia / deJaradanic galduriq dugu (Xarlem 291)
- (198) Jabe cirate çihaur / dispostçeco feytian / bihar dara gabe gaur (Xarlem 1371)
- (199) Egundanic hamabost ourthe / balimbada bicicen. (SteEli 610)

¹⁹⁸ *Halacoric ez-peita izan mundiaren hastetic oraidara* “qualis non fuit ab initio mundi usque modo” (Mt. 24, 21) & *Salvaçaliaren errana hastetic oraidara complitu içan da* “Lo que dijo el Salvador ha sido cumplido desde el principio hasta ahora” (Eguiazco erreligionia 391).

¹⁹⁹ Urrutyk 1873an argitara eman zituen bere bi liburuetan, orotara, honakoak aurkitu ditugu: *bethi danic* (EvS 5, 20), *dejadanic* (Epit I 1, 20 & III 3, 17; EvS 13, 2), *orai danic* (EvS 14, 17), *oraindanic* (EvS 13, 19) eta *ordudanic* (EvS 6, 66). Gure corpusean lekukotu gabe, halaber, bereziki Archuren honakoak aipa genitzake: *gaztedanic* (Pasmic LXX 18), *gaztaro danik* (ibid. CXXVIII), *hatsarre danik* (Jenesa II 8) & *heben danik* (Jenesa IX 11).

- (200) *Aspaldi danic hil ehortciric direnac beçala (UskLi 127)*
 (201) *Oraidanic eta bethicoz bessarcacen dut umilitatia. (Medit 128)*
 (202) *Haurrec ikhassiren beitie, goizdanic, Mariaren maitacen. (MaiMarHil 10)*
 (203) *Bethi danic [...] içan cira benedittionezco [...] lurbat. (HOrdre 76)*
 (204) *Ordudanic bereti bere dicipulietaric hanitxec utci cien. (EvS 6, 66)*
 (205) *Dejadanic abertituric ciradenaz gueroz, abisa citaie [...] (Epi III 3, 17)*

Denborazko erran-nahia dutenek ere ablatiboaren ohiko markak hartzen dituzte. Hitz horiek sistematikoki azterturik, ez dugu *-(r)ik* ablatiboaren marka zaharra singularrean ageri den kasu bakar bat ere atzeman, ez bada mugagabeen. Bistan dena, denboraren abiatzea bestelako kasu-markaren bitartez adierazten ahal da (219) & (220). Ondoko etsenpluetan gaindi ber hitzak agertzen dira *-ta-* morfoarekin (*-tarik*), eta ondoan *-ta-* gabe (*-ti(k)* atzizkiaz). Ohargarria da nola *goiz -ta-* gabe deklinatzen den (217), baina *eguerdi -ta-* rekin (218).

- (206) *Hirur urthetarik hirur urthetara (Chaho Ariel 1849-X-16)*
 (207) *Urthetik urthila tribulazionen semia plainu da kharazki (Chaho AztBeg XVI)*
 (208) *Bi hilabetetaric by hilabetetara (Ressegue 37)*
 (209) *Hilabetetic hilabetiala amens behar çunuke comuniatu (UskLi 99)*
 (210) *Dembora saintu haren lehen astetaric coffessatcera adelatu. (DKhi 75)*
 (211) *Aitcineco astetic (Bp I 20)*
 (212) *Asteca visitaturen tuye, bi egunetaric bi egunetara (Mercy 42)*
 (213) *Egunetic eguniala (Bp II 36)*
 (214) *Lehen vezperetaric ekhia sar artioco demboran (Mercy 7)*
 (215) *Besta houna, bezperatic. (Bela 6)*
 (216) *Sortceco orenetic orai artio (Myst 33)*
 (217) *Goycetic ulhun artecan. (UskLi 127)*
 (218) *Eta ireign cicien eguerditaric hirour orenetara drano (UskLi 36) [mugagabeen delako]*
 (219) *Ene lehen sortcepenaren orenaç gueroç (Mst III 18, 1)*
 (220) *Gaierdiz geroz, comuniatu artio (Catuchuma 58)*

2.2.3. Ablatibozko marka berriaren eta berriagoaren arteko lehia

2.2.3.1. *-ti* & *-tik* parearen agerpena Zuberoako testuetan

Sarreran azaldu bezala, hizkuntzaren garai historikoan baino lehenagoko faseetan —eta mendebaldean aldi historikoaren lehen mendeetan ere— *-(r)ik* atzizkiak ablatiboa adierazten zuen, eta *-ti* atzizkiak prosekutiboa. Azken morfema horren *-tik* itxurak bi azalpen izan ditu: Lafonentzat (1948) *-(r)ik* morfema zaharrarekiko analogiaz sortu zatekeen, eta Mitxelenarentzat bestelako bidetik eratu zen:

A nuestro parecer, ese elemento sufijado podría ser *-ka*, sufijo de función adverbial: para Landucci ‘por’ es *gati* y *gatica*, y ‘de villa en villa’ viene traducido por *lecutica lecura*. En textos bajo-navarros y labortanos del siglo XVII es frecuente *egundañotikako* ‘que existe ab

aeterno', de *egundañotik*. El mismo sufijo parece haberse agregado a la desinencia de partitivo en *yxilica* 'en silencio' (Dech. = *ixilik*), *guiçonica* (Pampl. 1610, = *gizonik*), *emanicacoa* (Ax. 419), de **eman-ik-(k)a-ko*, etc. (FHV 236-237)

Guk ez dugu proposamen bata ala bestea abantailatuko; hemen axola zaigunarentzat, bi esplikabideen arabera *-tik* da forma bigarrenkaria eta, beraz, berria. Zuberoako corpusean xerkatu ondoan, *-ti* & *-tik* parearen agerpen zehatzaren berri dakargu, 23. TAULAN ikusgai. Datuetarik, baina, ezin joera garbirik deskriba: gehiago iduri du *-ti* zaharraren edo *-tik* berriaren nagusigoa egilearen arabera gertatzen dela. Horrela, Oihenarten atsotizetan ez denean *-ti* baizik, XVII. mendeko idazleetan *-tik* guztiz gailenduko da, eta XVIII. eta XIX. mendeetako zenbait testutan *-ti* berriz ere nagusi ageriko da, baina besteetan *-tik*. Testu zaharrenek *-ti* morfema bermatzeaz landara, ardatz diakronikoan ez da norabide argirik sumatzen. Hortaz, beharbada bestelako logikara jo behar dezagun banaketa itxura ausazko horren konprenitzeko, izan dadila literatur hizkuntzaren eragina, nolabaiteko banaketa infradialektala ala bi faktore horien konbinazioa (cf. § 2.2.3.4).

23. TAULA. Ablatibo singularraren aukerak Zuberoan.

Lekukotasuna	-ti	-tik
O <i>Pro</i> ca.1600	33	10
Bela ca.1600	-	4
Zalgize ca.1600	5	-
Etchart 1616	-	19
O <i>Po</i> 1657	39	14
Tt <i>Onsa</i> 1666	6	222
Tt <i>Arima</i> 1672	3	80
<i>PrS</i> 1676	3	3
Bp 1696	2	68
<i>CatOlo</i> 1706	15	45
<i>Othoitce</i> 1734	5*	16
Mst II & IV 1757	10	71
<i>IP</i> 1757	2	8
Ressegue 1758	21	6
<i>StJul</i> 1770	27	42
Mercy 1780	21	22
<i>NLilia</i> 1782	13	3
Egiat I 1785	-	356
<i>Edipa</i> 1793	77	-
<i>Xarlem</i> ca.1800	37	98
<i>SteEli</i> ca.1810	43	44
<i>DKhi</i> 1812	32	6
<i>UskLi</i> (1-100) 1814	4	61
<i>CatS</i> ca. 1836	9*	103
<i>Khurutch</i> 1838	1*	7
<i>Medit</i> 1844	3*	denak
Ip <i>KurBD</i> 1847	1*	13
Etchahun	47	26
Chaho	40	68
Archu <i>Alh</i> 1848	17	57
<i>MaiMarHil</i> (1-100) 1852	2	83
Ip <i>Dial</i> 1857	3	46
<i>HOrdre</i> 1860	10	40
<i>EvS</i> 1873	33	69
<i>Epit</i> 1873	1	18
<i>SGrat</i> 1879	7	25
<i>Catuchuma</i> 1899	-	27

**Jagoiti, engoiti, gainti* bezalako forma lexikalizatuak baizik ez.

2.2.3.2. Ikertze berezi bat: *hebe(n)ti(k)*

Aditzondo honek garrantzizko bi aldagai ditu Zuberoan: lehena inesiboaren marka eta bigarrena ablatiboaren morfema. Beraz, lau aukeratan ager daiteke testuetan: inesibo markarik gabe *hebeti & hebetik*, eta inesibo markaz *hebenti & hebentik*; hauetaz gainera bada *hemen* aldaera ere.²⁰⁰ Ikuspegi diakronikotik, galdera da aukera horietarik zein den zaharren, eta zein berrien. Erantzuna Mitxelenaren iruzkin batean aurki dezakegu, bizkaierazko *emeko & emetik* formez:

Aun en los adverbios de lugar, vizc. *eme-ko*, *eme-tik* no representa nada antiguo, sino que sólo pueden resultar de una mutilación: la supresión de *-n* de *emen*, de donde están inconfundiblemente derivados. (1972: 315)

24. TAULAK *hebe(n)* aditzondoaren ablatibozko aldaera guztiak biltzen ditu, inesiboaren *n*-dunak nahiz gabeak, kasu marka batzuek zein besteaz hornituak. *-ti & -tik* pareari doakionean, corpusak ez du lehena XIX. mende hastapenera arte ematen; bigarrena, ordea, Tartasengandik ongi lekukotua da.

²⁰⁰ *Hemen* aldaera arras bakana da: Etchartek (1, 1v), Tartasek (*Onsan & Ariman* bosna aldiz) eta Archuk (20 & 36) baizik ez dute erabiltzen; beraz, erran liteke *hemen* ez dela Zuberoan errotua. Aldaera horrek beti agertzen du inesibozko *-n*, eta *-tik* ablatiboaren itxura berria: ez dugu ***hemeti(k)* aurkitu —salbuespen bakarra dudazkoa da: *bira ostikata eman eta / ideki zinzakeiet hementi*. (Chiveroua 141)—.

24. TAULA. *Hebe(n)* aditzondoaren ablatiboa.

	<i>hebenti</i>	<i>hebentik</i>	<i>hebeti</i>	<i>hebetik</i>
Etchart 1616	-	2*	-	-
Tt <i>Onsa</i> 1666	-	11*	-	5
Tt <i>Arima</i> 1672	-	5	-	5
<i>CatOlo</i> 1706	-	-	-	1
Mst 1757	-	2	-	-
<i>Petit Jean</i> 1769	-	-	1	-
<i>StJul</i> 1770	-	-	-	3
Mercy 1780	-	-	-	1
<i>Bala</i> 1788	-	-	1	-
<i>Jouanic Hobe</i> 1788	-	-	2	-
<i>Xarlem</i> ca.1800	-	3	4	13
<i>SteEli</i> ca.1810	1	1	6	7
<i>Malqu</i> 1807	2	-	-	-
<i>UskLi</i> 1814	-	-	-	2
<i>CatS</i> ca. 1836	-	1	-	-
<i>Medit</i> 1844	-	3	-	2
Etchahun	1	-	-	1
<i>CanBel</i> 1848	2	2	1	1
<i>Archu Alh</i> 1848	-	3*	-	-
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	13	-	-
<i>EvS</i> 1873	-	3	1	2
<i>Orotara</i>	6	49	16	43

* *Heme(n)* aldaera ere erabiltzen dute**2.2.3.3. -tila morfema luzatua**

Orain arte aztertu ditugun morfemak ez dira Zuberoako testuetan ageri diren aukera guztiak. Bada oraino *-tila* morfema “luzatu” bat, arras gutxitan baina segurki lekukotua. Lehen agerraldia Oihenarten neurtitzetan datza, guztiz paraleloa zaion *-gatila* motibatibozkoarekin batean (221).

- (221) *Jainko jauna gugatila, / Regnatu da zuretila.* “Le Seigneur Dieu, pour nous, a régné par le bois” (O Po XXII 3)²⁰¹

²⁰¹ Oihenarten olerki hau *Vexilla Regis* himno ospetsuaren itzulpen aski artistikoa da. Latinezko originalean, hauxe da hirugarren berseta: *Impleta sunt quae concinit / David fideli carmine, / dicendo nationibus: / regnavit a ligno Deus.* XVII. mendean testua arramoldatua izan zen; nolana ere, *a ligno* ablatiboan datza, eta zentzu horrekin itzuli zuen Walter Kirkham Blount-ek, *Vexilla Regis* himnoaren itzulpenik hoberentzat hartzen duten bertsioaren egileak: “God ruling the nations from a Tree” (*Office of Holy Week.* Paris, 1670).

Lafonentzat Oihenartek errimaren beharreatatik luzatu zukeen *-ti* ablatiboa, “par analogie avec le suffixe *-kila*, variante de *-ki*, forme du suffixe d'unitif en souletin” (1955b : 848). Orpustanek *elatibo* bezala tratatu arren,²⁰² *zuretila* formaren balioa egiazki ez da hori, prosekutiboarena baizik. Horrela konprenitzen da Lafonen itzulpenetik (221), Altunak eta Mujikak honela gazteleratua: “El Señor Dios ha reinado *por el leño* por nosotros” (2003: 447), *zur* horrek Kristoren gurutzea simbolizatzen duelarik —bidenabar, estonagarri da Altunak eta Mujikak *gugatila* & *zuretila* parearen morfologia iruzkindu ez izana—. Hona, hitzez hitz, Orpustanek *-gatila* atzizkiari egiten dion iruzkina, Lafonen autoritatea tartean:

Oihenart baliatu da *-gatila* atzizkiak, hitzaren luzatzeko beldurrik gabe, errima eginez *-tila* adlatiboarekin [...]. “L'auteur a sans doute ajouté, pour le besoin de la rime, le suffixe *-la* au suffixe d'ablatif *-ti*, par analogie avec le suffixe *-kila* variante de *-ki*” dio R. Lafonek (op. cit. orr. 162). Ezta deus gehitzekorik, ezpada hau: XXII-garren olerki-parafraasiako estilo osoan aurki daitezkeen berezitasunetarik bat dela. Eta oraino hunkitzen dela Oihenartek gramatikari burla ukan duen gogo: “analogiaz” edo bertze, hizkuntzaren ahaletaz baliatzea, hedatuz behar denean. B. Etxeparek emana zuen lehen urratsa (bederen ezagun idazkietan aurkitzen dena), *baiezila* (*bayeci la*) eginez *baiezi*-tik hiruetan (ikus P. Altunaren hiztegian orr. 28: I 219, IV 6, 15). (1994: 141)

Gure ikusteko maneran, Orpustanen ideia frogatu gabe dago. Ez da dudarik Oihenartek hizkuntzaren baliabideak maisutasunez erabil eta ustia zitzakeela, literatur hizkuntzaren bideen urratzeko, eta *beharbada* bere denborako euskara mintzatuan ekoizten ez zen elementurik baliatu zuela. Aldiz, *-gatila* & *-tila* pareaz horrelakorik arrazoinableki pentsa litekeen arren, ezin da baztertu Oihenartek bere gramatika gaitasunean kausi lezan. Inpresio hori ondoko lekukotasunarekin sendotzen da ezen, guk dakigula, inork ez du erran Maister bere sormenaz balia ledin hizkuntza formarik kretzeko. Horra Oihenartez landara atzeman dugun *-tila* morfemaren agerraldi bakarra:

(222) [...] *ceren hullan beiniç (dio Jaunac) amourecatic gaiçac oro, eç solamentç ossoki, bena orano burutila gaintica arraberri ditçadan.* (Mst III 30, 1)

Lhanderen hiztegiak *burutik* “surabondamment” azpisarrera dakar, Foix-eko zuberera etiketaz, eta hori izan behar da *burutila* aldaeraren erran-nahia eta morfologia, bestalde

²⁰² “Elatibo agertzen da ere aldi bat *-tila* (XXII 24) atzizki luzatua: ikusiko da molde bereko bertze batzuekin.” (1994: 137). Jakin nahi genuke zein diren *bertze batzu* horiek, zeren gure corpusaren emaitzak oro hona ekarriak baitira.

latinezko iturrian irakur baitaiteke: *Quia prope sum, dicit Dominus, ut restaruem in universa, non solum integre, sed et abundanter et cumulate* (Kempis).²⁰³ Maister hizkuntzaren gaineko kontrol osoa erakusten duten idazleetarik zen, eta ez soilik euskaraz. Bistan da, haren motibazioak ez ziren Oihenartek ukan zitzakeenak; nolana ere, hemen gauza bat segur da: *burutila* formaren azaleratzea ez da metrikaren hersturen ondorioa, Maisterren hizkuntza gaitasunaren araberako ekoizpena baizik.

Azkenik, gogoratu behar da *-tila* & *-gatila* bitxi horiek badutela kide bat komitatiboan: *-kila(n)*, anitzez ere maizago lekukotua. Iraganean *-kila* morfema hori adlatibo-komitatibozko balioa adierazten zuelako hipotesia babestu dugu (§ 1.6.2.2.1), bigarren silaba adlatiboaren *-la* morfemari lotuz.

2.2.3.4. Informazio intradialektalik ote?

Igurikatzen denez, 25. eta 26. tauletako datuak bat datoz *-ti* & *-tik* parearen agerpenari doakionean. Egiaztatu denez, bi alomorfoen lekukotza ez da inolako jarraibide kronologikoren araberakoa (§ 2.2.3.1). Denboraren ardatzean ez bada esplikatzen ahal, azalpena beharbada espazioarenean kausi genezake, hots, datuak dialektoaren barneko nolabaiteko banaketari obedi liezaioten. Corpuseko testu guztiek jatorri ezagunik izan ez arren, haien arteko anitz geografikoki kokatuak dira, eta batzuk *aingura testu* gisara baliatzeko maneran ere; cf. Ulibarri 2015: 65, McIntosh ikerkuntza taldearen *anchor text* terminoa ekarririk.

Bada, 25. TAULAK *-ti* alomorfoa nagusi edo pisu garrantzitsukoa duten testuak biltzen ditu, eta 26. TAULAK *-tik* nagusi dutenak. Halaber, bi taula horiek lekukotasunen kokapen geografikoa

²⁰³ Pasarte honetan, Kempisen testuaren beste euskaratzaileen artean Pouvreaux du originalarekiko hurbiltasun gehien atxikitzen:

Zeren hurbil nago, dio Iaunak, gauza guzien ez xoilki osoki, baina bai frankoki, neurri mukurruz eta gaindi berriz konplitzeko. (SP Imit)

Ezen saihetsean nais es solament zu lehenbiziko zure bakean berris emateagatik, baiñan bai oraiño grazia berries zu bethetzeagatik. (Arbill)

Ezen hurbill naiz zureganik ez xoillki gauza guziak leheneko estatuan ezartzeko baiñan oraiño zu grazia berriez bethetzeko. (Ch)

Azkenik, ez dugu Davanten iruzkina ulertzen: “bürüteala (*bürütilla*): nasaiki, zabalki” (2009: 160), *bürüte* hitzaren adlatibo mugatua inplikatzeko baitu, Maisterren garaian gertatu gabe ziren —eta are gutxiago Basabürüan— asimilazio bokalikoei kanbiatua.

jasotzen dute, kasu jakin batzuetan testuen kokapena oso erlatiboa izan arren, edota balio dialektologiko eskasekoa (Tartas edo Oihenarten neurtitzak, kasu). Bada, lehen inpresioa da *-tik* testu gehiagotan nagusitzen dela *-ti* baino, haren gailentasuna gehienetan sendoago izanik.

Alderdi geografikoan sartuz, *-ti* aukerak oroz gainetik Barkoxe eta Eskiularen eremuan gotortua dirudi, tauletan *Ipar-ekialde* etiketaz baturik: bederen inguru horretako testurik ez da 26. TAULAN. Gero, badira zenbait lekukotasun bortuetarik beheiti, Ühaitz handiaren ibarreko herrietan kokatuak (Atharratze, Ozaze, Zalgize, Garindañe, Maule, Sohüta, Sarrikotapea), *-ti* aukeraren nolabaiteko maiztasuna ematen dutenak, baina beste testu batzuek kontra egiten diote ideia horri: Bela (Maule), Etchart (Maule) edo Belapeire (Sohüta) guztiz lerratuak dira *-tik* berrira.

Azterketa intradialektal honen arazo nagusia hainbat lekukotasun espazioan kokatu gabe egotea da, eta horixe gertatzen zaie *-tik* aukeraren aldeko askori. Guztiarekin ere, bederen honakoa erran dezakegu: *-ti*-ren balizko eremuan Basabürü menditsuan kokatzen diren hiru lekukotasun ditugu (Maister, *IP* eta *Catuchuma*), Tartas edo Inchauspe eta, adierazgarriago dena, hor ez da —guk dakigula— ipar-ekialdeko lekukotasunik.

Agian *-ti* & *-tik* aukeren gailentasuna azaltzeko beste faktore bat erabili behar da gogoan: testuen izaera. Bada, herri tradizioko testu gehienak *-ti* aukeraren alde lerratuak dira, hots, 25. taulan, ilara itzaldunetan —txosten honetan astolasterrak azterketatik kanpo gelditu dira—. Ausaz gertatu da hala? Ez dakigu; aldiz, badakigu *idazle* izateko xede duten egileak, edo haien arteko jasoenak, ikasienak edota ibilienak hautu kontzienteak egiteko emanagoak direla besteak baino. Pentsa ote liteke *-ti* zaharraren baztertzea hautu (edo moda) horietako bat zela? Guk ezin erantzun.

25. TAULA. *-ti* alomorfoaren nagusigoa geografian.

Lekukotasuna	Kokapena	<i>-ti</i>
O <i>Pro</i> ca.1600		%75
Zalgize ca.1600	Zalgize (Arbailla)	%100
O <i>Po</i> 1657	Maule (Pettarra)	%74
<i>PrS</i> 1676	Sohüta (Pettarra)	%50
<i>CatOlo</i> 1706	Maule (Pettarra)	%25
Ressegue 1758	Eskiula (Ipar-ek.)	%78
<i>StJul</i> 1770	Sarrikotapea (Pettarra)	%39
Mercy 1780	Eskiula (Ipar-ek.)	%50
<i>NLilia</i> 1782		%81
<i>Edipa</i> 1793	Garindañe (Arbailla)	%100
<i>Xarlem</i> ca.1800	Atharratze / Eskiula	%27
<i>SteEli</i> ca.1810	Eskiula (Ipar-ek.)	%50
<i>DKhi</i> 1812		%84
Etchahun	Barkoxe (Ipar-ek.)	%64
Chaho	Atharratze (Basabürüa)	%37
<i>EvS</i> 1873	Ozaze (Arbailla)	%32

26. TAULA. *-tik* alomorfoaren nagusigoa geografian.

Lekukotasuna	Kokapena	<i>-tik</i>
Bela ca.1600	Maule (Petarra)	%100
Etchart 1616	Maule (Pettarra)	%100
Tt <i>Onsa</i> 1666	Amiküze	%97
Tt <i>Arima</i> 1672	Amiküze	%96
Bp 1696	Sohüta (Pettarra)	%97
<i>Othoitce</i> 1734		%76
Mst 1757	Ligi (Basabürüa)	%88
<i>IP</i> 1757	Ligi (Basabürüa)	%80
Egiat I 1785		%100
<i>UskLi</i> 1814		%94
<i>CatS</i> ca. 1836		%92
<i>Khurutch</i> 1838		%87
<i>Medit</i> 1844		%99
Ip <i>KurBD</i> 1847	Zunharreta (Basabürüa)	%93
Archu <i>Alh</i> 1848	Altzürükü (Arbailla)	%77
<i>MaiMarHil</i> 1852		%98
Ip <i>Dial</i> 1857		%94
<i>HOrdre</i> 1860		%80
<i>SGrat</i> 1879		%78
<i>Catuchuma</i> 1899	Hauze (Basabürüa)	%100

2.2.4. Ondorioak

Jadanik lehen testuetan, *grosso modo* egungo zubereraren ablatiboa suma daiteke: 1) *-(r)ik* mugagabea, pluralean eta bizidunen *-ganik* markan, eta 2) *-ti(k)* singularrean. Bakanki bada ere, *-tika* morfemaren arrastorik ageri da. Kasu lokatiboen sistema osoan bezala, izenordainek ablatibo bitarra dute: *-ganik & -tarik*, azkenak ablatiboaz kanpoko balioak ere adieraz ditzakeena. Lehen moldean genitiboa azaleratu ala ez, testuetan beti *-ganik* agertzen da, sekulan ez ***-gantik*. Ez da izord. + *baitarik* moldearen testigantzarik.

Leku izenetan *-(r)ik* agertzen da, *-ti(k)* markarekin batean, bai eta zenbait izen arruntetan ere: *biderik*, baina bereziki *etxerik*. Testu zaharretan toponimoen ablatiboa maizago ageri da *-(r)ik* zaharrenekin *-tik* berriarekin baino; halere, badirudi batzuetan toponimoaren arabera jokatzen dela (*Franziarik*, baina *Españatik*). Bestalde, denborazko aditzondoekin *-danik* ablatiboa ongi lekukotua da, XIX. mendera arte praktikan zein-nahi formari eranskai izanik. Adlatibozko *-dara*, ordea, hiru aldiz baizik ez da ageri.

XVI. mendetik *-ti & -tik* agerkide gertatzen dira. Honetan ez dugu inolako lerro diakronikorik deskribatu ahal izan, eta nekez proposatu dugu zerbait informazio diatopikorik (*-ti* gehiago Zuberoako ipar-ekialdean, eta nonbait Ûhaitz handiaren ibarrean, Atharratzetik beheiti) eta diastratikorik (herri antzertiko lekukotasunek aiseago atxiki dute *-ti* zaharra).

2.3. Adlatiboaren polimorfismoa Zuberoan

3.3.1. Sarrera

3.3.2. *-ra(t)* vs. *-ala(t)*

3.3.2.1. Abiaturuak

3.3.2.2. Testuen lekukotza

3.3.2.2.1. *Zeliü & ifernü* eta beste

3.3.2.2.2. *Etxiala(t)* vs. *etxera(t)*

3.3.2.2.3. *Aitzin, gibel, barne, kanpo*

3.3.2.2.4. Denborazkoak

3.3.2.2.5. Moduzkoak

3.3.2.2.6. Zenbait toponimo

3.3.3. *-t* vs. $-\emptyset$

3.3.3.1. Abiaturuak

3.3.3.2. Testuen lekukotza

3.3.3.3. Azterketaren emaitzak *-t* vs. $-\emptyset$ oposizioaz

3.3.4. Ondorioak

2.3.1. Sarrera

Ekialde hertsiko mintzok polimorfismo ñabarra dute adlatiboan. Orokorra den *-ra* morfemaz gain, Zuberoan eta Zaraitzun *-ala* ere erabiltzen da (Erronkarin *-ara*); printzipioz, bi morfemen arteko banaketa izenak bereiz ala arrunt izatearen arabera da. Horri izaki bizidun edo adimendunekin *-gana* eta *baithara* erabil daitezkeela gehitu behar zaio. Azkenik, atzizki horiek guztiek Iparraldean ezaguna den *-t* bukaera har dezakete. Adlatiboan, beraz, *-ra*, *-rat*, *-ala*, *-alat*, *-gana*, *-ganat*, *beithara* & *beitharat* ager daitezke. Hemen bereziki bi auzitan eman nahi genuke argia: lehenik, *-ra(t)* & *-ala(t)* parearen banaketa (§ 2.3.2) eta, bigarrenik, *-t* bukaeraren balioa eta haren indarra testuetan (§ 2.3.3). Bi alderdi horiek Zuberoako testuetan ikerturik, ondorio batera etorriko gara (§ 2.3.4).

2.3.2. *-ra(t)* vs. *-ala(t)*

2.3.2.1. Abiaturuak

Lehen hurbiltze batean, ohartarazi behar da adlatibozko markaren ezkerrean *-a* agertzea ekialde hertsiko ezaugarria dela: *-ara* Erronkarin, eta *-ala* Zaraitzun eta Zuberoan (FHV 315). Eztabaidatu izan da *-a* hori, inesiboan ere agertzen dena, artikulua ala beste zerbait den; cf. § 2.1.1 eta, auziaren gaineko kontu errendatze batentzat, Santazilia 2013: 247-258. Laburzki, ekialdeko adlatiboaren jatorriaz De Rijk **etxe hala > etxeala* proposatu zuen, vs. **etxe hara > etxeara* erronkarierarentzat (1981: 94), eta kontsonantismoa gogoan, berrikiago

Manterolak hipotesi hori findu du, *-ala(t)* atzizkiko *-l-* albokaria **-han-la > *halla > -ala* proposatuz (2015: 260).

Azterketa honetan axola zaiguna gehiago da Zuberoan *-ra(t)* & *-ala(t)* parearentzat deskribatu den banaketa osagarria testuetan egiazki betetzen den: *-ra* izen bereziekin (praktikan toponimoekin) eta *-ala* izen arruntekin. Gainerako kasu lokatiboetan bezala, adlatiboan ere izen zenbaitek, ñabardura semantikoak direla tartean, portaera anbigua izan dezakete: batzuetan berezi eta bestetan arrunt gisara (funtsean *etxe*; cf. § 2.1.2.1.3) edo, izen arrunt izan arren, berezien deklinatzeko moldean sartzen dira (*ihizi*; cf. § 2.1.2.1.4). Gogoratu behar da izen berezi vs. arrunt bereizkuntza hori oro har kasu lokatiboetan ezaguna dela, eta Mitxelenari jarraikiz, “se documenta también, precisamente en áreas laterales” (1972: 311).

Numerotik begiratuta, *-ala(t)* singularrean baizik ez da agertzen, beraz *-ra(t)*, leku-izen berezietz landara, unibertsala da mugagabeen zein pluralean —bistan da, bizidunekin ager daitezkeen *baithara(t)* & *gana(t)* aukerak tartean direla—. 27. TAULAK Zuberoako euskararen adlatiboaren aukerak biltzen ditu.

27. TAULA. Adlatiboaren aukerak Zuberoan.

	SINGULAR	MUGAGABE	PLURAL
IZ. ARRUNTAK	<i>-(e)ala(t)</i>	<i>-(e)tara(t)</i>	<i>-etara(t)</i>
(LEKU) IZ. BEREZIAK	—	<i>-(e)ra(t)</i>	-
ADIMENDUNAK	<i>-(aren)gana(t)</i> <i>-a(ren) beithara(t)</i>	<i>-engana(t)</i> <i>-en beithara(t)</i>	<i>-engana(t)</i> <i>-en beithara(t)</i>

2.3.2.2. Testuen lekukotza

Puntu honetan *-ala(t)* & *-ra(t)* parearen arteko banaketaz arduratuko gara, Zuberoako testuetan noraino garbia den aztertuz. Zenbait kasu bereziri arreta eskainiko diogu, zehazki *-ala(t)* nahiz *-ra(t)* markekin lekukotzen direnei. Corpuseko datuak azterturik, eta xehetasunetan sartu aitzin, erran behar dugu Oihenartek eta Zalgizek ez dutela *-ala(t)* behin ere erabiltzen. Etchartek *-ala* soil bat lekukotzen du —corpuseko zaharrena—, eta Tartasek noizean behin ematen du *-ala(t)*, proportzioz maizago Arima liburuan (1672) *Onsan* baino (1666).²⁰⁴

²⁰⁴ Hona Etcharten lekukotza: *Goure cerbutzuala eta diligencia hunez* (1, 1v). Tartasen *Onsa* liburuan honako zazpi adibideak atzeman ditugu: *Kuruzetik jinda tonbala hobiala, tonbatik itzulida; [...] bere bizkarrian*

2.3.2.2.1. *Zelü, ifernü eta beste*

Zuberoako testuetan *zeliura(t)*, *zeliuala(t)*, *zeliatarat(t)* & *ifernüra(t)*, *iferniala(t)*, *ifernietara(t)* hirukoteak ongi lekukotuak dira. Hasteko, zenbaitetan *zelü* & *ifernü* pareak *-ra(t)* adlatibozko marka hartzen du (223)-(226), ustez izen bereiz portatzen direlako:

- (223) *Urguluak, zerura abia-eta, jo zegin ifernura.* (O Pro 462)
- (224) *Zelurat igan banadi, zu han zira; ifernurat ieusten baniz, han present zira* (Arima)
- (225) *Mostra / itçoussy handia / ifernurat jouan dela / quitaturic mundia.* (Edipa 262)
- (226) *Celurat igaitiaren orhitçapenetan* (MaiMarHil 131)

Halere, gehienetan²⁰⁵ *ifernü* & *zelü* izen arrunten gisara deklinatzen dira, singularrean, *-ara(t)* markaz (227)-(232):

- (227) *Ifernalat doatça, bethicoz han Deebrieki érratcera.* (Bp I 54)
- (228) *Gouré Jauna Celialat igan den eguna.* (Bp II 67)
- (229) *Bihotç chahia celiala igaiten da, eta iferniala jaisten.* (Mst II 4, 2)
- (230) *Guidatu naiçu mundiala eta / niq ere nahy çuntuket celiala* (StJul 1021)
- (231) *Ala çabal eta largo beita heriouala, iferniala guidatcen dian bidia!* (Medit 69)
- (232) *Hantic noizbait igaranen dia Zelialat?* (Catuchuma 60)

Eta izen arrunt portatuz, *zelü* & *ifernü* pluralean ere erabiltzen dira (233)-(239), bereziki bigarrena. Oloroeko katiximaren bi bertsioen artean badira singularraren eta pluralaren arteko gurutzamenak (233)-(234), semantikoki bi aukerak trukagarriak direla erakutsiz. Halere, *ifernietara(t)* pluraleko forma maiz erabilpen berezi bati lotua da.²⁰⁶

kurutziala eramanik; egunko eguniala drano; bekhatiaren lohiala egotzirik; thonbalat eramaiten ditu; mundu hontarik bertzialat partitzeko. Arima liburuan hamar agerraldi dautza: zuk deithatu nuizu fediala eta [...] miskrikordiala; Eliza saildiaren hobeniala eta ene arimaren salbamendiala; luxuriala [...] eror eraziteko; Haren imitatione saildiala; lur prometatiala hobeki helzeko; haren tribunal iustoala haren arima presentatuko baita; fede honiala konbertiturik & haren gorpitza hoberat eta tonbalat ezar lezaten.

²⁰⁵ IFERNÜRA(T) 16 aldiz: O Pro behin, Tt 13 aldiz, Egiat behin, Edipa behin; | IFERNIALA(T) 37 aldiz: Bp bi aldiz, CatOlo 4, Othoitce behin, CatOlo2 bi aldiz, Mst behin, StJul bi aldiz, Edipa 7, Xarlem 6, DKhi behin, Medit bi aldiz, Etch behin, Myst bi aldiz, CatS hiru, CanBel bi aldiz; | IFERNIETARA(T) 25 aldiz: Tt behin, PrS behin, Bp behin, CatOlo 6, Othoitce behin, CatOlo2 4, IP behin, DKhi 3, UskLi behin, CatS 4, Catuchuma bi aldiz.

ZELÜRA(T) 14 aldiz: Tt 13, MaiMarHil behin; | ZELIALA(T) 95 aldiz: Bp 12, CatOlo2 behin, Mst 21, Ressegue 3, StJul 5, Mercy behin, NLilia behin, Egiat I 4, SteEli behin, DKhi behin, CatS 15, Etch behin, Medit 8, MaiMarHil 6, HOrdre 4, Myst 5, Urruty 3, Catuchuma 3; | ZELIETARA(T) 38 aldiz: Othoitce bi aldiz, CatOlo2 behin, IP behin, Ressegue behin, StJul behin, Edipa behin, SteEli behin, DKhi 10, UskLi 6, Khurutch behin, Medit behin, Ip KurBS behin, HOrdre behin, CatS 9.

²⁰⁶ Jesu-Kristo hiru egunez hilobian egon zenekoari erreferentzia egitean, beti plurala erabiltzen da; cf. lat. *Descensus Christi ad Inferos*, esp. *El descenso de Cristo a los infiernos* edo fr. *La descente aux Enfers*. Erabilpen markatu horretaz gainera, posible da *ifernietara(t)* bestelako testuinguruetan atzematea.

- (233) Celietrat joanen dira salvatu baniz, edo ifernialat damnatu baniz. (CatOlo 19)
 (234) Honac celialat ioanen dira eta, gaiztoac ifernietarat egoytci içanen dira. (CatOlo2 39)
 (235) Jaixi ifernietara, heren egunian hiletaric phiçtu celietarat igagn. (IP 8)
 (236) Celietarat altchatceco egunian. (Ressegue 18)
 (237) Jaixi ifernietarat, heren egunian hiletaric phiztu, celietarat igain. (DKhi 10)
 (238) Olivetaco montagnatic celietarat igaran cela. (UskLi 80)
 (239) Sinhextia jaitxi zela Ifernietara. (Catuchuma 3)

Testu sakratuei hain lotua den *zelü & ifernü* pareaz landara, toponimian ere zenbait leku izen pluralean ageri da. Haietarik *Amerika* eta, hein tipiago batean *India*, egun ere pluralean deklinatzen dira. Gure corpusean *Alemania*, *Amerika* eta *India* ez dira singularrean ageri; beste zenbait toponimo singularrean nahiz pluralean ager daitezke (*Italia*):

- (240) Franciaric landan / bertan Alemanieta. (SteEli 1347-1348)
 (241) Madrillerik Alemanieta artino. (Chaho AztBeg XIII)
 (242) Ameriketarat juan beno lehenago. (Etch “Filipeñekuak”)
 (243) Ez-ta Indietara joan behar zetaren iikheitoko. (Ip Dial 1)

2.3.2.2.2. *Etxiala(t)* vs. *etxera(t)*

Zuberoako euskaran *etxe* hitzak kasu lokatiboetan duen portaera bereziak zenbait lexikograforen eta hizkuntzalariren iruzkinen objektu izan da (Gèze 1873: 22-23; Larrasquet 1939 s.v. *-tik*; Lafon 1970: 169-170; Etxebarne 2011: 64). Inesiboan eta ablatiboan bezala, *etxe* adlatiboan ere mugatu vs. mugagabeko moldeetan eman daiteke, ñabardura semantikoak direla tartean: komunzki onartzen da *etxera(t)* mugagabekoaren erabilpenak ‘nor bere etxera’ adiera duela, eta *etxiala(t)* mugatukoarenak ‘beste inoren etxera’.

[...] En souletin actuel le latif singulier est d'ordinaire en *-ala-*, *-iala-* (souvent réduit a *-ila*), mais parfois aussi en *-ra* : *etxera* « à la maison, chez moi, chez toi, etc. », en regard de *etxiala* « dans la maison » ; *ihizira* « à la chasse » (Lafon 1970: 170)

Aldiz, Zuberoako testuak usu urruntzen dira Lafonek aipatu *souletin actuel* horretatik. Hasteko, *etxiala(t)* bitan baizik ez da ageri, vs. *etxera(t)* formaren 119 agerraldiak, eta ez dirudi bi agerraldi horietan adlatibo mugatuzko formek ‘beste nornahiren etxera’ adierazten duten (244)-(245). Hori ez ezik, batzuen ustez *etxiala(t)* beharrezko litzatekeenean, testuek *etxera(t)* ematen dute (246)-(251).

- (244) Eman dezaziela grazia / etxilat irüski ützültzeko. (CanBel 413)
 (245) Eta campouan ecinez dantsariac sartu cien etchiala. (SGrat 23)
 (246) Oha eure izebaren etxera, bana ez maiz sobera. (O Pro 349)
 (247) Alle, pergüt eskelliak, / Behar düzie jin gure etxerat (Recoquillart 116)
 (248) Jin behardiün ene etxerat, / beharra beitiüt hire. (Chiveroua 393)
 (249) Eskieia gu helturen / sekula zure etxera? (Chiveroua 173)
 (250) Orai / phartitüren gireia, / bertan hel gitien / ene lobaren etxera. (Malqu 487)

(251) *Behar dizügiü phartitü / notariaren etxera (Malqu 516)*

Beraz, badirudi Zuberoako testuetan *etxera(t)* & *etxiala(t)* parearen kontraste semantikoa ez dela euskalariak proposatu dutena bezain argia. Azkenik, gure corpusak ez du halako beste bikotea den *ihiziala(t)* & *ihizera(t)* parearen agerraldirik ematen.

2.3.2.2.3. *Aitzin, gibel, barne & kanpo*

Aitzina & *aitziniala* formek balio desberdinak dituzte, ezin konfondi daitezkeenak. *Aitzina* berez adlatiboazko aditzondo irregularra da, esp. *adelante* edo fr. *en avant* formen baliokidea (252)-(254). Baina ‘zerbaiten edo norbaiten aitzin’ adlatiboan adierazi nahi bada, orduan *aitziniala* erabiltzen da (256)-(259), genitibo bat tartean, edo testuinguruak hala eskatua; Tartasengan eta Belapeirerengan *aitziner*a ere ageri da (255), zazpitan eta bitan, hurrenez hurren.²⁰⁷

(252) *Jouanen guira aitcina, / ostatiala hel artio. (SteEli 1229)*

(253) *Bicitcian aitcina joatez, hobialat huillantcen guira. (Myst 14)*

(254) *Bena gouatzan aitcina. (SGrat 13)*

(255) *Ienkoaren Tribunal iustuaren aitzinera presentatzen baita. (Tt Onsa)*

(256) *Jesus Jaunari nor elkhi çayon aitciniala? (Bp II 45)*

(257) *Eroan cien Anna, eta Caiñfaren aitciniala (Bp II 47)*

(258) *Libertatia / hartu dudalakoç çoure / aitciniala gitia (SteEli 255)*

(259) *Nigrol gin çamariz triate aitciniala. (SteEli 1384)*

Gibelera(t) / *gibeliala(t)* parean ez dugu diferentzia semantikorik sumatzen —bai, ordea, *-t*-dun eta gabeko aukeren artean—. Bi formen agerpena halako orekan da corpusean: *gibelera(t)* zazpi aldiz ageri da, eta adlatibo mugatuarekiko *gibeliala(t)* hamaika.²⁰⁸ Orobat erran daiteke *kanpora(t)* & *kanpuala(t)* pareaz, kasu honetan *-ra(t)* aukera maizago ageri denean: 38 aldiz vs. bost aldiz *-ala(t)* —lekukotasunen zerrendarako ikus 220. oharra—.

²⁰⁷ AITZINA 79 aldiz: O *Po* bitan, Tt 5etan, Bp behin, Mst 11tan, Egiat 10etan, *Edipa* 3tan, *SteEli* 4tan, *UskLi* bitan, Chaho behin, Etch behin, *CatS* behin, *Medit* 5etan, *Catuchuma* behin, *CanBel* 4tan, *MaiMarHil* 21, *Myst* bitan, Urruty 3tan, *SGrat* bitan. | AITZINERA 9 aldiz: Tt *Onsa* 7, Bp bitan | AITZINIALA 54 aldiz: Bp 4, *Othoitce* behin, Mst behin, *StJul* 8, Egiat bitan, *Edipa* 3, *SteEli* 5, *UskLi* 3, *Khurutch* bitan, Chaho behin, Archu bitan, *CatS* 4, *Medit* 4 (behin *-t*), Ip *KurBD* behin, *CanBel* bitan, *MaiMarHil* 3, *HOrdre* 3, *Myst* bitan, Urruty behin, *SGrat* behin.

²⁰⁸ GIBELERA(T): lerra daite gibelera (O Pro 77), ihesi gibelerat & itzuli gibelerat (Tt Onsa), gibelerat lerratzen (Egiat I 21), aitzina ta gibelerat (Egiat I 32), ürrhats bat gibelerat (Egiat I 36), gibelerat egin (CanBel 30), guibelerat so (HOrdre 190). | GIBELIALA(T) guibelialat eiçten (Mst III 4, 3), eitçaçu guibelialat (Mst III 32, 2), guibelialat utçultcia (Mst III 56, 5), eror guibelilat (Edipa 762), guibelialat recula (Edipa 808), guibelialat utçuli (Xarlem 255), guibeliala [...] utçultcen (SteEli 841), guibelialat utçultcen (SteEli 1591), guibelilat jouan (Medit 151), utçuli cen guibelialat (EvS 20, 14), guibelialat unguratcen (SGrat 14).

Azkenean, *barnera(t)* & *barniala(t)* pareta ez zaio logika argi bati jarraitzen. Funtsean *barne*-ren adlatiboa hiru maneratan erabil daiteke: a) ‘zeren *barnera*’ absolutiboan emanik; b) ‘zeren *barnera*’ genitiboan emanik; eta c) ‘zeren *barnera*’ esplizitatu gabe. Bada, hiru molde horietan *barnera(t)* zein *barniala(t)* aurki daitezke (260)-(265), lekukotza nahiko orekatua delarik —halere, iduri luke *barniala(t)* berankorragoa dela *barnera(t)* baino²⁰⁹—.

- (260) [...] *ihes zegin eliza barnera* [...] (O *Pro* 366)
 (261) *Sagardoï baten barnera / sar ziten.* (O *Po* XXVI 5)
 (262) *Lot akio buruty / eremaiteko barnerat.* (*Edipa* 766)
 (263) *aphaltu cen eta so eguin cian hobi barniala.* (*EvS* 20, 11)
 (264) *Estekaturic eneçan eraman / presounteguiaren barniala.* (*SteEli* 1136)
 (265) [...] *jouan cite camporat, jin cite barnialat.* (*Mst* II 12, 4)

2.3.2.2.4. Denborazkoak: [-ti(k) -ra] vs. [-ti(k) -ala]

Momentu batetik besterako denbora tarte adierazten duten egiturak ohikoak dira: *egünetik egünera/egüniala*, *denboratik denborara/denborala*, *astetik astera/astiala*, etab. Espazioan distantziaren adierazpenean beti *-t* gabeko adlatiboak erabiltzen diren bezala (§ 2.3.3.1), denbora tartearenean ber gauza gertatzen da. Beraz, kasu hauetan aldagaia adlatiboaren morfemetan aurkituko dugu: *-ra* edo *-ala*. Zuberoako testuetan adlatiboaren morfema mugatua nagusi da: *egüneti(k) egüniala* (*hilabetiala*, *urthiala*, *denborala*, etab.). [-ti(k) -ra] egitura soilik Tartasen *Onsa* eta *MaiMarHil* liburuetan ageri da, hiru aldiz eta behin, hurrenez hurren (266)-(267). Gainerako kasu guztietan ez dugu *-ra* aurkitu, *-la* baizik (268)-(274).

- (266) *Remitiziak gerotik gerora, eta egunetik egunera* (Tt *Onsa*)
 (267) *O Maria! eracats eçadaçu egunetic egunera* (*MaiMarHil* 79)
 (268) *Egunetic eguniala houra hainbatenaz aguer eraci du* (Bp II 36)
 (269) *Bista galzen ezagüzen dit / egünetik egüniala.* (*Chiveroua* 344)
 (270) *Egunetic eguniala çaharrago beçala çuhurrago* (*MaiMarHil* 78)
 (271) *Çoure suiuz gortheçaçu egunetic eguniala haborouago* (*Myst* 97)
 (272) *Ceren ainguru bat eraixten cen demborati demborala hour hartara* (*EvS* 5, 4)
 (273) *Hilabetetic hilabetiala amens behar çunuke comuniatu* (*UskLi* 99)
 (274) *Bere biziaz bersez egin din errelazionin urthetik urthila* (*Chaho AztBeg* XVI)

²⁰⁹ BARNERA(T) 16 aldiz ageri da: O *Pro* 366, O *Po* XXVI5 & XXVI 17; Tt *Onsa* (behin), Tt *Arima* (behin), Egiat (hirutan), *Edipa* 407-di, 766, 770 & 809-di; *Xarlem* 402, *Archu* 46, *Jouanic Hobe* 32, *Malqu* 502. BARNIALA(T) 23 aldiz: *IP* 4, *Mst* II 12, 4 & IV 11, 4; Egiat I 20, *SteEli* 558 & 1136, *MaiMarHil* 111, *CatS* (behin), *EvS* 20, 11; *Malqu* 220, 479-di, 500 & 543, *Chiveroua* 107 & 139 gehi beste 8 aldiz zenbait astolasterretan.

2.3.2.2.5. Moduzkoak: *-ra* vs. *-ala*

Euskara batuaren *-en arabera* moduzkoak nolabaiteko aldakortasuna erakusten du ekialdeko testuetan. Gure corpusak *arau(r)*, *araura* eta *arauera/arabera* lekukotzen ditu, ezkerrean betiere genitiboa delarik, inesiboa ematen duen testu batean izan ezik (275)-(276):

- (275) *Pierris eta Katixa, / Eliza saintan arabera, / senhar emazte zida.* (Pierris 27)
 (276) *Eliza saintaren / legian arabera* (Pierris 76)

Arau(r) hitza moduzko balio adberbialaz erabiltzen denean, Zuberoako testuek hiru aukera dituzte:²¹⁰ a) *arau(r)* absolutiboa, 2) *araura/arauera* (> *arabera*) adlatiboa, eta 3) *arauala* adlatibo mugatua, azken hau soilik Ressegueren itzulpenean (282).

- (277) *Uztaren arau, zuhurraren jatea* (O Pro 537)
 (278) *Bira alde orotari bilduric goure botheren araura.* (Etchart 4, 1r)
 (279) *Gure desiren arau jinen dela* (Tt Arima)
 (280) *Profecien arau Jesusec Betleemen içan behar ciala* (Bp II 25)
 (281) *Goberna cite, çuhurren conselliaren araur* (Mst IV 10, 3)²¹¹
 (282) *Arraïncura eguiazcouaren arauala ikhous ditcen eta ikhous-eraz* (Ressegue 20)
 (283) *Ezteçaçula puni, Jauna, bere crimen mereçhimentien arauera* (Mercy 4)
 (284) *Oracle ororen aravera, / [...] Thebasen çoure aita / edirenen duçu.* (Edipa 156)
 (285) *Comportatcen guirelaric egunco egunian çoure leguiaren arau.* (Medit 182)
 (286) *Jujatcen diana bakhotcha bere obren arabera* (Epit I 1, 17)

Euskaraz *ohore* hitzarekiko moduzko adizlagunak normalean inesiboan erabiltzen dira: *haren ohoretan* edo, hein tipiago batean, *haren ohorian* (cf. *en honor de / en honneur de / in honour of*). Hortaz, corpusean nekez aurkitu dugu adlatibozko egituratan; bihoa horren etsenplu bakarra: *bildurik haren ohoretara* (Tt Onsa); cf. fr. *à l'honneur de / aux honneurs de*.

Bestalde, *boronthate* hitzaren gainean eratzen den adlatibozko egitura *-alat* morfemarekin aurkitu dugu corpusean, sekulan ez ***boronthatera* (287)-(289). Diren ñabardura semantikoak direla, baliokidea den *nahi* izenarekiko adizlaguna aipa genezake, corpusean

²¹⁰ [GEN + ARAU] 60 aldiz: O Pro behin, Tt Onsa behin, Tt Arima 4, Bp 15, CatOlo behin, Othoitce behin, Ressegue bitan, StJul behin, Mercy 6, Edipa behin, Xarlem behin, DKhi bitan, UskLi 8, Chaho 3, Medit 10, HOrdre 3. [GEN + ARAUR] 40 aldiz: IP 4, Mst 36 aldiz. [GEN + ARAURA] 13 aldiz: Etchart 11, PrS behin, Saturna behin. [GEN + ARAUERA] 11 adiz: Mercy behin, UskLi behin, MaiMarHil bitan, HOrdre behin, CatS 6. [GEN + ARABERA] 44 aldiz: CatOlo2 behin, Edipa behin, Chaho 5 aldiz, Khurutch behin, Etch behin, MaiMarHil 3, HOrdre 4, Myst 3, Epit 12, EvS 9, SGrat behin, Catuchuma 3. [INE + ARABERA] hiru aldiz, Pierris eta Catiche astolasterrean. [GEN + ARAULA] bi aldiz Resseguerengan.

²¹¹ Ohartarazi behar da *araur* aldaera bi testutan baizik ez dela lekukotu: *Igantçetaco Pronoua* eta Maister, 4 eta 36 aldiz, hurrenez hurren. Datu horiek IP pronuaren egiletza Maisterrena delako hipotesiaren indartzera datoz (ikus, ATALASEAN, § 3.2.3. atala).

adlatibozko aukera bakoitzaren etsenplu bederarekin (290)-(291). Azkenik —baina kronologikoki lehenbizi—, Etchartek *othoitzetara* darabil, egungo batuan ‘zuen nahira’ edo antzeko zerbaiten medioz adierazten dena (292).

- (287) *Çoure buriaren [...] ene boronthatjala eiçten ikhas deçaçun.* (Mst III 56, 1)
 (288) *Gaiza ezin erranak egin düütüzüla, zure borondatjala.* (Egiat I 10)
 (289) *Bere boronthatjala.* (*UskLi* 202)
 (290) *Phenez borogatiac içan citeyen, ecieç oro cien nahiala baçuntie.* (Mst III 30, 4)
 (291) *Phenxamentu eta desir theyu ene nahitarat etchekitez.* (*Medit* 156)
 (292) *igorri baiterauciet gouriaren coppia cien othoitzetara.* (Etchart 7, 1r)

2.3.2.2.6. Zenbait toponimo

Printzipioz, erran bezala, *-ra(t)* & *-ala(t)* aukeren arteko banaketaren arabera, Zuberoan leku izenek *-ra(t)* hartu beharko lukete. Testuen lekukotzak, aldiz, datu ñabarrak ematen ditu. Bada, toponimo batzuk paradigma mugatuan sartzen ahal dira. Adibidez, *Charlemagne* trajerian *Moscouara* forma bitxia atzeman dugu, mugatuan, baina ez *-ala* akabantzaz, *-ara-z* baizik:²¹²

- (293) *Ene Eresouma hedatçen duçu / Venisa eta moscouara / hanty guero novega / eta copanhagara* (*Xarlem* 1444)

Beste toponimo batzuk beti *-ala(t)* morfemaz ageri dira: *Bethaniala(t)* (294)-(295), *Galileala(t)* (296),²¹³ *Italiala(t)* (297), *Judeala(t)* (298) edo *Kalbariuala(t)* (299)-(300).²¹⁴ *Españaren* kasuak aipamen berezia behar du: behin izan ezik, Zuberoako testuetan beti *Españala(t)* ageri da (301); aldiz, *Frantziarekin* kontrakoa gertatzen da. Dударик batere gabe, hori ablatiboan deskribatu dugunari lotua da (ikus § 2.2.2.3 eta, zehazkiago, 196. oharra).²¹⁵

- (294) *Luçaz heki minçatu cen hourac Bethanialat eroan çutian.* (Bp II 68)

²¹² Berset berean *Venisa* eta *Copanhagara* exonimoen forma artikuludunak (?) kausitzen dira. Hutsa ez bada, Eguiateguyk ere *-ara* bat eman du: *Jinkoatik mündiala, mündütik Jinkoara* (Egiat I 28); azkenik, Archuk *Hire ez izatez deithua [...] Konseilluara* dakar (*Fab* 45).

²¹³ *Galilea* eta *Judea* exonimoen agerraldi guztiak Urrutyren *Ebanjelio Saintian* dautza. *Galileala(t)* *EvS* 1, 43; 4, 3; 4, 34; 4, 45; 4, 46; 4, 47 & 4, 54; *Judeala(t)* *EvS* 7, 3; 11, 7 & 3, 22.

²¹⁴ Hona ekarri diren etsenpluez landara, ikus *UskLi* 36, *Medit* 143 eta, *ala drano* muga adlatiboarekiko, Ip *KurBD* 3, *MaiMarHil* 89, *HOrdre* 164 & *Myst* 112.

²¹⁵ Gure corpusean Tartasek baizik ez du *Españarat* eman (*Onsa*), eta gainerakoek *Españala(t)*: Egiat I 18 & I 23; *Xarlem* 272, 486, 522, 983 & 1012; *Chiveroua* 102, Chaho *AztBeg* IV eta *SGrat* 10. Aldiz, Zuberoako testuek *Fran(t)ziara(t)* baizik ez dute lekukotzen: *Xarlem* 573, 708, 835, 996, 1079, 1092 & 1093; *SteEli* 1347; *Chiveroua* 102; Chaho *AztBeg* XVI; Etch “Etchahunen bizitziaren khantoria” eta *SGrat* 13. Banaketa hau ablatiboan gertatzen denaren isla da: beti *Españatik* baina *Fran(t)ziarik*.

- (295) *Sei egun Bazco beno lehen, Jesus jin cen Bethaniala. (EvS 12, 1)*
 (296) *Biharramenian Jesus Galilealat jouaiten celaric (EvS 1, 43)*
 (297) *Harmada eder bat Italiaalat eraman zian (Egiat I 8)*
 (298) *Pharti çite hebeti eta çouaça Judealat (EvS 7, 3)*
 (299) *Calvarioualat igaitian, jarraiki ceitçun emazte tropa bat (UskLi 35; cf. 36)*
 (300) *Calvariouala lagunt ondouan (Khurutch 15)*
 (301) *Erho ahal ditçadan / Espagnalat haboro / Jouan Estitian (Xarlem 486)*

2.3.3. -t vs. -ø

2.3.3.1. Abiaburuak

Mitxelenarentzat (1970-1980: 414) *-t* morfoaren etimologia ezezaguna zen. Lakarraren berreraiketean (2006a, 2006b & 2008) badira hiru **da*, hiruren sorburua **e-dar* ‘to sit’ aditzean datzala; adlatiboko *-t* morfoari dagokiona, zehazki, imperfektibozko gramatikalizazioari lotua dateke, adlatibora pasatzean iraupenezko balioa ekarriz (**etxe-ra-da* > *etxerat*). Alderdi diatopikotik, adlatiboko *-t* eta *-rantz* (*-runtz*, *-rontz*) banaketa osagarrian dira: lehen duten mintzok ments dute bigarrena, eta alderantziz (Mitxelena 1970-1980: 414). Beharbada iraganean *-t* morfoak²¹⁶ hedapen zabalagoa izan du; izan ere, Mitxelenak haren aztarnak ikusi zituen bere Errenteriako mintzoan: *noapatt* “a alguna parte”, *azteapire* “obstáculo, dificultad”, *aurreapire* “avance, estímulo” (1950: 90). Beraz, *-t* horren bilakaerak errezesiboa dirudi.

Gramatikagile guztiek ez dute ber ikusmoldea *-t* morfoaren balioaz. Iritziak, oro har, bi multzotan sailka daitezke: batzuek mugimenduaren iraupena azpimarkatzen dute, eta besteek mugimenduaren norabidearen edo helmugaren zehaztasuna. Lehen sailekoekin hasteko, Gèzek klarki bereizten ditu bi adlatibo mota, haren terminologian *datif de direction* (*-t* gabeko aukerak) & *datif de changement* (*-t*-dunak):

Il est dit de direction quand il indique mouvement vers un lieu, mais pour en revenir promptement ou ne faire qu'y passer ; ex. *je vais à l'église* (faire une petite prière), *elizala banoa* ; il est dit de changement quand il indique mouvement vers un lieu pour s'y établir, ou du moins y faire un séjour ; ex. *je vais à l'église* (pour assister à tout l'office), *elizalat banoa*. (Gèze 1873: 9)

²¹⁶ Hemen “*t* morfoa”, “adlatiboko *-t*” bezalako konpromisozko terminoak erabiliko ditugu, baina agian bestelako mozketak egin beharko genuke: “Le suffixe terminatif est bien *-at* et non *-t*, puisque sa présence modifie la place de l'accent: *etxéra* / *etxerát*” (Oyharçabal 1991: 403).

Azkuek ber ideia ebokatzen du: “*rat* es el mismo *ra* con significación más restringida, como de detención en el lugar al que se va. Casi equivale a *radino*, *ragino* ‘hasta’ (1905 s.v.). Lafittek itzulbidearen ideia nabarmentzen du, funtsean ber ikusmoldera igortzen duena:

Adlatif.- La désinence *-rat* est très souvent réduite a *-ra* ; beaucoup d'auteurs ne voient pas de différence de sens entre les deux formes ; pourtant *banoa Pariserat* veut dire : ‘je vais à Paris’, sans retour, et *banoa Parisera* : ‘je vais à Paris’, simple aller et retour. (Lafitte 1944 § 140)

Bigarren ikusmoldean *-t-dun* eta gabeko aukeren arteko diferentzia mendebaldeko mintzoetan *-ra* & *-rantz* pareak definitzen duena litzateke. Chaho izan zen honen adieraztean aitzindaria: “*-ganat*, vers, jusqu'à, désigne le mouvement et la tendance ; *-gana* détermine la proximité” (d’Abbadie & Chaho 1836: 36). Mitxelenak ere horrela zekusan:

La distinción *-ra* / *-rat* (sufijo que sólo se da donde falta *-rantz* etc., y viceversa) parece indicar, en época antigua, ‘dirección, con término de movimiento’ / ‘dirección sin término’: Leizarraga, Jo 18, 6 *guibelarar citecen, eta eror citecen lurrera*. (1970-1980: 414)

Azkenik, zubereraren azken gramatika ere bigarren ikuspegi horren partalier da: “NORAT: *bürüz*, hüllantze adlatiboa. Beste euskalkietan: NORANTZ” (Etxebarne 2011: 75). M. Igartuak *-ra* & *-rat* parearen erabilpena aztertu zuen Leizarragaren *Testamentu Berrian*. Hona haren hipotesia:

Leizarragarengan, neurri batetan behintzat, espazioa agertzen da nagusi *-ra* edo *-rat* formen artean aukeratzeko momentuan; *-ra* leku konkretua adieraziz, eta *-rat* ‘norantz’ zentzuarekin. Honek esplikatu luke zergatik agertzen diren forma biak *joan* eta pareko aditzekin, eta zergatik ez den *etorri* aditzarekin *-rat* forma agertzen. (Igartua 1986: 898)

Joan eta *etorri* aditzen arteko desberdintasun semantikoez harago, Igartua adizkako azterketari lotzen zaio, Mitxelenak seinatu bidetik (1979 [BAP 35: 577]). Labur azaltzeko, *-ra* & *-rat* aditzaren erregimenaren arabera ager litezke. Horrela, *joan* & *etorri* parearekin datuek garbi dirudite: *joan*-ekin Leizarragak bi morfemak erabiltzen ditu, mugimendu motaren arabera (*vid. supra*), baina *etorri*-rekin beti *-ra*, aditz honek norabide zehatzeko mugimenduak adierazten baititu. Bestenaz, emaitzak ez dira espero bezain argiak: *egotzi* aditzak *-ra* eskatzen badu, *itzuli*, *behatu*, *altxatu* edo *goititu* bezalako aditzak *-ra* zein *-rat* morfemekin ageri dira (Igartua 1986: 901-902). Knörrek iradoki zuenez, baliteke aditz gehiagok erregimen argia izatea; adibidez, *arribatuk* *-ra* eskatuko luke, eta *enbarkatuk* *-rat* (Igartua 1986ko aitzinsolasean).

Berriki, Zaikak (2016: 433-437) *-t*-dun eta gabeko adlatiboen gaineko kontu errendatzean bi multzotan sailkatu ditu euskalarien hipotesiak: a) bi atzizkiak bariazio askean agertzen direla diotenak; eta b) bi atzizkien artean nolabaiteko kontraste semantikoa datzala diotenak, kontraste hori dena delakoa izanik ere. Zaikak mugimenduzko aditzak kontsideratzen baititu, bere analisisian helburua *erdiesten* dela adierazten duten aditzek *-ra* & *-en* aukerak azaleratzen dituzte (*sartu*, *erori*), eta besteek *-ra* & *-rat*. Haren ikusteko maneran, *-en*, *-ra* & *-rat* oposizio hirukoitza arras ezohikoa izatea *-ra* & *-rat* parearen bariazio askean gertatzen direlako hipotesien aurka lihoake.

Gure ustez, *-a* & *-at* parearen arteko bereizkuntzaren argitzeko egin den azterketarik sistematikoa *Charlemagne* trajeriaren edizioan aurkitzen da; datuetan sartu aitzin, Oyharçabalek ondoko erremarkak egin ditu (1991: 400-401):

- Aditz-izenek ez dute sekulan *-t* hartzen. Hau zubereraren ezaugarria da, zeren (behe)-nafarreraz eta lapurteraz aditz-izenek arazorik gabe agerrarazten ahal baitute *-t* hori, “mais comme simple variante libre”.
- Aditz balioa duten adlatibozko formek ere —hots, Mujikak “adlatiboaren berbalizazioan” azaldu dituenek (2008): *elizara da*, etab.— ez dute *-t* hartzen.
- Halaber, *-t* ez da agertzen adlatiboari *arti(n)o* edo *gabe* bezalako postposizioak jarraitzen zaizkionean.
- Badirudi bi puntuen arteko distantziaren aipatzeak ere *-t* blokatzen duela.
- Zenbait elementuk ez duke *-t* hartzen (*aitzina*, *barna*).

Adierazi diren erregeletarik kanpoko adlatibozko forma guztiak azterturik, Oyharçabalek hauxe du ondorioztatzen:

“Sur les éléments restant on relève dans notre corpus 87 adlatifs en *-rat* et 106 en *-ra*. La distribution respective des deux formes laisse à vrai dire assez perplexe. La distinction habituelle entre les deux suffixes ne semble effective que dans un nombre limité de cas, et bien souvent elle ne semble guère opératoire” (1991: 401)

Ondorio horretara etortzeko, Oyharçabalek testuinguru lexikoak nahiz sintaktikoak kontuan hartzen ditu. Lexikoaren aldetik, elementu batek adlatiboaren morfema bata ala bestea bloka lezakeen ezaugarri semantikorik duenez ikertu nahi zuen; baldintzak aditzean opera lezake edo, ebentualki, adlatiboaren marka eransten zaion elementuan. Sintaxiaren aldetik, Oyharçabalek bi puntu argitu nahi zuen: 1) modalitate batzuek aukera morfologiko bata ala bestea faboratzen dutenez; eta 2) *-ra* marka duen perpaus nominalizatu batek *-rat* aukeraren agerpena beste elementuren gainean ere blokatzen duen.

Arta berezi batez, puntu honetan Oyharçabalek *Charlemagne* trajeriaren bi eskuizkribuen arteko bat etortze eta dibergentziak segurtatzen ditu, testu komun osoan (gutxi gorabehera 1.500 berset) diferentzia bakarra aurkituz. Beraz, pentsa daiteke testuaren garaian indarrean zela bi adlatiboen erabilpenean hertsapen markaturik. Lexemaka azterturik, aditz batzuk *-rat* morfemaz baizik ez dira ageri, eta beste batzuk *-ra* morfemaz, baina hirugarren multzo batekoak atzizki batarekin nahiz bestearekin erabiliak dira.²¹⁷

Ondoko atalean corpusaren lekukotza zehatza ekarriko dugu. Oyharçabalen azterketa erreferentzia hartuta, hark deskribatu erregelak eta joerak noiz eta zein punturaino betetzen diren ikertzea xede dugu; bistan da, azterketa honetatik bestelako jakingarri edo zehaztapenik idoki ahal bageneza, horren berri ere emanen dugu.

2.3.3.2. *-t* & *-ø* adlatiboan: testuen lekukotza

2.3.3.2.1. Oihenart: iruzkin laburra

Atsotitzetan adlatibozko marken agerraldi gutxiegi da deusik ondorioztatzeko, zeren *-rat* bitan baizik ez baita ageri: *hantik harat* (533) eta zentzu abstraktua duten *bertzen alderat & bererat* (463), egungo batuaz *-(ar)engana & -(ar)ekiko* segiden bidez adierazten dena. Gainerakoetan Oihenartek *-ra* ematen du. Eta orobat erran daiteke neurtitzez, *nehorat joaiten zauzkidanean* (XVI 4) izanik *-t* direkzionala duen adlatibo bakarra (Heg. *inorantz*).

2.3.3.2.2. Etcharten gutunak (1616)

1616ko gutunerian ez dugu bereizkuntza garbirik sumatzen *-ra* & *-rat* morfemen artean. Batzuetan Etchartek guretzat garbia litzatekeen eran erabiltzen du *-ra*: *transportatu*, *gin conferenciatarra* (gertaldi zehatza). Halere, beste zenbaitetan igurika genezakeenaren kontrako erabilerak aurkitzen ditugu: *remititzez edo itzulcez bere lekuietara* (1, 1v), edo *Larragnerat empresonatzeko agot ohogna* (8, 1v), komisionea xede argi batekin igorria baita Larrainera.

Bestenaz, *orotarat-ere* lokailuak *-t* eskatzen du, edo *hebentic harat* denborazkoak, corpus osoan bezala (*heben harat*, *hebentic harat*... ‘dorénavant’). Behin Etchartek *ioan baita* [...]

²¹⁷ Ondoko aditzak *-t*-dun morfemekin ageri dira (etzanaz bi morfemekin): *abia*, *ager*, *beha*, *eman*, *erretira*, *ezkapa*, *hots eman*, *hüllant*, *iragan erazi*, *igorri*, *jin*, *juan*, *kundena*, *kunpari*, *phartitü*, *ützü*, *so egin*, *aigü*. Ondokoak, aldiz, *-t* gabeko morfemez (etzanaz: bi morfemez): *ekhar*, *erakhar*, *eraman*, *errenda*, *erretira*, *ezar*, *har*, *heda*, *hel*, *hots eman*, *igañ*, *igorri*, *jaiki*, *jaits*, *juan*, *lagunt*, *manha*, *paseia*, *pharti*, *presenta*, *sakrifika*, *sar*, *sor*, *ützü*, *aigü*, *abilua*.

bere etcherat ematen du, menturaz subjektuak eginkizuna utzi duelako, hots, ez delako “comissione” horretara itzuliko.

2.3.3.2.3. Tartasen *Onsa* (1666)

Tartasek informazio gehiago eskaintzen du. *Onsa* liburuan ondoko aditzek *-ra* hartzen dute: *abandona* (cf. fr. *s'abandonner à quelque chose*), *arriba*, *bil*, *erdira*, *eror*, *errezebi* (ezteietara, mahañera), *gida* (norabide zehatzean, leku jakin batera), *heda*, *jünta*, *libra* (cf. fr. *se livrer à q. chose, à q.q'un*), *parti* [zatiketari], *presenta* [mahai hartara], *sar*. Ikusiko denez, corpusean gaindi aditz hauen adlatiboazko erregimena argiki *-ra* izaten da, salbu *gida* & *heda*, batzuetan *-rat* direkzionala hartzen baitute.

Tartasenean badirudi *joan*-i buruz errana arras ongi betetzen dela, erran nahi baita *joan* aditzarekin *-t*-dun nahiz *-t* gabeko adlatiboak erabil daitezke, mugimenduaren ezaugarrien arabera, eta *ethor/jin*-ekin. Tartasek, etsenplutako, *mundu huntara* (*Onsa* 17) ematen du, logikoa dena bizitze hau pasakorra dela pentsatzen bada, Oyharçabalen eleetan “Comme si la naissance (au monde) était conçue nécessairement passagère, à l'inverse du départ enfer, à caractère lui, bien terminatif” (1991: 403); edo *çoazte ordu onian marchanten botiguetara* 72, dendetara helburu zehatz batekin joaten baita, eta itzultzen. Azkenik, *haren ohoretara* 91 moduzkoa darabil Tartasek.

Tartasek bi baliorekin erabiltzen du *-rat*, antza denez. Lehena itzulbiderik gabeko mugimendua litzateke, edo behintzat luzaz egotea inplikatzeko duena: *ifernurat* (bitarik bitan, baina *ifernuko sura* & *phenetara*), *lurrerat* (seitarik seitan), *hoberat* ‘hobirat’ (bitarik bitan), *thombalat* (batetarik behin) eta *zelurat* (bederatzitarik bederatzitan) sistematikoki *-rat* horrekin emanak dira. Horietaz gain, ondoko adibideak dakartzagu:

(302) *lecé hartrat Ioan ciren Animaliac oro galdu eta peritu cirela* [= ez ziren atera] (68)

(303) *badoa lupperat* [sic], *gordatcenda*, *ezta haboro mundian aguertcen* (97)

Hortaz, kanporatzeak, erbesteratzeak, etab. adierazten dituzten aditzek batez ere *-rat* hartzen dute:

(304) *haren camporat idoquiteco* (6)

(305) *çuré hirur milla Camelonac altchaturic, herriz camporat eraman, eta idoqui dituzté* (52)

Honi kontra-adibiderik oposa dakioko: *bekhatiaren lohiala egotciric* 168, *ifernuko ifernuco phena etarnaletara ioan eraciteco* 168, edo *igorrico Ifernuco sura* 80. Azkenik, *oherat* ageri da (hirutarik hirutan).

Bigarren balioak norabide zehatzik gabeko mugimenduak adierazten ditu (306)-(309). Ohart bedi (309)-ko pasartean *Españiarat* (mugimenduaren norabidea edo helmuga zehaztugabea) vs. *Madrillera* (helmuga zehatza) kontrastean direla.

- (306) *seguí eçaçu ené lumaren herecha, eta hatça, çoaça aytçina, aldebaterat, ez bertcerat, ezquer, ez esquin makurthu gabé.* (13)
 (307) *egonguiatic ialqui, eztaquianez norat doen, ala infernurat, ala celurat.* (141)
 (308) *norat noan estaquit* (17)
 (309) *Batailla generala galduric hartu içan çela Españiarat Madrillera eraman çiala etxayac* [*Españiarat*: helmuga zehatzik ez | *Madrillera*: puntu zehatz batera] (24)

Bestalde, *-t* aukerak norabide zehatzik gabeko kasuetan ez ezik, norabidea azpimarkatzen dutenetan ere erabil daitezke, erran nahi baita balio direkzionala dutenetan (310)-(312):

- (310) *guri manifestatu camporat beré hirur perfectioné.* (118)
 (311) *Medailla behar dugu bertcé alderat itçuli* (156)
 (312) *acheriac beré bicia salbatu cian, eta itçuli guibelerat.* (68)

Azkenik, *-t* bukaerak adiera abstraktuetan ager daitezke, egungo batuan *-(ar)engana* & *-(ar)ekiko* parearen bidez ematen direnak, bizidunei loturik (313); hortaz, gehienetan *-ganat* formaren pean agertzen da (ikus “Destinatiboa”, § 2.4.4).

- (313) *Amorioabat hain leialik, eta relijiosik, eta haien alderat.*

2.3.3.2.4. Belapeire (1676 & 1696)

1676ko pronuan orain arte deskribatu diren erregelak betetzen dira; halere, *-rat* bakarra dugu testuan. Espero bezala, aditz-izenei beti *-ra* eransten zaie: *cerbutchatcera* 2, *errendatcera* , *iuiatcera* 6, *erortera* 7, *cofessatcera* 7, *adoratcera* 29, *escatcera* 29, *galtatcera* 29 & *vrgaztera* 29. Mugimenduzko aditzei begiratur, *lecu saintu hontara bildu cireyé* 2, *iaixi ifernietara* 5, eta *celietrat igan* 6 ageri dira adlatibozko erregimenaz. Corpusean zehar *iaixi ifernietara* sistematikoa da Jesusen bizia kontatzen denean —*Credo* otoitzean, Jesus hirugarren egunean itzuli baitzen—, baina gainerakoetan *ifernurat* / *ifernietarat* / *ifernialat* usatzen da. Mugimendu aditez landara, *azti, estecaçalé, eta hetara hersatcen direnac* (25) aipa daiteke.

Catechima laburran Belapeirek honako aditzekin erabiltzen du *-ra* adlatiboa: *adela* II 20 & 42, *bath* II 12, *ekhar* [eskietara], *eman* [eskietara II 47], *eskent* [hilcera eta pena orotara II 77], *heda* II 88, 126 & 135, *hel* II 66, *ibil* [processioné penzaco hoyetara II 66], *ixur* II 101, *jin* [mundu hontara II 14], *joan* [officio saintietara II 43; cerbutchu saintietara II 20; kharrica orotara II 61; campoetara II 61], *sar* & *ützüil*. Zerrenda horretako *heda* & *ützüil* bi bukaerekin aurki daitezke corpusean. Aldiz, *-rat* guti erabiltzen du: ohiko *celietrat igan* (I 35, I 36, I 40)

formulistikoaz landara, honakoak ditu: *Hil ondoan, norat?* (I 34), *Egiptarat* (II 32), *hourac Bethanialat eroan çutian* (II 68) & *manatu cian, Israeleco herrialat houra arrekhar leçan* (II 33).

2.3.3.2.5. Oloroeko katixima (1706)

Ifernü, linbo, pharadüsü eta *zelü* hitzei doakienez, Maytiak espero duguna betetzen du: *Celietrat igan* 9, 17, 34 (3), 36; [Jesüs-Krist] *ifernietara jaitsi* 9 & 32 vs. [gainerako nornahi] *ifernietarat egoytci* 25 & 36; *ifernietarat ioanen* 46 edo *ppharadussialat joanen direnac* 44. Interesgarria da bereizkuntza bera *linbo* hitzarekin atzematea (314)-(315):

(314) *Jesu-Christen arima khorpitzetic separaturic limboetara eraitsi cela* (CatOlo 32)

(315) [...] *batheyia gabe hiltcen diren haurrac limboetrat doatça* (CatOlo 81)

(316)-ko pasartean *i(ra)doki* & *egoitz* aditzek adierazten dutena itzulbiderik ezaren ideian sartzen da. Egonaldi luzeen adierazpenean ere *-rat* ager daiteke (317); edo fokua norabidearen pausatzen delarik (318).

(316) *Ppharadussuti camporat iradoki, eta infernietarat egoytci ican cen.* (CatOlo 25)

(317) *Mundu hontarat sortcian ekharten duguna* (CatOlo 59)

(318) *Norat Joanen da çoure arima jujamentu horren landan?* (CatOlo 19)

Bestenaz, Maytiak *-ra adela* (101, 109), *-ra eror* (48, 74, 87, 89, 95, 102) eta *-ra heda* (87, 88, 89) erabiltzen ditu sistematikotasunez. Hiru horietaz gainera, *-ra* nolabait distantzia edo tartearen markatzeko erabiltzen du (319); cf. Oyharçabal 1991: 401.

(319) *Ahoua erditara ideki.* (CatOlo 103)

2.3.3.2.6. Othoitce eta cantica espiritualac Çubero Herrico (1734)

1734ko testu honetan ez dirudi adlatiboaren bi sailen arteko bereizkuntza betetzen den. *-t-dun* aukerak agerraldi pare bat du, orrialde berean eta kontzeptu berean: [Jesüs-Krist] *celietarat igan* 6 & *celietarat joanagatic* 6; gehiago dena: *-alat* ez da behin ere ageri. Printzipioz *-rat* beharko luketenak *-t* gabe emanak dira: *ifernietara egoitzi* 15 edo *condenatu* [...] *pena handitara* 71. Testu honetan *laster egin* lokuzioa ere *-t* gabeko adlatiboaz ageri da (31 & 78), komunzki *-t* gabe erabiltzen direnez apart (*hel, jar...*).

2.3.3.2.7. Maister (II & IV)

Ondoko aditzekin Maisterrek *-ra* erabiltzen du: *adela* (320), *bilha(ka)* (321), *erakhar* (322), *ezar* (323), *gida* (324) —bietara litzateke posible—, *hel* (325), *hersa* (326) edo *khanbia*

(327)(328). Horien artean, *khanbia* eta *ützüil* pareak ez du erregimen garbirik erakusten; (324)-ko *guidaturen* aditzarekin agian *açkentce hartarat* esperoko genuke.

- (320) [...] hartara adelatu *behar duçu bethi*. (Mst IV 2, 6)
- (321) [...] *hen eguitatiac* eçdeusetara bilhaturen *beitira*. (Mst II 6, 1)
- (322) [...] *costumac* hartara erakharten *dialacoç baicic*. (Mst IV 10, 7)
- (323) *Çoure* eskietara *nihaur*, *eta ene hounac oro eçarten citiçut*. (Mst IV 4, 5)
- (324) *eta [çu] guidaturen açkentce desiratu* hartara (Mst II 12, 5)
- (325) *Etcira phuntu* hortara helturen (Mst II 8, 4)
- (326) Hersatcen *bacira Jesusen çaurietara*, *eta hen herecha* preciousetara (Mst II 1, 4)
- (327) *guiçon berri* batetara khambiatcen. (Mst II 4, 2)
- (328) Cihaurtara *ossoki khambia nentçaçu* (Mst IV 16, 3)

Bestalde, mugimenduaren errepikak *-ra* eskatzen du (329); bistan da, halakoak itzulbide duten mugimenduetan sailkatzekoak dira:

- (329) *Hartara douatça* bethi (Mst II 10, 4)

-t-dun aukeraz denaz bezainbatean, Maisterrek *barreia* (330), *jarraiki* (331), *okher* (332), *plega* (333) edo *so egon* (334) aditzekin erabiltzen du:

- (330) *Eçpeita secula campotico* gaicetarat *ossoki barreiatcen*. (Mst II 1, 7)
- (331) [...] *thurburarçuna jarraikiren çaiçu* lekhu orotarar. (Mst II 12, 11)
- (332) *Nahi bacira campotico* gaicetarat okhertu. (Mst II 8, 3)
- (333) *Canabera aiçe* orotarar plegatcen *den batetan*, *etcitala fida*. (Mst II 7, 2)
- (334) *Ceren heben* horrat hounat soç çaude (Mst II 1, 4)

(335)-eko pasartean, gure ustez, batetik norabidearen garrantzia eta bestetik norabidearen eza, bi-biak *-rat* morfemaren bidez adieraziak dira:

- (335) Celialat cihaur beitharat eraiiki *eçaçu ene bihotça*, *eta enaçaçula eitç*, *lurren gagen barreiyaturic* horrat hounat ebiltera.

Beste aditz multzo batekin Maisterrek ez du sistematikoki jokutzen; horietakoa da *eror* (336)-(338). Bestalde, pentsa dezakegu *hüllant* aditza berez direkzionala den; kasu horretan (339)-ko pasartean erregela ez litzateke beteko; aldiz, (340)-koan bai. *Ützul* aditzarekin Maisterrek batzuetan *-at* ematen du (341)-(342) —menturaz *Jinkoaganat* eta *üthütburialat* betiko itzultzen delako?—, eta besteetan *-a* (343)-(344):

- (336) *Hanitch faltatara* eroriren *cira* (Mst II 5, 3)
- (337) [...] *halaco consolacionetara eçta* erorten (Mst II 9, 3)
- (338) *Bertan guiçona gaichtouagouetarar* erorten *duçu*. (Mst IV 3, 3)
- (339) *Obra saintu hountara* hullantu *behar da*. (Mst IV 5, 2)
- (340) *Çoure arima fidel orotarar* hullantcen *betcira* (Mst IV 13, 2)
- (341) Utçul *cite çoure bihotç oroç Jincouaganat* (Mst II 1, 1)
- (342) Uthurburialat *eçpeitutugu oro utçul eracitcen*. (Mst II 10, 2)
- (343) *Gaiçac oro hounetara*, *eta profiteutara utçul lekidiçu*. (Mst II 1, 8)
- (344) *Guiçon pherestu batec*, *gaiçac oro houniala utçultcen dutu*. (Mst II 3, 1)

Leku aditzondoek banaka aztertzeko litezke. Oyharçabalek ohartarazi bezala (1991: 401), *aitzina* edo *barna* formek ez lukete *-t* onartzen —baina bai *barnialat*—. ²¹⁸ Orobat erran daiteke *behera* adlatiboaz, corpusean ez baitugu ***beherat* behin ere aurkitu. ²¹⁹ *Kanpo*-ren adlatibozko formen emaitzak ñabarragoak izan arren, joera da *-t* morfoarekin ematea. ²²⁰ Bistan dena, adiera adlatibozko *goiti* forma kontsiderazio hauetarik kanpo gelditzen da. (345)-eko pasartean Maisterrek halako lau aditzondo ematen ditu *jin*, *joan* & *ützül* aditzekin:

- (345) Utçul cite goiti, utçul cite behera, jouan cite camporat, jin cite barnialat, eta lekhu horietan orotan edirenen duçu khurutchia. (Mst II 12, 4)

2.3.3.2.8. Ressegue (1758)

Urtebete berantago, Resseguek hitz bakar batekin ematen du *-at* akabantza, *han harat* 28 denborazkoaz landara; ezusterik ez, *zelü* da hitz hori, singularrean nahiz pluralean (346)-(349):

- (346) *Virgina Maria dohatsiaren celialat* goratceco *eguna* (Ressegue 10)
 (347) *Goure Jaunaren celialat* igäiteco *egunetan* (Ressegue 11)
 (348) *Andre Dona Mariaren celialat* goratceco *egunetan* (Ressegue 21)
 (349) *Virgina Mariaren* [...] celietarat altchatceco *egunian* (Ressegue 20)

Beraz, gainerako guztietan adlatibozko morfemak *-t* gabeak emanak dira, denborazkoak izan (350), moduzkoak (351), zenbait aditzen —edo berauen adieren— erregimenari lotuak (352)-(354) edo egiazki mugimenduari lotuak, sail honetan *eraman* (355), *eroan* (356), *heda* (357), *hel* (358), *hüllant* (359), *igor* (360), *ixur* (361), *jin* (362), *joan* (363), *lagünt* (364) eta *ützül* (365) ageri direlarik. ²²¹ Aditz sorta horretarako etsenplu bana ekarri arren, testuko agerraldi guztietan *-ra* datzala bermatzen dugu:

²¹⁸ Gure corpusean aitziniala formak 40 agerralditik goiti du, eta *-t*-dun aldaera behin baizik ez da ageri: Ene Gincouaren majestate adoragarria çouignen aitcinialat aguertceco celuco ainguriec eta lurreco erreguiec bere buriac indigne etchekiten beitutie (Medit 207).

²¹⁹ BEHERA formak 60 agerralditik goiti du, ondoko testuetan: O *Pro*, Tt *Onsa*, Bp, Mst, Ressegue, Egiat, *Edipa*, *SteEli*, Chaho, *Medit*, *CanBel*, Archu, Etch, *HOrdre*, Urruty, *SGrat*.

²²⁰ KANPORA Oihenart *Pro* 34 & 412, O *Po* II 3 & XV 8 | KANPUALA *SteEli* 679 & EvS 19, 4 | KANPORAT Tt *Onsa* (4 aldiz), *Arima* (7 aldiz), *CatOlo* 25, Mst I 20, 6; II 12, 4; III 31, 4; Egiat I (2 aldiz), *Xarlem* BN IX, 409, 503 & 912, *Malqu* 431-di; EvS 9, 34; 9, 35; 11, 44; 12, 31; 12, 42; 19, 4; 19, 13 & 20, 2 | KANPUALAT *Ardeatina* 59 | KANPULAT Etch (2 aldiz).

²²¹ Ressegueren itzulpenean beste aditz bat ageri da *-ra* adlatibo batekin: *Galerazteco cer ere aurrhidegoala leint ahal beyleite behar eztenic* (Ressegue 32). Pasarte honek badu arazo bat, hain zuzen, aditzaren erregimenarekin.

- (350) *Bi hilabetetaria by hilabetetara. (Ressegue 31 & 37)*
 (351) *Ororen contentamentiala. (Ressegue 34)*
 (352) *Franceseti uscarala utçulia. (Ressegue 1)*
 (353) *Fidelen adelatceco ceremonia edo eguitate saintu hartara. (Ressegue 15)*
 (354) *Hortara borchatu votoz. (Ressegue 25)*
 (355) *Nouizere edo processionetan edo erietara eramaiten beita. (Ressegue 8)*
 (356) *Sacramentu Saïntiac eriaeren etçhera eroaiteco. (Ressegue 19)*
 (357) *Orotara hedatcen direner. (Ressegue 30)*
 (358) *Hel ahal guitiala içate contentagarry eta dohatsu hartara. (Ressegue 4)*
 (359) *[...] eya sacramentietara huillantcen direnez oro. (Ressegue 35)*
 (360) *Igorten ahal beita beste dembora batetara. (Ressegue 17)*
 (361) *Issourtez [...] bere [...] dohainen bihotz onsa adelatietara. (Ressegue 14)*
 (362) *Lur apphal hontara ginic. (Ressegue 40)*
 (363) *Hilen ehortcetala [...] jouaïler. (Ressegue 7)*
 (364) *Aurhidec lagunturen duye haren khorpitza ehortcetala. (Ressegue 20)*
 (365) *Amourecati oro utçul dadin Gincouaren gloriala eta aurhidegoaren edificacione edo eguitiala. (Ressegue 29)*

2.3.3.2.9. *Saint Julien d'Antioche (1770)*

Norabide eza edo ezezaguna nabari denean *-at* ageri da (366); orobat galderazko testuinguruetan (367):

- (366) *Ecin erraiten ahal dun / jalkitcen içala herriticq, ihourat hurenago / jouan gabetariaçq (StJul 113)*
 (367) *A, nourat niz ezcapiren / ny oray hebetiq? (StJul 1235)*

Bi adlatibozko marka sailen arteko bereizkuntzaz denaz bezainbatean, (368)-ko pasarte konplikatua iduritzen zaigu: batetik, *presuala jarraiki* norabide zehatzeko mugimendua delakoan azal liteke, nahiz eta *presuan* luzaz egoiten den; bestetik, Mujikaren terminoetan adierazteko, *batetarat behar* adlatibo berbalizatua litzateke, printzipioz *-at* onartzen ez dutenetakoa (cf. § 2.3.3.1).

- (368) *Alo, hox, presouala / jarraiky çakiztade, / leku propy batetarat / sarry behar ducie. (StJul 787)*

Igurika litekeen bezala, *erretiratu* aditzarekin *-rat* erabiltzen da (369) —baina corpusean batera zein bestera ageri da—:

- (369) *Othoy, arren, ene semia, / [...] enekila etçherat / behar duçu erretiratu. (StJul 1014)*

OEH-k ezartzen duen bezala —adibide berau ekarriz, baina testuingururik gabe—, *leint* ‘leundu’ aditza bada, adlatibozko osagarria ez da konprenitzen: *cer ere aurhidegoa leint ahal beyleite* espero genuke.

Charlemagne tragerian, *abilua* inperatiboak beti *-ra* agerrarazten du, eta aldiz, *aigü*-k beti *-rat* (Oyharçabal 1991: 402). Zein litzateke *abil* formaren kasua? *Saint Julien* trajerian ageriko adlatiboaz behin baizik ez da gertatzen (370), Satanek ifernuari erreferentzia eginik. *Zuaz(te)* aginduarekin adlatiboazko osagarria bietara aurkitu dugu *Saint Juli*enen, menturaz mugimenduaren ezaugarrien arabera (371)-(372):

- (370) Abil horrat *oray* (StJul 1174)
- (371) Çouazte / *Julien*en etçera / eta [...] / *emocie su berhalla*. (StJul 599)
- (372) Çouazte devrietarat, / *aitcineciq ken çakiztade* (StJul 1297)

Testuetan gaindi ikusten denez, betiko kanbiamendurik eskatzen duten mugimenduekin *-rat* erabiltzeko joera argia da. Zentzu horretan, *Saint Julien*-en kopiagileak *taharna* bezalako hitz bati *-t-dun* adlatiboazko marka eranstea, *taharna* horiek mundu honetakoez bestelakoak direnean, ez dateke halabeharrezkoa (374) —halere, azalpen esoterikorik ezean, menturaz hemen pluraleko formak *-t* faboratzen du—.

- (373) Gloria eternal / hartarat *jouaitecoua* (StJul 1220)
- (374) *Oray ezpeitut diharuricq* / erouaiteco beste mundialat, / *jouaiteco edatera / ounxa hanco taharnetarat*. (StJul 1300)

Halere, iduriz berdinak edo antzekoak diren zebait kasutan *-ra* ageri da. Horrela, (375)-(377) adibideetan *eraman*, *joan & urthuki* aditzek *presontegi* batera igortzen dute; ber arazoa du *celietara igan* guztiz ezohikoak (378):

- (375) *Eraman erazten dutu* / presounteguy ulhun batetara. (StJul 077)
- (376) Presounteguy beltz hartara / *jouaiten dirade* (StJul 080)
- (377) Presouaren çolaco / cilo ulhun hartara / *ourthouky itçacie* (StJul 784)
- (378) [*cien arimaq*] çointan *beitira capable* / celietara igaiteco. (StJul 863)

Bestenaz, *Saint Julien* trajerian *-ra* mugimendua adierazteko gai diren aditz gehienekin ageri da: *bil* 1132, *eraman* 077, *eror* 098, *igan* 863, *ixur* 4, *joan* 080, 221, 267, 513-di, 602-di... *khanbia* 795, *penitentzia egin* 933, *remeti* 1115, *urthuki* 784 edo *ützüil* 933. Halaber, *-ra* marka eskatzen du *abandona* aditzak (cf. fr. *s'abandonner à quelque chose*, jada Tartasengan lekukotua): *desordretara* [...] *abandonaturicq* (StJul 282), eta *respectu hartara* kalkoak (StJul 1138).

2.3.3.2.10. Mercy (1780)

-t-dun adlatiboan agerpena arautzen duketen erregelen argitzeko tenorean, Eskiulan kokatua den *Mercy*ren itzulpena (1780) ez da laguntza handitakoa. *Heben harat* denborazkoaz landara (6, 22 & 24), adibide bakarra ageri da (379), eta gainera horko aditzak *-rat* direkzional edo

terminatiboa agerraraztea ez da ongi ezkontzen corpusean ikusi dugunarekin: *bil* aditza kasik beti *-ra* / *-ala* adlatiboekin erabiltzen da:

(379) *Ihourc ezpadu behar den dembora berartat bilceco* (Mercy 17)

Gainerakoetan beti *-ra*, *-la* edo *-gana*: *uscarala utçuliac* 1, *gin nadin çouregana* 4, *erakharrico beytuye salvamentuco bidiala* 8, [zerbait] *erietara erouayten* 8, *bihotz hori gaitciala bethi ekharria* 23, *visita chipi baten eguitia eguncal* [...] *imaginaren çolala* 28, *assestituco meça hartara* 33 edo *ehortcetala helcez* 34. (380)-ko pasartean semantikoki *-rat* espero genukeen arren, baliteke *lagünt* aditzak *-ala* eska lezan.

(380) *Lagunt haren arima bere ppharadussu saintuco gloriala*. (Mercy 32)

Azkenik, berriz ere aipagarria iduritzen zaigu frantsesaren eraginari egoztekoa den adlatibozko erregimena *-t* gabeko aukera morfologikoen bidez gauzatzea, eta ez *-t*-dunen. (381)-eko pasarteak fenomenoaren bi etsenplu dauzka: *-ra atenzione egin* & *-ra kostuma*; menturaz (382)-ko *phensatuk* adlatiboa ekartzea ere frantses eragipena da (cf. fr. *penser à*).²²² Ildo beretik, (383)-ko *ostatiala aurkhitcez* bitxiak iruzkin berezia mereziko luke, arrazoi batengatik baino gehiagorengatik.²²³

(381) *Guidariac* eguinen *du atenzione berheci bat persona amoinala costumaturic direnetara* (Mercy 26) “Monsieur le directeur fera une attention particulère sur les personnes qui sont habituellement à l'aumône” (Lucuix 1995: 57).

(382) *Pphensatuco duye egun hartan eguin dutien bekhatietara* (Mercy 32) “Ils penseront aux péchés qu'ils ont commis en ce jour” (Lucuix 1995: 61)

²²² Ezin segurta daiteke *phensatü* aditzaren adlatibozko erregimen hau frantsesaren *penser* aditzak à preposizioa eskatzeari lotua den, kontu eginik Penintsulako testu herrikoitan ere ageri dela (*OEH* s.v. *phensatu*, d). Aldiz, duda gutxiago egiten dugu datibozko erregimenaz: Iparraldean baizik ez da ezaguna, eta soilik XIX. mendearen azken partetik honat. Bestela adierazteko, batzuetan ez da argi frantsesaren à preposizioa duten moldeen egokitzapen edo kalkoetan à horri euskararen adlatiboa ala datiboa esleizen zaion. Orobat gaskoiaren *a* preposizioaz, kasu batentzat *cap a* direkzionalaren euskal egokitzapenean, Zuberoan [DAT + *bürüz*] eta [ALL + *bürüz*] egituretan lekukotua.

²²³ Batetik, hauxe da *aurkhitu* aditzak Zuberoan dituen agerraldi bakanetakoa —baina ez bakarra, *OEH*-k dioenez—, eta gure ustez ez da halabeharrezkoa Mercyren itzulpenean kausitzea. *OEH*-k “presentarse” adiera esleitzen dio, Gipuzkoako bizkaieran eta Garazin (*apud* Azkue) kokaturik; hona Garaziko etsenplua: “*Han aurkhitite* (BN-ciz), presétese Vd. allf”. Bestetik, Mercyk adlatibozko erregimenaz erabiltzen du *aurkhitü* aditza, dudarik gabe frantses iturriaren eraginaz: “Nous exhortons les confrères de se rendre autant qu'ils le pourront au logis des moribons confrères” (Lucuix 1995: 60). Bestenaz, Oihenartek *aurkit diro* (*Pro* 279) & *aurkit zezan* (*Pro* 519) ematen ditu, eta Inchauspek zazpi aldiz bere *elhestaldietan*; hauetan ez da adlatibozko osagarrikeri ageri, inesibozkoa baizik. Beraz, Zuberoako corpuseko *aurkhitü* bakanetarik izateak, baina batez ere adlatibozko erregimena agerrarazteak, frantses eraginera seinatzen du.

- (383) *Exhortatcen dutugu confrayac aurkhitcez ahal ditian beçanbat confray agonisanten ostatiala (Mercy 31)*

2.3.3.2.11. *Edipa* (1793)

Edipa trajerian (1793), oro har, adlatiboan *-t-dun* eta gabeko aukeren arteko banaketa orain arte zirriboratu ditugun erregelen arabera da. Hortaz, ondoko testuinguruetan aurkitzen ahal dugu *-at* akabantza: a) galderetan (384), b) itzulbiderik gabeko mugimenduen adierazpenean, tipikoki *ifernü* & *zelü* parearekin, perpauseko beste elementu batek semantikoki berma dezakeena (385)-(387), c) *aparta*, *retira* edo *recula* bezalako aditzekin, norabidea azpimarkaturik (388)-(390). Gainera, bada *eraman etcherat* 251, *oherat egorten* 329, *eraman barnerat* 766 & 770 eta *jouan etcherat lasterka* 807.

- (384) *Oray nourat eremanen dugu? (130) & Jauna, nourat çouazça? (891)*
(385) *Nahy cirieya bat ere / gin eneky ifernialat? / Adio, adio, adio, / ny banoua oray harat. (Edipa 1025)*
(386) *Celietarat jouanen hiz / mundu haur quitaturiq. (Edipa 838)*
(387) *Oray Edipa hiliq eraman hirour aurhideq barnerat nigarrez. (Edipa 407)*
(388) *Aparta hady horat / fitez Satan handia! (238)*
(389) *Retira citie biaz [...] tanterat / eta utcy guerla horiq / seculakoz (Edipa 617)*
(390) *Inkara lotcera eta guibelialat recula. (Edipa 808-di)*

(391)-ko bersetak ongi ilustratzen du *-rat* & *-ra* parearen kontrastea: lehenak denboraren erreferentzia markatzen duen mugimenduaren norabidea markatzen du, eta bigarrenak eiekzio baten jomuga:

- (391) *Guero etcherat giten celaric / bidian cian louac; / acheri batec beguietara phicha eguin, / medecy gaiço haur uxutu. (Edipa 327)*

Bestalde, *-ra* xede esplizitu batez egiten diren mugimenduetan ageri da (392)-(394), helmuga zehatza dutenetan (395)-(397) edo luzaz egon behar ez direnetan (398). Halaber, aditz mailegatuen erregimenaren kalkoa egiten delarik *-ra* erabiltzen da (399), eta ez *-rat*; cf. *être obligé à qqc.*²²⁴ Guztiarekin ere, espero dugunaren aurkako erabilerarik ageri da: *so alde orotara* 007-di.

²²⁴ Aldiz, *-ra kontenta(tü)* ezin aise esplikatu daiteke: *Net contentatcen nuq / hire elhe ederetara (Edipa 063)*. Euskaraz *kontentatu* aditzaren erabilera iragangaitzek instrumentala edo sozietatiboa eskatzen dute. *OEH*-k jasotzen dituen etsenpluen artean, soilik Tartasek ematen du *kontentatu* aditza adlatiboazko erregimenaz: *Libruto hontan, zointan kontentatzen bainiz erraitera orazioniaren definizionia* (Tt Arima 3). Gure corpusak ez du adibide gehiagorik ematen.

- (392) *Bagouatça [...] / oxo hartcen artiala / goure ardietara. (Edipa 110)*
 (393) *Atalla gin hayetara eta mintçatcen has Atalla. (Edipa 668-di)*
 (394) *Oray hiletara jouan eta Antigona mintça belhaurico. (Edipa 799-di)*
 (395) *Oragia eroriric / ene exayetara oro. (Edipa 809)*
 (396) *Coky hounen eçarteco / mementian houinpetara. (Edipa 280)*
 (397) *Hotx beste bortha batetara (Edipa 334)*
 (398) *Palacio hountara / erakhar eçaçu. (Edipa 472)*
 (399) *Nihauren eguinbidiaq / hartara obligaturiq. (Edipa 866)*

2.3.3.2.12. *Sainte Elisabeth de Portugal (ca. 1800)*

Trajeria honetan zenbait aditz garbiki lerratu da *-t* gabeko adlatiboazko marketara: *eror* (12, 237-di, 268 & 814), *gida* (272), *hel* (76, 192, 865, 1014 & 1329)²²⁵, *igor* (18, 23, 488, 514, 539, 615, 624, 779, 834 & 1130), *jin* (131, 436, 565-di, 800-di, 909-di, 1042-di, 1385-di & 1552-di), *lagünt* (184, 206 & 272) edo *sar* (687 & 1102-di); halere, azkenak maizenik inesiboazko osagarria eskatzen du. Horri oposa dakioken salbuespen bakarra norabide zehatzik gabeko mugimenduari lotua da (400):

- (400) *Madama, baducia leteraric / ihourat igorteko? (SteEli 791)*

Ikusi baitugu (§ 2.3.3.1), *joan* aditza bi adlatibo aukerekin agertzen ohi da, mugimendu motaren arabera. Etsenplutako, (401)-eko pasartean, Elisabethekiko ezkontza arranjatu ondoan, Denis erregeak Aragoiko erresuma utzi behar du, Portugalerat itzultzeko. Aldiz, (402)-koan postariak bere bidaien kontu errendatzen du, *-ra* baliatuz.

- (401) *Bena ordu dut jouan nadin / ene erresoumalat (SteEli 175)*
 (402) *Madrillera nunduçun eta / Çaracocera jouan hanti. / Guero, hantic utçultcian [...] (SteEli 1267-1268)*

Beste sail batean aipatzeko dira mailegu edota kalkoei lotutako erabilerak, *Sainte Elisabeth de Portugalen* bereziki abundantak: *itchasouala ountcietara arranjatu 1405, solituda batetara [...] arranjatu 154, determinatu içan beniz hartara 215, disposatu mundiaren kitatcera, / eta passage terrible / ikharagarri hartara 1287, ene galtho orotara ezpadira nahi humiliatu*

Erdaretara begiratz gero, frantsesez “On pourrait se contenter à moins” (*Dictionnaire de l'Académie Française*, 1835eko edizioa) ezagun izanik ere, *se contenter* aditzaren erregimenak printzipioz de preposizioa eskatzen du, eta okzitanierazkoak de edo damb/ambé: “Contenta-te de çò / ambé çò qu'as” (Lèbre, Martin & Moulin 1992 s.v. *contentar*).

²²⁵ Oyharçabalen hitzetan, “Le caractère définitif ne joue pas avec *heltü* ; toujours dans *Saint Julien*, p. 22, on a *arraçouaren adiniala / ossoky hel artio*” (1991: 402). Arras antzekoa den etsenplu bat kausi daiteke *Sainte Elisabeth de Portugalen*: *heltu niçanaz gaignian / erreguen ezcount adiniala (SteEli 76)*. Gehiago dena, corpusean *adiniala* ageri den dozena aldietan *heltü* aditzaren osagarri izaten da.

1393, *hortara comformatcen da ene sendimentia* 1551 edo *othoi ez obliga hartara* 293. *Fondi(tii)* aditzaren kasua berezia da.²²⁶ Aldiz, *-at* bukaera hartzen dutenen sailean ondoko aditzak aipa daitezke: *aparta*, *etsila*, *ezkapa*, *pharti* edo *retira* (403)-(407). Horietaz gain, *hebeti harat* 891 & *hanti harat* 467 denborazkoak ageri dira.

- (403) *Ene phenxamentia ez utci / bestetar apartatcera.* (SteEli 483)
- (404) *hiri hountarat / exilatu ukhenez.* (SteEli 833)
- (405) *Bestiac oro ezkapa bedere aldetar.* (SteEli 778-di)
- (406) *Lisbonarat phartitceko.* (SteEli 838)
- (407) *çoure etcherat / bertan retira cite* (1186)

2.3.3.2.13. *Uscara Libria* (ca. 1800)

Adlatiboaren erabilpenaz denaz bezainbatean, testu honen lekukotzan ez da gauza handirik markatzeko. *Ifernü*, *zelü* & *pharadüsü* ohiko hirukoteaz gain, *-at* akabantza *igan*, *joan* edo *erretiratu* bezalako aditzei lotua ageri da (408)-(410); (411)-eko pasartean egonaldiaren luzea nabarmentzen du.

- (408) *Calvarioualat igaitian* (UskLi 35)
- (409) *Appheça altharialat Jouaiten denian* (UskLi 73)
- (410) *Appheça Epistolaco aldialat Leheniac jouaiten denian* (UskLi 74)
- (411) *Magdaleina erretiratu cen / Eta desertialat jouan cen / Çazpy outhez han / Penitencian egon cen.* (UskLi 206)

Bestenaz, *-at* gehienak testu beregain kontsidera genezakeen “Alexis Sainiaren bicitce amirabilia” atalean ageri dira (211. orrialdetik aitzina) menturaz hor bidaien kontakizunak garrantzi berezia duelako. Testu horretako bizpalau pasarte dakargu, adlatiboaren bi aukeren arteko bereizkuntza ongi ilustratzen dutelakoan:

- (412) *Berhala Jouanic itchasso portu batetara han Jincouaren permissionez oncy batetan sarthu çuçun çoin beytçouen laodicearat, hantic igaran çuçun Mesopotamian edessa deytcen cen hiry batetara.* (UskLi 214)
- (413) *Aytac igorri citiçun bere cerbutcharic alde orotarat eya edireyten ahal cienez etcherat utçul erazteco.* (UskLi 215)
- (414) *Behar cila bere aytaren etcherat utçuli* (UskLi 217)

²²⁶ Frantsesez *fondre* aditzak, pronominal denean, honako adiera berezia har dezake: “FONDRE SUR QQN/QQC [Le sujet désigne un animé ou un inanimé] S'abatre précipitamment sur. Synon. *se jeter*, *se précipiter*, *se ruer*, *tomber*” (TLFi). Gure corpusak adiera hori *Sainte Elisabeth de Portugalen* baizik ez du lekukotzen, agerraldi guztietan adlatibozko erregimenaz: *Lisbonara dela mementian / bere armadareki fonditcen* 626; *goure indar ororeki diçugu / exaietara behar fonditu* 685, *fonditu exaietara* 1355, *bena bai exaietara / dudatu gabe fonditcen* 1484, *Sira, fonditcen nuçu arren / çoure exaien erdiala* 1503 & *desesperatu eli bat beçala / orotan barna fonditu* 1526.

(415) *Emperadoria utçuli çuçun ordin Euphemienen aldilat (UskLi 224)*

2.3.3.2.14. *Doctrina Khiristia (1812)*

Inperioaren katixima delakoaren zubererazko moldaketa honetan -at bukaera ihartua dagoela erran daiteke: ez dugu *ifernü* (9, 24, 47) & *zelü* (9, 24, 25, 77, 79, 84) paretik kanpo atzeman. Beraz, gainerako helmuga edota norabide guztien adierazpenek -ra & -ala hartzen dute: *iraur itçaçu goure arimetara 10, hayetara eroriren 11, officiouetara assestitu 40,*²²⁷ *hartara erakharten 40, intencionetara oherescatcen 58, bekhatu orotara heda dadin 64, hartara adelatu, jaixi beicen apostolietara 77, etab.*

2.3.3.2.15. *Chaho*

Chahoren idazkietan -at duten aukeren maiztasuna bereziki altua da. Izan ere, corpuseko testu gehienetan -t gabeko adlatiboak agerrarazi dituzten aditz batzuk, Chahok -t-dun morfemekin ematen ditu, perpausean semantikoki horretara behartuko lukeen begien bistako osagarririk ez denean ere. Betoz -at aukeren erabilera hedatu horren adibide batzuk:²²⁸

- (416) *bildu zien artzainek bere olhetarat (AztBeg XVI)*
- (417) *Uduri zait egun Jinkuak deitzen naiala Pariserat. (AztBeg XIII)*
- (418) *Ez ginduke egorri nahi Parisko asenbladarat gizon erlijione gaberik (AztBeg IX)*
- (419) *gidatzen zituzten biktoriarat (AztBeg IV)*
- (420) *karrosan phartitu zen Pauerat. (AztBeg VI)*
- (421) *Kestione hau utzirik saihetsialat (AztBeg XIII)*
- (422) *Hen utzultzin lur aphaltetarat (AztBeg XVI)*

2.3.3.2.16. *Meditacioniac (1844)*

Erran daiteke Baratciarten *meditazioneen* moldaketa den liburu honetan ere -t erako adlatiboak ohi baino maizago erabiliak direla. Hasteko, -t gabeko morfemak *eror, ixur, jin,*

²²⁷ Bere iruzkin batean, Gèzek implizituki bereizten du *mezara* vs. *ofizioetarat*: “je vais à l'église (faire une petite prière), *elizala banoa* ; [...] je vais à l'église (pour assister à tout l'office), *elizalat banoa*” (1873: 9). *Doctrina khiristia*-koaz landara, gure corpusak *ofizio* hitzaren adlatiboaren etsenplu batzuk eskaintzen ditu, *asesti, igor & joan* aditzekilako: *officio saintietara joan* (Bp II 43); *cerbutchu saintietara joan* (Bp II 20); *Pronuala eta beste Ofizuetara asestitü* (CatS), *Eliçaco oficiouetarat igorten* (Medit 194).

²²⁸ Hau baino menturaz adierazgarriago dena, biga idazkitan Chahok -t ematen du aditz-izenetan: *erabiltzerat* (IX), *ezartzerat* (IX), *joiterat* (VIII) & *predikatzerat* (IX). Gogora bedi Zuberoan aditz-izenek -t-ren agerpena eragozten dutela (Oyharcabal 1991: 400), eta hain zuzen Chahoren bi testu hauek nafar-lapurterara hurbiltzen den barietate batean idatziak dira, ez zubereraz: *Donaphaleuko populian eta republicain aldeko pharthez laborarier, ofizialer, langiler eta Braseruer & Nekazale baten kontseilua Lapurtar laborarier, ofizialer eta langileer* (AztBeg IX). Chahoz gainera, 1844ko *Meditacioniac* liburuan ere zenbait etsenplu ageri da (vid. infra).

sar edo *turna* bezalako aditzekin ageri dira (423)-(427), edo distantzia/tartearen adierazpenean (428):

- (423) *Çoure hougnetara* erorten nuçu. (Medit 5); baina *bekhatu mourtaletarat* eror 38.
- (424) *Çoumbat consolacione ez cian ichourten goure bihotcetara!* (Medit 31)
- (425) *Ekhiaren arguirc ez da secula sartcen presoundegui hartara* (Medit 73)
- (426) *Ez nuçu berriz tournaturen, orai dolu dudan bekhatietara.* (Medit 151)
- (427) *Ene Gincoua eta ene Jauna nitara jin dadin!* (Medit 205)
- (428) *Burutic hougnetara odolztaturic* (27)

Erran bezala, aipagarriena da *-t-dun* adlatiboen erabilpen naroa (429)-(440):

- (429) *hain miseria eta desolacione handirat* egoisten *nayanaz gagnen!* (Medit 33)
- (430) *Haimbeste phenxamentu eta desir theyu ene nahitarat* etchekitez (Medit 156)
- (431) *Azcar eçaçu eta heda lurraren bazter orotarat.* (Medit 174)
- (432) *Hartarat heltceco digne errenda neçaçu* (Medit 178)
- (433) *Aita-amec, ezpadutie berren horrac [...] oficiouetarat* igorten (Medit 194)
- (434) *Seculaco lecerat* ihes eguin deçala (Medit 221)
- (435) *satisfaturic gouatça etcherat* (Medit 87)
- (436) *nigar eta neketarat* coudenaturic (Medit 29)
- (437) *Crima orotarat* lerratcen da. (Medit 160)
- (438) [*Hiltcia*] *hartarat ounxa* preparatcecoz. (Medit 49)
- (439) [...] *celuticaco maniac coffessoraren arguietarat* uzten *dutu* (Medit 162)
- (440) *Laphourdico uscaratic, ciberoucoulat* *cerbait khanbioreki* utculiric. (Medit 1)

Norabide zehatzik gabeko mugimenduak ongi lekukotuak dira, eta haietan orotan *-at* bukaera erabilia da (441)-(443); (444)-ko pasartean bada kontraste bat norabide ezaren eta norabide jakinaren artean:

- (441) *Nourat nahi soguin deçan* (Medit 52 & 148)
- (442) *Alde orotarat sos* (Medit 144)
- (443) *Nourat ere çuhagna erorten beita, han bethi egonen da* (Medit 63)
- (444) *Abil eta nourat? Sutan erratcera, phena orotaric handieniala, suplicio orotaric thorpeniala* (Medit 59)

Azkenik, *Meditacioniac* liburuan Zuberoan espero ez direnak ere ageri dira, menturaz lapurterazko iturriaren eraginez. Batetik, *-t-dun* adlatiboarekiko aditz-izenak: *eguiterat obligatu* 132, *errecebitcerat preparatceco* 139, *eraixterat utz* 176, *prest nuçu* [...] *uzterat* 213-214 & *ausartcen nuçu çu ene aita deitcerat* 178 —halere, *-t* gabeko adlatiboarekiko aditz-izenak 39 dira—. Bestetik, *zuintarat* erlatibozkoa (445):

- (445) *Erresouma hartan, çouintarat apostoliec, martirec eta Virgina saintiec eçin jardixi beitie heltcia* (Medit 177-178)

2.3.3.2.17. Ebanjelio Saintia (1873)

Chez Anna Urruty ez da ustekaberik *-t/ -ø* aukeren banaketan. Norabide edota xede zehatzeko mugimendua adierazten duten aditzekin *-ra & -ala* baliatzen du; zehazki, ondoko aditzekin: *elkhi, eraman, eror, igaran, ixur, jin, joan, khümita, urthuki, ütziül* (446)-(455):

- (446) *Elkhi cen berriz Judiouetara, eta erran ceren.* (EvS 18, 38)
- (447) *Ordian eraman cien Pharisienetara guiçon utxu ohia.* (EvS 9, 13)
- (448) *Ene jentec enundien utcico Judiouen eskietara erortera.* (EvS 18, 36)
- (449) *Ordian Jesus igaran cen mendi batetara eta han jarri cen [...]* (EvS 6, 3)
- (450) *Jaunaren hougnetara olio ussain goçozco bat ichouri ciana.* (EvS 11, 2)
- (451) *Jin cen Samariaco hiri Sichar deithu batetara.* (EvS 4, 5)
- (452) *Bena çouaçà ene anaietara, eta erreçu* (EvS 20, 17)
- (453) *Jesus bera ere khumitaturic içan cen ezteietara.* (EvS 2, 2)
- (454) *Bere buria ourthouki cian haren hougnetara* (EvS 11, 32)
- (455) *Utçuli cien sacrificaçale aitcindarietara eta Pharisienetara* (EvS 7, 45)

(456)-ko pasarteak denbora tartearen adierazpena eta norabide zuzeneko mugimenduarena bateratzen ditu; ildo beretik, (457)-koan eiekzioaren ideia aurkitzen da:

- (456) *Ceren ainguru bat eraixten cen demborati demborala hour hartara* (EvS 5, 4)
- (457) *Elhe horic erran eta, thu eguin cian lurriala* (EvS 9, 6)

Ifrentzuan, orain arte aski ikusi den bezala, *-rat & -alat* parea norabide ezezaguneko mugimenduetan (458)-(464), itzulbiderik gabekoetan edota betikotasuna inplikatzten dutenetan (465)-(466). Ez dakargu *ifernü & zelü* parearekilako adibiderik, espero bezala guztiak ere molde honetan sartuak baitira.

- (458) *Eztakicie nountic jiten den, ez nourat jouaiten den.* (EvS 3, 8)
- (459) *Eta Jesus baçabilan harat hounat Templian.* (EvS 10, 23)
- (460) *Jauna, nourat çouaçà?* (EvS 13, 36)
- (461) *Jauna, eztakiçugu nourat jouaiten ciren, eta noula dakigu bidia?* (EvS 14, 5)
- (462) *Hortaric harat* (EvS 19, 12)
- (463) *Eraman die hobitic camporat, bena eztakigu noun eçarri dien.* (EvS 20, 2)
- (464) *Aiciac bouhatcen du nahi dian lekialat.* (EvS 3, 8)
- (465) *Eritarçun hau ezta herioualat dagouena.* (EvS 11, 4)
- (466) *Bilduric suialat ourthoukico die, eta erreco da.* (EvS 15, 6)

Kanporatzearen ideia ere *-t*-dun markaz deklinatzen du Anna Urrutyk (467)-(469): hain zuzen, *kanpo* aditzondoaren adlatiboak zortzi agerraldietarik zortzietan *-t* morfoa du.²²⁹ Halaber, *etxerat* bi aldiz ageri da, eta behin ere ez *etxera* edo *etxiala* (470)-(471) —errespektu

²²⁹ EvS 9, 34; 9, 35; 11, 44; 12, 31; 12, 42; 19, 4; 19, 13; 20, 2.

horretara corpusetik idoki diren datuekin bat egiten duena guztiz—. Egoera aldaketak ere *-at* akabantzaz adierazten ahal ditu (472):

- (467) *Ordian hila elki cen camporat (EvS 11, 44)*
- (468) *Orai mundu hountaco princiatic ourthoukiric içanen dira camporat. (EvS 12, 31)*
- (469) *Etcien aithorcen lotxaz synagogati camporat igor litcen. (EvS 12, 42)*
- (470) *Eta bakhotcha jouan cen bere etcherat. (EvS 7, 53)*
- (471) *Ordian dicipuliac utçuli ciren beren etcherat. (EvS 20, 10)*
- (472) *Cien tristecia khambiatuico da boztarioualat. (EvS 16, 20)*

Azkenik, (473) & (474)-ko pasarteek *-t-dun* eta gabeko marken arteko kontrastea perpauaren barnean ilustratzen dute:

- (473) *Eta barkha batetara igaranic, huillantcen cien Capernaumeco aldialat (EvS 6, 17)*
- (474) *Eta Jesusec beitçakian bere Aitac eman ceitçola gaiçac oro eskietara, eta jin cela Jincoua ganic, eta Jincoua ganat baçouela. (EvS 13, 3)*

2.3.3.2.18. Aldirietarat soño bat: *Linguae Vasconum Primitiae*

Etxepareren liburua azterkaturik, orotara hamar aldiz atzeman dugu *-rat*, zeinetarik hirutan *hantik harat* denborazkoan baitatza; gainerako zazpien artean *norat*, *hunat* edo *horrat* aditzondoak nagusi dira. Zenbaitetan iduri luke *-rat* atzizkiak balio direkzionala markatzen duela (476)-(477):

- (475) *Zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara. (Eskaintza gutuna)*
- (476) *Arima gaixoa dabilela norat ahal dagien (“Oratione igandeko”)*
- (477) *Elas norat ihes naidi zu neure ama uzirik (“Amorosen gaztiguia”)*
- (478) *Elas othoi hunat beha bekhatore guzia (“Oratione igandeko”)*
- (479) *Arzain orok bilzen ditu ardiak arratsaldian / Lekhu honerat eramaiten eguraldi gaizian (“Oratione igandeko”)*
- (480) *Ordu gaizareki horrat zakizat (Izenburu bat)*
- (481) *Zaude ixilik zoaz horrat eta hobe baitate. (“Amore gogorraren despita”)*

Beharbada aipagarriena da aditz-izenek, Zuberoan bezala, ez dutela *-rat* hartzen: *agerzera*, *aipazera*, *egitera*, *ereitera*, *erraitera*, *galzera*, *hilzera*, *imeitera*, *irestera*, *jatera*, *jitera*, *jujatzera*, *penazera*, *salbaltzera*, *tentatzera* & *ustelzera*. Bestenaz, Etxeparek ondoko aditzekin baliatzen du *-ra*: *zugana niatorkezu* (“Oracionia”), *othoizera balia* (“Oracionia”), *fin honera hel gizazu* (“Amorosen gaztiguya”), *hura iganen da berze ororen gainera* (“Contrapas”) & *bihozera so diagozu* (“Oratione igandeco”).

2.3.3.3. Azterketaren emaitzak *-t* vs. *-∅* oposizioaz

Testukako azterketaren ondoan, Zuberoako testuen azterketarik idoki ondorioak aurkeztuko ditugu, adlatiboko *-t* vs. *-∅* oposizioaren deskripzio batera heltzeko xedez. Igartuaren (1986) eta sustut Oyharçabalen (1991) lanen ondorioetarik abiatu, eta Zuberoako euskara historikoaren corpusean azterketa sistematikoa eginik, deus baino lehen erran behar da idazle zuberotar gehienek *-t*-dun eta *-t* gabeko bi adlatibo bereizi izan dutela. Lekuan leku, kasuan kasu, *-t*-dun aldaerek honako ñabardurak adierazten dituzte:

- Itzulbiderik gabeko mugimenduak: *zeliürat, iferniürat (zeliialat, ifernialat)*.
- Itzulbidea duten mugimenduak, baina luzaz egoteko lekualdatzea ekartzen dutenean: *Ameriketarat*.
- Norabide eza, norabide ezezagun edo zehaztugabea.
- Diskurtsoa edo gertaldia mugimenduaren iraunaldian sartua denean.
- Egoera kanbiamenduak.

Aldiz, *-t* gabeko adlatiboek ondokoak adierazten dituzte:

- Joan-jinak, egonaldi laburrak edo xede zehatza duten mugimenduak.
- Egonaldi luzea izan arren, bukaera jakina duenean (*mündü huntara*).
- Helmuga zehatza duten mugimenduak.

Hau da, ñabardura semantikoak bi ardatzetan multzoka daitezke: a) leku-aldatzearen iraupenari doakiona, eta b) mugimenduaren norabideari doakiona. Pentsatzen badugu bi ardatz horien konbinazioak ñabar gerta daitezkeela, eta horri mota bateko edo besteko arrazoiengatik esplikatu daitezkeen salbuespenak gehitu behar zaizkiola, ulertzekoa da iraganeko gramatikagileek, auzi hau erreduzitu edo sinplifikatu nahian, (zaticako) iritzi desberdinak plazara litzaten.

Charlemagne trajeriaren testua sakonki ikerturik, Oyharçabalek *-t* & *-∅* adlatiboen arteko banaketa zedarriztatu du. Gure lana, beraz, gehiago izan da deskripzio hori gainerako testuetan zein puntutaraino betetzen den neurtzea. § 2.3.3.1 atalean aitzinatu ditugun erregeletara itzuliz, badirudi Oyharçabalen deskripzioa hein handi batean Zuberoako corpusera heda daitekeela, horretaz gainerako beste elementurik bi adlatiboen arteko bereizkuntzatik nolabait eskapatzen delarik:

- a) Errana den bezala, Zuberoan aditz-izenek ez dezakete *-rat* har. Hau eskrupuloski betetzen da corpusean gaindi, bi salbuespen markaturekin: Chahok bere mintzairatik urruntzen den hizkera batean idatzitako pare bat testu, eta 1844an lapurterazko iturri batetik moldatua den *Meditacioniac* liburua —halere, *-t* gabeko aukeraren alde guztiz lerratzen da: 5 vs. 40—.
- b) Moduzko adizlagunek ere ez dezakete *-t* agerraraz: *arabera / arauala, zien ohorjala / ohoretara, zernahi gisatara, zien othoitzetara, gure nahietara*, etab.
- c) Orobat ezar daiteke *zoin / zuñ* erlatiboazko partikulaz: salbuespen bakar batekin (445), beti *zointara / zuñtara*.
- d) Erromantzeei, eta partikularzki frantsesari mailegu zaizkion aditzen adlatiboazko erregimena kalkatzen delarik, molde iragangaitzean, beti *-ra* agertzen da: *zerbaitetara abandonatü, arranjatü, determinatü, disposatü, hümiatü, konformatü, libratü* edo *obligatü*; cf. fr. *s'abandonner à qqc., s'arranger à qqc., être déterminé à qqc.*, etc.
- e) Halaber, *-ra* erabiltzen da *errespektü hortara* bezalako lokailu mailegatueta, hizkuntzaren barnetik sortuak direnekiko kontrastean: *orotarat ere*.
- f) Lexemakako azterketak Oyharçabalek deskribatutako hainbat aditzen adlatibo motarekiko erregimena berresten du, baina honetan bada salbuespen gehiago. Beraz, hainbatetan adlatiboaren aukera mugimendua adierazten duen aditzaren arabera izaten da: *-ra heltü, jin, sarthü...* vs. *-rat apharta, enbarka, erretira, etsila, ezkapa, kundena*, etab. Halere, baliteke perpauseko beste osagai batek espero ez dugun marka agerraraztea (adibidez, *khanporat*). Beste aditz batzuekin ez da alde aurretiko hauturik; adibidez, *Erregek beregana deitü nai* (zerbait manatu behar dit, ez naiz haren aitzinean luzaz izanen) vs. *Jinkuak bereganat deithü nai* (eternitaterat).
- g) Espazioari lotzen zaizkion ñabardurak denboraren adierazpena ere aplika daitezke. Beraz, espazioan *-rat* norabidearen markatzeko baliatzen bada, eta *-ra* bi puntuen arteko distantziaren adierazteko, denboran ere batetik *heben harat, han harat* bezalakoak aurkituko ditugu (sekulan ez ***heben hara*), eta bestetik *egüneti(k) egüniala, bi hilabetetarik bi hilabetetara, demboratic demborala* bezalakoak (sekulan ez ***egünetik egünialat*); ikus § 2.3.2.2.4.

Gure azterketaren ondorioa da bi adlatiboaren arteko kontrastea lausotuz joan dela, eta hori koherentea da Mitxelenaren hitzekin: “parece indicar, en época antigua [...]” (1970-1980: 414). Egungo hiztunek, beraz, aski galdua sentitzen dukete *-t* vs. *-∅* oposizioa: “Les quelques tentatives que j'ai personnellement faites m'ont simplement convaincu de la

difficulté à obtenir de la part des Souletins des précisions claires sur ce sujet” (Oyharçabal 1991: 401). Eta Santazilia urrunago doa: “While the issue has not been thoroughly researched, I think that nowadays few or no speakers make that distinction by means of the stop” (2013: 259).

Bada oraino *-t* morfoaren balioaren iluntzearen beste zantzu bat. Ikusiko denez, XIX. mendeko Zuberoan hurbiltze adlatiboaren adierazteko molde berriak azaleratzen dira, *-t* horretaz landara (cf. § 2.4.2), eta pentsatzekoa da berrikuntza horiek ez direla arrazoirik gabe sortu. Ildo horretarik, pentsa ote genezake hiztunek *-t*-ren balioaren ñabardura batzuk atxiki dituztela, eta besteak galdu? Hipotesi horretan barnatuz, baliteke XIX. mendetik geroz *-t* morfoaren balioa gehiago iraupenera lerratu izana, helbideari lotutako ñabardurak lausotuz joateko. Hain zuzen, horrek esplikatu lezake zergatik *-t* moldeko adlatiboak iraun duen, baina aldi berean hiztunek baliabide berriak sortu dituzten, hain zuzen ere, balio direkzionalaren adierazteko.

2.3.4. Ondorioak

Zuberoako euskara historikoak polimorfismo ñabarra du adlatiboaren kasu-marketan. Hasteko, ekialde handian bezala, kasu lokatiboetan bizidunak —edo, hobeki erraiteko, adimendunak— sistema hirukoitz batean deklinatzen dira, *-ta*, *-gan* & *beitha*- aukeren arabera. Gure azterketa bizigabeetan, izen arrunt zein berezietan zentratu da. Hauen adlatiboarentzat, Zuberoako euskarak aukera lauhoitza ematen du: *-ra*, *-ala*, *-rat* & *-alat*. Deus baino lehen, gaztiga dezagun corpuseko datuetarik ez dugula bilakaera argirik idoki ahal izan, eta hori dela kausa ondorio hauetan ardatz diakronikoa ez dela apenas aipatua.

Lehen pareari doakionean, orain arte proposatu den arauak izen berezi eta arrunten artean bereizten du: *Mendira(t)* (*Mendi* izeneko herrira) vs. *mendiala(t)* (bat. ‘mendira’). Oro har egia izanik ere, *-ra* & *-ala* pareak ezartzen duen bereizkuntza ez da beti net, eta arauak salbuespenak ditu. Batzuetan izen arrunt ala bereiz gisara hautematearen araberrako erabilerak postula daitezke: *etxera(t)* vs. *etxiala(t)*, *Zeliirat* vs. *zelialat*, etab.; halere, hori ez da hain garbi, *etxera/etxialat* parearen azterketak erakutsi duenez. Bestenaz, toponimiak nekez esplikatu litezkeen hautuak erakusten dizkigu: *Jüdeala(t)*, *Italiala(t)*, *Españala(t)* vs. *Jerüsalemara(t)*, *Alemanietara(t)*, *Frantziara(t)*; guri bederen *Españala* & *Frantziara* hautuen arrazoia guztiz eskapatzen zaigu, eta corpusean gaindi zerrenda luzeskoa litzateke.

Halaber, leku-denborazko zenbait aditzondok *-ra(t)* edo *-ala(t)* hartzen dute. Batzuetan desberdintasuna garbia da: *aitzinerara(t)* ‘aurrera’ vs. *aitziniara(t)* ‘[norbait edo zerbaiten]

aurrera', baina besteetan ez da diferentziarik: testuetan *gibelara(t)*, *kanpora(t)* eta *gibeliala(t)*, *khanpuala(t)* berdintsu erabiliak dira. Moduzko zenbait egituratan *-ra* & *-ala* aukera libre gisara ageri dira: *araura/arauera/arabera* nahiz *arauala*, eta orobat erran daiteke denbora tartea adierazten duten egiturez: testuek berdin ematen dute *egünetik egünera* & *egünetik egüniala /denborala / urthiala*, etab.

Adlatiboaren *-t*-dun eta *-t* gabeko aukerak direnaz bezainbatean, erran dezakegu Zuberoako testu gehientsuenetan bi adlatiboen arteko bereizkuntzarik betetzen dela. Gramatikagileek beharbada bereizkuntza hori sinpletu nahi izan dute, ñabardura batera ala bestera erreduzitzen, baina testuen lekukotzatik ateratzen den informazioa aberatsagoa da. Beraz, Oyharçabal baino lehen formulatuak ziren bi ñabardura semantiko motetarik bata ala bestea hautatu gabe, gehiago ikusi dugu *-t*-dun eta gabeko morfemek ñabardura semantiko guztiak adierazten dituztela, funtsean bi ardatzetan kokatuak: mugimenduaren iraupena vs. mugimenduaren norabidea.

Zenbait testuinguru morfo-sintaktikok dudarik gabe *-t*-ren agerpena eragozten dute: *zertara*, *zointara* eta aditz-izenak. Beste maila batean, erromantzeari mailegatu aditzak ez ezik, haien adlatibozko erregimenaren kalkoa ere egiten delarik, zuberotarrek beti *-ra* ematen dute, haientzat *-ra* aukera ez markatua delako seinale. Horietarik kanpo, semantikaren aldetik deskribatu edo proposatu izan diren ñabardurak, funtsez, hiru erregelatan bil daitezke:

- *-t* itzulbide gabeko —edo beranteko— mugimenduetan erabiltzen da, eta *-t* gabeko aukerak helburu zehatz batekin egiten direnetan edota laster itzultzeko direnetan.
- *-t* norabide zehatzik gabeko mugimenduetan erabiltzen da, eta $-\emptyset$ helmuga ezagun edota zehatza dutenetan.
- ekintza edo gertaldiaren momentuan dirauen mugimenduaren helmugak *-t* eskatzen du (*-rat zohala...*).

Erregela hauen betetze maila testu batetik bestera kanbiatzen da: zenbaitetan sistematikoa dela erran daiteke, eta beste muturrean *-t* apenas ageri da *ifernü* & *zelü* paretik landara. Bestenaz, hainbat aditzek aukera bata ala bestea faboratzen dute, batzuetan agerrarazten ere. Nolanahi ere, XIX. mendera arte *-t* morfoaren erabilpenean kanbiamendu aipagarriak deskribatu ez dugun arren, badirudi adlatiboaren bilakaeraren norabidea bi aukeren arteko kontrastearen ahultzea dela (cf. Chaho eta 1844ko *Meditacioniac*), menturaz ez ñabardura semantiko guztietan, baizik ere balio direkzionalean. Horrekiko koherentziaz, XIX. mendean hurbiltze adlatiboaren adierazteko molde berriak ageriko dira (§ 2.4.2).

2.4. Adlatiboaren gainean sortutako kasu lokatibo konposatuak

- 3.4.1. Sarrera
- 3.4.2. Hurbiltze adlatiboa, *-t* morfoaz landara
 - 3.4.2.1. Abiapuntua
 - 3.4.2.2. *Aldialat & khantila*
 - 3.4.2.3. [DAT/ADL + *bürüz*] egitura
- 3.4.3. Muga adlatiboa
 - 3.4.3.1. Abiapuntua
 - 3.4.3.2. *-dano & -drano*
 - 3.4.3.3. *-rano & -alano*
 - 3.4.3.4. *-ra(d)ino*
 - 3.4.3.5. *artio & artino*
 - 3.4.3.5.1. Aditzoin + *arti(n)o*
 - 3.4.3.5.2. Perfektibo + *arti(n)o*
 - 3.4.3.5.3. Perpaus jokatu + *arti(n)o*
 - 3.4.3.5.4. Aditzondo + *arti(n)o*
 - 3.4.3.5.5. Izen + *arti(n)o*
- 3.4.4. Destinatiboa
- 3.4.5. Ondorioak

2.4.1. Sarrera

Aitzineko atalean adlatiboa azterturik, oraingo honetan hari dagozkion morfemen gainean eratu diren kasu-marken azterketa proposatzen dugu, Euskaltzaindiaren terminologian *hurbiltze adlatiboan* (norat, norantz) eta *muga adlatiboan* (noraino) bilduak.²³⁰ Hurbiltze adlatiboaz denaz bezainbatean, Zuberoako euskarari datzekion informazio gehiena *-rat & -alat* pareari eskaini zaion atalean eman dugu (§ 2.3.3); beraz, hemen soilik *-t* horrez kanpoko erabilerak tratatuko dira, hots, balio direkzionalaren adierazteko sortu diren egitura berriak: batetik, *alde & khantü* postposizioak (§ 2.4.2.2) eta, bestetik, [DAT/ADL + *bürüz*] egitura (§ 2.4.2.3) dela tartean. Bestalde, muga adlatiboak (§ 2.4.3), euskara osoan bezala,

²³⁰ Hualdek & Ortiz de Urbinak honako leku kasuak deskribatzen dituzte euskararentzat: “the Locative, the Ablative, the Allative, and the compound cases formed on the Allative: Directional, Terminative and Destinative” (2003: 116). Tesi honetan *direkzional* eta *terminatibo* erabiltzea haztatu badugu ere, azkenik Euskaltzaindiaren terminologiari lotzea erabaki dugu, euskal gramatikagintzan aski errotua delako. Hori ez ezik, *terminatibo* erabiltzeak § 2.3.3. atalean baliatu dugun kontzeptu batekiko nahaspilatzerik sorraraz lezake, hots, adlatiboak adierazten duen mugimenduaren itzulbide gabetasuna edo betikotasuna. Beraz, *direkzional & terminatibo* terminoak *-rat & -alat* pareak adierazten dituzten ñabardura semantikoei lotuak erabili ditugu, eta ez *norantz & noraino* gisara ulertzen diren kasu-markei.

Zuberoan ere aldakortasun morfologiko nabarmena du. Puntu horretan ez gara hertsiki izen morfologiara mugatuko, kasu-marka konposatu honetan sartzen diren forma batzuk aditzondoei, aditzaren forma jokatu-gabeei eta are perpaus jokatu-eei ere lotzen baitzaizkie. Beraz, nagusiki irizpide semantikoa baliatuko zaigu. Azkenik, adlatibo markari *-ko* eranstearen emaitzak laburzki azterkatuko ditugu, Hualde & Ortiz de Urbinaren terminologian *destinative* kasuan sartuko lirakekeenak (§ 2.4.4).

2.4.2. Hurbiltze adlatiboa, *-t* morfoaz landara

2.4.2.1. Abiapuntua

Euskal gramatikagintzan *hurbiltze adlatibo* gisara ezagutzen den kasua, *molto grosso modo* Hegoaldeko mintzoetan *-rantz* eta antzeko marken bidez adierazten da, eta Iparraldeko mintzoetan *-t*-dun adlatibozko atzizkiez. Aipatuko diren atzizkien jatorriaz formulatu diren hipotesien kontu errendatze orokor batentzat, ikus Santazilia 2013. Mendebaldeko *-rant* / *-rontz* / *-runtz* seriea alde batera utzita, bai eta *-ka* aditzondo-morfemaren gainean Gipuzkoa aldean eratzen hasi diren adlatiboak (*etxeraka goaz*), Ekialdeko euskarak bi aukera nagusi ditu hurbiltze adlatiboaren adierazteko: a) *-t* morfoa adlatiboaren marketan agerraraziz (§ 2.3.3); eta b) zenbait postposizioen bidez.

2.4.2.2. *Aldialat, khantiala*

Aldera euskara osoan aurki daiteke, ezkerrean absolutibo zein genitiboa baliaturik; Zuberoan ere erabilia da, kasik beti *-alat* markaz. Ohartarazi behar da gure corpusean erabilpen horrek franko berria dirudiela, Ressegueren *goure alderatco* destinatiboaz landara (591) XIX. mendean datatzen baita:

- (475) *Utçul cite ene aldialat* (UskLi 116)
- (476) *Badöa erresolutoki Turken aldialat azkena cen* barcöala (*MaiMarHil* 111)
- (477) *Badira üzkal dialat gizontzen direnak* (*Ip Dial* 15)
- (478) *Pacientciatxu da goure aldialat* (*Epit* III 3, 9)
- (479) *Eta barkha batetara igaranic, huillantcen cien Capernaumeco aldialat* (*EvS* 6, 17)
- (480) *Ourthouc eçacie saria barkharen eskugneco aldialat* (*EvS* 21, 6)
- (481) *Ferragus jiganta / zamariz jin, üzki alako aldialat delarik.* (*CanBel* 79-di)

Zuberoan beste postposiziorik ere erabiltzen da hurbiltze balioaz: *-(ar)en khantiala*, beti ere *-t* gabeko adlatibo markarekiko. Forma honetan *khantü* “auprès” (*Gèze* s.v.) datza, *khantü* ‘kantoi’ oxitonoarekin nahasi behar ez dena (cf. I, § 1.4), etimologikoki jatorri berekoak izan arren. Corpusean postposizio hau XVIII. mende erdian azaleratzen da (482)-(483):

- (482) *Çuc iferniaren khantiala eramaiten gutuçu.* (Mst III 50, 5)
 (483) *Antoina jouan oray haren khantiala eta belharica.* (StJul 834-di)
 (484) *Heltü zen emaztiaren khantiala harritürik.* (Egiat I 20)
 (485) *Ainguricq aguer hilen kantiala cierga bederareky.* (SteEli 471-di)
 (486) *Ikhoussiric Grat zubaltian, deitcen du khantiala [...]* (SGrat 4)
 (487) *[...] bena khantiala cirenian, tanpez hougnaç inkantatu ceitcen.* (SGrat 10-11)

Corpusak lekukotzen duen denbora tartearen akabantzara arte, Zuberoan *aldialat* eta *khantiala* betiere genitibo baten ondoan emanak dira.

2.4.2.3. [DAT / ADL + *bürüz*] egitura

Ezaguna denez, ekialdeko mintzoetan bada beste bide bat hurbiltze adlatiboaren adierazteko: [DAT + *buruz*] egitura “Hacia, en dirección a; mirando a, frente a, contra” (OEH s.v. *buruz*). Molde hau Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun ezaguna da (*ibid.*), eta haren jatorria, Pikabeak markatu bezala (1993: 218),²³¹ gaskoian xerkatu behar da: *cap ara glèisha* → *elizari buruz* ‘elizarantz / elizarat’. Egitura honek adlatiboarekiko paraleloa du: *elizarat bürüz* (cf. OEH s.v. *buruz* 2). Bi-biak ber maneran sartuak dirateke euskaran, ezen erromantzearen *a* preposizioaren euskal ordaina berdin izan baitaiteke datiboaren nahiz adlatiboaren marka.

OEH-ren arabera, [DAT + *buruz*] egitura XIX. mendean bigarren partean orokortzen da Iparraldean, baina jada *Charlemagne* trajerian lekukotua da (488). Zuberoako testuetan barna, [DAT + *bürüz*] XIX. mendean lekukotzen da, bereziki Chahorengan, *MaiMarHil* liburuan (1852) eta *Sen Grat* testuñoan (1879). Chahok denborazko balioaren lehen testigantza ematen du (490) —Gotzon Garatek Zaraitzun eta Erronkarin bildutako erramolde zenbaitez apart utzirik, OEH-k jaso duen zaharrena Hiriart-Urrutyrena da—. Azkenik, ez da falta pluraleko datiboaren adibiderik (493)-(494).

- (488) *Hox emaçie bertan / Bordeleri burus / ataca ahal ditçagun / aygalon eta ferragus* (Xarlem 400)
 (489) *Eliçaric huillenari buruz utçuliric, eguiçu çoure othoitcia* (UskLi 66 [1836ko ed.])²³²

²³¹ “[...] gure ustez adlatiboaren agertzeak ez luke zerikusi zuzenik behe nafarrera edo frantsesarekin izango, ez baitugu kidekorik ediren hauetan, itxuraz bederen izan zezakeelarik, aldiz, zertxobait gaskoierarekin, honako esapideok idoro baititugu: «*Cap a*, de *cap a*, fr. ‘vers’; de *cap ara glèyso*, vers l’église» [Rohlf 1935: 202]; «*Cap a l’arriu*, vers le ruisseau» [Palay 195]; «*Ana de cap a la mountanhe*, aller vers la montagne» [Lespy 35]” (Pikabea 1993: 218).

²³² *Uscara Libriaren* 1814ko eta 1828ko edizioek mamu bat zekarten: *Sacramentu Saintia egoyten den eliçaric huillen celilat buruz utçuliric* (1814, 63. or.); pasarte hori dudarik gabe Oloroeko katiximaren bigarren bertsiotik

- (490) [...] *daigun urthiari buruz Jaon deputatu hoiak fantasi bat har baleze* (Chaho AztBeg XII)
- (491) *Lagunt nezazu gisaz nun, untza denari buruz jarraiki dezadan bethiere zure boronthate saintiaren bidia.* (Chaho AztBeg XIV 12)
- (492) *Urhatsa eraman zin Errumari buruz.* (Chaho AztBeg XVI)
- (493) *Houlaco edo halaco eguitecoer buruz abiatu guirelaco.* (MaiMarHil 73)
- (494) [...] *landjerez unguraturic ene etsai gucier buruz.* (MaiMarHil 98)
- (495) *Dozena bat barco, [...] baçoatçan, itchaso Adriaticoa gaini, Benisaco hiriari buruz.* (MaiMarHil 109)
- (496) *Beau-Sejour lehen Soldado herrocan cen etsaiari buruz* (MaiMarHil 114)
- (497) *Ohiala baztertzen, eta saintiari buruz unguraten.* (SGrat 7)
- (498) *Erouaiten die elizaco bere jarguiala: hari buruz soguiliac hasperenez nigarez.* (SGrat 15)
- (499) *Beste alde batetarat buruz; zohardia utzuli.* (SGrat 20)

Errana dugu, *a priori* okzitanieraren *Cap a Auluru* direkzionalaren kalkoa berdin izan daiteke *Uluruari bürüz* ala *Uluru(ra)t bürüz*; izan ere, erromantzeetan *a / à* preposiziozko erregimena duten aditzen mailegatzean, euskal hiztunek maiz adlatiboa hautatu dute.²³³ Zuberoako testuetan, [ALL + *bürüz*] egituraren lehen agerraldia 1743koa da (500);²³⁴ beraz, datiboarekikoa baina goiztiarrago.

OEH-k Baxenafarroan eta Zuberoan kokatzen du adlatiboarekiko egitura. Lhandek “*Oihanetarat bürüz, vers les bois*” jasotzen du, eta Lafitterentzat mugimendua inplikitzen du: “*L'allatif est employé avec: [...] buruz, vers (avec mouvement). [...] Etxera buruz bazoan, il allait vers la maison*” (1944 § 389). *Erizkizundi Irukoitzean* Azkuek Lapurdiko behe nafarreran, Bardozen, Garazin, Arberoan, Amikuzen eta Zuberoan jaso zuen egitura, adlatibozko markan *-t-dun* nahiz gabeko aldaerekin (*OEH* s.v. *buruz*), eta gure corpusaren datuen arabera, Zuberoan [ALL + *bürüz*] betiere *-t-dun* aldaera agerrarazten du (500)-(507):

- (500) *Sacramentu saintia egoiten den Eliçaric huillanenaren aldialat buruz utçuliric bere othoitcia eguin.* (CatOlo2 1-2; cf 232. oharra)

(1743) hartua da: *Sacramentu saintia egoiten den Eliçaric huillanenaren aldialat buruz utçuliric* (CatOlo2 1-2). Hutsa gorabehera, argi da hor adlatibo direkzionalazko egitura bat datzala. Aldiz, *Uscara Libriaren* 1836ko edizioan *huillanari buruz*-ekin korrejitzen dute (66. or.). Baina *OEH*-k *UskLiB* [berria] laburduraz markatzen duen testua —“Oloron, c. 1837” — adlatibora itzultzen da; hain zuzen, *OEH*-k hortxe datatzen du [ALL + *buruz*] egituraren lehenbiziko agerraldia: *Elizarik hüllanenilat bürüz ütçulirik egizü zure othoitzia* (*UskLiB* 73).

²³³ Etsenplu bakarreko kasua aipatzeko, 1780an Mercyk aurkhitzez confray agonisanten ostiala itzultzen du fr. *se rendre au logis des moribons confrères*. Gogora bedi *s'abandonner / se livrer / s'arranger / être déterminé à quelque chose* bezalakoak adlatibozko erregimenaz kalkatzen direla Zuberoan (§ 2.3.3.3).

²³⁴ Zorigaitzez, Oloroeko katiximaren lehen ediziozko testuak (1706) era laburragoan ematen du pasartea; hots, *Eliçaric huillanenaren aldialat buruz utçuliric* 1743ko bertsiok eransten duen zehaztapen batean kokatzen da.

- (501) [...] *aski da iguitcia, eta estacionetarat buruz utçultcia*. (Ip *KurBD* 5)
 (502) [...] *ipharraren eta ekhitzalgiaren artialat büüz*. (Ip *Dial* 17)
 (503) *Khurutchiaren bidia altharialat buruz*. (*HOrdre* 159 & *Myst* 103)
 (504) *Belharica cite khurutchiaren aitcinian edo eliçalat buruz* (*Myst* 11)
 (505) *Jacarie abiatcen, [...] Saragosserat buruz*. (*SGrat* 13)
 (506) [...] *bortian sartcen Olorouat buruz* (*SGrat* 13)
 (507) [...] *beste alde batetarat buruz; zohardia utzuli*. (*SGrat* 20)

Hurbiltze adlatibo edo direkzionala den heinean, *-at büüz* egitura berez pleonastikoa litzateke. Logikoa denez, pleonasmok eta hiperkarakterizazioak delako ezaugarri baten hautemangarritasuna ahultzen denean sortzen ohi dira, edo bederen haren markatze bereziaren beharra sentitzen delarik. Hatsarre hori gogoan, pentsa genezake (Zuberoako) hiztunak adlatiboaren *-t* morfoaren balio direkzionala ahuldua zegoenean hasi zirela [DAT/ALL + *büüz*] egitura baliatzen. Izan ere, *-t*-dun eta gabeko adlatibozko marken arteko oposizioa kari, 2.3.3.3 atalean ondorio diakroniko net garbitara etorri ez bagara ere, iduri du gure denborarat hurbildu ahala oposizio hori ahultzenago doala, eta ondorioz egungo hiztunek idazle zaharrek baino lausoago sentitzen dutela *-t* / $-\emptyset$ oposizioa, ez bada osoki galdu. Testuinguru horretan, logikoena litzateke ekialdeko euskaldunek bestelako baliabiderik xerka zezaten adiera direkzionalaren klarki markatzeko, eta seguruenik horrela ulertu behar da *aldialat* & *khantiala* postposizioen azaleratzea (§ 2.4.2.2), eta bereziki [DAT/ADL + *büüz*] egiturarena; haien kronologia berankorrek ere hala iradokitzen du.

2.4.3. Muga adlatiboa

2.4.3.1. Abiapuntua

Euskara batuan *-raino* morfemaz adierazten den kasuak, *muga adlatiboak*, aldakortasun morfologiko nabarmena du Ekialdean: *-raño*, *-radino*, *-raino*, *-raindo*, *-d(a)rano*, *-giño*, eta gehiagorik ere. Bistan da, aldaera horiek guztiek *-o* bat zerraten dute, Iparraldeko mintzoetan denborazko *-no* atzizkian datzan *-o* bera; morfema sorta horren etimologiaren gaineko iruzkin batentzat, ikus Santazilia 268-269. Arras laburbilduz, bi proposamen nagusi formulatu dira: lehena De Rijk-ena (1995), **-ra + gain + do* berreraikirik, eta bigarrena Lakarrarena, **-ra + *din + *non* segida —zehazki, aditz-multzoa (ing. *serial verb*)— postulatuturik (2008: 484). Lakarrarentzat **din* morfoa **edin* aditzaren erroarena litzateke, semantikoki franko gardena iruditzen zaiguna, eta zenbait emaitzatan morfologikoki ere ezinago garden, bereziki *-ra(d)ino* & *-dino*; cf. *deno* ‘den bitartean’.

Gure azterketaz denaz bezainbatean, Zuberoan *-drano* da maizenik baliatzen den aukera, eta bigarrenez *-rano* & *-alano* pareak. Hauek gainera, testuetan ondoko hauek ere kausi

daitezke: *-radino*, *-raino*, *-dano*, *artino* & *artio*. Ikusiko denez, forma hauek guztiek garbiki adierazten dute *terminus* edo mugaren ideia, historikoki *-(n)o* horretan zerratua. Aldiz, muga hori espazioari ala denborari lotzen zaion ez da beti hain argi; munduko hizkuntzetan ohikoa denez, adlatibodun elementua denborazko zentzuaz ere erabil daiteke.²³⁵ Ahantzi gabe, gainerako kasu lokatiboek bezala, muga adlatiboak ere balio abstraktuak adieraz ditzakeela: *Umiliatu cira apostolier [...] houngnen chahatciala drano* (*Medit* 126). Muga adlatiboaren adierazpide bakoitzaren azterketaren ondoan, atal honen akabantzan, 28. TAULAK datuak oro biltzen ditu, aztertutako moldeen arteko konparantza testuka eginik.

2.4.3.2. *-dano* & *-drano*

Muga adlatiboaren aukera morfologiko hauek De Rijkek **da* ‘nunc’ gisara interpretatu zuen forma zaharra atxiki dute (1995), Lakarraren berreraiketan inperfektiboari lotutako morfema litzatekeena (2008). Bi formatako osagaiak nahiko gardenak dira: 1) **da* + *-no*, eta 2) **da* + *-ra* + *-no*. Corpusean *-dano* morfema gutxi ageri da, eta betiere denbora aditzondoei lotua: *egundano* & *oraidano*; beraz, aldi historikoan *fase sparita*-n dela erran daiteke. *Egundano* hainbat testutan kausitu dugu: O *Po* IV 11, Tt *Olsa*, *StJul* 025, 1262 & 1265, *Egiat*, *Edipa* 004, *SteEli* 1191, *Chiveroua* 244, *Medit* 148, *Archu* 10, *CanBel* 154 & 243 (*egundanoti*), *MaiMarHil* 81, 83 & 96, *HOrdre* 82, *Myst* 36 & 136, *EvS*, 7, 46; 8, 32 & 9, 32 eta *SGrat* 23; *oraidano* soilik Archurengan (4, 8, 17 & 37).

Jatorriaren aldetik *-dano* morfematik hain hurbil gertatu arren, *-drano*-k bestelako patua izan du Zuberoan; hain zuzen, garai historikoan balio espaziala duen muga adlatiboaren adierazpide pribilegiatua izan da. Corpuseko datuen arabera, *drano*-ren lehenbiziko agerraldia Oihenarten neurtitzetan da: *oradrano* (II 10 & XXIV 4). XVII. mendean, *Olsa* eta *Arima* liburuetan, Tartasek ere adlatibo + *drano* ematen du (508)-(511), guztira zortzi agerralditan. Belapeirek bi etsenplu ematen du, biak adizlagun bederarekin. (512)-eko adibidean *drano* inesibozko markari darraio, aldi bakarra dena corpus osoan —seguruenik aditzondo gisara fosildua izateak salbuespena azaltzen du—. Badirudi *drano* XIX. mende erdian itzaltzen dela.

²³⁵ Gehienetan *hobialadrano* forma (*hobialano*, etab.) denborazko balioaz erabiltzen da, heriotzaren mementoa bezala, baina ez beti; cf. *Khorpitçaren hartcera içan diratian etchetic haren hobialadrano*. (Mercy 35). Bestenaz, *ezurretaradrano jatea* denborari lotua ere interpreta liteke

Guk dakigula, Zuberoatik kanpo Leizarragak baizik ez du *drano* eman, seguruenik haren urgazle zuberotarren herexaz azaltzeko dena.²³⁶

Haren erabilpenagatik *drano* postposizio dela erran daiteke: gehienetan grafikoki bereiz agertzen da, jada deklinatuak diren izenkien eskuinera, eta usuenik adlatibozko morfemei jarraikiz. Semantikaren aldetik igurika litekeenez, ezkerreko adlatibozko marka horiek *-t* gabeak dira, *terminus* baten markatze zehatzak hala eskatzen baitu. Izenekin *drano* espazioari zein denborari lot dakioke, eta Zuberoan horixe da erabilerarik hedatuena, Tartasengandik XIX. mendearen erdira arte:

- (508) *Adamen eta Ebaren bekhatutik, [...] egunko eguniala drano.* (Tt Onsa)
- (509) *Bere odola oro, azken gotelara drano isor beza gizonak.* (Tt Onsa)
- (510) *Nork ere perseberatuko baitu azken finera drano salbatu izanen da.* (Tt Onsa)
- (511) *Oriente hasirik ozidentera drano.* (Arima)
- (512) *Eracousteco, ordian drano eçaba eta gordez bici nahi içan cela.* (Bp II 34)
- (513) *Hara drano ihourc cer çakian hartçaz?* (Bp II 35)

Oloroeko katiximan *-ra drano* eta *-alano* perpaus berean ageri dira, guztiz trukagarriak diren testuinguruetan (514). Bestenaz, ohargarria da latinezko otoitzen izenak euskal hitzak bailiran tratatuak izatea (515). Maisterrek zerbait berri erakusten digu: *drano* aditz-izenekin, *-ala* markaren ondoan (517). Ondoko hamarkadetako testuetan *drano* ber testuinguruetan erabiltzen da, baina badirudi trajeria zaharretan gutxiago baliatzen dela, *Saint Julien*-en ez besteetan *oraidrano* baizik ez baita lekukotzen (521)-(522), eta *Charlemagnen* ez eta hori ere.

- (514) *Aventuco lehen igantiaz gueroz Erreguetaradrano, eta Goroçumaren lehen egunaz gueroz Bazco ondoco igantialano.* (CatOlo 77)
- (515) *Confiteôra erran, meaculpaladrano.* (CatOlo 92)
- (516) *Hareki [Jinkuareki], eçur chilouetara drano, juntatu içatia.* (Mst IV 13, 3)
- (517) *Jesusi hanitch jarrakiten dira oguiaren haustiala drano: eta aphur passioneco calitciaren edatiala drano.* (Mst II 11, 1)
- (518) *Noula etcen combertitu / Tolbiakeco batailaladrano.* (StJul 0108)
- (519) *Batere conservatu gabe / azken chortaladrano.* (StJul 369)
- (520) *Khorpitçaren hartcera içan diratian ethetic haren hobialadrano.* (Mercy 35)
- (521) *Sobera odol inocent / oraydrano ichoury da* (Edipa 721)
- (522) *Oraidranokouac oro / deritçat pharkatcen.* (SteEli 902)

XIX. mendean sarturik, Inperioko katiximan (1812) *drano*-ren testigantza aberats da oraino. Ohiko balioez gainera, erabilpen berezi bat markatu nahi genuke, ez espazioari, ez denborari

²³⁶ Euskal Klasikoen Corpusaren emaitzen arabera, *Testamendu Berrian drano* 21 aldiz ageri da, betiere aditzondoei jarraikiz: *noizdrano*, *oraindrano* & *hunadrano*.

bortxaz lotua, muga “moral” bati baizik, euskaraz *ere* partikularen medioz adieraz daitekeena enpexamendurik gabe (523)-(524). Bestenaz, testu honetan *drano* otoitzen izenei juntatzen ahal zaie, kasu-markarik gabe, izen bereziak bailiran (527).

- (523) *Gincouac oro batetan ikhousten dutiala, igarena, presenta, eta gitecoua, eta goure phensamenturic segretenetara drano. (DKhi 17)²³⁷*
- (524) *Enthelegatcen da Gincouac creatu dutiala ez solamente celia eta lurra bena gaiçaric ez deuseniala drano. (DKhi 18)*
- (525) *Apostolien ondouancouac gutara drano interrompituric içan gabe. (DKhi 27)*
- (526) *O ene Jesus divinoua, çouignec maithatu beinaçu ene arraerostia gati hiltciala drano, eta çoure aragui adoragarriaz ene haztiala drano. (DKhi 61)*
- (527) *Confiteora erran mea culpa drano. (DKhi 68)*

Meditacioniac liburuan *drano* lekuz zein denborazko balioekin ageri da (528)-(529), bai eta esp. ‘incluso’ / fr. ‘même’ balioaz ere (530). *Heren-Ordreco escu libria* (1860) *drano* postposizioaren erabilera ohikoaren azken lekukotzat har dezakegu, corpuseko azken etsenplua 1879koa izanik (535).

- (528) *Berartan altchatcen direnac beheraturic dira ifernuco çolara drano, eta umiliatcen direnac altchaturic celuco Tronouala drano. (Medit 126)*
- (529) *Perseverentciac Gincouaren amouriouan azken haxila-drano. (Medit 150)*
- (530) *Judas malerousa joun cen bere Naussi maitiaren saltciala drano. (Medit 39)*
- (531) *Eztitian erretira meça eta ehortceta ondouala drano. (HOrdre 22)*
- (532) *Egun oroz haiütez hasiric Basco ondoco igantiala drano. (HOrdre 44)*
- (533) *Celiala drano haren [guiçonaren] alchatceco. (HOrdre 78)*
- (534) *Ardiex eçadaçu çoure semiaren laguntzia Calbarioula drano. (HOrdre 164)*
- (535) *Canfrankerik Urdosea drano. (SGrat 13)*

2.4.3.3. -rano & -alano

-rano & -alano markak gardenak dira: Zuberoan usatzen diren adlatibozko bi morfema nagusiak gehi *-no*. Zuberoan pare hau XVII. mendetik XIX. mendera arte lekukotua da; halere, haren maiztasuna ez da *drano* postposizioarena bezain handia: nonbait 40 bat vs. 125 agerraldi, hurrenez hurren.

Adlatiboaren azterketan erakutsi denez, Oihenartek ez du *-ala* morfema erabiltzen, eta horrekiko koherentziaz ez du *-alano* ematen, *-rano* baizik (536)-(537). Belapeirerengandik bi alomorfoak agertzen dira, espero den banaketaren pean (cf. *-ra(t)* & *-ala(t)* para, § 2.3.2.1),

²³⁷ Cf. L'éternelle justice dont l'œil pénètre jusqu'à la plus secrète de nos pensées (Heures ou Méditations religieuses, a l'usage de toutes les communions de l'Église. Zurich: Chez Orell, Fussli et comp. 1816. Bigarren liburukia, 34. or.).

bizigabeekin ere, baina arras bakanki bizidunekin (539); aldiz, liturgiaren memento bat adierazten duten izenekin ohikoago da (544)-(546), izen arrunt portatzen direlako seinale. Corpusean muga adlatiboaren molde honen azken agerraldia Anna Urrutyren itzulpen batekoa da, 1873an argitaratua (552); *EKC*-ren datu basean azken agerraldiak Inchauspereen 1894ko *Maria Birjinaren hilabetia* lanekoak dira.

- (536) *Gauherdirano, bertzeren emazteareki; hal' ere beldurreki.* (O Pro 184)
 (537) *Urte gaitza, aldirano; izen gaitza, hobirano.* (O Pro 469)
 (538) *Hen predikieci mundu gucia, Herri ohiletrano [...] bethê diê.* (Bp II 117)
 (539) *Christi guciac onsa ohoratu behar dutugula, Haur chipietrano.* (Bp II 134)
 (540) *Eliçaco eré veloa goihenetic cola lano çaticatu.* (Bp II 49)
 (541) *Goroçumaren lehen egunaz gueroz Bazco ondoco igantialano.* (CatOlo 77)
 (542) *Umiliaturic, eta lurrialano aphalturic adoratcen çutut.* (Othoitce 11)
 (543) *Buru batian hassiric bestilano galthaturen du aurhide bakhoitzaren suffragioa edo votça* (Ressegue 27-28)
 (544) *Khanta Te Deum santusialano.* (SteEli 1538)
 (545) *Egon cite haren Meditacionian offertorioualano.* (UskLi 32)
 (546) *Errayten duçularic [...] Gloria uscaraz Elevationialano.* (UskLi 43)
 (547) *Miserable aguitu nuçu eta khupitu azken pphuntialano.* (UskLi 119)
 (548) *Ene bihotzaren barnialano sartzen zira, o ene Jinkua!* (CatS)
 (549) *Umiliatcen da, oguiaren uduripenen pian bere buria eçarterano: umiliatcen da, guiçon baten botçari eta hitçari obeditcerano: umiliatcen da, bere Gincotarçuna beçala, bere guiçonarçun ossoki gordatcerano: umiliatcen da, afrountu noumbre gabecouac, plagnitu gabe, hitz bat erran gabe sofritcerano.* (Medit 133)
 (550) *Ametxez dago goizetik Arraxerano.* (Archu 38)
 (551) *Hirien erauztera eta funditzerano.* (Ip Dial 23)
 (552) *Tourmentaturic eta beguiraturic içateco jujamentuco egunialano.* (Epit II 2, 4)

2.4.3.4. -ra(d)ino

Arkaismo izateko itxura duen arren, Iparralde osoan *-radino* segidaren aldaera “osoaren” testigantza aski berankorra da: Abbadie, Jean Elizalde, Mirande, Webster, Hiriart-Urruty, J. Etxepare, Duvoisin, Lafitte, Barbier, Manezaundi eta Larzabal (*EKC*). Muga adlatiboaren morfema honek ondoko bi agerraldiak baizik ez ditu corpusean:

- (553) *Arraziin diik, Bründemor, / ükhatzen die azkarki, nun eta eztiradien / ahoradino ernari.* (Malqu 257)
 (554) *Areta etxeradino juanik / eztik erri eginen* (Pierrot 163)

Zuberoan oso minoritarioa izanik ere, testuetan *-raino* aldaera *-radino* baino maizago aurkitzen da. Jada Oihenarten neurtitzetan ageririk (*gerriraino* XIII 22), gure corpusean *-raino*-ren agerpenak XIX. mendera arteko jauzia egiten du. Chahorengan *urtheraino* (*AztBeg IX*), baina batez ere Lapurdiko tradizioari so dauden beste bi testutan aurkitu dugu. Lehena 1844ko *Meditacioniac* liburua (*Purificacioneraino* 244 & 248,

Garizumaraino 244, *Candelairurainocoan* 249, *larumbaterainocoan* 251 & 252) eta bigarrena 1852ko *Maiatza edo Mariaren hilabetia* liburua (*Purificacioneraino* 151 & 156, *Garizumaraino* 152, *Candelurainocoan* 157, *larumbaterainocoan* 159 (2)); ohart bedi azken bi testuetako adibide sorta bat eta bera dela, bietan *edirengian* direla —halere, testu hauetan halako izenak *artio* & *artino* parearekin ere ageri dira, absolutiboan nahiz adlatiboan (*vid. infra*)—.

2.4.3.5. *Artio* & *artino*

Muga adlatiboari lotua ager daitekeen beste baliabide bat da *artio* & *artino* postposizio parea, denboraren mugan espezializatua. Komeni da gogoratzea *OEH*-ren arabera (s.v. *arte* II), euskara osoan *arte* soila mugazko balioaz erabil daitekeela, Zuberoan izan ezik, eta gure corpusak ere ez du behin ere adiera horren pean eman. Zuberoan, beraz, *artio* & *artino* parea dugu, historikoki ekialdera lerratuxe zegoena, eta egun Iparraldeko mintzoetan hedatuago. Zuberoatik kanpo, Lapurdiko tradizioan *arteino* ezagun da (Mattera, Axular, Harismendy, Pouvreau, Goyhetché). Gainera, hutsa ez bada, Leizarragak eta Tartasek *arteno* bana eman dute (555) & (556):

(555) *Baina egonen naiz Efesen Mendekoste arteno.* (Lç *Cor* I 16, 8)

(556) *Bere zorrak paga arteno.* (Tt *Onsa*)

Ikuspegi diakronikotik, *artino* < *arteino* < **arte dino* proposatzen da arrisku handirik hartu gabe; *artio* formaren etimologia, gure ustez, ez da hain gardena. Halaber, bi formen eremuak ez dira berak: XIX. mendera *arte*, *artio* Zuberoako eta Nafarroa Garaiko idazleengan aurkitzen ahal da, eta *artino* Zuberoan baizik ez (*OEH* s.v.); XIX. mendetik aitzina idazle *manexek* bere egiten dute bata zein bestea. Hemen ez dugu *artio* & *artino* parearen azterketa sistematikorik proposatzen, izen morfologia zeharka baizik ez baitu hunkitzen. Bestalde, bi forma bereiz izan arren, arrazoi pragmatikoengatik batera emanen dugu haien agerpenaren berri: bestelakorik adierazi ezean, *artio* formaz arituko gara, *artino* preseski gaztigatuko delarik. *OEH* abiapuntu, *artio* eta *artino* postposizioek bost erabilera dute: “Tras participio, radical, frase relativa, adverbio o sustantivo que expresa tiempo”. Gure corpusak ez du horretaz landako irudirik islatzen salbu, ikusiko denez, izenak ez direla bortxaz denborari lotzen.

2.4.3.5.1. Aditzoin + *arti(n)o*

Zuberoan orokorra da, zorigaitzez lehen testuetan agerraldirik ez den: Tartas (-*n*-), Belapeire, Maister, Ressegue, *Saint Julien*, Mercy, *Edipa*, *Charlemagne* (-*n*- ere), *Sainte Elisabeth*

(-n- ere), *Uscara libria* (-n-), *Doctrina khiristia*, *Khurutch* (-n-), *Meditacioniac* (-n- ere), *Archu* (-n-), *Chaho* (-n-), *Etchahun* (-n-), *Ip Dial*, *MaiMarHil* (-n-), *HOrdre*, *Mysterio*, *Anna Urruty* (-n-), *SGrat* eta zenbait fartsa xaribariko.

(557) *So çauscola beré discipuliac, odehy batec hen beguier estal artio*. (Bp II 68)

(558) *Eguna arguitcen has artino, eta goiçanco içarra jeiki artino*. (Epit II 1, 19)

2.4.3.5.2. Partizipio perfektibo + *arti(n)o*

Molde honek duda-mudazko lehen agerraldia du Tartasengan (559), vs. 16 aldiz aditzoinarekiko. Bestenaz, XIX. mendera arte itxaron behar da, eta halere bi testutan baizik ez da ageri (560) & (561):

(559) *Etzen sendotu [...] Iordaneko uheitzian sar eta ukuzi artino*. (Tt Arima)

(560) *Offenxatu bagunu, othe gunuke phaussuric hareki baketu artino?* (Medit 91)

(561) *Gaierdiz geroz, comuniatu artio, jan eta edan gabe egoitia*. (Catuchuma 58)

2.4.3.5.3. Perpaus jokatu + *arti(n)o*

Perpaus jokatugabeekiko egiturari konparatuz, honek kutsu zaharrago luke, edota jasoago; gure corpusean hura orokorra denean, hau lau testutan ageri da, eta ez nolanhikoak (562)-(565); gogora bedi *Igantçetaco pronoua* (1757) testuaren egiletza Maisterrena delako hipotesia babesten dugula (cf. ATALASEAN, § 3.2.3); hona, bada, horren aldeko beste zantzu bat. Gogora bedi egitura honen guztiz baliokidea dela *-no* atzizkia, Iparraldeko euskaran orokorra, eta arras ohikoa ere: soilik *deno* formarentzat, tesi honen corpusak 60 agerraldi ematen du.

(562) *Bere gaichtokerien absolucionia ukhen decen artio*. (IP 16)

(563) *Inikitate haur iaren dadin artio, eta biziak hiltzia irets dezan artio*. (Mst I 22, 5)

(564) *Ez behin, berritan edo hamarretan, bena jardiexi dukeçun artino*. (Medit 102)

(565) *Berhezi behar da gaña [...] mingatz gozo bat har dezan artio*. (Ip Dial 17)

2.4.3.5.4. Aditzondo + *arti(n)o*

Espero bezala, pare hau denborazko aditzondoekin ageri da: *bihar*, *orai*, *egun*, *berant*, *gaiherdi*, *lehen*, etab. Halere, leku aditzondoekin ere aurkitu dugu: (569)-ko pasartean *artinok* balio espazial argia du: Jakes bidean eri delarik, Elisabeth erreginak ahalegin batera exhortatzen du hurrengo ostaturaino; aldiz, (570)-eko adibidean *nura* aditzondoaren balioa abstraktua da.

(566) [...] *hassi ikun baitugu orai artigno*. (Etchart 7, 1v)

(567) *Adio, erho saldoua, / banoua sarry artio*. (StJul 78)

(568) *çoure bekhatietan orano bihar artio ere egoitia*. (Medit 91)

- (569) *Hoxt guitian arren, / isseiatu nahi nuçu; / eta hara artino / balima helturen nuçu.* (SteEli 1233)
(570) [...] *erraiten ditacie noura artino maithatu naiçun.* (Khurutch 34)

2.4.3.5.5. Izen + *arti(n)o*

OEH-ren arabera, *artio* & *artino* denbora adierazten duten izenekin erabiltzen da, baina Zuberoako testuek bestelako izenen agerpena ere lekukotzen dute, aitzinatu dugunez. Azkenean izen morfologian sarturik, bi aukera dira posible *artio* & *artino* parearekin: adlatiboaren ondoan (ohikoena) eta absolutiboarenean (bakana).

2.4.3.5.5.1. Absolutibo + *arti(n)o*

Erabilpen honetan denborari lotutako izenak baizik ez dira ageri, maiz liturgiaren memento bati lotuak (571)-(574), eta kasik aditzondo gisa portatzen direlarik. Batzuetan iduri luke absolutiboa eta adlatiboa trukagarriak izan litezen: *Meditacioniac* liburuak *Salbatore-artino* 237, *Purificacioniala artino* 234 & *Gorochumala-artino* 237 ematen ditu.

- (571) *Evangelioa erraiten deno Bazcoric Salvatore artio.* (Bp I 144)
(572) *Biharamenian hassiric Nativitate artio.* (HOrdre 12)
(573) *Domissanthoretic Bazco artino barour eguinen die.* (HOrdre 12)
(574) *Aphez gueïec, erranen die Priman: Deus in adjut, eta Beati immaculati, Legem pone artio.* (HOrdre 15)

2.4.3.5.5.2. Adlatibo + *arti(n)o*

Absolutiboan baino eikiago, *arti(n)o* postposizioaren ezkerreko izenak adlatiboan dira emanak. Erabilpen honetan maiz ageri dira lekua adierazten duten izenak, bereziki *Charlemagne* trajerian:

- (575) *Bortu gagniala artino / Tentaz beita beteriq.* (Xarlem 601)
(576) *Behar dugu perseguitu / mundiaren basterriala artino.* (Xarlem 1067)
(577) *Jathcasouala artio / behar dugu perseguitu.* (Xarlem 1138)
(578) *Galiçia çolala artio / Executaturen dutugu.* (Xarlem 1139)
(579) *Haren escupian ez Jar / bortchala artino.* (Xarlem 1327)
(580) *Constantjnoblara artio / Nahi dit eguin canpaigna.* (Xarlem 1394)
(581) *Madrillerik Alemanietara artino.* (Chaho AztBeg XIII)
(582) *Haboro bizitzen ezpaniz, Josafatera artino.* (Etch “Ahaide delizius huntan”)
(583) *Bena, ardien hotz emaiteko / Bere ziloala artino.* (Archu 19)
(584) *Jesusec erran ceien: bethetçatcie ountci horic hourez. Eta bethetçatien gagniala artino.* (EvS 2, 7)
(585) *Azken jujamentiala artio bai, jauna.* (Catuchuma 60)

28. TAULA. Muga adlatiboaren aukerak izenekin, balioka antolatuak**

	IZEN + -ra / -alat + drano				IZEN + -rano & -alano				IZEN + -ra(d)ino			IZEN + arti(n)o		
	D	L	A	=	D	L	A	=	D	L	=	D	L	=
O Pro ca. 1600	-	-	-	-	3	3	-	6						
Etchart 1616	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	*	-	*
O Po 1657	-	-	-	*	2	-	1	3	-	1	1			
Tt Onsa 1666	3	-	1	4								*	-	*
Tt Arima 1672	2	1	-	3								*	-	*
Bp 1696	-	1	-	1	1	2	1	4	-	-	-	1	-	1
CatOlo 1706	3	1	-	4	1	-	-	1						
Othoitce 1734	-	-	-	*	3	1	-	4						
Mst 1757	15	8	3	26	-	-	-	-	-	-	-	*	-	*
Ressegue 1758	-	-	-	-	-	1	1	2	-	-	-	*	-	*
StJul 1770	1	-	1	2								*	-	*
Mercy 1780	3	1		4	-	-	-	-	-	-	-	*	-	*
Egiat I 1785	6	4	2	2										
Edipa 1793	-	-	-	*								*	-	*
Xarlem ca.1800	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	5	6
SteEli ca.1810	-	-	-	*	1	-	-	1	-	-	-	*	1	1
Malqu 1807	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1	*	-	*
DKhi 1812	3	1	3	7	-	-	-	-	-	-	-	*	-	*
UskLi 1814	1	-	-	1	4	-	2	6	-	-	-	-	-	*
CatS ca. 1836	3	-	3	6	-	1	-	1	-	-	-	*	-	*
Khurutch 1838	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	*	*	*
Medit 1844	2	3	3	8	-	-	4	4	4	-	4	4	-	4
Ip KurBD 1847	-	2	-	2										
CanBel 1848												*	1	1
Etchahun												*	1	1
Chaho	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1	1	1	2
Archu Alh 1848	-	-	-	-	-	1	-	1	-	-	-	*	1	1
MaiMarHil 1852	-	1	-	1	-	-	-	-	4	-	4	*	-	*
Myst 1856	2	2	-	4	-	-	-	-	-	-	-	*	-	*
Ip Dial 1857	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	*	-	*
HOrdre 1860	3	3		6	2	-	-	2	-	-	-	4	-	4
EvS 1873	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4	1	5
Epit 1873	-	-	-	-	1	-	-	1	-	-	-	*	-	*
SGrat 1879	-	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-	*	-	*
Catuchuma 1899	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Orotara	47	29	16	92	18	9	10	37	9	2	11	16	11	27

* Delako morfema ageri da, baina bestelako kategoriatako hitzekin

** D = denbora; L = lekua; A = abstraktua

2.4.4. Destinatiboa

The allative plus the relational suffix *-ko*, besides to noun modifiers (destinative), gives rise to final complements whose meaning can be close to that of the benefactive, with the difference that it is used only with inanimates: [...] *denetarako balio du* ‘it is good for everything’ (cf. *denentzat balio du* ‘it is good for everyone’, with benefactive inflection on *den* ‘all’). Phrases in *-rako* can thus either be destinative nominal modifiers or final complements of the verb phrase. Compare: *etxerako bidea* ‘the road to the house’, where *etxerako* ‘to the house’ modifies *bidea* ‘the road’, and *etxerako erosi dut* ‘I have bought it for the house’. (Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 186).

Hemen *destinatibo* terminoa adlatiboaren gainean eraturako kasu bigarrenkariarentzat baliatuko zaigu (cf. Hualde & Ortiz de Urbina 2013), eta *-(aren)tzat / -(aren)tako* markek adierazten dutenarentzat *benefaktibo*. Euskara batuan, printzipioz, destinatiboa eta benefaktiboa bizigabe eta bizidunekin erabiliko lirateke, hurrenez hurren (*vid. supra*), baina Iparraldeko euskararen bereizkuntza hori ez da mendebaldeko mintzoetan bezain argia. Horrela ulertua, beraz, Zuberoan *-ra(t)ko* & *-ala(t)ko* segidak aurkituko ditugu, *a priori* adlatiboaren gaineko atalean ikusi den *-t* & *-∅* aukeren arteko banaketaren araberrakoak (cf. § 2.3.2); bistan denez, horiei *-gana(t)ko* ere gehitu behar zaie.

Aditz-izenetako *-rakoan* denborazko segida baztertuz gero, Zuberoako testuetan lehenbiziko *-rako* Oihenarten neurtitzetakoa da (586), bizidun bati lotua eta, beraz, Hualde & Ortiz de Urbinak ezarri lerro bereizgarritik at; Maisterrek ere behin ematen du bizidunekin (590). Adlatiboaren *-t* morfoari doakionean, batzuetan haren balioak klarki markatuak dira, hala ñabardura terminatiboa, *pharadusialatco* diren arimen kasuan bezala (587), nola ñabardura direkzionala, hala nola *Lorrenaratkoan* forman, gertaldia mugimendu horren iraupenaren barnean kokatzen delako (592). *-T* morfoaren ohiko ñabarduren artean sartzen da, halaber, (599)-ko adibidea, norabide ezezaguna adierazten baitu; aldiz, (589)-ko pasarteetan *-alatko* & *-alako* guztiz trukagarri gertatzen dira. Chahoren aipuan (597), *gure* & *etxerako* ber mailan dira: lehenean genitiboaren adiera benefaktiboa datza, eta bigarrean bizigabeen destinatiboa.

- (586) *Sendi dizut nitan eihartzen, / Berzetratko amorioa* “J'ai senti en moi se flétrir l'amour que j'avais pour d'autres”. (O Po XXV 1)²³⁸
- (587) [...] *arras satistactione eguin badu bertaric ppharadussialatco da.* (CatOlo 46)
- (588) *Behar deya [...] hasperenic egotchi errecevitceraco pphuntian?* (CatOlo 104)
- (589) *Çoure devocionalatco hotçtarçuna khambiaturen dela, celialaco berotarçun saintu batetara; eta çoure gaiçkialaco enjoguidura herturen dela, eta hounialacoa, emendaturen.* (Mst “Iracourçaliari”)
- (590) *Goure anayetaraco amourioua.* (Mst II 9, 6)
- (591) *Ama beçalaco / goure alderatco, / çakhizcu balia.* (Ressegue 43)
- (592) *Erregiñaren ama Lorrenaratkoan hiri hartan igaraiten zelarik [...]* (Egiat I 4)
- (593) *Lombardiaraco Bidagia (Xarlem 79)*
- (594) *Iffernietaraco bide çabala utciric celietaraco bide hersiari jarraikiteco.* (UskLi 59)
- (595) *Beguir gaitçaçu bekhatialaco danger orotaric (Khurutç 15)*
- (596) *Hiltce hounbatetaraco preparacionia (Medit 255)*
- (597) “Oro gure, oro gure etxerako.” (Chaho AztBeg X)
- (598) [...] *ala gordinik jateko ala thipiñalako ala zarthaginalako.* (Ip Dial 21)
- (599) *Bena nouratco da ene arima?* (MaiMarHil 93)
- (600) *Bekhatu mourtalialaco disposizionia.* (Catuchuma 45)

Errana dugu, bizidunei lotzen zaien *gana(t)* morfemari ere *-ko* erants dakioke; beraz, ikuspegi morfologiko batetik *gana(t)ko* sail honetan sartzekoa da. Halere, bizidunek *-(aren)tzat* & *-(aren)tako* benefaktibozko markak hartzen ahal baitituzte, *-gana(t)ko* segidaren adierak bizigabeen *-ra(t)ko* / *-ala(t)ko* baino zehatzagoa behar du izan. Izan ere, testuen argitan, erran daiteke *-gana(t)ko* sentimenduen objektuaren markatzean espezializatu dela:²³⁹ jarraian dakartzagun hogeï etsenpluetarik, soilik bostetan atxikitzen du adiera direkzionala: (601), (603), (612), (617) & (618). Adlatiboaren *-t* denaz bezainbatean, beheko adibide sortan ez dugu haren ñabardurarik antzeman: badirudi *-t*-dun eta gabeak aukera librean direla; soilik oharraz genezake Maisterrek aiseago ematen duela *-ganatko*:

- (601) *Ceren genten artecaria baita Gincoa ganaco.* (Bp II 66)
- (602) *Gincoaganaco sendimentu saintiez (CatOlo2 vi)*
- (603) *Jincoua ganatco bide segurago bat duçu.* (Mst I 3, 4)
- (604) *Guiçona ganatco amourioua garhaitu ukhen çiçun-* (Mst II 9, 2)
- (605) *Nouiç çoureki juntaturen niç, hagn ossoki, noun çoureganaco amouriouaren handitarçunac nihaurganaco sendimentia gal eraci diçadan.* (Mst III 21, 3)
- (606) *Egon cite haitakeriaric, eta cihaurganatco berheçkeriaric gabe.* (Mst III 37, 1)
- (607) *Mundu hountan çoureganatco amouriouagatic [...]* (Mst III 50, 4)

²³⁸ Testuaren bertsioa *Klasikoen Gordailutik* hartua da; Altunak & Mujikak, aldiz, *berzetrako* editatzen dute (2003: 491).

²³⁹ Espezializazioaren zantzuak *-gana(t)* adlatibozko marka hutsean ere hauteman daitezke: *Ene esparanchac oro / çouregana dutuçu (Edipa 800)*.

- (608) [...] cihaurganatco, *eta munduco houn berheci orentaco duçun, enjoguidura gaichto estaliric dagouena.* (Mst III 53, 3)
- (609) *Hen goureganatco lagungouaren eçpiritu umilbateç galthatcia.* (Mst III 58, 7)
- (610) *Jincouaren guiçoneganatco amourioua* (Mst IV 1, 3)
- (611) *O çoure goureganatco amouriouaren hountarçun miragarria.* (Mst IV 3, 4)
- (612) *Ginco justouaganaco / bidian* (StJul 245)
- (613) *Hortic phenxa eçaçu nic / galdu ninez çoureganako amourioua* (SteEli 576)
- (614) *Ene ganaco duçun amourioua gatic* (DKhi 61)
- (615) *Çoure absenciac disminuacen dila ene çoureganatco amourioa* (UskLi 221)
- (616) *Goure bihotçac haren ganaco amourioz garretan lirateke!* (Medit 110)
- (617) *Dakialaric haren ganaco dela laster eta behincoz, luce çαιο halere memento houra* (MaiMarHil 95)
- (618) *Jincouarenganaco bidia* (HOrdre 4)

2.4.5. Ondorioak

Adlatiboan *-t* duten aukerez landara, ekialdeko mintzoetan bestelako baliabideak azaleratu dira hurbiltze adlatiboaren adierazpenean. Euskara osoan bezala, Zuberoako testuetan ere *aldera(t)* postposizioa ageri da (*aldialat*), betiere *-t* bukaerarekin. Eta beste inon ez bezala, *khantü* ‘kantoi’ izena postposizio bihurtzen hasia da, antzeko balioaz. Bi postposizio horien agerpena XIX. mendeko testuetan lekukotzen da. Poxi bat lehenago, baina funtsez garai berean, Zuberoan egitura berri bat azaleratzen da hurbiltze adlatiboaren adierazteko: [-*t*-dun ADL / DAT + *bürüz*], klarki gaskoiaren *cap a X* egituraren kalkoa (Pikabea 1993: 218), Akitaniako euskalkietara hedatuko dena. Gure ustez, hiru elementuen kronologiak honakoa iradokitzen du: XIX. mendeko Zuberoan *-t* morfoaren balioaren hautematea lausotzen hasia da, bederen haren ñabardura direkzionalean, zeren testuek adlatiboaren balio terminatiboa (‘luzaz egoteko, ez itzultzeko’) *-t* horren medioz markatzen jarraitu baitute.

Zuberoan muga adlatiboaren aukerak ñabarrak dira; guztietan *-(n)o* morfoa datza, salbuespenik gabe. Lehenik **da* elementua erakusten duen *-dano* & *-drano* parearen berri eman dugu. *-dano* aukeraren erabilpen eta lekukotza aski fosildua da: funtsean *egundano* & *oraidano* denbora aditzondoei estekatua. Aldiz, *drano* postposizioak bestelako garapena izan du, Zuberoako euskara historikoan denbora nahiz lekua adierazten duten izenetan ere muga adlatiboaren aukera nagusi bilakaturik. Oihenartek ez du *drano* erabiltzen, baina Tartasengandik kasik testu guztietan ageri da; XIX. mende erdian haren lekukotza iraukitzen da († 1879); Anna Urrutyk ez du behin ere *drano* ematen.

Muga adlatiboaren bigarren morfema pare, *-rano* & *-alano*, adlatiboaren markei *-no* elementua gehitzearen emaitza baizik ez da. Beraz, izen morfologiara hertsatzen da, betiere denbora zein espazioa adierazten duten izen berezi eta arruntekin lekukoturik, aditz-izenak

barne. Espero bezala, *-rano* & *-alano* parearen banaketa adlatiboaren *-ra(t)* & *-ala(t)* morfema pareen arteko bera da (cf. § 2.3.2). Pare honen testigantza Oihenartek hasten du (*-rano* baizik ez), eta Anna Urrutyk hesten berriz ere. Muga adlatiboaren hirugarren aukerak **din* aitzin-formaren herexa erakusten du: *-ra(d)ino* (< **-ra* + **din* + **non*). Euskara osoan ezaguna, Zuberoako testuetan segida hau arras minoritarioa da. Pare bat aldiz aldaera osoa ageri da, eta gainerakoetan *-d-* galdurik. Adlatiboaren morfemaren gainean eratua izanik, *-ra(d)ino* izenei lotua baizik ez da ageri.

Muga adlatiboaren polimorfismoaren hesteko, *artio* & *artino* formak Zuberoan errotuak dira eta, XIX. mendetik aitzina, Baxenafarroarat eta Lapurdirat hedatuak (cf. *OEH*). Pare hau *arte* izenaren gainean eraikia da, **din* gehi **-no(n)* osagaiekin —Zuberoan *arte* soila ez da behin ere balio terminatiboz ageri—. *Artio* & *artino* aditzoin, partizipio perfektibo, perpaus jokatu, denbora aditzondo eta izen bati jarraiki dakizkioke. Izen morfologiaz denaz bezainbatean, bi postposizioak denbora zein lekua adierazten duten izenekin baliatzen dira, absolutiboan —soilik denbora adierazten dutenak, aditzondoak bailiran— edo adlatiboan —denbora nahiz lekua—.

Mugimenduaren edo iraupenaren hurrentzea adierazten duen kasu-markaren polimorfismo nabarmena garapen berankorraren seinale da. Kontu eginik muga adlatiboaren aukera guztietan **(n)o(n)* datzala, badirudi elementu horrek bere baitarik adierazten zuela *terminus* edo mugaren ideia, aditz morfologian argi hauteman daitekeenez (*duguno*, *gireno*, etab.). **-no* hori denborazko balioa zuten elementuei lot zekiekeen (**da*, aditzondoak, etab.), batzuetan adlatiboaren markarekin (**da-ra-no*) eta besteetan zuzen (**da-no*). Denbora nahiz leku izenek berez adlatibozko markaren ondoan hartzen ahal zuketen *-no* (*-ra* + *no* & *-ala* + *no*), **din* morfoa tartekaturik ere (**-ra-din-(n)o*). Memento batetik aitzina, Zuberoan *d(a)rano* segida, printzipioz aditzondoekin baliatzen zatekeena, izenetara ere hedatu zen —lehenbizi espazioa, eta ondoren denbora adierazten zutenera ere—; hedakuntza hori gauzatua zegoen testu zaharrenak idatzi zireneko.

Finean, batuaren *-rako* destinatiboa Zuberoan ere ezaguna da, *-ra(t)ko*, *-ala(t)ko* & *-gana(t)ko* itxuren pean. Euskara batuan ongi funtziona dezakeen “*-rako* = bizigabeen destinatiboa” identifikazioa Zuberoan desitxuratzen ahal da, *-ra(t)ko* bizidunen pluralean ere ageriz, *-(aren)tzat* & *-(aren)tako* benefaktibozko markak bizigabeekin balia daitezkeen bezala. Bestalde, adlatiboaren gainean eraikia izanik, segida hauek agerraraz dezaketen *-t* morfoak bere ñabardura direkzionala eta terminatiboa adierazten ditu, salbu *-ganatko* segidan,

non ez baitugu *-t-dun* eta gabekoen arteko diferentziarik antzeman. Azken marka hau sentimenduen objektuaren adierazpenean espezializatu da.

2.5. *Beitha*- kasu lokatiboetan

- 3.5.1. Sarrera
- 3.5.2. *Bait(h)an* postposizioa nondik norakoak
 - 3.5.2.1. Bizidunekin?
 - 3.5.2.2. Batez ere inesiboan
 - 3.5.2.3. Ezkerrezko elementuaz
 - 3.5.2.4. *Bait(h)an* ‘chez’
- 3.5.3. *Baitha*- postposizioaren diakronia
 - 3.5.3.1. Fonologiaren aldetik
 - 3.5.3.2. Sintaxiaren aldetik
 - 3.5.3.3. Gogoeta jatorriaz
- 3.5.4. Ondorioak

2.5.1. Sarrera

Ezaguna denez, kasu lokatiboetan, *-gan* & *-ta* morfemen gainean eraikitako aukerez gain, *bait(h)a*- postposizioa erabiltzen da ekialde handiko euskaretan (“general entre los septentrionales y los navarros”, *OEH*, s.v. *baita*-). Atal honetan *bait(h)a*-ren erabilpena aztertuko dugu: zein izakiri lotzen zaien (§ 2.5.2.1), zein kasutan aurki daitekeen (§ 2.5.2.2) eta zein kasu-marka agerrarazten duen, eta zein baldintzaren pean (§ 2.5.2.3). Haren balio berezi bat gogoratu ondoan (§ 2.5.2.4), *baitha*- postposizioaren bilakaeraren berri emanen dugu, hala fonologiaren aldetik (§ 2.5.3.1) nola sintaxiarenetik (§ 2.5.3.2), haren etimologiaz proposatu direnak bilduz (§ 2.5.3.3).

2.5.2. *Baitha*- postposizioaren nondik norakoak

2.5.2.1. Bizidunekin?

Bait(h)a- postposizioa bildu duten gramatikagileek eta lexikografoek bizidunekin erabiltzen dela erran dute. *OEH*-ren sarreran “se aplica a los seres animados” irakurtzen dugu, eta jarraian Larramendiren eta Harrieten aipuek “juntándose a personas” eta “ne s'applique qu'aux personnes” diote, hurrenez hurren. Zuberoan, Chahok ez zuen *beitha*- deklinabidearen atalean jaso: “*Mariatan* ‘dans Marie’, *Mariagana* ‘jusqu'à Marie’, *Mariatarik* ‘de Marie’ eta *Mariaganik* ‘de Marie’” (1836: 41-42). Gèzek ez zuen *beitha*- animalien izenekin eman —*añhéra*, *arretche*, *chori* & *ollo* agertzen dira bere paradigmatan—, *gan* erabili ez zuen bezala (1873: 14-17); izan ere, Gèzek izaki adimendunentzat erreserbatu zuen:

Lorsque les noms représentant des êtres intelligents devraient être placés au datif de situation, de direction, de changement ou à l'ablatif de mouvement, on les met généralement au génitif possessif ou à l'accusatif simple en les faisant suivre des mots *beithan*, *gana*, *ganat*, *ganik* ou *beitharik* ; ex. : il alla à l'ange, *joan zen ainguriaren gana* ; je reçois de l'homme, *errecevitzen dut gizounaganic* ; je vais à Pierre, *Phetiriren gana banoa*" (1873: 22).

Nola ez, “être intelligents” horien artean *Jinkoa* sartzen da, Gèzek hari eskaini iruzkin berezian irakur daitekeenez (*ibid.*). Gure corpusean orain artekoa oro har betetzen den arren, ez da salbuespenik falta (5 *beitha*- bizigabeekiko vs. 206 izaki adimendunekiko);²⁴⁰ bost salbuespen horiek kontzeptu abstraktuei erreferentzia egiten diete (619), eta zehazkiago sentimenduei (620)-(622):

- (619) *Emana goure apphezcupugoaco justicia baïthan.* (Ressegue 16)
- (620) *Estudan reprochuriq / Hire counduta beitan.* (*Xarlem* 122)
- (621) *Goberna litaketçu / haren desiren beithan.* (*SteEli* 1339)
- (622) *Eguicie amoyna lekhu orotan / Jincouaren amourio saintia beythan.* (*UsLi* 207)

Azkuek ondoko ñabardura semantikoa jaso zuen: “Con mucho acierto distingue Duvoisin entre uno y otro elemento, el importado y el indígena: *gizonen baïthan*, dice él, significa «en casa de los hombres» mientras que *gizonengan* equivale a las palabras «en la persona de los hombres»” (1925: 303). Baina *-gan* & *bait(h)a* pareak ber balioa adierazten duelako ideia nagusi da: “*Baita* is found exactly like *gan* in constructions in which spatial cases have no concrete spatial content, as in [...] *Sinesten dut Jainkoa baïthan*” (Creissels & Mounole 2011: 172), *bait(h)a*- postposizioak har ditzakeen adiera bereziaz aparte.

2.5.2.2. Batez ere inesiboan

Hiru kasu lokatiboen artean, *OEH*-ren arabera *bait(h)a*- oroz gainetik inesiboan²⁴¹ erabiltzen da; aldiz, beste kasu lokatiboetan *bait(h)a*- postposizioaren maiztasuna baxua da: “Los autores septentrionales utilizan más *-gana* y *-ganik*, comunes a todos los dialectos. [...] Con todo,

²⁴⁰ Tartasek *gauza maitatia baitan* erabiltzen du, begien bistan pertsona izan behar dena: *Maytaçalia, ezta bici bera baitan, baina bici da gauça maitatia baitan* (*Onsa* 161). Horrela erabiltzen zen gaztelaniaz eta frantsesez; bihoaz adibide bana, hizkuntza bakoitzeko, Tartasen garaikoak: *Si fuera señal de amor verdadero hacer sepulcro de la cosa amada el cuerpo amante* (J. de Zabaleta, *Errores celebrados* (1653), 164. or.); *Aristote m'a dit que notre âme enflammée / Doit bien moins vivre en nous que dans la chose aimée.* (G. de La Tessonnerie, *La Déniaisée* (1647) 708).

²⁴¹ Gogora bedi Akitaniako mintzoetan *-gan* ez dela inesiboan baliatzen: “L'inessif *gan* n'est usité que dans les dialectes Guipuzcoan et Biscaien” (Ithurry 48, *apud OEH* s.v. *baitha*-).

también en estos autores [*baitharik & baithara* erabiltzen dutenak] son estas formas menos usadas que *-ganik, -gana [...]*” (*OEH* s.v. *baitha-*); beraz, badirudi *baitha* postposizioa hedatuz joan dela *-gan* orokorraren —*ergo* zaharragoaren— kaltetan. Gure corpusak banaketa hori berresten du Zuberoako euskara historikoan: *baitha-* / *beitha-* postposizioak 211 agerraldi ditu,²⁴² fr. ‘chez’ adierari dagozkionak barne, eta 211 agerraldi horietarik 189 inesiboan dautza. Beste 22en artean badira 6 adlatiboan, kasik guztiak Maisterrenak, (628)-ko adibidea *-t-dun* bakarra izanik:

- (623) *Joan zedin, gordailuti hek beitara. (O Po XXVI)*
- (624) *Jesus jinen duçu çu beithara (Mst II 1, 1)*
- (625) *Iincouaren gracia guiçona beithara jiten beita (Mst II 8, 5)*
- (626) *Celialat goiti itçaçu beguiac ni beithara. (Mst III 36, 3)*
- (627) *Bere beithara jitiari baragallü bat ezarten dü. (Mst III 42, 2)*
- (628) *Celialat cihaur beitharat eraiki eçaçu ene bihotça. (Mst IV 16, 2)*

Ablatiboan *baitha*-ren hamasei agerraldi lekukotu ditugu, *-tik* aldaera soilik Anna Urrutyk baliatzen duelarik (636)-(637). Baina kasu eman behar zaio *beitharik* formari, egiazki leku-denborazko balioari baino, agerraldi gehienek erabilera bereziei obeditzen baitiete. Zehazkiago, *baitharik* formak gehienetan ez du mugimendu baten abiapuntua adierazten, nolabaiteko beregaintasuna baizik —ekintzetan, baina bereziki pentsamendu edo gogo aditzetan, eta partikulariki *erran* edo **-io* parean— (632)-(637).²⁴³ Ablatiboaz bestelako zentzua du, halaber, (631)-ko adibideak: “por naturaleza, de suyo” (*OEH* s.v. *baitarik*). Orobat erran daiteke *beithariko* formaz (629): “original, que no tiene otra causa ni origen” (*OEH* s.v. *baitarikako*, pasarte honexekin ilustratua).

- (629) *G. Cergatic dioçu bere beytharicoa dela? | I. Ceren eta bere içaytia bere beytharic beytu, eta ezpeyta ihourganic ere giten ez proceditcen. (CatOlo2 26)*
- (630) *Çoumbat flacutarçun dien bere beitharic, eta cer hountarçun, eta gracia çoureganic jardiesten dien. (Mst IV 4, 3)*
- (631) *Cereneta bere beitaric hotç, gogor, eta debocione gabe beitira (Mst IV 4, 3)*
- (632) *Bere beitharic erraiten du (MaiMarHil 110)*
- (633) *Cion bere beitharic (MaiMarHil 117)*
- (634) *Noure beitaric [...] orai gogoz eta bihotcez erraiten diçut (MaiMarHil 125-126)*
- (635) *Bere beitharic proximoua mesperetchatu dianez? (HOrdre 192)*
- (636) *Elhiac, ezteitciat erraiten nihauen beithatic. (EvS 14, 10)*

²⁴² *Baitha-* / *beitha-* postposizioaren azterketa honetan preseski baztertu ditugu fartsa xaribarikoak (Urkizu 1998) eta Chahoren idazkiak (*AztBeg*).

²⁴³ *OEH*-k ez du adiera hau Zuberoan kokatzen: “BAITARIK (R, BN-ciz-*arb*; *-th-* L, BN), BAITATIK (B; *baitetik* B). [...] (Tras *bere, neure*, etc.). Por su cuenta; por su voluntad” (s.v. *baitarik*).

(637) Çoure beithatic *diocia hori, ala bestec erranic nitçaz?* (EvS 18, 34)²⁴⁴

2.5.2.3. Ezkerreko elementuaz

Alderdi sintaktikotik, *bait(h)a-* postposizioaren ezkerrean begiratu beharretan gara. Egungo hiztunek ezkerreko izen sintagma hori genitiboan ematen badute ere —eta jada Azkuek horrela deskribatu zuen (1925: 302)—, euskara historikoan absolutiboan nahiz genitiboan agertzen da. Hori ez ezik, badirudi testurik zaharretan absolutiboa ohikoena dela:

En Leizarraga sólo aparece tras caso absoluto o, en determinados contextos, tras posesivos anafóricos, como *bere*, etc.; en plural, sin embargo, sólo tras absoluto (incluso en los casos en los que aparecería un posesivo anafórico). (OEH s.v. *bait(h)a-*)

Zuberoako testuen corpusean xerkatu ondoan, *beitha*-ren agerraldi guztiak ezkerreko kasu-markaren arabera sailkatu ditugu, kategoria bereizita ere, 29. TAULAN. Horko datuak direnaz bezainbatean, komeni da ondoko puntuen azpimarkatzea:

- Zuberoako corpusaren emaitzen arabera (ikus 29. TAULA), *beitha-* izenordainekin erabiltzen denean, hauek dira absolutibo/genitiboaren arteko proportzioak: Oihenartek bitik biga absolutiboan; Belapeirek bitik bi genitiboan; *IP*-k (Maisterri egoztekoa) bakarra absolutiboan; Maisterrek 36 absolutiboan vs. 42 genitiboan.
- Oloroeko katiximaren bigarren bertsioan *beithan* inesibozkoaren ezkerrean absolutiboa ageri da (638); *beitharik* ablatibozkoarenean, aldiz, genitiboa (629) & (639).
- Maisterren liburuan bestelako banaketa deskriba daiteke: ezkerreko sintagman genitibozko agerraldi guztiak *bere* formari dagozkio, berdin *beithan*, *beithara* ala *beitharik* baliaturik, salbuespen bakar batekin: çoure *beithan duçun desircuntia* (III 33, 1). Aldiz, 1. eta 2. pertsonako izenordainen agerraldi guztiak absolutiboan dautza, forma indartuak barne (640), bai eta 3. pertsonako izenordainen forma neutroa (641) edo izen arruntak ere (642). Idazle honen testigantza balio handitakoa da, hala *beitha*-ren agerraldi kopuruagatik, nola berorietan sumatzen den banaketa garbiagatik.
- *Uscara Libria* (ca. 1800) da ezkerrean absolutiboa nagusi duen azken lekukotasuna; genitibo bakarra *beithan* ‘chez’ baten ezkerrean ageri da (652) —erran behar da

²⁴⁴ Leizarragak desberdin adierazten du ideia: Nik zuei erraiten drauzkizuedan hitzak, neurorganik eztitut erraiten (Io 14, 10); Euroren burutik hik hori erraiten duk, ala berzek erran draue nizaz? (Io 18, 34).

genitibozko markatzea berez salbuespena dela *beithan*-en balio horretan, izena pluralean izateak esplika lezakeena—.

- *Meditacioniac* liburuan (1844) ezkerreko elementua betiere genitiboan emana da. Behin izan ezik (643), agerraldi guztietan elementu hori izenordaina da, zein-nahi pertsonatako.
- Ezkerreko elementuari doakionean, Anna Urrutyk egiten du *beitha*-ren erabilerarik zabalena (644)-(648), betiere genitiboaren ondoan emanik.

(638) *Gincoaren semia guiçon eguin ičan da eta gu beytan egon ičan da.* (*CatOlo2* 6)

(639) *Ceren eta bere içaytia bere beytharic beytu.* (*CatOlo2* 26)

(640) *Bekhanki nuçu nihaur beithan ossoki sarthuric* (*Mst IV* 1, 5)

(641) [...] *houra beithan goure egoitia eguinen dugu.* (*Mst II* 1, 2)

(642) *Jincouaren gracia guiçona beithara jiten beita.* (*Mst II* 8, 5)

(643) [...] *berthutia ene beithan edo besten beithan colpa dirokenic.* (*Medit* 133)

(644) *Satan sarthu cen haren beithan.* (*EvS* 13, 27)

(645) *Ene Aitaren beithan [...] cien aiten beithan* (*EvS* 8, 38)

(646) *Aguer dadin hounen beithan Jincouaren obra.* (*EvS* 9, 3)

(647) *Jincouaren obra da sinhetx deçacien igorri dianaren beithan.* (*EvS* 6, 29)

(648) *Sinhesten ducia Jincouaren semiaren beithan?* (*EvS* 9, 35)

29. TAULA. *Beitha*-ren ezkerreko kasu-marka Zuberoan.

	absolutibo				genitibo					
	izord.	iz. berezi	iz. sing.	oro	izord.	erlatibo	iz. berezi	iz. sing.	iz. plural	oro
O <i>Po</i> 1657	2	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Tt <i>Onsa</i> 1666	1	2	8	11	-	-	-	-	-	-
Tt <i>Arima</i> 1672	1	-	8	9	-	-	-	-	-	-
Bp 1696	-	-	-	-	2	-	-	-	-	2
<i>CatOlo2</i> 1743	1	-	1	2	5	-	-	-	-	5
<i>IP</i> 1757	1	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Mst 1757 1757	36	1	4	41	42	-	-	-	-	42
Ressegue 1758	-	-	2	2	-	-	-	-	-	-
Mercy 1780	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
<i>NLilia</i> 1782	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
<i>Edipa</i> 1793	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
<i>Xarlem</i> ca. 1830	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
<i>SteEli</i> ca. 1800	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
<i>UskLi</i> 1814	-	-	5	5	-	-	-	-	1	1
<i>CatS</i> 1836	1	-	-	1	1	-	-	-	-	1
<i>Medit</i> 1844	-	-	-	-	30	-	-	-	1	31
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	-	-	-	5	-	-	-	-	5
<i>HOrdre</i> 1860	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
<i>Myst</i> 1856	2	-	-	2	-	-	-	-	-	-
<i>Epit</i> 1873	-	-	-	-	4	-	2	1	-	3
<i>EvS</i> 1873	-	-	-	-	22*	2	-	9	1	34
Orotara	45	3	30	78	114	2	2	10	3	131

* *hounen* erakuslea eta *besten* adjektiboa barne2.5.2.4. *Bait(h)an* ‘chez’

Akitaniako euskaran *baithan* inesibozkoak ‘X-ren etxean’ adiera har dezake, hots, frantsesaren *chez* preposizioarena —edo Andaluziako gaztelaniaren *encá*-rena²⁴⁵—, eta horrelaxe biltzen du Gèzek: “prép. chez” (1873 s.v.). Gure corpusean ‘X-en etxean’ adiera

²⁴⁵ Andaluziako espainieran ere bada fr. *chez* preposizioaren ordain garbi bat, hizkuntzalarien artean hain ezaguna izan ez arren, frantsesarenak bezalaxe funtzionatzen duena. Bada, *encá*^(en casa), zentzu lokatiboan ez ezik, ablatiboan eta adlatiboan ere balia daiteke: *Está encá Bernarda – Va encá/ancá Bernarda – Viene d’encá Bernarda*; cf. fr. *Être chez quelqu’un – aller chez quelqu’un – venir de chez quelqu’un* (gure ezagutzatik). Murtzian ere ezaguna da (Hernández-Campoy 2004: 281, “fusión secuencial” gisara izendatzen duena). Azkueren arabera, iparrerago ere erabiltzen zen: “En Castilla se usan aun en nuestros días locuciones como *en ca la tía Gerona*” (1925: 304), arkaismoa dela iradokiz.

hertsiki duten bost adibide atzeman dugu, guztiak liburuen azalean (649)-(652); horietako azkenean ezkerreko sintagma genitiboan da, seguruenik izena pluralean delako.

- (649) *Orthezen Erregeren* Inprimazalia baitan. (Tt, *Onsa & Arima* liburuen azaletan)
 (650) J. Desbaratz beithan *muldeko leteretan ezarria*. (Mst, azala)
 (651) Erregueren liburu eguilia baithan *mouldezco letretan eçaria*. (Ressegue 1)
 (652) *Bayonan*, Cluzeau anayen baithan. (*UskLi* 3)

Azkenik, *bait(h)an* postposizioak badu beste adiera berezi bat, testuetan ezohikoa, baina hemen guztiz aipatzekoa, fr. *chez* preposizioaren ondoko adiera bereziari kalkatua: “*Spéc. Chez + nom d'écrivain 'Dans l'œuvre de' : Chez Bergson, les métaphores sont surabondantes et, tout compte fait, les images sont très rares* (Bachelard, *La Poétique de l'espace*, 1957, p. 79” (*TLFi* s.v.). Tartasek horrelaxe baliatzen du (653)-ko adibidean.²⁴⁶

- (653) [...] *parabola ederbat dago iarririk Eskrituran S. Matheu baitan*. (Tt *Onsa*)

2.5.3. *Baitha*- postposizioaren diakronia

2.5.3.1. Fonologiaren aldetik

30. TAULAK *baitha*- postposizioaren bilakaera fonologikoa jasotzen du, aditzari lotua den *bait*- aurrizkiarenaren pare emanez. Bi elementuek ber aldaketa erakusten dute, erran nahi baita *ai > ei*. Lehenbiziko *beitha*- Oihenarten neurtitzetan datza (XXVI, 24): *hek beitarā* —Altuna & Mujikak Oihenarten *beitha* bakarria dela ohartarazi dute (2013: 501); ikus beheko taula—. Berari etimologikoki lotua den aditzetako *bait*- aurrizkiari dagokionez, lehenbiziko *beit*- Tartasen *Onsa* liburuan datza, agerpen bakarrean (*beitraucu* 28). Halere, pentsatu behar da aldaketa abian zela, zeren *Ariman* lau aldiz ageri baita (*beitaude* 25, *beitçaudian* 117, *beitraucu* 40 & 87). Bestalde, guztiz erremarkagarria da Belapeirek kasik beti *ai* bokalismoa ematea, eta soilik hamar urte berantago Oloroeko katiximan *ei* gailentzea. Hortik aitzina, corpusean *ei* bokalismoa aurkitzen da beti, *ai* marjinal bihurturik —halere, Resseguek aipamen berezia merezi luke—.

²⁴⁶ Ez da halabeharrezkoa erabilpen berezi honen lekuko bakarria, Zuberoan bederen, nor eta Tartas izatea. Izan ere, *baithan*-ek idazle baten obrari erreferentzia egitea chez frantsesaren kalkoa litzateke, eta ekialdeko idazleetan norbait izan bada frantsesaren moldeetara plegatzen aitzindari, horixe dugu Arueko erretora (Arcocha & Oyharçabal 2009). Kurioski, Larramendik balio berezi hau jaso zuen: “En, cuando corresponde al *in* latino, preposición de acusativo, y *al apud*” (*OEH*, s.v. *baita*-). Hegoaldeko testuetan —hots, Nafarroa Garaikoetan— ez dugu erabilera hau atzeman; beraz, pentsatzekoa da Larramendik mugaz bestaldeko euskal liburuen gaineko bere zuzeneko ezagutzatik atera zezan, guztiz egiantzekoa iruditzen zaiguna.

30. TAULA. *Bait-* & *baitha-* elementuen bilakaera fonologikoa.

	aditz morfologia		izen morfologia	
	<i>bait-</i>	→ <i>beit-</i>	<i>baitha-</i>	→ <i>beitha-</i>
O <i>Pro</i> ca.1600	7	-	-	-
Zalgize ca.1600	2	-	-	-
Etchart 1616	43	-	-	-
O <i>Po</i> 1657	23	-	1	1
Tt <i>Onsa</i> 1666	361	1	11	-
Tt <i>Arima</i> 1672	101	4	9	-
<i>PSing</i> 1676	20	-	-	-
Bp 1696	306	2	2	-
<i>CatOlo</i> 1706	11	95	-	-
<i>Othoitce</i> 1734	8	56	-	-
<i>CatOlo2</i> 1746	13	124	-	7
Mst 1757	1	621	-	83
<i>IP</i> 1757	-	21	-	1
Ressegue 1758	34	60	-	3
<i>StJul</i> 1770	-	79	-	-
Mercy 1780	-	76	-	1
<i>NLilia</i> 1782	-	25	-	1
Egiat I 1785	2	69	-	-
<i>Edipa</i> 1793	-	118	-	1
<i>Xarlem</i> ca.1800	-	157	-	1
<i>SteEli</i> ca.1810	-	127	-	1
<i>DKhi</i> 1812	5	135	-	-
<i>UskLib</i> 1814	4	145	1	5
<i>CatS</i> ca. 1836	3	230	-	2
<i>Khurutch</i> 1838	-	11	-	-
<i>Medit</i> 1844	1	89	-	31
Ip <i>KurBD</i> 1847	-	8	-	-
Etchahun	-	101	-	-
Archu <i>Alh</i> 1848	-	31	-	-
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	83	-	5
<i>Myst</i> 1856	-	18	-	2
Ip <i>Dial</i> 1857	-	27	-	-
<i>HOrdre</i> 1860	-	57	-	1
<i>EvS</i> 1873	-	173	-	34
<i>Epit</i> 1873	-	74	-	7
<i>SGrat</i> 1879	-	20	-	-
<i>Catuchuma</i> 1899	-	56	-	-

2.5.3.2. Sintaxiaren aldetik

Erran izan da *baitha*-ren ezkerreko elementuaren kategoriak kasu-marka bata ala bestea agerraraz dezakeela: “Con pronombres, va normalmente con genitivo, aunque encontramos ejemplos sin él ya en Dechepare”. *OEH*-ko (s.v. *bait(h)a-*) pasarte horretatik genitiboaren

erabilpena zaharra dela konpreni liteke; aldiz, *baitha*- postposizioa genitiboari jarraikitzea berrikuntza dela pentsatzen badugu, orduan Etxeparengan genitiborik gabeko adibideen aurkitzea litzateke, hain zuzen, espero genukeena. Gure corpusak genitiboaren agerpenak absolutiboarena ordezkatu duela sustengatzeko ebidentziak ematen ditu; harago, testuen kronologiak *baitha*-ren ezkerreko genitibo hori berria dela pentsatzeko zantzu argiak ere ematen ditu (cf. Etxepare eta Leizarraga).

Numeroari doakionean, singularreko izenak aipu ditu *OEH*-k: “Si se trata de un sustantivo singular lo más frecuente es que vaya sin sufijo genitivo, aunque se encuentran con relativa frecuencia ejemplos de genitivo, sobre todo entre los autores navarros; hay algún partitivo en Leizarraga”. Eta Gèzek honela diosku (1873: 22):

Lorsque les noms représentant des êtres intelligents devraient être placés au datif de situation [= inesibo], de direction [= adlatibo], de changement ou à l'ablatif de mouvement [= ablatibo], on les met généralement au génitif possessif ou à l'accusatif simple en les faisant suivre des mots *beithan*, *gana*, *ganat*, *ganik* ou *beitharik*.

Azkenik, pluraleko izenek genitiboa eskatzen lukete (*OEH* s.v. *baitha*-, Leizarraga eta Harambururen salbuespen bat aipatzen duela). Gure corpuseko agerraldi urriek baieztapen horren alde egin dute: *beitha*-ren ezkerreko izen arrunt batekiko lehendabiziko plurala XIX. mendearen hastapenean azaleratzen da, zuzenean genitiboz (649); bigarren agerraldia *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerikoa da (621), eta hirugarrena Anna Urrutyren *Ebanjelio Sainiako*a (645). Nolanahi ere, agerraldi kopurua eskasegia da deusik bermatzeko. Hori ez ezik, hiru etsenplu hauek ageri zireneko, Zuberoan *beitha*- postposizioaren ezkerreko osagaiaren markatzean ABS → GEN aldaketa gauzatzeko bidean zen.

Zuberoako corpuseko datuak oro harturik, hauek dira kopuru absolutuak: singularreko 40 izenatarik 30 absolutiboan dautza, eta hamar genitiboan,²⁴⁷ hamar hauek guztiak Urrutyrenak (1873), genitiboaren erabilpena berrikuntza delako seinale argia. Beraz, arrazoi sintaktiko edo semantikorik baino, gure ikuspegian izen arruntekiko joera bilakabide orokorrean kokatu

²⁴⁷ Absolutiboan: Inprimazalia baitan (Tt *Onsa* & *Arima*), Ienkoa baitan (Tt *Onsa* 5 aldiz & *Arima* 6 aldiz); gauza maitatia baitan (Tt *Onsa*), kreazalia baitan (Tt *Arima*), Jauna beithan (*CatOlo2* iii; *Mercy* 12 & *UskLi* 118 (3 aldiz)), guiçona beithara (Mst II 8, 5), Jincoua beithan (Mst I 2, 2 & I 13, 5), liburu eguilia baithan (Ressegue 1), justicia baithan (Ressegue 16), hire counduta beitan (*Xarlem* 122), haren desiren beithan (*SteEli* 1339), Maria Virginia beithan (*UskLi* 13) & amourio saintia beythan (*UsLi* 207). Genitiboan: Jincouaren beithan (*Epit* I 1, 21; *EvS* 3, 21 & 14, 1), Semiaren beithan (*EvS* 3, 36 & 9, 35), Aitaren beithan (*EvS* 8, 38; 10, 37; 14, 10; 14, 11 & 14, 20).

behar da, hots, *beitha*- postposizioaren ezkerreko sintagma absolutibotik genitibora aldatzean. Ikusienez (§ 2.5.2.3), egile zaharrek absolutiboaren eskuinean erabiltzen zuten *baitha*. *OEH*-k Leizarragaren kasua azpimarkatzen du, baina beharbada jokabidea orokorra zen idazle zaharretan. *Baitha*- postposizioaren lehenbiziko agerraldia absolutibo bati darraio: 1415ekoa da, Nafarroako Erregeren diruzaina zen Matxin de Zalbaren gutunean (654) —beraz, *baitha*- Erdi Aroko azken mendeetan koka daiteke segurki—:

(654) *Done Johane Garazikoek dute gr[azi]a errege baitarik*. (*ConTAV* 4.2.1)

Uste dugu 31. TAULAKO datuetarik bilakaera bat ondorioztatzen ahal dela: Zuberoan, XIX. mendera arte ezkerreko sintagma gehienetan absolutiboaren emana da, baina hortik aitzina absolutibozko markatze hori guztiz ezohiko bihurtzen da —gogora *UskLi* XVIII. mende bukaeran datatu dugula—. Bilakaera horretan ezin deskriba daiteke kategoriaren araberako desberdintasun handirik. Aldaketa gauzaturik, XIX. mendeko testuetan *beithan* formaren 85 agerraldietarik soilik 3 dira absolutiboari jarraikiz emanak.

Zuberoatik kanpo ere halako kanbiamendurik hauteman daiteke, menturaz lehenagotik abiatua: idazle arkaikoetan (Etxepare, Leizarraga) Zuberoako egile zaharrek erakusten dutena ageri da, hots, *baitha*- postposizioaren ezkerrean absolutiboa. XVII. mendeko testuetan, *grosso modo*, bada joera argia izenordainak genitiboan emateko, eta gainerako hitzak absolutiboan (Axular, Etxeberri Ziburukoa, Haramburu, Materra, Pouvreau, Arambillaga, etab.), idazle batzuek izenak ere genitiboan ematen ahal dituztelarik (Gasteluçar, Argaignarats). Beharbada dialektoen arteko desberdintasunik xerkatu beharko litzateke: batetik, Leizarraga eta Etxepare ekialdeko mintzoen ordezkari dira, eta XVII. mendearentzat izendatu ditugun egileak, aldiz, lapurterarenak (*kostatarrarenak*). Beriainek eta Lizarraga Elkanokoak bat egiten dute Lapurdiko egileek erabiltzen duten banaketarekin. Beraz, *baitha*- postposizioaren erabilerari buruzko bi tradizio diferenteren aitzinean izan gintezke: euskalkien sailkapen tradizionalaren terminoetan adierazita, batetik lapurtera eta goi nafarrera, eta bestetik behe nafarrera eta zuberera —gehi Pirinioetako mintzoak?—.

31. TAULA. *Baitha*-ren ezkerreko elementuaren markatzea.

	Erdialde		Ekialde	
	izord.	izenak eta	izord.	izenak eta
E. Aroa	*ABS	*ABS	*ABS	*ABS
XVI	GEN	ABS	ABS	ABS
XVII	GEN	ABS	ABS	ABS
XVIII	GEN	ABS/GEN	ABS/GEN	ABS/GEN
XIX	GEN	GEN	GEN	GEN

Azken buruan, hastapen batean *baitha*- postposizioak absolutiboa eskatzen zukeen ezkerrean, eta aldaketa bat abiatu zen erdialdetik. Beraz, 31. TAULAK erakusten dituen bi eremuek funtsean ber bilakabidea segitu zuten, erdialdeak genitiboa lehenago agerraraziz, eta ekialdeak absolutibozko markatze behiala orokorra aldi historikoan ere atxikiz. Datuen interpretazioa hau ondoko argudioetan ere azkartzen ahal da: 1) genitiboa nagusi da modernoek diruditen postposizioetan; eta 2) *-gatic* markarekin antzeko bilakaera deskribatu dugu (cf. § 1.5.3).

2.5.3.3. Gogoeta *baitha*-ren jatorriaz

Azkuek (1925: 12) ontzat eman zuen Bonaparteren proposamen etimologikoa, *bait(h)a* Piemonteko erromantzeko *baita* ‘etxe’ formari lotuz (1877), eta lotura exotikoagorik ere proposatu izan da (*vid. infra*). 1969ko lan gogoangarrian, Mitxelenak deklinabideko *bait(h)a*-ren egitate nagusiak laburbildu zituen, urruneko kognaturik xerkatzen zuten hipotesiei arraposta emanez:

1) En la Vasconia oriental *bait(h)a*- se usa como posposición (lo mismo que *-gan* en el resto del país y, en parte, en todo él) en los casos locales de nombres animados; 2) en una comarca reducida, sobre todo en la cuenca del Bidasoa, precedido de la misma clase de nombres que *-nea*, sirve para designar casas; 3) nunca, en toda la literatura vasca, significa, sin embargo, ‘casa’ a secas; 4) los testimonios de tales nombres, a lo que se me alcanza, son tardíos, no medievales. Los hechos históricos se explican, pues, por hipóstasis a partir de los casos locales de la declinación, hecho que, a causa de lo tardío de la documentación, nos veda atribuir peso a la conocida comparación con una familia léxica representada en zonas bastante alejadas de la Romania. El semítico **baytu*, claro está, queda todavía más lejos. (Mitxelena 1969: 23, ohar batean)

Ondoko urtean, aditz forma batzuk izenaren morfologian sartzearen kari, Mitxelenak *bait(h)an* partikularen jatorriaz galdegiten dio bere buruari. Horrela, *nor baita, zer baita* →

norbait, *zerbait* berranalisi onartzen bada, “¿No se podría buscar en esta dirección el rastro de la ascendencia de *bait(h)a* en la declinación?” (1970: 92). Halere, lehenago izen batentzat hartua zuen: “se trata en realidad de un nombre provisto de sufijos casuales que es elemento autónomo en la cadena” (FHV 213). Guk dakigula, Mitxelenarengandik ez da *bait(h)a*-ren jatorriaren inguruko proposamen berririk plazaratu. Euskararen deklinabidearen historiaren gaineko ikerketaz bere *status quæstionis*-ean, Santaziliak “of uncertain origin” dio, eta ohar batean “It might come from *bait da*”, Mitxelenaren ildotik (2013: 227). Luzeago, Creisselsek & Mounolek kolokan jartzen dute *bait*-ekiko lotura:

The Basque dialects in which *baita* is attested also have a complementizer *bait*, used in particular in relativization, which in principle could be a possible source of ‘at N’s place’ < ‘at the place where N is’. Unfortunately, the constructions in which *bait* is found in relativizer function are such that it seems impossible to imagine a plausible grammaticalization path leading to “N-gen + *baita*” ‘N’s place’. The question of the etymology of *baita* must therefore be left open. (Creissels & Mounole 2011: 179)

Gure ustetan, arazo horiei beste bat gehitu behar zaie: hasperena. Izan ere, hura atxiki duten mintzoetan, testuek *baitha* hasperenduna lekukotzen dute, salbuespenak salbuespen. Zuberoan *beitha* forma hasperendunaren lekukotza sistematikoa da 1696z geroz.²⁴⁸

2.5.4. Ondorioak

Erabilia den eremu osoan bezala, Zuberoan *beitha* postposizioa izaki adimendunen kasu lokatiboetan ager daiteke, *-gan* morfemarekin batean —salbuespen guztiak kontzeptu abstraktu eta sentimenduei dagozkie—. Inesiboan *beitha* baizik ez da ageri; ifrentzuan, ablatiboan zein adlatiboan *beithatik* & *beitharik* arras ezohikoak dira. Ablatiboan *beitharik* formak balio bereziak adierazten ditu.

Baitha- postposizioaren ezkerrean absolutiboa edo genitiboa ageri dira. Orain arteko azalpenek ezkerreko hitzaren kategoria nabarmendu badute ere, Zuberoako datuek azalpen

²⁴⁸ Alta, Oihenartek eta Tartasek *baita* ematen dute. Nola interpreta datu hori? Bi egile hauen denboran/mintzoan *baita* hitza hasperen gabea ote zen, ala gehiago ez zuten hasperen hori grafiatzen? Oihenarten olerkietan gandi <th> grafema guztira 17 aldiz aurki daiteke, baina hura agertzen duten hitzak <t> soilaz ere lekukotzen dira, maizago lekukotu ere. Bihoa etsenplu bat: *bethiere* (IV 6) eta *bethi* (XXV 4) hasperendunei 23 kontra-etsenplu oposa dakizkieke (I 1, I 5, I 6, II 5, II 14, III 3 (2 aldiz), III 6, IV 2, IV 3, IV 4, V 1, V 3, VI 2, VII 2, IX 2, XV 1, XVI 2, XVII (3 aldiz), XXI 3 & XXVII 1); beraz, ondorioztatu behar da Oihenartek guztiz era defektiboan erabiltzen zuela <th> grafema. Tartasen liburuetan ere <th> grafemaren erabilpena defektiboa bide da.

diakronikoa iradokitzen dute. Izan ere, gure corpuseko testuetan, XIX. mendera arte *beitha*-ren ezkerreko genitiboaren agerpena guztiz marjinala da, absolutiboa kategoria guztiekin agertzen denean.

Bait(h)a postposizioaren eremu osoari begira, pentsatu behar dugu hastapenean ezkerreko elementua absolutiboan ematen zela, zein-nahi kategoriarekin. Ondoko fase batean, mintzo batzuek izenordainen markatze genitiboa abiatu zuketean, azken fasean genitiboaren erabilpena orokortzeko. Zuberoatik kanpo, Euskara Arkaikoko idazleetan (Etxepare eta Leizarraga) ez da kasik genitiborik ageri, eta Euskara Zaharrekoetan genitiboa orokorra da izenordainetan, batzuk izenetara ere hedatzen hasi direnean. Egile horien jatorria gogoan izanik, aldaketa erdialdetik abiatu zela proposatu dugu, erran nahi baita Nafarroa Garaitik eta Lapurditik. Ekialdeko mintzoez *baitha*-ren sintaxi zaharra atxiki dute. Azkenik, *baitha*- postposizioaren etimologiak ilun jarraitzen du.

III. KAPITULUA

ERATORPENA

1. Zenbait eratorpen morfema mailegaturen azterketa

1. Eratorpenezko morfema mailegatu zenbaiten azterketa

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Mailegatze morfologikoz bi hitz
- 1.3. Eratorpen morfemen mailegatzea Zuberoan
- 1.4. *Arra-* aurizkia
 - 1.4.1. Abiaturuak
 - 1.4.2. *Arra-* morfemaren ezaugarriak
 - 1.4.2.1. Forma fonologikoa
 - 1.4.2.2. Kategoria ezaugarriak
 - 1.4.2.3. Balio semantikoa
 - 1.4.2.4. Ohar bat semantizazioaz
 - 1.4.3. Zuberoako testuen testigantza
- 1.5. *-aje* atzizkia
 - 1.5.1. Abiaturuak
 - 1.5.2. *-aje* morfemaren ezaugarriak
 - 1.5.2.1. Forma fonologikoa
 - 1.5.2.2. Kategoria ezaugarriak
 - 1.5.2.3. Balio semantikoa
 - 1.5.3. Zuberoako testuen testigantza
 - 1.5.3.1. *-aje* bukaera duten maileguak
 - 1.5.3.2. *-aje* atzizki eratorlea duten euskal hitzak
 - 1.5.3.3. Kronologiaz
- 1.6. *-dant/-lant* atzizkia
 - 1.6.1. Abiaturuak
 - 1.6.2. *-ant* morfemaren ezaugarriak
 - 1.6.2.1. Forma fonologikoa
 - 1.6.2.2. Kategoria ezaugarriak
 - 1.6.2.3. Balio semantikoa
 - 1.6.3. Zuberoako testuen testigantza
 - 1.6.3.1. *-ant* bukaera duten maileguak
 - 1.6.3.2. *-dant/-lant* atzizki eratorlea duten euskal hitzak
 - 1.6.3.3. Kronologiaz
- 1.7. *-ot* atzizkia
 - 1.7.1. Abiaturuak
 - 1.7.2. *-ot* morfemaren ezaugarriak
 - 1.7.2.1. Forma fonologikoa
 - 1.7.2.2. Kategoria ezaugarriak
 - 1.7.2.3. Balio semantikoa
 - 1.7.3. Zuberoako testuen testigantza
 - 1.7.1. *-ot* onomastikan
 - 1.7.2. *-ot* mailegetan
 - 1.7.3. *-ot* euskal oinetan
- 1.8. *-sa* atzizkia
 - 4.8.1. Abiaturuak
 - 1.8.2. Mailegatzea, genero gramatikalaren enbrioi

- 1.8.3. Ezaugarri morfologikoen mailegatzeaz
- 1.8.4. *-sa* atzizkia: eratorpen arauak eta semantika
 - 1.8.4.1. *-sa* har dezaketenak
 - 1.8.4.2. *-sa*-dun hitzetarik eratorriak
 - 1.8.4.3. Semantikaz bi hitz
- 1.8.5. Zuberoako testuen lekukotza
- 1.8.6. *OEH*-ren testigantza
- 1.8.7. *-sa* atzizkiaren hala-moduzko estatusaz
 - 1.8.7.1. Genero ideologiaren oihartzuna
 - 1.8.7.2. Araugintzaren herexa
 - 1.8.7.3. *Ancora vivo e in salute*
- 1.8.8. *-sa*: azken ondorioa
- 1.9. Ondorioak

1.1. Sarrera

Hizkuntz ukipenak Zuberoako euskaran eragin dituen kanbiamenduen berri ematea tesi honen xede nagusietarik bat da. Inguruko erromantzeen eragina fonologian, morfologian, syntaxian eta lexikoan suma daiteke. Zehazkiago, atal honetan Zuberoako euskarak mailegatu dituen morfema batzuei eskainiko diegu arreta, haien gaineko deskripzio zehatzen ments delakoan: *arra-* aurrizkiari, eta *-aje*, *-dant/-lant* & *-ot* atzizkiak. Ikusiko denez, morfema horiek ez dute emankortasun gradu bera erakusten, ez eta kronologia bera ere —kasuaren arabera, bi alderdi horiek lotuak dira—.

1.2. Mailegatze morfologikoaz bi hitz

Mailegutza eta hitz elkarketarekin batera, eratorpena da hizkuntzek hitz sorkuntzarako dituzten bide nagusietarik bat; bestelako baliabiderik ere bada, hala nola akronimoak, zabalkuntza semantikoa eta berrezarpen lexikala. Oro har, bi mailegutza mota bereiz daiteke: lehenbizikoan hizkuntza emailearen elementu baten materia fonologiko zein forma morfologikoa mailegatu da (“MAT-borrowing”), eta bigarreanean elementu baten eredu funtzional eta semantikoa kopiatzen da (“PAT-borrowing”, maiz *kalko* deitua) (Sakel 2007; Matras & Sakel 2007b).

Bestalde, eztabaidatu izan da hizkuntzaren zein elementu mailega daitekeen aiseago ala nekezago. Hortaz, mailegagarritasun eskalak proposatu izan dira; cf. Thomason & Kauffmann 1988: 74-76; Field 2002: 36-37; Matras 2007 & 2009: 153-165, bakan

batzuk baizik ez aipatzeagatik. Morfologia, oro har, eskala horietako goi urratsetan kokatzen da, hots, hizkuntzen arteko kontaktu indartsua denean mailegaten ahal da. Eta morfologiaren barnean, eratorpeneko morfemak aiseago mailegaten dira inflexiozkoak baino. Soilik ukipen bereziki estuko egoeretan inflexio morfemak ere mailegaten ohi dira: turkierarenak albanieran edo Anatoliako grekoan, eslavierarenak errumanieran edo ingelesarenak galesean (Gardani 2008; cf. halaber Gardani, Arkadiev & Amiridze 2014).²⁴⁹ Morfologiari doakionean, materiaren eta erduen mailegatzea, biak gerta daitezke eratorpen zein inflexio morfemekin.

Eratorbidez denaz bezainbatean, komeni da bi puntu gogoratzea. Lehenik, ezaguna denez, euskara historikoa hizkuntza atzizkizalea da: aski da atzizkien zerrenda luzeari eta aurrizki bakanei soño bat egitea haien artean dagoen desoreka handiaz ohartzeko, eta hori SOV hizkuntza izatearen ondorioa da.²⁵⁰ Bigarrenik, euskarak eratorpen morfemak mailegatu dizkie erdare, seguruenik Azkuek onartutako *alien* solteak baino gehiago.²⁵¹ Kontrakoa harrigarria litzateke, euskara gutxienez azken bi mila urteetan latinarekin, eta gero inguruko erromantzeekiko ukipen azkarrean egon delako. Kasu ezagunenak aipatzeko, hor ditugu *-mendu*, *-zio*, *-dura*, *-eria* edo *-tate*. Beraz, euskarak aurrizkirik nekez mailegatu du (*des-* edo *erre-*), baina latinaren eta erromantzeen atzizkiak aise sartu dira hizkuntzan.

²⁴⁹ Desberdintasun tipologikoen zailago errendatzen badute ere, euskarak inflexio morfemarik ere mailegatu du: *-tu* atzizkia latinetik, eta mendebaldeko egungo mintzo batzuetan sartua den genero gramatikalaren hasikina, *-o* & *-a* bukaeren arabera (Eliasson 2012).

²⁵⁰ Aldiz, aditz morfologian iritsi zaizkigunez gainera (*b-*, *d-*, *l-*, **e-*, etab.), Lakarrak hainbat aurrizki berreraiki ditu aitzineuskararentzat, Trasken (1977) eta Gómezek (1994) urratu bidetik. Izan ere, Gómezek aitzineuskararen aurrizkiez baliatu da aitzineuskarak bestelako hitz ordena kanonikorik ezagutu zuela proposatzeko, hots, VSO.

²⁵¹ “Sufijos alienígenas. No es extraño que entre los cuatro centenares mal contados de prefijos, infijos y sufijos que contiene nuestra lengua se hayan deslizado algunos de procedencia exótica” (Azkue 1925: 21-22. Hona Azkueren zerrenda: *-ada* (*gogortada*), *-ade* (*gogortade*), *-ate* (*libertate*) —hiru hauek alomorfo bailiran ematen ditu—, *-aje* (*adaje*), *-aire* (*gorriaire*), *arra-* (*arramaiatz*), *-ero* (*zurrutero*), *-ezia* (*agudezia*), *-ler* (*ostaler*), *-antza* (*ustantza*), *-sa* (*artzaintsa*), *-oso* (*triposo*), *-ura* (*hedadura*), *-zio* (*asmazio*) & *-tu* (*garbitu*); *-ari* & *-tasun* ere aipatzen ditu, nahiz haien jatorria argudiatuko duela dioen (1925: 22-23). Geroztik, Mitxelenak, besteak beste, *-ari* latinaren *-ari(um)* bukaeratik datorrela sustengatu zuen (1957: 145; 1974: 191; 1970-1980: 377), eta De Rijk (1991) *-pen* atzizkia *-men(du)* mailegatu datorrela. Berrikiago, Buenok (2011) erakutsi du zenbatenaz testua zaharrago, hainbatenaz atzizki mailegatu gehiago direla; Larramendik aldatuko zuen joera hori behin betiko (cf. Urgell 2003).

1.3. Eratorpen morfemen mailegatzea Zuberoan

Logikoa denez, morfema baten mailegatzea morfema hori daramaten formen mailegatzetik pasatzen da, ezinbestean (cf. Bueno 2011; Lindsay & Aranoff 2013).²⁵² Euskararen eta gaskoiaren, eta zehazkiago zubereraren eta biarnesaren arteko kontaktu azkarrari begira, 32. TAULAK bi hizkuntzek komun dituzten hainbat bukaera zerrendatzen du, morfema izan ala ez, eta diakroniaren geruzak edo morfemen hedadura zehaztu gabe (Coyos 2008: 929-933); ikusten denez, biarnesaren bukaera horiek guztiak ez dira euskararen morfema bihurtu, baina guztiak existitzen dira Zuberoan, mailegu andana batean. Hortaz, soilik bukaera (edo hasiera) horiek euskal oinei eransgarri suertatzen direlarik erran dezakegu Zuberoako euskarak biarnesaren — batzuetan erromantze zaharragoaren— morfemak mailegatu dituela, “MAT-borrowing” delakoan: *-ant* (*tratülant*), *-er* (*gezürter*), *-aje* (*mintzaje*), *-ada* (*abiada*), *-us* (*handius*), *-üra* (*herstüra*), *-ot* (*zaharrot*) edo *des-* (*desegin*). Coyosen zerrendatik kanpo bada kasu gehiagorik: hor ditugu *-sa* atzizkia edo *arra-* aurrizkia.

²⁵² Gaztelaniaz begien bistan sartzen ari den ingelesaren *-ing* atzizkia (*puenting*) *-ing* duten izen mailegatu zerrenda luzen baten ondorio naturala da.

32. TAULA. Latin, biarnes eta egungo zubereraren arteko zenbait korrespondentzia*

LATINA	BIARNESA	ZUBERERA
-ālem	-au (<i>espitau</i>)	-ale (<i>ospitale</i>)
-ante	-ant, -dant, -lant (<i>framchimand</i>)	-ant (<i>tratülant, ogendant</i>)
-ārīum, -ārīam	-èr, -èra (<i>cautèr, menusèr</i>)	-er (<i>kauter, menüser, gezürter</i>)
-ātīcum, -ātīcam	-atge, -atja (<i>coratge, viatge</i>)	-aje (<i>kuraje, mintzaje</i>)
-ātiōne	-ason > -asũ	(<i>arrazũ...</i>)
-ātu, -āta	-at, -ada	(<i>buhada, phausada, taulada</i>)
-ēllum, -ēllam	-eth, -èra (<i>manteth, pasteth...</i>)	(<i>pasteth</i>)
-ēnse	-és, -esa	(<i>baiones, frantses</i>)
-ent	-ente, -enta (<i>pendent, regent</i>)	(<i>pendent, errejent</i>)
-īnu, -īna	-in, -ina	(<i>koki, bedezi</i>)
-ōsu, -ōsa	-ós, -osa	-us (<i>irus, malerus, handius</i>)
-tōrīum, -tōrīam	-der, -dera (<i>bohader, eishugader</i>)	-er (<i>buhader, txükader</i>)
-ūra	-ura (<i>frescura</i>)	-üira (<i>arrenküira, herstiüira</i>)
-ūtu, -ūta	-ut, -uda (<i>perdut, perduda</i>)	(<i>pergüt</i>)
-ottu, -otta	-òt, -òta (<i>coquinòt, plaçòta</i>)	-ot (<i>plaxot, tripot, haurrot</i>)
dis-	des-	des- (<i>desobedient, desegin</i>)
male-	mal-	(<i>malestriük</i>)

* Coyosen zerrendatik moldatua (2008: 929-933)

Exhaustibotasunetik aski urrun, hemen Zuberoako euskarak biarnesari mailegatu dizkiokeen zenbait morfemaren azterketa proposatzen dugu: *arra-* aurrizkia, eta *-dant/-lant*, *-aje*, *-ot* eta *-sa* atzizkiak. Morfema bakoitzean lehen maileguei eta gero euskal jatorriko eratorriei begiratuko zaie, nazioarteko literaturan *hybrid formations* gisara direnak: “Hybrid formations qualitatively demonstrate which affixes are productive beyond a lexis restricted by source language —a key component of the final stage of Burnley’s description of naturalization” (Palmer 2009: 89).

1.4. Arra- aurrizkia

1.4.1. Abiaburuak

Pour emprunter la répétition, les modernes ont emprunté le préfixe roman *re-* (*ré-*, *ra-*) qu’ils ont transformé en *erre-*, *arra-*: *erosi* ‘acheter’, *bildu* ‘amasser’, *maiatz* ‘mai’, *seme* ‘fils’, *berri* ‘neuf’ → *arrerosi* ‘racheter’, *arrabildu* ‘ramasser’, *arramaiatz* ‘juin’, *arraseme* ‘petit-fils’, *erreberritu* ‘renouveler’. Le préfixe *arra-* est très vivant en

Basse-Navarre ; les auteurs labourdins l'ignoraient jusqu'ici et ne marquaient la répétition que par les adverbes *berriz* ou *harzara*, 'de nouveau' (Lafitte 1944 § 88).

Lafitteren hitzetan konpreni liteke *arra-* aurrizkia azken garaietako berrikuntza dela, eta ez du Zuberoa aipatzen. Aldiz, Azkuek eskaini aipamen laburrean, aurrizkia Baxenabarren eta Zuberoan kokatu zuen (1925: 22) —ikusiko denez, Zuberoako lehenbiziko testuek ongi lekukotzen dute—. Villasantek Lafitteren informazioa jaso zuen (1981: 51), baina adibideekin diferente jokaturik: Lafittek artoski hautatu bazituen *arra-*dun euskal hitzak, Villasantek *erre-*dun maileguak baizik ez zituen Axularren testutik hartu: *erredoblatsu* 127, *errefus* 299, *errekeritu* 179, *erremediatu* 44, *errendatu* 53, *errepartitu* 339, *errezuzitatu* 184.

Arra- aurrizkiak eta hari nolabait lotuak diren *erre-* hasieradun formek *r* aitzineko protasira igortzen gaituzte: “El timbre de la vocal [protética] no es uniforme: generalmente es *e*, pero habitualmente ante *ra-*, y también ante *ro-* hay *a-*. Los ejemplos de *i-*, y más aún los de *u-*, son muy raros y debidos a su asimilación” (*FHV* 155). Gaskoiak eta aragoierak badute ezaugarri fonologiko hau (Rohlf 1935: 149-150; Jungemann 1955: 273 *hh*), bai eta Nafarroako erromantzeak ere (Cierbide 1970).²⁵³ Gaskoiari doakionean, *r-* aitzineko protasia *a-* izaten da (Rohlf *ibid.*), eta datu hori gogoan erabili beharko dugu Zuberoako euskararen hainbat formatan. Izan ere, “No se puede excluir la posibilidad de que en algunos casos la prótesis sea ya romance. El timbre de la vocal puede servir de guía en alguna ocasión, ya que el gascón ha generalizado *a-* en todos los casos” (*FHV* 156). Berrikiago, Oyharçabalek zenbait kontu argitu du *arra-* aurrizkiaz:

Le souletin affectionne ce préfixe, correspondant au fr. *re-*. La forme souletine en *arra-* correspond au traitement gascon et notamment du béarnais avec les *r-* initiaux: *arrecebe*, recevoir, *arrebouni*, rebondir. « A l'initiale d'un mot, *r-* latin dans tout le domaine aquitannique jusqu'au Bassin d'Arcachon se présente sous la forme *arr-* »

²⁵³ Cierbidek euskararen eragina seinatzen du, baina substratuaz ari dela ulertu behar dukegu: “Se documenta en navarro la prótesis de *a-* en palabras que comienzan por *r-* por influjo vasco” (1970: 272). Geroko lan batean, Donostiako gaskoi izkribu bat azterkatuz, *a-* protetikoa gaskoiaz, nafarreraz, aragoieraz eta euskaraz lekukotua dela dio, nafarreraren *Arramon & Arronchal* adibide gisara ekarri (1986: 864-806).

(Rohlf, *Le gascon*, § 465.). Alors que le basque a selon la voyelle qui suit *err-* ou *arr*, (*Erregue*, *arrazoin*) dans le cas général. Avec le préfixe verbal *re-*, le souletin a pris uniquement *arr-*, avec *arra-* par harmonisation devant toutes les voyelles, y compris, comme ici devant, *e-*. Com.: *berr-*: *berregin*. Notons que Larrasquet donne *arr-egin*, et Gèze *arrerossi* par seule préfixation de *arr-*, la chute du *a* dans ce contexte rappelle celle intervenant dans les formes impératives *benedik'- ezazie*. (1991: 163-164)

Beraz, zuberotarrek *erre-* zein *arra-* / *arre-* hasierak posible badituzte ere, haietarik *arra-* hautatu dute aurrizki gisa erabiltzeko. Abiapuntu honetatik, ondoko galderei erantzuten ahaleginduko gara: i) zein da aurrizkiaren balio zehatza eta zein oini erants dakioko?; ii) zein da, garai historikoan, *arra-* aurrizkiaren eremua?; iii) noiz sartu da euskaran?; iv) *arra-* hizkuntzan sartua bada, noiz iragan da maileguetarik euskal hitzetara?

1.4.2. *Arra-* morfemaren ezaugarriak

1.4.2.1. Forma fonologikoa

ARR(A)-: /aRa/ ~ /aR/. Oina *e-* bokalaz hasten delarik, aurrizkiak bigarren *a* gal dezake: *arrerossi* (*vid. supra* Oyharçabal 1991: 163-164). Ohartarazi behar da idazle zenbaitek bereiz idatzi dutela *arra*, edo tiret baten medioz loturik. Halakoetan bigarren *a* ager daiteke, bederen grafikoki: Maisterrek *arra erraitia* (III 34, 1), *arraerraitia* (I 4, 2) zein *arrreraiteco* (III 54, 7) idazkerak dakartza. XVII. mendearen akabantzan, Belapeireren etsenpluek sistematikotasunez erakusten dute *-a-*ren galera *e* aitzin: *arregorriric* II 48, *arrekhar* II 33, *arremaiten* I 78, *arrerituric* I 79, *arrerossi* I 121, *arrreraiten* II 55, *arrreran eraciren* I 155 vs. *arraharturen* I 36, *arrapitcia* II 55 & *arrasortcia* II 13 —ez ez soilik *e* aitzin: *arrutçulcen* (II 63)—. Guztiarekin ere, aldaketa hori ez bide da automatiko. ²⁵⁴ Bestalde, Etchartek *arremaiatzarena* dakar (3, 2r), beharbada

²⁵⁴ *Uscara Libria* (ca. 1800) kontrako usadio sistematikoaren lekukoa da: *arra eçar* 122, *arra eguin* 64, *arra erossi* 129, *arra erosteco* 206, *arra erraiten* 82, *arra examina* 86, eta orobat erran daiteke 1899koa den *Catuchuma españoul* eskuizkribuaz, zeinetan *arraeossi* 5, *arraerostia* 14 & *arraerostia* 39 ageri baitira. Beraz, *arr-* gauzatze morfonologikoaren ideia nonbait konplikatzen da, bereziki *Catuchuma españoul* izkribuaren ezaugarri nabarmenena Hauzeko orduko ahoskeran oinarritutako grafia dela kontuan hartuz gero (cf. ATALASEAN, § 3.2.4).

eskuizkribu izateak badu zerikusirik; bestela agerraldi zaharrena izateaz gogoetatu beharko litzateke.

1.4.2.2. **Kategoria ezaugarriak**

Euskara historikoan aurrizkiek ez dute sekulan kategoria aldaketarik eragiten. Oinari begiratzen badiogu, bi kategoriatako hitzek har dezakete *arra-* aurrizkia: aditzek eta izenek. Bildutako agerraldi gehientsuenetan *arra-* aditz den oin bati erantsia da, baina beste batzuetan oina izena izan daiteke; hona forma eta corpuseko agerraldi guztiak: ARRAHAUR (*arrahaurrac*, *MaiMarHil* 57), ARRAMAIAZ (*arremaiatzarena*, *Etchart* 3-2r; *arramayatzaren*, *Mercy* 10; *arramayatça*, *UskLi* 4; *arremaiatzaren*, *Ip Dial* 19) eta ARRASEME (*arrasemia*, *Egiat* I 12; *arrasemiac*, *SteEli* 46).²⁵⁵ Halaber, Larrasquetek ondoko sarrerak jaso ditu: ARRABOTÜ “fronton de pelote” (< *arra* + esp. *botar*), ARRALHABA “petite-fille”, ARRALOBA “petit-neveu / petite-nièce” eta ARRAMAHANKA “filet de pêche en eau douce” (< *arra* + rom. *manco* “manche”). Erran gabe doa, *arra-* aurrizkiaren bidez eratu hitzek bestelako eratorpen morfemarik har dezakete, kategoria aldaketak gertatuz: *arraphitz(tü)* ‘berpiztu’ → *arraphiztia* ‘berpizkundera’, *arrerros(i)* ‘redimir’ → *arrerrosle* ‘redentor’, *arrerrospen* ‘redención’.

1.4.2.3. **Balio semantikoa**

Arra- aurrizkiak errepikapenaren ideia adierazten du: azken finean latinaren eta erromantzearen *re-* aurrizkiaren egokitzapena besterik ez da eta, beraz, euskaren *ber-* / *bir-* aurrizkiaren baliokidea. Oina izena denean, errepikapenaren balioak ez du, bistan denez, ekintza edo gertaera bat kanbierazten; cf. *arremaiatz* ‘ekain’. Azkenik, zenbaitetan *arra-* aurrizkidun forma *berriz* aditzondoarekin batera ageri da, egitura pleonastiko batean (1)-(3).

- (1) Berriz behar die lana arrahasi (*Egiat* I 26)

²⁵⁵ Duda dugu ARRABUHIN formaz. Lhandek ARRABUHI jaso zuen: “(S-saug), porté à la contradiction (cf. gasc. *bouhit*)”. *OEH*-ren corpusean, iduriz, Eguiateguyk baizik ez duke erabili hitz hori (201 & 232), edizilogileak “cast. *arisco*; fr. *grincheux*” glosa ematen duela. Lhandek gaskoiaren *bouhit* formarekiko lotura iradoki arren, batetik *bouhit* hitzaren semantikak ez du lotura errazik eusk. *arrabuhi(n)* horrekin, eta bestetik euskaraz ez da *buhit* ez *buhin*.

- (2) *Ene bicia uzten beitut berriz arra hartceco.* (EvS 10, 17)
- (3) *Photeria berriz arra hartceco, errecibitu dut manu hoi.* (EvS 10, 18)

1.4.2.4. Ohar bat semantizazioaz

Iduri luke *arra-* aurrizkia semantizazioaren bidetik sartua den, hitz solte gisara ere erabil baitaiteke:

Arra. De nuevo. (Se trata de un uso adverbial del prefijo *arra-*; cf. *arrapiztu*, *arrerosi*, *arraseme*, etc.). “*Arra* se sépare parfois du mot auquel il est préfixé” H. “(S), (adv.), de nouveau. *Egizü arra* (S-saug), faites-le encore. *Jin zitie arra* (S-saug), revenez encore” Lhande. *Entzun ezazu arra zutan dutan garra.* Canc. pop. (ap. H). *Arra elkhar ikhusten dukegunean, hizketa horri lothuko gatzazkio.* Mde Pr 62. *Ai! hirur gezur horik egiak balite! / Tralalalalala! egiak balite! (arra).* Ib. 52. *Iruski, mündia eskolatürük beita, ez da hanbat berotü. Ogi, arra ogi dü nahi eta ez elhe hüts.* Herr 10-12-1959 (ap. DRA). (OEH s.v. *arra*).

Erran behar dugu gure corpusak ez duela behin ere *arra-* horrela lekukotzen, ez eratorpen oinaren eskuinera, ez bestelako hitz tartekaturekin; beraz, erabilpen hori berria dateke, nonbait XIX. mendearen bigarren partekoa, lehen testigantza Maurice Harrietek jaso baitzuen (*vid. supra*). Zaharragoa izatera, autoreek bederen ez zuten erabili, menturaz kutsu mintzatua zuelako seinale.

1.4.3. Zuberoako testuen testigantza

Euskaraz (Zuberoakoaz ere) bokal protetikoak nagusiki *a-* eta *e-* izan daitezkeelako hatsarretik abiatuak, corpusean *err-* & *arr-* hasiera duten formak bildu ditugu, bestelako azalpena behar duten *arrats* edo *arrain* bezalakoak kanpoan utziz. Corpusean egiaztatu dugu beti *e-* protetikoa *re-* hasiera duen mailegu bati atxikitzen zaiola: *errege*, *erretor*, *erreka*, *erregala*, *errezebi*, *errekeitatu*, *errenda*, *errebel*, etab.²⁵⁶ Beraz, *erre-* hastapena emaitza fonologiko hutsa da. Protesia *a-* denean bi aukera dugu: a) gaskoiari hartutako maileguak eta haien eratorriak, edo b) euskal jatorrizko *arra-* aurrizkidun hitzak. Lehen

²⁵⁶ Corpus osoan bi salbuespen atzeman dugu. Lehena Chahoren *erreberriturik* forma da (Aztib IX); bigarrena *Uscara libriak dakarren erretchekiric* bitxia (*Comunione hombati erretchekiric diren fruitien erratiratcetic* 96). Hor euskal aditz kausatibo baten berranalisisa bide datza, *erre-* hasieradun bailitzan: *eratxeki* → *erretxeki*.

sailean *arrazu*, *arragret*, *arrankura*, *arraposta*, *arranda*, *arrafusa*, *arrabiatu* edo *arrabokatu* bezalako hitz parrasta bat kausitzen ahal da; bigarreanean atal honen xede diren *arra-* aurrizkidun hitzak. Atal honetan lexemen agerraldi bana dakargu testu bakoitzeko.

Jada Etchartek lekukotzen du *arra-* aurrizkia: *arremaiatzarena* 3-2r (ikus § 1.4.2.1), baina XVII. mendean bildu atsotitz bildumetan eta Oihenarten olerkietan ez da ageri. Ondoren Belapeirek arrunt erabiltzen du: *araharturen* I 36, *arrapitcia* II 55, *arrapiztia* I 71, *arrapiztu* I 152, *arrasortcia* II 13, *arregorriric* II 48, *arrekar* II 33, *arrutçulcen* (II 63), *arremaiten* I 78, *arrerituric* I 79, *arrerossi* I 121..., *arrerraiten* II 55, *arrerran eraciren* I 155.

XVIII. mendeko hastapenean, Oloroeko katiximak bi hitz lekukotzen du (*arrerossy* 2 & *arreguin* 82), eta 1734ko *Othoitce* lanak bakarra (*arrerossi* 12) —bakarra eta jadaneko liburuetan irakur zezakeena—. Maisterrek ondokoak dakartza: *arra erraitia* III 34, 1; *arrabeçtitiac* IV 5, 3; *arraerraitia* I 4, 2; eta *arrerraiteco* III 54, 7. Resseguek *arra-erossy* 50, eta haren ondorengoa den Mercyk *arraberritceco* 19, *arra-iracourriric* 43, *arramayaçaren* 10 & *arrerossliaren* 22. 1782koa den *Noelen Lilia* liburuak *arra erosi beriqui* 2 eta *arra imprima eraciric* 1; —lehen adibidean pleonasmu semantikoa ikus daiteke lehenbizikoz—. Eguiateguyk gehiago baliatzen du *arra-* aurrizkia: *arrabiziren* I 24, *arrabuhin* I 4, *arragortü* “Hitzauria”, *arra hartzia* “Hitzauria”, *arrapaintzez* “Hitzauria”, *arraheñ* I 3, *arrahasi* I 26, *arra igaraiten* I 19, *arralanthatürrik* I 25, *arrapitz* I 25, *arrasemia* I 12, *arra ützul* I 6 & *arra xüxentzen* I 32.²⁵⁷

Aldiz, badirudi herri tradizioko testuetan *arra-* nabarmen gutxiago agertzen dela: *Saint Julien* trajeriak *arraeçarteco* 644 bakana du, *Charlemagnek arra Erosi* 154 & *arra eroslia* 914, eta *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriak *arrasemiac* 46. Garai bertukoa den *Malqu eta Malqulina* asto lasterrean ez dugu *arra-*dun formarik atzeman, ez eta *Chiveroua eta Marcelinen* ere.

²⁵⁷ Beste bi forma hauek, aldiz, zerrendatik aparte dakartzaguz, ez baitakigu *arra-* aurrizkidunak diren: *arradea* I 11 (?), *arrapagoena* I 6 (?),

XIX. mendean, Inperioko katixima den *Doctrina Khiristiak* hiru forma ditu: *arraerostia* 61, *arra erori* 66, *arra eguin* 66. *Uscara libria* oparago da: *arra eçar* 122, *arra eguin* 64, *arra erossi* 129, *arra erraiten* 82, *arra examina* 86, *arra igorri* 75, *arra pausaceraco* 229, *arraberitcen* 38, *arramayatça* 4. 1844ko *Meditacioniac* moldaketak honakoak dakartza: *arra ofenxa* 153, *arra sar* 115, *arraberritcen*, 141, *arra-deithu* 73, *arrajinen* 53, *arra-erosteco* 65, *arra erorten* 153, *arrajitiaz* 146 & *arrerospenaren* 176. 1856koa den *Maiatza, edo Mariaren Hilabetia* liburuan *arraerabilten* 86, *arraerortia* 136, *arraerosliaren* 42, *arrahaurrac* 57, *arrajinerazten* 100 & *arrerospenaren* 13. *Heren-Ordreco escu libriak* ere baditu halako formak: *arraberiazten* 23, *arraberritcen* 35, *arra erortera* 96, *arra geiki* 167, *arra jartia* 201, *arrerospenaren* 92, *arrerozle* 98.

Chahorendako *arra-* aurrizkia aski emankor zen; *Azti Begia* bilduman honako hauek ageri dira: *arraaltxatu* XVI, *arrabostuko* IV, *arraerostiagatik* XIV, *arrahartzeko* XII, *arrahartzeko* XIV, *arrahunkitiak* VIII, *arraikhusi* XVI, *arraikhustez* XVI, *arra-izendatzeko* XII, *arrajitera* XVI, *arrautzultzin* XVI edo *arraxuxendia* VIII. Anna Urrutyk aski ongi lekukotzen du *arra-* aurrizkia. Bere ebanjelioan ondoko hauek baliatzen ditu: *arra altchatuco* 2, 20; *arra jaikiric* 8, 10; *arra jin artino* 21, 22; *arra sortcen* 3, 4; *arraphiztia* 11, 25; gehiago dena, bitan pleonasmu semantikoa erabiltzen du: *berriz arra hartceco* 10, 17 & 10, 18. Eta epistolen itzulpenean honako hauek: *arra erosiric* I 1, 18; *arra orhitarazteco* II 1, 12; *arra phiztiz* I 1, 3; *arra phiztu* I 1, 21; *arra sorraraci* I 1, 3. Azkenik, XIX. mendea hesten duten testu laburretan ere ageri da *arra-*, hala *Sen Grat* liburuxkan (*arra etzaten* 13, *arra galtha baceneza* 3 & *arraphisten* 7) nola *Catuchuma españoulen* (*arraeossi* 5).

1.5. -aje atzizkia

1.5.1. Abiaburuak

Euskaraz hitz saldo batek *-aia* bukaera du, bistan denez gaztelaniaren *-aje*, frantsesaren *-age* edo gaskoiaren *-adge* atzizkien egokitzapena: *bidaia*, *kuraia*, *pertsonaia*, etab. Akitaniako mintzoetan, oro har, banaketa argia gertatzen da: Lapurdin eta Baxenafarroan halako hitzek *-aia* (*-aie*), eta Zuberoan *-aje* aldaerak dituzte: “Se ha mantenido como -j- la grafía -j- de autores suletinos (en quienes representa, sin duda,

una consonante palatal) y guipuzcoanos, pero no de labortanos y bajo-navarros, en los que se ha escrito *-i-*” (OEH s.v. *kuraia*).

Zuberoan *-aje* /aze/ eta Penintsulako *-aje* /axe/ bukaerak hizkuntza desberdinetarik sartuak dira: gaztelania hegoaldeetik eta gaskoia/frantsesa iparraldetik. *Arra-* aurrizkiarekin ikusi den bezala, *-aje* atzizkiaren mailegatzea berori duten hainbat hitzen mailegatzearen ondorioa da. Funtsean, *koraje*, *lenguaje*, *omaje* bezalako maileguetarik *mintzaje*, *ondoraje*, *zurtaje* bezalako eratorrietarako urratsa ematen den puntutik mintzo gaitezke *-adje* gaskoi atzizkiaren mailegatzeaz.²⁵⁸

1.5.2. *-aje* morfemaren ezaugarriak

1.5.2.1. Forma fonologikoa

Zuberoan *-AJE* atzizkiaren egitura fonologikoa /aze/ da. Sabaiaurreko igurzkari ahostuna biarnesaren eragipenaz azaltzen bada (cf. I, § 2.3), orduan zubererak [aze] gisara egokitu du gaskoiaren *-adje* atzizkia [adze], afrikatua igurzkari bihurtuz (Coyos 2008: 930) —halere, biarnesetiko mailegu batzuetan, Zuberoako euskara zaharraren corpusean afrikatu ahostuna salatzen duten grafiak ageri dira (cf. I, § 2.4.3.)—. Bestalde, ongi ezagunak diren bokalen arteko elkarreraginak direla kausa, Zuberoan *-AJE* atzizkiak aldaketa fonologikoa jasaten du *-a* batez segitzen delarik: *lenguage* → *lenguajia*. Azkenik, nonbait *-aje* atzizkiak *-taje* itxura har dezake, *t* epentetiko baten medioz —Larrasqueten eleetan “euphonique” (1939, s.v. *taharnataje*)—. Itxura berezi hori duten hitzak § 1.5.2 atalean iruzkinduak dira.

1.5.2.2. Kategoria ezaugarriak

Maileguez landara, Zuberoan *-aje* akabantza atzizki bihurtu denean mota bateko baino gehiagoko oinei erantsi izan zaie. Frantsesez *-age* aditzei nahiz izenei erants dakieke, eta beti izenkiak eratzen ditu. Badirudi Zuberoako euskaran *-aje* atzizki eratorlea oinarritzko ber bi erregela horiei hertsatzen zaiela, haren medioz eratorri diren forma

²⁵⁸ Penintsulan ere atzizkiaren mailegatzea gertatu bide da. Azkuek *sufijos alienígenas* direlakoan artean sartzen du: “El sufijo *aje* (*adxe* en B): *adaje* cornamenta, *tximaje* (G-bedaio) vello, *zabaje* y *zuraje* (B-I) maderamen” (1925: 22).

gutxiek hala iradokitzen baitute. Zehazkiago, ondoko oinek onartzen dute *-aje*: izenak (*bide*, *taharna*), izenondoak (*boti*) eta aditzak (*mintza*, *zurta*); forma eratorri horiek § 1.5.3.2 atalean dira emanak.

1.5.2.3. Balio semantikoa

Zuberoan *-aje* atzizkiak ez du frantsesez bezain balio semantiko definiturik;²⁵⁹ halere, eratorrien adibideak gutxi izanik ere, ondoko ñabardurak hauteman genitzake:

- EMAITZA, EFEKTUA: *ondoraje* ‘zerbaiten ondorio’, *bedezinaje* ‘medizina prestakin’, *botinaje* ‘elkarrekin izatearen emaitza’, *zurtaje* ‘zurtatzearen emaitza’, ‘entarimado’.
- MULTZOA: *lümaje* ‘lumen multzoa’, *taharnataje* (?); ohart azkenak *-t-* duela.
- PROZESUA: *bidaje* ‘bidean izatea’.
- KUALITATE ABSTRAKTUA: *mintzaje* ‘lengoaia, hizkuntza’, *propitaje* ‘nolakotasun’.

²⁵⁹ Frantsesari begirutzen bazaio, *-age* atzizkiak honako balioak ditu, *TLF*-ren arabera (s.v. *-age*):

Avec des bases verbales : Les dérivés expriment l'action; plus rarement le sujet, le moyen, le résultat, le lieu de l'action; *-age* s'accroche le plus souvent à des verbes transitifs de sens concret.

Le dérivé exprime l'action elle-même, par opposition au dérivé en *-ment* qui indique plutôt l'état, le sujet ou l'objet de l'action : *patinage* « opération qui consiste à donner une patine artificielle » ; *adoucissage* « action de polir certains métaux ».

Plus rarement. Le dérivé exprime le sujet ou l'objet de l'action, le lieu de l'action : *embouteillage* « encombrement qui arrête la circulation », *entourage* « personnes ou choses qui entourent », *plombage* « amalgame qui bouche le trou d'une dent », *tapage* « bruit violent ».

Avec des bases nominales : Le suffixe a généralement une valeur collective. Il peut aussi exprimer, quand la base est un substantif désignant une personne, un état, une condition sociale.

Les dérivés en *-age* expriment une idée d'ensemble ou de lieu d'une certaine étendue: *feuillage* « ensemble des feuilles d'un arbre », *vitrage* « ensemble des vitres; châssis garni de vitres servant de cloison, de toit, de paroi ».

[La base est un subst. désignant des pers.] Les dérivés en *-age* expriment une condition sociale ou familiale, parfois un comportement : *apprentissage* « temps de formation d'un apprenti », *compagnonnage* « réunion de gens de métier en difficulté; association », *esclavage* « état, condition d'esclave », *commérage* « propos de commère », *enfantillage* « manière d'agir d'un enfant ».

1.5.3. Zuberoako testuen testigantza

Zuberoan *-aje* akabantza ongi lekukotua da lehenbiziko testuetarik (Etchart eta Tartas; *vid. infra*), baina zehaztapen bat egin beharretan gara. Formak hiru multzotan bana ditzakegu: a) egokitzapenik gabeko maileguak (*sufraje unibersel*); b) mailegu egokituak; eta c) euskal hitzak oin dituzten eratorriak. Bistan da, azken sailean baizik ez dugu *-aje* atzizkia propioki aipatuko. Errana dugu, morfema baten mailegutza hizkuntza emailean morfema hori duten hitzen mailegatzearen ondorioa da. Zuberoako corpusak bere mugak izanik ere, normalki testuen kronologiak hatsarre hori baieztatu beharko luke. Ondoan *-aje* akabantza duten maileguak zerrendatzen dira, frantsesetik nahiz biarnesetikoak izan.

1.5.3.1. *-aje* bukaera duten maileguak

APERENDIZAJE. Cf. fr. *apprentissage* eta biarn. *aprenedissàdje & aprentissàtje* [sic] (Palay). Mailegu honek egokitzapen fonologikoa erakusten du, *muta cum liquida* deseginik. Zuberoan, hura baino lehen *aperendiz* dugu, 1757an: *Jesu Kristen aperendiça* (Mst III 35, 2); cf. biarn. *aprenedis / aprentis* vs. fr. *apprenti* —euskaraz lehen lekukotasuna Leizarragak du ematen (Tim 3, 6)—. XIX. mendean *ap(e)rendizaje* ageri da, Inperioko katiximan bezala (4) *Saturna eta Venus* fartsan ere (5):

- (4) *Dezagun eguin heben aperendizagia / Haren eternitatian maithatceco. (DKhi 4)*
- (5) *Ekarri zizün semia / aprendizajen egiten, / amorekati ikhas zezan mündü / nola popülatzen zen. (Saturna 82)*

ARRABAJE. Cf. fr. *ravage* ‘hondamendia, triskantzaz’; ohart Palayk protesirik gabeko forma ematen duela biarnesez: *rabàdje*. Beraz, memento batetik aitzina grafiek euskararen arau fonologikoen iragazkiaren arabera ahoskera islatzen dute.²⁶⁰

- (6) *Eguin ducq, eguin, ravage (StJul 1240)*
- (7) *Eguinen dugu ravage (Xarlem 747, baina arrabage 262)*

²⁶⁰ OEHK RABAJE sarrera dakar, *Charlemagne* adibide bakanaz hornitua. Uste dugu sarrerak ARRABAJE behar duela izan, testu horretan ere *a-* protetikoa ageri baita: *heben diat ferragus / guerier famatia / Eguinenbeitugu arrabage° / Bi milla Debria* (262). Gehiago dena, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerian protesidun forma baizik ez da ageri (767, 866, 1119, 1165 & 1510).

- (8) *Orai nahi dut eguin, / oh, handi arrabagia! (SteEli 1510; cf. *arrabajatcera* 767)*

BAGAJE. Cf. fr. *bagage*, biarn. *bagàdje*. Zuberoan XIX. mendean lekukotua da:

- (9) *Morouen bagagiaq / eraiqui behar dutugu / hayen mouyanes Eliça / Eraguinen dugu (Xarlem 1185)*

EKIPAJE. Cf. fr. *équipage*, biarn. *equipàdje* ‘eskifaia, marinelaria’. Zuberoan XVII. mendetik lekukotua da:

- (10) *Han utzirik bere ekipajia oro (Tt Arima)*
(11) *Mat eta cordagiac hauxeric, / Equipagia oyhus assi da (UskLi 209)*
(12) *Beste hanitx ekipaje drole / bere bersetekin; / jiant terrible bat ere / izenen da haiekin. (CanBel 15)*

ERITAJE. Cf. fr. *héritage* ‘oinordetza’. *OEH*-k jaso ez duen mailegu hau XIX. mendeko Zuberoan ageri da:

- (13) *Haren familiako eretajia gastaturik (Chaho AztBeg XVI)*
(14) *Ez buruçagui içatez beçala Jaunaren eritagiaren gagnen, bena halaco guisaz içan citaien moudela beçala tropari. (Epit I 5, 3)*

ESKLABAJE. Cf. fr. *esclavage*, biarn. *esclabàdje*. Zuberoan (baina ez handik kanpo) forma hau ongi lekukotua da XVIII. mendetik. Bihoaz hiru etsenplu:

- (15) *Oro esclavagian guira (Othoitce 90)*
(16) *Nouiç biciouen esclabage miserabletic libratu iánen niç? (Mst III 48, 3)*
(17) *Esclavagian beiquirate / bethy moro hoyen (Xarlem 819)*

GAJE. Cf. fr. *gage* eta biarn *gàdje* ‘berme’; “salario, renta; paga, gratificación” (*OEH*). Zuberoatik kanpo soilik Leizarragak erabili du hitz hau.

- (18) *Bekhatiaren gajia (Tt Onsa)*
(19) *gloria eternalaren gage bat (Othoitce 25)*
(20) *Gincoac guganat dian amouriouaren ceinharen segur edo gage oroz balioua. (Ressegue 21-22)*

IMAJE. Forma hau Zuberoan baizik ez da ageri (*OEH* s.v. *imajina*), eta XIX. mendetik aitzina; iduriz lehen agerraldia *Sainte Elisabethen* trajerian datza (21).

- (21) *Maria, habiloua eta / berz bat hour ekhardan, / Jesus Christen image, hoier / çankhouac chaha ditcedan. (SteEli 209)*
(22) *Çouignec creatu beicutuçu çoure imagiala (DKhi 7)*
(23) *Ohora dezagun haren imaje eta mouldia denaz geroz. (Catuchuma 25)*

KARNAJE. Cf. fr. *carnage*, biarn. *carnàdje* ‘hilkintza, sarraski’. *OEH*-k ez du mailegu hau jaso; Zuberoan *Edipa* pastorean baizik ez da ageri:

- (24) *Prince harc bere khorphitçaz / deliberatu diçu segurky / carnage handiric eguiten / bere ezpatareky.* (Edipa 976)
- (25) *Soguin eçaçu arren lehoua, / carnage eguilia, / haur duçula çuc / eguin duçun obragia.* (Edipa 982)

KORAJE. Cf. fr. *courage*, biarn. *couràdje*. Hiz hau ongi errotua da euskara orokorrean, hainbat aldaerarekin; Zuberoan ere:

- (26) *Ohoria, bertutia, korajia.* (Tt Onsa)
- (27) *Corage handireki* (Othoitce 4)
- (28) *Ene aitzinala agertzeko, / badina kurajia?* (Petit Jean 40)
- (29) *Sira consola cite othoy / eta har eçaçu courage* (Edipa 025)

KORDAJE. Cf. fr. *cordage*, biarn *courdàdje* ‘sokateria’. *OEH*-k ez du mailegu hau jaso, eta gure corpusean behin baizik ez da ageri:

- (30) *Mat eta cordagiac hauxic, / Equipagia oyhus assi da* (UskLi 209)

LENGUAJE. Mailegu zahar hau egokitua izan da (*lengoa* > *lengua*), eta bederen Etcharten gutunerian (1616) gaskoiaren *-adje* atzizkiaren ahoskera isla lezake (afrikatu ahostunendako, ikus I, § 2.4.3). Bestalde, hitz honek *mintzaje* hibridoa eragin duke (*vid. infra*).

- (31) *Translataturic francezetic goure lenguogiala.* (Etchart 3-1v)
- (32) *Ouf horen erraitia / cer lengouage da?* (Edipa 058)
- (33) *Cergatic eztucie entçuten ene lengouagia?* (EvS 8, 43)

LIBERTINAJE; cf. fr. *libetinage*, biarn. *libertinàdje*. Mailegu hau Zuberoan baizik ez da lekukotua. *OEH*-k Etchahunen adibide bakarra du, baina gure corpusak 1770ean datatzen du:

- (34) *Livertinagiacc livertinagian gagnen / frekent errendaturicq, / gente gazten haborouacq / guciacq corronpitoricq.* (StJul 283)

MENAJE; cf. fr. *ménage*, eta biarn. *menàdje* “gouvernement domestique” (Palay). *OEH*-k ez du hitz hau jaso, baina Zuberoan XVIII. mendean (35) eta XIX.aren hastapenean (36) lekukotua da:

- (35) *Goure menagia apart / eguiten gunialaricq, / egoiten ni etche batian, / çu, aldiz, bestian.* (StJul 191-192)
- (36) *Ene menajia heben harat / arren, zük egin ezazü.* (Malqu 219)

OBRAJE; cf. fr. *ouvrage* eta biarn. *oubradje*. *OEH*-k Mercyren adibide bakarrean justifikatu du OBRAJE sarrera. Aldiz, Oloroeko katiximaren bigarren bertsoan ageri da, bai eta herri antzertiko testuetan ere:

- (37) *Haren obragia osso eta perfeita cen. (CatOlo2 iv)*
- (38) *Çoure aiticinian nuçu, / madama, tristeriq, / ene obrage eguinaq / oro doluturiq. (Edipa 1028)*
- (39) *Mementian nahi dit / obragia haseraci (SteEli 1032)*

OMAJE. Cf. fr. *hommage*, biarn. *oumàdje*. *OEH*-k *omenaje/omenaia* jaso du, baina ez *omaje*, Zuberoan XVIII. mendearen lehen partetik biziki ongi lekukotua dena:

- (40) *Niçan oroz omage eguiten deiçut (Othoitce 11)*
- (41) *Eretcian igaraitian / oroc omage eguin dicen. (StJul 495)*
- (42) *Ni ere nahi nuçu gin / Eroumara çourequy / aumage Eguitera (Xarlem 1428)*
- (43) *Ene homagiaren / hari errendatcera. (SteEli 1089)*
- (44) *Ene omagia errendatcen deiçut (DKhi 61)*
- (45) *Goure homage eta adorationen errecevitceco. (UskLi 51)*
- (46) *Çoure majestate divinouari çor çaitçon homage eta ouhoure (Medit 167)*
- (47) *Emaiten deiçut ene omagiac, mundiaren buruçaguissa. (HOrdre 71)*

ORAJE. Frantsesaren *orage* ‘ekaitz, erauntsi’ behar du izan, biarnesez ez baitugu atzeman. Beharbada beste erromantzeen datuen faltan gara: *OEH*-k Erronkarin du kokatzen —Azkue aipaturik (s.v. ORAXE)—, eta Tartasen 1666ko liburuan. Gure corpusaren testigantza XIX. mende hastapenera heltzen da.

- (48) *Tenpesta, orajia, odeia, eta lanoa dela kausa (Tt Onsa)*
- (49) *Ala orage handia! / Noula behar dut ezcapy? (StJul 1236)*
- (50) *Ceren trankil beinago / oragia eroriric / ene exayetara oro. (Edipa 809)*
- (51) *Eta orage bat ere houna da! (SteEli 1579)*

PARTAJE. Cf. fr. *partage*, biarn. *partàdje* “partage, distribution de parts” (Palay). *OEH*-k PARTAIA du, “parte que corresponde, lo que corresponde a cada uno”. *Partaje* aldaera lekukotu gabea dateke. Behin ageri da gure corpusean:

- (52) *Khiisti Doctrinaen partajia. (Catuchuma 8)*

PASAJE. Cf. fr. *passage*, biarn. *passàdje*. “La forma *pasaje* aparece en Leizarraga, una carta bajo-navarra del s. XVII, Tartas (también *pasaie*) y los autores meridionales” (*OEH* s.v. *pasaia*). Zuberoan ongi lekukotua da, adiera batean baino gehiagotan, 1616tik.

- (53) *Passadgez, bascaguiez, herioez, duhuru eta aberen hartzez. (Etchart 1-1v)*
- (54) *Irakurtzen diren pasaje sakratiek. (Tt Onsa)*
- (55) *Behar dit behar disposatu / mundiaren kitatcera, / eta passage terrible / ikharagarri hartara. (SteEli 1287)*
- (56) *Jesusen passioneco passageric orhitgarrienac (Khurutch 5)*
- (57) *Bicitce passagezco hau (Medit 61)*

PEADJE. Cf. fr. *péage*, biarn. *peàdje*. Soilik 1616ko gutunetan lekukotu da, ongi lekukotu ere. Erremarka bekio <dg> grafiari, biarnesaren eraginaren salatzaile; bilduma berean *peadgieren* forma ageri da (1-1v).

(58) *By resumen terminoez, peadgiaz, herioez eta berce casu regalez.* (Etchart 8-1r)

PELEGRINAJE. Cf. fr. *pèlerinage*, biarn. *pelerinàdje*. OEH-k Pirinioez hegoaldeko adibide bat edo beste bildu du, bai eta iparraldekorik ere. Gure corpusean bi trajeriatan ageri da. Markatzekoa da -gri- silaba duen aldaera: Palayren hiztegiak *pelegrî* nahiz *pelerî* jaso ditu, baina ez *pelegrinàdje*.

(59) *Nahi nuçu partitu / orai pelegrinagian* (Xarlem 1462)

(60) *Elisabethec St. Jacoba handian / devocione partikular bat beician, / jouaiten duçu guero / Compostelara pelegrinagian* (SteEli 43)

PERSONAJE. Cf. fr. *personnage*, biarn. *personàdje*. Interesgarria da maileguaren egokitzapen fonologikoa: Chahok *presunaje* du, eta *Here-Ordreco escu-libriak persounage*.

(61) *Personaje handirik* (Tt Onsa)

(62) *Presunaje baten izena* (Chaho AztBeg XIII)

(63) *Personage public baten eskuz.* (HOrdre 7)

(64) *Personage considerable çoumbaiten favoretan* (HOrdre 7)

(65) *Persounage photerexu çoumbaitez* (HOrdre 18)

PILAJE. Cf. fr. *pillage*, biarn. *pilhàdje*. OEH-k PILAIA sarrera proposatzen du, -aje aldaerarik jaso gabe. Zuberoan *Charlemagne* trajerian ageri da.

(66) *Noula erouma oro / pillagian dian eçari / Eta qhiristi arraça / diela hil eraçi. “Rome a été mise au pillage”* (Xarlem 1262)

(67) *Pillagia libre eman nahi dut / Ene gente orori* (Xarlem 1222)

PRIMAJE. Frantsesaren *primage* “bonification” ez da ondoko adibideekin ezkontzen, eta Palayk ez dakar. Aldiz, Cassignac-en okzitaniera-frantses hiztegiak PRIMATGE du, “droit d'un parent proche sur une succession”, eta horrelaxe baliatzen du Etchahunek, ‘premugo’ adieraz (68). *Meditacioniac* liburuan ere ageri da (69), antzeko zentzuaz.

(68) *Ene aitak destinatia ükhen nian espusatü./ Erranik nahi zeitadala primajia errendatü.* (Etch “Ahaide delizius huntan”)

(69) *Ez cen Gincoua çoure aita, celia ez-cen çoure primagia.* (Medit 19; ikus, halaber, 20, 23 & 32)

PÜNZE LAJE. Cf. fr. *pucelage*, biarn. *puncelàdje* ‘birjintasun’. Pouvreauren hiztegiak *punzelaia* dakar (*apud OEH*); Zuberoako corpusean behin baizik ez da ageri.

- (70) Pünzelajia emanen deitadazia / zihareki balinbadiüzü? (*Malqu* 329)

RAMAJE. Cf. fr. *ramage* “Chant des petits oiseaux dans les branches” (*TLFi*), biarn. *ramàdje*. Zuberoan Chahok du mailegu hori lekukotzen.

- (71) *Xori dibinuak, presuner poitrina humano hartan, eraiki zin bere ramaje ederra* (Chaho “Barde baten izaitia”, in *AztBeg XVI*)

SALBAJE. Cf. fr. *sauvage*, biarn. *saubàdje*. Mailegu orokortua euskararen. Estonagarri dena, corpusak bakanki lekukotzen du:

- (72) *Animal Salvagia behar çaiçie / houna gitia dolutu.* (*Xarlem* 274)
(73) *Ale, asto abere salbagia, / eztiat hambat hire anxia!* (*SteEli* 1070)

SÜFRAJE. Kasu honetan *sufraje unibersela* sintagma mailegatzen da kolokazio bailitzan.

- (74) *Nurk nahi lekeizie idoki botatzeko photeria, sufraje unibersela?* (Chaho *AztBeg X*)

TAPAJE. Cf. fr. *tapage*, biarn. *tapatjà* ‘tapager’, *tapadje* ‘bruit’.

- (75) *Eginik dira deja / tapaje handirik.* (*CanBel* 128)

TEMOIGNAGE. Mailegu frantsesa, grafia etimologikoaz; cf. biarn. *temoegnàdje* (Palay). Zuberoan *Saint Julien d'Antioche* trajerian baizik ez da ageri.

- (76) Temoignage handy harecq / Marcien etcian eztitu (*StJul* 091)
(77) *Sobera clar dutuçü, Jesus Crist, / temoignage horiq oro.* (*StJul* 1071)

ÛSAJE. Cf. fr. *usage*, biarn. *usàdje*. Zuberoatik kanpo *usaia* aldaera ongi ezaguna da. Gure corpusean *üsaje* ongi ordezkaturia da.

- (78) *Eta baitakizü zer den üsajia zaharra orotan, / alhargünen tratatzia / ahal bezain odretan* (*Malqu* 505)
(79) *Eta plazer duçun / usajia eguin içoçu.* (*SteEli* 210)
(80) *Idequiric hitcez hitz Franciaco Eliça ororen usageco Catichimati.* (*DKhi* 5)
(81) *Comunione saintiaren usajia çoure confessorac erreglaturen diçu.* (*Medit* 11)
(82) *othoitcen algarreki eguïteco usajia establitu* (*HOrdre* 20)

UTRAJE. Cf. fr. *outrage*, biarn. *outradje* ‘laido’.

- (83) *Saldoua, outrage eta / falxu akusacione.* (*SteEli* 724)

ZIRAJE. Cf. fr. *cirage*, biarn. *ciràdje* ‘betún’. *OEH*-k XX. mendeko testu batean erakutsi arren, gure corpusak XIX. mendera igortzen du.

- (84) *Behar ditit ezarri / argitürrik zirajiaz (Pierrot eta Xarrot 175)*
 (85) *Zirajiak ezarten din / gogortürrik larría. (Pierrot eta Xarrot 178)*

1.5.3.2. -aje atzizki eratorlea duten euskal hitzak

Puntu honetan -aje euskal morfema bihurturik duten hitz eratorriak dakartzagu. Ez dira anitz, baina halere orain arte aipatu izan diren bizpahiru formak baino gehiago bai, bederen.²⁶¹ Kasuan kasu iruzkinduko denez, forma hauetako batzuek esplikabide bat baino gehiago onar lezakete.

BEDEZINAJE. Forma honen jatorria biarnes hitz bat izan liteke: *medecinalhe* “les médecins avec un sens désobligeant ; les drogues” (Palay). Interpretazio horrek fonologia du arazo, zeren -alhe & -adje bukaerak aski desberdinak baitira fonologiaren eta hautematearen arabera. Bestenaz *bedezina* ‘botika’ oinak -aje atzizkia hartu duela proposa daiteke; cf. *medezina* eta biarn. *medezina*. Behin baizik ez da ageri:

- (86) *Hire eritarzünaren ezagüzia / etzitan üdüri difizil dela, / dezagiün, aren, egin / mementian bedezinajia. (Chiveroua 25)*

BIDAJE (< *bide* + -aje ← fr. *voyage*, biarn. *biàdje*); “se encuentra en textos suletinos desde mediados del s. XVIII” (OEH s.v. *bidaia*):

- (87) *Bidaje hanitxetan dabiltzanak, bekhandi saintützen dira. (Mst I 23, 4)*
 (88) *Phartitcen nuçu, jauna, / noure bidagian. (StJul 232)*
 (89) *Bena bidage hountan / hire biçia uqhenen diat (Xarlem 527)*
 (90) *Eguinen dit Bertan / Lombardiaraco Bidagia (Xarlem 79)*
 (91) *Eta bidagia eguinic / houna nuçu harçara. (SteEli 549)*

BOTINAJE (< *boti(n)* + -aje) “(Foix), association, syndicat, corporation” (Lhande), “Communauté, association” (Larrasquet). Cf. *boti* “en commun, mélangés” (Larrasquet). Behin ageri da corpusean:

²⁶¹ Dudazko formak kanpoan utziko ditugu. Adibidez, Peillenek *gustagia* ematen du, ‘gusta toki’ erran-nahiaz (-gia atzizki eratorleaz) (1983b: 116), inon aurkitu ez dugun forma. Eguiateguyren eskuizkribua kontsultatu ezinean, gaude balizko *hapax* horrek ez ote duen beste bat estaltzen, *gustajia* transkribatu beharrekoa. Horrela izatekotan, *güsta* + -aje (ala *güst* + -aje?) eratorria genuke, perpausaren zentzuari egokiago gerta lekiokena. Hona pasarteak: *O! zer gustagia jendia eztenian nahi dena: zurezko zankhoari zetazko galtza dü jaunsten, oskia hoiñik eztianari, zilharrezko ebilla ezarten ükharaiari, larrü xuriz eskia ta batere hetarik ithegün lür edo zor zonbait bizkarrian ekharten eztianik* (Egiat I, berezita 14).

- (92) *Ororeki botinajin izateko / enüzü ez hain nahasirik. (Chiveroua 304)*

LÜMAJE (Akitaniako gainerako mintzoetan *plumaia*). *OEH*-ren arabera, mendebaldean ere bada *lumaje*, gaztelaniari hartua (< *plumaje*); izan ere Landucciok *plumaje* dakar. Teorikoki, Zuberoako *lumaje* formak bi azalbide luke: a) mailegu egokitua; cf. fr. *plumage* eta biarn. *plumàdje*; edo b) *liima* + *-aje* eratorria izatea. Testuen kronologia kontuan izanik (1666), lehena hobesten dugu.

- (93) *Bere lumaje ederra gorderik, ihesi doa (Tt Onsa)*

MINTZAJE. Hitz honetan *-aje* atzizkia datza: *mintza* + *-aje*, eta menturaz erromantzeen *lengoage* hitzaren kalkoa da; cf. *mintzaia*. Corpuseko lehen agerraldia 1770ekoa da.

- (94) *Cer guiçon iz hy, Mornet? / Navassiky traidore bat, / edukiten duianaz gueroz / holaco mintçage bat. (StJul 485)*
(95) *Goraki mintzatürrik ere perfeitzionezko lenguagia perfekteki; haurrer sori den gisa batez ardürenik minzo da bere dizipülier, zeren beste mintzagia hazkürri gogorregia beita. (CatS)*
(96) *Holaxet franzes minzagia ikhas ahal dezeten aisago. (Archu “Aitzin-beghi”)*
(97) *Bere aitzindarien minzagia enthelegatzen eztutenak. (Archu “Aitzin-beghi”)*

MINTZARAJE. Ez dakigu forma honen erator oina zehazki zein den. Jada Belapeirek erabiltzen du; *Charlemagne* trajerian ere ageri da:

- (98) *Hitz horic çoin minçaragez erran behar dira? (Bp I 61)*
(99) *çoure minçaragetiç uduri diçu / nouble edo Erregue alhaba çiren (1085).*

ONDO(R)AJE “conséquence” (Gèze); cf. *ondoramen* “resultado, consecuencia” (*OEH*). Dударik gabe forma honetan *-aje* atzizki eratorlea dugu, eta oina seguruenik *ondore* “suite, effet, conséquence” (Lhande), hitz elkarketan eta eratorpenean *ondora* bilakatzen dena (Lhande s.v. *ondore*). *OEH*-k hiru adibide ematen ditu: *Bere bekhatiaren ondoaje desolagarrien ikhusteko (Ip EgErr 351); Izan dütügü bozkatze elibat, salbamentiaren lekhütan ondoaje gaistoena ekharri beitezkie. (ArmUs 1907, 97 apud DRA) & [Kontselleren] haitü horrek, aldi huntan ondoaje handienak ükhenen dütienaz gañen (Eskual 1908-4-3, 4). Gure corpusean Inperioko katiximak lekukotzen du, lau agerraldirekin:*

- (100) *G. Çouin içan dira Adamen bekhatiaren ondoragiac?*
A. Adamen bekhatiac ukhen diçu ondorage malerousic khorpitçaren eta arimaren.
G. Çouin dira Adamen bekhatiaren ondoragiac khorpitçaren errespectura?
A. Hiltcia, eta bicico miseriac oro.

G. Çouin içan dira Adamen bekhatiaren ondoragiac arimaren errespectura?

A. Ignorancia eta concupiscencia. (DKhi 20-21)

PROPITAJE “propiedad” (OEH s.v.). Erromantzeetan ez dugu lexema hau aurkitu, baizik eta fr. *propriété* eta biarn. *proupiétât* (Palay). Beraz, *propiétâ* +-aje bezalako analisisa proposa liteke. Edo beharbada -t- tartekatu da, ondoko bi hitzetan bezala, eta *propi* + *t* + *-aje* gisara analizatu behar da; alta, Larrasquetek epentesi horri ematen dion azalpenak ez du *propitaje* justifikatzen. Nolanahi ere den, corpuseko adibide bakanak Maisterrenak dira:

(101) *bere propitaje houner soric eguitia*. (Mst II 9, 1)

TAHARNATAJE. Larrasquetek hitzaren egitura azaltzen du, baina ez erran-nahia: *taharna* + *t* + *aje*, “suffixe -rie, cf. *zurtaje*”.

ZURTAJE. Larrasquetek ez du sarrera gisara jasotzen, baina *taharnataje* formaren azalpenean *zurtaje* aiapatzen du: “boiserie. Empr. béa. -adge -- -age”; bestalde, *t* eufonikoa markatzen du bi hitz hauetan. Aldiz, gure ustez forma honetan ez dateke *t* eufonikorik, eratorriaren oina *zurta(tii)* aditza bailitzateke, “planchéier, parquetier” (Lhande). Cf. *zuraje* orokorra.

1.6. -dant / -lant atzizkia

1.6.1. Abiaburuak

Inguruko erromantzeek azken buruan -ans, -antis & -ens, -entis latinaren orainaldiko partizipioetarik datozen bukaerak erakusten dituen hitz sail bedera dute: gaztelaniaz -ante & -ente (*viajante, estridente*), frantsesez -ant & -ent (*mutant, président*), eta gaskoiaz ere -ant & -ent (*passejant, pendent*). Aspaldidanik euskarak halako hitzak mailegatu dizkie erromantzei: *abundant(e)*, *ignorant(e)*, *important(e)*, *intelligent(e)*, etab. Mintzo batzuetako hiztunek bukaera horiek berenganatu eta atzizki eratorle bat sortu dute, -dant / -lant gisara aipatuko duguna. Guk dakigula hori bereziki Zuberoan gertatu da, baina, ikusiko denez, atzizkiaren hasikinak Lapurdin edo

Baxenafarroan ere aurki litezke (*bideant* eta *distirant*,²⁶² kasu), bai eta Penintsulan ere (gip. *nazkante*, bizk. *kulpante*).

1.6.2. *-dant* / *-lant* morfemaren ezaugarriak

1.6.2.1. Forma fonologikoa

Haren medioz eratorri diren euskal hitzek hiru alomorfo erakusten dute: [-ANT], [-DANT] eta [-LANT]. Datuak eskas izan arren, badirudi haien artean fonologiaren araberako nolabaiteko banaketarik gertatzen dela: [-LANT] bokalez finitzen diren oinei eranstean zaie, eta [-DANT] *-n* ondoan ageri da. Hori erranik, badirudi Eguiateguyk *-dant* aldaera lehenesten zuela: *kargüdant*, (*h*)*obedant*; fonologiaz nahiz kategoriaz, azken forma hori gainerakoek erakusten dutenaren kontra doa (cf. § 1.6.3.2).

1.6.2.2. Kategoria ezaugarriak

Hitz mailegatuen eta euskararen baitatik eratorri formen arteko kontrasteak agerian utziko duenez (cf. §§ 1.6.3.1 & 1.6.3.2), morfemaren mailegatzean Zuberoako euskarak *-ant* atzizkiak erromantzeetan dituen ezaugarrietarik batzuk baizik ez ditu mantendu. Oroz gainera, zubereraz *-dant* / *-lant* atzizkiak izenak sortzen ditu, eratorpen oinak batez ere izen (*aizina*, *distira*, *kargü*, *ogen*, *pharte*, *tratü*), baina baita aditzak (*trata*) izan daitezkeelarik. Kasu berezi batean izenondo bati erantsi izan da: *hobedant* ‘perfektu’ (§ 1.6.3.2).

1.6.2.3. Balio semantikoa

Segidan ekarriko diren maileguez landara (§ 1.6.3.1), euskararen baitan *-dant* / *-lant* atzizkiak izen bizidunak eratortzen ditu (cf. § 1.6.3.2). Izen horiek bi ñabardura semantikoren arabera multzoka daitezke: a) “X egiten duena (izaten dena)” erran-nahia karreiatzen dutenak —*tratalant* / *tratülant* ‘tratitzen duena, tratuak egiten dituen’,

²⁶² Iparraldean lekukotua, baina Zuberoatik kanpo: “La forma *distiant* se documenta al menos desde principios del s. XVIII; el último ejemplo recogido es de Arbelbide. *Diztiant* en Haraneder y Duhalde. *Distirant* aparece ya a principios del siglo XIX y es la variante más frecuente desde finales del mismo siglo. *Disdirant* se encuentra en los bajo-navarros J. Etchepare (junto a *dixtirant*) y Zubiri; *diztirant* en Mirande” (OEH s.v.).

ogendant ‘ogenak egiten dituen’—; eta b) “X duena” baliokoak —*ogendant* ‘ogen duena’, *phartelant* ‘parte duena’, *kargülant* ‘kargu duena’—.

1.6.3. Zuberoako testuen testigantza

1.6.3.1. -ant bukaera duten maileguak

Ondoan Zuberoako testuetan -ant bukaeradun maileguen zerrenda dakargu. Sobera pisu ez egiteko, lehen agerraldia emanen da, edo gehienez ere gutxi batzuk:

ABONDANT

1734: *abondantki* (*Othoitce* 54)

1814: *abondant* (*UskLi* 127)

1856: *abondantac* (*MaiMarHil* 15)

ALMIRANT(E)

1852: *itxas-armadako Almirantiak*. (Chaho “Herritar ezinago-maitiak”, in *AztBeg* XIII)

XIX. mendea: *Larmirant* (*Recoquillart eta Arieder* fartsako pertsonaia)

ARRANDANT

1676: *arrandantec* (*PrS* 26)

ARROGANT

arrogant (*Edipa* 266), *Pharisian arrogantaren* (*Medit* 126)

BIDEJANT

1666: *bideianta* (*Tt Onsa*)

1734: *bidajantac* (*Othoitce* 54)

1757: *bidejant* (*Mst* II 1, 3)

1860: *bidegeant* (*HOrdre* 11)

1873: *bidegantac* (*Epit* I 2, 11)

BIJILANT

1666: *bijilant* (*Tt Onsa*)

1812: *vigilant izan guitian* (*DKhi* 14)

BRIGANT

1571: *gaichtaguina, briganta* (*Lç*)

1814: *brigand* (*UskLi* 209)

1879: *brigand* (SGrat 10)

BRILLANT

1770: *ekia beno brillantagoricq / ecen haboro arguy.* (StJul 041)

1793: *Ala hiri brillanta / eta trono admiragarria* (Edipa 007)

1814: *Sen Grat goure herriaren argui brillanta* (UskLi 183)

1844: *Çoumbat brillant çoure arima, dohagnez, graciaz oro beztitia, aberastia celuco tresor guciez!* (Medit 20-21)

1860: *Aguer bekiçu Aingurien khorte brillanta* (HOrdre 182)

EMIGRANT

XIX. mende erdia: *emigrant* (Chaho “Herritar ezinago-maitiak”, in *AztBeg* XIII)

ERREPRESENTANT

XIX. mende erdia: *errepresentant* (Chaho, “Herritar ezinago-maitiak”, in *AztBeg* XIII)

FABRIKANT

XIX. mende erdia: *fabrikant* (Chaho, “Barde baten izaitia”, in *AztBeg* XVI)

FRIANT

1672: *Bianda friantek eta mazarno honak* (Tt Arima) “Apetitoso, exquisito” (OEH).

?: *Ah, urdi asekaiz, / friant ejera!* (Pierris 46) “Glotion” (OEH).

GALANT

1666: *galanta, liberala, eta maitagarria* (Tt Onsa)

1770: *behar duçu, arren, ezcontu / presouna galant çounbaiteky.* (StJul 25)

1810: *Polis, heben bi / emazte galant dutuçu* (SteEli 1234)

1810: *soldado galant houra, / Jesus-Christen imagina* (UskLi 210)

GIGANT

1793: *Haur hareq diçu guero / gigant handi bat goituren* (Edipa 039)

1848: *Giant terrible bat* (CanBel 15)

GORMANT

1666: *gormand, eta gulos da animale hura* (Tt Onsa)

1672: *gormant haien ahoetan* (Tt Arima)

1734: *gormanta* (Othoitce 42)

IGNORANT. Leizarragak erabiltzen du. Zuberoan Tartasekin hasten da lekukotzen:

1666: *iñorantiak* (Tt Onsa)

1672: *ignoranten* (Tt Arima)

1873: *ignorant* (Epit I 2, 15)

INPORTANT

1616: *important* (Etchart 1-1v)

INTENDANT

1785: *intendant* (Egiat I 7)

1810: *intendatareki* (SteEli 18; *intendanta* 470)

KOMENDANT

1785: *komendantari* (Egiat I 18)

1793: *comendanta* (Edipa 045, 067, 166...)

KOMEDIANT

1785: *komediant* (Egiat I 21)

KONFIDANT

XIX. mende erdia: *populu konfidantena* (Chaho “Españako berriak”, in *AztBeg* IV).

LOTENANT

1666: *lotenant* (Tt Onsa)

MARXANT

1616: *Guomendatzen derauçut Larrey meçu eta marchand haur.* (Etchart 9-1v)

1770: *Batçu çor eguitez marchantian / creditaren moianez* (StJul 358)

1814: *Etcitala marchantaren flakeciaz edo necessitatiaz prevali gaicen balia dien bano haborouagoren salceco edo gutiagoren erosteco* (UskLi 67)

Astelehenian sorthiak dira / hun marxant izaiteko, / trafikant haundi eta / itxasorat jüaiteko. (Saturna 249)

NEGOZIAN. XIX. mende erdia: *negoziant* (Chaho “Herritar ezinago-maitiak”, in *AztBeg* XIII).

PARROPIANT. Hitz hau ez bide da zubereraren eratorria, mailegua baizik: cf. biarn. *parroupiâ, parrouquiâ* “paroissien” (Palay). Iduri luke zuberotarrek *-t* erantsi diotela.

1860: *exatoki bethatceco parropiant houn baten eguin bidiaç* (HOrdre 16)

XIX. mendea: *parropianter* (Planta eta Eleonora 72)

PASAJANT

1814: *hayen etchia çuçun alhargunsen refugioua prauven ospitalia eta passageanten ostatica.* (UskLi 212-213)

PASANT

1666: *bai marxant pasanta galdurik* (Tt Onsa)

POSTULANT

1860: *Direturrac, meça ondouan, jarriric dagouelaric erranen du postulantari, edo postulanter.* (HOrdre 50; ikus, halaber, 51, 54, 56, 57, 58, 59 & 60)

POXANT / PÜXANT / PUISANT

1666: *gizon poxantbat* (Tt Onsa)

1672: *jende poxant eta aberatz* (Tt Arima)

1757: *Maria Birgina eginago saintaren lagungoua puchanta* (IP 7)

1793: *puissant baten bessoua agieracy nahy dut.* (Edipa 373)

1800: *ginco puissanta* (Xarlem 1237)

1810: *Armada puchant eta handi bat* (SteEli 623)

REPRESIDANT

1810: *argui represidant batez* (SteEli 53) < fr. *resplendissant* ?

SABANT

1666: *Filosofo sabant hark berak dio* (Tt Onsa)

1734: *Escolan savantec deitcen dutie accidentac* (Othoitce 7)

1823: *Pariseko sabantenari* (Etch “Musde Legouve”)

1838: *Savantec eta ignorantec oroc behar ticie han iracourtu bere eguin bidiaç* (Khurutch 6)

SARJANT

1788: *sarganta* (Jouanic Hobe 105-di)

XIX. mende erdia: *Sarjant eta notariak / Oi! arnes nesesariak!* (Etch “Ofizialenak”)

1873: *Sarjantec erran ceren:* (EvS 7, 46)

TRAFIKANT. Ongi datatu gabeko asto laster batean ageri da: *Astelehenian sorthiak dira / hun marxant izaiteko, / trafikant haundi eta / itxasorat jüaiteko.* (Saturna 249)

TRIONFANT

1666: *trionfant* (Tt Onsa)

1734: *trionfant* (Othoitce 91)

1836: *trionfant* (CatS)

1848: *trionfan* (CanBel 131-di)

XALANT²⁶³ ‘maitale, amorante’. XIX. mendean lekukotua da:

Bost urthez presuntegin egon niz inozenki; / Emaztia xalanteki, harez nintzan jelosi.
(Etch “Bi berset dolorusik”)

*Beste elibat ere hanxe / bere xalanten besapetan, / haiek eginen dizie / etxerakuan
hanitz lan. (Boubane 138)*

XARMANT

1734: *Onci hanitz balioua, / Onci oro charmant cirena. (Othoitce 68)*

1770: *Ala memento charmanta / eta memento eztia (StJul 1219)*

1782: *Ainguriac bertaric / Gin ciren celuty, / Gugana eraixiric / Terrible
charmantic. (NLilia 11)*

1810: *Arraro eta charmant duçu, / ah, haren espiritia. (SteEli 89)*

Zerrenda horri *-ant* arrazoi grafikoengatik agertzen duten bestelako hitzik emenda lekiok, adibidez *Arrolant* edo *Boligant* (*Charlemagne* trajeriaren pertsonaiak), beste zenbait forma agian berranalisiagatik gertatu denean: *arribant* ‘arriban’ ← biarn. *arribàn*, fr. *ruban*. Halaber, *bakant/bekant* orokorra aipatu behar da, Etxeparerengandik lekukotua; mailegua izatekotan, erromantzearen *vacant* seinalatu izan da, baina guretzat kontua ez da argia.²⁶⁴ Bestenaz, *tirant* ‘tiranoa’ forma aipa daiteke, bi testutan analogiaz sortutako *-t* hori agertu duena: *Holofernes tirant hari* (Tt Arima) & *tirant batec manha detçan* (Edipa 577).

Halaber, euskal atzizkiaren mailegatzeari edo sorrerari begira, ez genituzke *-ent* bukaera duten maileguak ahaztu beharko, azken buruan *-ant* dutenen etorki bera baitute.

²⁶³ Bada beste *xalant* bat, ontzi mota bat izendatzen duena: *Chalant bat emanen deiçut / houraren igaraiteko* (SteEli 1428); cf. fr. *chaland*, biarn. *chalant*.

²⁶⁴ Lhandek bere buruari fr. *vacant* ala eusk. *bat-kan* ote den galdegiten dio (1926 s.v. *bakhan*). Eguiateguyk *-nt* grafia darabil sistematikoki, bi azalpen posible duena: a) balizko hizkuntza emailearekiko distantzia gutxiago izatea; edo b) *-ant* bukaera duten hitz sailarekiko erakarpina. Hitz hau mailegua bada, orduan Eguiateguyren *bekant* analogikoa litzateke. Zuberoan, besteak beste, Oihenartek *bekan* du (*Pro* 507), Belapeirek *bekhan* (I 19), eta Inchauspek *bekhan* (*Imit* III 7, 3) zein *bakant* (*Dial* 4). 1852koa den *MaiMarHil* liburuan ere *bacant* 21 ageri da.

Halakoak ere ongi lekukotuak dira Zuberoako testuetan; bihoa zerrenda bat, exhaustibo guztiz izan gabe: *absent, adjuent, akzident, arrahent, balient, biolent, desaperent, desobedient, ebident, enüxent, errejent, inozent, inpazient, inpertinent, inpotent, insolent, instrüment, intelijent, konplazent, konsent, lotenent, mesdisent, obedient, pazient, pendent, penitent, plazent, present, president, prüdent, sarjent, sufizient.*²⁶⁵

1.6.3.2. *-dant / -lant* atzizki eratorlea duten euskal hitzak

AIZINANT. Hitz hau Lhandek ematen du, Zuberoan kokaturik: “*aizinant* (S). Oisif, qui a du loisir” (s.v. *aizina*). Ez du agerraldirik gure corpusean.

(H)OBEDANT. Fonologiagatik nahiz oinaren kategoriagatik, forma honek ez ditu besteendako proposa litezkeen erregelak betetzen (cf. §§ 1.6.2.1 & 1.6.2.2). Eguiateguyk *h*-rekin zein gabe erabiltzen du. Oina (*h*)*obe* izenondoa bide da, eta badirudi Eguiateguyren beraren hitz berria dela, beharbada Larramendiren *obetande* ‘perfekzioa’ neologismoari lotua:

1785: *Hüskararen khorpitzä, bere hitzkondiak berhez jarririk ere, elizatekiala gütiago obedant.* (Egiat I “Hitzauria”); *Mintzorik hüskara beno bere hitzen egokian hobedantagorik denik eztela.* Egiat 26.

KARGÜDANT / KARGÜLANT. Hau da, menturaz, *-lant* atzizki eratorlearen bidez eratutako lehen hitza Zuberoan. Haren oina *kargü* izena da, eta bi aldaera aurkitu dugu corpusean: Eguiateguyren *-dant* eta ondokoen *-lant*. Hona testigantza:

1785: kargüdant *diren jenden beharrian* (Egiat I 7); *Hirur kasta ornen dirade, jendien isterbegiaren ausikirik eztienik: kargüdantak, eskelegoan bizi diradianak, ta senhar-emazte gaitzak dütienak.* (Egiat I X; ikus, halaber, I 16 & I 37).

1848: *Hura izanen duk, kargulant guziak heure botzez izendatzen batuk.* (Chaho “Errepublikä zer den”, *Ariel* 1848-6-30).

XIX. mendearen erdia: Kargülant, *nubliak ere, Xahoren kuntre dirade* (Etch “Musde Chaho”); *Üskal-Herriko jentik oro, nahi zütiet othoitü; / Kargülant, nubler ez*

²⁶⁵ *Saint Julien d'Antioche* trajerian *magicient* forma berranalizatua ageri da (748, 942, 1057 & 1213).

rantierer, ezteela behar fidatü. (Etch “Musde Chaho”); Kargülant, nublik dirade, dienak sobera gaje, / Jente xexe miserabilia, aldiz haien phakazale, / Ezpazütiügü sekurs gei; bai bethi izanen ere. (Etch “Musde Chaho”).

1860: Cargulantez. *Superiur, edo Erreglac marcatcen dutin carguietaco häitaturic diratekienec, harturen dutie cargu horic susmessionereki (HOrdre 24).*

1879: *Eta cioyen goratic: certaco kargulantez uzten die afrountu hori Sen Grati eguitera? (SGrat 23)*

OGENDANT. Hau da, menturaz, *-ant* atzizki eratorlearen bidez eratutako lehen hitza Zuberoan; oina *ogen* ‘falta’ izena du. Lehen agerraldia Maisterrek lekukotzen du:

1757: Oguendant *niçanian, eta ahalkeç betheric nagouenian, cer erranen dut? (Mst III 52, 2).*

XIX. mendearen erdia: ogendant *nuzu, othoi ene bekhatiak pharka itzadazu (Chaho AztBeg IV); Musde Harixabalet jaun erretora / Etzünin etzekiten ogendant lioba (Etchahun “Mundian malerusik”).*

1860: *Direturraz eta oguendanten penitenciaz (HOrdre 24).*

PHARTELANT. Maisterren itzulpenean eta hari egotz dakioken pronuan atzeman dugu: phartelant (*IP* 12); *merechimentien ororen phartelant* (*Mst* IV 2, 6). Testu horietarik landara, Zuberoako forma ohikoa PHARTELIANT ‘participant’ da (Gèzeren hiztegian “partisan” adiera ere badu); uste dugu euskararen barneko eratorria dela: biarnesez antz handien duen hitza *partadjànt* da (“partageant, qui a part à un partage”, Palay). Nahiz eta Harrietek *p(h)arteliant* Lapurdin ere kokatu duen, eta Duvoisinek jaso (*OEH* s.v.), hitz hau nagusiki Zuberoko tradizioetik lekukotu da: Belapeire, *Xarlem*, *Mercy*, *CatS* eta *Gure Herria* agerkariko testu bat. Gure corpusak franko lekukotzen du: *PrS* 3; *Bp* I 40, 132 & II 81; *CatOlo* 10, 38 & 39; *Ressegue* 4, *Mercy* 19 & 25; *SteEli* 284; *DKhi* 9, 27 & 28; *UskLi* 13 & 234; *Chaho AztBeg* XIX 19; *CatS*. Bestalde, Iparraldeko tradizioan badira *partale*, printzipioz *-le* atzizkiaren medioz eratorria, eta *partalier/parteliar*; ez bata ez bestea ez dira gure corpusean ageri.

TRATALANT / TRATÜLANT. Erratorri honen oina anbiguo gertatzen da, *tratü* izena zein *trata* aditza izan baitateke, kasuan kasu. Hitza XVIII. mendean datatua izan den *Chiveroua eta Marceline* fartsan ageri da, gehi XIX. mendeko zenbait testutan:

XVIII. mendea: *Jalki tratalanta eta m.* (*Chiveroua* 272); *Enziin diñat kunbersa, / estakiñat gezüra ala egia, / tratalantbat eta Xiberu / bethi hiri etxeka zirela.* (*Chiveroua* 282); *Tratalant batheki bazin / kanberabat afermatiirik* (*Chiveroua* 300).

³¹⁷ Ezaguna da Akitaniako euskalkietan *irakurri* & *irakurtu* aldaerak lehian izan direla. Beraz, *-tze*-dun inperfektiboa normalki *irakhurtü* erabiltzen duten autoreengan aurkitzen da, eta *irakurte* gainerakoetan, azken finean *-te* atzizkiaren nagusigoa ageriago uzten duena. Zuberoako testuetan honakoek ematen dute *irakhurte*: Tt *Arima*, *Othoitce*, *IP*, Mst, Ressegue, Mercy, Egiat, *SteEli*, Chaho, *CatS*, *Khurutch*, *Medit*, *Ip KurBD*, Etch, *MaiMarHil*, *HOrdre* & *SGrat*. Bestenaz, *irakhurtze* ondoko hauek: Tt *Olsa & Arima*, Bp I 123 & II 38, 108 & 119, *CatOlo* 84, *UskLi* 62, 69 & 70, *Khurutch* 7, *Medit* 6, 11 & 197, *HOrdre* 15, Chaho *AztBeg IX*.

(*egari, eragari & itzuri*) *-te* atzizkiaz baizik ez dira lekukotu. Beste hiru aditzetan (*erabili, ekharri & ezarri*) *-tze* atzizkidun formaren lekuko bakarra Chaho da, *AztBeg IX* laburdura daraman testuan.³¹⁸ Halaber, *erakhartze* forma behin baizik ez da ageri, Maisterrengan. Gehiago: *ethortze* bakana Eguateguyk “mailegatu” aditz gisa kontsidera genezake.³¹⁹

Hau erranik, *ebili* edo *igorri* aditzek aiseago eman dukete *-tze* atzizkidun partizipio inperfektiborik. Beraz, erran daiteke Zuberoan [R + *-i*] multzoko aditzek modu naturalean *-te* hartzen dutela inperfektibozko formaren eratzeko, *-tze* aukera ere ezagun gertatuz, bereziki Zuberoatik kanpoko moldeei so egon diren egileen lanetan: Tartas, Oihenart, Eguateguy, Chaho eta Archu, besteak beste (ikus 318. oharra).

4.5.3. *-ki* aditz multzoa

Zuberoan *-te* vs. *-tze* lehiari doakionez, argitu beharreko bigarren puntuak *-ki* multzoko aditzak hunkitzen ditu. Lehen begi kolpean, puntu honetan datuak ñabarragoak dira aitzinekoan baino: aldaerak kontuan izan gabe, gure corpusak *-ki* multzoko hogeitaz aditzetik goiti eman du, haboroenak *-te* zein *-tze* atzizkidun partizipio inperfektiborekin lekukotuak.

56. TAULAK agerraldi guztiak jasotzen ditu, *-te* eta *-tze* formak parez pare erkaturik:

56. TAULA. *-ki* multzoko aditzen partizipio inperfektiboaren formak.

<i>-ki + -te</i>	<i>-ki + -tze</i>
AUSIKITE: O <i>Pro</i> 616. ÜSIKITE: Tt <i>Onsa</i> ; Mst I 20, 7.	AUSIKITZE: Egiat I 20; Archu 11 & 13. ÜSIKITZE: Archu <i>Jenesa</i> 3, 15.
EBAKITE (<i>ez</i>)	EBAKITZE: <i>CatS</i> .
EDEKITE: Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 53, 54. IDEKITE: Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 37; <i>Othoitce</i> 50 & 73; Mst IV 18, 4; <i>Edipa</i> 133; <i>DKhi</i> 6, 38, 43 & 79; <i>CatS</i> , <i>Medit</i> 33.	IDEKITZE: Mst II 2, 2; <i>Khurutch</i> 4; Ip <i>KurBD</i> 30; <i>MaiMarHil</i> 74; <i>EvS</i> 10, 18.

³¹⁸ “Nekazale baten kontseilua Lapurtar laborarier, ofizialer eta langileer” (*Ariel*, 1849-IV-20). Bistan da, idazki horretan Chaho lapurtar laborariei zuzentzen zaie, beren mintzotik arras hurbila den barietate batean. Cf. Caminoren hitzak, Ekialdeko testu zaharrenetan ageri diren *-tze*-dun formen kari: “1651ko pregarrietan eta Oihenarten lanean baliteke Lapurdiko eragina izatea *-tze* horren erantzule, baina ez da ziurta daitekeen gauza” (2008: 134).

³¹⁹ *Ethorri* aditzaren agerpena minimoa da Zuberoan. Soilik Oihenartek (*Pro* 621; *Po* XX), Eguateguyk, Chahok eta Archuk baliatu dute; herri antzerkiko lanetan agerraldi bakarra kausitu dugu, *Españula* deitua den pertsonaia baten ahotan: *Hongi etorri zirastela* (*Chiveroua eta Marceline* 110).

EDÜKITE: Tt <i>Onsa</i> ; <i>PrS</i> 15; Bp I 47, 83, 90, 104 & 109; Bp II 35, 57 & 101; <i>CatOlo</i> 6 & 75; <i>Othoitce</i> 13, 75 & 87; <i>IP</i> 10; Ressegue 19, 23, 28 & 34; <i>StJul</i> 485; Mercy 9; <i>Edipa</i> 856; <i>DKhi</i> 32 & 55; <i>MaiMarHil</i> 41 & 71; <i>Ip Dial</i> 7; <i>HOrdre</i> 3, 6, 194 & 194; <i>CatS</i> .	EDÜKITZE; Tt <i>Onsa</i> ; <i>StJul</i> 407; <i>Xarlem</i> 15, 92, 712, 784; <i>CatS</i> ; <i>Ip Dial</i> 18.
IDUKITE: O <i>Po</i> XVII.	
EGOSKITE: Tt <i>Onsa</i> ; <i>Petit Jean</i> 88.	EGOSKITZE: <i>Archu</i> 7.
EGÜRÜKITE: Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 153; Bp II 90 & 108; <i>CatOlo</i> 50; <i>Othoitce</i> 50, 73, 82 & 86; <i>IP</i> 3; Mst II 12, 4 & IV 11, 3; <i>Edipa</i> 371, 605, 911 & 959; <i>SteEli</i> 1284; <i>UskLi</i> 118; <i>DKhi</i> 45; <i>Medit</i> 222; <i>Myst</i> 20 & 32; <i>CatS</i> ; <i>Petitun</i> 49.	EGÜRÜKITZE: Mst II 1, 7; Ressegue 15; Mercy 18; <i>SteEli</i> 930; <i>CatS</i> ; <i>Khurutch</i> 33; <i>Medit</i> 23, 99, 108 & 136; <i>Epit</i> I 3, 20; III 3, 12; III 3, 13; <i>EvS</i> 5, 3.
ÜGÜRÜKITE: Bp I 48 & 49; Bp II 58, 99, 105 & 125; <i>MaiMarHil</i> 57; <i>HOrdre</i> 201 & 202.	EGÜRIKITZE: <i>StJul</i> 1163; <i>Egiat</i> I 20; <i>CatS</i> . ÜGÜRÜKITZE : <i>Egiat</i> I 15 & 35; <i>Edipa</i> 557; <i>Chaho AztBeg</i> XIV; <i>MaiMarHil</i> 16, 38, 66 & 84; <i>HOrdre</i> 206.
ERABAKITE (<i>ez</i>)	ERABAKITZE: <i>Ip Bula</i> .
ERAIKITE: O <i>Po</i> XIV; Mst IV 13, 2; III 54, 7 & III 57, 3; Ressegue 10, 12 & 15; <i>StJul</i> 827; Mercy 43; <i>CatS</i> ; <i>Chaho AztBeg</i> VII; <i>Medit</i> 212; <i>Archu</i> 41; <i>MaiMarHil</i> 11 & 81; <i>Ip Dial</i> 10 & 22.	ERAIKITZE: Ressegue 15; <i>StJul</i> 1116; <i>Medit</i> 132 ; <i>Epit</i> I 2, 7; <i>EvS</i> 21, 6.
ERETXEKITE: Bp I 55, 66, 75 & 115; II 32; <i>CatOlo</i> 57 & 83; Mst II 10, 3; Ressegue 12; <i>StJul</i> 060, 646; <i>UskLi</i> 94; <i>CatS</i> .	ERETXEKITZE: <i>StJul</i> 684; <i>CatS</i> ; <i>Medit</i> 191; <i>Ip KurBD</i> 5; <i>HOrdre</i> 25.
ETXEKITE: O <i>Pro</i> 53; O <i>Po</i> V; Bp I 23; <i>CatOlo</i> 23, 65, 72 & 103; <i>IP</i> 9 & 12; Mst II 1, 1; II 1, 7; II 2, 2; II 3, 2; II 5, 3; II 11, 3; IV 5, 3; IV 7, 2 & IV 10, 6; <i>StJul</i> 026 & 1134; Mercy 21, 40 & 43; <i>Egiat</i> I 9; <i>Edipa</i> 468, 646, 664 & 711; <i>Xarlem</i> 1231; <i>Malqu</i> 58 & 96; <i>SteEli</i> 1125 & 1154; <i>UskLi</i> 111, 118, 120 & 227; <i>DKhi</i> 52; <i>CatS</i> ; <i>Chaho AztBeg</i> XIII; <i>Medit</i> 30, 156, 162, 175 & 207; <i>Archu</i> 27; <i>CanBel</i> 398; <i>Etch</i> (bi aldiz); <i>MaiMarHil</i> 30 & 66; <i>HOrdre</i> 171, 172 & 203; <i>Myst</i> 126 & 128.	ETXEKITZE: Mst I; <i>StJul</i> 1003; <i>Egiat</i> I 32; <i>Xarlem</i> 749; <i>UskLi</i> 18; <i>CatS</i> ; <i>Medit</i> 75; <i>Chaho AztBeg</i> XIII & XVI; <i>Archu</i> 8; <i>Medit</i> 151 & 196; <i>CanBel</i> 8; <i>MaiMarHil</i> 81, 101 & 129; <i>HOrdre</i> 29; <i>EvS</i> 2, 6; 12, 6; 13, 29; <i>Catuchuma</i> .
HONKITE: O <i>Pro</i> 53; Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 50 & 97; <i>Othoitce</i> 72 & 77.	HONKITZE: [<i>CatOlo</i> 2 v (1746)]; <i>StJul</i> 469; <i>Egiat</i> I 18, 29; <i>UskLi</i> 52; <i>Archu</i> 5.
HUNKITE: Tt <i>Onsa</i> ; <i>Edipa</i> 868 & 937; <i>DKhi</i> 17; <i>Ip KurBD</i> 13; <i>CatS</i> ; <i>Catuchuma</i> 19.	HUNKITZE: Mst I 1, 2; <i>DKhi</i> 35; <i>CatS</i> ; <i>Medit</i> 6, 74, 75, 129 & 196; <i>MaiMarHil</i> 66, 87, 100 & 116; <i>HOrdre</i> 193.

IDOKITE: Etchart 01, 1v; O <i>Po</i> XI; Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 35; Bp II 22, 50, 94 & 134; Mst III 36, 3; <i>Edipa</i> 028 & 374di; <i>UskLi</i> 75 & 226; <i>Malqu</i> 305; <i>CanBel</i> 192; Archu 25 & 45; Ip <i>Dial</i> 9.	IDOKITZE: <i>CatOlo</i> 32 & 60; <i>IP</i> 2; Mst IV 12, 4 & IV 15, 2; Ressegue 14; <i>StJul</i> 717-di; <i>Petit Jean</i> 113; Mercy 8 & 14; <i>UskLi</i> 219 & 233; <i>CatS</i> ; Chaho <i>AztBeg</i> VIII; <i>MaiMarHil</i> 40; <i>EvS</i> 4, 15.
IREKITE: Ressegue 37.	IREKITZE (<i>ez</i>)
JAIKITE: O <i>Pro</i> 520; O <i>Po</i> IV 2 & VI; Tt <i>Onsa</i> ; Bp II 24 & 109 & Mst I 14, 2; Egiat I 11; <i>Edipa</i> 210; <i>HOrdre</i> 203; <i>Catuchuma</i> 13.	JAIKITZE: <i>Xarlem</i> 584; <i>Khurutch</i> 15; Chaho <i>AztBeg</i> III & XVI; <i>Medit</i> 45; <i>Medit</i> 126; <i>EvS</i> 13, 4.
JEIKITE: O <i>Pro</i> 222 & 627; <i>Medit</i> 29; <i>Myst</i> 33.	JEIKITZE: <i>Malqu</i> 255; <i>MaiMarHil</i> 113; Chaho <i>AztBeg</i> XVI.
JALKITE: O <i>Po</i> XVII; Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 72; Mst IV 4, 3 & IV 10, 6; <i>StJul</i> 30; Egiat I 4, 11, 14, 22, 26, 34 & 37; <i>Edipa</i> 045, 202, 222 & 853; <i>Xarlem</i> 9, 71, 266; <i>Khurutch</i> 33; <i>Medit</i> 57 (<i>jelk-</i>); Archu 12 & 13.	JALKITZE: <i>StJul</i> 41, 113, 343, 1039, 1220 & 1223; Egiat I 31; <i>CatS</i> ; <i>Khurutch</i> 13; Chaho <i>AztBeg</i> II & V; Archu 20 & 36; <i>CanBel</i> 502.
ELKHITE: Bp I 144 [<i>h gabe</i>], 61, 72 & II 51; <i>Malqu</i> 305, 353 & 359; <i>DKhi</i> 56; Ip <i>Dial</i> 1, 5, 9, 21, 22 & 23.	ELKHITZE: <i>CatS</i> ; Etch “Sarrantzeko Senthoralak”; Ip <i>Dial</i> 2, 4; <i>MaiMarHil</i> 16 & 105; <i>HOrdre</i> 78; <i>EvS</i> 1, 29; 1, 46 & 10, 28; <i>Catuchuma</i> .
JARRAIKITE: O <i>Po</i> VI & XVII; Tt <i>Onsa</i> ; Bp I 37, 84, 110, 138 & 149; II 4, 37, 39, 40, 49, 57, 60, 79, 89, 119, 126 & 133; <i>CatOlo</i> 38 & 58; <i>Othoitce</i> 104; Mst II 11, 1; II 12, 1; II 12, 15 & IV 5, 3; Ressegue 10; Mercy 39; Egiat I 5, 13, 26 & 31; <i>Edipa</i> 215; <i>Malqu</i> 98; <i>SteEli</i> 75; <i>UskLi</i> 59, 107 & 121; <i>Xarlem</i> 1249; <i>DKhi</i> 6, 45 & 53; <i>CatS</i> ; <i>Medit</i> 139 & 156; Archu 23; <i>MaiMarHil</i> 27, 73, 81, 86 & 94; <i>HOrdre</i> 88 & 173; <i>Myst</i> 43, 99 & 129.	JARRAIKITZE: Mst “Iracourçaliari”; I 1, 1; <i>StJul</i> 187; Mercy 11; <i>CatS</i> ; <i>Khurutch</i> 6; Chaho <i>AztBeg</i> X & XVI; Archu “Aitzin-Beghi”; <i>Medit</i> 10 & 69; Ip <i>KurBD</i> 18; <i>MaiMarHil</i> 83, 86, 87 & 89; <i>Myst</i> 50; <i>Epit</i> II 2, 10; II 2, 12; <i>EvS</i> 1, 38; 6, 2; 8, 12; 10, 27 & 13, 36.
JAUKITE: O <i>Po</i> XV.	JAUKITZE: <i>StJul</i> 354.
ÜRIXKITE “oprimir, aplastar”: Tt <i>Onsa</i> 158.	ÜRISKITZE (<i>ez</i>)
URTIKITE/URTHUKITE: Tt <i>Onsa</i> ; Egiat I 20, 34; Chaho <i>AztBeg</i> XVI.	URTHIKITZE: Egiat I 31 & 37. URTHUKITZE: Egiat I 3, 7, 16, 20; <i>EvS</i> 5, 7. AURDIKITZE: Chaho <i>AztBeg</i> XVI. AURTHIKITZE: Chaho <i>AztBeg</i> XI & XII; Archu 8 & 13.
IRUKITEKO (<i>ez</i>)	IRUKITZEKO (?): Chaho <i>AztBeg</i> IV.

Oro har, iduri luke 56. TAULAKO zerrendako aditz gehienetan *-tze* atzizkia hein batean nahiko berankor izatea. Testu zaharrenetan biga forma baizik ez da ageri: *ediukitze* (1666) eta *idokitze* (1706) bakanak. Egoera XVIII. mendearen bigarren partean hasiko da aldatzen. Zehazkiago,

Maisterrek zedarrri bat markatzen du, ondoko formen lehen agerraldiak berak baititu ematen: *idekitze*, *egürükitze/egürikitze/ügürükitze*, *etxekitze*, *honkitze/hunkitze* & *jarraikitze*. 1758an *eraikitze*, 1770ean *eretxekitze*, *jalkitze* edo *jaukitze* ageriko ziren, eta 1785ean *ausikitze/üsikitze* & *urthikitze/urthukitze* pareak. Azkenik, [-ki + tze] moldeko beste zenbait forma XIX. mendean lekukotzen da lehenbizikoz: *ebakitze*, *erabakitze*, *jaikitze/jeikitze*, *elkhitze* edo *aurthikitze*.

Beraz, erran daiteke Zuberoako testuetan *-kite* eta *-kitze* moldeak ongi lekukotuak direla, bigarrena nabarmen berriagoa delarik, hots, XVII. mendetik aitzina azaleratzen den berrikuntza. Berriago ez ezik, *-kitze* ez da nagusi Zuberoan, salbu XIX. mendearen azken parteko egile batzuegan —hala nola Anna Urruty, sail honetako aditzekin *-tze* atzizkia sistematikoki baliatzen baitu—. Bilakaera hau bat dator Caminok Nafarroa Behereko euskara zaharrarentzat deskribatu duenarekin:

-tu ez den beste partizipio atzizki bat duten aditzek ez dute Nafarroa Behereko euskara zaharrean aditz-izena *-tze* egiten, *-te* baizik; XIX. mendean ematen du nagusitzen dela *-tzen*; Nafarroa Behereko ekialdean, oraino ere bada *-ten* egungo ahozko mintzoan. (2008: 134):

Atal honen hesteko, 57. TAULAK *-te* vs. *-tze* lehia Zuberoan manera orokor batez jasotzen du. Ezkerreko zutabeak kontsonante ozen + *-i* aditz multzoari doazkio, eta eskuinekoak *-ki* multzoari. Bi sailak konparaturik, argi ikusten da azken mendeetan aldaketa bat obratu dela *-ki* bukaerako aditzetan, baina ez hainbeste [R + *-i*] multzoko aditzetan. Haietan *-kitze* segidaren agerpenak joera argia erakusten badu ere, hauetan ez.

57. TAULA. *-te vs -tze* lehia Zuberoan (aditzen kopurua, ez agerraldiena).

	<i>R+TE</i>	<i>R+TZE</i>	<i>KI+TE</i>	<i>KI+TZE</i>
<i>O Pro</i> ca.1600	3	-	4	-
<i>Bela</i> ca.1600	2	-		
<i>Etchart</i> 1616	3	-	1	-
<i>O Po</i> 1657	5	1	8	-
<i>Tt Onsa</i> 1666	6	-	12	1
<i>Tt Arima</i> 1672	7	-		
<i>PSing</i> 1676	2	-	2	-
<i>Bp</i> 1696	7	2	11	-
<i>CatOlo</i> 1706	6	1	5	-
<i>Othoitce</i> 1734	3	-	5	-
<i>Mst</i> 1757	10	2	10	6
<i>IP</i> 1757	4	-	2	1
<i>Ressegue</i> 1758	4	-	5	3
<i>Petit Jean</i> 1769	-	-	1	1
<i>StJul</i> 1770	7	-	5	10
<i>Mercy</i> 1780	4	-	4	3
<i>NLilia</i> 1782	1	1	-	-
<i>Egiat I</i> 1785	8	2	5	6
<i>Bala</i> 1788	2	-	-	-
<i>Jouanic Hobe</i> 1788	1	-	-	-
<i>Edipa</i> 1793	6	-	9	1
<i>Xarlem</i> ca.1800	5	-	3	4
<i>SteEli</i> ca.1810	6	-	3	1
<i>Malqu</i> 1808	3	2	4	1
<i>DKhi</i> 1812	7	-	7	1
<i>Uscara Libria</i> 1814	4	-	5	3
<i>Chaho</i> ca. 1834	9	6	3	8
<i>Petitun</i> 1836	2	-	1	-
<i>CatS</i> ca. 1836	8	1	8	10
<i>Khurutch</i> 1838	5	-	1	5
<i>Medit</i> 1844	7	-	7	7
<i>Ip KurBD</i> 1847	5	-	1	3
<i>CanBel</i> 1848	5	-	2	2
<i>Etchahun</i>	7	-	1	1
<i>Archu Alh</i> 1848	5	3	5	7
<i>MaiMarHil</i> 1852	5	-	5	8
<i>Myst</i> 1856	5	-	4	1
<i>Ip Dial</i> 1857	7	-	4	2
<i>HOrdre</i> 1860	10	1	5	5
<i>Urruty oro</i> 1873	9	1	-	9
<i>SGrat</i> 1879	5	-	-	-
<i>Catuchuma</i> 1899	3	-	2	2

4.6. *-n* saileko aditzak

Azkenik *-n* saileko aditzak azterkatuko ditugu. Bada, multzo honetako aditzek berezitasun interesgarriak dituzte, eta Trasken proposamena (1990) arras iradokigarria izan arren, azaldu gabeko zenbait puntu uzten zuen (cf. Oyharçabal 1998). Ez gara *-n* aditzen historiaurrearen argitzeko maneran; aski bekigu beroien agerpenaren berri ematea, partizipio imperfektiboan ageri den *-i*-ren indarrari arreta eskainiz; gure xedea, beraz, *-ite* & *-te* itxuren kronologiarako datuen ekartzea da. Lafitterentzat *-ite* berrikuntza zatekeen: “Les classiques ne connaissent guère que l’infinitif nominal en *-te* : *egote* ‘rester’ ; *izate* ‘être’ ; actuellement les formes en *-ite* sont devenues courantes : *egoite*, *izaite*” (1944 § 435). Aldiz, Trask 1990 lan garrantzitsuaren ondoren dugun ikuspegia kontrakoa da; bihoaz, horren etsenplutan, Caminoren hitzak, baxenafarrera zaharraz ari dela:

Bukaeran *-n* duten aditzetan, aditz-izenaren egituran *-te*-ren aitzinean *-i* bat ageri da euskara zaharlean, egungo mintzoan Bidasoaldean eta Ipar Euskal Herrian dirauena eta Bizkaiko mendebalean *emoiten* edo *urteiten* bezalakoetan ageri dena. Nafarroa Behereko idazki zaharretan ere halaxe ageri da. (Camino 2008: 124).

Zuberoako euskara zaharraren corpusean *-n* saileko aditzak hogeitatu dira. Bilaketa *-ite* segida agertzen duten formetarik abiatu dugu: *atzamaite*, *edireite* / *idereite*, *egoite*, *ehaite*, *emaite* (*arremaite*), *eramaite*, *eroaite*, *erraite* (*arrerraite*), *etheite*, *igaite*, *iragaite* / *igaraite*, *izaite*, *jasaita*, *jesaite*, *joaite* & *ükhaite* / *ükheite*. Guk dakigula, *-n* saileko ondoko aditzek inon ez dute **-ite* itxurako partizipio imperfektibozko formarik eman: *edan*, *entzun*, *etzan*, *jan* (cf. Oyharçabal 1998 § 17). Bestenaz, zerrendako aditz gehienek partizipio perfektiboek *-an* akabantza dute, salbu *ediren* / *ideren*, *egon* & *ethen*. Bistan da, *ükhen* bigarrenkaria da; bestalde, aparentziaz *-n* sailekoak ez diren —baina etimologikoki badiratekeen— bi aditz emenda genitzake: *ito* (*itoite*) & *jo* (*joite*). Aditz hauen partizipio imperfektiboen formak xerkaturik, bermatzen dugu Zuberoako euskarak, salbuespenak salbuespen, *-ite* itxura atxiki duela garai historikoan zehar.

58. TAULAK *-n* saileko aditz bakoitzaren *-ite* zein *-te* aldaeren agerpena jasotzen du, hedapen handiko formentzat kopuru absolutuetan eta forma minoritarioentzat lekukotasunen zerrendarekin. Lehen begi kolpean *-ite* itxuraren gailentasuna nabarmena da: zerrendako aditzen erdiak ez du *-te* itxurako formarik: *atzaman*, *erhan*, *eroan*, *ethen*, *iragan* / *igaran*, *jasan*, *jesan*, *ükhan* / *ükhen* (gehi *ito*). Bada salbuespen handi bat: *izan*. Aditz honen kasuan egileek oro, testu zaharrenean autoreak barne, *izate* dute ematen. Soilik Tartasen *Onsan* kausitu dugu *izaite* (bi aldiz, vs. 15 *izate*), gehi Eguiateguyren lehen liburukian (7 agerraldi, vs. *izate* 1). Beraz, ondorioztatu behar da behiala *-i*- hori ez zela *izan* aditzean agertzen —beraz, *edan*,

entzun, etzan edo *jan* aditzen parekoa zen—. Kasu horretan *izaitte* berrikuntza bat litzateke, *egoite*, *erraitte*, eta abarrekiko analogiaz sortua.

58. TAULA. *-n* saileko aditzak: *-ite* vs. *-te* lehia Zuberoan (gehi *ito* & *jo*).

<i>-ITE</i>	<i>-TE</i>
ATZAMAITE: 30 agerr. (<i>orokorra</i>)	ATZAMATE (<i>ez</i>)
EDIREITE/IDEREITE: 292 agerr. (<i>orokorra</i>)	EDIRETE/IDERETE: Tt <i>Onsa</i> (vs. 8 <i>edireite</i>); <i>Khurutch</i> 17.
EGOITE: 209 agerr. (<i>orokorra</i>)	EGOTE: Egiat I 22 (vs. 6 <i>egoite</i>); Archu “Uscal Herriari” (vs. 14 <i>egoite</i>).
ERHAITE/EHAITE: 42 agerr. (<i>orokorra</i>)	ERHATE/EHATE (<i>ez</i>)
EMAITE: 946 agerr. (<i>orokorra</i>)	EMATE: Chaho <i>AztBeg</i> (6 <i>emate</i> vs. 24 <i>emaite</i>).
ERAMAITE: 75 agerr. (<i>orokorra</i>)	ERAMATE: Egiat I 14; <i>Edipa</i> 856.
EROAITE: 27 agerr. (<i>orokorra</i>)	EROATE (<i>ez</i>)
ERRAITE: 966 agerr. (<i>orokorra</i>)	ERRATE: O <i>Pro</i> 208 (iruzkinean); <i>CatOlo2</i> 112 (lerroartean, vs. 13 <i>erraitte</i>); Chaho <i>AztBeg</i> XIII (vs. 27 <i>erraitte</i>); <i>CatS</i> (behin); <i>Malqu</i> 173 & 407 (vs. 22 <i>erraitte</i>).
ETHEITE: Chaho <i>AztBeg</i> XVI; <i>Khurutch</i> 31; Ip <i>KurBD</i> 33.	ETHETE (<i>ez</i>)
IGAITE: 40 agerr. (<i>orokorra</i>)	IGATE: Tt <i>Arima</i> (vs. 3 <i>igaite</i> <i>Onsan</i>); <i>CanBel</i> 192 (vs. 2 <i>igaite</i>).
IRAGAITE/IGARAITE: 177 agerr. (<i>orokorr</i>)	IRAGATE/IGARATE/IGARETE (<i>ez</i>)
IZAITE: Tt <i>Onsa</i> (2); Egiat I (7).	IZATE (<i>orokorra</i>)
JASAITE: O <i>Po</i> IV 8.	JASATE (<i>ez</i>)
JESAITE: Chaho <i>AztBeg</i> XIII; <i>Medit</i> 198.	JESATE (<i>ez</i>)
JOAITE: 243 agerr. (<i>orokorra</i>)	JOATE: Tt <i>Onsa</i> (2 vs. 13 <i>joaite</i>).
ÜKHAITE/ÜKHEITE: 403 agerr. (<i>orokorra</i>)	ÜKHATE/ÜKHETE (<i>ez</i>)
ITOITE: O <i>Pro</i> 145; O <i>Po</i> X 19.	ITOTZE: Egiat I 10; Archu 5 & 31.
JOITE: 33 agerr. (<i>orokorra</i>)	JOTZE: Chaho <i>AztBeg</i> VI.

4.7. Ondorioak

Partizipio imperfektiboaz denaz bezainbatean, Zuberoako testuen azterketak, hein handi batean, orain arte genekiena berresten du; ez dugu ustekabe handirik atzeman, ez eta bilakaera markagarrikerik ere.

Mendebaldeko euskararekiko bat etortze suposa lezakeen *-keta* atzizkiaren agerpena marjinala da: Oihenartek forma batean erabili zuen (*pensaketa*) —eta beste batean, lexikalizatua: *elhaketa*—, eta agian interesgarriago dena, *Cabalçar eta bere familia* fartsa xaribarikoak ere *phensaketa* lekukotzen du.

Egorri/igorri aditzak imperfektibozko forma bitxi batekin ageri da: *egorraite/igorraite*. Agerraldi gehienak Eguiateguyrenak izanik, ondoko hainbat testutan aurkitu izanak bermatzen du Zuberoako hizkeretan zuen (duen?) presentzia; *-ite* aditzizenekiko analogiari zor dakiokkeen forma dugu.

Zuberoan *-te* vs. *-tze* lehia batez ere *-ki* bukaerako aditzetan gertatu da. *-tze* atzizkiaren hedakuntzaren lehenbiziko zantzuak XVII. mendean hautematen dira, eta bereziki XVIII. mendearen erditik aitzina lekukotzen da —XIX. mendeko testu zenbaitek *-kitze* itxuraren nagusigoaren erakusgarri dira—. Aldiz, Zuberoan kontsonante ozeneko enborrei *-te* erantsi izan zaie garai historikoan zehar, *R+tze* ere ezaguna izan arren. Oro har, *Rtze* itxuraren agerraldi gehienak —ez guztiak— Lapurdiko tradizioarekiko edota kanpoko euskaldunei so egoteko nolabaiteko grina erakutsi duten autoreenak dira.

Azkenik, *-n* saileko aditzak ikerturik, erran daiteke Zuberoako euskarak *-ite*-dun partizipio imperfektiboak ongi atxiki dituela. Arkaismo honen eremuko beste mintzoetan bezala, *-n* bukaeradun aditz batzuek ez dute *-ite* moldeko imperfektibozko formarik: *edan*, *entzun*, *etzan* edo *jan*. Zuberera historikoaren corpusetik idoki datuen arabera, *izan* aditzaren aditz-izena *izate* da klarki, *izaitte* aldaera analogiaz sortutako berrikuntza izanik. Azpimarkatu behar da *-i* hori ez dela soilik *-n* saileko aditzetan agertzen, *ito* & *jo* pareak ere halako formak baititu.

5. Partizipio prospektiboaren atzizkiak

- 5.1. Sarrera
- 5.2. Partizipio prospektiboaren jatorriaz
- 5.3. *-ko / -(r)en* parearen banaketaz
- 5.4. Partizipio prospektiboaren atzizkiak Zuberoako testuetan
- 5.5. Partizipio prospektibo pleonastikoa
- 5.6. Prospektibo eta destinatiboaren arteko lotura
- 5.7. Ondorioak

5.1. Sarrera

Atal honek euskarak geroaldia adierazteko dituen baliabideetarik bat du ikergai. Mounoleri jarraikiz (2011: 71-77), XV eta XVI. mendeetan baziren egitura analitiko batzuk geroaldiaren adierazteko:

- i) [aditzoin + **edin*, **ezan* + *-te / -ke*] perifrasi, ahaleraren balioa ere bete dezakeena.
- ii) [part. perfektibo + *egin*] perifrasi, mendebaldeko mintzoetan non, geroaldian eta ahaleran, *egin* aditza laguntzaile gisa baliatua baitzen **ezan*-ekiko lehian.
- iii) [part. perfektibo + **-idi-*], euskara zahar orokorrean.
- iv) [aditzoin + **-iro-*], bigarrena ekialde handiko euskalkietan (ikus VI, 4.3.1.4.1).
- v) [part. prospektibo + *izan*, **edun*].
- vi) [part. inperfektibo + *izan*, **edun* + *-te / -ke*].

Perifrasi horiei, adizkera sintetikoak ematen zituen bideak gehitu behar zaizkie, nagusiki *-te / -ke* morfema, ekialdeko mintzoetan iraun duena, baina baita morfema hori gabe modaltasuna bere baitarik adierazten zuten erroen formak (**idi* & **iron*).

Euskara historikoan partizipio prospektiboaren³²⁰ gainean eratzen den perifrasi nagusitu da geroaldiaren forma nagusi bezala. Gure ikerketan lau arrazoiengatik abantailatzen dugu partizipio prospektiboaren azterketa: i) euskalki eta garai guztietan ongi lekukotua delako; ii) geroaldiaren adierazteko espezializatu den forma bakarra delako; iii) maiztasun altueneko

³²⁰ Terminologiari doakionean, *partizipio prospektibo* izendapena *geroaldiko forma* baino nahiago dugu, Traskekin (1995: 219), Hualderekin —honek *future participle* nahiz *prospective participle* baliatzen du (2001: 200)—, Oyharçabalekin (2001: 260) eta Mounolerekin (2011: 74). Euskarak geroaldiaren adierazteko beste moldeak izan dituela kontuan izanik, *geroaldiko forma* bezalako izendapenak arras zehaztugabeak dira; bestalde, *partizipio prospektibo* terminoak egoki islatzen ditu formaren izaera eta jatorria.

hizkuntz ezaugarria delako; baina batez ere iv) ekialdeko mintzoetan aztertzeke dagoen aldakortasuna erakusten duelako eta, gehiago dena, v) prospektiboaren formen arteko lehia benefaktiboaren bilakaerarekiko paraleloan doalako.

5.2. Partizipio prospektiboaren jatorriaz

Partizipio prospektiboa “Was variously formed by adding *-en* or *-ko* to the perfective participle” (Trask 1995: 219). Bi atzizki horiek *-ko* erlazio atzizkia eta *-(r)en* edutezko genitiboaren homofonoak dira, hurrenez hurren. Bi atzizki horietaz, cf. II, § 1.2; genitiboaren atzizkiaren balio destinatiboaz, II, § 1.4.1. Lafonek prospektiboaren bi aukeren berri eman zuen, *bi genitiboetatik* eratorriz, eta haien jatorrizko balio semantikoa proposatuz:

Enfin, on forme le futur des verbes en ajoutant à l'auxiliaire « être » ou « avoir » le définitif en *-en* (gén. indéf.) ou en *-ko* (gén. sg.) de leur participe passé. Les deux formes ont absolument la même valeur. *Jaikiren (jaikiko) da* « il se leverá » a dû signifier primitivement « il est destiné à l'état levé », et *janen dut* « je le mangerai », « je l'ai, destiné a l'état mangé » (1965: 175).

Partizipio prospektiboarekiko perifrasiaren sorreraz denaz bezainbatean, Traskek ez zuen sobera garbi ikusten:

In neither case is the motivation for the formation particularly clear, but it is doubtless significant that the future participle virtually never occurs outside of periphrastic verb-forms (except occasionally in a few early texts), and formations like *joanen naiz* and *ekarriko dut* must have had some significance along the lines of ‘I am of going’ and ‘I have it of bringing’ (Trask 1997: 216).

Mitxelenak euskararen eta erromantzeen —edo hobeki erraiteko Mendebaldeko Europako hizkuntzen— perifrasiarekiko paralelotasunaz jardun zuen, hain zuzen, perfektiboko eta geroaldiko forma perifrastikoei doakienean (1981: 305-306):³²¹

³²¹ Mitxelenak zuhurtziaz jokatu zuen soilik *izan* & **edun* laguntzaileen gaineko perfektibozko perifrasiak aipatzean, zeren bai inperfektibozkoak, bai **edin*, **ezan*, **iron* & *egin* laguntzaileekin eratu perifrasiak erromantze/euskara paralelotasun horri eskapatzen baitzaizkio.

59. TAULA. Aditz perifrasiaren paralelotasunak hiru erdara handiekiko.

	Euskara	Frantsesa	Espaniera	Alemana
'he has come'	<i>etorri da</i>	<i>est venu</i>	<i>ha venido</i>	<i>ist gekommen</i>
'he has done'	<i>egin du</i>	<i>a fait</i>	<i>ha hecho</i>	<i>hat gemacht</i>
'he will come'	<i>joanen (joango) da</i> (cf. Old Sp. <i>es de ir</i>) ³²²	<i>ira</i>	<i>irá (< ir ha)</i>	<i>er wird gehen</i>
'he will do'	<i>eginen (egingo)du</i> (cf. Sp. <i>ha de hacer</i>)	<i>fera</i>	<i>hará</i> (<i>< ha(ce)r ha</i>)	<i>er wird machen</i>

Mitxelena (1981: 305-306)

Partizipio prospektiboaren perifrasiaren jatorri hori, genitibo gisa ulertua, ez ote da egungo *etortzeko naiz* egituraren baliokidea? Hau da, egungo euskaldunek *-ko* destinatibo-prospektiboa aditz-izenari erantzen dioten bezala, Erdi Aroko euskaldunek partizipio perfektiboari erantzen zizkieten *-ko / -(r)en* morfemak, “along the lines of ‘I am of going’ and ‘I have it of bringing’” (Trask, *ibid.*). Hein batean, Eskiula eta Jeruntzeko forma prospektiboaren morfologiak (*juneko, janeko*) ere horretara seinalatzen duke; cf. *infra* Larrasqueten aipua (1939: 28). Menturaz, hori lotzekoa da aditz nagusiaren forma ezberdinek izan duten garaian garaiko nagusitasunarekin, eta haien ustezko sortze ordenarekin ere, noski (Urgell, bekoz beko): 1) lekukotu dezakegun Euskara Arkaikoenean aditzoina bide da formarik erabiliena; 2) tarteko garaia batean partizipioa; eta 3) zenbat eta euskara modernoago, aditz-izena erabiliago.

5.3. *-ko / -(r)en* parearen banaketaz

-ko eta *-(r)en* atzizkien arteko banaketaz denaz bezainbatean, egoera desberdinak kausitzen dira, *-ko*-k mendebaldean duen eksklusibotasunetik *-(r)en*-ek ekialdeko barietate batzuetan agertzen duen nagusigora arte. 60. TAULAK partizipio prospektiboaren banaketa ereduak jasotzen ditu. Funtsez, bizkaiera, arabera eta gipuzkera dudarik gabe I. ereduan sartzeko dira —egun nahiz aldi historikoan—, eta egungo gainerako euskalkiak II. ereduan, III. ean Zuberoako zenbait barietate baizik ez litekeenean sar. Alta, II. eta III. ereduen arteko datuak nahasiago gertatzen dira, batez ere diakronian; hortxe datza, hain zuzen, bi atzizkien banaketaren bilakaeraren esplikatze gakoak.

³²² Euskal Herri penintsularrean *es de ir* bezalakoak ezagunak izan dira. Printzipioz, euskarak eragin interferentzia izan daiteke, baina gatzelaniaren historiaren ikuspegitik, guk dakigula, puntu hori aztertzeke dago.

60. TAULA. Partizipio prospektiboaren atzizkien banaketa ereduak.

	-tu saila	-i saila	-ø saila ³²³	-n saila
I	<i>sortuko</i>	<i>igorriko</i>	<i>gordeko</i>	<i>izango</i>
II	<i>sortuko</i>	<i>igorriko</i>	<i>gordeko</i>	<i>izanen</i>
Mistoa	<i>sortuko / sorturen</i>	<i>igorriko / igorriren</i>	<i>gordeko / gorderen</i>	<i>izanen</i>
III	<i>sortüren</i>	<i>igorriren</i>	<i>gorderen</i>	<i>izanen</i>

Padilla-Moyano 2013a: 342

Beraz, zenbatenaz ekialderago, hainbatenaz argiago da *-(r)en* aukeraren gailentasuna. Halere, baditugu datuak pentsatzeko azken mendeetan *-(r)en*-en nagusigoaren eremua gibelatuz joan dela. Adibidez, Etxeparek behin baizik ez du *-ko* erabiltzen atzizki hau har lezaketen aditz guztien partizipio prospektiboen 30 agerraldien artean: *egarriko* (“Orazione Igandeko”) — gehi *ageriko* (lau aldiz). Leizarragaren jokabidea are adierazgarria da: *-n* sailekoez apart, *Testamentu Berrian* milatik goiti diren partizipio prospektiboetarik bakarra da *-ko* atzizkiaren bidez eratua: *ethorriko*, lau agerraldirekin (*ethorriren* 75 aldiz), gehi *biziko*.³²⁴

Zuberoako euskarari hertsatuz, jada d’Abbadie & Chahok aipatu zuten geroaldiaren joskera: “Le génitif de la déclinaison abstraite prépare ces noms verbaux à la conjugaison du futur: *sathuren niz, salduren dut, eroriren niz, hassiren niz* [...]. Ce génitif peut être universellement remplacé par la terminative *ko*, exprimant appartenance: *sarthuko niz, salduko dut, eroriko niz, hassiko niz*, etc.” (1835: 175); hori estonagarri litzateke, d’Abbadie & Chaho zinez *unibertsalki* ari izan balira, baina ohar batetik inplizituki idokitzen da *-n* saileko aditzak aparte utzi zituztela (“les noms de la première classe”). Inchauspek argiki ezartzen du baxenafarreran bezala zubereraren ere *-n* saileko aditzek ez dutela onartzen “ce second génitif ; [...] ainsi ils ne disent pas : *joánko naiz, edánko dut* ; c’est probablement la rudesse de la consonance qui, dans ces mots, aura proscrit de l’usage ce génitif qui existe pour tous les autres adjectifs

³²³ Hemen, argitasunaren mesedetan, ez dugu sail honetako azpisail bakoitzeko adibiderik eskaintzen, guztiak berdinzki portatzen baitira. Era berean, *-ki-dun* partizipioek bat egiten dute *-i* sailekoekin.

³²⁴ Hona *ethorriko* formaren lau agerraldiak: “Heuscalduney”; Mt 23, 36; Mt 24, 14 & “Materien erideiteco taula, s.v. *fidelac*. Bestenaz, Leizarragak *biziko* erabiltzen du, baina *bizi, erre* edo *busti* bezalako formak aparte sailkatu ditugu, aditz lokuzioetako izen osagai gisara (cf. § 5.4 eta 62. TAULA).

Norbaitek argudia lezake Leizarragak kasik beti *-(r)en* baliatzearen arrazoa haren proiektuaren izaera datzala, Akitaniako euskaldunentzat *koiné* baten kreatori aitzindaria baita. Alta, ez da komeni Leizarragaren euskara (eta, oro har, XVI. mendeko ekialdeko Lapurdikoa) egungo ezaugarri dialektalen mapak gogoan ditugula aztertzea. Bestelako hipotesirik formula daiteke, gure ustez: *-(r)en* aukerak Leizarragaren obran duen gailentasuna atzizki honen behialako hedadura zabalagoak azal lezake eta ez —bederen ez era eskusiboan— egile honen hautu kontzientek. Gutaz denaz bezainbatean, erremarka dezakegu XVIII. mende erdiko ekialdeko Lapurdikoa den *Kadet eta Bettiriño* testuak *-ko* & *-(r)en* aukeren lehia orekatua lekukotzen duela *-ko* onar dezaketena aditz sailetan.

verbaux” (1858: 9, 1. oharra). Gèzek ere zuberotarrentzat ozen ondoan *-ko* atzizkia kakofonikoa litzatekeelako ideia adierazten du: “Tous les participes n’ont pas ces deux génitifs. Ceux qui sont terminés en *n* et *hil*, mourir, etc., n’ont que le génitif possessif. Le génitif relatif serait trop peu euphonique pour un souletin” (1873: 205). Larrasquetek *-en / -ko* banaketaren kari zehaztaper interesgarri bat egiten du:

Dans les régions d’Esquiule et de Géronce éloignées de Barcus on emploie exclusivement les inf. fut. en *ko*, dans les verbes dont l’inf. est terminé par *n* : *jun* : *juneko*; *jan*, *janeko*; - *jin* : *jineko*; - *izan* : *izaneko*, etc. Dans les autres régions, on emploie, en ce même cas, les inf. fut. en *en* : *junen*, *janen*, *izanen*, *igaranen*. Pour les infinitifs d’autres terminaisons, les désinences en *ko* et en *en* sont également usitées, dans chaque région. (1939: 28)

Beraz, Larrasquetek zuberotarraren barneko berezitasun bat markatu zuen, ipar-ekialdeko eremu batean kokatzeko den *-eko* akabantza *-n* saileko aditzen partizipio prospektiboan. Zorigaitzez, ez zuen beste sailetako partizipioen arteko desberdintasunik zehaztu.

5.4. Partizipio prospektiboaren atzizkiak Zuberoako testuetan

Zuberoako testu zaharrenetan *-ko* prospektiboaren markak nolabaiteko agerpena badu ere, hori Oihenarten atsotizetan, Tartasen eta Etcharten testuetan gertatzen da, hots, Zuberoa gainditu behar zuen irakurleko bati zuzentzen zitzaizkion egileen testuetan, gehi mugaz bestaldera idazten zuen Erregeren funtzionario batengan (cf. ATALASEAN, § 3.1.2). Bihoaz etsenplu batzuk: *hautsiko* (O *Pro* 231), *baliatuko* (*ib.* 520); *hartuco* (Etchart 9, 1v), *advertituco* (1, 2r) edo *utzico* (6a, 1r) gehi Tartasen *Onsako* partizipio prospektibo gehienak. Gehiago dena, Tartasen *Ariman* eta Oihenarten poesian ez da *-(r)en* aukeraren aztarnarik —*n* azpisailetik kanpo, bistan denez—. Kasu berezi horiek kendurik, *-ko* lehenbiziz agertzen da Oloroeko katiximaren bigarren bertsioko *mandamentian* (1743), bereziki Laporte idazkariaren sinadura duen paratestuan: *disputatuco* (iv), *gubernatuco* (ix), *hartuco* (viii (2)), *iracourtuco* (viii), *punituco* (viii), *saristatuco* (viii); eta biga aldiz dotrinaren testuan: *coffesatuco* (11) & *heltuco* (46); ohar bedi guztiak direla *-tu* saileko aditzen formak. Ondoren, 1780koa den Mercy artio aitzinatu behar da *-ko*-ren agerpenik aurkitzeko: *assestituco* (33), *hartuco* (21), *haytatuco* (27, 29 & 37), *icentatuco* (21 & 30), *isseyatuco* (30), *visitatuco* (6), baina *assestituren* (35), *harturen* (6, 20, 39, 40 (3)), *haytaturen* (7, 34), *icentaturen* (37, 38), *isseyaturen* (32, 34), *visitaturen* (7, 42 (2)); *erran eracico* (33), *ekharrico* (37), *etchekeico* (30), baina *erran eraciren* (34) edo *etchekeiren* (28). Guztiarekin, erran behar da Mercyk *-(r)en* lehenesten duela *-tu* saileko aditzekin. Kopuruentzat, ikus 61. taula.

XVIII. mendearen azken partetik aitzina han-hemenka ageriko dira *-ko*-dun prospektiboak. Herri tradizioko testuetan —*St Julien* kenduta, corpuseko gainerakoak Iraultza ondokoak dira— *-ko* ager daiteke, betiere *-(r)en* nagusi delarik. Horrela, *Edipa* trajeria lau agerraldi dira vs. 158 *-(r)en* aukerarentzat, eta lauak errima-gunean kokatuak: *comparituko & urratuko* (207), *lotxatuko & erorico* (210). *Sainte Elisabeth* -en *errendatuko* (883), *erreussituko* (634), *esplikatuko* (113), *interresatuco* (1085), *phakatuko* (1053), *trenkatuko* (679), *eraciko* (1387) eta are *edanco* (499) aurkitu ditugu, *-(r)en* atzizkidunak 271 direnean. *Malqu eta Malqulina* astolasterrean *-ko* aukera bat seiko partizipioan ageri da; aldiz, *Saint Julien* trajeria (1770) partizipio prospektibo guztiek *-(r)en* hartzen dute, salbuespenik gabe, eta orobat erran daiteke Etchahunen poesiaz. Beraz, iduri luke trajeria eta astolaster zaharretan *-ko* ezaguna zela, baina anitzez gutxiago baliatua *-(r)en* baino.

Idatzizko tradizio testuetan, oro har, XVIII. mendeko egile gehienek ez badute *-ko* lekukotzen, XIX.ekoetan ez da batere arraro. Nolanahi ere, datuak ñabarragoak dira herri tradizioko testuetan baino: XIX. mendean *Doctrina Khiristia* (1812) eta *Mysterio eta Eguia Guehienez* (1862) liburuetan *-(r)en* eskusiboa bada partizipio prospektiboetan, gainerakoek hein batean edo bestean *-ko* ere baliatzen dute. Gutxienik Archuk, agerraldi bakoitz batekin: *idokiko* (20); gehiago *Uscara Libriak*, *-tu* nahiz *-i & -ki* partizipio guztien laurden batekin. Espero litekeenez, lapurteratik egokituak izan diren lanetan *-ko* ediren daiteke. *Maiatza edo Mariaren Hilabetia* liburuan (1852) hamar agerraldi dira orotara: *agradatuco* (10), *baratuco* (33), *complituco* (66), *goitituco* (88), *iseatuco* (104), *arico* (38), *eçarico* (36, 93) —baina *eraciren* (5)—, *igorrico* (97) & *utcico* (36) vs. *-(r)en* atzizkiaren 76ak. Proportzio bertsua ikusten da *Heren-Ordreco...* lanean: 9 vs. 70. Hortaz, nabarmentzekoak dira zubererazko *Meditacioniac*, non *-ko* sail guztietako partizipioetan gailentzen baitzaio *-(r)en* aukerari: orotara 105 vs. 90 —xehetasunendako, ikus 61. TAULA—. Beste aldetik, *idazle* izateko kontzientzia garbiago zuketan Inchauspe eta Anna Urruty aipatu behar dira: biek *-ko* nahiago dute, atzizki horri %70eko eta %80eko nagusigoa eskainiz, hurrenez hurren.

Atzizki bedera zein partizipio motari eransteaz ari bagara, ez dugu joera argirik atzematzen *-tu* eta *-i & -ki* sailtako partizipioen artean.³²⁵ Oro har, *-ko* baliatzen denean bi multzoetan agertzen da, salbu Oloroeko dotrinaren bigarren bertsioan eta Eguiateguyren lanean: bi testu

³²⁵ Arrazoi praktikoengatik *-i* eta *-ki* saileko aditzak batera tratatu ditugu. Ageri da jatorri diferenteko atzizkiak dituztela, baina partizipio prospektiboari doakionean ber portaera erakusten dute zeren, batetik, beste atzizki bat lotzeko tenorean ez da desberdintasun fonologikorik haien artean eta, bestetik, hiztunek bi sailtakoak hartzen dituztelako euskarazko aditz zaharrentzat, hots, ez mailegatuak.

horietan *-tu* saileko partizipioek baizik ez dute *-ko* onartzen. *Hil* partizipioaz denaz bezainbatean —hots, *l-z* bukatzen den bakarraz—, geroaldiko forma bakarra *hilen* da corpusean zehar: Oih, Tt, *CatOlo*, *Othoitce*, Mst, *NLilia*, Egiat, *Edipa*, *Xarlem*, *SteEli*, *Meditacioniac*, Archu, Etchahun, *MaiMarhHil* eta Urruty. Horretaz landa, eta espero bezala, *-n* saileko aditzen partizipio prospektiboa beti *-en* atzizkiaren bidez eratzen da, corpus osoan salbuespen bakar bat kausitu dugula. Izan ere, herri tradizioko testuetan *-ko* atzizkiaren agerraldiak zenbaitetan estonagarri gerta daitezke, halako egongaitasuna salatuko lukeena: lehen ageri den *edanco* (*SteEli* 499) eta, batez ere, ondoko puntuan iruzkinduko den *eramanenco* forma pleonastikoa (*Xarlem* 1373).

Azken erremarka gisara, *bizi*, *busti* & *erre* moldeko partizipioekin hautematen den joera aipu dugu. Mounolerentzat, halakoak aditz lokuzioen osagai nominalak dira, eta egiazko partizipioetarik apart kontsideratzekoak: “Les dialectes orientaux qui dérivent généralement leur participe prospectif par adjonction du suffixe *-(r)en* au participe passé, ne se servent que de *-ko* lorsque le marqueur de futurité est directement suffixé à l’élément non-verbal de la locution” (2011: 77). Halere, gure corpusetik bestelako ondorioetara bulkatzen duten datuak atera dira: izenki zein aditz forma jokatugabe gisara kontsidera, XIX. mendera arte sail honetako formek *-(r)en* hartzen dute, Oihenart (*ageriko*, *beharko*) eta Tartas (*bicico*, baina *biciren* & *bustiren*) salbuespen. *UskLi*-n *boustico* atzematen da (116 & 122), 1844ko *Meditacioniac* liburuan *erreco* (59) —baina *biciren* (26)—, eta Archurengandik aitzina betiere *biziko*. Menturaz sail honetako geroaldiko formak *-ko* prospektiboaren bilakaera orokorraren isla baizik ez dira.

61. TAULA. *-ko* & *-(r)en* prospektibozko atzizkien lekukotza.

		<i>-tuko</i>	<i>-turen</i>	<i>-iko</i>	<i>-iren</i>
1571	Lç	-	beti	1	beti
~1600	O <i>Pro</i>	1	-	1	1
~1600	Bela	-	-	-	1
~1600	Zalgize	-	-	-	1
1616	Etchart	5	7	1	6
1657	O <i>Po</i>	3	-	6	-
1666	Tt <i>Onsa</i>	70	8	19	3
1672	Tt <i>Arima</i>	26	-	14	-
1676	<i>PSing</i>	-	2	-	1
1696	Bp	-	39	-	36
1706	<i>Catolo</i>	-	11	-	7
1734	<i>Othoitce</i>	-	43	-	11
1746	<i>CatOlo2</i>	9	8	-	6
1757	Mst osoa	-	217	-	113
1757	<i>IP</i>	-	12	-	3
1758	Ressegue	-	46	-	44
1770	<i>StJul</i>	-	125	-	65
1780	Mercy	22	53	14	14
1782	<i>NLilia</i>	-	5	-	2
1785	Egiat I	7	114	-	66
1793	<i>Edipa</i>	3	101	1	57
~1800	<i>Xarlem</i>	16	140	7	61
~1805	<i>SteEli</i>	6	191	1	80
1808	<i>Malqu</i>	6	37	5	30
1812	<i>DKhirist</i>	-	8	-	3
1814	<i>UskLi</i>	23	77	4	15
1838	<i>Khurutch</i>	2	-	-	-
1844	<i>Meditacioniac</i>	76	70	29	20
1847	Ip <i>KurBD</i>	6	2	1	1
19. m.	Etchahun	-	21	1	12
1848	Archu	-	25	1	13
1852	<i>MaiMarHil</i>	5	54	5	22
1857	Ip <i>Dial</i>	7	2	4	1
1860	<i>HOrdre</i>	5	56	4	14
1862	<i>Myst</i>	-	14	-	4
1872	<i>CatS</i>	6	13	4	6
1873	Urruty osoa	60	6	51	4
1879	<i>SGrat</i>	5	4	4	-
1899	<i>Catuchuma</i>	1	-	3	-

62. TAULA. Aditz lokuzioak eta beste: forma prospektiboa.

1571	Lç	<i>bicico</i> (24 aldiz), <i>erreren</i> (5 aldiz)
~1600	O <i>Pro</i>	<i>ageriko</i> (666), <i>beharko</i> (126 & 648)
1657	O <i>Po</i>	
1666	Tt <i>Onsa</i>	<i>erreren</i> , <i>biziren</i> , <i>bustiren</i> , <i>biziko</i>
1672	Tt <i>Arima</i>	<i>biziko</i>
1696	Bp	<i>erreren</i> (114)
1706	<i>Catolo</i>	<i>biciren</i> (106)
1734	<i>Othoitce</i>	<i>erreren</i> (78)
1746	<i>CatOlo2</i>	<i>biciren</i> (105)
1757	Mst osoa	<i>biciren</i> (II 12, 2)
1758	Ressegue	<i>erreren</i> (38)
1770	<i>StJul</i>	<i>erreren</i> (606)
1785	Egiat I	<i>erreren</i> (XVI & XXIV), (<i>arra</i>) <i>biziren</i>
1793	<i>Edipa</i>	<i>erreren</i> (246), <i>biciren</i> (400 & 461)
~1800	<i>Xarlem</i>	<i>erreren</i> (1011), <i>eramanenco</i> (1373)
~1805	<i>SteEli</i>	<i>biciren</i> (433 & 1359), <i>edanco</i> (499)
1808	<i>Malqu</i>	<i>beharco</i> (433)
1812	<i>DKhirist</i>	<i>biciren</i> (29), <i>beharco</i> (66)
1814	<i>UskLi</i>	<i>erreren</i> (236), <i>boustico</i> (2)
1844	<i>Meditacioniac</i>	<i>biciren</i> , <i>beharco</i> , <i>nahico</i> , <i>erreco</i>
19. m.	Etchahun	<i>ihesiren</i> , <i>biziko</i>
1848	Archu	<i>biziko</i>
1860	<i>HOrdre</i>	<i>bicico</i> (3 & 170)
1862	<i>Myst</i>	<i>bicico</i> (124)
1873	Urruty osoa	<i>bicico</i> (7 aldiz), <i>erreco</i> (2 aldiz)

5.5. Partizipio prospektibo pleonastikoa

Jada erran baitugu, inoiz herri antzertiko lanek bestelako testuetan bakanagoak diren formak lekukotzen dituzte. Horrelakoa da zubereraren lehenbiziko partizipio prospektibo pleonastikoaren agerraldia: *pariserat çitit eramanenco* (*Xarlem* 1373). Hemen “On a les deux suffixes du futur successivement. En souletin le fait choque moins, car la chose est régulière dans le parler de Ste Engrâce” (Oyharçabal 1991: 331). Pleonasmu hori ezaguna da Zuberoan —eta kanpoan ere³²⁶—, nonbait Santa Grazi herriaren inguruneetara mugatua, Azkuek

³²⁶ Zuberoatik kanpo izan bide da honen paralelorik. XVI. mende akabantzakoak diren Urtubiako damaren gutunetan *-ko+ren* sekuentzia ageri da: *Oraingo faltak estalikoren ditugu* (13 gutuna) & *Zer ere baita, edukikoren dugu kontu jakitera* (17. gutuna). Harrigarriagoa da Lubietaren eskuizkribuan (Donostia, 1728) ber pleonasmoa atzematea: *Virxinamaren rosarioa beti ezaten badezu, honrra guciac combeni bada ceurecotucoren dituzu* (Lubieta 390 *apud* Mounole 2011: 189). Mounolek Lubietaren gurasoen nafar etorkia seinatzen du *ceuretucoren* horren azaltzeko (*ib.*), eta gure ustez Urtubiako damak *estalikoren* & *edukikoren* emateak ber esplibakidea luke: Urruñan plazatua, haren familiak etorki giputz-nafarra bide zuen. Orpustanen eleetan “la configuration linguistique et dialectale de la correspondance basque de la dame d’Urtubie apparaît au lecteur

markatu zuenez (1925 § 762). Lafonek argi utzi zuen atzizki bikoitzak ez duela besteen berbalioa baizik (1965: 175). Honela deskribatzen du Caminok:

Zuberoan badago aditz nagusiari etorkizuneko bi atzizki lotzeko aukera, baina ez da herrialde guztiko ezaugarria, Xiberuko ekialdekoa baizik; ez da, beraz, zuberera guztiaren berrikuntza: *janenko*, *eramanenko* dakartza Elixagarai ligiarrak (82) eta Santa Grazin ere baliatu da: *jinenko* dakar Maddi Hardoi lekukoak Peilleni kontatu ixtorio batean (1985: 21); euskaltzain honek dakarrenez, Eskiulan eta Santa Grazin baizik erabiltzen ez zen *-renko* aldaera ia galzorian da (1992: 250) eta *emaneko* erakoak, Santa Grazin, Montori-Berorizen, Eskiulan eta ondoko auzoetan daude (262); cf. Etxegorri (2003: 271). Guri Larrainen *emanenko* erakoak Santa Grazikotzat eman dizkigute. Ezaugarria ez da Zuberoa guztikoa. (2009: 111)

Bistan da, halako hiperkarakterizazioak berrikuntzak izaten ohi dira. Beraz, *-(r)enko* oso zahar ez izanik, eta aldi berean eremu urrikoa, nekez atzeman daiteke tesi honen corpusean: *Charlemagne* trajeriakoa da agerraldi bakarra.

5.6. Prospektibo eta benefaktiboaren arteko lotura

Partizipio prospektiboaren atzizki parearen arteko lehia eta, hein batean, banaketa ere, benefaktiboan aztertu dugun bera da. Ikusi denez (II, §§ 1.2 & 1.4.1), *-ko* eta *-(r)en* atzizkien hautua destinazioaren ideian ere agertzen da, eta partikularzki kasu benefaktiboan. Hau da, *-(a)(r)entzat* markaz landara —ezaguna denez, genitiboaren gainean eraikia—, euskalki gehienek *-ko* atzizkitik abiatu aukerak erabiltzen dituzte: mendebaldean *-(a)(r)(en)tzako* & *-(a)(r)endako* eta ekialdean *-(a)(r)endako* & *-(a)(r)entako*; aiantzi gabe benefaktiboazko marken sorrera baino lehenagoko hizkuntza egoeran, genitiboaren markak benefakzioa adierazten zuela bere baitarik, eta horren aztarnak egun ere ez direla guztiz itzali (cf. II, §§ 1.4.1 & 1.4.2).

Azken finean, prospektiboaren eta benefaktiboaren bat etortze morfologikoa, bai eta horren bilakaeran deskriba daitekeen paralelotasuna, bi osagai gramatikalen arteko loturaren seinale dira. Lafonen hitzetan, “Les deux génitifs [...] sont susceptibles de deux emplois principaux: déterminant d'un substantif ; expression de la destination” (1965: 175); *destinazio* ideia horren baitan benefakzioa —malefakzioa ere, nola ez— eta prospekzioa koka ditzakegu. Banaketa dialektalari dagokionez, genitiboaren marka hutsaren balio benefaktiboa luzazkien atxiki

actuel incontestablement mêlée. [...] C'est qu'en phonétique [...], en morphologie, en lexicque, de nombreux traits relèvent du domaine des dialectes hispaniques” (2010: 161).

duten mintzoak, *grosso modo*, *-(r)en* partizipio prospektiboa lekukotzen dutenak dira; hori ez ezik, zenbatenaz *-(r)en* prospektibo gehiago, hainbatenaz genitibo-benefaktibo ohikoago eta berankorrago.

5.7. Ondorioak

Partizipio prospektiboak ekialde handian hartzen ahal dituen bi atzizkiak, *-ko* eta *-(r)en*, banaketa ezagunean agertzen dira, 60. taulak biltzen dituen lau ereduaren arabera. Oro har, zenbatenaz mendebalerago, hainbatenaz *-ko* gehiago, eta *-(r)en* gutxiago. Corpusaren azterketak erakusten du prospektiboaren bi atzizkiak lekukotuak direla Zuberoako testu zaharretan (Etchart, Oihenart eta Tartas) baina, bereziki, XVIII. mendearen azken partetik aitzina *-ko* atzizkiak nolabaiteko hedakuntza izanen duela. Funtsean, bilakaera horretan ez da desberdintasunik *-tu* eta *-i* sailtako partizipioen artean. Bestenaz, dialektologiaren ikuspegitik hain ezaguna den *-(r)enko* forma pleonastikoak agerpen marjinala du corpusean.

Bi hitzez erraiteko, azken mendeetako Zuberoan partizipio prospektiboaren *-(r)en* morfema era eksklusiboan lekukotzen duten testuak gero eta gutxiago dira, itxuraz morfemaren bilakaera errezesiboarengatik. Hizkuntza osoaren ikuspegitik, *-(r)en* aukera ekialderat gibelatuz joan da, han ere indar galtzeko. Azken buruan, *-(r)en* morfemaren erabilpen prospektiboa eta benefaktiboa lotuak dira, bi elementuen joera diakronikoak eta eremuen bat etortzeak erakusten dutenez.

6. Forma kausatiboen bilakaera

- 6.1. Kausazioa
- 6.2. Kausazioa euskaraz
 - 6.2.1. Kausazioaren estrategiak
 - 6.2.2. *-ra-* morfemaz
 - 6.2.3. *Arazi/erazo/erazi* kausatiboez bi hitz
- 6.3. Forma kausatiboak Zuberoako testuetan
 - 6.3.1. *Erazi*
 - 6.3.2. *-ra-* morfemadunak vs. *erazi*, adizka
 - 6.3.3. *-ra-* morfemaren indarraz
 - 6.3.4. *Eragin* kausatiboa
- 6.4. Ondorioak

6.1. Kausazioa ³²⁷

Euskal aditzaren morfologia jokatugabearen gaineko kapituluaren hesteko, atal honetan forma kausatiboak azterkatuko ditugu. Kausatiboarena (*causative*) aditz morfologiari nahiz sintaxiari lotzen zaion kontzeptua da. Traskek (1993 s.v.) honela definitzen du: “A transitive construction, related to a second, simpler, transitive or intransitive construction, from which it differs by the additional presence of an agent NP perceived as the direct instigator of the action expressed in the simpler construction”. Terminoa zentzu hertsiago batean erabil daiteke, hots, kausazioa berez adierazten eta sintaktikoki eragiten duten aditz mota jakin baten izendatzeko —azken hau hizkuntza batzuetan baizik ez da gertatzen—. Wikipediak ondoko definizio zehatza eta laburra proposatzen du: “A valency-increasing operation that indicates that a subject causes someone or something else to do or be something, or causes a change in state of a non-volitional event”. Balentzia gehitze horrek argumentu berri bat sartzen du, euskaraz eragile (EGLU II: 60) deituko duguna (ing. *causer*; fr. *causateur*).

Bussmannek (1996 s.v.) hiru kausatibo mota bereizten ditu ingelesez: morfologikoa (*lay* ‘to make lie’), iragankor/iragangaitz txandakatzea eta balio kausatibo duten laguntzaileak (nagusiki *to make*). Hizkuntza guztiek bideak dituzte kausazioaren adierazteko: forma lexiko

³²⁷ Oyharçabalek *kausazioa* darabil (2002); euskaraz *kausatibotasuna* ere erabili izan da (Martínez Areta 2011). Bestenaz, kausatibo eta faktitiboaren kontzeptuak erlazonaturik daude (Bussman 1996); gehiago dena, zenbait hizkuntzalarik baliokidetzat hartzen dute (Lewandowski 1986).

kausatiboak, baliabide morfologikoak edo sintaxi perifrastikoak. Dixonentzat (2000: 74-75) kausazioaren estrategiak trinkotasun continuum batean koka daitezke, adierazpidearen trinkotasuna eta bere erran-nahi semantikoaren artean loturarik litekeenean.

Kausatibo lexikoak ohikoak dira munduko hizkuntzetan; haietan kausazioaren ideia aditzaren semantikan atzeman daiteke (Payne 1997: 177). Itxuraz, kausatibo lexikoak zein-nahi aditz iragankor bezalakoak dira, baina egiazki aditz iragankorrek ez dute kontra-parte iragangaitzik, eta kausatiboek bai. Bestalde, ohiko aditz iragankorrek gertakizun hutsa adierazten badute, aditz kausatiboek gertakizunaren gauzatzea inplikatuko lukete. Kausazioaren baliabideei doakienean, Dixonek zortzi prozedura deskribatzen ditu munduko hizkuntzetan, 63. TAULAK biltzen duenez:

63. TAULA. Kausazioaren estrategiak munduko hizkuntzetan .

	aditza	forma kausatiboa	hizkuntza
barne aldaketa	<i>tikti</i> ‘be suitable’	<i>táikyti</i> ‘make suitable’	lituaniera
tonu aldaketa	<i>nô</i> ‘be awake’	<i>nô</i> ‘awaken, rouse’	lahu
kontsonantearen indartzea	<i>xarab</i> ‘go bad’	<i>xarrab</i> ‘make go bad, ruin’	Golkoko arabiera
bokalaren luzatzea	<i>mar</i> ‘die’	<i>ma:r</i> ‘kill’	kashmiera
erreduplikazioa	<i>bengok</i> ‘shout’	<i>be-bengok</i> ‘make shout’	javaera
aurrizkia	<i>gəbba</i> ‘enter’	<i>a-gəbba</i> ‘insert’	amharic
atzizkia	<i>-kam-</i> ‘die’	<i>-kam-isa-</i> ‘kill’	k'iche'
ingurizkia (circumfix)	<i>-č'am-</i> ‘eat’	<i>-a-č'm-ev-</i> ‘feed (make eat)’	georgiera

Iturria: Dixon 2000: 34.

Sintaxira pasatuz, kausazioa maiz adierazten da bi aditz predikatu berean agerraraziz; adibidez, inguruko erdaretan bezala munduko hainbat hizkuntzetan ere *egin* aditza gehitzen da.

6.2. Kausazioa euskaraz

6.2.1. Kausazioaren estrategiak


- (241) *Appheçac meçaren erraytian consecracionezco hitzac ahotic iradoki dutian beçaing sarri.* (CatOlo 97)
- (242) *Trompatcen çutu coki horek, / charmatu çutu osoki, / çoure cençu orotaric / çutu iradoki.* (StJul 759)
- (243) *Bestela iradokiren derat / ore korpizetik haxa.* (Chiveroua 398)
- (244) *Aztier cartac idocarazten dutienac erorten dira bekhatu mortalian.* (Medit 190)

6.3.2.24. Iragan / igaran

Igan aditzaren kausatiboa, Zuberoako tradizioan maizago lekukotzen da *igaran/igaren* aldaeretan. Perfektiboaren edo aditzoinaren forman, corpusak 37 aldiz ematen du *igain*, 54 *igan*, 19 *iragan*, 189 *igaran*, 59 *igaren* eta 3 *igaa*n. Ez da *iganerazi* bezalakorik. Maizenik *igaran* kausatiboak ‘pasatu’, ‘zeharkatu’ zentzuak adierazten ditu, baina ‘igan’ adieraz ere ageri da (247):

- (245) *Igaran ladin zubi batetan, eta igaraiten zela zamariç [...]* (Tt Onsa)
- (246) *Hoguei eta bat ourthiac igaran dutienac oro.* (Bp II 42-43)
- (247) *Nola igaan zen zelialat?* (Catuchuma 17)

6.3.2.25. Iraili

Iraili-ren aldaera ekialdean (< **e-ra-dul-i*). Aditz honen adierak ñabarrak dira, baina oro har ‘hacer girar / dar la vuelta’, ‘volcar’ bezalakoak nagusi dira. Zuberoan aditz hau ez da oso ohikoa: orotara lau agerraldi atzeman dugu corpusean:

- (248) *Ez hori bekhatu handi da, guciç gaizki irailteco, iocatceco, eta behar eztirenetaco ichilic hartcen baderie.* (Bp I 99)
- (249) *Nola buhurtu behar çayo nori bere ohoria? - Christi lagunaren contré gaizki erranac ukhatuz, eta hartçaz ihorc dakitçan hontarçun hon ororen irailiz.* (Bp I 102)
- (250) *Cergatic dioyé eliça catholica dela [...]? I. Ceren eta mundu orotan irailiric beytago.* (CatOlo 39)
- (251) *Thüpina hauçerik / aragik irailirik dütüçie.* (Bala 32)

6.3.2.26. Irain / irau

Zerrendan sartu dugu, haren itxura morfologikoak *-ra-* morfema kausatiboa sujeritzen duelako; aldiz, “su *i-* hace altamente improbable que derive de *e-gon*” (FHV 151). Jada Belapeirek *irainerazi* baliatu zuen (255):

- (252) *Zeren, nol' ene maite / Ukeiteak iraite / Baitu, hur' ere agian, / luzean goga daite.* “Car, comme mon amour a de la constance, elle aussi, peut-être, à la longue, se décidera.” (O Po XIII)
- (253) *Bethi irainen dian bicitcia.* (PrS 6)
- (254) *Çortci egun iraiten beitician.* (Bp II 54)
- (255) *Saintutarçunaren espiritiaaren hartan bethi irain eraciç.* (Bp II 79)

- (256) *Apostolien erranec nola bethi iraiten dié?* (Bp II 117)
 (257) *Aliança saintu eta bethi iraing behar dian bat.* (CatOlo 109)
 (258) *Bethi ene biciac behar dia iraing mundu hountan?* (Othoitce 82)
 (259) *Sacrificio bethi iraiten dian bat beçala.* (Mst IV 7, 3)
 (260) *Gloria jagoïty iraingnen dian harez goçatceco gracia.* (Mercy 4)
 (261) *Ireign cicien eguerditaric hirour orenetara drano.* (UskLi 36)
 (262) *Eguiçu irain deçadan, persevera deçadan.* (Medit 152)
 (263) *Bici hounec diraieno.* (HOrdre 81)
 (264) *Uthurri bethi iraingnen dian bat.* (EvS 4, 14)
 (265) *Heien aharrak iraun zien / aste bat oso osua.* (Petitun 33)
 (266) *Ifernia eta Zelia noizbait acabico dira? - Ez, jauna; iraiñen dizie eternitate guzian.* (Catuchuma 60)

6.3.2.27. *Iraizi*

“Rechazar; arrojar, echar”, “jeter, se débarrasser de” (Harriet *apud* OEH). Jadanik XVII. mendean aditz honen erabilera ezohikoa da. Zuberoako testuetan Oihenartek, Belapeirek eta Maisterrek ematen dute (267)-(271) —bai eta Inchauspek, OEH-ren arabera—.

- (267) *Banau er' iraiziko, / Eztut ez gaitzetsiko / Baizik ogen guzia / nihaurtar' egotziko.*
 “Même si elle me repousse, je nela hairai pas, mais je rejeterai toute la faute sur moi.”
 (O Po XIII)
 (268) *Iraiciz gouré artetic bilhaca eta exaigoa guciac.* (Bp II 79)
 (269) *Ceren Deebria eta mundia iraiz baititçakegu, bena ez araguia.* (Bp II 57)
 (270) *Munduco eguitecoac iraiciric.* (Bp I 118)
 (271) *Etciroçut irax.* (Mst III 55, 1)

6.3.2.28. *Irakurri / irakurtü*

Testuetan agertzen denetik, aditz honen erran-nahia egungoa da euskalki guztietan. Ez dakigu “Separar, escogiendo”, “elegir”, “escoger” (Larramendi *apud* OEH) edo “desgranar” (OEH s.v. 3) adierak balizko balio kausatibo zaharretik hurbilago litzkeen; nolnahi ere den, Zuberoan betiere ‘leer / lire’ adieraren pean ageri da (272)-(282). Urrutyk *erakurri* aldaera eman du (280), *irakurri* orokorrarekin batean; guk dakigula, hau litzateke *e-dun* aldaeraren agerraldi bakarra Zuberoan:

- (272) *Ordenança haur goraki iracourtren die.* (Bp I 26)
 (273) *Libru gaitzto ez gaizto içaten ahal direnac eztutugu behar iracourtu.* (CatOlo 40)
 (274) *Ororen iracour eta chehe ikher oundouan.* (Mst II 12, 15)
 (275) *Iracourten dakienac ariren dira çombaït liburu devocionezcoren iracourten.* (Ressegue 22)
 (276) *Oro nahy dutut / bertan iracourry.* (StJul 421)
 (277) *Statutac edo maniac iracourriric, arra-iracourriric eta examinaturic.* (Mercy 43)
 (278) *Jstoria çaharretan / uqhen dit Jracourtu / Emastetan bacochaq / Eztiela behar fidatu.* (Xarlem 728)
 (279) *Letera har Don Pedroc eta irakourten has.* (SteEli 814di)
 (280) *Hanitx Judioc eracourri cien izkiribu houra.* (EvS 19, 20)

- (281) *Amens iracourt eçaçu haren passionia Meçaco exerciciouan. (UskLi 68)*
 (282) *Ikhassico duc iracourten izkiribatcen eta orano haboro ere. (SGrat 4)*

6.3.2.29. Iratzarri

Aditz honen erran-nahia “despertar(se) (sentidos prop. y fig.)” (*OEH* s.v.) adierari hertsatzen zaio (Larramendik “excitar” ere esleitzen dio, *apud OEH*). Zuberoan aldi historikoan zehar aurkitzen da, baina ez da haren oinaren herexarik. Gure corpusak ez du *-tu* morfemadun aldaeraren agerraldirik lekukotzen, baina bai *e-* hastapenean (284). Anna Urrutyk *erazi*-rekin ematen du (294)-(295); dena den, (296)-ko adibidean, kausatibo gisara uler daitekeen arren, *erazi* gabe baliatzen du:

- (283) *Domingo, egik emazte, atzi lo, berak iratzar iro. (O Pro 119 & Saug 158)*
 (284) *Bana zuk nahi baduzu sarri / Harzara piztu et'eratzarri. (O Po 5)*
 (285) *Edireiten bagutu hil orenian iratçarriric eta tortcho piztia eskian. (Bp I 141)*
 (286) *Iratçarry den beçen sarri ceinhatu behar du. (CatOlo 1)*
 (287) *Julien jaiky iratçarriricq. (StJul 67di)*
 (288) *Hagn iratçarri elhe-çahar erraiten çaitçuner behatceco. (Mst IV 7, 2)*
 (289) *Edo lô bahis aldis / iraçar ady berhala. (Xarlem 509)*
 (290) *Çaude iratçarriric ene sokhorritceco. (UskLi 121)*
 (291) *Don Pedro iratçar eta mintça. (SteEli 528di)*
 (292) *Iratçarri beçain sarri Gincouari bihotça eraic eçoçu. (Medit 8)*
 (293) *Iratçar adi, ene arima, iratçar, eta gogoua emac hire salbamentiari. (Myst 20)*
 (294) *Bena uduri çait [...] justo dela iratçaraz citcedan. (Epit II 1, 13)*
 (295) *Iseiatcen niz ene abisez iratçaraztera cieç dutucien sendimentu chahiac. (Epit III 3, 1)*
 (296) *Lazare goure adiskidia lo da, bena banoua iratçartcera. (EvS 11, 11)*

6.3.3. -ra- morfemaren indarraz

Oro har, kausatibo morfologikoek lexikalizaziorako joera nabarmena dute, eta emankortasun urria (Comrie 1985; Aldai 2012). Gertatzen da, bestalde, haien erran-nahia idiosinkrasikoa eta ezin aurreikusizkoa izan daitekeela, oin aditzarekiko lotura semantikorik gabea ere: *entzun* oinetik abiatutik, *erantzun* aditzaren ‘ihardetsi’ erran-nahiaren motibazioa ez da begien bistakoa, eta orobat gertatzen da *iradoki* ‘sujeritu’ edo *erabaki* ‘decidir / décider’ aditzekin.

El morfema *-ra-* presente en algunos verbos patrimoniales del vascuence, aunque probablemente fuera un causativo productivo en su origen, con el tiempo perdió productividad y se lexicalizó, evolucionando hacia un afijo derivativo que tomó distintos significados, sólo en parte predecibles. (Aldai 2012: 111)

Aurkeztu diren datuetarik ikuspegi orokorrago eskaintzeko 67. TAULA adalatu dugu, *-ra-*dun azterkatu 27 aditzen balioak mendeka bilduz. Forma kausatibo zaharren indarra, lexikalizazioa eta galeraren —hala *-ra-* gabeko pareak nola *erazi* aditzak ordezkaturik— kronologia ez da bat eta bera kasu guztietan. Mendekako konparantzak dakarren sinplifikazio

arbitrarioa onarturik, abiapuntua (XVII. mendea) eta helmuga (XIX. mendea) bederen erka ditzakegu. Lehen begi kolpean balio kausatiboa erakusten duten aditzen multzoa nabarmen beheititu da: XVII. mendean dozena bat izatetik, XIX. mendean erdiak baizik ez du bere balio zaharra atxiki, eta maiz bestelako erran-nahiekin partekaturik, edota kamustura salatzen duten forma pleonastikoekin, edo are *-ra-* gabeko kausatibo berriekin. Beste batek balio kausatiboa galdu du (*erantzun*), eta azkenik besteak desagertu dira (**eraidi*, *erazagütü*, *eratzan*). Ifrentzuan, 1860an *eragari* kausatibo gardena atzeman dugu, beste inon lekukotu gabea. Bestalde, markatzekoa da **e-* aurrizki zaharraren forma mantendu duten aditzen eta hastapeneko *i-* garatu dutenen arteko diferentzia: azkenak jada XVII. menderako lexikalizatuak agertzen zaizkigu, *iradoki* salbuespen.

Ondorio gisara, Zuberoako datuek aitzinetik imajina genezakeena edo euskara osoarentzat postula litekeena berresten dute: *-ra-* morfemaren balio kausatiboaren indarra galduz joan da azken mendeetan. Hori erranik, atal honetan azaldutakoa ekialdeko euskararen izaera gordetzailiaz mintzo da, *-ra-* morfema kausatiboari doakionean: batetik, Zuberoan aditz zahar batzuek berant arte atxiki dute beren balio kausatiboa; bestetik, zenbait aditz balio kausatiboz baizik ez da lekukotu (*eraitsi*, *iradoki*). Laburbilduz, *-ra-* kausatiboak menturaz beste inon baino iraunkorrago portatu dira Zuberoan, haien lexikalizazioa eta desagerpena igar badaitezke ere, bidearen akabantzan.

67. TAULA. *-ra-* morfema kausatiboaren indarra Zuberoan.

	XVII. m.	XVIII. m.	XIX. m.
<i>erabaki</i>	-	LEX	-
<i>erabili</i>	KAUS	KAUS, PLE	KAUS, OIN
<i>eragari</i>	-	-	KAUS
<i>eragin</i>	KAUS	KAUS, LEX	KAUS, LEX, PLE, OIN
<i>eragotxi</i>	KAUS	-	-
<i>*eraidi</i>	KAUS	-	-
<i>eraiki</i>	KAUS	KAUS, LEX	KAUS, LEX, OIN
<i>eraitsi</i>	KAUS	KAUS	KAUS
<i>*erahatzi</i>	KAUS	-	-
<i>erakharri</i>	KAUS	KAUS	KAUS, OIN
<i>erakhatsi</i>	LEX	LEX	LEX
<i>erakhutsi</i>	LEX	LEX	LEX
<i>eraman / eroan</i>	LEX	LEX	LEX
<i>erantzun</i>	(KAUS), LEX, PLE	(KAUS), LEX, OIN	LEX, OIN
<i>erasi</i>	LEX	-	-
<i>eratxeki</i>	-	KAUS	KAUS
<i>eratzan</i>	KAUS	-	-
<i>erauntsi</i>	LEX	LEX	LEX
<i>erauzi</i>	-	KAUS, OIN	LEX, OIN
<i>erazagütü</i>	KAUS	OIN	OIN
<i>*erazan</i>	KAUS	-	-
<i>irabazi</i>	LEX	LEX	LEX
<i>iradoki</i>	-	KAUS	KAUS
<i>iragan</i>	LEX	LEX	LEX
<i>iraili</i>	LEX	LEX	-
<i>irain</i>	LEX	LEX	LEX
<i>iraizi</i>	LEX	LEX	-
<i>irakurri</i>	LEX	LEX	LEX
<i>iratzarri</i>	LEX	LEX	LEX

KAUS = balio kausatiboa atxiki; LEX = lexikalizatua; PLE = + erazi; OIN = oin aditza + erazi

6.3.4. *Eragin* kausatiboa, Zuberoan ere

Testu bakar batean bada ere, Zuberoan eragin aditza laguntzaile kausatibo gisara ageri zaigu. Ez gara aditz horren jatorrizko balio kausatiboaz, ‘eginarazi’ adieraz ari, eragin aditz arazle gisa erabiltzeaz baizik, erazi erabiltzen den ber maneran (297)-(298).

(297) *Eta erreguigna beita rolatcen / haborouena Don Pedrokeki, / behar derot sinhex eraguin / adiskide diala hareki. (SteEli 399)*

- (298) *Pôt behar diagu / arren eguin algarri, / baketu guiradiala / sinhex eraguiteko hobeki.*
(*SteEli* 1068)

Datu honek munta handia du, ezen eragin kausatiboaren eremu orain arte pentsatzen genuenetik kanpo, urrun ageri baita. Orain arte Araban (Lazarraga), Bizkaian, aski gutxiago Gipuzkoan, eta Lapurdin (bederen Urterengan) lekukotua bazen,³³² non eta Eskiulan datatua den *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeria (ca. 1810) aurkitu dugu. Beraz, Zuberoan eragin mendebaldean bezala eraziren baliokide lekukotua izateak noizbait euskararen ezaugarri orokorra izan delako hipotesia azkartzen du. Halere, ez dezakegu ahanzt lekukotasun bakarreko agerpena dela, gainerako guztietan *sinhetsi* aditzaren forma kausatiboa *sinhetserazi* delarik (299)-(304), *Sainte Elisabeth* trajeria bertan ere (303):

- (299) *Gincoac emaiten dericun dohain bat, çogñec sinhex eraciten baiterizcu ossoki, Gincoac bere Eliçari erran, deritçonac oro.* (Bp I 48)
 (300) *Beré erranac sinhex eraciten, espiritia gogor eztiener.* (Bp II 119)
 (301) *Hire gueçur maradicatiaq / eztutuq eny sinhex eraciren.* (*StJul* 981)
 (302) *Zük eni gezür bat / sinhex erazirik ere, / etziniro ez egin / balentriarik batere.* (*Malqu* 152)
 (303) *Erreguigna erreguec / amourekati galeraz leçan / Don Pedroreki adiskide ciala / erregueri sinhex eraci cian.* (*SteEli* 16)
 (304) *Bena ezpeitcen ehi horren Sinhexeraztia hanco genter...* (*SGrat* 12)

6.4. Ondorioak

Euskararen kausazioaren bilakaera orokorrean, *-ra-*dun forma zaharrak *erazi/erazo* dutenen alde ihartu dira. Zuberoako testuen azterketak joera orokor hori berresten du: a) *-ra-* ihartua ageri da garai historikoan, haren lekukotza eta indarra beheitituz; b) lehen testuetarik *erazi* izan da kausazioaren bide emankor bakarra; eta c) azken mendeetan *erazi*-k kausatibo zaharrak ordezkatu ditu. Prozesua ez baita uniforme izan, lexikalizazio horren kronologia adizka ikertu dugu. Zuberoan *-ra-* morfema duten pare bat dozena aditzen azterketak Aldairen hipotesiak bermatzen ditu. Hori erranik, Zuberoko euskara bereziki gordetzaille iruditzen zaigu kausazioari dagokionean:

- *-ra-* morfemadun aditz batzuek berant arte atxiki dute beren balio zaharra: *eragin* ‘faire faire’, *iradoki* ‘faire sortir’, *eraitsi* ‘faire descendre’ edo *eraiki* ‘lever’ aise aurkitzen dira XIX. mendean.

³³² “Documentado desde Lazarraga (en la forma conjugada *lerait*), es de uso general en la tradición vizcaína desde mediados del s. XVII; tbn. aparece (en mucho menor medida) en autores guipuzcoanos y en el labortano Urte. En la tradición vizcaína se coloca tras participio y detrás de radical en Urte; en algunos autores guipuzcoanos alternan ambas construcciones.” (*OEH* s.v.)

- *-ra-* morfemaren balio kausatiboa lausotzearen ondoriozko forma pleonastikoak beste mintzoetan baino berankorragoak dira Zuberoan. Lehenbizikoak Maisterrenak izan arren, gehienak XIX. mendekoak dira: *eraguin eraci* (*UskLi* 103), *erakharacico* (*Epit* II 2, 1) edo *iratçaraztera* (*Epit* III 3, 1).
- Zuberoan *eragin* lekukotu dugu beste aditz baten forma kausatiboaren eratzeko: *sinhets eragiteko* (*SteEli* 399, ca. 1810), arkaismo handi dena. Ustekabeko datu honek *eragin* kausatiboaren orokortasunaren postulatzeko bide ematen digu: mendebaldetik kanpo Urterengan atzemaña bazen, orain Biarnoko Eskiulan ere lekukotua da.

V. KAPITULUA

ADITZ SISTEMA: FORMA JOKATUAK

1. Laguntzaile ditransitiboak: *-i(n)* & **eradun*
2. Datibo morfemaren pleonasmoa
3. Joskera sintetikoaren bilakaera Zuberoan

1. Laguntzaile ditransitiboak: *-i(n)* & **eradun*

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Zuberoako testuen lekukotza
 - 1.2.1. **Eradun*-en higadura fonologikoa
 - 1.2.1.1. Lehen itxura: *-erau-*
 - 1.2.1.2. Bigarren itxura: *-erai-*
 - 1.2.1.3. Hirugarren itxura: *-erei-*
 - 1.2.1.4. Laugarren itxura: *-eri-*
 - 1.2.1.5. Bosgarren itxura: *-ei-*
 - 1.2.2. **Eradun*-en formen bilakabideaz
 - 1.2.3. Konparantza sistematiko bat: batuaren *diot* forma
 - 1.2.4. *-i-* erroa
 - 1.2.5. *Eman* aditzaren suplezioa: *-i(n)-* vs. **eradun*
- 1.3. Erroen jokia Zuberoan ikuspegi diakroniko orokorretik
- 1.4. Ondorioak

1.1. Sarrera

Ekialdean aditz ditransitiboek hiru laguntzaile har ditzakete: **eradun*, **ezan* & **iron*. Azken biak *irrealis* moduetan erabiliak dira, eta lehena *realis* direlakoetan, hots, komunzki *indikatio* deitzen dugunaren balioetan. Hiru aditz laguntzaile horietarik, hemen **eradun* azterkatuko dugu. Hain zuzen ere, lehenik **eradun* aditzak Zuberoan jasan duen higadura fonologikoaren ondoriozko emaitzak deskribatuko ditugu (§ 1.2.1), datu horiei ordena ematen ahaleginduz (§ 1.2.2); bigarrenik, eta garrantzitsuago dena, Zuberoan NNN sailean *-i(n)-* erroaren agerpenik ote den argituko dugu (§ 1.2.4), ahantzi gabe erro hori eta **eradun* ere *eman* aditzaren suplezioan baliatu izan direla (§ 1.2.5); azkenik, datuek horretarako bide eman dezaketen heinean, **eradun* & *-i(n)-* parearen arteko lehia deskribatuko dugu, Zuberoako datuetarik idoki daitezkeen ondorioak euskara osoaren iraganarentzat baliatuz (§ 1.3).

1.2. Zuberoako testuen lekukotza

Errana dugu, Zuberoan **eradun* da joko hirupertsonaleko aditz laguntzailea *realis* moduetan, baina baita *irrealis*-etan ere: balio modalak konferitzen dizkieten *-ke-* morfema edo *ahal/ezin* partikulekin, edo subjuntibo “zahar” gisara erabilia denean. **Eradun* aditzaren etimologiak gardena dirudi: **edun*-en forma kausatiboa, aitzineuskararen *-ra-* artizkiaren medioz eratorria. **Eradun* laguntzailearen eremua kasik orokorra izan da, Bizkaian baizik ez baita ezezagun (Lakarra 2011a: 198; Mounole 2015; Reguero 2015).

Zuberoako euskara historikoan **eradun* aditzaren formek itxura propioa hartu dute. Testuetan *diot* bezalakoak ere lekukotuak dira; aldiz, halako formen gibelean **eradun* ala *-i-* erroa ote datzan ebaztea ez da hain simple. Testuen kronologiaren eta datuen datazioaren abstrakzioa eginez —beraz *a priori*—, bi esplikazio dira posible: 1) *dereiot* > *deiot* > *diot* zein 2) **diot* > *diot*. Lehenengo azalpenean **eradun* litzateke Zuberoako NNN saileko molde guztien sorburua: *dereiot* > 1) *derot*; 2) *deiot*; eta 3) *diot*. Bigarren azalpenean, Euskara Batu Zaharretik iritsitako bi erroren erabilpena genuke Zuberoan: **eradun* zein *-i-*. Hortaz, aferaren argiztetik idoki litezkeen ondorioek interesa dukete ez soilik ekialdeko euskararen bilakeraren ulertzeko, baizik eta hizkuntza osoaren historiaurrearen berreraiketarentzat ere (cf. 1.3).

1.2.1. **Eradun-en higadura fonologikoa*

Las raíces verbales han debido sufrir reducciones mucho más fuertes que los nombres, sin duda ante todo en el verbo finito, y es lógico suponer que en muchos de estos casos sean secundarios tanto el diptongo como la vocal, es decir, que sean tan sólo resultados diferentes de la contracción de vocales que quedaron en hiato” (FHV 90)

Arras sinplifikatuz, Iparraldean **eradun*-en forma jokatueta bi bilakabide nagusi bereiz genitzake: 1) nafarreraz **deradutazu* > *derautazu* > *dautazu*; eta 2) zubereraz **dera(d)ütazu* > **deraitazu* > *dereitazu* > *deitazu*. XIX. mendeko zein egungo zubererarentzat (cf. Chaho & d’Abbadie 1836, Inchauspe 1858, Gèze 1873, Casenave-Harigile 1993 & 2001 edo Etchebarne 2011) *deiot*, *deitazü* & *zeneizküin* bezalako formak arautu dituzte indikatibozko NNN saileko.

Adizki horien eduki fonologikoa ongi ezagunak diren bilakabide batzuen ondorioa da: batetik *au* > *ai* aldaketa, Erronkarin eta Zuberoan aspaldidanik gauzatua (FHV § 4.4), eta bestetik bokal arteko *r* bakunaren galera, Zuberoan azken mendeetan gertatua, eta Mitxelenak lenizio prozesu orokor eta luzeago batean kokatzen zuena (1956: 115); gainera, *-erau-* > *-erai-* > *-erei-* asimilazioa ikusten ahal da. Zuberoako euskara historikoaren corpusean **eradun*-en formak halako aniztasunean lekukotzen dira; hemen “itxuraka” multzokatuko ditugu, manera honetan: lehen itxura (*-erau-*); bigarren itxura (*-erai-*); hirugarren itxura (*-erei-*); laugarren itxura (*-eri-*) eta bosgarren itxura (*-ei-*).

1.2.1.1. Lehen itxura: *-erau-*

Zuberoako testu zaharrenak *derauzut* bezalako adizkien lekuko dira: Zalgizek, Etchartek, Oihenartek eta Tartasek horrelakoak ematen dituzte³³³ —ikus (1)-(4) adibideak—. XIX. mendean, Chahok ere behin ematen du *-erau-* itxurako forma bat, “Donaphaleuko populian eta republicain aldeko pharthez laborarier, ofizialer, langiler eta Braseruer” zuzendutako testuan (5).

- (1) *Lurra churi, gogoa belz. (hil ehortcia mihissiaz estaliric churi eta dolu deraucanaren gogoa belz ilhun eta triste).* (Saug 135)
- (2) *Esperançaç eci respustu sarri eguinen derautaçula* (Etchart 4, 1v)
- (3) *Berritzen ar'iz, xuria, / Nitan, egun guziez, / Noizten begiez / Egin erautan zauria.* (O Po IX 1)
- (4) *Zuk botere zinduen bezala, edeki derauztatzu.* (Tt Onsa)
- (5) *Botz batek, heiagoraz erranen derauzue.* (Chaho Ariel 1849-4-5 [AztBeg VIII])

Aitzineko puntuan azaldu diren arrazoiengatik, eta zehazkiago *au* > *ai* aldaketa zaharrarengatik, uste dugu *-erau-* itxurako formak ez zirela Etchart, Oihenart edo Tartasen garaiko Zuberoan erabiliak; idazle jaso horiek “gustu nafarreko” formak erabiltzeko hautua egin zuketena. Gehiago dena, *-erau-* moldeko adizkiak zubereraren ez baina mintzo nafarren ezaugarri ezaguna den sinkopaz (FHV § 20.14) horniturik ageri dira.³³⁴ Hain zuzen, Oihenartek —aldi bana bere bi testuetan— eta Tartasek —23 aldiz *Onsan* eta 14 *Ariman*— ematen dituzte *dra-* & *-tra-* itxurako formak (6)-(9).

- (6) *Egur hori nork drauku hautsiko?* (O Pro 231)
- (7) *Erran draukat ardura, / Zer den en'arrenkura.* (O Po X)
- (8) *Hark emanen draut neure koroa.* (Tt Onsa, 4. arrazoina)
- (9) *Zure haragiak gerla egiten drauzuno.* (Tt Arima)

³³³ Hona Etchartek erabiliak: *baiterauciet* (4, 1r; 6a, 1r; 7, 1r & 7, 1v), *baiterauçu* (7, 2r), *baiterauçut* (6a, 1r; 8, 1r & 8, 1v), *baiterauçu* (1, 1r), *baiteraut* (7, 1r), *baiterautaçu* (4, 1r), *cenerautara* (6a, 1r), *derauciegu* (1, 2r & 8, 1r), *derauciet* (3, 1v & 5, 1v), *derauçut* (3, 1v; 5, 2r; 7, 1r; 8, 1r; 8, 1v; 9, 1r & 9, 1v), *derauçu* (3, 1v), *derauçu* (1, 1r), *deraut* (5, 1v), *derautaçu* (3, 2r & 7, 1v), *derautaçula* (3, 2r & 4, 1v) & *estarauçut* (4, 1v).

Oihenarten olerkietan honakoak aurkitu ditugu: *baderauka* (XX), *baderaukat* (VII), *deraukate* (XX), *derautazu* (II), *derautazue* (XVII), *derauzudanean* (IV), *erautan* (IX), *ezterautazu* (XVII) & *zerauztan* (XVII).

Tartasen *Onsa* liburuan halako sei adizki ageri dira: *deraute*, *derautzut*, *derautztatzu*, *deraukote*, *derauzko* & *zeraukoten*.

³³⁴ “El suletino tampoco conoce los fenómenos de síncope tan frecuentes en roncalés y más aún en salacenco, pero conocidos también en otras variedades de la Navarra alta y hasta de la baja [...]: sul. *bede(r)átzū* ‘nueve’, ronc. *bedrátzu*, aezc. a.-nav. meridional a.-nav. septentrional (Ulzama, etc.), sal. (y Leiz.) *bedratzi*; sul. *erráiten* ‘diciendo’, a.-nav. b.-nav. *erten*, etc.” (FHV 397-398).

1.2.1.2. Bigarren itxura: *-erai-*

Gogora bedi erronkarietaz *daitazud* ‘dizut’ bezalako forma hirupertsonalak erabiltzen zirela (cf. Yrizar 1992a). Zuberoako testuetan, aldiz, *au* > *ai* urrats fonologikoa kasik ezezaguna da **eradun*-en formetan. Hiru etsenplu baizik ez dugu atzeman (10)-(12), eta horietan Etchahunen *deraizüla* (11) egiazki ez da NNN-eko laguntzailea, ‘eman’ balio duen forma sintetikoa baizik (ikus § 1.2.5).

- (10) *Noiz eré beré aho sacratiaz erran betcerayen ... (Tt Onsa 60)*
- (11) *Dakialarik Erregiak zin, bere koronatzian egin diala, pharkamendürük bizian ezteraiala emanen. (Egiat I 3)*
- (12) *Jinkuak ber batzarri deraizüla zelin / Zure heriotzeko orena jin denin. (Etchahun 570, 15)³³⁵*

1.2.1.3. Hirugarren itxura: *-erei-*

Belapeirerengandik XIX. mendera arte —ikus (13)-(25) adibide sorta—, **eradun* aditzaren formek Zuberoan garatu duten bokalismoaz ager daitezke, oraino bokal arteko *r* atxikiz (*-erau-* > *-erai-* > *-erei-*). 68. TAULAK *-erei-* itxurako formen agerraldi kopurua jasotzen du testuka, gainerako aukerekiko konparantzan. Molde honek guztizko gailentasuna erakusten du Eguiateguyren liburuan.

- (13) *Contu honic eztereyocie emanen. (Bp I 25)*
- (14) *Ezkencen dereitcut ene pensamentiac, ene hitçac, ene obrac. (Othoitce 34)*
- (15) *Ceren eta ezpetereiat / eguin secula oguenicq. (StJul 625)*
- (16) *Jinkoak bihotza egin dereit, zelia bezain zabal. (Egiat I 1)*
- (17) *Hounec dereic, hounec, / hiry eguinen leguia. (Edipa 419)*
- (18) *Jgorten dereiq gorainci / celietariq gincouaq. (Xarlem 832)*
- (19) *Eta Gincouac oro / pharkhaturen dereitzu. (SteEli 1562-3)*
- (20) *Bena züre bihotzak mihiareki / eztereizü erraiten. (Malqu 239)*
- (21) *Jesus-Christec [...] Joundene pphetiriri [...] nigar eraguin cereiola. (UskLi 75)*
- (22) *Zuk erran eta ikhasi dereikuzu. (Chaho AztBeg VII)*
- (23) *Hoiek aisaeraziren dereiela Franzesaren ikhastia. (Archu Fab “Aitzin-beghi”)*
- (24) *Egüzaitak egin zereitan ordeñiaren haustia. (Etch “Ahaide delizius huntan”)*
- (25) *Ikhousiric bere aberastarçunac Jesusi ofritcen cereitcela. (MaiMarHil 64)*

1.2.1.4. Laugarren itxura: *-eri-*

**Eradun* aditzaren formen bilakabidean bada tarteko urrats bat, bigarren silabako monoptongazioa gauzatu, baina bokal arteko *r* mantentzen duena. Laugarren itxura hau 1676ko pronuan hasten da agertzen, azken lekukoa Archu izanik. Belapeirek kasik eskusiban

³³⁵ Haritschelharrek Lucien Charré-ren bertsioko *deizüla* aldaeraren berri ematen du (1969: 571).

ematen du *-eri-* moldea; *Edipa* trajerian ere nagusi da, bestelako formekin lehian (ikus 68. TAULA).

- (26) *Esquerrac emanen deritçocié. (PrS 11)*
- (27) *Araguia goithuren çutiala, eta Paradussia idekiren cericula. (Bp II 45)*
- (28) *Ceren eman beytericu cer ere beycian kharioenic. (CatOlo 28)*
- (29) *Min diçut [...] ceren oro houn cirelaric oguen eguin beiteriçut. (IP 18)*
- (30) *Clarkiago neritçien, / gente hounacq, esplicatu. (StJul 0113)*
- (31) *Apphalthuric [...] errendatcen deriçut homageric barnena. (Mercy 22)*
- (32) *Ainguru Gabrieleç / Cer erran ceïçun / Noiz eta ere hareç / Agur beitceriçun? (NLilia 11)*
- (33) *Çoignec injusticia handy / eguin beterit eny. (Edipa 563)*
- (34) *Ceren çuc cihareç eracaxi beiteritçoçu. (DKhi 45)*
- (35) *Çoignec exayac destournaturic / Conservi beyterio bicia. (UskLi 210)*
- (36) *Jüstiziak espeitzerizün, nahi egin sinhestia (Etch “Complainte Heguilus”)*

1.2.1.5. Bosgarren itxura: *-ei-*

Azkenik, **eradun*-en adizkiek beren bilakaera fonologikoa betetzen dute. Egia erraiteko, itxura *berrien* hori jada 1706koa den Oloroeko katiximan usu ageri da. Beraz, pentsatzekoa da bokal arteko *r*-ren galera abiatua zela lehen testuen garaian, Belapeire bezalako idazleek islatu ez bazuten ere. Bosgarren itxuraren agerraldi kopuruentzat ikus 68. TAULA.

- (37) *Ceren goure bekhatiac ppharcatu beyteizcu. (CatOlo 96)*
- (38) *Mihiac deizkie haiec / Bethi crudelki jaten. (Othoitce 45)*
- (39) *Çougnec eracousten beiteiçkie eguin behar dutugunac. (IP 15)*
- (40) *Incarnacioniaren misteriouaren berria ekharten ceyonari. (Mst IV 17, 2)*
- (41) *Ceren jujamentiaq / galdu beteyçat oro. (Edipa 031)*
- (42) *Nihaureç nahi neikeio, / jaunac, guerla declaratu. (SteEli 598)*
- (43) *Aurki eran beteitadzü emastiari / adar ordariak egin behar neizola. (Chiveroua 249)*
- (44) *Çouignec goure buriac prefera erazten beiteizcu bester. (DKhi 43)*
- (45) *Promes bat egin neion sendo nahiz, Jinkuari. (Etch “Bi berset dolorusik”)*
- (46) *Ahal dukedan gucia çor beteyot. (Medit 17)*
- (47) *Hori ezpaliz hala, erranen neicien. (EvS 14, 2)*

68. TAULA. *Eradun laguntzailearen itxurak.

	-erau-	drau-	-erei-	-eri-	-ei-
O Pro ca. 1600		1			
Saug ca. 1600	1				
Etchart 1616	32	-	-	-	-
O Po 1657	9	1	-	-	-
Tt Onsa 1666	6	23	-	-	-
Tt Arima 1672	-	14	-	-	-
PrS 1676	-	-	-	16	-
Bp 1696	-	-	2	225	-
CatOlo 1706	-	-	2	17	60
Othoitce 1734	-	-	17	5	38
IP 1757	-	-	-	4	18
Mst 1757	-	-	-	-	285
Ressegue 1758	-	-	-	-	1
Petit Jean 1769	-	-	-	-	3
StJul 1770	-	-	3	13	51
Mercy 1780	-	-	-	1	5
NLilia 1782	-	-	-	2	-
Egiat 1785	-	-	489	5	6
Bala 1788	-	-	-	-	4
Jouanic 1788	-	-	-	-	14
Chiveroua	-	-	1	-	48
Edipa 1793	-	-	18	49	33
Xarlem ca. 1800	-	-	3	1	72
SteEli ca. 1810	-	-	3	21	93
Malqu 1808	-	-	1	-	41
DKhi 1812	-	-	-	2	53
UskLi 1814	-	-	12	8	79
CatS ca. 1835	-	-	-	-	140
KhuB 1838	-	-	-	-	2
Medit 1844	-	-	-	-	187
Ip KurBD 1847	-	-	-	-	18
Chaho	1	-	4	-	47
Etchahun	-	-	10	11	90
CanBel 1848	-	-	-	-	17
Archu 1848	-	-	1	12 (derio)	30
MaiMarHil 1852	-	-	41	-	49
Myst 1856	-	-	-	-	53
Ip Dial 1857	-	-	-	-	26
HOrdre 1860	-	-	-	-	62
Epit 1873	-	-	-	-	20
EvS 1873	-	-	-	-	203
SGrat 1879	-	-	-	-	2
Catuchuma 1899	-	-	-	-	2

1.2.2. **Eradun-en formen bilakabideaz*

Ikusi dugunez, arrazoi fonologikoengatik ez dugu espero, Zuberoako euskararen garai historikoan —ez eta lehen testuen denboran ere—, *deraut* moldeko formarik. XVII. mendean beren mintzoa gainditzten zuen idatzizko eredu bati lotu zitzaizkion egileek (Oihenartek, Zalgizek, Etchartek eta Tartasek) halakoak erabili zituzten, *draut* bezalako sinkopekin ere.

1676tik aitzina Zuberoako bokalismoa erakusten duten adizkiak lekukotzen dira: *derizüt* & *dereizüt*, bokal arteko *r* atxikirik; funtsean Belapeire da *-r-* sistematikoki ematen duen idazle bakarra. Bokal arteko *r*-ren galera grafikoki islatzen hasten den puntutik, erran nahi baita 1706tik, molde zaharraren maiztasuna fite beheitituko da: hortik aitzina, XVIII. mendeko testuetan *-r-dun* eta gabeko grafiak txandakatzen dira, azkenak gailendurik. Eguiateguyren salbuespen markatuarekin, XVIII. mendean ez da *-r-dun* formak era eskusiboan ematen dituenik; alderantziz, Maisterrek ez du behin ere *-r-dun* ematen. XIX. mendean joera areagotzen da, *-r-dun* grafiak iraungita.

Laburbilduz, **eradun*-en forma jokatuaren itxura zaharra soilik Belapeire eta Eguiateguyrengan da nagusi, Zuberoan lehen testuak idatzi zireneko *dereizüt* > *deizüt* bilakabidea abiatua zelako seinale. Bistan denez, hiztun batzuek, baina bereziki idazle jasoek, bokal arteko *r* haren kontzientzia gordeko zuten, baina XIX. mendearen erdian joko hirupertsonaleko adizkien itxura modernoa aski finkatua zen, zubereraren lehen arauemaile gehienek hala jaso baitzuten.³³⁶

1.2.3. Konparantza bat: euskara batuaren diot adizkia

Orain arte azaldu ditugun bost itxuren arteko konparazio saio sistematiko bat dakargu, euskara batuaren *diot* formaren ordainak baliaturik. Egiazki, bost emaitza baino gehiago metatzen dira hemen: *deraukat* “nafarra”, *dereiot* zaharra, *deriot*, *deiot*, *diot*, *dirot*, *derot* &

³³⁶ Zehaztapen bat egiteko beharretan gara. Inchauspek (1858) sistematikoki *-r-* gabeko formak jaso zituen, baina Gèzek (1873) batzuk zein besteak. Chahok & d’Abbadiek (1836) diferente jokatu zuten. Hain zuzen, Chahoren paradigmaren *deizüt*, *deikuk*, *deiztañat* bezalakoek salbuespen bat dute. Bada, datibo 3. pertsona denean, honako diferentzia markatzen du Chahok: *derozu* ‘vous le lui avez’ (88. or.) baina *deio* ‘il le lui a’ (92. or.); hau da, iduri du ergatiboa zein datiboa 3. pertsonakoak direnean *-r-* gabeko forma proposatzen dela, eta ergatiboa 3. pertsonakoa ez denean *-r-duna*. Aldiz, corpusean ez dugu ñabardura hori bereizi. 69. TAULAN ikus daiteke nola *derot* batez ere pastoral zaharretan ageri den. Oyharçabal erremarkatu da: “Pour *derot*, Inchauspé donne *déyot*, et Gèze: *déyot*, *derot*, *dériot*” (1991: 144); “Dans les formes tri-personnelles à indice datif de 3e pers. le *-r-* apparaît très régulièrement dans nos mss [de la pastorale *Charlemagne*]” (1991: 183).

dot. Zuberoako forma zahartzat kontsideratzen duguna abiapuntu harturik, honako bilakaerak proposa daitezke:

- *dereiot* > *deriot* > *deiot* > *diot* / *dirot* [hiperzuzenketa]
- *dereiot* > *derot* > *dot*

69. TAULARi begira, nekez idoki daiteke ondorio diakroniko argirik. Menturaz, tradizio idatziaren eta mistoaren arteko diferentziak kronologia baino ohargarriagoak dira. Iduri luke *derot*, *dot* edo hiperzuzenketaren ondorioa den *dirot* errejentek baizik ez zituztela idatziz islatzen. Ifrentzuan, *Meditacioniac* liburuko testigantzak Lapurdiko tradizioaren eragina salatzen du (ATALASEAN, § 3.3.4.3.3 & 3.4.3).

69. TAULA. Batuaren *diot* adizkiaren baliokideak.

	<i>dereiot</i>	<i>deriot</i>	<i>deiot</i>	<i>derot</i>	<i>dot</i>	<i>diot</i> ³³⁷	<i>dirot</i>
<i>Othoitce</i> 1734	-	1	-	-	-	-	-
Mst 1757	-	-	6	-	-	-	-
<i>StJul</i> 1770	-	-	-	1	1	-	1
Egiat I 1785	3	-	-	-	-	1	-
<i>Bala</i> 1788	-	-	-	-	1	2	-
<i>Jouanic Hobe</i> 1788	-	-	-	-	1	-	-
<i>Boubane</i>	-	-	-	-	-	-	2
<i>Chiveroua</i>	-	-	-	1	-	-	1
<i>Edipa</i> 1793	-	3	-	6	-	-	1
<i>Xarlem</i> ca.1800	-	-	-	7	-	-	2
<i>SteEli</i> ca.1810	-	1	-	6	-	-	3
<i>Malqu</i> 1808	-	-	-	2	-	-	-
<i>Medit</i> 1844	-	-	1	-	1	12	-
Chaho	1	-	-	-	3	-	-
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	-	-	2	-	1	-

- (48) Erran baderaukat ezi / Oro harena nizala. (O Po VII 2)
 (49) Ama hari dereiodan amorioa. (Egiat I “Hitzauria”)
 (50) Haur ofritzen dereiot ene Jinkuari. (Chaho AztBeg XVI)
 (51) Çoigni hambat oguen eguin beteriot. (*Othoitce* 20)
 (52) Ezteriot secula / guerlariq emanen. (*Edipa* 694)
 (53) Jakinic deriot behar / eraman arrapostia. (*SteEli* 540)
 (54) Nic galthatcen deyodan graciaren emaitcoua. (Mst IV 14, 3)
 (55) Ahal dukedan gucia çor beteyot. (*Medit* 17)
 (56) Eta moien harez baderot / beguia eretchekiten. (*StJul* 646)

³³⁷ Gogora bedi testuetan diot ‘dirot’ ere ager daitekeela: Ene bekhatiez nihauri celia cerratuz gueroz, cer irousitateren esparantça ukhen diot? (Myst 34).

- (57) *Unguratu ondouan nihaureq / tripa derot urratuko. (Edipa 207)*
 (58) *Ferragusi qhentu beiterot / aldi hountan biçia. (Xarlem 535)*
 (59) *Behar derot sinhex t eraguin / adiskide diala hareki. (SteEli 399)*
 (60) *Begui hobez hebentic aicina nahi derot proximöari soguin. (MaiMarHil 52)*
 (61) *Orotçaz arrapostia / berary dodala eguinen. (StJul 522)*
 (62) *Aleta hizamaiten dot / behar althekoz bethatzera. (Jouanic Hobe 34)*
 (63) *Haur ofritzen dereiot ene Jinkuari / Galthatzen dodalarik haren tribunalian / Ene phenak ager ditzan ene faboretan. (Chaho XVI)*
 (64) *Epistola houni soguiten dot. (Medit 170)*
 (65) *Barkhatzen diot bena eztirot haren begithartia ikhus. (Egiat I 31)*
 (66) *Nahi diot ahal badot / hauze maxela. (Bala 35)*
 (67) *Orai beretic adio erraiten diot mundiari. (Medit 92)*
 (68) *Epistola houni soguiten diot. (MaiMarHil 124)*
 (69) *Eztirot, ez, batere / doluricq nicq eguinen. (StJul 1167)*
 (70) *Gizonari erranen dirot / erho dezan emaztia. (Boubane 26)*
 (71) *Nik beste hainbeste emanen dirot. (Chiveroua 399)*
 (72) *Offritu nahy dirot / ene fidelitatie. (Edipa 264)*
 (73) *Bicia Jdoquiren dirot / Ene photere oroz. (Xarlem 895)*
 (74) *Bihar, goiçan guero, / emanen dirot arrapostia. (SteEli 132)*

1.2.4. -i- erroa

Errana dugu, XIX. mendeko zenbait testutan *diot* bezalako NNN-eko formarik ageri da, baina horietako gehienetan zinez ez da -i- errorik, baizik ere **eradun* aditzaren higadura fonologikoaren emaitzetarik bat. *Meditacioniac* (1844) edo *Maiatza Mariaren Hilabetia* liburuetan (1852), aldiz, -i- erroa genuke; Anna Urrutyren ebanjelioan dautzanak, betiere ‘hark hari’ laukikoak, bi interpretabideen medioz esplikatu litezke;³³⁸ betalde, Chahok -i- erroa darabil “Espainiako berriak” testuan, baina berea ez den barietate batean idatzia da.³³⁹ Corpusean xerkatu ondoan, hona aurkitu ditugun etsenplu bakanak, guztiek 3. pertsonako datibo komunztadura dutela:

- (75) *Bertzgin gaxtoak, xilo baten thapatzeko, altxatzen diotza bertzari zathikoak. (O Pro 563)*
 (76) *Neure esker alagestak errendatuko diotzat. (Tt Onsa 47)*
 (77) *Ceditcen dio iferniac. (Othoitce 91)*
 (78) *Nor berme dateke hainbeste lanez ta errekeitüz üzten dioziene eztiata laisterrago barreiatüren. (Egiat I 15)*

³³⁸ Urrutyren *EvS* testuan *erran ceion* 16 aldiz ageri da, eta 73 aldiz *erran cion*. Alta, orainaldian ez da *erran dio*, baina bai *erraiten deio* (3, 4 & 3, 9)

³³⁹ Hona -i- erroaren forma hirupertsonal batzuk: *diozka* ‘dizkio’, *dio*, *ziozkaten* ‘zizkioten’, etab. NNN-eko laguntzailea ez ezik, beste hainbat ezaugarri ere nafarrerari egotz dakioke: *au* diptongoa (*gauza*), *-te* pluralgilea (*dute*, *zaiote*, *ziuztenek...*) edo *-rikan* segida (*orotatikan*), beste anitzen artean (Chaho *Ariel*, 1848-VII-25 [in *AztBeg VI*]).

(79) *Ceri eman dioc hire arima? (Medit 58)*

Beraz, salbuespenak salbuespen, ezar daiteke Zuberoako euskara historikoan ez dela *-i-* erroaren erabilpen aipagarriarik NNN joko arruntean. Bai, aldiz, forma alokutiboetan, hikako³⁴⁰ zein zukako forma iragankorretan, bipertsonal nahi hirupertsonalak izan (80)-(92). Erremarka bedi forma hauetan solaskidearekiko erreferentziak datiboarekikoaren gainean prebalitzen ahal duela (83).

(80) *Oray berian recebitu diçit çure guthuna. (Etchart 5, 1r)*

(81) *Dolu eta bihotz min diçut çouré amorecatic, ceren [...] oguen eguin baiterçut; hartcen diçut boronthaté ossobat [...] ez guehiago becuric eguiteco. (PrS 33)*

(82) *Ené Gincoa, sinhesten diçut ossoki cer ere erran beytuçu. (CatOlo 2)*

(83) *Eçagut eraciren diçut / Gaistouer çoure leguia, / Utçu eraciren dereitçut, / Çutçaz baniz urgatcia. (Othoitce 53)*

(84) *Odola herakitcen ditac. (StJul 696)*

(85) *Ecín eracoutsí ukhen citicien. (Mercy 10)*

(86) *Eztinnat ja hireganat / batere etchekiren beguia. / Orobat ukhenen dinat / compagna orotariq haitia. (Edipa 488)*

(87) *Erbibat baziziün atzamanik / eta hura erosi diozügi. (Chiveroua 66)*

(88) *Hanix ouhoure Eguiten diçatut / Çharlemaigna Erreguiaq. (Xarlem 144)*

(89) *Galthatuco dioçut Jincouari hayez ppharcamentu. (UskLi 56)*

(90) *Batec ciflestatcen cicien bestec biçarra thiraz idokitcen. (UskLi 229)*

(91) *Hari bortxaz erran zioziün nurk eho zin. (Etch “Amodio gati”)*

(92) *Ediren diagu Messia (erran nahi beita Krist). (EvS 1, 41)*

1.2.5. *Eman aditzaren suplezioa: -i(n)- vs.*eradun*

Des formes simples personnelles à objet de référence, signifiant « être donné », sont fournies par trois autres racines : *rau-* [...], *i-* (sans doute forme réduite de *gi-* « être fait »), **-ngu-*. Les deux premières ont des formes de présent nu : *i-* seulement dans les *Refranes*, et avec valeur de futur ; *rau-* avec valeur de présent. De la troisième sont attestées seulement trois formes : une d’impératif chez Dechepare ; une de présent à suffixe relatif et une de présent à suffixe *-ke* et préfixe *bait-* chez Liçarrague. Seules les racines *ma-* et *rau-* fournissent des formes à objet de référence de 3e pers. du sig. (Lafon 1944 I : 228).

Ezaguna da Euskara Arkaiko eta Zaharrean *eman* aditza bestelako erroren bidez adierazia izan zitekeela, Lafonek “racines supplétives” deitzen zituenak: *-i-*, *-rau-* & *-ngu-*. Gure corpusean **eradun* aditza ez da beti laguntzaile gisara erabiltzen: Etxepare, Leizarraga eta Axularrengan

³⁴⁰ Erdialdeko mintzoetan ez bezala, ekialdean modu neutroko NNN eta alokutiboko NN sailetan erro bedera erabiltzen da, hots, **eradun* eta *-i-*, hurrenez hurren. Hortaz, beste mintzoetako anbiguotasunak saihesten dira; cf. (*nik hiri*) *diat* & (*nik hura*) *diat*, Akitaniako euskarari ongi bereizten dena: *deiat* & *diat*.

bezala (93)-(96), Zuberoako euskara zaharrean **eradun* aditzak ‘eman’ balioa ere adierazten ahal du.

- (93) *Galdu balin badituzu zeren ogen derautazu. ‘pourquoi me donnez-vous tort?’* (Etxepare “Amorez errekerizia”)
 (94) *Zeren bada daraukate emaztiari hogenik. ‘pourquoi donnent-ils tort à la femme?’* (Etxepare “Emazten fabore”)
 (95) *Gure bihotz guziaz esker drauagu. ‘Nous te remercions’* (Lç ABC B 3v 23); baina cf. Ierro batzuk beheitigao *remerziatzen drauagu* (Lç ABC).
 (96) *Bere konzienziak, bere arimak derauka egiteko ‘ematen dio’* (Gero 58)³⁴¹

Eta orobat erran daiteke *-i-* erroaz, **eradun* baino hedatuagoa Ipar nahiz Hegoaldetik (ikus 70. TAULA). Zuberoako testuen corpusean gutienik 23 agerraldi atzeman dugu, gehienak *indazü* formaz, baina ez bakarrik. Oihenartengan salbu, *-i(n)-* errodun adizki hauek forma fosilduak dirudite, nonbait liturgiari lotuak. *Chez Chaho*, aldiz, 1. pertsona singularreko datiboaren pleonasmaren itxura berria ageri da. Ezaugarri arkaiko honen azken agerraldia Anna Urrutyren ebanjelioan ageri da (108).

- (97) *Jainkoak didala behazale bezala adizale.* (O Pro 635)
 (98) *Eskerrak iztadan, zeren neure haziendari on daritzadan.* (O Pro 690)
 (99) *Norabait jitez hitz badidazu, / Hur ere ger'eztadukazu.* (O Po V 19-22)
 (100) *Indazu edatera beharden izariak eta mesurak gainti eginik ere.* (Tt Onsa)
 (101) *O Iauna, indazu gratia eztezadan iagoiti deus egin, erran, pensa, zure Maiestate adorabliaren begitan desplazent denik.* (Tt Arima)
 (102) *«Deus baduzu, ezkietan, bors ogi edo deus baduzu idazu iatera»* (Tt Arima)
 (103) *Othoitcen çutut didacu indar.* (Bp I 129)
 (104) *Çoure caideran jarteko / indacu libertatia.* (Edipa 003)
 (105) *Jauna, [...] indazut lagunetako ainguru begirari bat.* (Chaho AztBeg XIV 20)
 (106) *Ene aita cirade; indacu arren, othoi, celuco ogui houra.* (Medit 178)
 (107) *Haier eman ceneren arguietaric pharte indacu.* (MaiMarHil 124)
 (108) *Jesusec erran cion: indacu edatera.* (EvS 4, 7)

Zuberoan **eradun* maizago ageri da ‘eman’ aditzaren erro supletibo gisara *-i-* baino. Corpusak orotara 63 agerraldi ematen digu. Arkaismoa den heinean, erabilpen hau usuenik zenbait formulari estekatua agertzen da: *esker / hitz / egün hun / gai hun de(re)izüt*. Etsenplu gehienetan objektua mugagabea emana da.

- (109) *Et' eskerrik ezterautazu, / Jitez hala zugana* (O Po XXVII)
 (110) *Esker dereiçut ceren ezdeusetaric idoki bainaiçu* (Bp I 135)
 (111) *Gincoac deycula bere bakia eta bethiéreco bicitcia hala biz.* (CatOlo 6-7 & 12)
 (112) *Jauna, esker dereiçut beste houn oroz.* (Othoitce 12)
 (113) *Haren hountarçun dibinouari eskerrac deitçogu* (IP 2)

³⁴¹ Urgellek arkaismotzat jotzen du **eradun*-en forma sintetiko hau Axularrengan (2015a: 34).

- (114) *Eskerrac deitçugu, ô guiçonon creacale eta arrerosle maitia.* (Mst IV 11, 5)
 (115) *Ama, [...] çoure conxeilu houn oroz / esker deiçut ossoky.* (StJul 126)
 (116) *Livertatia badeiçut / minça cite bertariq.* (Edipa 033)
 (117) *Esquer handi dereiçut niqere / çarlemaigna Erreguia.* (Xarlem 47)
 (118) *Çoure alhaben ezcountceko arren / badeiçut hirour ehun milla libera.* (SteEli 274)
 (119) *Jaunac, Gincouac / egun houn deiciela, / eta bere gracia / eman diçaçuela.* (SteEli 533)
 (120) *Courriera, remestiatcen çutut; / eta oriçu barazkariaren / saria badereiçut.* (SteEli 1271)
 (121) *Gogotic hitz deiçut [...] ezteiçudala guehiago oguenic eguinen.* (UskLi 20)
 (122) *Eskerrak deitziet zien amistatiaz eta fideltarsunaz!* (Chaho XIII)
 (123) *Jinkuak ber batzarri deraizüla zelin / Zure heriotzeko orena jin denin.* (Etchahun 570, 15)
 (124) *Hitz deiçut [...] jarraikiren niçala çoure cerbutchiari.* (Medit 157)
 (125) *Jinco Jauna, esker dereiçut eguin dereitaçun graciaz* (MaiMarHil 137)
 (126) *Hanitz esker neikezü.* (Ip Dial 1)
 (127) *Jesus Jauna! Ene salbatceco sofritu tuçunez oroz esker deiçut.* (HOrdre 174)
 (128) *Jauna, hitz deiçut leial bethi içanen niçaiçula [...]. Aita celucoua; esker deiçut mila milatan.* (Myst 42)
 (129) *Jinkuak egunhon deiziela / konpañña ühüratia.* (Petit Jean 01)
 (130) *Jinkuk deiziela egün hüin, / ama eta anajia, / bai eta algüarreki / deiziela ünionia.* (Malqu 370)
 (131) *Jinkuak gai hun deizüla, / Marzelina Españularekila.* (Chiveroua 138)
 (132) *Ginco hounac deizula egun houn.* (SGrat 4)

1.3. Erroen jokia Zuberoan ikuspegi diakroniko orokorretik

Onartua da euskararen eremurik handienean *-i(n)* zein **eradun* erabili izan direla, harik eta erdialde hertsiko mintzoek lehenaren aldeko hautua egin arte, eta ekialdekoek bigarrenaren alde.

G. eta G.N.ren zati bat izan dira lehendabizikoak sistema aberatsago bat murrizten *diorekin* soilik geldituaz beste euskalkietan oraindik eredu horrezaz gainera besteren bat ere bazerabiltenean. B.k beranduago egin du hautaketa hori eta, halabeharrez, G.k egindakoaren kontrako bidetik. Haatik, ez du honek eragozten historikoki, hots, testuek lekukotasuna ematen duten garaian, *dio* forma orokortzat jotzea. (Lakarra 1986: 659)

Beraz, *-i(n)*- orokorra izan da, **eradun* erdialde zein ekialdekoa, eta **edutsi* mendebalekoa (Lakarra 2011a; Mounole 2012 & 2015). Gogoan erabili behar da hirurek aitzineuskarara igortzen duten etimologiak dituztela: **eradun* & **edutsi*, biak **edun* aditzetik eratorriak genituzke: lehena haren forma kausatiboa, eta bigarrena *-tz* gehi *-i* atzizkien bidez eratua; *-i(n)*, aldiz, **nin* erro batetik letorke (Lakarra 2006 & 2011a: 195).

70. TAULA. NNN-eko laguntzaileen hautuak euskalkika.

BZ	BM	A	GZ	GM	LZ	LM	ZZ	ZM
----	----	---	----	----	----	----	----	----

<i>*eradun</i>	-	-	+	+	-	+	+	+	+
<i>-i-</i>	(+)	-	+	+	+	+	+	+	+
<i>eutsi</i>	+	+	+	-	-	-	-	-	-

(Lakarra 2011a: 198)

Lakarrak (2011a: 198) ondoko lehen bi erregelen ordena proposatzen du Nafarroako eta Iparraldeko, hots, ekialde *handiko*. Gainerako euskalkietarako, aldiz, 3tik 7ra doan berrikuntza sorta:

1. **eradun*-en gramatikalizazioa (orokorra)
2. *-i*-ren gramatikalizazioa (orokorra)
3. *eutsi*-ren gramatikalizazioa B-n eta A-n
4. **eradun*-en galera singularrean G-n eta B-n
5. **eradun*-en galera pluralean B-n
6. *-i*-ren galera pluralean B-n
7. *-i*-ren galera singularrean B-n.

Regueroren proposamenean (2015) *-i-* erroaren erabilera laguntzaile hirupertsonal gisara berrikuntza da. Batetik, bazterretako mintzoak *-i-* erroaren eremutik kanpo gelditzen dira: salbuespenak non-nahikoak izan litezkeen atsotitz bakanetan ageri dira (*RS*), eta Zuberoako mintzoa gainditzen duten Oihenarten eta Tartasen lanetan. Bestetik, NNN sailean gertatu diren berrikuntzak *-i-* erroari lotuak dira: *-te* pluralgilea, *-zki-* → *-it-* aldaketa, *tiogu* bezalako aferesiak eta, zuketa berrikuntza dela onartuz gero, hori ere bai. Reguerorentzat **edutsi* & **eradun* pareta EBZetik genuke. Ondoren, **eradun*-en eremuaren zati batean, hots, erdialdean (G eta GN) *-i-* erroa **eradun*-ekin lehian sartu zatekeen. Iparraldeko goi nafarreran, lapurteran eta behe nafarreran *-i-* erroak lekua jan dio **eradun*-i. Berrikuntza Nafarroatik abiatu zatekeen.

Bizkaiko datuak alde batera utzirik, arazo bat ikusten diogu Regueroren proposamenari: ekialdeko mintzoetan NNN-eko jokoan *-i(n)-* erroa laguntzaile gisara erabili ez dela onarturik ere, haren forma trinkoak ongi lekukotuak ditugu arkaismo gisara. Bestalde, akort gara zuketa berrikuntza izan dela; arazoa da hiketako formek ere zuketakoak agertzen duten *i* bera erakusten dutela.

Horren haritik, eta tesi honetan molde alokutiboak aztertzen ez ditugun arren, haien gaineko gogoeta bat dakargu. Bada, ekialdeko euskarari bezala kanpokoetan ere, forma alokutiboek *i* bat hartzen dute, hala NN-eko (*diat*, *dizügü* ‘dugu’, *die* ‘diate’, etab.) nola NNN-eko sailean (*diozügü* ‘diogu’). Proposa daiteke hiketako formak non-nahi **nin* erroarekin eratu zirela,

zuzen, zatiketa dialektalaren aitzinetik —bistan da, ekialdeko zuketak berrikuntza behar du izan, *zu* izenordaina pluraletik singularrerako kanbiamendua *post quem*-eko gertakaria izanki—.

Euskara Batu Zaharraren ondoko garai batean, *-i(n)* zahar eta orokorra & **eradun* berria posible ziratekeen ekialde oso zabal batean, funtsean, euskal herri guztietan salbu Bizkaian. Adarkatze bitarraren ikuspegitik (Lakarra 2011a), “zubero-erronkaria” bereizitako lehenbiziko adarra izan zela onartuz gero, orduan pentsatu behar dugu denbora batez **eradun* nahiz *-i(n)* erabiliko zirela, harik eta ekialde hertsiko mintzo hark **eradun*-en aldeko hautua egin arte. Handik aitzina, lehenagoko forma ditransitiboak, *-i*-ren gainean eratuak, molde alokutibora lerratuko ziratekeen, **eradun* NNN sail berriko laguntzaile bihurtuz. Berantago, baina betiere ekialdeko euskararen historiaurrean, hiztunek errespetuzko molde alokutiboa sortuko zuten, analogiaz jokaturik (*diat, din* → *dizut, dizu*).

Mounoleren arabera (2015), datibo komunztadura ez bide zen **edun* laguntzaileari hirugarren indize bat gehituz sortu, baizik eta lehenagoko egitura benefaktiboen gramatikalizazioaren ondorioz, erran nahi baita *-i(n)* zein **eradun* aditz beregainak laguntzaile bihurtuz. Gure ustez, Zuberoan alokutibo hurbilaren formek datibo komunztadurarik ez hartzea haren izaera arkaikoaren seinale da; aldiz, errespetuzko forma alokutiboek lau indize erakuts ditzakete: *diozüt* ‘diot_{+ALOK}’ bezalakorik aurkitu dugu, baina ez **dioagu/zioagü* bezalakorik.

1.4. Ondorioak

Ekialdeko euskara historikoan, hego-nafarreraren **erazan*-ez gain, hiru izan dira aditz ditransitiboan laguntzaileak: **eradun*, **ezan* & **iron*, *realis* moduetan lehena baizik ez denean erabili. Zuberoako corpusa **eradun* aditzaren higadura fonologikoaren lekukoa da (**derautazu* > *deraitazü* > *dereitazü* > *deritazü* > *deitazü*). Printzipioz, *derautazu* itxura ez litzateke ekialde hertsiko euskararen aldaketa fonologiko zaharrekin bateragarri (*au* > *ai*), eta are gutxiago *drautazu* bezalako forma sinkopatuekin. Bokal arteko *r* gabeko moldea gutxienez Belapeireren garaian abiatua zen.

XVII. mendeko hiru idazlek (Etchart, Oihenart eta Tartas) *-i(n)* erroaren formak ere erabili dituzte laguntzaile gisara. Idazle zaharren etsenpluetan zein XIX. mendeko agerraldietan, *-i(n)* erroaren erabilpena 3. pertsonako datibo komunztadurari estekatua da.

Bestalde, Zuberoako testuetan *-i(n)*, baina batez ere **eradun*, biak aditz nagusi bezala ere ageri dira, *eman* aditzaren suplezio fenomeno ezagunean. Salbu Oihenartengan, *-i(n)* erroaren forma sintetikoek fosildurik dirudite, praktikan *i(n)dazü* aginterara mugatuz. Aldiz,

**eradun*-en forma trinkoek nolabaiteko emankortasuna erakusten dute, usuenik *egün hun* (*esker, hitz...*) *deiziüt* bezalako formulei loturik.

Azkenik, molde alokutiboek *-i(n)* erroaren gainean eratuak dirudite. Tratamendu hurbileko adizkiak arkaismo handia dirateke, zatikatze dialektala baino lehenagoko formetarik abiatua —beharbada **nin* erroatik zuzen—. Errespetuzko tratamenduak *zu* izenordaina pluraletik singularrera iragan ondoko berrikuntza analogikoa behar du izan; hortaz, ez da halabeharrez Zuberoako testuek zuketako formetan datibo indizearen lekukotzea, baina ez hiketakoetan.

EBZ-aren ondotikako adarreztatze bitarraren ikuspegitik, eta ekialde hertsiko banantze goiztiarraren hipotesia (Lakarra 2011a) geure eginik, Zuberoako testuen azterketak ekialde hertsiko mintzo goiztiarrak *-i(n)* & **eradun* pareta bazuela iradokitzen du, baina egitura benefaktiboetarik aditz laguntzaile hirupertsonalerako gramatikalizazio bidean (Mounole 2015), **eradun* aditzaren aldeko hautua egin zuela.

2. Lehen pertsona singularreko datibo morfemaren pleonasmoa

- 2.1. Sarrera
- 2.2. Bagenekiena
- 2.3. Zuberoako (eta aldiriko) testuen lekukotza
 - 2.3.1. Lehen itxura: *-tada-* segida
 - 2.3.2. Joskera sintetiko eta perifrastikoa
 - 2.3.3. Pleonasmoren bigarren itxura eta datibo hirukoitza
 - 2.3.4. Bi formen azterketa sistematikoa
 - 2.3.5. Testu baten azterketa sistematikoa: *Sainte Elisabeth*
- 2.4. Bestelako pleonasmorik
- 2.5. Ondorioak

2.1. Sarrera

Tesi honek aditzarari eskainzen dizkion hiru kapituluetan zehaz aztertutako elementuak, oro har, sistemaren muinean dautza: haien aldaketek bestelako kanbiamenduak ekartzen ohi dituzte, eta haiek baino zabalagoak diren joeretan esplikatuz behar izaten dira. Alta, oraingo honetan ondorio berezirik ekarri ez duen ezaugarri dialektal baten azterketa proposatzen dugu: lehen pertsona singularreko datibo morfemaren pleonasmoa. Hautua ondoko bi arrazoiek dute justifikatzen: i) datiboaren pleonasmoa Zuberoako euskararen ezaugarritzatzeko balia daitekeelako, hots, *zubereraren* ezaugarritzat har daitekeelako —eta hartua izan delako—; eta b) aztertzeke dagoen bilakaera bat erakusten duelako.

Lehenik kontzeptualizazio bat zirriborratuko dugu, euskalariak datiboaren pleonasmoz erran dutena bilduz (§ 2.2). Ondoren, Zuberoako euskara historikoaren corpusaren lekukotza ekarriko dugu (§ 2.3), pleonasmoren aukerak bereiziz (§§ 2.3.1 & § 2.3.3); halaber, bi adizkietan konparantza sistematikoa egingen da pleonasmodun eta gabeko formen artean (§ 2.3.4). Tradizio mistoko testu batean fenomeno sistematikoki ikerturik (§ 2.3.5), azkenik ondorioetara etorriko gara (§ 2.5).

2.2. Bagenekiena

Zuberoan aditz jokatueta pleonasmoko edo hiperkarakterizazio bat ageri da datiboaren morfeman, hain zuzen datiboa lehen pertsona singularra delarik. Oyharçabalendako, “La forme pléonastique [*deitadazü*] est fréquente en souletin, avec l'indice personnel de datif (*-da-*, *-ta-*) répété” (1991: 137). Chaho & Abbadien (1836) ez dute datibo bikoiztuko formarik jasotzen (*deïtala*, *deïtalarik*, *deïtalakoz*, *deïztala*, etab.), ez eta Inchauspek (1858) ere, baina

bai Gèzek (1873). Caminok (2011: 120) fenomenoaren deskripzio zehatzagoa eskaintzen digu:

Morfologia berriztatu du aditz laguntzaileetan morfema datiboa errepikatzeak; Zuberoan lehen pertsona singularrean gertatzen da; Belapeirek ez dakar adibiderik —*oro eracax itçatatu* (I, 130), *chaha içadaçu* (137)—, baina XVIII. mende hasieran badira: *eracouxi deitadatu* ‘didazu’ (1734: 52); *eman diztadatu erresolucioniac* ‘dizkidazu’ —ez da ‘dizkidan’ zuketan— (1734: 13). Belapeirek baliatu ez izana ez da guztizko garantia XVIII. mendeko berrikuntzat jotzeko.

Maisterrek *deitadala* ‘didala’ (1757: 195), *citadaçu* ‘dit’ zuketan (173), *eçpadeitadatu* ‘ez badidazu’ (365) dakartza. Eskiulako 1780ko idazkiak, berriz, *eman içan çaitadan pphoteriaren indarraz* (24). Charl.-koak dira *tradicen ari jnceintadala* (244) iragangaitza eta *Jtçatadat* “itzatadak” edo ‘iezazkidak’ (314), huts grafikoarekin, agintezko iragankorra; nolahi ere den, pleonasmorik gabekoak dira *hitz eman beteyatu* (1706: 50), *pharca itçadatu* (1734: 51) edo Eskiulako idazkiko *eguin eçadaçu gracia* (1780: 4) era soilagoak.

Gero ikusiko denez (§ 2.3), Belapeirek —eta lehenagokoez ere— datibo pleonastikodun formak baliatu zituzten. Ardatz diatopikoan, Caminok muntako datu batez gaztigatzen gaitu: Erronkarin Uhalde Maiok *zinaitadan* ‘zenidan’ forma dakar (2011: 120), gehi beste zenbait —ikus (1)-(4) adibideak—. Aitzintxeago bestelako forma pleonastikoak aipatzen ditu, hala Uhalderen *daztazeid* ‘iezadazue’, *daiztazud* & *daztazud* ‘iezadazu’ nola Mendigatxaren *zaitad* ‘zait’, *zitzaitadan* ‘zitzaidan’, *daitad* ‘dit’ & *zaitadan* ‘zidan’. Gehiago dena, “Erronkarin lehen pertsona pluraleko morfemak ere bikoiztu dira: *zaikugu* ‘zaigu’, *zitzaikugula* ‘zitzaiugula’, *daikugu* ‘digu’, *daikugei* ‘digute’, Bonaparteren garaian *daikuguei* zena. Uhalde Maiok *dicugu* ‘digu’ dakar dotrinan (510)” (*ibid.*). Finitzeko, Amikuzeko pleonasmoko bikoitza dakar Caminok: *zindatazun* ‘zenidan’, ergatibo nahiz datiboa indarturik.

Bestenaz, Lapurdin ere datiboaren pleonasmoa agertzen duen formarik ageri da. Leizarragak normaltasunez erabiltzen ditu halakoak (§ 2.3.1), baina haren ondoren Hiriart-Urrutyren idazki baterainoko jauzia egin behar da Lapurdin datiboaren bikoizketarik berriz aurkitzeko (5). Nolanahi ere den, ezin erran daiteke lehen pertsona singularreko datibo morfemaren bikoizketa zubereraren ezaugarri eskusiboa den:³⁴² gehiago mintzo gintezke ekialde hertsi batez, nahi bada *zubero-erronkariara* deit litekeenaren eremuaz. Gogora bedi, gainera,

³⁴² *EKC*-ren araberako Hiriart-Urrutyrena adizki horren agerraldi bakarra litzateke Lapurdin; ez dugu *d(er)auta(da)zu(t)* bezalakorik aurkitu.

honetan erronkaria zuberera baino urrunago joan zela, datiboaren bikoizketa lehen pertsona pluralean ere eginik.

- (1) *Paka daztadaz zor daitadayana.* (Hual 18, 28)
- (2) *Jeina, borz deuri entregatu zinaitadan.* (Hual 25, 20)
- (3) *Jeina, bi deuri emon zinaitadan.* (Hual 25, 22)
- (4) *Egiaz erraiten daizeid xetarik batek eginen daitadala traizione.* (Hual 26, 21)
- (5) *Aunke preziso izan daitadala iltia zorekin, nik ez daizud ukaten.* (Hual 26, 35)
- (6) *Zoazi, urtuts zaite eta urean sarturik, hatzeman ezadazut ihizi hori zangotik* (HU Zez “Emazte eleketari, buru gaixto”)

2.3. Testuen lekukotza

2.3.1. Lehen itxura: *-tada-* segida

Datibo morfemaren pleonasmoren lehenbiziko agerraldiak XVI. mendean lekukotuak dira: Leizarragak baditu *çaitadan* bezalakoak, “forme relative de *çait*” (Lafon 1949: 815) —ikus (7)-(9) adibideak—; berazkoiztarrak hamahiru aldiz ematen du adizki hori, eta datibo bikoiztua duten beste dozena bat adizki ere.³⁴³ Baliteke forma horien gibelean Leizarragaren laguntzaile zuberotarrak izatea.³⁴⁴

- (7) *Aita, indak onhasunetik niri heltzen zaitadan partea.* (Lç Luk 15, 12)
- (8) *Eskaturen aitzaitadan guzia emanen draunat.* (Lç Mk 6, 23)
- (9) *Minzo zaitadana barbaro izanen zait.* (Lç Korint 13, 10)

Zuberoan lehenbiziko agerraldiak Oihenarten atsotizetakoak dira (10). Hona Lafonen iruzkina *iztadan* formaz:

Impératif de *eskerrak eman* ‘rendre grâces, remercier’. *Istadan* (*iztadan*) est la forme à patient de 3e personne du pluriel correspondant à *idan* ‘donne-le moi’, variante de *indan*; Dechepare emploie la forme sans *n* (*ydaçu* ‘donnez-le-moi’; *didan* ‘qui me sera ou me soit donné’), et on

³⁴³ Hona Leizarragaren *Testamentu Berrian* aurkitu ditugun guztiak: *aitzaitadan* (Mk 6, 23), *bazaitadan* (Kor II 2, 12; Kor II 7, 8), *drautadala* (Filem 1, 19), *etzaitadak* (Tim II 4, 16), *zaitadala* (Rom 7, 10; Filip 1, 19; Galat 2, 7; Akt 26, 14), *zaitadan* (Luk 15, 12; Efes 3, 2; Rom 12, 3; Rom 15, 15; Tit 1, 3; Galat 2, 9), *zaitadana* (Kor I 14, 11), *zaitadanaren* (Tim I 1, 11; Tim I 1, 12; Kor I 3, 10), *zaitadak* (“Heuskalduney”, Tim I 1, 13; Tim I 1, 16; Tim II 4, 17; Luk 1, 3; Luk 4, 6).

³⁴⁴ Datibo pleonastikodun formen banaketak, parte batzuetan pilaturik, hori iradokitzen du. Bestalde, guk dakigula, datiboaren pleonasmoa ez da egungo Aturri aldean ezaguna.

lit dans les *Refranes* (233) *yquedac* ‘donne-le-moi (dans l'avenir)’. [...] Dans *istadan*, l'indice de 1re pers. du sing. est exprimé deux fois. (1949: 815)

Olerkietan ere datibo bikoiztuko formarik ageri da (11): *zauztala* “zu neri zagozkit, [...], baina poetak datibo atzizkia errepikatzen du, nahiz ‘zagozt’ aski izan” (Altuna & Mujika 2003: 345). 1676ko pronuan (12) eta Belapeireren katiximan Zuberoan ohikoak diren forma pleonastikoetarik batzuk (13)-(16) atzeman daitezke. Beraz, ezar daiteke Zuberoako lehen testuak idatzi zireneko datiboaren bikoizketa ezaguna zela, eta hala islatu zuten Oihenartek bezala *zuberera klasikoaren* lehen idazletzat hartzen ohi dugun Belapeirek ere.

- (10) *Eskerrak iztadan, zeren neure haziendari on daritzadan*. ‘Sens-moi bon gré que j'ai soin de moi bien.’ (O *Pro* 690)
- (11) *Ezi bihotza, zu beti hala / Ikusiz gibel zauztadala*. ‘Car mon cœur, voyant que vous me tournez ainsi toujours le dos’ (O *Po* V 8)
- (12) *Berhala hitz emaiten deriçut ene becatu orotçaz cofessaturen niçala ahalic sarriena, emanen çaitadan penitenciaren eguiteco*. (PrS 33)
- (13) *Esperança diçut parçaturen deriztadaçula ene bekhatiac*. (Bp I 49)
- (14) *Ene Gincoa esker deriçut, igaran gayan eta ene bici orotan eman deriztadatçun hon oroz*. (Bp I 128)
- (15) *Egun helturen çaitzadan galciac eta damiac oro*. (Bp I 129)
- (16) *Gincoaz eman çaitzadan Ainguru hona ene espiritiaz eta bihotçaz eguin behar dutudanac oro eracax itçatatu fediaz eta caritatiez*. (Bp I 130 & 137)
- (17) *Esperança diçut hori, Jauna, ceren hitz eman betcitadaçu*. (Othoitce 18)
- (18) *Placeric ecin eguiten ditadaçu, cihaturen buria oberendatcen eçpadeitadaçu*. (Mst IV 8, 2)
- (19) *Othoitcen çutut, ene Jincoua, [...] beha cakiçtadan*. (Mst IV 9, 3)
- (20) *Eraguin ciztadacien / estudio guciacq*. (StJul 240)
- (21) *Othoy consola neçan, / berry jaquin nahiz / bihotça douatadan*. (Edipa 619)
- (22) *Horieta orotan gaignen, / jaunac, diotadacie*. (SteEli 85)

2.3.2. Joskera sintetiko eta perifrastikoa

Era trinkoetan ez dakigu berrikuntza berankorragoa ote den. Maisterrek *emadaçu* dakar (1757: 184), baina Charl.-k *emadaciet* (324), morfema datiboa bukaeran duela; XIX. mendean ere *emadaciet* dakar SC-k (538), nahiz *emadatcie* (538) soila ere baduen. (Camino 2011: 120)

Jada XVII. mendean forma pleonastikoak joskera sintetikoan ageri dira: *-i*- ‘eman’ erroarekin (10), *egon* aditzarekin (11); eta berantago *joan* (21) edo *io* ‘erran’ (22) aditzekin; aginterazko forma trinkoentzat ikus, halaber, § 2.3.3. Laguntzaileetan *izan* (*zaitadan*, *zitadazü...*) & **eradun* (*deitadazie*, *deitadak...*) ohikoenak diren arren, **edin* & **ezan* parearekin ere forma pleonastikoak ageri dira (23)-(25) —**ezan* aditzarekiko adibideentzat ikus (§ 2.3.3)—.

- (23) *Othoitcen çutut, ene Jincoua [...], beha cakiçtadan*. (Mst IV 9, 3)
- (24) *Baçakit / eci eztudala merechi / beha çakiztadan / çu ene oihiari*. (SteEli 364)
- (25) *Nihauri ountsa jin lekiztadanac oro*. (MaiMarHil 43)

2.3.3. Pleonasmooaren bigarren itxura eta datibo hirukoitza

Adizki laguntzaileetan ere *-da-* + *-t* egitura pleonastikoa dago lehen pertsona datiboan eta ez dakigu xuxen noizkoa den: *haz içadaçu* dakar Eskiulako 1758ko idazkiak (47) eta *eguin eçadaçu gracia* 1780koak (iv), baina Charl.-k *eman eçadaçut* pleonastikoa dakar (170) eta XIX. mendean *pharca eçadaciet* SC-k (518). 1848an Amikuzeko Larribarren jokatu zen Kan & B.-n *eta erradazut zer gisaz zu ziren kolpatia* adibidea dator (1971: 83). Intxauspek ez du era hau usu baliatzen, baina *hıl zıtazut* dakar zuketan 1856an (SM, IX, 18), nahiz *déitazu* eta *déitazie* ere badituen (SM, XXV, 20, 35). (Camino 2011: 120)

Gure corpusaren arabera *-dazü(e)t* segida XIX. mendearen hastapenean azaleratzen da. Erremarkatu behar da bukaerako *-t* soilik ager daitekeela aditzak bestelako atzizkirik hartzen ez badu (*deitazüt*, baina ez **deitazüdan*); horregatik *-t* ohikoa da aginterazko formetan: *erradazüt* (*Xarlem* 706, 1124; *CanBel* 298; *EvS* 20, 15) edo *emadazüt* (*Medit* 16; 169) eta, bistan da, **ezan-enetan* (26)-(28). Bestenaz, *-t* usu agertzen da *deitazüt* formarekin (29)-(31), eta *-i-* ‘eman’ erroarekin ere ageri da (33).

(26)*Eran izadazut zuk ere / deseñik bazunukia.* (*Chiveroua* 169)³⁴⁵

(27)*Othoi idoqui içadaçut / hiri hountaco portalia.* (*Xarlem* 627)

(28)*Jauna, eman içadaçut hour hortaric.* (*EvS* 4, 15)

(29)*Gero behar deitazüt egin / emastik egiten zeitan zerbiütxia.* (*Chiveroua* 253)

(30)*Sira pharcatu behar deitaçut.* (*Xarlem* 222)

(31)*Traditü zütüdala deitazüt erraiten.* (Etch “Urx'apal bat”)

(32)*Egun bakoitxak ditazut emaiten / Bere oghia.* (*Archu* 47)

(33)*Indazut eni grazia, egiazko sinhestian [...] bizi nadin.* (*Chaho* XIV 19)

Bigarren itxura honekin batean, Zuberoan —eta beste inon ez— datiboaren pleonasmook bikoizketa gainditzen du, lehen pertsonaren morfema hirukoiztuz, *-tadazü(e)t* emaitzarekin (34)-(42).

(34)*Hanitz phena ditadazüt / orai zure kitazia, / bethi handitzen ziztadazüt / orai ene doloriak.* (*Chiveroua* 51)

(35)*Arraçou horren Ençutiaq / odola ditadaçut alteraçen.* (*Xarlem* 236)

(36)*Eguiçu plaçer duçuna / Papa bardin çitadaçut.* (*Xarlem* 612)

(37)*Arraport falxu / Eguin ditadaciet.* (*Xarlem* 741)

(38)*Ourthian Ehun nescatila / requisitiones emanen deitadaçut.* (*Xarlem* 817)

³⁴⁵ Urkizuk (1998) XVIII. mendean kokatzen du *Chiveroua eta Marceline* astolasterra, baina datazioaren azalpenik eman gabe. Gure ustez datibo hirukoiztik agertzeak XIX. menderat hurbilduko luke testu hau.

(39) *Adio erran ditadaçut seculacoz.* (Xarlem 1278)

(40) *Parcatu vehar deitadaçut / Ene oguen eguin handia.* (Xarlem 1380)

(41) *Berribat gin çitadaçut / aita Saintiaq igorririq.* (Xarlem 1425)

(42) *Orai agitzen zitadazüt segür hiltzia presuntegin.* (Etch “Ahaide”)

Puntu honen hesteko, aipa dezagun erronkarieraz ere itxura honetako forma pleonastikoak erabiltzen zirela, hala nola Bidankozeko *daiztazud* ‘dizkidazu’, *daiztad* ‘dizkit’, *daiztazeid* ‘dizkidazue’ edo *daizteid* ‘dizkidate’ (Yrizar 1992a).

2.3.4. Bi formen azterketa sistematikoa

Caminok dioskunez, “pleonasmoa duten eta ez duten aldaerak batera ageri baitira, beharbada ez da berrikuntza zaharra” (2011: 120). Puntu horren argitzeko xedez, bi sailak erkatu behar dira: forma pleonastikoena eta pleonasmorik gabeena. Datiboaren pleonasmorean bi itxuren azterketen bereizteko, bi adizki hautatu ditugu: euskara batuan *di(zki)dazu(e)* & *ieza(zki)dazu(e)* formak dituztenak.

71. taulak **eradun* laguntzailearen forma ez-alokutiboak biltzen ditu: *dei(z)tadazü(e)* vs. *dei(z)tazü(e)*. Nahiz eta bi sailetako zenbaki absolutuak orekan diren, bilakaera bat deskriba daiteke. Forma pleonastikoak Belapeirerengandik aurkitzen badira ere, badirudi XIX. mendean hauen maiztasuna igotzen dela. Beraz, zuberotar zaharrenek autore berankorrek baino proportzio baxuagoan ematen badituzte forma pleonastikoak, berrikuntza hau ez zela oso zaharra ondorioztatu behar da.

72. taulak **ezan* aditzaren aginterazko formak jasotzen ditu: *ezadazü(e)* vs. *ezadazü(e)t*. Datiboaren pleonasmooz gain, hastapeneko bokalaren aldakortasuna ere islatu nahi izan dugu. Errana dugu, pleonasmorean *-t* itxura berankorragoa da *-tada-* segida baino. Hortaz, *ezadazüt* bezalakoak XIX. mende hastapenean lekukotzen dira, betiere forma zaharrek gailentasuna atxikitzen dutela. Lekukotasun bat markatzekotan, *Charlemagne* trajeria biziki lerratua da *-dazüt* itxura berrira, eta Archuren itzulpenak batera zein bestera, testuaren arabera.

71. TAULA. *Derei(z)tazü(e)*: datiboaren pleonasmoa.

	<i>-tada-</i>	<i>-ta + -t</i>	<i>-tada + -t</i>	pleon. oro	pleon. gabe
Bp 1696	2	-	-	2	2
<i>CatOlo</i> 1706	-	-	-	-	3
<i>Othoitce</i> 1734	4	-	-	4	-
Mst oro 1757	7	-	-	7	23
Ressegue 1758	-	-	-	-	1
<i>Petit Jean</i> 1769	-	-	-	-	2
<i>StJul</i> 1770	3	-	-	3	9
Mercy 1780	1	-	-	1	-
Egiat I 1785	-	-	-	-	1
<i>Boubane</i>	2	-	-	2	3
<i>Chiveroua</i>	5	1	-	6	15
<i>Edipa</i> 1793	5	-	-	5	6
<i>Xarlem</i> ca.1800	2	4	8	14	2
<i>SteEli</i> ca.1810	4	-	-	4	16
<i>Malqu</i> 1808	3	-	-	3	3
<i>DKhi</i> 1812	-	-	-	-	5
<i>UskLi</i> 1814	15	-	-	15	3
<i>CatS</i> ca. 1836	1	-	-	1	2
<i>Khurutch</i> 1838	-	-	-	-	1
<i>Medit</i> 1844	18	1	-	19	2
<i>CanBel</i> 1848	-	-	-	-	1
Etchahun	-	3	-	3	6
Chaho <i>AztBeg</i>	1	1	-	2	1
Archu <i>Alh</i> 1848	-	1	-	1	-
<i>MaiMarHil</i> 1856	3	-	-	3	4
<i>Ip Dial</i> 1857	-	-	-	-	1
<i>HOrdre</i> 1860	1	-	-	1	1
<i>Myst</i> 1862	2	-	-	2	3
Urruty oro 1873	14	-	-	14	-
<i>SGrat</i> 1879	-	-	-	-	2
<i>Oro</i>	93	11	8	112	118

72. TAULA. Ezadazü(e): datiboaren pleonasmoa.

	ezadazü	izadazü	pleon. gabe	ezadaziit	izadaziit	pleon. oro
Etchart 1616	2	-	2	-	-	-
Tt Arima 1672	-	1	1	-	-	-
Bp 1696	-	2	2	-	-	-
CatOlo 1706	3	2	5	-	-	-
Othoitce 1734	-	5	5	-	-	-
Mst oro 1757	8	3	11	-	-	-
Ressegue 1758	-	2	2	-	-	-
Petit Jean 1769	1	1	2	-	-	-
StJul 1770	4	3	7	-	-	-
Mercy 1780	3	-	3	-	-	-
Egiat I 1785	1	-	1	-	-	-
Jouanic 1788	-	1	1	-	-	-
Boubane	1	-	1	-	-	-
Chiveroua	-	1	1	-	1	1
Edipa 1793	10	1	11	-	-	-
Xarlem ca.1800	-	-	-	7	1	8
SteEli ca.1810	-	13	13	-	-	-
Malqu 1808	8	1	9	-	-	-
DKhi 1812	2	1	3	-	-	-
UskLi 1814	-	8	8	-	-	-
Medit 1844	-	5	5	-	4	4
CanBel 1848	2	1	3	-	-	-
Etchahun	-	-	-	-	2	2
Chaho AztBeg	-	2	2	-	-	-
Archu Psalmiak	15	1	16	4	-	4
Archu Jenesa	3	4	7	7	3	10
Archu Salomoun	-	-	-	3	-	3
MaiMarHil 1856	13	3	16	-	-	-
Ip Dial 1857	1	-	1	-	-	-
Ip Erak Atharratze	-	1	1	-	-	-
Ip Erak Barkoxe	-	1	1	-	-	-
HOrdre 1860	18	2	20	-	-	-
Myst 1862	24	1	25	-	-	-
Urruty oro 1873	-	-	-	-	1	1
Oro	119	66	185	21	12	33

2.3.5. Testu baten azterketa sistematikoa: *Sainte Elisabeth* (ca. 1810)

Ondoan Eskiulan koka daitekeen *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerian lehen pertsona singularreko datibo indizea duten adizki guztiak zerrendatzen dira, pleonasmorik ala gabeak, adizka bilduak.

IZAN. 23 agerralditik 12tan pleonasmoa ageri da: *ceit* (677, 1252, 1545), *etçait* (802), *etceit* (1506), *ezpaçait* (640), ceitadala (1107), *citac* (1382), citadac (694), etcitadac (1515), *citaçu* (746, 1312, 1449), citadaçu (275, 310, 789, 865, 1227), ciztadatçu (1149, 1522), *beitceitan* (529), ceitadan (1508) & citadaçun (568).

***EDIN.** Hiru formatarik bat: *dakidan* (277), *çakitçat* (1378) & çakiztadan (364).

***EZAN.** 19 agerraldi, guztiak pleonasmorik gabeak: *içadac* (412, 701, 977), *içadacie* (144), *içadaçu* (106, 137, 140, 330, 341, 409, 784, 840, 844, 1031, 1171, 1207, 1572) & *itçatatçu* (942, 1277).

***ERADUN.** 52 agerralditik 11 forma pleonastikoei dagozkie: *deit* (939, 991), *derit* (806), *deitan* (202), *deitana* (267), *beteit* (1312), *ezteit* (184, 1108), *ezteitala* (822), *ezpeteit* (547, 1376), *ezpalimbadeit* (598, 1127), *deitçat* (899, 1070), *deritçat* (902, 1381), *beteitçat* (235), ezteitadala (733), *ditac* (708), *deitac* (457), deitadac (412), *ditaçu* (128, 1450), *ditacie* (561), *eztitaçu* (426), ditadaçu (650), *deitaçu* (565, 621), *deitaçun* (133, 990, 1271, 1464), *deitaçunez* (572), *deitacia* (887), *badeitaçu* (572), *ezpadeitaçu* (1452), *deiztatçula* (992), *deitacie* (550), *deistacie* (499), deitadaçu (119), badeitadacie (463, 584), *deitade* (80), *ceitan* (1106), *etceitan* (475), ceitadan (1109), ceitadalaric (1266), etcitadaçun (573), *cenekeit* (504) & ceneitadala (1280).

***IO** ‘erran’. Agerraldi bakarrean pleonasmoa ageri da: deitadacie (85).

Orotara, lehen pertsona singularreko datibo indizea dutenen agerraldi kopurua 97koa da, zeinetarik 24 forma pleonastikoei doazkien. Datiboaren gauzatze morfologikoz denaz bezainbatean, honako aukerak atzeman ditugu:

- Hitz bukaeran, [-t] alomorfoa: 17tik 1.
- Hitz barnean, [-ta-] alomorfoa: 41etik 24.
- Hitz barnean, [-da-] alomorfoa: 19tik 0.

Sainte Elisabeth de Portugalen datibo morfemaren bikoizketa honelako prozedurari jarraitzen zaio: *-ta-* → *-tada-*. [-da-]. Bestalde, pleonasmok ez du behin ere *-t* itxura hartu (*ezadazüt*); beraz, datibo hirukoitzik ere ez da ageri (**deitadazüt*, **zidadazüt*).

2.4. Bestelako pleonasmorik

Zuberoako euskara historikoaren corpusean aditzaren osagai morfologikoen bestelako pleonasmok ere ageri dira. Datiboarenaz gain, Tartasek *dustadan* munstroa erabiltzen du (43). Testuinguruaren arabera, forma horrek ‘ditudan’ balioa duke, eta beraz *-tada-* segida ergatiboari legokioke. Hutsa ez izatera, *dustadan* forma analogiaz esplika liteke: *duzte* ‘dituzte’ → *duzt[adan]*, baina kronologiak ez du sobera laguntzen.³⁴⁶ Nolanahi ere, *dustadan* horretan *-z-* absolutiboaren pluralgilea datza, gehi ergatiboaren morfemaren pleonasmoa.

Bada ergatiboaren beste pleonasmota mota bat, morfemaren lekualdatzearen ondorioz agertua, eta egungo euskaran hedatua. Horren erakusgarri dira (44)-(46)-ko *zinirozü* ‘ziniro’ & *ciniotcie* ‘zinirotzüe’ aadizkiak.

(43) *Bekhatoria, has eta akhava eztuçu edirenen bat ené [eré?] bidian libru huntan, nic içendatu dustadan paganoetan, non eztian hartu, herroaren memoria* (Tt Onsa 27)

(44) *Zer egin zinirozü zük, / gezüres nonbaitik erabili baziüntü?* (Chiveroua 226)

(45) *Jauna, ene abisez ere / Determina zinirozü.* (Recoquillart eta Arieder 172)

(46) *Abrahamen obrac eguin ciniotcie ciec ere.* (EvS 8, 39)

Azkenik, absolutiboaren pleonasmota ekar dezakegu (47), pluralgileetan gerta daitezkeenetarik kanpo. Gure ustez, *nezazüt* forma *ezadaziüt* ohikoagoarekiko analogiaz azaldu behar da.

(47)[...] *çouregana hersa nadin: othoy berhala ençun neçaçut.* (UskLi 124)

2.5. Ondorioak

Aldi historikoan, lehen pertsonaren datibo morfemaren pleonasmota ezaguna da Zuberoan —singularrean— eta Erronkarin —singularrean nahiz pluralean— (cf. 73. TAULA). Berrikuntza jada Leizarragarengan lekukotua da, menturaz haren laguntzaile zuberotarrengatik, eta Zuberoan XVII. mendeko testuetarik. Oro har, Zuberoan datibo morfemaren bikoizketa *izan*, **edin* & **eradun* laguntzaileetan lekukotua da, bai eta zenbait aditz sintetikotan ere (*-i-*, *-io-*, *egon*, *eman* edo *erran*).

³⁴⁶ Ekialdean *tüt*, *tie* ← *dütüt*, *dütie* bezalako uzkurdurak ohikoak dira, batez ere azken mendeetan. Guziarekin, jada Oihenartek *tuzte* dakar (O Pro 525). Lehenbiziko *tie* ← *dütie* 1734koa da (*Othoitce* 39), eta XIX. mendera arte ez da testuetan ugaritzen. Arazoa da *d-* hastapena, Zuberoan 1848ra arte lekukotu gabea —Archuk du lehen agerraldia ematen: *duzte* (*Fab* 10); Chahok ere *duzten* & *duztela* dakar (*AztBeg* VIII & XI, hurrenez hurren)—. *EKC*-ren arabera, Zuberoatik kanpo Manezaundik, Bordel bertsulariak eta Duvoisinek ere *duzte* erabiltzen dute.

73. TAULA. Datiboaren pleonasmok ekialdean.

	<i>-tada-</i>	<i>-t /-d</i>	<i>-tada + -t</i>	<i>-kugu-</i>
Zuberoa	x	x	x	-
Erronkari	-	x	-	x

Funtsean, lehen pertsona singularreko datiboaren pleonasmoa bi modutara gerta daiteke: 1) hitz barneko [-ta-] alomorfoak *-tada-* agerraraztea; eta 2) hitz bukaerako *-t* erantsia agertzea, beti *-dazü(e)t* itxurarekin (*ezadazüt*). Hitz barneko [-da-] alomorfoak ez du pleonasmoa agerrarazten (**dakidadan*, **dakidatan*). Azken fase batean, XIX. mende hastapenean datatu duguna, datibo hirukoitza ere ager daiteke (*deitadazüt*, *zitadazüt*), aitzineko bi itxurak batuz.

Arau bezala, datiboaren bikoizketa gertatzen da haren eskuinean zerbait eransten delarik; atzeman dugun salbuespen bakarrak esplikabide fonologikoa duke: *çakiztada* (← *çakizt*). Hortaz, fenomenoaren maiztasuna altuagoa da: a) molde alokutiboetan; eta b) iraganaldiko adizkietan. Azkenik, *-ela* konpletiboak pleonasmoa agerrarazten du.

Ekialde hertsiko euskararen ezaugarri hau berrikuntza da, ezinbestean: pleonasmok berenez berrikuntza izaten dira. Deja Oihenart edo Belapeireren testuetan lekukotua dugu; halere, ondoko mendeetan forma pleonastikoez ez dituzte pleonasmorik gabeak ordezkatu. Zuberoako aditzaren sisteman ondoriorik gabekoa izan arren, datibozko morfemaren bikoizketa maiztasun altueneko fenomeno da, eta beraz hiztunen hautematean nabarmena.

3. Joskera sintetikoaren bilakaera Zuberoan

- 3.1. Sarrera
- 3.2. Zubereraren gramatikagileak, joskera trinkoaz
- 3.3. Testuen lekukotza, mendez mende
 - 3.3.1. XVI-XIX. mendeak
 - 3.3.2. Joskera sintetikoa vs. perifrastikoa: konparantza bat
- 3.4. Zuberoako datuak bilakaera orokorrean kokatuz
- 3.5. Ondorioak

Ce sont des formes contractées de la conjugaison de certains noms verbaux d'un usage très commun. Ces formes contractées ne s'étendent jamais qu'à une très-minime partie de la conjugaison, et elles peuvent être toujours remplacées par la conjugaison régulière. (Inchauspe 1858: 446).

3.1. Sarrera

Ezaguna da garai historikoan euskal aditzaren joskera sintetikoak lekua galdu duela joskera perifrastikoaren alde. Mounolek XV. eta XVI. mendeetan forma trinkorik zuten 68 aditz zerrendatu ditu, zeinetarik erdia ez zen XVIII. mendera iritsi (2011: 339). Bitarte horretan, joskera trinkoaren paradigmak ere urritu dira, iragan narratiboa, geroaldia, potentziala eta subjuntiboa galduz (2011: 342). Joskera sintetikoaren galtze hori aditz sistemaren berrantolatze orokor batean kokatu behar da.

Badirudi joera markatuagoa izan dela ekialdeko mintzoetan; horrela, Leizarragak eta Maisterrek, nork bere denboran, adizkera sintetikoaren erabilpen urriagoa erakusten dute beste mintzoetako idazle garaikideek baino (Mounole 2011: 336-342). Zuberoako euskaraz denaz bezainbatean, halere, Mounoleren datuak Oihenart eta Maisterren lanetan baizik ez dira oinarrituak. Atal honetan joskera trinkoaren bilakaera azterkatuko dugu Zuberoako euskara historikoan. Lafon 1943 eta Mounole 2011 ikerlanak abiapuntu, eta XIX. zein XX. mendeetako gramatikagileek margotu panorama gogoan (§ 3.2), Zuberoako testu zaharren lekukotza ekarriko dugu (§ 3.3), *eman* aditzaren inperatibozko forma sintetiko eta analitikoak sistematikoki konparatuz (3.3.2); azkenean, datu horiek guztiak interpretatuko ditugu (§§ 3.4 & 3.5).

3.2. Zubereraren gramatikagileak, joskera trinkoaz

La fusion des mots divers avec la conjugaison simple de *Niz* et *Dut* produit diverses conjugaisons syncopées dont nos grammairiens ont fait des verbes irréguliers. [...] La fusion

du nom avec le verbe forme la conjugaison syncopée, qui se déroule avec relation de personnes, suivant l'âge et le sexe, dans les trois modes simples, tour à tour affirmative, interrogative, négative, etc. (Chaho & d'Abbadie 1836: 180)

Chahok *jakin* aditzaren paradigma eskaintzen du, lau errejistroetan, ondoko formetarako: *dakit, estakit, badakit, ezpadakit, dakita, nakian, enakian, banaki, ezpanakian, nakiana, dakiket, dakikedanez, dakiketa, baneki* (1836: 181-182). Joskera trinkoaren defektibotasunaz kontziente da:

Mais il faut séparer les deux éléments de la conjugaison pour obtenir le passé parfait, le plus-que-parfait et le conditionnel passé: *jakin dut* 'j'ai su', *jakin nian* 'j'avais su', *jakin duket* 'j'aurai su', *jakin nukian* 'j'aurais su'. (1836: 183)

Chahok joskera sintetikoa bigarrenkari gisara ikusten du, erabilera eta higaduraren ondoriozkoa:

Il est inutile d'observer au lecteur que ces conjugaisons syncopées ne sont qu'une surabondance de richesse, créé pour le laconisme et la rapidité du discours, et ne changent rien au système verbal de la langue euskarienne (1836: 183).

Ildo beretik doa Inchauspe, *formes contractées* direlakoez mintzatzean, "improprement appelées verbes irréguliers" (1858: 445): "Nous avons dit que ces formes contractées ont été introduites pour donner plus de concision, de rapidité, et quelquefois plus d'énergie au langage" (1858: 459). Bere denborako Zuberoan usatzen zirenen artean, Inchauspek honako aditzen forma sintetikoak ematen ditu: *ebil, eduki egon, erabil, eraman, -io-, jakin & joan*. Paradigma osoak proposatzen ditu: aldiak oro, hiru tratamenduak eta datiboarekiko komunztadura. Ondoko puntuak azpimarkatu nahi genituzke:

- Aditz iragankorretan ondoko aldiak ematen ditu, *jakin* aditza adibide dakargula: *dákit, dakítzat, nakian, nakitzan, dakíket, dakízket, nakíke, nakízke / nakitzáke, nakikían, nakitzakían, banáki, banakítza* (1858: 449).
- -Io- 'erran' erroaren adizkiei doakienean, mailegu kontsideraturik,³⁴⁷ Inchauspek honakoak ematen ditu: "diótza, il les dit ; ziótzan, il les disait ; diózut, je te le dis ; dióziét, je vous le dis ; díoxó, il lui dit ; díoxé, il leur dit ; díoxoé, ils lui disent" (1858: 458). Aldiz, "Les formes abrégées érrak, érran, errázu, dis, pour erran ézak,

³⁴⁷ "Ces terminatifs ne sont pas empruntés au nom verbal basque. On ne peut pas les considérer comme des formes contractées de la conjugaison régulière, comme le sont toutes les formes irrégulières. Ils proviennent évidemment du latin *dicere*, ou des langues romanes qui en sont formées" (1858: 458).

erran ézan, erran ezázu ; et errazíe, dites, pour erran ezazíe, appartiennent au nom verbal érran, dire” (ibid.).

- Ebil aditzaz denaz bezainbatean, Inchauspek ñabardura semantikoa dakar: “L’usage a donné aux formes contractées dabíla, nabíla, une signification qui modifie celle du nom verbal ebíli qui s’emploie dans le sens de marcher ; badabíla veut dire : il court ici et là, il promène ; il s’emploie aussi dans le sens du mot français il va, lorsqu’on le dit pour signifier il a assez de santé ou de force pour aller, pour circuler” (1858: 459).
- Orobat jakin aditzaz: “Dákit signifie je sais, scio ; nakían, ‘je savais’, sciebam. Les formes contractées de ces deux temps ne peuvent pas être remplacées par les formes régulières de l’indicatif présent jakíten dut, et de l’indicatif passé imparfait jakíten nían. Jakíten dut [...] signifie proprement j’apprends, et les Basques ne l’entendent que dans ce sens : jakíten nían [...] signifie j’apprenais. Si pour exprimer je sais et je savais, on voulait faire usage de la conjugaison régulière, il faudrait employer des temps parfaits et non présents : jákin ou plutôt jakínik dut ‘je sais’ ; jakínik nían ‘je savais’” (ibid.).
- Joan aditzaren NOR-NORI moldean -ki- datiboaren igarlea agerrarazten du Inchauspek (1858: 446), Zuberoako testuen corpusean behin ere ageri ez dena.³⁴⁸
- Azkenik, “Toutes les formes contractées, à l’exception de dío, prennent la préfixe ba à l’indicatif, à moins qu’elles ne soient employées dans le sen interrogatif” (1858: 460).

Azkenik, Zuazok (1989b: 637) honakoa diosku Zuberoako adizkera trinkoaz, Larrasqueten deskripzioaren sintesia eginik:

Badirudi, dena den, [aditz trinkoen] ordezkatzeko hau azkarragoa izan dela Iparraldeko euskalkietan —zuberera barne— Hegoaldekoetan baino. Joera orokor horretan kokatu beharrekoa da, beraz, Larrasquetek (1939, 25-26) egin oharra, bertan aditz trinkoek zubereran zeukaten erabilera urria salatu zuelarik. *Joan*-en adizkiak omen denetarik hobekien atxiki direnak, enparatuetatik fosilizatutako adibide banaka bat besterik —aginte adizkiak gehienbat— erabiltzen ez dela:

³⁴⁸ Cf. Bere gogara douazcon [= doazkion] gaicetan (Mst III 6, 1); Jaunac, guitian erretira / etcy bihotça douat [= doakit] galcera, / othoy hel çakhiztade / bestela noua hilcera (Edipa 044); Berry jaquin nahiz / bihotça douatadan [= doakit_{ALOK FEM.}] (Edipa 619). Guztiarekin, Inchauspek datibozko forma sintetikoaren bakantasunaz ohartarazten du : “Les formatifs à compléments indirects sont rarement employés ; pour exprimer les relations indirectes, on use de préférence de la conjugaison régulière ; mais, dans la forme simple, on aime mieux en général se servir des terminatifs contractés. Ainsi on dira : banóa, badóa, bazóaza, bazoátzan, hoa, zoaáza, bihóa, goátzan, plutôt que joáiten níz, joáiten da, joáiten zíra, joáiten zen, jóan hádi, jóan zíte, jóan bédi, jóan gitián” (1858: 448).

- *égon*: *ágo*, *záude*, *záuzte*.
- *ebíli*: *nabílak*, *nabílan*, *nabílázu* (galurren hirurok ere), *ábil*, *abiláa* ‘va-t'en’.
- *ekhárri*: *ekhárarak*, *ekháraran*, *ekhárzu*, *ekharzíte*...
- *éman*: *emádak*, *emádan*, *emadázü*, *emadázíte*, *emók*, *emón*, *emék*, *emén*...
- *e(r)áman*: *e(r)ámak*, *e(r)amázu*, *e(r)ámazíte*, *e(r)amádak*, *e(r)amádan*...

Larrasqueten zerrenda urria iruditzen zaio Zuazori: “Ez du ematen, hala ere, zubereran ziren aditz trinkoen zerrenda osoa eta erabatekoa burutu zuenik Larrasquetek, beraren lanetan barrena ere osterantzeko adibideak azaltzen dira eta: *dakit*, *ezta(k)ik*, *daki*... (jakin); *bego*, *begotza*... (egon)” (1989b: 637). Zuzen da Zuazo; gero ikusiko denez, Zuberoako euskara historikoaren corpusak anitzez datu aberatsagoak ematen ditu, XIX. mendearen akabantzan ere, *jakin* & *egon* pareaz harago.

3.3. Zuberoako testuen lekukotza

3.3.1. XVI - XIX. mendeak

Atal honetan gure corpuseko testuen lekukotza dakargu. Aditz sintetikoaren erabilpena³⁴⁹ mendez mende azterkatuko da, eta balioen arabera: orainaldia, iraganaldia, ahala, hipotetikoa, optatiboa, inperatiboa, jusiboa eta subjuntiboa.³⁵⁰

Zuberoako testu zaharretan ondoko aditzak ageri dira joskera sintetikoan: orainaldian *ebil*, *eduki*, **edun*, *egin*, *egon*, *ekhar*, *eman*, *erabil*, *eragotz*, **erahatzi*, **eraidi*, *eraman*, *erauntsi*, *eritz*, *eror*, *eros*, *ets*, *ezagüt*, **idi*, *ikhus*, **io*, *irakin*, *iraun*, *irudi*, *izan*, *jakin*, *jarraiki*, *joan* & *onets* (1)-(24); iraganaldian *ebil*, **edun*, *egon*, *idoki*, *izan*, *jakin* & *joan* (26)-(30); ahalezkoan **edun*, *egon*, *egotz*, *ekhar*, *erakar*, *ezagüt*, **idi*, *ikhuz*, *izan* & *jakin* (31)-(37); hipotetikoan **edun*, **idi* & *izan* (38); inperatiboan *ebil*, **edun*, *egin*, *eman*, *erakhar*, *erho*, *etxeiki*, *ezar*, **i(n)*³⁵¹ & *ütz* (39)-(45); jusiboan **edun*, *egon*, *izan*, *jakin*, *jarraiki* & *joan* (46)-(49); eta

³⁴⁹ Jadanik ohartarazten dugu *izan* & **edun* aditzak azterketa honetatik kanpo gelditu direla, garai eta balio guztietan maiztasun altuenekoak baitira, eta egun ere guztiz ohikoak aditz sintetiko gisara.

³⁵⁰ Iraganaldiko balio hori ekintza, egoera edo gertaera bati lotua da, aspektu burutugabea —Mounolek *passé narratif* terminoa baliatzen du (2011)—. Bestalde, hemen ez dugu *geroaldi* eta *potentzial* bereiziko; beraz, biak *ahala* etiketa pean emanak dira —ikus VI, § 4.2.1, *-ke* morfemaz hornitutako formen berezitasunez—. Irizpide morfologikoa *inperatibo*, *jusibo* eta *subjuntibo* bereizteko ere baliatuko zaigu: jusiboan soilik *b-* morfemadunak sartuko ditugun bezala, *d-* + *-(a)la* duten formen gainean eratutako agintezko formak *subjuntibo* gisara sailkatuko ditugu. Orobat *optatibo*-rekin: *ai-* aurrizkia duten formak baizik ez, balio horrek bestelako adierazpideak onartzen dituen arren.

³⁵¹ Erro honen agerpenaz, ikus § 1.2.5.

subjuntiboan **edun, egin, eman, eritz* (44), *erran, *i(n), izan & üt*z (50)-(53). Bihoaz etsenpluak, balio horien arabera antolaturik.

ORAINALDIA

- (1) *Otorde dabila maiatza su eske*. “Le mois de mai est en quête de feu, en troc de pain.” (O Pro 381)
- (2) *Ganibet berbatek debaka ogia eta erhia*. “Un même couteau sert a couper le pain et a se blesser la main.” (O Pro 179)
- (3) *Ber’ etxea beirez dadukanak estalirik, ezpeza aurtik berzerenera harririk*. “Celui qui a sa maison couverte de vitre ne doit point jeter de pierre sur le toit d’autrui” (O Pro 92)
- (4) *Leku gaitcian egur daguianac soinaz ekarri behar*. (Saug 152)
- (5) *Ezakusan begik nigar eztegitik*. “L’oeil qui ne te voit pas ne te pleurera pas.” (O Pro 575)
- (6) *Motil ona sari eske dago, ixilik ere badago*. “Un serviteur qui sert bien demande salaire encore qu’il ne dise rien.” (O Pro 319)
- (7) *Anhitz jana eta anhitz edana da hontara nakarrana*. “Le manger beaucoup et le beaucoup boire m’a réduit à ceci, c’est-à-dire à la pauvreté.” (O Pro 26)
- (8) *Antxo limosnari, urde ebatsiaren oinak dematza beharrari*. “Ancho [...] est un grand faiseur d’aumônes, il donne aux pauvres les pieds du porceau qu’il a dérobé.” (O Pro 28)
- (9) *Bere zehatzeko makila darabila*. “Il porte la bâton pour se faire battre.” (O Pro 559)
- (10) *Arraina eta arrotza, heren egunak, karatsez, kanpora deragotza*. “Le poisson et l’hôte deviennent puants, passé trois jours, et les faut jeter hors de la maison.” (O Pro 34)
- (11) *Gaitza gaitzagoak derahatza*. “Ce qui est pire fait oublier ce qui est mauvais.” (O Pro 174)
- (12) *Urak ezteramana, uharreak*. “Ce que la pluie n’a su emporter, le torrent l’emporte.” (O Pro 454)
- (13) *Othoi sainduari, deraunsano ekaitzari*. “Il prie le saint tandis qu’il y a orage.” (O Pro 662)
- (14) *Garcia, Gaixto batat diçaguc bercia*. (Saug 130)
- (15) *Çure asquen guthuna recebitu dut Arnault Curutchagua daritzonaguanic* (Etchart 7, 1r)
- (16) *Thu etxatua zeruan gora, begithartera derora*. “Le crachat que tu jettes contre le ciel retombe sur ta face.” (O Pro 673)
- (17) *Garaziren gaitza Behorlegik derosa*. “Un chétif village porte la peine de la faute de tout un pays.” (O Pro 180)
- (18) *Arrotzak ez lan daidik, ez deraidik* “Un hôte ni ne fera aucun travail pour toi, ni ne te donnera le moyen d’en faire toi-même”. (O Pro 37)³⁵²
- (19) *Ditxak bila nezatela ziotsak*. “La fortune veut qu’on la recherche.” (O Pro 113)
- (20) *Odolak su gabe diraki*. “Le sang bouillit sans feu” (O Pro 342)
- (21) *Jokorik hobena, gutien dirauea*. “Le meilleur jeu c’est celui qui dure le moins.” (O Pro 270)
- (22) *Mundu hunek dirudi itsasoa, igerika eztakiena ondarrera doa*. “Le monde ressemble la mer, on y voit noyer ceux qui ne savent pas nager” (O Pro 320).

³⁵² **Idi* erroaren balio berezietz, eta haren lekukotzaz, ikus VI, § 4.2.3.

- (23) *Alaba ezkontu ondoan, ezkontgeiak darraizt ondoan.* “Après que j'ai marié ma fille l'on me vient offrir des partis pour elle.” (O Pro 17)
- (24) *Gaizqui doha erbiaz, alhatcen denian ohatciari.* (Saug 103)
- (25) *Otsoak zer baitetsa, otsemak donhetsa.* “Ce que le loup fait a la louve plait.” (O Pro 390)

IRAGANALDIA

- (26) *Otsoaren ihesi nenbilela, bat nendin hartzareki.* “En fuyant le loup j'ai fait rencontre de l'ours.” (O Pro 392)
- (27) *Ate bati zegoen eskalea, goseak hil zezan.* “Le pauvre qui s'attacha a mendier a une seule porte mourut de faim.” (O Pro 487)
- (28) *Etxoilok basoiloa zedokan.* “La poule domestique chasse la sauvage.” (O Pro 172)
- (29) *Inhardetsi ziola bazekiela Orhiko berri.* (O Pro 373, iruzkinean).
- (30) *Errumera çouenac, lekuya gal.* (Bela 21)

AHALEZKOA

- (31) *Her-jauna otoiez dagoenean botoiari, keinuz dauke uheari.* “Quand le seigneur use de prières envers son sujet, il guigne le bâton.” (O Pro 228)
- (32) *Arraica aunçari, Baihagozque gapharrari.* (Saug 14)
- (33) *Vizcondia, beldurrac diakarquec Ahalguia.* (Saug 60)
- (34) *Minzatzeak sobera, nerakarke galtzera.* “Le trop parler me mène a perdition.” (O Pro 317)
- (35) *Zalduna, egik semea Duke, ezezaguke.* “Chevalier, fais ton fils Duc, il ne te connaîtra plus.” (O Pro 424)
- (36) *Bere egitekoen egiten eztakienak, nekez daidizke bertzerenak* ‘Celui qui ne sait pas faire ses affaires fera malaisément celles des autres’. (O Pro 557)
- (37) *Esku batak dikhuzke bertzea, biek begitartea.* “L'une main lave l'autre, et les deux lavent le visage.” (O Pro 157)

HIPOTETIKOA

- (38) *Amak iri balu, opil balaidi* “Si ma mère avait de la farine, elle ferait des gâteaux”. (O Pro 20)

INPERATIBOA

- (39) *Kidia kidiarequi, habil euriarequi.* (Saug 76)
- (40) *Hori da onsa errana, bana erakarrak egin dezana.* “Cela est bien dit, mais amène-nous quelqu'un qui le fasse.” (O Pro 251)
- (41) *Arakina, erhak behia eta indak kornado baten biria.* “Boucher, tue ta vache, et baille-moi pour un denier de fressure.” (O Pro 30)
- (42) *Eneko, atxeka hi hartzari, nik demadan ihesari.* “Eneko, saisis-toi de l'ours, afin que j'aie moyen de fuir.” (O Pro 139)
- (43) *Urliaz gaizki erraiterakoan, ezarzik eure faltak golkoan.* “Quand tu voudras dire du mal de quelqu'un, mets tes propres fautes en ton sein” (O Pro 458)
- (44) *Eskerrak iztadan, zeren neure haziendari on daritzadan.* “Sens-moi bon gré de ce que j'ai soin de mon bien.” (O Pro 690)
- (45) *Utzac hona hobiagati.* (Saug 91)

JUSIBOA

- (46) *Gueroac bego: guerora nehorc utciten duiana, seculacotz vtciten du.* (Saug 47)
- (47) *Beki on eta gaitzaren berri, kargutan duenak zenbait herri.* “Celui qui doit gouverner une province doit avoir connaissance du bien et du mal” (O Pro 73)
- (48) *Othoitzen eztakiena Jainkoari, berraio itsasoari.* “Celui qui ne sait prier Dieu qu'il s'adonne a la mer.” (O Pro 663)
- (49) *Haz nezak egungo aragiaz, atzoko ogiaz eta xazko arnoaz, eta atxeterrak bihoaz.* (O Pro 213)

SUBJUNTIBOA

- (50) *Adausi degidala, bana ausik enezala.* “Qu'il aboie contre moi, mais qu'il ne me morde pas.” (O Pro 538)
- (51) *Ezterragula çoin houretatic edanen dugun.* (Bela 24)
- (52) *Jainkoak didala behazale bezala adizale.* “Dieu me donne des gens qui m'entendent aussi bien que des gens qui m'écoutent.” (O Pro 635)
- (53) *Hihaurk lan egin-ahala, berzek degiten eztutzala.* “Le travail que tu peux faire toi-même, ne le renvoie pas à d'autres.” (O Pro 234)

XVII. mendeko testigantzei doakienean, gure ustez, Oihenarten olerkien eta gainerako testuen artean bereizi beharra dago, idazle horrek aditz zerrenda luzeskoa ematen baitu joskera sintetikoan, Zuberoan berak baizik ez duena lekukotu —bederen paradigmaren atal batzuetan—: *edas*, *edeki*, **edun* (inperatiboan eta jusiboan), *egin* (ezezko jusiboan), *eman*, *erakar*, *erakhuts*, *eratzan*, **erion* (iraganaldian), *eritz* (44), *eroan*, *ethor*,³⁵³ *etxeki*, *ihartdets*, *igor*, *-io-* (jusiboan), *jaits*, *jaurets*, *sinhets*, *utz* (54)-(69).³⁵⁴ Aditz hauen forma trinkoen iruzkinentzat Altuna 1994 lanera igortzen dugu.

- (54) *Zer ere zugati, nigati / Bailedask' izterbegiak* “Mais quoi que l'ennemi puisse raconter à propos de vous et de moi” (O Po XV 5)
- (55) *Zu zara Jainkoaren ama, / Gaitzen zama / Jenter dedetezuna.* “Vous êtes, vous, la mère de Dieu, celle qui ôtera aux hommes le fardeau de leurs maux.” (O Po XX 6)
- (56) *Nahis espegui gaiüs ilhargui* “Bien qu'il ne fasse pas clair de lune, la nuit” (O Po XVI 1).

³⁵³ Berez Zuberoan ez dugu *ethor* aditza maizegi espero, ohikoena *jin* forma baita. Izan ere, Oihenartez gain soilik Eguiateguyk, Chahok eta Archuk eman dute *ethor*. Chahok Zuberoatik kanpoko irakurleei zuzendutako zaizkien bi testutan: “Espainiako berriak” (*AztBeg* IX) & “Nekazale baten kontseilua Lapurtar laborarier, ofizialer eta langileer” (*AztBeg* IX); Archuk behin baizik, “Alhargunxa gaztia” bertsoetan.

³⁵⁴ Oihenartengan ez da argi batetik forma sintetikoak dituzten aditzen kopuruak, eta bestetik hauen paradigma aberatsek haren garaiko barietatea islatzen duten ala analogiaz sortutako formen aitzinean garen; baliteke, halere, errealtatea erdibide batean izatea, hots, haren gramatika gaitasunaren araberrako formak izan litezen, orduko euskaldunek era pasiboan konpreni zitzaizketenak, baina ez ekoitz (Oyharçabalen gaztigua, ahoz aho). Oihenartengan gramatika gaitasunari zer zor zaion, eta haren denoran egiazki zer erabiltzen zeneko afera aipatu izan da; kasu batentzat, Lafonek, *nahiz ezpegi* sintaxia kari, honela dio: “Cette construction, dont je ne connais pas d' autre exemple, et dont on ne peut dire si elle n' est pas une création d'Oihenart, est remarquable à un double titre” (1949, in *Vasconiana* 818).

- (57) *Jauki dizut, et' ihesari / Dema, hara, laurherroan.* “Je l'ai attaqué, et voilà qu'il se met à fuir á toutes jambes.” (O Po XV 7)
- (58) *Zure bizitze zuhurrak / Zeru-lurrak / Derakarzke bakera / ezi Jainkoaz zar' izorra; / Hark nigorra / Hunen zuri erraitera.* “Votre vie de sagesse amènera le ciel et la terre à la paix, car vous êtes enceinte de Dieu; c'est lui qui m'envoie vous le dire” (O Po XX 7)
- (59) *Gainerakoz bihotza / al' urrix' al' orotsa / duen, izterbegiak / porogatus bihotsa.* “Quant à savoir si son cœur est femelle ou mâle, que l'ennemi en fasse l'épreuve et le dise !” (O Po XIII 23)
- (60) *Nik gortharzun, zuk gorrtarzun, / Derakuskegu elkarri* “Je me montre ardent, et vous sourde: telle est notre attitude mutuelle” (O Po XXIV 3)
- (61) *Xahu gentzantzatzat kozuti, / Ikuz, guenzan bekatuti / Egon baita zariola / Ez ur ban' ur-ar' odola* ‘Il est resté pour nous purifier de la souillure et nous laver du péché, en versant non point de l'eau, mais son sang, comme si c'eût été de l'eau.’ (O Po XXII 2)
- (62) *Buru ederreko adatsa / Laxurik baderatza, / Badaitso gerriraino / urh' izpiz aberatsa.* “La chevelure qui orne sa belle tête, si elle la laisse dénouée, lui descend jusqu'à la taille, trésor de délicats fils d'or.” (O Po XIII 22)
- (63) *Niri baibatzen erraitera / Etzenthozke ehoiz-ere?* “Vous ne viendriez jamais me dire un oui ?” (O Po I 7)
- (64) *Zur'eskuari banatxeko* “Si je vous saisis la main” (O Po V 3)
- (65) *Zeren, zegitela hala, / Lo zauntzala / Uken zuten manua* “Car ils avaient reçu, pendant qu'ils dormaient, l'ordre d'agir ainsi” (O Po XX 28)
- (66) *Herenak zinhardetsana* “La troisième répondit” (O Po XXVI 22)
- (67) *Otoi, otoi, ene minak Gaurgoitik epa itzazu, Oranoko gaizki eginak Askitan edutzazu.*³⁵⁵ (O Po XXIV)
- (68) *Jainkotan bat huts jauretsak / Eta bertzerik zinhetsak.* “Ne reconnais comme Dieu qu'un seul être, et crois qu'il ne peut y en avoir d'autre.” (O Po XVIII 1)
- (69) *Duzkizu bere gogara / Bakez zure motila.* “Selon son désir, vous congédiez en paix votre serviteur.” (O Po XXI 1)

Oihenartek baizik erabiltzen ez dituen forma trinkoen zerrendaz landara, ondokoak ere ageri dira XVII. mendeko testuetan, bereziki Belapeireren katiximan: orainaldian *ebil, eduki, *edun, egon, *eradun, eroan, *idi, *io, iraun, jakin, izan, jaugin & joan* (70)-(78); iraganaldian *ebil, eduki, *edun, egon, etzan, -io-, izan & joan* (79)-(84); ahalean **edun, egon & izan* (85); hipotetikoan **edun, *idi & izan* (86); inperatiboan *egin* (gehi *so egin*), *egon, eman, erakhats, erran, idoki, *i(n), jaugin & joan*; jusiboan *egon, izan & joan* (87)-(96); eta subjuntiboan **edun, egin* (70), *egon, eman, *i(n) & izan* (99)-(101). Bistan denez, XVI. mendean XVII. ean baino iraganaldiko formarik duten aditz gutxiago lekukotu izana testuen urritasun zein berezitasunengatik azaltzen da —guztiak dira atsotitzak—.

ORAINALDIA

³⁵⁵ Altuna & Mujikak *eduki*-ren adizki batentzat hartzen dute (1994: 91).

- (70) *Eliçaren maniac eztakitcenac, Catechimala ere eztavilçanac. Eztaguien hayen ere ezconceco Cridaric, uxueri hartan daudio. (Bp I 24)*
- (71) *Hitz gutitan cer daduca cantorê miragarri honec? (Bp II 101)*
- (72) *Esker deriçut ceren ezdeusetaric idoki bainaiçu (Bp I 135)*
- (73) *Hen uduriac ohoratcen dutugu, çoin ohore saintietara baitaroagu. (Bp I 84)*
- (74) *Houxic ecin baitaidi haren partez erraiten deritcienetan. (PrS 2-3)*
- (75) *Cer diotsogu? (Bp II 62)*
- (76) *Orano çortci erriac dirayano, ahalaz Meça saintia ençun behar liçatê. (Bp II 86)*
- (77) *Çoin Besta dugu daigun Egunian? (Bp II 21)*
- (78) *Lasterka ihesi doa arzaiña. (Tt Onsa)*

IRAGANALDIA

- (79) *Leguiac manu eguin cerien ordietan eliçala çavilçan. (Bp II 37)*
- (80) *Elisabetec sabelian çaducan haurra (Bp II 101)*
- (81) *Beraz Jesus-Christen ethecoen saintutarçuna certan çagoan? (Bp II 37)*
- (82) *Españolak hor hura bera ediren zian borta hartan berian lo zantzala. (Tt Onsa)*
- (83) *Espiritu saintiac hayetçaz cer cioan aiticinetic? (Bp II 72)*
- (84) *Beré boulharrer colpu emaitetz çoaçan, eta oihuz! (Bp II 50)*

AHALEZKOA

- (85) *Hainbercerequi, aiduru nauque cien berriric. (Etchart 7, 2r)*

HIPOTETIKOA

- (86) *Bere nahiz eizten dianac, haren eguin gabez bekhatu laidi. (Bp I 68)*

INPERATIBOA

- (87) *Ô Jauna eguiguçu Mertchedé! (Bp II 62)*
- (88) *Goure Arartecossa, çoure misericordiazco beguiez soguiguçu. (Bp I 150)*
- (89) *Zaude othoi gaiiaz gratian iratzarririk. (Tt Onsa)*
- (90) *Christ emaguçu. (Bp II 62)*
- (91) *Eracaxaçü, cer den dolu hon hori? (Bp I 154)*
- (92) *Eta erroçu Aguostini gaisqui eguin diela (Etchart 7, 2r)*
- (93) *Pozoa idokazu zure arimatik kanporat haren sendatzeko. (Tt Arima)*
- (94) *Indazu edatera beharden izariak eta mesurak gainti eginik ere. (Tt Onsa)*
- (95) *Hilak zuti zitezte, ziaurizte ene iuiamendiaren enzutera. (Tt Onsa)*
- (96) *Zoazte paseura, etzutiet ezagutzen. (Tt Onsa)*

JUSIBOA

- (97) *Zien lanternak, eta lanpak ez beude pisturik. (Tt Onsa)*
- (98) *Bihoa kalitza haur ene ganik. (Tt Onsa)*

SUBJUNTIBOA

- (99) *Gauden bijilant, denbora oroz. (Tt Onsa)*
- (100) *Othoitcen çutut didaçun indar. (Bp I 129)*
- (101) *Bada hanitz eri direnian Iencoari galdo eguiten baitute, sendo ditçan, ossagarria demen penitentia beré bekhatiez eguiteco. (Tt Onsa)*

XVIII. mendeko testuetan adizkera trinkoaren behehitze bat suma daiteke, inperatibozko formen sailean izan ezik. Mounoleren arabera “La variété souletine de Maister ne conserve que la conjugaison synthétique des verbes suivants : **edun*, **eradun*, *izan*, *jakin*, *eduki*, *egon*, *ibili*, *erabili*, *joan* et **io*” (2011: 341). Gure corpusean besteren bat ere ageri da, Maisterrengan bezala³⁵⁶ bestetan ere. Guztira, orainaldian *ebil*, *eduki*, **edun*, *egon*, **eradun*, **idi*, *iraun*, *irudi*, *izan*, *jakin*, *jarraiki* & *joan* (102)-(109); iraganaldian *ebil*, *ediuki*, **edun*, *egon*, *erabil*, *izan* & *jakin* (110)-(112); ahalean **edun*, *egon*, **i(n)*, *izan* & *jakin* (113)-(115); hipotetikoan *eduki*, **edun*, *egon*, *ets*, *izan*, *jakin* & *joan* (116)-(120); optatiboan *edüki* (120) —corpus osoan forma optatibo sintetiko bakarra, *izan* & **edun* parearenez landara—; *b-* moldeko jusiboan *egon*, *izan*, *jaugin* & *joan*; eta subjuntiboan *ebil*, **edun*, *egin*, **eradun*, *ets*, *izan* & *joan*.

ORAINALDIA

- (102) *Jincoua badabila simpleki*. (Mst IV 18, 4)
- (103) *Eucharistiac daduca Jesus-Christen corpitz preciatia* (Othoitze 9)
- (104) *Livertatia badeicut / minça cite bertariq*. (Edipa 033)
- (105) *Nourc daidio soric / Beguiac idorric / Jesus haurari?* (NLilia 5)
- (106) *Çutan glorificaturen, eta boçturen nuçu egunac diraieno*. (Mst III 40, 5)
- (107) [...] *dirudianian heia goraz eta helez*. (Egiat I 20)
- (108) *Jauna banarraicu Othoy soguidaçu* (NLilia 5)
- (109) *Bagouatçu latiç eta uscaraç hen erraitera*. (IP 14)

IRAGANALDIA

- (110) *Ahatia hurilat igerikara bezala laister zabilala*. (Egiat I 4)
- (111) *Bere amaren sabelian cerraturic çagouelariç orano* (Mst IV 17, 3)
- (112) *Haren duda, horrat hounat çarabilana, baratu içan cen*. (Mst I 25, 2)

AHALEZKOA

- (113) *Gracia aldiç deus eguin gabe eçtauke*. (Mst III 54, 3)
- (114) *Cerbait jakhin artio / eztikeçut phausuric*. (Edipa 033)
- (115) *Çoumbatenaç haboro eta hobekiago beitakikeçu, hambatenaç garratçkiago jujatu içanen cira*. (Mst I 2, 3)

HIPOTETIKOA

- (116) *Hobeky endauke, navassiky, / lephoua ondoty trencaturicq, / ecy ez eta goure / compagnan errecevituricq*. (StJul 486)
- (117) *Jincouac balexa aldi bakhoitç bateç ere* [...] (Mst IV 1, 4) (Mst II 12, 13)

³⁵⁶ Gure azterketaren arabera, Maisterren trinkoen zerrenda luzeagoa da: bederen hiru aditz emendatu behar zaizkio: *ets* —(111)-ko etsenpluaz gainera beste bederatzi agerraldirekin—, *iraun* (100) eta *jaugin* —(116)-ko *biaigu* jusiboaz gain, *ciauri* formak zazpi agerraldi ditu—.

- (118) *Afrounteriaz devria / hiq, arauz, eracax iro, / bahekike arteficio / eta igura franco. (StJul 943)*
- (119) *Langer ouste banu / banoundoukec ihessy, / bay eta ezcapa / segurky onxa ederky. (StJul 634)*

OPTATIBOA

- (120) *Bat-bederac baleduca, / Alleduca, alleduca, / Bihoz erdian! (NLilia 9)*

JUSIBOA

- (121) *Beude appart egun / Oro tristurac. (NLilia 12)*
- (122) *Biaigu bere praubegnu houneganat, eta alaguera beça. (Mst III 21, 4)*
- (123) *Hontarziün dianak bihoa hirian ta bürgian, etxez etxe. (Egiat I 28)*

SUBJUNTIBOA

- (124) *Bulgifer, ouste diat hiq / ezpiritu handia diala, / kargaturiq abillala / gathia lukhainkaz beçala. (Edipa 897)*
- (125) *Thempora devetatiez eztaguiala ezteyic. (CatOlo 77)*
- (126) *Ene khostuç hori ikhasi dit, eta Jincouac dexala, eni gougou haboro har eracitceco den, eta eç erhokeriala eiçteco. (Mst III 45, 4)*
- (127) *Gincoac deycula bere bakia eta bethiéreco bicitcia hala biz. (CatOlo 6-7 & 12)*
- (128) *Ene espousa maitia, / gouatçan goure canbarala (StJul 136)*

Erran bezala, inperatibozko forma trinkoen³⁵⁷ lekukotza emendatuz doa XVIII. mendean: *ebil*, *eduki*, *egin* (gehi *so egin*), *egon*, *eitz*, *ekhar*, *eman* (gehi *gogo eman*), *eragin*, *erran*, *erakhuts*, *etxeke*, *ezar*, *ideki*, *igor*, *ikhous*, **i(n)*, *jaugin*, *joan*, *ükhen* & *ütz* (129)-(151). Kasu berezia da *abilua* forma hibridoarena (*abil* + *hoa*), lehen agerraldia Maisterrengan kausitu dugula (130).

- (129) *Abil, abil, maradicatia, / coky traidoria! (StJul 698)*
- (130) *Abiloua eçpiritu theya, ahalke adi miserablia, abilua hi theyu iz (Mst III 6, 4)*

³⁵⁷ Eztabaidatu izan da hainbat aditz iragankorren inperatibozko formak egiazki sintetikoak diren, eta erantzuna forma horien sorrera aditzaren erroitik ala forma perifrastikoen uzkurduatik abiatzen den arabera da. Mounolek auzia iruzkindu du, dudarik gabe forma sintetikoak direla ondorioztatuz:

Depuis Schuchardt (1912 : 312) de nombreux bascologues pensent qu'elles sont issues de la forme périphrastique par contraction de l'auxiliaire : *egotzak* < *egotz (e)zak*, *erakustazue* < *erakuts ieçadaçue*. C'est d'ailleurs pourquoi elles ont tour à tour été nommées *mittleren Form* (Schuchardt 1912 : 132), *hybrides* (1968 : 118), *semisintetiko* Euskaltzaindia (1985 : 362). Cependant, si dans le cas de *egotzak* le scénario proposé est acceptable (neutralisation des deux sifflantes), dans la majorité des cas, il pose de nombreux problèmes du point de vue de la phonétique historique du basque. [...] Si une contraction de l'auxiliaire s'était produite, nous aurions des formes du type **ekarzazu*, **ezarazazu*. En ce qui concerne la voyelle épenthétique *-a*, elle est attestée seulement dans les dialectes orientaux. Sans aucun doute les formes d'impératif de ces verbes ont la même structure morphologique que les auxiliaires **ezan* et *egin* dont la composition synthétique (et non pas périphrastique contractée) radical verbal + suffixes d'agent et de datif n'a jamais été remise en cause. (2011: 92).

Hemen egiazki joskera sintetikoaren bidez eratu adizkiak baizik ez ditugu ematen. Kanpoan utzi ditugu, beraz, aditz "semisintetikoak" edo "sasitrinkoak", hau da, uzkurduaz sortu direnak. Bihoa, horien adigarri, *behakit* 'beha hakim', haplogiaren ondorio (*Chiveroua eta Marceline* 307).

- (131) *Azken oren houra educac gogouan (Othoitce 76)*
 (132) *Neskatilaq so eguidacie / ene manera ederrary. (Edipa 490)*
 (133) *Sogouion, soguin, Basilissa, / Ginco justo hary. (StJul 380)*
 (134) *Jo nezak bena ene elher hago beha. (Egiat I 17)*
 (135) *Berze mündü bat zureztat eragizü. (Egiat I 33)*
 (136) *Ene semia, eic̄taçu çoure buria, eta ni edirenen naiçu. (Mst III 37, 1)*
 (137) *Ekharraq arren suya / eta hiq aldis lastoua. (Edipa 257)*
 (138) *Hil direner emeçu pphausu, / othoyez gautçu. (Ressegue 48)*
 (139) *Bekhatian bacira, Christia, / Gogomaçu, ez hullen hounegana. (Othoitce 60)*
 (140) *Min baici eziana, / Erraguc, erraguc, / Cer pena soffritcen duc? (Othoitce 40)*
 (141) *Erakouxaçu çoure besouaren indarra. (Mst III 34, 4)*
 (142) *Othoy, çoure gracia handia / goureky etchekaçu. (StJul 431)*
 (143) *Eçarçu mundu gucia, Jauna, / çoureganaco bidian. (StJul 1170)*
 (144) *Idecaçu arren Jesusi çoure bihotceco bortha. (Mst II 1, 2)*
 (145) *Igorratçu çoure armac. (Mst III 48, 5)*
 (146) *Ikhousaçu arren, Jauna, ene aphaltarçuna (Mst III 20, 2)*
 (147) *Eske dereic̄ut, madama, / hountarçun horiez oroz (Edipa 316)*
 (148) *Ciaurizté ene aytaz benedicatu içan cireyenac (CatOlo 36)*
 (149) *Zuaza barnilat / zure profetiitan berhala. (Bala eta Bilota 38)*
 (150) *Pietate ukaçu (Othoitce 67)*
 (151) *Desein gaisto hory / utçac, ene semia. (Edipa 984)*

XIX. mendean forma trinkoen lekukotza zifra absolutuetan XVIII. mendekoaren antzekoa gertatu arren, gogoratu behar da gure corpusak anitez testu gehiago biltzen duela mende horrentzat; beraz, inferi daiteke joskera sintetikoaren maiztasunaren behehitze bat. Erranak erran, XVIII. eta XIX. mendeetan joskera sintetikoan lekukotu diren aditzak funtsean bat datoz, bai eta haien paradigmak ere (ikus 74. & 75. TAULAK). Etsenpluen pisua jadaneko handisko delakoan, aditz markagarrietara mugatuko gara, hala *entziün*-en forma berankor bezain estonagarria (165), nola **erion*-en adizkia, (159) adibidetik kanpo Oihenartengan baizik ez duguna ediren edo, hutsa ez bada, *egin*-en agerraldia (160). Oroit bedi **idi* erroaren azken agerraldia 1785ekoa dela, eta *eitz* formarena 1860koa.

- (152) *Bena ecin niaukeçu / erran gabe eguia. (SteEli 330)*
 (153) *Ni ja enuc loxa / cien baten ere, / eci loxa baninz ja / enindiauhec hebe! (SteEli 1198)*
 (154) *Madama, hoxt gouatçan, / lehena hebetche duçu. / Orai arren hortara / bertan ahal gouazketçu. (SteEli 1105)*
 (155) *Eta gentec hortan gaigna / hanitz elhe ciocie. (SteEli 703)*
 (156) *Eci bere bicicleta çaramala barourin, othoyetan eta penitencian. (UskLi 225)*
 (157) *Bi eternitate hoyen artian cirade, biciaren hari flakiac dirayeno. (Medit 63)*
 (158) *Bici hounec diraieno. (HOrdre 81)*
 (159) *Zer düzü esküko hori / xorta dariola? (Saturna 51)*
 (160) *Hun degiziela orai / zien lana eginik. (Boubane 106)*
 (161) *Eta Jinkuak detsala Erregetiar traidore hoiek profeta eztitian, berek erakharri dien estatu miserable hunez. (Chaho AztBeg V)*
 (162) *Aikina beharrune horic gabe, eta ezkunu beste arrancuratic arimaren errekeitatzia baicic! (Ip Imit I 25, 9)*

- (163) *Izkiribatu dudana, bego izkiribaturic. (EvS 19, 22)*
 (164) *Krista jiten datekienian ihourc ere eztakike nounco den. (EvS 7, 27)*
 (165) *Dei hounari badantzut houna. (SGrat 5)*
 (166) *Liguiar batec ere ciouan [...] (SGrat 8)*

Bestalde, XIX. mendean inperatibo trinkoen erabilera ongi lekukotua da, joskera sintetikoaren beheititzeari kontrajartzen ahal zaion bakarra. XVIII. mendeko adibide sortaren antzekoa genuke XIX.ekoa, ondoko aditzen formez osatua: *ebil, eduki, egin* (gehi *so egin*), *egon, ekhar, eman* (gehi *gogo eman*), *eraman, erran, ethor, etxeki, ezar, hunki, ideki, idoki, ikhus, *i(n), jaugin, joan, ükhen & ützüü*; markagarrienak, beharbada, *hunki* (167), *idoki* (168), eta *ützüü* (170) aditzenak dira.³⁵⁸

- (167) *adio orai Zoma / esquia houncadaq (Xarlem 1264)*
 (168) *Halihatan idocadaq / othoicen ait biçia (Xarlem 1001)*
 (169) *Erhaustürik, eta ikhusazü nola. (Ip Dial 3)*
 (170) *Bena jaunana lati hori / eztizigü kunprenitzen. / Ützülagüzü üskarala, / eia zer erran nahi den. (Saturna 320)*

74. TAULAK adizkera trinkoaren agerpena laburbiltzen du, garaika eta balioka. Corpuseko testuen garaien arteko desoreka kuantitatiboa gogoan, soño arin bat aski da joera orokorraz ohartzeko, beheiti baitoa salbu, erran den bezala, inperatiboen sailean.

³⁵⁸ Inchauspek ohikotzak hartzen ditu inperatibo trinkoak. *Ebil & jakin* aditzen formez gainera, ondokoak dakartza: “*égik, égin, egizu, egizíe ; émak, éman, emázu, emazie ; háigu pour jin hádi ; tziáuri et zátó pour jin zíte ; tziáuste et zatozte pour jin zitié ; indak pour éman izádak, índan, indázu, indazíe ‘donne à moi’ [...] ; íguk pour éman izaguk, ígun, igúzu, iguzíe ‘donne à nous’ [...] ; biáigu et biauri pour jin bédi ; biaúde pour jin bíte*” (1858 : 468-469).

74. TAULA. Joskera sintetikoa Zuberoan, mendeka eta balioka.

	XVI. m.	XVII. m.	XVIII. m.	XIX. m.
orain	<i>ebaki</i> , ebil, eduki, *edun, egin, egon, ekhar, eman, erabil, <i>eragotz</i> , <i>erahatzi</i> , *eraidi, eraman, <i>eraunts</i> , <i>eror</i> , <i>eros</i> , ets, ezagüt, *idi, ikhus, *i(n), *io, <i>irakin</i> , irau, irudi, izan, jakin, jarraiki, joan, <i>onhets</i> .	ebil, <i>edeki</i> , eduki, *edun, egin, egon, ekhar, entzün, erabil, *eradun, <i>erakhar</i> , <i>erakhuts</i> , eraman, <i>eratzan</i> , *erion, eritz, eroan, erran, <i>ethor</i> , etxekei, <i>etzan</i> , <i>ezagüt</i> , *idi, <i>igor</i> , ikhus, *i(n), <i>ihardets</i> , *io, irau, *iron, irudi, izan, <i>jaits</i> , jakin, jarraiki, jaugin, joan, <i>utz</i> .	ebil, eduki, *edun, egon, *eradun, *idi, *io, irau, *iron, irudi, izan, jakin, jarraiki, jaugin, joan.	ebil, eduki, *edun, egon, entzün, *eradun, eraman, *erion, *io, irau, *iron, izan, jakin, jaugin, joan.
iragan	ebil, edüki, *edun, egon, <i>idoki</i> , izan, jakin, joan.	ebil, eduki, *edun, egin, egon, <i>erakhuts</i> , *erion, etzan, *idi, <i>ihardets</i> , *io, <i>irudi</i> , izan, jaugin, joan.	ebil, eduki, *edun, egon, erabil, *io, izan, joan.	ebil, eduki, *edun, egon, eraman, *io, izan, joan.
ahal	*edun, egon, egotz, ekhar, ezagüt, *idi, <i>ikhuz</i> , izan, jakin.	eduki, *edun, egon, erakhar, erakhuts, erran, irau, izan, jakin.	*edun, egon, *i(n), izan, jakin.	*edun, egon, izan, jakin, joan.
hipotetiko	*edun, erakhar, *idi, izan.	edas, *edun, egon, erakhar, eritz, <i>eros</i> , erran, ethor, ets, *idi, *io, izan, jakin.	eduki, *edun, egon, ets, izan, jakin, joan.	*edun, egon, *eradun, ets, izan, jakin.
opt.	-	-	eduki.	*edun, izan.
imperatibo	egin, eman, erakhar, <i>erho</i> , etxekei, ezar, -i(n), <i>utz</i> .	ebil, eduki, *edun, egin, egon, eman, erakhats, erran, <i>ethor</i> , etxekei, <i>ezagüt</i> , idoki, *i(n), jaugin, <i>jaurets</i> , joan, <i>sinhets</i> .	ebil, eduki, egin, egon, eitz, ekhar, eman, eragin, erakuts, erran, etxekei, ezar, ideki, igor, ikhus, *i(n), jaugin, joan, ükhen, üt.	ebil, eduki, egin, egon, ekhar, eman, eraman, erran, ethor, etxekei, ezar, hunki, ideki, idoki, ikhus, *i(n), jaugin, joan, ükhen, ütül.
jusibo	*edun, egon, izan, jakin, jarraiki.	*edun, egin, egon, <i>ethor</i> , -io-, izan, jakin, joan.	egon, izan, jaugin, joan.	egon, izan, joan.
subj.	egin, eman, eritz, erran, *i(n), izan, <i>utz</i> .	ebil, *edun, egin, egon, eman, etxekei, *i(n), izan.	ebil, *edun, egin, *eradun, ets, izan, joan.	ebil, *edun, *eradun, ets, izan, joan.

* Letra etzanaz ematen direnak Oihenarten testuetan baizik ez dira ageri.

Orain arteko datuak lau mendeetan bereizi gabe bi aldietan banatuz gero, irudia argiago bihurtzen da (75. TAULA).

75. TAULA. Joskera sintetikoa Zuberoan, bi alditan bereizita.

	XVI eta XVII. mendeak	XVIII eta XIX. mendeak
orain	<u>ebaki</u> , ebil, <u>edeki</u> , eduki, *edun, egin, egon, ekhar, eman, entzün, erabil, *eradun, <u>eragotz</u> , <u>erahatzi</u> , *eraidi, <u>erakhar</u> , <u>erakhuts</u> , eraman, [*erion], <u>eratzan</u> , <u>eraunts</u> , *erion, eritz, eroan, <u>eror</u> , <u>eros</u> , erran, <u>ethor</u> , etxekei, ets, <u>etzan</u> , ezagüt, *idi, <u>igor</u> , ikhus, *i(n), <u>ihardets</u> , *io, <u>irakin</u> , irau, *iron, irudi, izan, <u>jaits</u> , jakin, jarraiki, jaugin, joan, <u>onhets</u> & <u>utz</u> .	ebil, eduki, *edun, egon, entzün, *eradun, eraman, *erion, *idi, *io, irau, *iron, irudi, izan, jakin, jarraiki, jaugin & joan.
iragan	ebil, eduki, *edun, egin, egon, [erabil], <u>erakhuts</u> , [eraman], *erion, etzan, *idi, <u>idoki</u> , <u>ihardets</u> , *io, <u>irudi</u> , izan, jakin, jaugin & joan.	ebil, eduki, *edun, egon, erabil, eraman, *io, izan & joan.
ahal	eduki, *edun, egon, egotzi, ekhar, erakhar, erakhuts, erran, ezagüt, *idi, [*i(n)], <u>ikhuz</u> , irau, izan, jakin & [joan].	egon, *edun, *i(n), izan, jakin & joan.
hipotetiko	<u>edas</u> , eduki, *edun, egon, [*eradun], <u>erakhar</u> , eritz, <u>eros</u> , <u>erran</u> , <u>ethor</u> , ets, *idi, *io, izan, jakin & [joan].	eduki, *edun, egon, *eradun, ets, izan, jakin & joan.
opt.	-	*edun, eduki & izan
imperatibo	ebil, eduki, *edun, egin, egon, eman, erakhar, <u>erho</u> , erakhats, erran, <u>ethor</u> , etxekei, <u>ezagüt</u> , ezar, idoki, -i(n), jaugin, <u>jaurets</u> , joan, <u>sinhets</u> & utz.	ebil, eduki, egin, egon, eitz, ekhar, eman, eragin, erakuts, eraman, erran, ethor, etxekei, ezar, hunki, ideki, igor, idoki, ikhus, *i(n), jaugin, joan, ükhen, üt & ütül.
jusibo	*edun, egin, egon, <u>ethor</u> , <u>-io-</u> , izan, jakin, jarraiki, [jaugin] & joan.	egon, izan, jaugin, joan.
subj.	ebil, *edun, egin, egon, eman, eritz, erran, etxekei, *i(n), izan, [joan] & <u>utz</u> .	ebil, *edun, *eradun, ets, izan & joan.

* Aditz azpimarkatuen forma trinkoak Oihenarten testuetan baizik ez dira ageri.

3.3.2. Joskera sintetikoa vs. perifrastikoa: konparantza bat

Puntu honetaraino iritsita, falta litzateke aditz sintetikoak horiei dagozkien forma perifrastikoekin erka genitzan. Nahiz eta eginkizun hori ez dugun osoki beteko, konparantzarako helduleku bat edo beste eskaini nahi genuke. Hortaz, 76. TAULAN *eman*-en inperatibozko forma jokatu guztiak bildu ditugu, trinko ala perifrastiko. Iduri luke diferentzia

nagusia balentzien araberakoa dela: inperatibo hirupertsonaletan joera forma trinkoen aldekoa bada, bipertsonaletan kontrakoa deskriba daiteke.

76. TAULA. *Eman* aditzaren inperatibozko formak.

	SINTETIKO		PERIFRASTIKO	
	NN	NNN	NN	NNN
	<i>emak</i>	<i>emada- -k</i>	<i>ezak</i>	<i>ezada- -k</i>
	<i>eman</i>	<i>emo- -n</i>	<i>ezan</i>	<i>ezada- -n</i>
	<i>emazü</i>	<i>emagu- -zü</i>	<i>ezazü</i>	<i>ezo- ezagu- -zü</i>
	<i>emazie</i>	<i>eme- -zie</i>	<i>ezazie</i>	<i>eze- -zie</i>
<i>O Pro</i> ca.1600	3	-	-	-
<i>Tt Onsa</i> 1666	5	-	5	-
<i>Tt Arima</i> 1672	2	2	-	-
<i>Bp</i> 1696	-	2	-	-
<i>CatOlo</i> 1706	-	1	1	4
<i>Othoitce</i> 1734	-	7	-	-
<i>Mst</i> 1757	19	19	3	-
<i>IP</i> 1757	1	1	-	-
<i>Ressegue</i> 1758	1	3	-	-
<i>Petit Jean</i> 1769	1	-	1	2
<i>StJul</i> 1770	8	9	2	6
<i>Mercy</i> 1780	-	-	-	1
<i>NLilia</i> 1782	-	1	-	2
<i>Egiat I</i> 1785	4	-	-	-
<i>Bala</i> 1788	1	-	-	-
<i>Jouanic H.</i> 1788	-	2	-	1
<i>Boubane</i>	2	-	-	3
<i>Chiveroua</i>	11	-	-	-
<i>Edipa</i> 1793	6	7	2	8
<i>Xarlem</i> ca.1800	10	5	-	7
<i>SteEli</i> ca.1810	5	8	-	2
<i>Malqu</i> 1808	1	1	-	-
<i>DKhi</i> 1812	-	-	1	4
<i>UskLi</i> 1814	1	3	2	6
<i>Khurutch</i> 1838	-	-	-	1
<i>Medit</i> 1844	1	14	-	1
<i>Ip KurBD</i> 1847	1	3	-	-
<i>CanBel</i> 1848	4	-	-	1
<i>Etchahun</i>	1	-	-	1
<i>Chaho</i>	2	-	-	1
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	4	-	-
<i>Myst</i> 1856	2	-	-	18
<i>HOrdre</i> 1860	-	-	-	13
<i>EvS</i> 1873	-	-	-	2
<i>SGrat</i> 1879	1	-	-	-
<i>Oro</i>	93	92	17	94

Eman aditzaren azterketaz gain, beste kasu batzuk aipa daitezke, hala nola *iraun* aditzarena. Agerraldi guztiak aztertu ondoan, joser sintetikoaren eta perifrastikoaren arteko diferentziak hauteman ditugu: Oihenarten testuetan *-(te)(ke)* modalaren balioetarik bat hartzen du —morfema hori hartu ala ez—, Mounolek “egia orokorra” deitzen duena (2012). Geroko etsenplu guztietan egungo *irauten dueno* / *duen bitartean* konprenitzen da, joser trinkoa ala perifrastikoa izan:

- (171) *Jokorik hobena, gutien dirauena.* (O Pro 270)
- (172) *Ezin dirauke beti ehoi* (O Po XVII)
- (173) *Orano çortci erriac dirayano, ahalaz Meça saintia ençun behar liçatê.* (Bp II 86)
- (174) *Çutan glorificaturen, eta boçturen nuçu egunac diraieno.* (Mst III 40, 5)
- (175) *Ene hounec iraiten duieno.* (StJul 212)
- (176) *Hounec iraiten duiano / taharnan onxa içanen niz.* (StJul 214)
- (177) *Eta hoiec iraiten duieno / onxa içanen niz.* (StJul 219)
- (178) *Eta mezak diraieno debozione handi bateki othoitziak egin.* (CatS)
- (179) *Bi eternitate hoyen artian cirade, biciaren hari flakiac dirayeno.* (Medit 63)
- (180) *Bici hounec diraieno.* (HOrdre 81)

Azkenik, balio bezate Anna Urrutyren ebanjelioaren ondoko pasarteek *ebil*, *egon* edo *joan* aditzen forma trinkoen eta perifrastikoen ñabardura aspektualen ilustratzeko (181)-(189). Oro har, iraganeko trinkoak goian ezarri denari hertsatzen zaizkio, hots, *passé narratif* delakoaren balioari. Aldiz, inperfektibozko forma perifrastikoak ez dira beti ohiturari edo ekintzaren errepikatzeari lotzen: hola, (182)-ko *egoiten cen* eta (187)-ko *jouaiten cen*, biak konprenitzen ditugu *çagouen* eta *çouen* gisara, hurrenez hurren.

- (181) *Jouan ciren eta ikhoussi cien noun çagouen; eta egon ciren egun hartan hareki* (EvS 1, 39)
- (182) *Eta jouan cen orano Jourdaingnaren beste aldiala, Johanec hasteti batheyatcen cian lekhiala, eta han egoiten cen.* (EvS 10, 39)
- (183) *Eguiazki, eguiazki erraiten deiciet ogui bihi lurrian eraiten dena, ezpada hiltcen, egoiten da bera; bena hiltcen bada, ekharten du fruta hanitx.* (EvS 12, 24)
- (184) *Eta Jesus baçabilan harat hounat Templian, Salomonen galerian.* (EvS 10, 23)
- (185) *Jesusec erran ceren orano: banoua, eta tchercatuco naicie; bena cien bekhatian hilen cirade, etciade jiten ahal ni nouan lekhialat.* (EvS 8, 21)
- (186) *Gaztiago cinenian, cihau guerricatcen cinen eta cihau nahi cinen aldialat jouaiten.* (EvS 21, 18)
- (187) *Hartu cien berhala barkhan; eta ber mementouan barkha heltu cen jouaiten cien lekhiala.* (EvS 6, 21)
- (188) *Hartacoz Jesus etcen ebilten aguerriki Judiouen artian; bena jouan cen bortu heguiala, Eprahim deitcen cen herri batetara; eta han egoiten cen bere dicipulieki.* (EvS 11, 54)
- (189) *Hourac Jesusec tcherkhatcen çabiltçan, ciouelarie alkhari Templian* (EvS 11, 56)

3.4. Zuberoako datuak bilakaera orokorrean kokatuz

Mounolek honela laburbiltzen du euskara osoan XVI. mendetik XVIII.era obratu zen kanbiamendua:

Aditz trinkoek paradigma andana bat galdu dute (iragan narratiboa, geroaldia, potentziala, eta subjuntiboa), eta konjugazio sintetikoa daukaten aditzen kopurua erdira jautsi da. Forma sintetikoak atxiki dituzten aditzak maiztasun handienekoak dira, eta haien artean, aditz estatiboak dira nagusi (2011: vii).

Zuberoako euskarari hertsatuz, 1. eta 2. taulek jasotzen dutenaren arabera, garai guztietan kasik balio guztiak lekukotu ditugu. Alta, garrantzizkoena ez da hori, denborarekin joskera sintetikoa erakusten duten aditzen kopurua beheiti doala baizik, aditz usatuenen multzoan gertatzeraino. Urritzeko, bakantzeko joera orokorrari oposa dakioken salbuespen bakarra inperatiboan atzeman dugu: paradigma hori emankorra da aldi historikoan zehar. Euskara Arkaikoaren joskera sintetikoaren azterketaren ondorioa haxe da Mounolarentzat:

Les textes les plus archaïques font état d'une conjugaison synthétique. Néanmoins, pour le 16^{ème} siècle, celle-ci est déjà bien menacée : certains paradigmes (futur et passé narratif) sont en voie de disparition, et les formes synthétiques d'un grand nombre de verbes ne semblent être que les fossiles d'un usage beaucoup plus courant antérieurement. Même les verbes qui, à première vue, semblent conserver leur conjugaison synthétique sont touchés par l'expansion des constructions périphrastiques. (2011: 338)

Gure corpusean XV. eta XVI. mendekotzat har genitzakeen testuak oro Belaren, Zalgizeren eta Oihenarten erran zaharrak dira. Haietan aditz trinkoen testigantza oparoena Oihenartena da; gehiago dena: eta atsotitzetan ez ezik, haren sorkuntzazko olerkiek ere XVII. mendeko gainerako testuek baino datu aberatsagoak ematen dituzte.

Mounoleren ondorioekin jarraituz, XVIII. menderako forma sintetikoen lekua marjinala da aditz sisteman. Hasteko, lehenagoko funtzio batzuk galdu dituzte (2011: 339):

- Iragan narratiboa.
- Geroaldia: *-te* / *-ke* morfemaren bidezko formak barietate gehienetarik desagertu dira. Lapurdiko eta Zuberoako idazleek *izan*, **edun* eta *jakin* aditzen formak baizik ez dituzte gorde.
- Subjuntiboa: soilik atzematen du Etxeberri Sarakoa, Maister, Urte eta Lubietaren testuetan. XVIII. eta XIX. mendeetan gure corpusak *izan*, **edun*, *ebil*, **eradun* eta *joan* aditzen subjuntiboazko forma trinkoak ematen ditu.

- Potentziala: *-te / -ke* morfemaren bilakaera errezesibo orokorrean kokatzen da potentzialaren galtzea.

Beraz, Mounolerentzat iraun duten paradigmak orainaldikoa, iragan burutugabekoa eta inperatibokoa baizik ez dira, eta horietan ere zenbait aditzen forma trinkoak perifrastikoez ordezkaturik izan dira. Gure datuek deskripzio hori bermatzen dute; halere, bilakaera mantsoagoa iradoki lezakete, batez ere geroaldiari eta potentzialari doakienean.³⁵⁹ Subjuntiboaz denaz bezainbatean, XVIII. eta XIX. mendeetako testuetan *ebil*, **edun*, **eradun*, *izan* eta *joan* aditzen forma trinkoak ageri dira.

Bestalde, ez dugu atzeman Etxeparek eta Leizarragak lekukotzen duten *-ngu-* erro supletiboaren aztarnarik, ez eta *urgatzi-*ren forma trinkorik; bai, ordea, **eradun* eta **i(n)* parearen erabilera sintetikoa, berant arte ere —*eman* aditzaren suplezioaz, ikus § 1.2.5). Oraino beste arkaismo bat lekukotu dugu: **-idi-* erroaren iraupena, joskera perifrastikoan ez ezik († 1785), sintetikoan ere († 1782) —**idi* erroaren lekukotza osoarentzat, ikus. VI, 4.2.3, bai eta 101. TAULA ere—.

Finitzeko, ekialdean paradoxa bat gertatzen da joskera sintetikoaren ordezkatzean: batetik, prozesua goiztiarrago dateke mendebalean baino; bestetik, ekialdeko mintzoek luzazkiago atxikiko dituzte joskera sintetikoaren paradigma batzuek:

Leizarraga est l'auteur du 16ème siècle qui a le plus souvent recours aux formes périphrastiques avec les verbes disposant d'une conjugaison fléchie. [...] Chez Maister également, la diminution des emplois synthétiques est plus avancée que chez les autres auteurs de l'époque" (Mounole 2011: 341)

[...] Néanmoins, paradoxalement, les orientaux sont les seuls à conserver les derniers usages des formes synthétiques à valeur de futur, potentiel, et subjonctif, en voie de disparition. (2011: 342)

³⁵⁹ Etsenplutako, *-(te)(ke)* morfema modalarekiko trinkoen testigantza urrun da urria izatetik: XVIII. mendean Maisterrek *egon* ere ematen du (*eçtauke*), balio potentzialean, bai eta *Edipa* trajeriak (*ecin nauque* 54). XIX. mendean *Malqu* astolasterra (*enauke*) eta *Sainte Elisabeth* trajeria (*eni-aukeçu*) ber erabileraren lekuko dira. *Jakin* aditza maizago aurkitu da *-ke* morfemaz hornitua: *St. Julien*, *Mercy*, *Eguiateguy*, *Charlemagne*, *Ste. Elisabeth*, *Malqu*, *CanBel*, *Archu*, *Etchahun*... 1873an Anna Urrutyk geroaldi garbiko *eztakike* ematen du (164). *Joan* aditza ere *-(te)(ke)* morfemaz ageri da XIX. mendean. Halako adizkien kontu zehatz batentzat, ikus VI, § 4.2.1.

3.5. Ondorioak

Zuberoan garai historikoan forma trinkorik eman duten aditz eta erroak oro 64 dira: *ebaki, ebil, edas, edeki, eduki, *edun, egin, egon, egotz, eitz, ekhar, eman, entzün, erabil, *eradun, eragin, eragotz, erahatzi, *eraidi, erakhar, erakhats, erakhuts, eraman, eratzan, eroan, eraunts, erho, *erion, eritz, eror, eros, erran, ethor, etxeke, ets, etzan, ezagüt, ezar, hunki, ideki, *idi, idoki, igor, ikhus, ikhuz, *i(n), ihardets, *io, irakin, iracun, *iron, irudi, izan, jaits, jakin, jarraiki, jaugin, jaurets, joan, onhets, ükhen, sinhets, utz & ützü. 64 aditz horietarik XVIII. eta XIX. mendeetan 39 lekukotu dira —eta 39etarik 15 soilik inperatiboan—: *ebil, eduki, *edun, egin, egon, eitz, ekhar, eman, entzün, erabil, *eradun, eragin, erakuts, eraman, *erion, erran, ethor, ets, etxeke, ezar, hunki, ideki, *idi, idoki, igor, ikhus, *i(n), *io, iracun, *iron, irudi, izan, jakin, jarraiki, jaugin, joan, ükhen, üt & ützü.**

Forma trinkoak ondoko balioen arabera sailkatu ditugu, mende bakoitzeko: orainaldia, iraganaldia, ahalezkoa, hipotetikoa, optatiboa, inperatiboa, jusiboa eta subjuntiboa. Paradigma hauek guztiak ordezkaturik ageri dira lau mendeetan; aldiz, horien arabera jokaturik aurkitu diren aditzak geroz eta gutxiago dira. Jadanik Oihenarten garaian zerrenda horretako dozena bat aditzek agerraldi bakarra dute Zuberoako corpusean —edo euskara osoan ere—: *ebaki, edeki, eragotz, erahatzi, eratzan, eraunts, erho, idoki, ikhuz, irakin, jaurets & onhets.* Beste zenbait bizpahiru aldiz baizik ez da ageri; hortaz, joskera sintetikoa zaharkitua, kamustua eta galtzen hasia agertzen zaigu lehenbiziko testuetan.

Testu zaharretan Oihenartek aipamen berezia merezi du, aditz sistemaren atal honetan Euskara Arkaikoaren lekukotzat har baitezakegu. Atsotitzetan bezala olerkietan ere, haren aditz sintetikoen oparotasunak XVII. mendeko gainerako testuetakoena gaingitzen du. Gure corpusak testu arkaiko gehiagoren ments lukeen arren, ezar dezakegu XVI. mendetik XIX. mendera bitartean aditzaren molde trinkoak behehitze bat patitu duela, hala bere paradigmatan nola horietan jokatzeko diren aditzen multzoan. Horrekiko kontrastean, Zuberoako euskarak zenbait ezaugarri arkaiko atxiki du adizkera trinkoan, nagusiki *-(te)(ke)* morfemaren erabilera.

VI. KAPITULUA

ADITZ SISTEMA: MODUA ETA MODALTASUNA

1. Ahalezkotasunaren adierazpena
2. Aginduen adierazpena
3. Desioa eta igurikimena: optatiboa eta gainerako adierazpideak
4. Baldintzazko zenbait egituren azterketa

1. Aginduen adierazpena

- 1.1. Kontzeptualizazioa
- 1.2. Promisiboaren adierazpena
 - 1.2.1. Puntu orokorrak
 - 1.2.2. Zuberoako testuen lekukotza
- 1.3. Exhortatiboaren adierazpena: **edun* vs. **ezan*
 - 1.3.1. Kontzeptualizazioa
 - 1.3.2. Euskararen exhortatibo berriak
 - 1.3.3. Exhortatiboak Zuberoako testuetan gaindi
 - 1.3.3.1. [**edun* + aditzoin] egitura ABS singularraz
 - 1.3.3.2. [**edun* + aditzoin] egitura ABS pluralaz
 - 1.3.3.3. **Ezan*-ekiko exhortatiboak
 - 1.3.4. Ikuspegi diakronikoa
 - 1.3.4.1. Bilakabide historikoa
 - 1.3.4.2. Sorburuaren inguruko hipotesia
- 1.4. Inperatiboaren adierazpena
 - 1.4.1. Sarrera
 - 1.4.2. Inperatiboa euskararen historian
 - 1.4.3. Inperatiboaren adierazpena Zuberoako euskaran
 - 1.4.3.1. Irangaitzen inperatibo perifrastikoak [aditzoin + **edin*]
 - 1.4.3.1.1. Baiezko perpausetan
 - 1.4.3.1.2. Ezezko perpausetan
 - 1.4.3.2. Irangankorren inperatibo perifrastikoak [aditzoin + **ezan*]
 - 1.4.3.2.1. Baiezko perpausetan
 - 1.4.3.2.2. Ezezko perpausetan
 - 1.4.3.2.3. Ohar bat **ezan*-en forma triperpersonalez
 - 1.4.3.3. Inperatibo sintetikoak
 - 1.4.3.3.1. *Izan* & **edun* aditzen inperatibo sintetikoak
 - 1.4.3.3.2. Gainerako aditzen inperatibozko forma sintetikoak
 - 1.4.3.4. Subjuntiboan oinarritutako formak baiezko perpausetan
 - 1.4.3.5. Inperatiboa geroaldiari buruz bihurtua
 - 1.4.3.5.1. Inperatibozko forma *-ke*-dunak
 - 1.4.3.5.2. [part. prosp. + *izan* & **edun*] perifrasiak
- 1.5. Jusiboaren adierazpena
 - 1.5.1. Sarrera
 - 1.5.2. Jusiboaren adierazpena euskaraz
 - 1.5.2.1. *B*- aurrizkidun formak
 - 1.5.2.2. Oraineko formak + *-(e)la*
 - 1.5.3. Jusiboaren adierazpena Zuberoako testuetan
 - 1.5.3.1. [*B*-erro] moldeko jusiboak
 - 1.5.3.2. [*B*- + orainaldiko **edin* & **ezan*] moldeko jusiboak
 - 1.5.3.3. [+orain + *-(a)la*] moldeko jusibo sintetikoak
 - 1.5.3.4. [+orain + *-(a)la*] moldeko jusibo analitikoak
 - 1.5.3.5. Jusiboa geroaldiari buruz igorria
 - 1.5.4. Iruzkin diakronikoa
- 1.6. Ondorioak

1.1. Kontzeptualizazioa

Tesi honek aditz sistemari eskaintzen dizkion hiru kapituluetarik azkena den hau moduari eta modaltasunari eskainia da. VI. kapituluaren lehen atal honetan usuenik *inperatibo* edo *agintera* deitu izan den modua aztertuko dugu edo, hobe erraiteko, moduen multzoa. Deus baino lehen, kontzeptuen zedarriztatzea komeni da: manua zein pertsonari zuzentzen zaion kontuan izanik, eta hertsiki mintzatuz, 2. pertsonak baizik ez du agindu bat jasotzen ahal.

Addressee-oriented imperatives will be called canonical imperatives, or imperatives in a narrow sense. In many languages, non-addressee-oriented command forms — or noncanonical imperatives — stand apart from canonical imperatives. The term 'jussive' covers commands to third person, and 'hortative' describes commands to first person. (Aikhenvald 2008: 3)

Euskal aditzak badu bide morfologiko bat inperatiboaren eratzeko: joskera perifrastikoan, **edin & *ezan* laguntzailearen oraineko formetan oinarriturik, konpletibozko atzizkirik gabe (*z-a-ite-z*), iragankorretan ezkerreko *d-* kendurik (*ø-e-za-zu*); joskera trinkoan oraineko formak baliatzen dira (*zatoz, hago*). Horietaz gainera, forma jokatu gabek ere balia ahal daitezke: aditzoina ala partizipio perfektiboa, hizkera eta garaiaren arabera.

2. pertsonaz landa egiten diren manuentzat *jusibo* terminoa proposatu da (Trask 1993; Oyharçabal 2000, Loos, Anderson, Day, Jordan & Wingate d.g.). Euskararentzat adiera zabalago batez erabili izan da *jusibo* terminoa, hots, 2. pertsonaz landako aginduak adierazteko baliatzen diren egiturak (Mounole 2011; Gómez & Mounole 2017). Euskarak, zentzu hertsian, badu 3. pertsonako jusiborik, *b-* aurrizkiaren bidez gauzatzen dena: *bira, bego, bezate* (Oyharçabal 2000); *b-*dun horietaz gain badira subjuntiboaren gainean eraturitako formak (*etor dadila, egin dezatela*).

Bestalde, 1. pertsonako egiturak *subjuntibo* deitura pean bildu izan dira, morfologikoki subjuntiboak bezalakoak baitira (*ikus dezagun, goazen, erran dezadan*), bai eta *inperatibo* edo *agintera* gisara ere. Gure ustez, 1. eta 3. pertsonen artean bereizi behar da, euskarak baliabide morfologiko bat duelako 3. pertsonari zuzenduak zaizkion manuen adierazteko. Tesi honetan, beraz, *jusibo* terminoaren adiera hertsia hobetsiko dugu, euskarari hobeki egokitzen zaiolakoan. Ondorioz, 1. pertsona pluraleko egitura batzuentzat, subjuntiboaren gainean eraikiak —ez subjuntiboaren gainean eratzen direnak oro, baizik eta perpaus nagusitzat hartzen ahal ditugunak—, *exhortatibo* erabiltzea proposatzen dugu: “Exhortative clauses are used to urge that the speaker and addressee do something together” (Zanuttini, Pak & Portner 2011: 3).

Azkenik, 1. pertsonaz formula daitezkeen bestelako “aginduak” aipatu behar ditugu. Solaskidea 1. pertsona horretatik kanpo gelditzen bada *promisibo* batez mintzo gaitzke — plural ez-inklusiboa, maizenik singularreko 1. pertsonaz—. Euskaraz *promisiboak* morfologikoki subjuntibozko egiturak dira (*ikus dezagun, dugun edan, erran dezadan*), betiere perpaus nagusi batean. Inperatibo, *promisibo* eta exhortatiboaren arteko desberdintasunak honela laburbil daitezke:

Just as the subject of an imperative is associated with the addressee, the subject of a promissive is restricted in interpretation to the speaker, and that of an exhortative to the speaker and addressee together. Grammatically speaking, the subject of an imperative is second person, that of a promissive is first person singular or plural exclusive of the addressee, and that of an exhortative is first person plural inclusive of the addressee (Zanuttini, Pak & Portner 2011: 3).

Horren arrabera, agindu edo manuen azterketa lau ataletan egituratuko da: *promisiboa* (§ 1.2), *exhortatiboa* (§ 1.3), *inperatiboa* (§ 1.4) eta *jusiboa* (§ 1.5). Azkenik, datuetarik atera daitezkeen ondorio diakronikoetara etorriko gara (§ 1.6)

1.2. Promisiboaren adierazpena

1.2.1. Puntu orokorrak

Erran den bezala, euskararen *promisiboa* perpaus nagusietako 1. pertsonako subjuntiboan gauzatzen da, solaskidea 1. pertsona horretatik baztertuz formulatzen delarik. Praktikan, 1. pertsona singularreko subjuntibozko egitura guztiak har daitezke *promisibotzat*, baldin eta perpaus nagusi gisara jokatuak badira; pluralean, aldiz, anitzez ere gutxiago izaten dira *promisiboak*, usuenik 1. pertsona pluralak solaskidea edo irakurlea bere baitan hartzen baitu —beraz, *exhortatibo* izaten da—.

Printzipioz euskarak ez du bide morfologiko berezirik *promisiboen* adierazteko: *natorren, itzul nadin, erran dezadan* (edo *dezagun*) orainaldiko formak baliatzen dira. Hori erranik, ekialdeko mintzoetan mendeko perpaus finalak partikula baten bidez markatuak diren heinean (*amorekatik, arren, ezi...*), subjuntibo morfologiko soilaren agerpena gero eta gehiago lotzen ahal zaio *promisiboaren* adierazpenari. Zuberoan, gainera, XIX. mendeko zenbait testutan *-(a)la* atzizkiaren erabilpena azaleratuko da, eta salbuespen gisa **edun* aditza laguntzaile gisara ageriko, ordena markatuarekin (*dudan egin*).

1.2.2. Zuberoako testuen lekukotza

Joskera analitikoan singularreko promisihoak arazorik gabe lekukotzen dira, testu zaharrenetarik. Aldiz, Zuberoan arras guti dira promisiho sintetikoak; urritasun hori, menturaz, adizkera sintetikoaren bilakaeraren barnean esplikatzekoa da. Molde analitikoan, beraz, *nadin* (*nakion...*) forma erabiltzen da aditz iragangaitzetan, eta iragankorretan *dezadan* (*zitzadan...*). Menturaz irakurlearekiko solasean bezala idazten baitu, Tartasek beste egileek baino maizago baliatzen du promisihoak; behin ordena markatua ematen du (2). Kasu gehienez aditza perpausaren hastapenean agertzen da:

- (1) *Sobera egon enadin zuri erran gabe, zerden ene bidia.* (Tt Onsa)
- (2) *Neure oherat Ioan gabe hillen niz; dezadan iguruki neure orena estatu onian.* (Tt Onsa)
- (3) *Labur erran dezadan.* (Tt Onsa)
- (4) *Jesus-Christ goure Jaunaren merechiez bici eta hil nadin Gincoaren gracian.* (Bp I 130 & 137)
- (5) *Ene Ginco Jauna, ičan nadin bethi fidel secretian, modest publikian, exemplu hounetaco ene conversacionian, eta chuchen ene condutan.* (Othoitce 34-35)
- (6) *Esteca nadin bethiere naturaren goitcera.* (Othoitce 35)
- (7) *Khanta dezadan amuriozko kantikua, zuri zelialat, ene maitia, jarraiki nadin, boztariozko amuriuak ene arima zure laidariuetan engoxa erazi dezan.* (Mst III 5, 6)
- (8) *Khanta dezadan amuriozko kantikua.* (Mst III 5, 6)
- (9) *Aitaren, Semiaren eta / Spiritu Sainiaren icenian, / oro triumfanky / garait ahal deçadan.* (StJul 535)
- (10) *Eran deçadan labursky / cerc nayan lotxatcen.* (Edipa 015)
- (11) *Gincoua ofenxatu gabe / bici nadin mundian, / eta laida eta adora deçadan / celuko khorte handian.* (SteEli 71)
- (12) *Horren erranaren contre / justifika nadin bertan.* (SteEli 509)
- (13) *Laida eta adora citçadan / çoure gloria saintian, / eta ičan ahal nadin / salbatien herrenkian.* (SteEli 995)
- (14) *Orai examina deçadan ene buria, consulta deçadan ene bihotça: beguiratu othe dut souein proximouaren maithatceco? (Medit 117)*

XIX. mende erditsuan *-(a)la* atzizkia azaleratzen da, aditz iragangaitz nahiz iragankorretan. Lehen agerraldia *Uscara libriak* aitzinatzen du, bakanki (15): gainerakoei mende erdia kentzen die: 1852ko *Maiatza*, *Mariaren Hilabetia*, 1856ko *Mysterio edo Eguia Guehienac* — eta honetarik berriz hartuak 1860ko *Heren-ordreco escu libria*—. (19) (24) adibideetan inperatibo, promisiho eta jusibozko egiturak batera ageri dira. Erremarkatu behar da ber testuetan *-(a)la* atzizkiaren erabilera berankor hori baiezko perpausetako inperatiboetan ere lekukotu dugula (cf. §§ 1.4.3.1.1, 1.4.3.2.1 & 1.4.3.4).

- (15) *Bena, jagoiti ezteçadala ahatz!* (UskLi 104)
- (16) *Maria! Çoure medioz ukhen deçadala çoure fedetic parte bat, houra ičan beiten çoure berthutiaren fondamena. Çoureki batian ukhen deçadala fedia [...]* (MaiMarHil 38)
- (17) *Bakezco ainguru bat ičan ahal nadila noure jenten artian!* (MaiMarHil 48)
- (18) *Penitencia eguinez, hel nadila celuco gloriala.* (Myst 56 & HOrdre 93-94)

- (19) *Ene lanetan niçalaric, ohart nadila goiz hountan ukhen dudan dohaign handiaz, eta çuc galthatcen duçun beçala, egun hounen ounxa igaraiteco gracia eman eçadaçu. Halabiz. (Myst 60 & HOrdre 96-97)*
- (20) *Jesus, enadila içan aski esteiari, berriz ene bekhatiez pheça erazteco çoure khurutchiaren; bena kharreia deçadala nihaurena bihoztoiki, penitentcia eguitez. (Myst 108 & HOrdre 162)*
- (21) *Maria Santa, Jesusen Ama, çoureki batian ediren deçadala Jesusen bihotza, khurutchiaren egartez haren oundoutic. (Myst 114 & HOrdre 165)*
- (22) *Ene erorietaric arra geiki nadila, haboro ez erorteco. (Myst 118 & HOrdre 167)*
- (23) *Maria Santa, Jesusen ama, mundutiarren eta noure enjoguidura gaichtouen eretceco gor eta sendimentu gabe içan nadila. (Myst 128 & HOrdre 172)*
- (24) *Maria Santa, Jesusen ama, çoure Seme dibinouaren uduri handibat ukhen deçadala. (Myst 116 & HOrdre 166)*
- (25) *Jesus, salba neçaçu; Maria santa, othoitz eguiçu enegatic. Jauna, çoure gracian hil nadila. Khiristi hil direnen arimac phausian içan ditiala. (Myst 12)*
- (26) *Jesus adoragarria, arren eguia duçu ni beithan cirela! Ni ere çu beithan içan nadila. Eztcitiala jelkhi behinere sarthu ciren bihotz hountaric. (Myst 41-42)*
- (27) *Çoure gana hel eracien naian bidian bethi ebil nadila. [...] Enadila içan arrancura çouri khausitu beharrez baici, ez eta beldur çouri hux eguitiari baici. [...] Ounxa ezteçadala eguin costumaz, bena bai çoure amorecati. (Myst 43)*

Bistan da, *edin & *ezan laguntzaileen adizkiei -(a)la atzizkiaren eransteak manera klar batez markatzen du promisiboa, beste erabileretarik bereiziz. Horrela, (31) adibidean *deçadala* promisiboa eta *deçadan* finala kontrastean dautza. Bestela erraiteko, promisiboa -(a)la atzizkiaz markatuz promisibo ez diren egiturek ez dute ezi, arren edo amorekatik partikulen horrenbesteko beharrik; horregatik, uste dugu (29) adibidean egileak, promisibo bat adierazi nahi balu, *nadila* & *deçadala* erabili zituzkeela.

- (28) *Sustenga eçaçu, Jauna, ene içate gucia, ez deçadan phenxa, ez deçadan erran, ez deçadan eguin deus ere çoure arau baicic (Medit 135)*
- (29) *Orai danic erregue içan cite çoure graciaz ene bihotcian, ni ere çoure glorian içan nadin eternitate orotan, eta çoure borontatia coumpli deçadan lurrian, saintiec celian coumplitcen duyen beçala. (MaiMarHil 132)*
- (30) *Ene Jesus maithagarria! egun çoure khorpitz saintiaren errecebitceco bonhurra ezpadut, eztakiçula gaicit, gogoz eta bihotcez errecebi citçadan berere, eta çourekin bat eguin nadin fediaz, esparantçaz. (MaiMarHil 134)*
- (31) *Ah! Jesus; ene bekhatiez dolumen bicibat ukhen deçadala, negar eguin ahal deçadan bici niçano, çoure ukheitico althe hiltceco orenian. (Myst 111 & HOrdre 164)*

Azkenik, joskera sintetikoko adibide bakanak dakartzagu, XVIII. mendearen lehen herenekoak (32)-(33). Biak dira *edun aditzaren gainean eraikiak, ‘ukan dezadan’ balioaz — erran behar da ez dela *izan*-ekiko adibiderik aurkitu—.

- (32) *Lehen dudan ene hilcia, / Eci ez eguin gaizkiric. (Othoitce 38)*
- (33) *Çoure haurra niz, eta hala, / Bethiere hel çakitçat; / Bena dudan orotan gaintic / Hilce benedicatu bat. (Othoitce 98)*

Joskera trinkoaren gaineko egiturak arkaismotzat har badaitezke, XIX. mendearen hastapenean 1. pertsona pluraleko exhortatiboekiko analogiaz sortutako berrikuntza bitxi bat atzeman da: *edun laguntzailearen gaineko singularreko promisiboa, perpaus hastapenean eta ordena markatuaz (34).

- (34) *Sofrituren ahal duta / beguien aitcinian? / Bena dudan interroga lehenic, / eia cer erranen dian.* (SteEli 554)

77. TAULAK singularreko promisiho guztiak bitzen ditu *nadin*, *dezadan* eta *dudan* adizkientzat —azken horri joskera sintetikoko bi etsenplu doazkio, eta bakarra perifrastikoa—.

77. TAULA. Singularreko promisihoak.

	<i>nadin / nadila</i>	<i>dezadan / deza dala</i>	<i>dudan</i>	Oro
O <i>Pro</i> ca.1600				
Bela ca.1600				
Zalgize ca.1600				
Tt <i>Onsa</i> 1666	4	4		8
Tt <i>Arima</i> 1672	1	2		3
Bp 1696	1			1
<i>Othoitce</i> 1734	2		2	4
Mst 1757	5	1		6
<i>StJul</i> 1770		1		1
<i>Edipa</i> 1793		1		1
<i>SteEli</i> ca.1810	5		1*	6
<i>Medit</i> 1844		2		2
<i>MaiMarHil</i> 1852	2	3		5
<i>Myst</i> 1856	9	4		13
<i>HOrdre</i> 1860	6	4		10
Oro	35	22	3	60

1.3. Exhortatiboaren adierazpena: **edun* vs. **ezan*

1.3.1. Sar hitza

Les formes *dügün ikhus* ‘voyons’, *dügün jan* ‘mangeons’ équivalent aux formes de subjonctif *ikhus dezagiün*, *jan dezagiün* employées avec la valeur d’impératif. Ce type existe dans les autres parlars souletins et hors du souletin. (Lafon 1963: 103)

Euskara zaharrean *dugun edan* ‘edan dezagun’ bezalako joskerak garatu dira, nagusiki Iparraldeko mintzoetan. Lafittek (1944 § 439) “impératif de la première personne du pluriel” gisara aipatu zuen, eta Gómezek & Mounolek “lehen pertsona pluraleko jusibozko forma berri bat” (2017 § 3.4.3.2). Gogora bedi euskaraz, zentzu hertsian, badela 3. pertsonako jusibo bat, *b-* aurrizkiaren bidez gauzatzen dena (*bira*, *bego*, *bezate*), eta tesi honetan 1. pertsonaz formulatzen diren aginduak jusibo ez kontsideratzea erabaki dugula (ikus KONTZEPTUALIZAZIOA, § 1.1).

1. pertsona horrek solaskidea edo irakurlea barnatzen duenean *exhortatibo* terminoa hobetsi dugu. Exhortatiboa horrela ulerturik, euskaraz aditz iragangaitzen eta iragankorren artean bereizi behar da: lehenek beti **edin* laguntzailea hartzen dute exhortatiboaren eratzeko (35), eta bigarrenek nagusiki **ezan* (35) —mendebaldean egin (36)—, baina baita **edun* ere (37), ikusiko ditugun euskalki eta garaietan. Hauetaz gain, eta subjuntibozko egiturak ahalbidetzen dituen heinean, jokamolde trinkoak ere exhortatiboaren adierazteko bide ematen du (38)-(39).

(35) *Misterio terrible hori sinhex deçagun fermoki, ezkitian arraçouari hortan batere jarraiki. (Othoitce 94)*

(36) *Oneekaz serbidu daigun gauza gustietan. (Kapanaga)*

(37) *Algarreky dugun, arren, irabaz celia. (StJul 347)*

(38) *jaiki citaie, gouatçan hebetic. (EvS 14, 31)*

(39) *Jesusen içen saintiaz guiren oro charmaturic. (NLilia 2)*

Atal honetan **edun* laguntzailearen bidez eratutako exhortatiboak aztertuko ditugu, oro har lekukotu diren euskalkietan (§ 1.3.2), eta ondoren —eta xehetasun handiagoz— zubereraren historian (§ 1.3.3). Exhortatibo molde berri hau **ezan*-ekilako dukeen lehia ere deskribatuko da zubererazko testuetan gaindi. Azkenik ondorio diakroniko batera etorriko gara, exhortatibo berrien balizko sorburuaren inguruko hipotesi bat proposatuz (§ 1.3.4).

1.3.2. Euskararen exhortatibo berriak

Historikoki, euskaraz exhortatiboak subjuntibozko adizki trinkoen bidez (*izan & *edun* barne) nahiz **edin & *ezan* (eta *egin* mendebaldean) laguntzaileekiko perifrasi bidez adierazi izan dira. [**Edun* + aditzoin] egiturak honako ezaugarriak ditu:

- a) Aditzoina **edin & *ezan* pareaz bestelako laguntzailerekin ager dezakeen bakarra.
- b) Aditz iragankorrekin erabiltzen da.
- c) Lehen pertsona pluralarekin eratzen da.³⁶⁰
- d) Aditz jokatu – aditz jokatugabe ordena markatua erakusten du.³⁶¹
- e) Berrikuntza izan arren, perifrasiarik zaharrenei lotua den aditzoina agerrarazten du.
- f) Baiezko perpausetan baizik ez da agertzen.³⁶²

Mounolek goi nafarrerazko, lapurterazko eta zubererazko zenbait adibide biltzen du (2012: 213): *Dudan galdeguin daquienari* (Eliz 48); *Dugun bilha* (ES *Hats* 15); *Orai, dugun*

³⁶⁰ [**edun* + aditzoin] egitura behin lekukotu dugu 1. pertsona singularrean: *Bena dudan interroga lehenic* (*SteEli* 554). 1. pertsona singularrez denean, egitura honek *promisibo* bat adierazten duela kontsideratuko dugu.

³⁶¹ “*Dugun*, employé comme auxiliaire impératif au lieu de *dezagun*, est toujours mis avant l’infinif radical” (Lafitte 1944 § 638).

³⁶² **Edun*-en gaineko exhortatibo bakarra ageri da ezezkoan: *Arren eztugun demboraric gal. Adio* (*SGrat* 22). Hau bi aldiz da bakana, zeren ezezko perpausetako agerraldi bakarra izateaz gain, lekukotasun arras berankor batean atzeman baitugu: 1879ko *Sen Grat*.

entçun D. Sebastian de Covarrubias Orozco (ES Hats 70); *Ayons: dugun içan, içan deçagun; ayons les: ditugun içan, içan detçagun* (Urt 169); eta *Dugun egotch çagniala achcora colpia* (Mst 26).

Ikuspegi diakronikotik, Mounolerentzat aditz iragankorren exhortatibo molde berria XVIII. mendean agertzen da (*ibid.*). Batetik Zuberoako euskara historikoaren corpusean, eta bestetik Korpus Arakatzailan xerkatuz, ikus dezakegu [**edun* + aditzoin] XVII. mendean ongi lekukotua dela. Zuberotarrak aipatu gabe, Axularrek (40), Harizmendik (41) edo Gazteluzarrek (42) badute adibiderik. XVIII. mendean Robin aipa dezakegu (43), eta XIX. mendeko hainbat idazle, hala nola Duhalde, Hiribarren, Chaho, Hiriart-Urruty, Duvoisin, Arbelide, Abbadie edo Zalduby. Iduri luke egitura hau XX. mendean itzaltzen dela, arkaismo bilakatzuz; mendearen lehen partean Lapurdin ageri da (44) (45) (46).

- (40) Dugun iakin, *dugun bilha zenbait arrazoiñ*. (Guero 213)
- (41) Dugun bethi benedika, *Gure Iainko ezti*. (Hm, “Konpletak”).
- (42) *Eta dugun jasta Jainkoaren Banket adoragarria*. (Gç Eguia “Penitentzia saintua: konfesionia”)
- (43) Dugun aita seindua barne onez besarka. (Robin “Apez juratuak”).
- (44) Dugun ikus bertze barne ttikia. (Barbier *Supazter xokoan*)
- (45) Dugun ardiets. (Oxobi “Gudua bere”)
- (46) Dugun gorets gure euskal izaitea. (Iratzeder *Pindar eta lano*)

Hedadura dialektalari doakionean, baxenafarreraz ere ageri da exhortatiboaren molde berria (47)-(48).

- (47) Dugun ikhus *eya ni ala zuiec trompatzen othe guiren*. (KadBet 142)
- (48) *Kausitzen ez denaz geroz dugun edan gogotik*. (Monho “Chanson bachique”)

1.3.3. Exhortatiboak Zuberoako testuetan gaindi

1.3.3.1. [**edun* + aditzoin] egitura ABS singularraz

Zuberoako euskaraz denaz bezainbatean, **edun*-en gaineko exhortatiboak Tartasekin hasten dira, XIX. mende erdira iristeko Jakes Oihenarterekin edo Chahorekin. Tartasena kasu berezia da, zeren lekukotasun arras goiztiarra izanik, franko erabiltzen baitu [**edun* + aditzoin] egitura. Horrekin batera **edun*-ekiko exhortatibo trinko anitz ematen du —*subjuntibo zaharrak* deitura pean sartuko genituzkeenak— (52), bai eta, inoiz, [**edun* + partizipio] moldean, bederen *ikusi* aditzarekin (53).

- (49) *Neure adiskidia, dugun erran zuk, eta nik*. (Tt Onsa 4. kap.)
- (50) Dugun ezkiriba *urhezko leteretan*. (Tt Onsa 2. arrazoina)
- (51) Dugun aithor *eta kofesa orok*. (Tt Onsa 4. arrazoina)
- (52) Dugun Apeza! dugun Fraidia! dugun Konfesion! dugun Sagramendia! dugun espatio! (Tt Onsa 1. kap.)
- (53) Dugun ikhusi *onsa hilzoko bidiaren ene azken arrazoiña*. (Tt Onsa 3. arrazoina)

Ondoan Zuberoako tradizioko beste zenbait etsenplu dakargu. (58)-n solaskidea preseski aipatzen da, bokatibo baten medioz. Adibide guztietan *dügün* ezkertera agertzen da. Batzuetan iragankor/irgangaitzeko moldeak batera ageri dira (60), (67), bestetan exhortatiboa 2. pertsonaren aginterarekin (58) edo 3. pertsonaren jusiboarekin batera (75).

- (54) *Dugun erran.* (PrS 3 & 23)
- (55) *Dugun Gincea benedica.* (Bp I 133)
- (56) *Dugun laida misterio handia.* (Othoitze 94)
- (57) *Dugun jauna benedica.* (Ressegue 52)
- (58) *Alo, dugun etcheky, Policor, çucq eta niq; ayuta, aldiz, eman eçoq bertan hicq.* (StJul 1284)
- (59) *Dugun kanta goraty Noel gogo houne.* (NLilia 10)
- (60) *Dugun phaca remestiamentuz, Ezkitiala ingrat içan.* (NLilia 7-8)
- (61) *Dügün zonbait giniroan bath.* (Egiat I 31)
- (62) *Dugun eguin deligencia eta berhalla urca.* (Edipa 098)
- (63) *Dugun pausa eliçan eta adora bertan Espagnaco patroua.* (Xarlem 1196)
- (64) *Jaunaq alagrancias dugun besta haur celebra.* (Xarlem 1464)
- (65) *Dugun tringa, dugun edan eta ounxa liberti.* (SteEli 229)
- (66) *Dugun dobla coragia, azkar gogo eta bihotça!* (SteEli 695)
- (67) *Ô ene arima, dugun jarrayki ene espousa eta guitian hil harekila.* (UskLi 227)
- (68) *Dügün, ene lagüna, egin bazkari bat handirik.* (CanBel 239)
- (69) *Biba hi, Madalen! Dügün, aren, edan!* (Pierris 33)

1.3.3.2. [**edun* + aditzoin] egitura ABS pluralaz

Bere hiztegian Urtek klariki agerrarazten du exhortatibo molde hau. Fr. *ayons* euskaratzean **edun* & **ezan* laguntzaileekiko perifrasiak parez pare ematen ditu, objektu singular nahiz pluralarekin: “*Ayons: dugun içan, içan deçagun; ayons les: ditugun içan, içan detçagun*” (169 *apud* Mounole 2012: 213). Hau interesgarria da zeren, ikusiko denez, gure corpusean arras guti dira **edun*-en gainean eratzen diren objektu pluralarekiko formak, hauek adierazteko **ezan* gailentzen baita proportzio handiz. Guztiarekin ere, XVIII. mendeko zubererazko testu batzuetan [**edun* + aditzoin] egituran ABS pluralarekin komunztatzen duten formak ageri dira (70)-(73).³⁶³ (74)-ko adibidean aditzoinik gabeko sintaxiak dautza, *dugun* & *ditugun* aditz trinko portatuz. Inchauspek *dutúgun esként* ematen du *detzágun* & *ditzágun* formen pare (1858: 263).

- (70) *Dutugun benedica Aïta eta Semia Espiritu Santiareky.* (Ressegue 51)
- (71) *Dutugun ezkerac errenda çoure handitarçun säntiaryi.* (Ressegue 51)
- (72) *Dutugun eguin Gincouary goure othoitciaq.* (StJul 1001)³⁶⁴
- (73) *Guc ere, beraz, dutugun eman nourc goure bihotçac.* (NLilia 4)

³⁶³ Korpus Arakatzzaileak ez du [*ditugun* + aditzoin] egitura lekukotzen, ez zubereraz ez eta lapurteraz edo baxenafarreraz ere.

³⁶⁴ Absolutiboarekiko komunztadura bai, baina ez datiboarekikoa.

(74) *Eta dugun alagrancia! Thira bite canoukhaldiac! Eta dutugun osso oro recreacioniac!* (SteEli 907).

Bistan da, ABS pluraleko formak anitez ere gutxiago dira singularrekoak baino. Aski da balio bera duten *ezan-ekiko perifrasiaren proportzioari so bat egitea (78. TAULA): 1. pertsona pluralaren exhortatiboetan *ditzagün* da espero daitekeen laguntzailea, eta *dütügün* salbuespena. Logikoa denez, ABS pluraleko formak [**edun* + aditzoina] egitura gehien baliatzen duten egileengan aurkitu da. Hortaz, deigarria da Tartasek behin ere erabili ez izana, edo are Eguateguyk. Alderantziz, pare bat aldiz ageri da objektu pluralarekiko komunztatu gabeko formarik (75) (76).

(75) *Beude complimentiac eta dugun eguin projeten execucioniac.* (StJul 109)

(76) *Dügün Paganak ikhus.* (Egiat I 24)

Hau ikusirik, [*dütügün* + aditzoin] segida arras minoritarioa, kasik anekdotikoa dela ondorioztatu behar da. Gure corpuseko agerraldi guztiak XVIII. mendean kokatzeak ere zerbait seinalatzen duke: Tartas kenduta, Zuberoan [*dugun* + aditzoin] moldearen goiena XVIII. mendean bigarren erdian kokatzen da.

Objektu pluraleko exhortatiboetan *ezan hain argi nagusitzeak **edun* vs. **ezan* lehia aipatzera garamatza. 78. TAULAK [**edun* + aditzoin] egiturak zubererazko corpusean dituen agerraldi guztiak biltzen ditu, **ezan* laguntzailearekikoekin alderatuz. **Ezan*-en formei doakiela, konparazioa egitean baiezko perpausak baizik ez ditugu kontuan izan, ezezko moldean ez baita lehiarik exhortatibozko formetan, hots, **ezan*-en gaineran eratuak baitira beti.³⁶⁵

Objektu singularreko exhortatiboetan, orotara 239 agerraldi bidu ditugu, zeinetarik 103 **edun*-ekin eratuak baitira (%43), eta 136 **ezan*-ekin (%57). Objektu pluraleko exhortatiboetan, guztira 45 aldiz lekukotua da corpusean, zeinetarik 5 **edun*-ekin (%11), eta 40 *ezan*-ekin (%89). Datu hauek argi uzten dute [**edun* + aditzoin] egitura anitez hedatuago dela absolutiboa singularra denean, eta objektu pluralarekiko formak salbuespen direla. Hau maiztasun arrazoiengatik esplika liteke.

1.3.3.3. *Ezan-ekiko exhortatiboak

**Ezan* laguntzailearekiko perfrasiak, 1. pertsonari dagokionez, bi balio nagusi adieraz dezakete: a) konpletibo edo finala; eta b) exhortatiboa. Sintaktikoki bi desberdintasun ikusten

³⁶⁵ Dena den, ezezko exhortatiboak arras minoritarioak dira. Corpusetik honakoak bildu ditugu: Mst III 56, 6; Egiat I 27; *Khurutch* 11; *MaiMarHil* 79 & 112. Beste dozena bat aldiz *ez dezagün* ageri da, baina balio final edo konpletiboz.

ditugu haien artean: batetik, finaletan *ezan-ekiko perifrasi mendeko perpaus batean kokatzen da, eta exhortatiboetan *ezan-ekilako forma da perpausaren aditz nagusia; bestetik, exhortatiboetan aditzaren forma jokatugabea (aditzoina) eskuinera kokatzen ahal da, perpaus konpletibo edo finaletan ezkerrean doanean —gainera, balio horien argiki ezartzeko zenbait partikula ager daiteke: hala nola *amorekati(k)*, *afin* edo *arren*—; erka bitez 1616ko bi pasarteak (77)-(78). Tartasengan (79)-(81) edo 1734koa den *Othoitce eta cantica espiritualac Çubero Herrico* lanean *ezan-ekiko exhortatiboetan aditzoina ezker ala eskuinera ageri da (82)-(83).

- (77) *Approbatzen diela goure eta cien arteco conferencia gucia, eta eguitemo guciaz nahi duela guc hirourec eguin deçagun conferencia eta bilku.* (Etchart 2, 1r)
- (78) *Halacotz, eguicie diligencia, eta deçagun oroc laincoari othoy bihotz oroz eguin, baque hun baten ardiesteco eta eçarteco by herry hoyen artian.* (Etchart 2, 2r)
- (79) *Ordu da bisita bat eman dezagun gure heren prinzesari.* (Tt Arima)
- (80) *Harzatz arrankhura har dezagun, eztaadin ioan infernurat.* (Tt Arima)
- (81) *Dezagun examina laurgarren eta azken konditionia.* (Tt Arima)
- (82) *Bihotz umil batez deçagun adora, eta eguiazki maitha houra bera.* (*Othoitce* 59)
- (83) *Maitha deçagun bihotz oroz.* (*Othoitce* 63)

Noelen Lilia lanean (1782) *edun nagusi da exhortatibo gisa (10 aldiz vs. 3 aldiz *ezan). Markatzekoa da, halaber, *ezan-en gaineko egituren ordena exhortatibo (84)-(85) ala finala den (86) araberakoa izaten dela. Ber ñabardura atzeman daiteke *Charlemagne* trajerian (87)-(88).

- (84) *Deçagun othoy devoki / Eçar guitean çelian.* (*Nilia* 2)
- (85) *Deçagun guc ere / Bihotzez berere / Jesus adora.* (*NLilia* 5)
- (86) *Noula Gingo beitchirade / Oro gutuçu instruitcen / Noula eguin behar dugun / Gloria ukhen deçagun.* (*NLilia* 13)
- (87) *Deçagun persegui / piraneco bortu oundouala.* (*Xarlem* 449)
- (88) *Hobeduq trata deçagun / baquia algarren artian.* (*Xarlem* 803)

Doctrina Khiristia lanean (1812) *edun-en gaineko exhortatiboak osoki desagertu dira *ezan-en gainekoen mesedetan, dozena bat agerraldirekin. Hauetan, gainera, aditzoina sistematiko eskuinera da kokatzen: *dezagun maitha* 4, *dezagun eguin* 4, *dezagun adora* 7, *dezagun phensa* 8, *dezagun har* 8, *dezagun galtha* 8, *dezagun othoi* 9, *dezagun azcar* 9, *deçagun galtha* 10 & 14, *deçagun examina* 10 & *deçagun eracax* 11. Aldiz, *Catuchuma españoul* eskuizkribuan (1899) *ezan-ekiko exhortatiboetako aditzoina ezkerrean da beti (89)-(94):

- (89) *Lurrian girenec egin dezagun Jincoen boonthatia.* (*Catuchuma* 23)
- (90) *Eman dezagun.* (*Catuchuma* 23)
- (91) *Ohora dezagun haren imaje eta mouldia.* (*Catuchuma* 25)
- (92) *Ikhous dezagun orai zer behar duzun egin.* (*Catuchuma* 28)
- (93) *Ikhous dezagun orai zer behar den errezebitu.* (*Catuchuma* 40)
- (94) *Heki oroeki zerbutcha dezagun gaiza orotan.* (*Catuchuma* 65)

78. TAULA. Exhortatiboak Zuberoan: *edun vs. *ezan baiezko perpausetan.

	<i>dügün</i> (EXH)	<i>dezagün</i> (EXH)	<i>dezagün</i> (KONP)	<i>dütügün</i> (EXH)	<i>ditzagün</i> (EXH)	<i>ditzagün</i> (KONP)
Lç 1571						
O Pro ca.1600						
Bela ca.1600						
Zalgize ca.1600						
Etchart 1616		1	3			
O Po 1657						
Tt Onsa 1666	21	6	7		1	1
Tt Arima 1672	5	7	5		-	2
PSing 1676	1	-	-		1	-
Bp 1696	1	-	4		-	1
Catolo 1706	-	-	2		-	2
Othoitce 1734	1	5	-		3	-
CatOlo2 1746	-	1	4		-	2
Mst 1757	1	1	9		1	1
IP 1757	-	3	2		1	2
Ressegue 1758	2	3	1	2	1	1
Petit Jean 1769						
StJul 1770	8	1	7	1	3	-
Mercy 1780						
NLilia 1782	10	2	1	1	1	-
Egiat I 1785	20	3	1			
Bala 1788	-	1	-			
Jouanic Hobe 1788						
Chiveroua XVIII.	1	3	1			
Edipa 1793	6	10	2		3	-
UskLi 1814	3	3	1		4	-
Xarlem ca.1800	6	5	14		7	8
SteEli ca.1810	15	2	1	1	-	-
Malqu 1808	-	1	-			
DKhi 1812	-	12	3		-	1
CatS ca. 1836	-	5	3		-	1
Khurutch 1838		15	3		-	4
Medit 1844		2	-		2	1
Ip KurBD 1847		16	4		2	-
CanBel 1848	2	3	2			
Etchahun XIX. m.	-	4	-		1	-
Archu Fab 1848	-	4	-		1	
MaiMarHil 1856		7	-		5	-
Ip Dial 1857						
HOrdre 1860		1	1			
Myst 1862		2	1		2	-
Urruty oro 1873		1	5			
SGrat 1879						
Catuchuma 1899		6	1			
oro	103	136	88	5	39	27

1.3.4. Ikuspegi diakronikoa

1.3.4.1. Bilakabide historikoa

Ikusienez, **edun*-ekiko exhortatiboak XVII. mende erdian hasten dira lekukotzen, Lapurdin Axularrekin (40) eta Zuberoan Tartasekin (49). XVIII. mendean goi nafarreraz (Elizalde) zein behe nafarreraz (*Kadet eta Bettiriño*) aurkitu da molde hau. Zuberoako datuei arreta eskainiz, Tartasek agerraldien laurden bat metatzen du. Gero 1676ko pronua, Belapeire, *Othoitce*, Maister edo Ressegue exhortatibo berrien nolabaiteko agerpenaren lekuko dira. Corpusaren datuetatik atera daiteke [**edun* + aditzoin] egituraren erabileraren goihena XVIII. mendearen azken parte gertatzen dela. Izanik ere, *Saint Julien d'Antioche* (1770), *Noelen Lilia* (1782), Eguiateguy (1785), *Charlemagne* eta *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerietan (ca. 1800) **edun* da exhortatiboaren adierazteko laguntzaile nagusia. XIX. mendean zehar arras guti aurkituko da: gure corpusean pare bat agerraldi Jakes Oihenarten *Kaniko eta Belxitinan* (1848), eta guk dakigula Chahoren idazkietan (corpus honetatik kanpokoak).

Horrekin ondorioztatzen da [**edun* + aditzoin] egitura XVII. mendeko testuetan azaleratzen den berrikuntza dela. XVIII. mendean molde berri hau bere gailurrera iristen da, Zuberoan bederen, eta XIX. mendean arkaismo gisa baizik ez da ageriko. Egungo mintzotik guztiz desagertua dateke. Erran daiteke, beraz, [**edun* + aditzoin] moldea *ekialde handian* hedatu berrikuntza dela, epe luzean ez-arrakastatsua.

1.3.4.2. Sorburuaren inguruko hipotesia

Aditz iragankorretako exhortatibozko egitura berriaren jatorriaz, Mounolek honakoa dio, gehiago zehaztu gabe:

Quant à l'origine de cette structure transitive nouvellement formée, il se pourrait que **edun* ait remplacé l'auxiliaire **ezan* par analogie avec les périphrases à auxiliaire **edun* ([participe passé + *izan* / **edun*], [participe présent + *izan* / **edun*], [participe prospectif + *izan* / **edun*]), beaucoup plus transparentes que les périphrases modales. (2012: 213)

Gure ustez [**edun* + aditzoin] egituraren sorburua aditz trinkoen subjuntibozko formetan xerkatu behar da, eta konkretuki **edun* aditzaren forma trinkoetan. Hau da, lehen pertsona pluralaren exhortatiboak joskera trinkoaren bitartez eratzen ahal dira, euskara historikoan — eta egun ere, molde sintetikoa bizirik den heinean— (95)-(98). Euskara historikoan horrela gertatu da *izan* & **edun* parearekin, hots, gure tradizioan “subjuntibo zaharrak” gisara deituak diren moldeetan.

(95) *Alon, jaunac, gouatçan / ororen brisatcera!* (*SteEli* 1392)

- (96) *Prest gaudian corajouski guerlan hiltcera.* (Mst III 56, 6)
 (97) *Dançugun orain goiticoa.* (Lç *Catechisme* 17. igandea)
 (98) *Ezgaunçala bada lo berceac beçala, baina gauden iratzarri eta garén sobre.* (Lç *Thes* I 5)

Testu zaharretan **edun*-en molde trinkoa arrunt erabilia izan da exhortatibo gisara, ‘ukan dezagun’ erran-nahiaz. (99)-(107) adibideetan ikusten denez, joskera horretan perpausaren hastapenean ageri ohi da.

- (99) *Paciença dugun eta ieyncoac guizan ayuta.* (Detch *LVP* XIII)
 (100) *Dugun orain hurrenengo articulua.* (Lç *Catechisme* 11. igandea)
 (101) *Dugun molsa edo bizia, dugun urrea zilharra, dirua, eta hazienda.* (Tt *Onsa* 3. kap.)
 (102) *Dugun respectu eta laidamendu Jaunarentaco.* (*NLilia* 5)
 (103) *Dügün orai hüskarari sokhaldi bat.* (Egiat I “Hitzauria”)
 (104) *Dugun oray asky udury baceiçu.* (*Edipa* 146)
 (105) *Contricionezko acte dugun goure falta handiaz.* (*SteEli* 242)
 (106) *Ala, alon dugun ardou franko egun!* (*SteEli* 497)
 (107) *Dugun aldiz bethi bihotça Gincouarekila.* (*SteEli* 1098)

Baliteke perpaus hastapeneko kokapen markatu hori eraginkorrago gertatzea *exhortatio* baten adieraztean; horrela gerta zitekeen **ezan* aditzarekin ere (§ 3.3). Azken finean, [**edun* + aditzoin] egiturak hizkuntzak jadanik eskaintzen zuen aukera baten hedatze baizik ez zuen ekarri. Hau da, **edun* aditz nagusi eta perpaus final edo konpletiboetako aditz laguntzaile gisa ez ezik, aditz laguntzaile bezala ere erabiltzea 1. pertsona pluralaren exhortatiboetan, horretarako ordurarte **edin* & **ezan* laguntzaileekiko perfrasiatan baizik ez zitekeen balia aditzoina bereganatuz. 79. taulak lau aditzen “subjuntibozko” aukerak biltzen ditu, bestelako aditz laguntzaileak (**iron*, *egin*, **erazan*...) albo batera utziz.

79. TAULA. *Subjuntibo* deitura tradizionalaren funtzioak betetzen dituzten aditzak.

egitura	balioa	<i>izan</i>	* <i>edin</i>	* <i>edun</i>	* <i>ezan</i>
sintetiko	KONP / EXHORT.	X	†	X	†
partizipio + ad. lag.	KONP.	X		X	
ptzp. prosp. + ad. lag.	KONP.	X		X	
aditz-izen + ad. lag.	KONP.	X		X	
aditzoin + ad. lag.	KONP.		X		X
ad. lag. + aditzoin	EXHORT.		X	X	X

1.4. Inperatiboaren adierazpena

1.4.1. Sarrera

Errana dugu (cf. KONTZEPTUALIZAZIOA, § 1.1), tesi honetan *inperatibo* terminoaren adiera hertsia baliatuko zaigu, hots, agindua bigarren pertsonari zuzentzen zaionekoa. Atal honetan lehenik euskararentzat oro har deskribatu diren inperatiboen berri laburra emanen dugu (§ 1.4.2); ondoren, Zuberoako testuetako inperatiboak ekarriko ditugu, forma perifrastikoekin

has —lehen iragangaitzak (§ 1.4.3.1), gero iragankorrek (§ 1.4.3.2)—, sintetikoekin segi (§ 1.4.3.3) eta geroaldiari buruz bihurtutakoekin buka (§ 1.4.3.5). Inperatibo mota bakoitzean baiezko/ezezko perpausen arteko desberdintasunak kontuan hartuko dira.

1.4.2. Inperatiboa euskararen historian

Perpaus jokatugabeak albo batera utziz,³⁶⁶ euskaraz inperatibozko formak funtsean bi eratakoak izan daitezke: sintetikoak (*zatoz, egik*) eta analitikoak (*etor zaitez, egin ezak*). Aditz iragangaitzetan, inperatibozko formak eta orainaldikoak bat datoz, beheitiago aztertuko den diferentzia fonologiko batekin (cf. 1.4.3.1). Aditz iragankorretan, aldiz, ABS 3. pertsonakoa delarik, inperatibozko formak orainaldikoetarik bereizten dira, ez baitute *d-* morfema hartzen. Inperatiboaren forma sintetikoak eta analitikoak ezagunak dira hizkuntzaren aldi historikoan zehar.

- (108) *Othoitz egiozue zuek enegatik Iaunari.* (Lç Act 8, 24)
- (109) *Ah! Pietate ukaçu. / Jesus, çuc eñcun itçaçu / Goure heiagora justouac; / Jesus houna, ikhousatçu / Eguiten dutugun votouac.* (Othoitce 67)
- (110) *Çato ahal badaguiçu etcherat.* (Le Dauphin 44, 2v)
- (111) *Hersa cite oracioniari, eguiçu hasperen, eta bortha truca eçaçu, eta etcitalia bara* (Mst IV 12, 3)
- (112) *Arma zaitte pazienziaz.* (Card. Ej-1)
- (113) *Çouaçã, erran eçoçu, / çoure buruçaguiary.* (StJul 521)
- (114) *Aserre zaitteze, ta ez egizue bekaturik.* (Añibarro, Geroko Gero)
- (115) *Billatu egizue beste leku baten.* (Añibarro, Geroko Gero)
- (116) *Eztiat nai, bota adi i.* (Liz. “Sermo in Dominica 1a quadragesimae”)
- (117) *Çouaçã, deit eçaçu çoure senharra, eta tciauri houna.* (EvS 4, 16)

1.4.3. Inperatiboaren adierazpena Zuberoako euskararen

Atal honetan inperatibozko forma jokatuak aztertuko dira Zuberoako testuen argitarara. Azterketa sistematikorako ondoko formak hartu dira kontuan: a) aditz iragankorrenzat 2. pertsona singularreko subjektua dutenak, objektu zuzena 3. p. singularrekoa izanik (*ezak, ezaziü*); eta b) aditz iragangaitzetan subjektua 2. p. singularrekoa denean baizik, datibozko komunztadurarik gabe (*(h)adi, zite*).

³⁶⁶ Bistan da, inperatiboa perpaus jokatugabeen bidez ere adierazten ahal da: egungo euskararen partizipio perfektiboaren bidez Hegoaldean, eta Iparraldean aditzoinarekin. Banaketa hori ez da estatikoa, azken mendeetan partizipioak aditzoina ordezkatu baitu Hegoaldeko mintzoetan, aditzoinaren galera mendebaldetik abiatuta (Lakarra 1996; Mounole 2011).

1.4.3.1. Aditz iragangaitzen inperatibo perifrastikoak

1.4.3.1.1. Baiezko perpausetan

Euskalki guztietan bezala, zubereraz ere aditz iragangaitzen forma perifrastikoak **edin* laguntzailearekin eratzen dira, [aditzoin + **edin*] perifrasiaren barnean. **Edin*-en inperatiboak formak orainaldikoak dira: *hi (h)adi*, *zū zite*, *ziek ziteie*. Hots, subjuntiboan erabiltzen diren berak, baina -(a)n marka gabe.

Halere, bada diferentzia bat 2. pertsona hurbilari doakionean. Ekialdeko euskalkiek *h* gorde duten heinean, bereizketa morfonologiko bat ageri da *hadi(n)* ez inperatibo eta *adi* inperatiboak formen artean. Lafonek ohartarazi zuen (1943-I 511), eta Mounole-arentzat bereizketa horrek *h*- indikatibo vs. \emptyset - inperatibo oposizio bat ekarriko luke (2011: 88). Aldiz, “On observe que si l’aspiration est effectivement absente des formes d’impératif, elle manque également dans celles de présent simple. Les dialectes orientaux, qui sont les seuls à posséder l’aspiration au 16^{ème} siècle sont très clairs à ce sujet.” (*ibid.*). Testurik zaharretan *h*-dun eta gabeko formak orainaldian eta inperatiboan agertzen baitira, Mounolek ondorioztatzen du bietan *hi*- aurritzia zetzala hastapenean, denborarekin *h*- bietarik desagertuz (2011 : 89). Beraz, **edin*-en orainaldiko eta inperatiboak formak morfologikoki berdinak dira, intonazio, akzentu eta hitz ordenaren arabera bereizten ahal direlarik (*ibid.*).

Zubererazko testuetan *h*-dun forma zazpi agerralditan dugu, guztiak herri tradizioko edo tradizio mistoko testuetan:

- (118) *Rikolord, egon hadi ixilik* (*Petit Jean* 106)
- (119) *Toza bi pelat hoiiek / eta juan hadi hoieki.* (*Chiveroua* 270)
- (120) *Abil, abil arren, / eman içoc arrapostia, / eta gin hadi hi ere guero / nahi baduc galdu bicia!* (*SteEli* 1146)
- (121) *Jar hadi ene biskarrian / eta gero jakinen diik.* (*Malqu* 425)
- (122) *Plega hadi gazteti nahi gabe orota* (Etch “Bi berset dolorusik”)
- (123) *Orhit hadi.* (Etch “amodio gati”)

Horri alderatuz, *h*-gabeko formak 133 agerraldi ditu (ikus 81. TAULA).

- (124) *Hiladi, laydadi.* (Bela 29)
- (125) *Hil adi, alaba aite.* (*O Pro* 235)
- (126) *Retiradi gaur, jin adi bihar, ukhenen duk bihar.* (*Tt Arima*)
- (127) *Lehen beno lehen absolvi eraçadi.* (*CatOlo* 6)
- (128) *Utçul adi, utçul, bekhatoria.* (*Othoitce* 47)
- (129) *Behadi, Belzebut, / Orai soldata behar diik.* (*Chiveroua* 9)
- (130) *Avança adi bertan / har itçaq ore armaq / eta huillant eras itçaq / ore lagunaq oro hounat.* (*Xarlem* 354)
- (131) *Aigu arren bataillara / edo cedi adi bertan.* (*SteEli* 873)
- (132) *Alon arren, huillentadi, / fripou muthur-berdia!* (*SteEli* 878)
- (133) *Abil arren, ô monstro beltça, hurrunt adi ene khantutic!* (*Medit* 25)
- (134) *Iratçar adi, ene arima, iratçar, eta gogoua emac hire salbamentiari.* (*Myst* 20)

2. pertsona neutroari doakiola, Zuberoan espero dugun *zite* forma ageri da kasik beti (372 aldiz markarik gabeko *zite*), salbu Tartas, Maister, Archu eta Jakes Oihenarteren *Kaniko eta Beltxitina* astolasterrean, agerraldi banarekin (135)-(138).

- (135) *Orhoit zaite munduko onetarik.* (Tt Onsa)
- (136) *Etçaite libertatereki celuco gaicer esteca.* (Mst III 31, 1)
- (137) *Zato, zu, tximinoa, minza zaite lehenik.* (Archu 37)
- (138) *Esplika zaite orai, / ene jaun maitia.* (CanBel 298)
- (139) *Regna cite bethi ene bihotcian.* (Othoitce 55)
- (140) *Içan cite debot, eta phaussuçço, eta Jesus egonen duçu çoureki.* (Mst II 8, 3)
- (141) *Chahat cite bertan beno bertanago, egoitç eçaçu bertaric phoçoüa.* (Mst IV 10, 4)
- (142) *Trankilisa cite, / ene aita maitia.* (StJul 92)
- (143) *Deignat cite agradatcera ene voto flakien.* (Mercy 22)
- (144) *Venite eta bouha cite, / chakhur iphourdian sar cite.* (Edipa 247)
- (145) *Madama, desabusa cite / eta entçun behar duçu.* (SteEli 1020)
- (146) *Assesti cite eta orhit çoure comunione eguin tuçunetçaz.* (UskLi 65)
- (147) *Bezti cite modestia handienareki.* (Medit 8)
- (148) *Jaiki cite, har eçaçu çoure ohia, eta ebil cite.* (EvS 5, 8)
- (149) *Ene ama bacira, gin cite cihahren arropeki.* (SGrat 9)

1.4.3.1.2. Ezezko perpausetan

L'impératif négatif est exprimé au moyen des formes de présent à suffixe *-(e)la*, et plus rarement à suffixe *-(e)n*, par ailleurs employées dans des propositions où l'on s'attendrait à voir figurer des formes spécialisées du subjonctif. Ce changement de forme n'est visible qu'avec les verbes transitifs, qui échangent le *e-* de la racine par le *d(a)-* des formes de présent – bien souvent changé en *t-*, l'opposition *d/ t* se neutralisant après les sifflantes. (Mitxelena 1961 *apud* Mounole 2011: 95)

Ezezko perpausetan 2. pertsonari zuzendutako agindua adierazteko ez da **edin*-en inperatibozko forma erabiltzen, orainaldikoa baizik, *-(a)la* marka erantsirik. Zubereraz, behintzat, ez dugu **ez (h)adi*, **etzite* bezalakorik atzeman. Erremarkatu behar da hasperenketaren araberako hiru forma ageri direla: *ezadila* (150)-(155), *ez hadila* (156) eta *ehadila* (157)-(162); markatzekoa da, halaber, forma hasperenduna beti herri antzertiaren tradizioko testuek lekukotu izana.

- (150) *Bizi adi ongi onareki, eta ezadila alborota gaxtoareki.* (O Pro 103)
- (151) *Loila, ezadila hoila, ondotik darraik barandaila.* (O Pro 303)
- (152) *Nahi baduk bizi minik gabe, ezadila alha gose gabe.* (O Pro 324)
- (153) *Prestatzen ezadila ari, gero burhasik eskatu behar itzaukeonari.* (O Pro 398)
- (154) *O, ene alhaba maitia, / eçadila triste batere.* (StJul 112)
- (155) *Ez adila cerbutcha / behinere exemplu gaizto.* (StJul 541)
- (156) *Phartitcen nuc berhala, / ez hadila debeya.* (Edipa 777)
- (157) *Ene haura, horregatik / ehadila, ez, afliji.* (Chiveroua 89)
- (158) *Jinen zain, bai, bista / ehadila, ez, loxa.* (Chiveroua 381)
- (159) *Ehadila aygalon / Secula conberty.* (Xarlem 644)
- (160) *Ago ichiliq richart / ehadila loxa.* (Xarlem 1024)
- (161) *Bena lagun houniq baduq / Ehadila loxa.* (Xarlem 1061)

- (162) *Ene alhabaren amorecatiġ / uqhen eçaq pietate / Ehadila ičan crudel / gouretaco heben. (Xarlem 1386)*

2. pertsona ez-familiar, neutroan, *zite > ez zite+ala > etzitiala* aurkitzen dugu ezezko perpausetan. Guztira 48 aldiz ageri da *etzitiala*, eta behin ere ez **etzite* (ikus 81. taula).

- (163) *Etcitiala çoure hounki eguineç baicic alaguera. (Mst II 6, 1)*
 (164) *Eta etcitiala triste, nouicere adichkide batec eitçten beitçutu. (Mst II 9, 2)*
 (165) *Etcitiala meça erraitian lucegui, eç lehiatiegui ičan, bena çoureki bicitcen diren eguitate hounari jarraiki cite. (Mst IV 10, 7)*
 (166) *Ez citiala ičan hain crudel / çoure amarentako. (StJul 757)*
 (167) *Monseigneur, conxola cite, / etcitiala aflegy. (StJul 1258)*
 (168) *Othoy etcitiala hola, / madama, afligi çu. (Edipa 094)*
 (169) *Coraga cite renaud / Etcitiala loxa / oger houna çaiçu / Bere lagunequila. (Xarlem 360)*
 (170) *Arren othoi, ene semia, / imbidia colpu batez / etcitiala ičan betheric / çoure aitaren crudelitatez. (SteEli 1174)*
 (171) *Sira, etcitiala loxa / çoumbaiten hiltciagati. (SteEli 1195 & 1400)*
 (172) *Ene eri içatiaz, [...] / etcitiala ez ičan / batere aflegitia. (SteEli 1276)*
 (173) *Eneçaçula abandona jauna ene Gincoua: etcitiala hurrunt niganic. (UskLi 121)*
 (174) *Eta etcitiala jar jujamentutan çoure cerbutchariareki. (UskLi 127)*
 (175) *Ez-citiala othoi ingana. (Medit 117)*
 (176) *Jinco hounaren ama, etcitiala gor ičan ene galthouari, bena favorableki beha çakitço, eta entçun eçaçu. (HOrdre 83)*
 (177) *Etcitiala estona erraiten dudalacoz behar duçielä berriz sorthu. (EvS 3, 7)*
 (178) *Eçarçu çoure erhia hebentche, eta soguiçu ene eskier; huillant eçaçu çoure eskia, eta hounc eçaçu saihetxa; eta etcitiala ičan sinetx gogor, bena fidel. (EvS 20, 27)*

1.4.3.2. Aditz iragankorren inperatibo perifrastikoak

Absolutiboa 3. pertsonakoa denean, aditz iragankorren inperatibozko formek ez dute orainaldikoen *d-* aurrizkia. Beraz, orainaldiko eta inperatibozko formak era diferenteetan osatuak dira: hauek atzizkiak aditz erroari erantsiz eraikitzen dira (*eza-zu, ema-zue, erra-da-n...*) (cf. Mounole 2011: 90).

1.4.3.2.1. Baiezko perpausetan

Honetan ere ez da ezustekorik: 2. pertsona hurbileko *ezak* ematen dute Zuberoako testuek (179)-(188).

- (179) *Alaba ezkont ezak nahi denean; semea, ordu denean. (O Pro 16)*
 (180) *Ginco bacoitz bat adora eta maitha eçac gaiça ororen gaineti. (PrS 13)*
 (181) *Ore Creaçalia errecevi eçac berantena Bazcoz umilki. (Bp I 47)*
 (182) *Escumucatier ihes eguin eçac, icentatier particularki. (CatOlo 78)*
 (183) *Çaffla eçac, çaffla, herio eztiä, / Çombat nahi ene corpitça. (Othoitce 74)*
 (184) *Soicq, Julien, hounat; / liburu hau iracour eçac / eta cer duian erraiten / onxa ekous eçaq. (StJul 167)*
 (185) *Lot akio, lacha eçac, / bena othoy ichilic. (Edipa 118)*
 (186) *Khanta eçac, ene mihia, / misterio handia. (Ressegue 40)*
 (187) *Thô, iracour eçac, / jakin eçac cer den. (SteEli 1555)*
 (188) *Pheça eçac ounxa hitz hoien indarra. (Myst 20)*

Eta *ezazü* 2. pertsona neutroan (189)-(200), maiz *zazü* gisara uzurtua.

- (189) *Catechima honi emenda eçaçu Trinitatiaren misterioaz errana.* (Bp II 83)
 (190) *Çoure graziez ene arima betha eçaçu.* (CatOlo 105)
 (191) *Fini çaçü, othoi, ene agonia.* (Othoitce 89)
 (192) *Eitç eçaçu mundu miserable haur.* (Mst II 1, 1)
 (193) *Idoki eçaçu altchaturaci çaharra, eta chahat eçaçu çoure bihotçaren egonguia.* (Mst IV 12, 1)
 (194) *Chahat eçaçu, sanctifica eçaçu, creaturetaric cilhet eçaçu, honki eçaçu bere bekhatien dolumenaz, betha eçaçu çoure eta Jesus-Christen amouriouez, azkenecoz cihaur uduri eçar eçaçu, amourecatic celian çouri junta ahal dadin, eta maytha Gincoua çoureki eternitatian. Hala biz.* (Mercy 24)
 (195) *Eta çoure haur maitia / Gugatic emplega eçaçu.* (NLilia 14)
 (196) *Çuq governa eçaçu / persaco eresouma.* (Xarlem 1451)
 (197) *Dembora emadaçu; / eta enegana gin gabe / eigun enterteni eçaçu.* (SteEli 131)
 (198) *Erran eçaçu Symbolua latiz.* (DKhi 16)
 (199) *Reigna çaçü orai beretic çoure graciaz ene bihotcian.* (Medit 178)
 (200) *Huillant eçaçu çoure eskia, eta hounc eçaçu saihetxa.* (EvS 20, 27)

1.4.3.2.2. Ezezko perpausetan

Zubereraren lekukotasun zaharrenetarik, 2. pertsona hurbilaren ezezko inperatiboa orainaldiko forman datza: *ez deza+(a)la* → *eztezala*. Orotara *eztezala* 67 aldiz ageri da; halere, erran behar da kasu gehienetan Jainkoaren manuen errepika hutsak direla: 67etarik 50etan (ikus 82. TAULA).

- (201) *Gathua ohoin izanagati, eztezala ohil eure gelati.* (O Pro 697)
 (202) *Ezadil' erhaiten ari: / Ezizal' ohaidekari, / Ez' ohoinkeri' egile, / Et' eztezala deseä.* (O Po XVIII)
 (203) *Haren izena eztezala iura, ez bertze gauzarik banoki.* (Tt Onsa)
 (204) *Gincoaren icena iura ezteçala, ez besté gaiçaric behar gabé [...]. Besteren hona euax ezteçala, ez daquiälaric eduqui. [...] Araguizco obra onhex ezteçala, ezconceç baici.* (PrS 13-14)
 (205) *Ostiralian, ez nesquenegunian ezteçala ian araguiric. [...] Tempóra deuetatiez eztaguiala ezteyc, eta detchema primiciac paca itçac chuchenqui.* (PrS 16)
 (206) *Ezteçala eçar gougoua celian, / Munduco solacez den hire arrancura.* (Othoitce 78)
 (207) *Errazü itxasuari, phausa adi, eta aize beltzari, eztezala aizerik egin.* (Mst III 23, 4)
 (208) *Ezteçala bihotça gal / occasione hountan.* (Edipa 125)
 (209) *Aygalont Ehaquiola / buru menx houni beha / Ezteçala Ez quita / Secula hire leguia* (Xarlem 674)
 (210) *Hartakoz ezteçala arhinzki / ihouri ere hitz eman* (SteEli 387)
 (211) *Eztezala etxia kita, / Lehenago emaztiari / ürre izok tripa.* (Boubane 94)³⁶⁷
 (212) *Ezteçala haboro luça coumbertitcia* (Myst 20)
 (213) *Eraix adi, / Besarka hezadan, berant eztezala* (Archu 15)
 (214) *Cietaric batec ere ezteçala soffri guiçon ehaile edo kurious beçala, besteren eguitecouetan. Bena khiristi beçala soffritcen badu ezteçala hartçaz ahalkeric ukhen; bena glorifica beça Jincoua hartan.* (Epit I 4, 15-16)

³⁶⁷ Puntuazioa gurea da. Baliatu dugun edizioan (Urkizu 1998) bestelakoa da: Zer phenxatzen dük, Bubane, / eztezala etxia kita? / Lehenago emaztiari / ürre izok tripa.

Bestenaz, 2. pertsona neutroaren ezezko inperatiboa ber maneran eratzten da: *ez dezazü+la* → *eztezaziila*:

- (215) Ezteçaçula permeti çoureganic jagoytic separa nadin. (CatOlo 105)
- (216) Othoi, soguin ezteçaçula / Ene injusticiari. (Othoitce 51)
- (217) Eçteçaçula jagoiti desira, berheciki laidatu, edo maithatu içatia (Mst II 8, 4)
- (218) *O, eguiazco Gincoua! Ezteçaçula, othoy, sofry: / devrien adoratcia / ezteçaçula premety (StJul 532)*
- (219) Ezteçaçula puni, Jauna, bere crimen mereçhimentien arauera. (Mercy 4)
- (220) Ezteçaçula dicimula / çoure dolore handya. (Edipa 850)
- (221) Sira esteçaçula secula / phensa rendatçia. (Xarlem 1324)
- (222) *Ihouri ere ezteçaçula aipha / arte hountan deusere. (SteEli 472)*
- (223) Ezteçaçula arra eguin çombat nahi ezpirituco barreiamentu eta idortarçun ukhen deçaçun. (UskLi 64)
- (224) *Sal erospenetan ezteçaçula ihour trompa. (UskLi 67)*
- (225) Eneçaçula ourthouki çoure beguien aitcINETIC: eta ezteçaçula arratira niganic çoure Ezpiritu saintia. (UskLi 122)
- (226) Ezteçaçula permeti goure hounaren countre refusa deçaçun pharte tchipi houra. (Khurutch 19)
- (227) Ezteçaçula permiti aski malerous içan nadin (Medit 182)
- (228) Ezteçaçula permeti içan guitian aski esteyari. (Ip KurBD 29)
- (229) Ezteçaçula soeguin ene merechimentier (MaiMarHil 131)
- (230) Ezteçaçula eçar Judiouen erreguia. (EvS 19, 21)

1.4.3.2.3. Ohar bat inperatibozko forma triperersonalez

Pour des raisons inexplicées, les formes périphrastiques impératives ergative-(absolute)-dative dans les textes labourdins classiques sont le plus souvent (pas toujours cependant) dotées du préfixe de présent; ex. *eman diezadazu* 'donnez-le moi' (textes du 16^{ème} siècle et standard actuel: *eman iezadazu*). (Oyharçabal 2000: 10)

Inperatibozko forma hirupersonalen azterketa mugatzearen, **ezan*-en [3SG.ABS-1SG-DAT-2SG-ERG] adizkiei begiratuko diegu; hots, euskara batuaren *iezadazu*, *iezadak* & *iezadan*. Corpusean xerkatu ondoan, orotara bi kasutan ageri da *d*- hori (231)-(232), eta hirugarren batean ergatibo pluralarekin (233).

- (231) *Eta hallacoric hel badadi, iguor deçadaçu informacioniac edo provançac* (Etchart 07, 2r); baina *iguor eçadaçu respostu messagiera hunequy* (02, 2r) & *igor eçadaçu informacione ample* (08, 1v).
- (232) *Misericordia eguin diçadaçu; eta bici niçano, bethi arteric gabe erran baniçaçu, Jauna ukhaçu nitçaz pietate.* (MaiMarHil 123)
- (233) *Pharka dizadazüe delit xipi hoi.* (Pierris eta Catiche 163)

Gainerakoetan \emptyset - formak ditugu, berdinak izan ez arren. Bada, hauetan beste aldagai batez ohartzen gara: hastapenean *e-* / *i-* txandakatzea gertatzen da, balioaren aldetik inolako desberdintasunik gabeko pareta (234)-(236). Horretaz gainera, XIX. mendean datiboaren hiperkarakterizazioari lotutako aldaerak hedatzen dira (237)-(238) —pleonasma horrentzat, ikus V, § 2 eta, zehazkiago **ezan*-en aginterazko formak hunkitzen duen moldearentzat, V, § 2.3.3—. 80. TAULAN batuaren *iezadazu* adizkiak Zuberoko testuetan hartu dituen itxurak erkatzen dira.

- (234) *Ukhuz içadaçu othoy ene arima.* (Bp I 74)
- (235) *Oberenda içadaçu çoure buria.* (Mst IV 8, 2)
- (236) *Oberenda eçadaçu çoure buria.* (Mst IV 8, 2)
- (237) *Jndar eman eçadaçut / biçi niçano mundian.* (Xarlem 550)
- (238) *Jauna, eman içadaçut hour hortaric.* (EvS 4, 15)

80. TAULA. Inperatibozko forma hirupertsonalen polimorfismoa: ‘iezadazu’.

	<i>ezadazii</i>	<i>ezadaziit</i>	<i>izadazii</i>	<i>izadaziit</i>	<i>d-</i>
Etchart 1616	2				1
Bp 1696			2		
<i>CatOlo</i> 1706	3		2		
<i>Othoitce</i> 1734			5		
<i>CatOlo2</i> 1746	3		2		
Mst 1757	8		3		
Ressegue 1758			1		
<i>StJul</i> 1770	4		4		
Mercy 1780	3				
Egiat I 1785	1				
<i>Chiveroua</i>			1		
<i>Edipa</i> 1793	10		1		
<i>Xarlem</i> ca.1800		7		1	
<i>SteEli</i> ca.1810			13		
<i>Malqu</i> 1808	2		1		
<i>DKhi</i> 1812	2		1		
<i>Uscara Libria</i> 1814			8		
<i>Medit</i> 1844			5	5	
<i>Kaniko</i> 1848	1		1		
Etchahun				2	
<i>MaiMarHil</i> 1856	13		3		1
<i>HOrdre</i> 1860	18		2		
<i>Myst</i> 1862	24		1		
<i>EvS</i> 1873				1	
<i>Oro</i>	94	7	56	9	2

1.4.3.3. Inperatibo sintetikoak

1.4.3.3.1. *Izan & *edun* aditzen inperatibo sintetikoak

Adizkera sintetikoari lotuak, *izan & *edun* parearen orainaldiko formak baliatu izan dira inperatiboaren adierazteko, subjuntiboan oinarriturik, *-(a)la* atzizkia erantsiz. Zuberoako testuetan *izan*-en inperatibo sintetiko hauek baiezko nahiz ezezko perpausetan ageri dira (239)-(243). Adizki hauek maizenik usantza fosilduei lotu zaizkie, bereziki Jainkoaren manuak, 1676ko pronuan zuten formulazio berean ondoko testuetara iragan baitziren (honetaz ikus Agirre 1998): Oloroeko katixima (1706, 1743 eta ondoko edizioak), 1812ko *Doctrina Khiristia*, 1834 baino lehen data daitekeen *CatS*, edo *Heren-Ordreco escu libria* (1860).

- (239) *Hounki gin hiçala* (*SteEli* 977)
(240) *Hunki jin hizala*, / *Gure mahañiala* (Etch “Sarrantzeko senthoralak”)
(241) *Zeren legiak erakhusten beitrauku, ezizala paillard.* (Tt *Onsa*)
(242) *Guiçon erhailé eziçala obraz, ez boronthatez / Luxurious eziçala gogoz, ez corpitcez. / Iaquilé falsu eziçala, ez iagoiti gueçurti.* (PrS 14)
(243) *Iakile falsu eziçala &c* (Bp I 101)

Eta corpus historikoan *hizala* / *ezizala* formak fosilduak diren heinean, orobat erran daiteke 2. pertsona neutroko formez. Ezezko perpausetan lekukotua den biez landa (244)-(245), *zirela* bi formulatan ageri da: *benedikatü zirela* (246)-(251) eta *hunki jin zirela* (252)-(256).

- (244) *Et zirela, othoi, zikada elgerra iduri* (Tt Onsa)
- (245) *Etzirela hebentik harat, urgillutzu, glorioz, eta fanfaron* (Tt Onsa)
- (246) *Benedicatu cirela, eta guiçounec laida citcela eternalki.* (Othoitce 12, 96 & 104)
- (247) *Benedikatü zirela, ene Jinkua.* (Mst III 8, 3)
- (248) *Plazer badüzü ülhünpian izan nadin, zirela benedikatü; eta plazer badüzü argian izan nadin, zirela berriz benedikatü; ene konsolatzeko huntarzüna balin badüzü, zirela benedikatü; eta nahi badüzü thürbürarzünian izan nadin, zirela orobat bethiere benedikatü.* (Mst III 17, 2)
- (249) *Zirela arren benedikatü, Jauna.* (Mst III 21, 6)
- (250) *Zirela benedikatü, ene Jinko Jauna, guri heltzen zaizkün gaiza orotan.* (Mst III 45, 1)
- (251) *Ene Jinko Jauna, aita saintia, zirela orai eta bethiere benedikatü.* (Mst III 50, 1)
- (252) *Hunki jin zirela, Xiberua.* (Chiveroua 59 & 139)
- (253) *Hünki jin zirela, / Malkülina anderia.* (Malqu 400)
- (254) *Hünki jin zirela, / andere Malkülina* (Malqu 447)
- (255) *Hünki jin zirela, / ene tanta maitia.* (Malqu 474 & 489)
- (256) *Hozana, hounki jin cirela* (EvS 12, 13)

**Edun* aditzaz denaz bezainbatean, haren inperatibo sintetikoak normalean *uste ükhen, dolü ükhen* bezalako aditz perifrasietan aurkitzen dira (subjuntibotik abiatuak). *Diala & düzüla* pareak beti funtzionatzen du adizki sintetiko gisara, baiezko perpausetan ‘ukazu’ erran-nahiaz (257), (261) & (262), eta ezezko perpausetan ‘ez ezazu ukan’. Behin *eztezazüla & eztüzüla* perpaus berean batu dira (264).

- (257) *Koraje diala erraiteko.* (Boubane 37)
- (258) *Besteren honic nahi eztiala, eduquiteco gaistoqui.* (PrS 15; Bp I 47; CatOlo (2), CatOlo2 (2); DKhi 32; HOrdre 194; CatS)
- (259) *Eztiala ouste amenx / hire lotxa guirela.* (Edipa 205)
- (260) *Ni orobat biziko nüik / eztiala düdarik, / eta nahi ezipahiz eneki / heure gisa egik.* (Malqu 122)
- (261) *Bethi duçula ouhoure, / Bethi halaber gloria, / Heben eta celietan / Iguçu çoure bakia.* (Othoitce 104)
- (262) *Adela cite pacentciaren lehenago, ecieç consolacioniaren ukheitera, eta boçtarioua beno nahiago duçula, khurutchia kharreiatu.* (Mst II 10, 1)
- (263) *Eztüzüla uste badela ihurere zü beno erorkoragorik.* (Mst I 2, 4)
- (264) *Besteren egitekuetzaz eztezazüla har ezagützerik, eta jente handienetzaz phürü eztüzüla arrankürarik.* (Mst I 21, 3)
- (265) *Eztüzüla uste, bihariümen goiziala heltüren zirela.* (Mst I 23, 2)
- (266) *Eztüzüla seküla uste, zerbait zirela, zure obra hunak direla kausa.* (Mst III 4, 2)
- (267) *Gizonen maitetarzün berheziaz eztüzüla axolik.* (Mst III 24, 2)
- (268) *Egürükazü Jinko Jauna, gizonki maneia zite, koraje har ezazü, etzitalia mesfida, ez-etare hebentik aparta; bena ere eztüzüla dolürik zure khorpitzari.* (Mst III 35, 3)
- (269) *Ene semia, Jinkuatan ezarzü fermoki zure bihotza, eta gizonen jüjamentiaren eztüzüla lotsarik.* (Mst III 36, 1)
- (270) *Eztüzüla axolik jakitez, nurk hori erran, edo manhatü dian.* (Mst III 49, 7)
- (271) *Monseigneur, eztuçula anxia, / etcitaçu ezcapiren.* (StJul 597)
- (272) *Arren, arren, ene ama maitia, / eztuçula dudariq batere, / eta, othoy, sinhex neçaçu / diferitu gabe.* (StJul 1067)
- (273) *Çoure ouhouria duçu conxervy; / houracq galdiagatyq / eztuçula, arren, / batere phenaricq.* (StJul 1259)

- (274) *Aleta eniaz, sira, / eztuçula dudariq, / ny naikeçu ny / mithiliq hobenetariq. (Edipa 177)*
 (275) *Eztüzüla erregetik, / ezpazünü ere / züre büria beizik. (Malqu 243)*

1.4.3.3.2. Gainerako aditzen inperatibozko forma sintetikoak

Zuberoako testurik zaharretan, ondoko aditzek ematen dute inperatibozko forma trinkorik: *ebil, *edun, egin* (gehi *so egin*), *egon, eman, erakhar, erakhats, erho, erran, etxeiki, ezar, idoki, *i(n), jaugin, joan & üt.* XVIII. mendean halako formen lekukotza emendatuz doa: *ebil, eduki, egin* (gehi *so egin*), *egon, eitz, ekhar, eman* (gehi *gogo eman*), *eragin, erran, erakhats, etxeiki, ezar, ideki, igor, ikhous, *i(n), jaugin, joan, ükhen & üt.* Erran daiteke molde hau emankorra dela aldi historikoan gaindi. Ikus V, § 3.3.1; bertan dautza forma horien adibideak.

1.4.3.4. Subjuntiboan oinarritutako formak baiezko perpausetan

Zuberoako testu zaharretan *izan & *edun* aditzen “subjuntibo-inperatibozko” forma sintetikoak baiezko perpausetan ongi lekukotuak badira ere, **edin & *ezan* laguntzaileenekin ez da horrela gertatzen. Izatekotan, XIX. mende inguruan **edin & *ezan* parearen orainaldiko formak inperatibo gisa hasiko dira lekukotzen, Eguiateguy aitzindari (276). Hortaz, hedapen analogiko batez mintzo gaitzke. Fenomenoaren azalpena bikoitza izan daiteke: batetik, inperatiboaren forma perifrastiko negatiboen (zein sintetiko baiezkoen) eraginaz pentsatu behar da —jusiboaren *-(a)la* atzizkidun formenarekin batean—; bestetik, inguruko erdaren eraginaz (esp. *que lo veas con tus ojos* ‘vélo con tus ojos’). Zein-nahi ere den haren jatorria, berrikuntza berankor eta mugatu bat dateke hau.

- (276) *O! zü aitoren seme, zitalia jar peregriaren pare, bethi zü baizik eztüzüla. (Egiat I 6)*
 (277) *Duçula bekhatu ororen pharcamentia, eta eman citçala bere alde ezkugnian haitatieki. Ordian icous deçaçula burraz-buru çoure salvaçalia (Medit 221)*
 (278) *Jincoaren Saintu eta Santa ororen icenian, ediren deçaçula egun bakian çoure lekhia, eta Pharadusian içan dadila, eternitateco çoure egonguia; Jesus-Krist goure Jaunaren moyanez. Halabiz. (HOrdre 180)*
 (279) *Martyren armada triumphanta ikhous deçaçula çoure hartcera eraisten (HOrdre 182)*
 (280) *Çoure beguiez ikhous ahal deçaçula çoure Arrerosliaren beguitharte ezti eta gloriousa, haren aitcinian bethi içan citiela; eta odeyic gabe ikhous deçaçula eguia eternalaren arguia. Arima dohaxien ororen compagnan, ikhous eta goza deçaçula Celuco Jincoa, bethi mente gucietan. Halabiz. (HOrdre 183)*
 (281) *Eztcitçadala haboro hil eraz ene bihotzian bekhatu berri eguinez; bena bici citalia ene bihotzian, ni berthutiari jeraikiten niçalaric. (HOrdre 173; Myst 130)*

1.4.3.5. Inperatiboa geroaldiari buruz bihurtua

Inperatiboa adierazten duten formekin finitzeko, ez da ahantzi behar aginduak geroaldiari buruz igor daitezkeela. Horretarako zubererak bi bide eskaintzen du: 1) inperatibozko formari *-(te)(ke)* atzizkia eranstea; eta 2) [partizipio prospektiboa + *izan & *edun*] perifrasiak.

Ez dugu “geroaldi arkaiko” deitura tradizionalen sartzen den formarik (-te, -ke morfemadunik) inperatibozko balioaz atzeman, ez joskera sintetikoan ez eta laguntzaile gisara —halere, ez da behar holakorik behin betiko baztertzea—. Erabilera hauek sistematikoki ikertu ez ditugun arren, zenbait etsenplu ekarriko dugu.

1.4.3.5.1. Inperatibozko forma -ke-dunak

Les textes anciens font état d'un impératif futur, c'est-à-dire d'une forme indiquant que l'ordre énoncé est rapporté à un moment postérieur à celui de l'énonciation. Il se constitue en ajoutant les suffixes -te / -ke à la forme finie d'impératif (forme synthétique ou auxiliaire de la périphrase). On retrouve des exemples de ce type dans les textes occidentaux *RS* et Lazarraga. [...] Il semblerait pourtant qu'un jour ce type d'impératif ait été étendu à tous les dialectes, puisque les siècles suivants, les labourdins Etxeberri de Ciboure et Etxeberri de Sare mais aussi quelques textes guipuzcoans en apportent des exemples. (Mounole 2011: 96)

Zuberoan inperatibozko adizki bakarra atzeman dugu -ke atzizkiarekin (282). Lekukotasun bakarra izanik ere, garrantzi handikoa da, eta areago herri antzertiaren tradizioan ageri dela kontuan hartuz gero. Balio beza Mounoleren baieztapenaren indartzeko.

(282) *Alo, Siflor, eguicq / bertan executione. / Jauz eracy itçakecq beguiaq, / animal bassacq guero / lachat itçacq, bertan / irex ditcen oro. (StJul 1209-10)*

1.4.3.5.2. [part. prosp. + izan & *edun] perifrasiak

Geroaldia adierazten duten [partizipio prospektibo + izan, *edun] perifrasiak agindu bat adieraz dezakete —orobat gertatzen da jusiboarekin; cf. § 1.5.3.5—. Horren erakusgarri, Mounolek Leizarragaren pasarte bat sinalatzen du (frantsesezko iturriaren bermeaz), Lazarragarengan ber balioa lukeen *idi erroaren gaineko perifrasiak ere aipatuz (2011: 93). Menturaz halakoa den Maisterren kasua, izari handiengan 2. pertsonaz idatzia baita. Bihoaz beste bi lanetako hiru pasarte hauek:

- (283) *Gingouaren hitça biz complitu: / Çuc sorthuren duçu Jesus mundian. (NLilia 3)*
 (284) *Ene gorainçiaq Deïçoçu / theadoriqui Eguinen / harequi Escouñcia / dudala desiratcen. (Xarlem 76)*
 (285) *Eliçabat Jçanen duçu / hiri hountan foundatu / Eta Apescupubat / orai Estalatu / ordre emaiten deiçut / himnes mementian / Eliça houra Eraguinen duçu / ahal beçain bertan. (Xarlem 660-661)*

81. TAULA. Aditz iragangaitzen inperatibo perifrastikoak Zuberoan.

	(h)adi	zite	ez (h)adila	etzitjala
O <i>Pro</i> ca.1600	7		4	
Bela ca.1600	1			
Zalgize ca.1600	1			
Etchart 1616				
O <i>Po</i> 1657	1		1	
Tt <i>Onsa</i> 1666		64		2
Tt <i>Arima</i> 1672	2	12		1
<i>PSing</i> 1676				
Bp 1696				
<i>CatOlo</i> 1706	1			
<i>Othoitce</i> 1734	15	17		
<i>CatOlo2</i> 1746	1	1		
Mst 1757	5	52		25
<i>IP</i> 1757				
Ressegue 1758				
<i>Petit Jean</i> 1769	3	5		
<i>StJul</i> 1770	2	12	2	2
Mercy 1780		1		
<i>NLilia</i> 1782		2		
Egiat I 1785		5		1
<i>Bala</i> 1788				
<i>Jouanic</i> 1788		2		
<i>Boubane</i>	3	4		
<i>Chiveroua</i>	11		2	
<i>Edipa</i> 1793	16	23	1	1
<i>Xarlem</i> ca.1800	31	6	4	1
<i>SteEli</i> ca.1810	22	20		5
<i>Malqu</i> 1808	2	3		
<i>DKhi</i> 1812				
<i>Uscara Libria</i> 1814		48		6
<i>Petitun</i> 1836				
<i>CatS</i> ca. 1836		4		
<i>Khurutch</i> 1838				
<i>Medit</i> 1844	5	21		1
Ip <i>KurBD</i> 1847		1		
<i>CanBel</i> 1848	11	4		
Etchahun XIX. m.	2	4		2
Archu <i>Alh</i> 1848	5	1		
<i>MaiMarHil</i> 1856		9		
Ip <i>Dial</i> 1857				
<i>HOrdre</i> 1860	1	9		1
<i>Myst</i> 1862	2	13		
Urruty (oro) 1873		8		2
<i>SGrat</i> 1879		1		
<i>Catuchuma</i> 1899				
Oro	140	372	14	48

82. TAULA. Aditz iragankorren inperatibo perifrastikoak Zuberoan.

	<i>ezak</i>	<i>ezazü</i>	<i>eztezala</i>	<i>eztezaziila</i>
<i>O Pro</i> ca.1600	8		4	
<i>Bela</i> ca.1600				
<i>Zalgize</i> ca.1600				
<i>Etchart</i> 1616				
<i>O Po</i> 1657	2	3	1	
<i>Tt Onsa</i> 1666	1	31	4*	3
<i>Tt Arima</i> 1672	4	16	2	5
<i>PSing</i> 1676	3		4*	
<i>Bp</i> 1696	5	1	8*	
<i>CatOlo</i> 1706	7	4	7*	1
<i>Othoitce</i> 1734	4	19	1	1
<i>CatOlo2</i> 1746	7	3	7*	1
<i>Mst</i> 1757		86	1	40
<i>IP</i> 1757	4	1		
<i>Ressegue</i> 1758	1	4		
<i>Petit Jean</i> 1769	1			
<i>StJul</i> 1770	4	34		3
<i>Mercy</i> 1780		8		1
<i>NLilia</i> 1782		2		
<i>Egiat I</i> 1785	1	4		
<i>Bala</i> 1788				
<i>Jouanic</i> 1788				
<i>Boubane</i>		3	1	
<i>Chiveroua</i>	9	1		3
<i>Edipa</i> 1793	8	34	1	1
<i>Xarlem</i> ca.1800	1	42	1	1
<i>SteEli</i> ca.1810	6	46	1	2
<i>Malqu</i> 1808	1	2		1
<i>DKhi</i> 1812	5	76	8*	
<i>Uscara Libria</i> 1814	2	50		10
<i>CatS</i> ca. 1836	9	9	8*	
<i>Khurutch</i> 1838	1	2		2
<i>Medit</i> 1844		84		3
<i>Ip KurBD</i> 1847		4		1
<i>CanBel</i> 1848	4	5		
<i>Etchahun</i> XIX. m.	2	5		
<i>Archu Alh</i> 1848	2	3	1	3
<i>MaiMarHil</i> 1856	1	15		2
<i>Ip Dial</i> 1857				
<i>HOrdre</i> 1860	15	57	4*	1
<i>Myst</i> 1862	7	20	1	1
<i>Urruty (oro)</i> 1873		15	2	2
<i>SGrat</i> 1879				
<i>Catuchuma</i> 1899		4		
<i>Oro</i>	125	693	67	87

* Errepika hutsak, formulak

83. TAULA. Inperatibozko forma sintetikoak: *izan* & **edun*.

	<i>izan</i>		<i>*edun</i>	
	(h)izala zirela	ez (h)izala etzirela	diala düzüla	eztiala eztüzüla
O <i>Pro</i> ca.1600				
Bela ca.1600				
Zalgize ca.1600				
Etchart 1616				
O <i>Po</i> 1657		1		
Tt <i>Olsa</i> 1666		1 2		
Tt <i>Arima</i> 1672				
<i>PSing</i> 1676		3		
Bp 1696		1*		
<i>CatOlo</i> 1706				
<i>Othoitce</i> 1734	3		1	
<i>CatOlo2</i> 1746				
Mst 1757	8		1	9
<i>IP</i> 1757				
Ressegue 1758				
<i>Petit Jean</i> 1769				
<i>StJul</i> 1770				3
Mercy 1780				
<i>NLilia</i> 1782				
Egiat I 1785				
<i>Bala</i> 1788				
<i>Jouanic</i> 1788				
<i>Boubane</i>				
<i>Chiveroua</i>	2			
<i>Edipa</i> 1793				1
<i>Xarlem</i> ca.1800				
<i>SteEli</i> ca.1810	1			
<i>Malqu</i> 1808	4			1
<i>DKhi</i> 1812		6*		
<i>Uscara Libria</i> 1814				
<i>CatS</i> ca. 1836		8*		
<i>Khurutch</i> 1838				
<i>Medit</i> 1844			1	
Ip <i>KurBD</i> 1847				
<i>CanBel</i> 1848				
Etchahun XIX. m.	1			
Archu <i>Alh</i> 1848				
<i>MaiMarHil</i> 1856				
Ip <i>Dial</i> 1857				
<i>HOrdre</i> 1860		3*		
<i>Myst</i> 1862				
Urruty (dena) 1873	1			
<i>SGrat</i> 1879				
<i>Catuchuma</i> 1899				
<i>Oro</i>	2 18	23* 2	- 3	- 14

1.5. Jusiboaren adierazpena

1.5.1. Sarrera

Gogora bedi tesi honetan *jusibo* terminoa 3. pertsonari igortzen zaizkion aginduentzat baizik ez dugula erabiltzen (ikus KONTZEPTUALIZAZIOA, § 1.1). *B-* aurrizkia hartzen duten formetarik landara, euskarak bestelako egiturak ere baditu jusiboaren adierazteko: orainaldiko formak *-(e)la* atzizkiarekin, joskera sintetiko nahiz perifrastikoan (*datorrela, joan dadila, egin dezala*). Atal honetan *b-* aurrizkiaren balioaren, erabileraren eta muga berri emanen dugu (§ 1.5.2.1), bai eta orainaldiko formen gainean eratu jusiboena ere (§ 1.5.2.2). Zuberoako testuen lekukotza ikertu ondoren (§ 1.5.3), azterketa diakronikoaren barnean, jusiboaren bi moldeen arteko lehiari arreta eskainiko zaio (§ 1.5.4).

1.5.2. Jusiboaren adierazpena euskaraz

1.5.2.1. *B-* aurrizkidun formak

B- aurrizkidun jusibozko formak lekukotuak dira euskal herri eta garai guztietan. Haien erabilera zenbait faktoreren menpekoa da: perpausa baiezko ala ezezkoa den, aditzaren jokamolde sintetiko ala perifrastikoa den eta, aditz iragankorren kasuan, objektu zuzena 1., 2. edo 3. pertsonakoa den (Lafon 1944: xx; Oyharçabal 2000: 2; Mounole 2011: 97).

- (286) *Santifikadu dila zure izena, betor gugana zure erreñua, egin bidi zure borondatea.* (Kapanaga *Dotrinea*)
- (287) *Ikas bezate lehenik beren etxe proprira pietateren erakusten* (Lç Paul Tim. 5, 4)
- (288) *Minza bite guzaz zehar, eta bira gure behar.* (O Pro 647)
- (289) *Beuka deseo andia al dagien guzian enzuteko.* (Ber *Tratado* 5. kap.)
- (290) *Iuia bezate nork duen falta guk bietarik.* (Urte, *Ethorkia*, 31. kap.)
- (291) *Biç Jincouatan çoure phensamentia, eta bihoua thaïc gabe Jesu Kristeganat çoure othoitcia.* (Mst II 1, 4)
- (292) *Dadukan dudaz konforme akusatu bidi.* (Otxoa Arin, 5. kap.)
- (293) *Esan begie besteak gura dabena.* (Añibarro, *Geroko Gero*, 19. burua)
- (294) *Bestaliarrak nahi tinak Jaon her adreza bite.* (Mardo “Bestaliarrak”)
- (295) *Nourbait egarri bada, jin bedi ene gana eta edan beza.* (EvS 7, 37)

Beraz, *b-* aurrizkia ager daiteke a) aditz iragangaitzen formetan; eta 2) aditz iragankorren formetan, baldin eta objektu zuzena 3. pertsonakoa bada,³⁶⁸ eta betiere [+ORAIN + *-(e)la*]

³⁶⁸ Bada salbuespenik: “Telles formes jussives ont été également utilisées au cours des 18^{ème} et 19^{ème} siècles en labourdin avec les phrases transitives à conjugaison périphrastique et à objet direct de 1^{ère} ou 2^{ème} personne” (Oyharçabal 2000: 2). Hauen adibideak bildu ditu Oyharçabalek, ondoko formetan: *benaza* ‘nazala’, *bezazate* ‘hazatela’, *bezaitza(te)* ‘(hark/haiek zu) zaitza(te)la’, *begaitzate* ‘gaitza(te)la’ & *bezaitzate* ‘(hark zuek)

moldeko formekiko lehian. Iduri luke *b-* aurrizkiaren erabilpenaren testuingurua baiezko perpausetara lerratu izana: “Dans les dialectes orientaux modernes, les phrases jussives négatives se réalisent avec la forme du présent suffixée plutôt qu'avec le préfixe jussif (lequel n'est pas exclu cependant ; cf. Lafitte 1962 § 865)” (Oyharçabal 2000: 2). Azkenik, *b-* aurrizkia baztertzen da ezezko perpausetako joskera sintetikoan: “Dans tous les dialectes, y compris les occidentaux, [l'usage] est non naturel ; le maintien du préfixe jussif entraîne l'emploi de la conjugaison périphrastique” (*ibid.*).

1.5.2.2. Oraineko formak + *-(e)la*

Jusiboen adierazteko bigarren moldea orainaldiko forma jokatueta abiatzen da, dela [aditzoin / partizipio + **edin*, **ezan*, *egin*] perifrasiari gainean (296)-(300), dela adizki trinkoetan (301)-(302), *-(e)la* atzizkia erantsiz. Halere, inoiz hirugarren pertsonaz igortzen den manua subjuntibo hutsean ageri da, *-(e)la* gabe (303).

- (296) *Santifikadua izan dila zure izena*. (Betolatza)
- (297) *Goberna dezatela Iainkoaren loriatan*. (Pouv *Dotrina* “Pregariak”)
- (298) *Santifikadu dila zure izena*. (Arzadun)
- (299) *Jangoikoak alan nai daijala*. (Añibarro *Geroko Gero* 56. burua)
- (300) *Beguir ditiala orano juratcetic*. (*HOrdre* 19)
- (301) *Beste guziak dantzutela, esan zien, Absalonen bizia, arren, gorde zezatela*. (Lard XIX)
- (302) *Laidatu dela jauna Gincó creiaçalia*. (*Xarlem* 538)
- (303) *ayguelon eta ferragus / Egon ditian Navarran / *Eta ounxa avisatu / Estitian françian*. (*Xarlem* 43)*

Jusiboaren molde hau subjuntiboari lotua da, hainbat hizkuntzatan gertatzen den bezala: “Les langues les plus diverses (espagnol, italien, grec classique, hausa, swahili et luvale (langues bantoues) se servent du subjonctif comme forme de jussif” (Mounole 2011: 96). Euskaraz [aditzoin + **edin*, **ezan*] eta [partizipio + *egin*] perifrasietan gauzatzen da, edo “subjuntibo zahar” deitua izan den joskera sintetikoaren gainean. Ikusiko denez (§ 1.5.4), hein batean, jusiboeko formen bilakaera joskera analitiko edo sintetikoaren araberakoa izan da.

zaitzatela’. Forma hauen izaeraz ondokoa dio Oyharçabalek: “Si elles ne sont certainement pas dues à quelque invention artificielle, ces formes, néanmoins, se sont sans doute développées de façon assez récente (18^{ème} siècle), puisqu'elles ne sont pas attestées dans les textes des deux siècles précédents. Elles semblent également avoir été restreintes au dialecte labourdinois, et à l'auxiliaire **ezan* (aucun exemple n'est attesté à ma connaissance avec un verbe en conjugaison synthétique)” (*ibid.* 7). Mounolek hedapen analogikoa dakus halako formetan: “Tout porte à croire que ces formes se sont développées tardivement et par extension analogique du préfixe *b-* à toutes les formes de jussif” (2011: 97). Bestalde, Bonapartek gipuzkeraz ere agerrarazi zituen halakoak (1869: 53 & 72). Oyharçabali jarraikiz, “Seul le souletin littéraire est présenté sans de telles formes” (2000: 7).

1.5.3. Jusiboaren adierazpena Zuberoako testuetan

1.5.3.1. [B-ERRO] moldeko jusiboak

Zuberoan *b*-dun jusibo sintetikoak zenbait aditz errorekin lekukotuak dira; guztira hamar aditzetan aurkitu ditugu: **edun* (304)-(305), *egin* (306), *egon* (307)-(308), *etor* (309), *-io-* (310), *izan* (311)-(315), *jakin* (317), *jarraiki* (318), *jaugin* (319), *joan* (315)-(316).

- (304) *Ahalgegabeak bitu epher erreak*. “L'effronté se fait traiter avec des perdrix rôties” (O *Pro* 9)
- (305) *Bu gloria Jainko honak, / Bu gizonak / Bakea leihorretan*. “Gloire au bon Dieu au plus haut des cieux! paix à l'homme sur la terre !” (O *Po* XX)
- (306) *Nahis espegui gaiis ilhargui* “Bien qu'il ne fasse pas clair de lune, la nuit” (O *Po* XVI 1).
- (307) *Beude appart egun / Oro tristurac*. (NLilia 12)
- (308) *Izkiribatu dudana, bego izkiribaturic*. (EvS 19, 22)
- (309) *Betor betor herioa, / Bizi'ene hastioa*. “Que vienne, que vienne la mort ! La vie m'est odieuse.” (O *Po* VI)
- (310) *Gainerakoz bihotza / al' urrix' al' orotsa / duen, izterbegiak / porogatus bihotza*. “Quant à savoir si son cœur est femelle ou mâle, que l'ennemi en fasse l'épreuve et le dise !” (O *Po* XIII 23)
- (311) *Ordian bira alde orotaric bilduric goure botheren araura*. (Etchart 4, 1r)
- (312) *Gincoari biz laidorio, bicier baké, hiler paussu*. (Bp I 134)
- (313) *Gingouaren hitça biz complitu*. (NLilia 3)
- (314) *Possible deia oithian / berri hori eguia den? / Bena biz; behar dugu / bethi corage ukhen*. (SteEli 1496)³⁶⁹
- (315) *Biç Jincouatan çoure phensamentia, eta bihoua thaïc gabe Jesu Kristeganat çoure othoitcia*. (Mst II 1, 4)
- (316) *Hontarzün dianak bihoa hirian ta bürgian, etxez etxe*. (Egiat I 28)
- (317) *Beki on eta gaitzaren berri, kargutan duenak zenbait herri*. “Celui qui doit gouverner une province doit avoir connaissance du bien et du mal” (O *Pro* 73)
- (318) *Othoitzen eztakiena Jainkoari, berraio itsasoari*. “Celui qui ne sait prier Dieu qu'il s'adonne a la mer.” (O *Pro* 663)
- (319) *Biaigu bere praubegnu houneganat, eta alaguera beça, heda beça bere eskia, eta solta miserable haur bere hersidura orotaric*. (Mst III 21, 4)

Salbu *izan*,³⁷⁰ *egon* eta *joan* aditzentzat, *b*-dun jusibo sintetiko hauek arras minoritarioak dira zubereraren corpusean (ikus, beherago, 85-88. TAULAK). 84. TAULAK erakusten duenez,

³⁶⁹ Hau da *izan* aditzaren azken jusibo sintetikoa (ca. 1810). Gainerakoak ez bezalakoa da, subjektu ageririk gabea. Iduri luke frantsesaren *soit* soilaren kalkoa —espainolezko *sea* ‘amen’—, hots, euskaraz normalki *bego* gisara adierazten dena.

³⁷⁰ *Izanen* kasuan ez da *hala biz* formula liturgikoa kontuan hartu. Orotara, *hala biz* 195 aldiz ageri da corpusean: *PrS* (6 aldiz), *Bp* (7), *Catolo* (9), *Othoitce* (3), *CatOlo2* (9), *IP* (6), *Mst* (5), *Ressegue* (10), *StJul* (2), *Mercy* (3),

bederatzi aditzetarik bostek *b*-dun jusiboaren agerraldi bakarra dute corpusean: *etor*, *-io-*, *jakin*, *jarraiki* & *jaugin*; bost hauetarik lau Oihenartengan ageri dira, eta bosgarrena (*jaugin*) Maisterrengan:

84. TAULA. *B*- aurrizkia forma sintetikoetan, maiztasunaren arabera.

<i>izan</i>	31	Etchart 4, 1r; O <i>Pro</i> 91, 486 & 647; O <i>Po</i> XV; Bp I 134 & II 18; Mst I 1, 1; II 1, 3; 1, 4; 8, 3; 12, 15; III 4, 3; 16, 3; 21, 6; 29, 1; 37, 3; 40, 5; 40, 6; 49, 7; 50, 3; 50, 5; 56, 5 & 57, 4; <i>StJul</i> 1307; <i>NLilia</i> 3 (2); Egiat I 16; <i>SteEli</i> 1496.
<i>egon</i>	17	Saug 47; O <i>Pro</i> 641; Tt <i>Onsa</i> 3. kap. & 4. arrazoiña; <i>StJul</i> 109; <i>NLilia</i> 12; Egiat I “Hitzauria”, 9, 15, 17, 21 & 28; <i>Edipa</i> 337 & 963; <i>Boubane</i> 134; <i>EvS</i> 19, 22.
<i>joan</i>	10	O <i>Pro</i> 213; O <i>Po</i> XX; Tt <i>Onsa</i> 3. kap & 3. arrazoiña (2); Tt <i>Arima</i> ; Mst II 1, 4; Egiat I “Hamalaurduna” & 28; <i>Xarlem</i> 761.
<i>*edun</i>	3	O <i>Pro</i> 9; O <i>Po</i> XX.
<i>egin</i>	1	O <i>Po</i> XVI 1
<i>etor</i>	1	O <i>Po</i> VI.
<i>-io-</i>	1	O <i>Po</i> XIII 23
<i>jakin</i>	1	O <i>Pro</i> 73.
<i>jarraiki</i>	1	O <i>Pro</i> 663.
<i>jaugin</i>	1	Mst III 2, 1.

1.5.3.2. [*B*- + orainaldiko **edin* & **ezan*]³⁷¹ moldeko jusiboak

B- aurrizkia, bestenaz, **edin* & **ezan* laguntzaileen orainaldiko formei eransten ahal zaie. Perifrasi hauek dira, diferentziarekin, *b*- moldeko jusibo gehien lekukotu dituzten egiturak. Espero bezala, **edin*-en ABS pluraleko forma [-z-] pluralgilerik gabea da (332)-(335), eta **ezanen* ERG pluraleko forma *beze* (325), (330), (347) edo (348), salbu Tartasengan,

NLilia (1), Egiat (1), *UskLi* (27), *DKhi* (13), *CatS* (24), *Medit* (23), Ip *KurBD* (2), *MaiMarHil* (4), *HOrdre* (27), *Myst* (3), Urruty (2) eta *Catuchuma* (10).

³⁷¹ Euskara orokorrari buruz aritzean *egin* mendebaldeko laguntzailea aipatu beharko litzateke, eta **iron* ekialdekoa. Aldiz, azken hau ez da jusibozko formetan lekukotua izan: “Le jussif ne peut être utilisé avec l'auxiliaire oriental **iro*, lequel n'a d'ailleurs jamais d'emploi impératif ou subjonctif” (Oyharçabal 2000: 2). Ohartarazten dugu, aldiz, **iron* subjuntibo gisa uler daitezkeen perpausetan erabilia izan dela Zuberoan, balio final batez (Padilla 2013: 156).

erdialdeko [-TE-] pluralgilea erabiltzen duena (346)—. *Edin-en datibo indizearekiko formen artean (336)-(341), behin ageri da -zki- segida (339), hau ere Zuberoako euskarari arrotz.

- (320) *Bere onak eztituena urrikari, gomenda bedi urte gaitzari.* (O Pro 95)
- (321) *Minza bite guzaz zehar, eta bira gure behar.* (O Pro 647)
- (322) *Kalitza haur aparta bedi niganik.* (Tt Onsa 3. arrazoina)
- (323) *Erabil bedi saintuqui çouré icena, çouré erresuma gin bequigu, çouré boronthatia eguin bedi celian beçala lurrian.* (PrS 21)
- (324) *Hour haur igan bedi gora.* (Othoitce 62)
- (325) *Biz aphür bat mesperetxatü, eta ümiliatü, ezdeus bedi gizonen aitzinian, soferitzek, eta eritarzünek xeheka beze.* (Mst III 50, 3)
- (326) *Bena bera present beita, / minça bedy clarky.* (StJul 100)
- (327) *Complitu içan bedy / çoure boronthatia.* (StJul 138)
- (328) *Amen, hala içan bedy, hala biz.* (StJul 662)
- (329) *Erhauz bedi, harren bazca bilha bedi!* (Medit 214)
- (330) *Jaiki bedi Jaincoa eta, haren exayac hurrunt bite, ihes eguin bece haren aitcinian.* (HOrdre 182)
- (331) *Utçul bedi gaizkitic, eta eguin ountxa; tcherkha beça bakia eta jarraiki deçala.* (Epit I 3, 11)
- (332) *Çoure othoyac emplega bite.* (Ressegue 48)
- (333) *Sonu eguile suertiac / oro bite abantça!* (SteEli 908)
- (334) *Gayça hoyec igaran bite ezkiribuz.* (UskLi 125)
- (335) *Emaztiac ere içan bite sousmis beren senharrer.* (Epit I 3, 1)
- (336) *Celaric nahi eztuianari eman bequiu basto.* (Saug 132)
- (337) *Jin bekitçat laguntcera, ene escupetic jelkhitera.* (Medit 57)
- (338) *Agui bekit çuc dioçun beçala.* (MaiMarHil 37)
- (339) *Ahatz bekizkitçu haien bekhatiac eta nouriac.* (MaiMarHil 129)
- (340) *Aitciniala aguer bekiçu Aingurien khorte brillanta, hel bekiçu Apostolien semblada gloriosa.* (HOrdre 182)
- (341) *Ene cerbutchari dena jarraiki bekit.* (EvS 12, 26)
- (342) *Saguak jan liroena, jan beza gathuak.* (O Pro 704)
- (343) *Jinkuak maradika beza Gaztelondo Topetia.* (Etchahun “Ahaide delizius huntan”)
- (344) *Ihes eguin beça çoure aitcinian Satanec bere laguneki.* (HOrdre 182)
- (345) *Nourbait egarri bada, jin bedi ene gana eta edan beza.* (EvS 7, 37)
- (346) *Egin bezate argi mundu orori.* (Tt Onsa 3. kap.)
- (347) *Jarraik beze santü handi haren errana.* (Egiat I 2)
- (348) *Emazte gaizto malerousaq / oroq jaquin bece noula den.* (Edipa 151)
- (349) *Bena Jinkuak lagün bitza haiek nik maitha artino.* (Etchahun “Musde Tiraz”)
- (350) *Goure Jaunac plazer badu, eman biçagu.* (Bp I 134)
- (351) *Eman biçacu bethiereco içatia.* (HOrdre 182)
- (352) *Cietaric bekhatu gabe denac ourthouc biço lehen harria.* (EvS 8, 7)

1.5.3.3. [+ORAIN + -(a)la] moldeko jusibo sintetikoak

Gorago errana den bezala, *b-* gabeko jusibo sintetikoak orainaldiko forma jokatueterik abiatzen dira. Mendebaldean *datorrela* ‘etor bedi, etor dadila’ bezalakoak ohikoak badira, zubereraren corpusean oroz gaintetik *izanen* gaineko trinkoak aurkitu dira [+ORAIN + (a)la] egituretan. *Izan*-en *b-*dun jusibo sintetikoak ABS singularrekoak dira kasik beti; *direla* bi aldiz

atzeman da, baina jusibozko balioa dudazkoa gertatzen zaigu (367). Erran behar da gehienak *izan*-en gainean eratuak direla (ikus 85. & 87. taulak): 57 agerraldi vs. 8 **edun*-entzat —eta zortzi horietarik zazpi testu berean, zeinetarik sei ber formularen errepikapen huts baitira (369)-(370)—. (371)-ko pasarteak *joan*-en jusibo sintetiko bat lekukotzen du.³⁷²

- (353) *Iaincoa dela gourequi.* (Etchart 3, 1v; 4, 1v; 5, 1v; 7, 2r & 8, 1v)
 (354) *Maradikatu dela gizona, zoiñek gizonaren semia tradituko baitu.* (Tt Onsa 3. kap.)
 (355) *Gincoua dela maithatu, / Oroz dela cerbutchatu.* (Othoitce 61)
 (356) *Halaber laidatu dela [Virginia sacratia].* (Othoitce 96)
 (357) *Gracia dela çoureky, benedictione eta bake ossagarriareky.* (StJul 233)
 (358) *Amen, hala dela, hala biz.* (StJul 664)
 (359) *Bethierecoz dela laidatu Andere dana Maria.* (NLilia 8)
 (360) *Si quierez etender / kaka dela cientako.* (Edipa 248)
 (361) *Haren boronthate saintia / bethi dela konplitü!* (Chiveroua 345)
 (362) *Benedicatu dela jauna charlemaigna çourequi.* (Xarlem 989)
 (363) *Courriera, Gincouaren bakia dela bethi çoureki.* (SteEli 1261)
 (364) *Benedicatu dela Jaunaren icenian jiten ceikuna; içan bedi laydatia celuric gorenian.* (UskLi 42)
 (365) *Maradiakatü dela / orena eta mementua.* (Malqu 124)
 (366) *Laidatu eta benedicatu dela bethi Maria ecinago garbia.* (MaiMarHil 120)
 (367) *Excumucatu direla diogu hereticouac, simonianouac, confidenciariac, Magicienac, belhaguiliac, eta açtiac oro.* (IP 12)
 (368) *Aita, seme, espiritiac diela / Gloria hirourec içate batian.* (Othoitce 95)
 (369) *Gloria diela Aytac, semiac eta Spiritu Saintiac.* (UskLi 43)
 (370) *Gloria diela...* (UskLi 119, 121, 123, 126, 127 & 129)
 (371) *Oro douatçala haren bistatic.* (Medit 221)

1.5.3.4. [+ORAIN + -(a)la] moldeko jusiboen forma analitikoak

Azkenik, **edin* & **ezan* laguntzaileekiko perifrasiari, maiz *subjuntibo* deitu izan direnak, -(a)la atzizkia erantsiz ere adieraz daitezke jusiboak. Gogora bedi aditz iragankorretan *b-dun* formak ABS 3. pertsonakoa delarik baizik ez direla eratzten, § 1.5.2.1 puntuan aipatu diren salbuespenak gorabehera. Hortaz, ABS 1. eta 2. pertsonakoa denean ez baita *b-dunen* eta *b-* gabekoen arteko lehiarik gertatuko, puntu honetan ABS 3. pertsonako duten formak baizik ez dira kontuan hartuko.

³⁷² *Meditacioniac* (1844) Baratciarten *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea* (1784) liburuaren zubererazko itzulpen eta moldaketa izateak bide ematen du *douatçala* forma lapurterazko iturriaren eraginak agerrarazi dukeela pentsatzeko. Ez dugu pasartearen iturria atzeman, baina beste pasarte batean ikusten dugu zubererazko bertsioaren moldatzaileak iturriaren forma sintetiko batzuk analitiko bihurtu dituela: *Dathorçula oraino Martir gloriossoen armada triumphantia* (Baraciart 264) → *Jin dakiçula orano Martir gloriossen armada triumphantia* (Medit 220). Bestalde, Zuberoan *joan* aditzaren jusibozko forma sintetikoak lekukotuak ditugun bitartean (ikus 84. TAULA), *etorriren* kasuan soilik Oihenartek eman du *betor* (O Po VI); ez bedi ahantz zuberotarrek *jin* erabili dutela maizenik.

- (372) *Eta comentia dei dadila bethiere Santa Clera. (SteEli 1079)*
 (373) *Mundu orori balia dadila sacrificio hori. (HOrdre 92)*
 (374) *Hilen arima honac oro çoure misericordiaz othoi baké bethierecoaz goça ditiala. (Bp I 137)*
 (375) *Ene phensamentü gaixtuak oro ihesi juan ditiala. (Mst III 23, 3)*
 (376) *Saintiac oro arartecari içan ditiala gouretaco Gincouaren eretcian. (DKhi 9)*
 (377) *Suian ezcoua beçala çoure aïtcinian hourt ditiala. (Medit 221)*
 (378) *Horien arabera içan ditiala ene lanac, elhiac, eta gogouac. (HOrdre 88)*
 (379) *Khirsti hil direnen arimac phausian içan ditiala. (Myst 12)*
 (380) *Çoure arguiac argui deçala hetan gaignen bethiere. (Ressegue 52)*
 (381) *Arranouñcia deçala lurreco ezdeuskerier. (Khurutch 31)*
 (382) *Seculaco lecerat ihes eguin deçala. (Medit 221)*
 (383) *Oxo denak oxoa eghin dezala Eta oxo bethi egon dadila. (Archu 19)*
 (384) *Jincouac handi deçala gracia eta bakia cietan! (Epit I 1, 2)*
 (385) *Ene beguien aïtcinian lahardeca decela. (Edipa 900)*
 (386) *Arima fidel hil direnec baquiaren phausia uken decela. (DKhi 10)*
 (387) *Khirstiec oroc algareki bat eguin decela gogoz eta bihotcez. (HOrdre 91)*
 (388) *Hastia decela bekhatia. (Myst 101)*

Baiezko eta ezezko perpausen arteko desberdintasuna aipatu behar da. Mounoleren arabera, “Les auteurs orientaux des 15^{ème} et 16^{ème} siècles n’emploient jamais la forme à préfixe *b-* en contexte négatif” (2011: 98), baina baieztapen kategoriko horri ñabardurarik egin behar zaio. Egia da *b-* moldeko jusiboak baiezkoetan ezezkoetan baino anitzez aiseago aurkitzen direla; beraz, ezezko perpausetako jusiboak usuenik subjuntibozko formen gainean eratzen dira. Halere, Lafonek ohartarazi bezala,³⁷³ [ez *b-ERRO*] segida XV edo XVI. mendekotzat hartzen ahal ditugun atsotitzetan ageri da (389)-(390), eta Oihenarten neurtitzetan (56), eta are 1844koa den *Meditacioniac* liburuan ere (392)-(394).

- (389) *Bere ahal dena, ezipiz bertzeren. (O Pro 91)*
 (390) *Ber’ etxea beirez dadukanak estalirik, ezpeza aurtik berzerenera harririk. (O Pro 92)*
 (391) *Nahis espegui gaiis ilhargui “Bien qu’il ne fasse pas clair de lune, la nuit” (O Po XVI 1).*
 (392) *Arren confondi bite eta ahalke ezipiritu gaichtouac oro, eta satanen ministroric batere ez bedi ausart çu celuco bidetic guibeltcera. (Medit 221)*
 (393) *Travaillatcian, çoure dessein principala ez bedi içan diharu irabaztia. (Medit 9)*
 (394) *Ez bite içan enetçat inutil, hayen erhokeriac çuhur neçala. (Medit 81)*

³⁷³ Hona Lafonen iruzkina: “Cette construction [nahiz kontzesiboa gehi aginterazko forma], dont je ne connais pas d’ autre exemple, et dont on ne peut dire si elle n’ est pas une création d’Oihenart, est remarquable [...] avec un impératif, et, qui plus est, avec un impératif négatif (*ez begi* « qu’il ne le fasse pas ! »). [...] La vieille langue a donc connu des formes négatives d’impératif. Mais d’autres dépouillements de textes seraient nécessaires pour déterminer dans quelle mesure elles ont été employées, et s’il faut voir en elles un archaïsme ou une innovation” (1949, in *Vasconiana* 818).

[Ez b-ERRO] egitura bizpalau aldiz baizik ez denean ageri, azpimarkatu behar da ezezko perpausetako jusiboek [+ORAIN + (a)la] moldean dutela adierazpide nagusia (395)-(403). Zenbaitetan baiezko/ezezko perpausen araberrako hautuak batera ageri dira (398) & (402).

- (395) *Urthearekila, iragan dateeno, kexa ezdadila.* (O Pro 677)
 (396) *Eztadila nehor tronpa.* (Tt Onsa 3. arrazoiña)
 (397) *[Arima] / eztadila iagoiti theiu, / berriz inikitiaz.* (Othoitze 51)
 (398) *Ixil bite dotorak oro, mütü bite kreatürak oro, zure aitzinian: zü baizik eztakidala ihur mintza.* (Mst I 3, 2)
 (399) *Eztadila arren zure bihotza nahas, ez-etare lotsa.* (Mst III 30, 3)
 (400) *Eztadila aüisart çoure bidialat aguertcera Satanen ministroric.* (HOrdre 183)
 (401) *Eta cien ornamentia eztadila içan campoticoua.* (Epit I 3, 3)
 (402) *Cietaric batec ere ezteçala soffri guiçon ehaile edo kurious beçala, besteren eguitecouetan. Bena khiristi beçala soffritcen badu ezteçala hartçaz ahalkeric ukhen; bena glorifica beça Jincoua hartan.* (Epit I 4, 15-16)
 (403) *Ezteçela jan bascaitan eta aihaitan baicic.* (HOrdre 11)

1.5.3.5. Jusiboa geroaldiari buruz igorria

Aipa dezagun, azkenik, aginduak geroaldiari buruz igor daitezkeela, hots, perpausa ekoizten den baino berantagoko memento batera. Jusiboen kasuan, euskaraz partizipio prospektiboaren gaineko perifrasiak balia daitezke, inguruko erromantzeen geroaldiko formen ordain. Hau sistematikoki aztertu ez dugun arren, Alexis Mercy-ren itzulpena (Eskiula, 1780) balia dakiguke erakusgarri gisa. Ondoan ematen den 9. artikuluan, partizipio perfektibodun zazpi perifrasi kausitzen dira, frantsesezko originalaren³⁷⁴ geroaldiko aditzen ordain gisara; haietarik seik garbiki adierazten dute jusiboa.³⁷⁵

Oren houra IGARENEN DUYE eliçan, Sacramentu Sainiaren aitzinian, eta dembora hartan OCCUPATUREN exerficio pietatezcouarençat; EGUINEN AHAL DUYE berhala, confecracionezco acte heben gaignen hirourgaren articulian marcatia; eta orhoitce jaun direcotrrac HAITATUREN DERENETARIC çombait; bakhoitçari bere jakitiaren eta indarraren arau. Perfonna iracourten eztakienec EMPLEGATÇEN AHAL DUKEYE oren houra, chapelet baten erraitez, edo beste

³⁷⁴ “On passera cette heure devant le très saint sacrement, et durant ce tems on s’occupera à de pieux exercices envers notre Dame du scapulaire, on pourra faire d’abord l’acte de consécration marqué cy dessus art. III et quelques prières que monsieur le directeur pourra leur indiquer, à chacun selon sa portée, les personnes qui ne savent pas lire pourront employer cette heure à dire le chapelet, ou à faire quelqu’autre des prières qu’elles savent, si on ne peut point aller passe cette heure dans l’église, on fera chez soy les prières qu’on auroit fait devant le saint sacrement, ou bien on les différera à un autre jour plus libre.” (Lucuix 1995: 58)

³⁷⁵ Hona hemen geroaldiko jusiboak: igarenen duye (fr. on passera), occupaturen [duye] (fr. on s’occupera), eguinen ahal duye (fr. on pourra faire), empletatçen ahal dukeye (fr. pourront employer), eguinen dutie (fr. on fera), igorrico edo diferituco dutie (fr. les différera).

çombait othoitce edo oracione dakien en eguitez edo erraytez. Oren haren igaraitera ecin jouayten badira eliçala, bere etchen EGUINEN DUTIE Sacramentu Sainiaren aytcinian eguin çutukyen othoitciac, edo beftela IGORRICO EDO DIFERITUCO DUTIE befte egun foltago batetaradrano. (Mercy 27-27)

Atal honi akabantza emateko, eta jusiboaren adierazpenaz eta maiztasunaz ari garela, ekar ditzagun zubereraren corpusean atzeman diren bi pasarterik aberatsenak. Lehena *Meditacioniac* lanetik atera da (1844):

Arren çoure arima khorpiticetic elkhitian, aitciniala JIN DAKIÇULA, Aingurien tropa; HUILLANT DAKITÇULA, jugetaco jarriric daudien Apostolu handia; JIN DAKIÇULA orano Martir gloriouren armada triumphantia; UNGURA CITÇALA confessoren khortiac; boztarioreki ERRECEBI CITCELA virgina chahiec, eta PLAÇA CITCELA Patriarken saihtsian.

Finian graciouski eta amorioreki HAR CITÇALA Jesus-Christec, eta ORDENA DEÇALA içan citian bethi haren presentcian direnen nombreco. Hurrun ordian çoure ganic ulhunpetaco loxeria eta suiaren < 221 > suplicioniac oro. CEDI BEKIÇU satan icigarria bere lagun ororeki, eta ikharaturic çoure ikhoustez. Ainguru saintiez laguntia, seculaco lecerat ihes eguin DEÇALA: JAIKI DADILA Gincoua, haren exaiac ITÇAL DITIALA, eta houra hugu dienec; oro DOUATÇALA haren bistatic; khiaren pare IÇAN DITIALA, eta suian ezcoua beçala çoure aitcinian HOURT DITIALA; justouac aldiz satisfa eta BOZ DITIALA. Arren CONFONDI BITE eta ahalke ezpiritu gaichtouac oro, eta satanen ministroric batere ez BEDI AUSART çu celuco bidetic guibeltcera.

Jesus-Christ, çoure gatic crucificatu denac, berac BEGUIRA CITÇALA thurmentietaric: çoure gatic hil içan den salvaçaliac berac BEGUIRA CITÇALA hiltce eternaletic: Gincoua biciaren semiac berac bere ardi maiten artian eçaguturic, artçain houn batec beçala, pharadusuco plazeren erdian EÇAR CITÇALA. Duçula bekhatu ororen pharcamentia, eta EMAN CITÇALA bere alde ezkugnian haitatieki. Ordian icous deçaçula burraz-buru çoure salvaçalia, eta çoure beguiez boztarioreki considera Eguia eternala, goça citian dohaxieci Gincouaren contemplaciaz dien < 222 > eztitarçun guciac, orai eta eternitatian. HALABIZ. (*Meditacioniac* 220-222)

Bigarren pasarte *Heren-Ordreco escu libriakoa* da (1860):

Gomendatcen çutugu, anaye (edo arreba) kharioua, Jinco orophoterexiari, çoinen creatura beiticira; eta othoitcen diçugu, naturari çor duguna heriotciac phacatu dukeçunian, utçul citian, çoure khorpitzta lurretic formatu dienarenganat. Çoure arima khorpitzetic elki < 182 > datekienian, aitciniala AGUER BEKIÇU Aingurien khorte brillanta, HEL BEKIÇU Apostolien semblada gloriosa; Martyren armada triumphantia ikhous deçaçula çoure hartcera eraisten; HAR CITÇALA bere artian Cofesoren tropa chouriac, ERRECEBI CITCELA Virgina ederrec boztariozco cantiken cantatzez; Patriarkec BESSARCA CITCELA eta bere dohaxuzco phausiala

LAGUNT CITCELA. AGUER BEKIÇU Jesusen beguithartia, eztitarçunez betheric eta boztarioac arguituric; eta haren gloriâz gozatcen dienekei, EMAN BIÇAÇU bethiereco içatia. Eztitçatçula eçagut Ifernuco ilhunpetaco heyagora loxagarriac, sugarretaco errabia, eta han soffritcen diren phena icigarriac. Ihes EGUIN BEÇA çoure aitcinian Satanec bere laguneki; IKHARA BEDI, çoure Ainguruz unguraturic ikhoustonian, eta SAR BEDI arguitceric ezten gayaren ilhumpe belcian. JAIKI BEDI Jaincoa eta, haren exayac HURRUNT BITE, ihes EGUIN BECE haren aitcinian, hora hugu dienece. Khia galtcen den beçala GAL BITE; ezcoa suyan hourtcen den beçala, HOURTBITE Jincoaren aitcinian spiritu gaistoac. Justoec aldiz GOZA BITCE bethicotz, Jincoareki edireiten diren plazerac eta hountarçunac.

< 183 > BIHOATZA arren ahalkez eta confusionez betheric, ifernuco legioniac, eta EZTADILA AÛSART çoure bidialat aguertcera Satanen ministroric.

Phenetic LIBRA CITÇALA, Jesu-Krist çoure gatic khurutchian itçaturic içan denac, BEGUIRA CITÇALA heriotce eternaletic, Jesu-Krist çouregatic hildenac. EÇAR CITÇALA bere gozameneczo pharadusu ederrian, Jesu-Krist Jinco Semiac, eta bere arditaco EÇAGUT CITÇALA eguiaczo Artzain houn harece. Çoure bekhatiac oro PHARCA DITÇATÇULA, eta JAR ERAZ CITÇALA bere escuinian, bere arima haitatien artian. Çoure beguiez ikhous ahal deçaçula çoure Arrerosliaren beguitharte ezti eta gloriosa, haren aitcinian bethi IÇAN CITIELA; eta odeyc gabe ikhous deçaçula eguia eternalaren arguia. Arima dohaxien ooren companian, ikhous eta goza deçaçula Celuco Jinco, bethi mente gucietan. HALABIZ.

Errebeci eçaçu, Jauna, çoure cerbutzaria, çoure misericordiac esparantça dien salbamentuzco lekhian. HALABIZ.

Libra eçaçu, Jauna, çoure cerbutzariaren arima, Ifernuco langer orotatic, phenen laçoetic, eta gaitz gucietatic. HALABIZ. (*HOrdre* 180-183)

1.5.4. Iruzkin diakronikoa

Oyharçabalentzat *b-* aurizkia ez da [D-], [Z-] eta [L-] morfemekin parekagarri: “[*B-*] correspond à un préfixe subordonnant de modalité énonciative, comme *ai-* et *albait-* dans la vieille langue; il est également semblable du point de vue de ses propriétés morphosyntaxiques aux autres préfixes complémentaires pouvant se joindre aux verbes, à savoir *ba-* suppositif et *bait-*” (2000: 1). Ondorioz, *b-* aurizkidun formek analisi berri bat behar dute:

Je proposerai d'analyser ces formes comme résultant de l'adjonction du préfixe modal jussif *b-* au radical du verbe tel que celui-ci apparaît dans le paradigme du non-présent. En fait ces formes verbales sont celles que l'on rencontre dans les impératifs à sujet ergatif, du type #*eza-zu* ou #*i-dazu*. Elles n'ont donc rien d'exceptionnel dans l'expression de l'injonction. A

l'impératif la forme nue n'est disponible avec les verbes transitifs que dans les formes sans préfixe personnel. Dans les jussifs, par contre, l'absence d'un sujet 2^{ème} personne bloque leur emploi, sauf lorsque le préfixe jussif leur est joint. (*ibid.* 10)

Horrezaz gain, Oyharçabalek bi argudio sintaktiko baliatzen du *b*-dun formen analisi berriaren defendatzeko: a) jusibozko formek ez dute alokutiboa onartzen; eta b) ez dute menderakuntzazko inolako aurrizki edo atzizkirik onartzen (*ibid.*).

Ez da gure esku *b*-dun jusiboen sorreraren kronologiaren ezartzea; erran dezakeguna da testurik zaharrenetarik ongi lekukotuak direla, Zuberoan bezala euskal herri guztietan ere. Aldiz, testuek erakuts dezaketen bilakaeraren berri ematea posible dugu, eta Zuberoako lekukotasunei hertsatuz, jusiboaren bilakaera bi ardatzen inguruan deskriba daiteke: alde batetik *b*- aurrizkidun formak vs. *-(a)la* atzizkidunak; beste aldetik forma sintetikoak vs. analitikoak. Hori guztia ahanzi gabe perpausak baiezko edo ezezko izateak ere eragina duela jusiboaren adierazpeneko hautuen agertzean.

Corpusetik idoki diren jusibo guztiak bildu eta sailkatu ondoan, datuak testuka eta egituren arabera antolatu ditugu, aditz iragangaitz zein iragankorrenzat —87. & 88. TAULAK, hurrenez hurren; 85. eta 86. TAULEK mendekako zifrak eskaintzen dituzte—. Aditz iragangaitz eta iragankorrek batera harturik, ikusten dugu testurik zaharretan *b*-dun jusiboak gailentzen zaizkiela *b*-gabekoei. Oihenartek *b*- moldea ematen du kasik beti (10 vs. 1) —aipagarria da haren *kexa eztadila* (*Pro* 677) *b*-gabeko jusiboen lehenbiziko agerraldia izatea, seguruenik ezezko perpausa izateagatik—. Tartasengan proportzioa 34 vs. 4koa da, Belapeirerengan 10 vs. 1ekoa, eta Maisterrengan 45 vs. 5ekoa.

XVIII. mendearen bigarren erditik aitzina *-(a)la* atzizkidun jusiboak ugaritzen hasten dira, bereziki herri antzertiaren tradizioan: *Saint Julien d'Antioche* trajeria (1770) 11 *b*-dun vs 14 *-(a)la*-dun (guztiak iragangaitzak), *Sainte Elisabeth de Portugalen* 6 vs. 7, eta *Charlemagneko* 11 jusiboen artean ez da *b*-dunik. Baina herri antzertiko testuetako datuak engainagarriak gerta daitezke: haietarik ez da ondorioztatu behar joera berri baten hedakuntza (hots, *dadila* & *dezala* bezalako hedatzea *bedi* & *beza* moldearen kaltetan), baizik eta arkaismo batentzat hartzekoak diren *-(a)la* atzizkidun jusibozko forma sintetikoen iraupen nabarmena, bereziki *dela* formaren kasuan. Bistan denez, *-(a)la* atzizkidun jusibo sintetiko gehientsuenak *laidatü dela* / *benedikatü dela* / *madarikatü dela* / *Jinkoa* (*bakhea*) *dela zureki* bezalako formulak izateak (362)-(370) zaharkitze batera seinatzen duke. Trajeria zaharretako datuak Eguiateguyrenei alderatuz gero kontraste bizia azaleratzen da: *Philosofo Heuskaldun baten ekheia* lanaren 1. liburuko jusibo guztiak *b*- aurrizkidunak dira.

XIX. mendean *-(a)la* atzizkidun jusibo perifrastikoak Baionako diozesako testuetan hasten dira agertzen: *Meditacioniac* liburuan (1844) badira 21 *b*-dun jusibo perifrastiko vs. 12 *-(a)la*-dun perifrastiko; *Maiatza, Mariaren Hilabetian* 12 vs. 3; eta *Heren-Ordreco escu librian* 22 vs. 19. Urruty anderea gehiago baliatzen da *b*-dun: 12 vs. 4, eta 1899ko *Catuchuma españoulen* 6 vs. 1eko proportzioa da *b*-dunen alde.

Iragankorren saila bereiz aztertuz gero, *b*-dun jusibo perifrastikoen agerraldi gehienak XVII. eta XVIII. mendekoak badira, *-(a)la* atzizkidun jusibo perifrastikoen kasuan agerpena minimoa izanen da XIX. mendera arte. Aditz iragangaitzei doakienean, aipagarriena da *izanen b*-dun jusibo sintetikoak desagertuzat jo daitezkeela XIX. mendeko, *-(a)la* atzizkidunak zaharkituak gertatzen direnean.

XIX. mendea hesten duen *Catuchuma españouletik* (1899) idokia den ondoko pasartea arras argigarria da: “*Zer erran nahi du urhentzeco Halabizec? / Hala izan dadila*” (24). Garai horretan *halabiz* formula guztiz fosildua zatekeen, beraz; etsenpluan izenki batentzat hartua da, ergatiboaren marka erantsirik: *halabizec*.

Hein batean, [+ORAIN + *-(e)la*] moldearen bilakaera diferentea izan da joskeraren arabera: subjuntibo trinkoen gainean eraikiak beheituz joan dira, subjuntibo trinkoen (eta, oro har, adizkera trinkoaren) behera joan diren heinean. Paraleloki, joskera perifrastikoan kontrakoa gertatu bide da *-(a)la* atzizkidun jusiboazko formekin, maiztasunaren hazkundera seguruenik *b*- aurrizkidun formen zaharkitzeak areagoturik.

Euskara osoari begira, Zuberoako euskararentzat deskribatu dugun bilakaerak badu koherentziarik Euskara Arkaikoarentzat proposatu denarekiko:

En ce qui concerne la compétition entre ces deux formes de jussif à sujet (S ou A) de 3ème personne, les formes synthétiques et périphrastiques présentent des tendances différentes. Parmi les synthétiques, la forme *b-RACINE* est largement minoritaire dans les textes d’Etxepare et Leizarraga. [...] La forme *b-RACINE* est beaucoup plus courante dans les textes occidentaux de RS et Lazarraga, dans le texte souletin d’Oihenart, et dans le recueil de textes navarrais du 16^{ème} siècle. C’est la seule forme de jussif de 3ème personne employée dans les RS [...]. Elle est plus fréquente que la forme synthétique à suffixe *-(e)la* dans les textes biscayens du 15ème. [...]

Parmi les formes périphrastiques, les proportions sont plus serrées chez Etxepare [...], et dans les textes biscayens du 15ème [...] tandis que la forme en *b*- l’emporte chez Leizarraga [...], Lazarraga [...], Oihenart [...], dans les RS [...], dans *Text. Nav.* 15e [...].

Quant à la compétition entre les formes synthétiques et analytiques parmi les formes de jussif en *b-*, encore une fois les verbes possédant une forme synthétique semblent n'être que très rarement conjugués périphrastiquement. (Mounole 2011: 99)

Zuberoako lekukotasunetarik ondorioztatu dugun *b-dun* eta *-(a)la-dun* jusibozko moldeen forma sintetikoaren beheititze, zaharkitze eta azken puntuan galtzea adizkera sintetikoaren bilakaera orokorrean kokatzekoa da: Euskara Arkaikoan forma sintetikoak onartzen dituzten 68 aditz zerrendatu badira, egungo euskararen dozena eskas baizik ez dira (Mounole 2011); beheititze hori markatuagoa da ekialdera begiratzen badugu.

85. eta 86. TAULEK corpusaren jusibo guztien agerraldiak biltzen dituzte molde eta mendeka (84. TAULAN zerrendatu diren *b-dun* trinkoak ere), aditz iragangaitz eta iragankorrenzat, hurrenez hurren. Bertan joera orokorrak islatuak dira. Oro konta, 311 *b-dun* jusibozko forma bildu dira, *-(a)la* atzizkidunak 151 direnean.

85. TAULA. Aditz iragangaitzen jusibozko egituren agerpena mendeka.

	<i>b-</i> moldea		<i>-(a)la</i> moldea	
	<i>b-dun</i> trinkoak	<i>b-dun</i> perifrastikoak	<i>-(a)la</i> trinkoak	<i>-(a)la</i> perifrastikoak
XVII. m.	21	32	8	3
XVIII. m.	39	63	32	9
XIX. m.	2	81	22	35
orotara	62	177	63	47

86. TAULA. Aditz iragankorren jusibozko egituren agerpena mendeka.

	<i>b-</i> moldea		<i>-(a)la</i> moldea	
	<i>b-dun</i> trinkoak	<i>b-dun</i> perifrastikoak	<i>-(a)la</i> trinkoak	<i>-(a)la</i> perifrastikoak
XVII. m.	6	20	-	-
XVIII. m.	-	25	8	14
XIX. m.	-	25	-	21
orotara	6	70	8	35

87. TAULA. Aditz iragangaitzen jusbioen adierazpena Zuberoako testuetan.

	<i>b-</i> moldea					<i>-(a)la</i> moldea					
	<i>izan</i> (sintetiko)		<i>*edin</i> (analitiko)			oro	<i>izan</i> (sintetiko)		<i>*edin</i> (analitiko)		oro
	<i>biz</i>	<i>bira</i>	<i>bedi</i>	<i>bite</i>	DAT		<i>dela</i>	<i>direla</i>	<i>dadila</i>	<i>ditiala</i>	
O <i>Pro</i> ca.1600	2	1	1	1	2	7			1		1
Bela ca.1600											
Zalgize ca.1600					1	1					
Etchart 1616		1				1	5*				5*
O <i>Po</i> 1657	1				1	2					
Tt <i>Onsa</i> 1666			8	5		13	3		1		4
Tt <i>Arima</i> 1672			2	1		3					
<i>PSing</i> 1676			2		1	3					
Bp 1696	2		6		1	9				1	1
<i>Catolo</i> 1706			4		2	6	1				1
<i>Othoitce</i> 1734			1			1	3		1	1	5
<i>CatOlo2</i> 1746			5		2	7					
Mst 1757	18	1	8	4	5	36	1		1	1	3
<i>IP</i> 1757			2		1	3		2			2
Ressegue 1758				1		1	1		1	1	3
<i>Petit Jean</i> 1769											
<i>StJul</i> 1770	1		9	1		11	11		3		14
Mercy 1780											
<i>NLilia</i> 1782	2					2	2				2
Egiat I 1785	1		6			7					
<i>Edipa</i> 1793			3	2		5	3				3
<i>Boubane</i>							1				1
<i>Chiveroua</i>							1				1
<i>UskLi</i> 1814			3	5		8	6				6
<i>Xarlem</i> ca.1800							9				9
<i>SteEli</i> ca.1810	1			4		5	6		1		7
<i>Malqu</i> 1808				1		1	1				1
<i>DKhi</i> 1812			4		2	6				1	1
<i>CatS</i> ca. 1836			4		1	5				1	1
<i>Khurutch</i> 1838											
<i>Medit</i> 1844			7	3	7	17	1		1	4	6
<i>Ip KurBD</i> 1847											
<i>CanBel</i> 1848											
Etchahun											
Archu <i>Alh</i> 1848									3		3
<i>MaiMarHil</i> 1856			3	1	8	12	1		2	1	4
<i>Ip Dial</i> 1857											
<i>HOrdre</i> 1860			5		7	12			8	4	12
<i>Myst</i> 1862			5		1	6			2	5	7
Urruty oro 1873			8	3	1	12			1		1
<i>SGrat</i> 1879											
<i>Catuchuma</i> 1899			4		2	6			1		1
<i>oro</i>	28	3	100	32	45	208	57	2?	27	20	106

88. TAULA. Aditz iragankorren jusiboen adierazpena Zuberoako testuetan.

	<i>b-</i> moldea					<i>-(a)la</i> moldea				
	<i>*edun</i>	<i>*ezan</i>				oro	<i>*edun</i>	<i>*ezan</i>		oro
		<i>beza</i>	<i>beze</i>	ABS plu	NNN		<i>diela</i>	<i>dezala</i>	<i>dezela</i>	
O <i>Pro</i> ca.1600	1	2				3				
Bela ca.1600										
Zalgize ca.1600										
Etchart 1616										
O <i>Po</i> 1657	2					2				
Tt <i>Onsa</i> 1666		7	2*			9				
Tt <i>Arima</i> 1672		6		2		8				
<i>PSing</i> 1676										
Bp 1696					1	1				
<i>CatOlo</i> 1706										
<i>Othoitce</i> 1734		1				1	1			1
<i>CatOlo2</i> 1746										
Mst 1757		3	2	1		6		2		2
<i>IP</i> 1757										
Ressegue 1758								1		1
<i>Petit Jean</i> 1769										
<i>StJul</i> 1770										
Mercy 1780										
<i>NLilia</i> 1782		1				1				
Egiat I 1785		7	5			12				
<i>Chiveroua</i>		1				1				
<i>Edipa</i> 1793								1		1
<i>UskLi</i> 1814		3				3	7	1		8
<i>Xarlem</i> ca.1800										
<i>SteEli</i> ca.1810			1			1				
<i>Malqu</i> 1808										
<i>DKhi</i> 1812								1		1
<i>CatS</i> ca. 1836		2				2				
<i>Khurutch</i> 1838								1		1
<i>Medit</i> 1844		3		1		4		4	3	7
Ip <i>KurBD</i> 1847										
<i>CanBel</i> 1848										
Etchahun		3				3				
Archu <i>Alh</i> 1848								1		1
<i>MaiMarHil</i> 1856										
Ip <i>Dial</i> 1857										
<i>HOrdre</i> 1860		5	3	1	1	10		1	6	7
<i>Myst</i> 1862									2	2
Urruty (oro) 1873		5			1	6		3		3
<i>SGrat</i> 1879										
<i>Catuchuma</i> 1899										
<i>Oro</i>	3	49	13	5	3	73	8	12	15	35

1.6. Ondorioak

Euskalaritzaren tradizioan *agintera* edo *inperatibo* deitu izan den kontzeptuaren barnean lau balio bereizi dugu, nazioarteko literaturarekiko koherentziagatik, baina batez ere euskarak horietarako baliabide morfosintaktiko bereziak dituelako, edo izan dituelako: i) inperatiboa, 2. pertsonari zuzendua; ii) jusiboa, 3. pertsonari zuzendua; iii) exhortatiboa, 1. pertsona pluralean —igorlea zein solaskidea barnatuz—; eta iv) promisiboa, 1. pertsona singular nahiz pluralean —azken kasuan solaskidea kanpo utziz—.

Promisiboa hizkuntzaren erabilera arras naturala bada ere, haren adierazpena ez da maiztasun altuenetako elementuetarik. Zuberoako euskara historikoaren corpusean adibide gehientsuenak joskera analitikoan ageri dira; horietaz gain bi aldiz atzeman dugu **edun* aditzaren gaineko promisibo sintetikorik, eta behin analitikorik. XIX. mende erdian *-(a)la* atzizkia promisibozko formei eransten hasten zaie (*nadila & dezadala*), beste eratako aginduetan gertatzen denarekin paraleloan (*zitiala & dezazula*).

Exhortatiboari doakionean, XVII. mendean egitura berri bat azaleratzen da aditz iragankorrekin: [**edun* + aditzoin]. Egitura hori ekialde handian lekukotu da: Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa Garaia eta Beherea. Molde berriak [ad. laguntzailea – ad. nagusia] ordena markatua agerrarazten du, beti ere perpaus hastapenean; ez dugu ezezko etsenplurik atzeman. [**edun* + aditzoin] egiturak ez zuen sekulan **ezan* aditzaren erabilera exhortatiboa ordezkatu. Zuberoan bereziki XVIII. mendean erabili zen gehien, XIX.ean iraungitzeko —egun desagertua da—. [**edun* + aditzoin], beraz, hedadura handiko, baina arrakastarik gabeko berrikuntza izan da.

Inperatiboaz denaz bezainbatean, forma sintetiko nahiz perifrastikoak ongi lekukotuak dira corpusean gaindi, eta ez dugu bi sailen arteko banaketan aldaketa ohargarririk ikusi. Aditz iragangaitzei begira, ezezko perpausetan *-(a)la* atzizkia hartzen duten orainaldiko formak —“subjuntibozkoak”— testu zaharrenetarik lekukotuak dira. 2. pertsona hurbilari doakiolarik, agerraldien kopuruaren apaltasunak ez du bide ematen *ezadila / ehadila* formaren itzaltze bat gertatu dela idokitzeko; zernahi gisara, *etzitiala* XIX. mendearen azken partean ageri da. Orobat erran daiteke aditz iragankorren inperatibo perifrastikoez. XVIII. mende bukaeran *-(a)la* atzizkia inperatibozko baiezko formei ere hasiko zaio eransten (*zitiala* ‘zite’), eta XIX. mendearen erditik aitzina *dezazula* inperatibozko balioaz hasiko da erabiltzen baiezko perpausetan ere. Bestalde, lapurterazko testuetan aski hedatua den *d-* morfemadun inperatibozko forma hirupertsonalen fenomeno (Oyharçabal 2000) Zuberoan ere lekukotu dugu, bakanki bada ere.

Inperatibo sintetikoari doakienean, *izan* & **edun* aditzen formak hein batean erabilera fosilduei loturik agertzen dira (*hunki jin hizala; benedikatü zirela*, etab.); XIX. menderako guztiz zaharkiturik ziratekeen, desagerturik ere. Galera hori adizkera sintetikoaren bilakaera orokorrean kokatzekoa da. Gainerako aditzen forma sintetikoetarako, ongi lekukotuak dira Zuberoako testurik zaharrenetarik, eta haien lekukotza emendatuz doa; erran daiteke molde hori emankorra dela garai historikoan gaindi. Finitzeko, geroaldiari buruz igorri inperatiboak aipatu behar dira. Batetik, *-ke-dun* inperatibo morfologikorik ageri da: *Jauz eracy itçakecq* (1770), halako formak euskara osoaren behialako ezaugarri zirelako hipotesia indartzen duena (Mounole 2011: 96). Bestetik, Zuberoan [part. prospektiboa + *izan* / **edun*] perifrasiak ere baliatu izan dira inperatiboaren geroaldira igortzeko.

Jusiboaren adierazpenean, euskara historikoan bi egitura ezagutzen ditugu, molde sintetikoan nahiz analitikoan: 1) *b-* aurrizkidun formak; eta 2) *-(e)la* atzizkidun formak. Aditz iragangaitzen *b-dun* formek ez dute murriztapen formalik, baina aditz iragankorrenak soilik era daitezke abs 3. pertsona delarik. Guztiarekin, 1. edo 2. pertsonako abs argumentua duten *b-dun* formarik ageri da lapurteran eta beste euskalkietako idazleen obra bakan batzuetan (Oyharçabal 2000); aldiz, Zuberoan ez da horrelakorik lekukotu. Corpusaren datuen arabera, forma sintetikoaren gainean eratu jusiboen maiztasuna (*b-dun* nahiz gabe) beheitituz doa, joskera sintetikoaren galera orokorrean azaltzen dena. *Grosso modo*, XIX mendean *biz* zein *dela* moldeko jusiboak arkaismo handi bihurtzen dira. Baiezko eta ezezko testuinguruek ere molde bateko ala besteko jusiboen agerpena baldintzatzen dute. Oro har, ezezko perpausetan *-(a)la* atzizkidun jusibo analitikoak gailentzen dira, eta ez da forma sintetikorik lekukotu. Lekukotasunen izaerari begira, bada desberdintasunik diozesako idazleen eta herri tradiziokoaren artean: lehenak gehiago lotzen zaizkie *b-dun* formei bigarrenak baino, eta *vice versa*.

2. Desioa eta igurikimena: optatiboa eta gainerako adierazpideak

- 3.1. Atarikoak
 - 3.1.1. Optatiboa: hurbiltze bat
 - 3.1.2. Optatiboari lotu kategoriak
- 3.2. Modu optatiboa euskaraz
 - 3.2.1. *ai(t)*- aurrizkidun formak gramatiketan
 - 3.2.2. *ai(t)*-dun optatiboa testuetan
 - 3.2.3. *ai(t)*-dun optatiboa XX. mendeko literaturan
 - 3.2.4. Optatiboaren eremuaz eta iraupenaz
 - 3.2.5. *ai(t)*- aurrizkiaren jatorriaz
- 3.3. Igurikimen eta desioen bestelako adierazpideak
 - 3.3.1. *Ba*- aurrizkia
 - 3.3.2. *Ai ba*- egitura
 - 3.3.3. *Aments ba*- egitura
 - 3.3.4. *Alba*- aurrizki konposatua
 - 3.3.5. *Balinba* partikula
 - 3.3.6. *Oxala* partikula
 - 3.3.7. *Ahal* partikula
 - 3.3.6. Jainkoari lotu formulez
- 3.4. Ondorioak

Sarrera ³⁷⁶

Munduko hizkuntzen artean gutxi dute, flexio mailan, modu berezi bat igurikimen eta desioen adierazpenarentzat. Modu hori optatiboa da, eta euskara zaharraren aditz sistemak halakorik zuen. Aditz joko hori *ai(t)*- aurrizkiaren bidez eratzen zen, perpausean ordena markatua agerraraziz. Haren bakantasun tipologikoagatik, eta zenbait puntu argitu beharra dugulako, atal honek euskararen optatiboaren deskripzio diakroniko bat eskaini nahi du. Oinarritzko kontzeptualizazioa eginik (§ 2.1), *ai(t)*- aurrizkidun formez arituko gara, gramatikagintzari (§ 2.2.1) eta testuei (§§ 2.2.2 & 2.2.3) begiratuz. Haren eremuaz eta iraupenaz gogoetaturik (§ 2.2.4), *ai(t)*- aurrizkiaren jatorriaz jardunen dugu, hipotesi berri baten formulatzeko (§ 2.2.5). Ondoko atalean, euskarak igurikimen eta desioen adierazteko dituen gainerako bideak aztertuko dira: *ba*- aurrizkia (§ 2.3.1) eta harekiko konbinazio diren *ai ba*- (§ 2.3.2) zein *aments ba*- (§ 2.3.3) egiturak, *alba*- aurrizki konplexua (§ 2.3.4), *balinba* (§ 2.3.5), *oxala* (§ 2.3.6) eta *ahal* (§ 2.3.7) partikulak, gehi Jainkoari lotu formulak (§ 2.3.8).

³⁷⁶ Atal hau *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratu da, ondoko izenbudearekin: Zozo zuriaren xerka: euskararen optatiboaren historia (Padilla-Moyano 2017b).

2.1. Atarikoak

2.1.1. Optatiboa: hurbiltze bat

Musik lau desio mota definitu ditu, desiratzen diren egoerekiko bateragarritasunaren arabera:

I have called *want* the notion of desire which is incompatible with a desired state of affairs in the past, *hope* a desire referred to an SoA no matter the timing and without any commitment of the subject about the realization of the desired SoA, *wish 1* the type of desire in which the Wanter predicts that the desired SoA is unlikely to realize, and *wish 2* the notion in which the subject of desire is sure that the desired SoA has not occurred. These notions, which are not encoded by different linguistic items in every language of the sample, are meant to work as descriptive tools to account for the complexity underlying the semantics of desire (2016: 25).

Atal honetan *igurikimen* («hope») eta *desioez* arituko gara, pertinente izanen delarik azkenen arteko bereizkuntza eginez, *agianza* («wish 1») eta *dolu* («wish 2») terminoen bidez zehazturik.

Munduko hizkuntzetan igurikimen eta desioaren adierazpena hainbat erataria gauzatzen ahal da. Hizkuntza batzuek estrategia sintaktikoak garatzen dituzte; beste batzuek, morfologikoak. Adierazten den desioa iraganaldiari buruzko proiektzioa den ala ez den —hots, gertatu ez denarekiko dolu edo erregreta ala egiazko agiantza, hurrenez hurren—, eta horren arabera, baliabide morfosintaktiko desberdinak aurkitzen ahal ditugu. Erdara handien eta ezagunenatarik baizik ez aipatzeko, eta betiere beste aukeren artean, kontrafaktualtasunaren eremuan ingelesez maiz ‘desiratu’ aditza baliatzen da (1), errusieraz edo frantsesez baldintza eliptikoa (2)-(3), eta gaztelaniaz *ojalá* partikula (4).

- (1) *I wish I had come!*
ni desiratu ni AUX.PST etorri.PFV
‘[Nahi nuke] etorri izan banintz!’
- (2) *Если бы я пришел!*
baldin SUBJ ni etorri.PFV
‘Etorri izan banintz!’
- (3) *Si j' étais venu !*
baldin ni AUX.SUBJ etorri.PFV
‘Etorri izan banintz!’
- (4) *¡Ojalá hubiese venido!*
oxala AUX.SUBJ etorri.PFV
‘[Oxala] etorri izan banintz!’

Gertatu ez denarekiko dolutik kanpo, erran nahi baita gertagarri diren desioen eremuan —logikaren aldetik bederen—, ingelesez modu aditzak erabiltzen dira (5), errusieraz geroaldian

oinarritu sintaxi markatua, besteren artean (6); frantsesez aukerarik ezagunenak *plaise/ plût à Dieu* formula eta subjuntiboa konbinatzen ditu (7), eta gaztelaniaz *ojalá* partikula gehi subjuntiboa (8).

- (5) *May she live forever!*
 AUX (modal) hura.F bizi betiko
 ‘Betiko biziko ahal da!’
- (6) *Будет ли она жить вечно!*
 AUX.FUT PTCL hura.F bizi betiko
 ‘Betiko biziko ahal da!’
- (7) *Plût à Dieu qu' elle vécut pour toujours!*
 laket.SUBJ DAT jainkoa COMPL hura.F bizi.SUBJ -ko beti
 ‘Jainkoari laket bekio hura betiko bizi ledin!’
- (8) *¡Ojalá viva/viviese para siempre!*
 oxala bizi.SUBJ -ko beti
 ‘Betiko biziko ahal da!’

Aldiz, hizkuntza batzuetan desioen adierazpenak flexio mailako gauzatzea du, aditz sisteman modu berezi bat agerraraziz, *optatibo* deitua (cf. lat. *optāre* ‘hautatu’ edo ‘desiratu’): «The mood category expressing realizable wishes or hopes [...]. Some languages exhibit a distinct grammatical form for this purpose» (Trask, 1993: 195). Bybeek, Perkinsek eta Pagliucak igorleari orientatu modalitatean sailkatzen dute optatiboa, «The wish or hope of the speaker expressed in a main clause» (1994: 179). Desiraren adierazpeneko estrategien artean, flexiozkoak *versus* ez-flexiozkoak bereizi beharretan gara, hain zuzen, *optatibo* terminoak igorlearen desio baten adierazteko baliatzen den aditzaren jokoa izendatzen baitu. Tipologia lanetan optatiboaren etiketa *comparative concept* gisara onartua da (cf. Haspelmath 2010), gramatika deskripzioan bestelakorik ere aurki daitekeelarik (Dobrushina, Van der Auwera & Goussev, 2013):

- Zenbaitetan *optatibo* terminoa erabili izan da, nahiz eta delako hizkuntzan desioen adierazpena kategoria horren funtzioetarik bat baizik ez izan, eta ez zentrala; hala gertatzen da Na-Dené familiakoa den *slave* delako hizkuntzan (Rice, 1989).
- Turkologiaren tradizioan, *optatibo* terminoa 1. pertsonaren aginteraren izendatzeko baliatu izan da —nazioarteko literaturan usuenik *hortative* edo *exhortative* deitzen dena—.
- Ameriketako hizkuntzetako optatiboa zenbaitetan *desideratibo* etiketa pean bildua izan da; halaber, sino-tibetar familiako ladakhiera hizkuntzarentzat *benedictive* erabili izan da.

Hizkuntza batek optatiboa duen ala ez ebazteko, Dobrushinak, Van der Auwerak eta Goussevek (2013) hiru murriztapen ezartzen dute: i) flexiozkoa izan behar du, erran nahi baita aditz jokadura mailakoa; ii) pertsona guztiakin posible izan behar du; eta iii) desioen adierazpena behar du funtzio nagusi. Horrela ulerturik, munduko hizkuntzen artean optatiboa dutenak gutxiengoan dira, nonbait zazpiren batean.³⁷⁷

Historikoki euskarak ere modu optatiboa ukan du, aipatu hiru murriztapenak betetzen dituen. Bereziki hirugarrenaren kasuan, euskararen optatibozko formek soilik igurikimen eta desioak adierazten dituzte. Ikusiko denez (§ 2.2), forma horiek *ai(t)*- aurrizkiaren medioz eratzen dira, perpausaren hastapenean, tipikoki [AD. LAGUNTZAILE - AD. NAGUSI] hitz ordena markatua agerraraziz (9)-(10) —zentzu horretan, euskararen optatiboa aldi berean flexiozkoa eta sintaktikoa litzateke—.

- (9) Ainintz *etorri!* '[Oxala] etorri (izan) banintz!'
- (10) Ailedi *bizi betiko!* 'Betiko biziko ahal da!'

2.1.2. Optatiboari lotu kategoriak

Ondoko lerroetan gaindi optatiboari estuki lotuak zaizkion nozio batzuk aipatuko ditugu, Dobrushina, Van der Auwera eta Gousseven 2013ko lanetik abiaturik.

Desioen adierazpena maiz subjuntiboari lotua agertzen da. Definitzeko zail izan badaiteke ere, oro har subjuntiboa *irrealis* balioei lotzen zaie, maila sintaktikoan mendeko perpausari, edo bederen mendeko perpausaren mota batzuei. Nolanahi ere den, subjuntiboa —morfologikoa nahiz sintaktikoa izan— desioen adierazpenari lot dakiok, (1)-(8) adibide sortan ikusi denez. Puntu honetan pausa daitekeen galdera hau da: nola bereiz optatibo morfologikoa eta subjuntibo morfologikoa? Bada, optatiboaren definitzean formulatu diren murriztapenak gogoan (*vid. supra*), hirugarrenak desioen adierazpenak funtzio nagusia izan behar duela ezartzen du. Hala ere, batzuetan bien arteko muga lausoegia gerta daiteke.

Bestalde, modalitatearen barnean *desiderative* kontzeptua dugu (Bybee & Fleischman, 1995). Optatiboak eta desideratiboak desioaren adierazpena inplikatzeko dute, baina lehenak

³⁷⁷ Zehazki, *World Atlas of Syntactic Structures* delakoaren arabera, aztertutako 319 hizkuntzetarik 48k dute flexiozko optatiborik (Dobrushina, Van der Auwera & Goussev, 2013); bidenabar, lan horretan euskara «optative absent» etiketaz agertzen da (Saltarelli *et al.*, 1988). Optatiboa dutenen arteko gehienak Kaukason eta Ipar Indian kokatuak dira; Asian eta Ameriketako kasu bakan batzuk dira; Australian eta Afrikan ez da ageri; eta European, biga baizik ez: albaniera eta karaymera (Lituania eta Krimeako hizkuntza turkikoa, ehun hiztunen ingurua duena). Iraganeko hizkuntza egoerak kontuan hartuz, familia indoeuroparraren barnean honakoak ere aipa ditzakegu: sanskrito, antzinako grekoa, armeniera, gotikoa eta prusiera zaharra.

igorlearen desioa adierazten du eta bigarrenak beste zein-nahi partaiderena adieraz dezake. Euskalaritzaren tradizioan maiz *botibo* edo *opazko* (desideratibo) bezalako terminoak erabili izan dira optatibozko formen deskribatzean (cf. 378. oin-oharra).

Azkenik, aginterak ere desioen adierazpenari lotuak ager daitezke. Bai aginterak, bai optatiboak hiztunaren desioa adierazten dute, baina diferentzia batez: aginteraren kasuan, desio horren betetzea hiztunaren ahalmen edo eraginpean sartzen da, eta hiztunak entzuleari dei egiten dio desio hori konpli dezan; optatiboan, aldiz, adierazten den desioa hiztunaren ahalmen edo eraginpetik kanpo gertatzen da.

Perspektiba diakronikotik, hau guztia optatiboaren gramatikalizazioari estuki lotua da: «There are several natural sources for a true optative sentence type: future tenses, conditional or subjunctive moods, and imperative moods. Any of these might become specialized as an optative during the history of a language. Yet in few of the languages known to us has this specialization occurred» (Sadock & Zwicky, 1985: 164).

2.2. Modu optatiboa euskaraz ³⁷⁸

2.2.1. *Ai(t)*- aurrizkidun formak gramatiketan

Euskal optatiboarekiko lehenbiziko aipamena Oihenartena da. Harentzat optatiboa aditz sistemaren bost moduetarik zen, indikatibo, agintera, baldintzazko eta subjuntiboarekin batean, jokamolde trinkoan (1656: 65v) nahiz perifrastikoan (*ibid.*, 66v).³⁷⁹ Zehazkiago, optatibozko forma perifrastikoen artean, batetik **edin* & **ezan* laguntzaileekikoak jaso zituen,

³⁷⁸ Tesi honetan *optatibo* terminoa hobesten dugu, zehaztasunagatik eta nazioarteko literaturarekiko koherentziagatik: *modu gramatikal* batera igortzen du (OPT), eta halakoa da euskarak historikoki izan duena; bidenabar, euskararen aditz sistemaren lehenbiziko deskripzioan horrelaxe izendatu zen: *optativus* (Oihenart, 1656). Atalean gaindi xehekiago ikusiko denez, Chahok *conditionnel abstrait* izendapena baliatzen du; Inchauspek, Gèzek, Van Eysek, Ithurryk eta Lafonek *votif*; Gavelek eta Lacombe, Lhandek, Larrasquetek eta Mounolek *optatif*. Lafittek aipamen berezia merezi du, zeren *ai*-dun formez aritzean *votif* erabiltzen baitu, baina balioari erreferentzia egitean *optatif* —hain zuzen, guk alderantziz eginen dugu—. Halaber, Lafittek euskarazko termino bat proposatu du: *opazko* (1980: 495), Casenave-Harigilek onetsia eta Etxegorrik baliatua. Dena den, ezaugarri honetaz jardun dutenek maizen *botibo* erabili dute (Zuazo, Oyharçabal, Etxebarne edo Camino). Finitzeko, Hualdek eta Ortiz de Urbinak *ai(t)*- aurrizkidun formak deskribatu ez badituzte ere, agiantzaren bestelako adierazpidez aritzean *optative* eta *desiderative* sinonimotzat hartu dituzte (2003: 297); orobat egin du Euskaltzaindiak, *optatibo* (1987: 418) eta *desira* (2002: 445) baliatuz.

³⁷⁹ «Optativus unicum habet tempus, præteritum imperfectum, ut *ainansa* utinam iacerem, *aihansa* iaceres, *ailaza* iaceret, *aikeneunza* iaceremus, *aizeneunzae* iaceretis, *ailleunza* iacerent» (Oihenart, 1656: 65v) [...] «Optativo *ainins* utinam essem, *aihins* utinam esses, *ailis* utinam esset, *aiquina* utinam essemus, *aizinete* utinam essetis, *ailira* utinam essent» (*ibid.*, 66v).

eta bestetik *izan* & **edun* parearekikoak. Azken hauetan bi forma bereizten zituen: imperfektibozkoa (*ainins egoiten*) eta perfektibozkoa (*egon ainins*) (*ibid.*, 68).³⁸⁰

- (54) *Orhit cite Pilatusec presentatu ciala populiari escarlatazco manto batez estaliric, cioularic, haur duciela guiçona. (UskLi 70)*
- (55) *Eta dioste Pilatec, Huná guiçona. (Lç Io 19, 5)*
- (56) *Huna bada non den Guiçona: / Emaçue gurutcean. (Gç 151)*
- (57) *Eta Pilatusek erraten daroe: «Huna gizona». (He)*
- (58) *Eta Pilatok erraten diote: Huna gizona. (Duv)*
- (59) *Pilatusek erran zuen Jesusez: horra gizona! Bainan gero munduak erran zuen: horra Jainkoa! (Hb Escaraz eguia XV)*
- (60) *Eta Pilatusec erran ceren: hori duciela guiçona. (EvS 19, 5)*

Arras ezaguna da, halaber, *Ecce ancilla Domini* perpausa (Luk 1, 38). Zuberoan Oihenartek erabiltzen du bere olerkietan, forma pleonastiko batekin (61). Ondoren Belapeirek dakar, zubereraren formula aurkezlea baliatuz (62); Iparraldeko gainerako lekukotasunek —Inchasphe barne— euskara osoaren moldea dakarte (63)-(68).

- (61) *Mariak berriz ziotsona: / haur ni huná / Jaunaren neskatoa. (O Po XX)*
- (62) *I. ECCE ANCILLA DOMINI. FIAT MIHI SECUNDUM VERBUM TUUM AVE MARIA &C.
G. Erraçu hori Uscaraz?
I. Haur naiçula Gincoaren nescatoa eguin bedi nitan çoure hitçaren arau. Salutatcen çutut &c. (Bp I 133-134)*
- (63) *Huná Jaunaren nescatoa: eguin bequit hire hitzaren araura. (Lç)*
- (64) *Huna [...] Jainkoaren Neskatoa, *kunpli bekit* [...] (Gç)*
- (65) *Huna non naizen Jaunaren zerbitzaria; *egin bekit zure erranaren arauera*. (He)*
- (66) *Huna Jainkoaren neskatoa, *egin bekit zure erranaren arabera*. (Duv)*
- (67) *Huna Jinko Jaunaren neskatoa, *egin bekit zük erran düziün bezala*. (Ip Hil 11)*
- (68) *Jaunaren neskatoa niz, *egin bekit Jinkoak nahi diana*. (Ip Hil 23)*

2.4. Euskara osoaren aurkezleak Zuberoako testuetan

Orain arte deskribatu dugun formula aurkezlea ez da Zuberoatik kanpo aurkitzen; beraz, dialektologiaren ikuspegitik zuberera *historikoaren* ezaugarri eskusibotzat har daiteke. Logikoa denez, euskalki horrek berezkoa duen molde bat izateak ez du kentzen euskara osokoak ere agertzea, eta horixe gertatzen da aurkezleekin: *haur düziila* bezalakoekin batera *huna (heben)* & *horra* ere lekukotuak dira Zuberoako testuetan. Gèzek, M. Harrietek edo Lhandek *huna* ‘he aquí / voici’ jasotzen dute zubererarentzat ere, eta *OEH*-k garai eta euskalki guztietan kokatzen du; *horra* ‘he ahí / voilà’ ere orokorra da. Ikusiko denez (§ 2.5.1), bi aurkezle hauen bilakaerak ez dira paraleloak. Lafittek *huna* aurkezlearen erabilera deskribatzen du:

L'objet présenté se met au nominatif après les adverbes présentatifs : *huna erregina*. Après *voici* et *voilà*, la conjonction complétive *que* se traduit en basque soit par la forme complétive en *-la*, soit par la conjonction *non* suivie de la forme conjonctive en *-n* du verbe : *huna heldu dela*, ou bien *huna non heldu den* 'voici qu'il arrive'. (1944 § 188)

Propositions présentatives. Après *huna* 'voici'; *horra* 'voilà'; *hara* 'voilà', c'est encore *non* qui sert à traduire la conjonction *que*. Ex.: *Huna non hil den* 'voici qu'il est mort'. (1944 § 236).

Huna Zuberoako testu zaharrenetan lekukotua da. Aurkezle hau aditz existentzial batez (69), zehar galdera batez (71) edo izen sintagma batez (73), (82), (83) & (84) jarraikia ageri da. Halere, maizenik *izan*-en forma batekin lekukotu da (70), (72), (74)-(78), etab. Halako zenbaitetan mugimenduzko adieraren interpretatzea posible da; halere, gure ustez horrek ez luke perpausaren xede aurkezlea galarazten. Halaber, mugimendua hauteman daiteke (79)-an, non *houna dit* 'hona dakart'.⁴⁵² Bestalde, ez dugu *huna* atzeman Lafittek deskribatzen duen *-(e)la* atzizkidun perpausekin.

- (69) *Halaz gaizkitze hunetan / Nun alabain ezarri, / Dolu-egingarri, / Huna niagon hil minetan: / Ezpanun hant' idokiten, / Zordun izan bezala, / Hik hil nunala, / Dinat hil aitor' utziten. (O Po XI)*
- (70) *Espos esposak huna dira, ialki zitezte haien errezibitzera. (Tt Onsa)*
- (71) *Houna noun niçan, ene Gincoua, umiliaturic, eta apalturic, çoure majestate divinouaren presencian. (Othoitce 14)*
- (72) *Ginco handia, houna çoure aitcinian nuçu çoure justiciari satisfacione eguiteco. (Othoitce 18-19)*
- (73) *Houna Jesus, achouri saintia, / Gouretaco sacrificatu dena. (Othoitce 60)*
- (74) *Incapablericq houna niz / cier by hitcez minçatcera. (StJul 02)*
- (75) *Houna gutuçu hurrenty / çoure ekoussy nahiz / eta eguiazco Gincouaren / çoureyk cerbutchatu nahiz. (StJul 304)*
- (76) *Ene aita eta ama maitiak, / huna nitzaizie tristerik, / begiétako bista / kasi oro galdürik. (Chiveroua 355)*
- (77) *Sira, Hemon houna duçu / lagun saldo bateky; / rochaco thoumbara / sarthu duçu ingoity. (Edipa 974)*
- (78) *Sira houna gutuçu / eguiniq bidagia / Eta ecarten diçugu / ferragusen buria. (Xarlem 541)*
- (79) *Sira niq houna dit / aygalont presounteguitiq. (Xarlem 680)*

⁴⁵² [*Izan* + alatibo] egitura ezaguna da, Mujikaren hitzetan "adlatibo berbalizatua" (2008); aldiz, hemen aditz iragankorrekin ere gerta daiteke, **edun*-ek 'ekarri / eraman' erran-nahia adieraziz. Hona hemen *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriatic bi etsenplu: *Orai ecinbestian / medezia ezpaduçu ukhen / dugun houna mementian!* 'ekar dezagun hona' (*SteEli* 1282); *Bihotça edukaçu hareki [Jinkoareki]; / beraganat nahi çutu* 'beraganat eraman/erakarri nahi zaitu' (*SteEli* 1299).

- (80) *Madama, çoure meciala / gu houna gutuçu, / comentu bat entçunic / nahi duçula bastitu. (SteEli 1042)*
- (81) *Rodrigues, houna nuc / hiri jujamentiaren signifikatcera. (SteEli 1554)*
- (82) *Houna Khiristia çoure bidiaren thermagnia eta Jesusen thoumba sacratia. (Khurutch 27)*
- (83) *Nountic eçagut dirot eia banutianez disposicione hoyec cofessatu niçan aldi oroz? Houna marcac. (Medit 89)*
- (84) *Huna hori gerthatzen deneko errezetak. (Ip Dial XII)*

Zuberoan Inchauspek baizik ez du *huna heben* forma pleonastikoa ematen (85)-(86). Lapurdin edo Baxenabarren ere ez da bereziki ohikoa: “Documentado al Sur desde principios del s. XIX. Al Norte se encuentra en Leizarraga, Haraneder [...], Goyhetche, Inchauspe, Elissamburu [...] y Barbier” (OEH, s.v. *hona hemen*).

- (85) *BASILIO. Badakizia zer den zeta? / ANTONIO. Ustez bai; huna heben. (Ip Dial 1)*
- (86) *Huna heben abereska bat zük ezagützen ez-tüzüna. (Ip Dial 4)*

Bigarren graduko aurkezleaz denaz bezainbatean, *horra* ‘he ahí’, izen sintagma batez edo zehar galdera batez segi daiteke (OEH s.v. *horra*). Zuberoan lehenbiziko agerraldia 1734koa da (87). Aipatu erabilerez gain, *izan* aditzarekin ere lekukotzen da, menturaz mugimenduzko adierarekin (89) & (90), eta Anna Urrutyk bestelako perpaus jokatueta ere sartzen du (98) & (99).

- (87) *Horra cer dukian sarri ifernian, / Horra cer eztian nahi consideratu. (Othoitce 78)*
- (88) *Horra nountic jiten den amourioua, edo maite ukheitia, cer hountarçunac argui eguiten dian! (Mst IV 2, 4)*
- (89) *Khen zite horti, / aita horra zitadazü. (Petit Jean 39)*
- (90) *Albina, behar dizügü / lana abanzatü. / Ingoiti güre ama / etxerat horra zeikiüzü. (Malqu 89)*
- (91) *Horra batheiuuzco Sacramentiaz procuratu deiztadaçun khalitate ecinago gloriousac. (UskLi 104)*
- (92) *Lurra ikhara bedi... horra noulaco içan niçan. (Medit 24)*
- (93) *Jente hüinak, horra / nüla agitzen den; / abis gaistuoaguoa dira / batzietan iüntsa phakatzen. (CanBel 327)*
- (94) *Eta horra nola aurkhitü zen tintarik ederrena eta khariuena. (Ip Dial 4)*
- (95) *Horra noulache [...] Maria obedienci umiliatcen den leguiari. (MaiMarHil 66-7)*
- (96) *Horra cer den Trinitate saintuco mysterioua. (Myst 7-8)*
- (97) *Horra Jincouaren achouria. (EvS 1, 36)*
- (98) *Jesusec [...] erran cion: Horra sendoturic içan cira. (EvS 5, 14)*
- (99) *Horra orai mintço cira clarki. (EvS 16, 29)*
- (100) *Horra cer den sen Grat, erran zaharen, eta izkiribien arabera. (SGrat 24)*

120. TAULAK aurkezleen lekukotza biltzen du Zuberoako testuetan. Batetik *huna* & *horra* orokorrak, eta bestetik zubereraren formula aurkezlearen agerraldiak elkarren pare plazatzen dira, 1. eta 2. graduko formak bereiziz. Ohart bedi *huna* goiztiarrago dela *horra* baino, bien bilakaerak ere dibergente izanik: 1. gradukoaren maiztasuna jaisten bada XIX. mendean kasik

itzaltzeraino, 2.ekoa gero eta ohikoago bihurtzen da. Aldiz, zubereraren formula aurkezlearen agerpenak homogeenago iduri luke, bederen 1. graduari doakionean; 2. gradukoa XIX. mendeko hedakuntza gisa esplikatu liteke.

Euskara osoaren eta zubereraren moldeen agerpena konparatzen badugu, zail gertatzen da ondorio fermutara etortzea: batzuetan testu garaikideek kontrako proportziotan lekukotzen dituzte. Azkenik, *Meditacioniac* (1844) testuaren testigantza ezohikoa azpimarkatu behar da: *huna & horra* parearen agerraldien kasik erdia testu honek dakar; beraz, aurkezleen bi sailen arteko konparantza orokorra egitean oso proportzio desberdinak aterako dira *Meditacioniac* kontuan hartuz ala ez.⁴⁵³ Konputuan sartuz gero, euskara osoaren aurkezleek %63ko pisua dute corpusean, vs. Zuberoako formularen %37a; *Meditacioniac* apart utzirik, ordea, proportzioa aski kanbiatzen da, kasik oreka batera.

⁴⁵³ Ezin ahantz testu hau Baratciarten *meditazioneen* moldaketa dela; nahi bada, lapurteratik zubererara egin den barne-itzulpenetarik bat, eta horrek hizkuntz mailako ondoriorik eragin lezakeela (cf. ATALASEAN, § 3.3.4.3.3 & 3.4.3).

120. TAULA. Aurkezleen bi sailen lekukotza Zuberoan.

	euskara osoarenak				zubererarenak			
	<i>huna</i>	<i>horra</i>	oro	%	<i>haur</i>	<i>hori</i>	oro	%
<i>O Pro</i> ca.1600	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Bela</i> ca.1600	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Zalgize</i> ca.1600	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Etchart</i> 1616	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>O Po</i> 1657	2	-	2	%100	-	-	-	-
<i>Tt Onsa</i> 1666	1	-	1	%33	2	-	2	%66
<i>Tt Arima</i> 1672	-	-	-	-	1	-	1	
<i>PSing</i> 1676	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Bp</i> 1696	-	-	-	-	1	-	1	
<i>CatOlo</i> 1706	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Othoitce</i> 1734	4	2	6	%100	-	-	-	-
<i>Mst</i> 1757	-	1	1	%6	16	-	16	%94
<i>IP</i> 1757	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Ressegue</i> 1758	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Petit Jean</i> 1769	-	1	1		-	-	-	-
<i>StJul</i> 1770	5	-	5	%62	3	-	3	%38
<i>Mercy</i> 1780	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>NLilia</i> 1782	-	-	-	-	2	-	2	
<i>Egiat I</i> 1785	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>Bala</i> 1788	1	-	1		-	-	-	-
<i>Jouanic</i> 1788	1	-	1		-	-	-	-
<i>Boubane</i>	-	1			-	-	-	-
<i>Chiveroua</i>	2	-	2		-	-	-	-
<i>Edipa</i> 1793	6	-	6	%33	12	-	12	%66
<i>Xarlem</i> ca.1800	9	-	9	%60	4	2	6	%40
<i>SteEli</i> ca.1810	11	1	12	%80	2	1	3	%20
<i>Malqu</i> 1808	-	1	1	%25	3	-	3	%75
<i>DKhi</i> 1812	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>UskLi</i> 1814	-	2	2	%17	7	3	10	%83
<i>Petitun</i> 1836	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>CatS</i> ca. 1836	-	-	-	-	1	-	1	
<i>Khurutch</i> 1838	1	-	1		-	-	-	-
<i>Medit</i> 1844	8	50	58	%97	2	-	2	%3
<i>Ip KurBD</i> 1847	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>CanBel</i> 1848	-	3	3	%37	5	-	5	%63
<i>Etchahun</i>	-	-	-	-	1	-	1	
<i>Chaho AztBeg</i>	-	-	-	-	4	-	4	%100
<i>Archu Alh</i> 1848	-	-	-	-	2	-	2	
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	-	-	-	1	-	1	
<i>Myst</i> 1856	-	2	2	%50	2	-	2	%50
<i>Ip Dial</i> 1857	5	3	8	%100	-	-	-	-
<i>HOrdre</i> 1860	-	-	-	-	1	-	1	
<i>Urruty oro</i> 1873	-	9	9	%82	-	2	2	%18
<i>SGrat</i> 1879	-	1	1		-	-	-	-
<i>Catuchuma</i> 1899	-	-	-	-	-	-	-	-
<i>oro</i>	56	77	133	%63	72	8	80	%37

2.5. Aurkezleak ikuspegi diakronikotik

2.5.1. Aurkezleen bilakaera, deixiaren aldaketari lotua

Zuberoan euskara osoaren aurkezleak existitzen baziren, eta erabiltzen, galdera da noiz danik eta zertarako baliatu den “zubereraren formula aurkezlea” izendatu dugun hori. Ezinbestean, aurkezleez mintzatzeak deixiaren aipatzea dakar. Artikulu eta erakusleen deixiari doakionean, euskalki guztietako testu zaharrenetan kausitzen duguna hiru graduko sistema da. Beraz, Irigoyenek (1981) proposatzen duen bi graduko sistema (hurbil vs. urrun bereizkuntza)⁴⁵⁴ euskara “komuna” baino lehenagoko garaietan kokatzeko litzateke, hots, aitzineuskararen (Martínez-Areta 2013: 296). Halere, hiru graduak ez ziratekeen berdin errotuak: singularrean bai, pluralean ez. Garai historikoetan *haur* adverbiala *hurbil/urrun* oposizio zaharraren fosila gertatuko zen, egungo *hemen* zein *hor* balioak batzen baitzituen. Pertsonaren eta deixiaren arteko erlazioak hipotesi horren azkartzera datozke:


Perhaps the relationship between deixis and person mentioned above, and especially the intensifying processes undergone by 1st and 2nd p. pronouns by means of adverb/demonstrative suffixing can support this view. By the first of these processes, both 1st and 2nd p. pronouns are reinforced by *haur*. By the second, *haur* is restricted to 1st p. pronouns, while *hori* takes over 2nd p. pronouns. This points to a secondary rise of *hori* as an intermediate grade. (Martínez-Areta 2013: 297).

Errana baitugu, *haur* aurkezlea 1. eta 2. pertsonekin erabilia izan da —cf. (14)-(18) & (36)-(37), hurrenez hurren—, bai eta hirugarrenarekin ere, “aurkezgaia” solaskideekiko deixian kokatzen delarik, hots, hurbileko deixian. Zuberoan *haur* ‘ecce’ aurkezleak luzaz iraun du bere jatorrizko balioaz, *horra* zein *hori düzüla* guztiz berankorrek izanik: XIX. mendera arte ez ziren hedatuko. Pentsatu behar dugu denbora batean, ekialdean bederen, bi *haur* izan direla: 1) *haur* ‘ecce’, aurkezle gisara hurbileko deixia adierazten zuena (fosil), eta 2) *haur* erakuslea, lehenagotik 1. gradura lerratua. Berantago **haur* ‘ecce’ → *haur* ‘hau’ berranalisia gertatuko zatekeen (ikus 1. IRUDIA). Pentsatzekoa, halaber, garai batean hizkuntza osoaren *huna Joana* eta Zuberoako *haur düzüi Joana* egituren balioek bat egiten zutela;

⁴⁵⁴ Mitxelena ez zuen Irigoyenen hipotesiarekin bat egiten: “No negaré que nuestro sistema de demostrativos pueda explicarse a partir de otro menos complejo: lo que no me parece nada claro es que *tenga* que explicarse así, ni siquiera que esa explicación sea preferible a la alternativa” (1979a: 392).

gehiago dena, —ekialdean bederen— *huna* ala *haur*, biak erabiltzen ziratekeen *hurbileko* deixian, eta ez bortxaz 1. gradukoan.

1. IRUDIA. *haur* ‘ecce’ & *hau(r)* erakuslea: bilakaera



Zuberoako testuek *haur* zaharraren balioaren aztarna seguruak gorde dituzte, baina ez dira beti behar bezala konprenituak izan. Ezaguna da Oihenarten *Haur ola cirola* “He ahí el taller, zapatero”, Irigoyenek deszifratua (1997: 376-377). Orobat erran daiteke (101)-eko pasarteaz, bi *haur* baitakar: lehena lat. *ecce* aurkezlearen baliokidea, eta bigarrena *hor* aditzondoaren forma zaharra, Irigoyenek (*ibid.*) gure ustez bikain bereziak.⁴⁵⁵

(101) Haur non datzan ehortzia; / haur du gorputzak hobia, / zeru' arimak hobia. (O Po XXIX)

Protohistorian kokatzekoa bide den deixiaren berrantolatzeak ez zituen usantza zaharrak guztiz ezabatu, eta Zuberoan *haur* luzaz erabiliko zen 1. zein 2. graduko aurkezle gisara edo, hobeki erraiteko, deixi *hurbileko* aurkezle. Horrek esplikatzen du *hori düzüla* 2. graduko aurkezlearen agerpen arras berankorra, *horra* aurkezlea arras berankorra den bezalaxe (ikus 120. TAULA). Beraz, ikuspegi diakroniko batetik *haur düzü(la)* formula aurkezlea ez da erakusle baten gainean eratua, leku aditzondo baten gainean baizik. Horrela ulerturik, *haur düzü(la)* ‘hemen/hor duzu’ aurkezleak paralelo perfektua luke gaskoian eta, elementuen ordena gorabehera, gatzelanian ere (102).

(102) *Haur düzü(la) anaia.*

⁴⁵⁵ Lafonek ez zuen *haur* ‘ecce’ Irigoyenekin guk bezala interpretatu; bai, ordea, *haur* ‘hor’ zaharra: “[M. Arrain] git enterré ici. Son corps a ici sa tombe ; son âme a le ciel pour tombe” (1955a: 39). Irigoyenek *haur* ‘ecce’ vs. *haur* ‘hor’ proposatzen du, batetik, eta bestetik *hobia* ‘tombe’ vs. *hobia* ‘mieux’ (1977: 377). Orpustan ez da Lafonen interpretaziotik urruntzen: “[Arrain] gît ici enterré ; ceci est la tombe de son corps ; son âme en a une meilleure : le ciel” (1992: 177) —dirudienez Irigoyenen proposamenetik abiatu gabe Orpustan *meilleure* hautura iristen da, luzaz azaldurik ere—. Altuna & Mujikak, ordea, Irigoyenen irakaspena zatika onetsiko dute: “He aquí dónde yace enterrado; ésta es la tumba del cuerpo, la del alma es mejor, el cielo” (2003: 517).

Ací (qu')avetz lo frair.
He aquí mi hermano.

Gure ustez, abantzu XIX. mendera arte hiztunek ez zuketzen *haur* ‘ecce’ 1. graduako erakusle bezala berranalizatu (1. IRUDIA), hiru ondoriorekin: i) *-r* galtzea: *haur* > *hau*; ii) *hori düzüla* analogikoaren sorrera, hurbil/urrun oposizio zaharraren azken herexa ezabatuz, eta Zuberoako formula aurkezlea 1. eta 2. graduetan bereiziz; eta iii) forma pleonastikoen agerpena. 2. IRUDIAK Zuberoan lekukotuak diren aurkezleen bilakaera sintetizatzen du.

2. IRUDIA. Zuberoako aurkezleen bilakaera

	I. fasea	II. fasea	III. fasea
hurbileko deixia	<i>haur düzü</i>	<i>haur düzüla</i>	1. gradu <i>hau(r) düzüla</i> <i>huna</i>
	<i>huna</i>	<i>huna</i>	
	<i>haur aditzondo</i>	<i>haur aditzondo</i>	<i>hau(r)</i> erakusle
		-(a)la eransten da, formularen nabarmentzeko	
			forma pleonastikoak

2.5.2. Zuberoako formula aurkezlearen hestea: -(a)la atzizkia

Deixia albo batera utzirik, Zuberoan *haur düzü* molde aurkezleak -(a)la konpletibozko atzizkia hartu zuen, beharbada aurkeztearen ekintza markatzeko. Guk dakigula, euskaraz —Zuberoatik kanpo bederen— -(e)la atzizkia ez da mendeko perpausetik at erabiltzen, salbu inperatiboaren eta jusiboaren zenbait adierazpenetan: *etzazula pentsa & etor dadila*. Beraz, zuberotarrek halako erabilpen nahi bada espletiboa abiatu zuten formula aurkezlearen nabarmenago egiteko.

Puntu honetan erdaren (bereziki gaskoiaren) syntaxiko *que* partikulari begiratu behar zaio. Ezaguna denez, gaskoiaren ezaugarria da *be, ja, e & que* partikula enuntziatiboen erabilera. Lau elementu hauek ez dira ber mailan kokatu behar, bakoitzak bere bidea egin baitu. Rohlfesen hitzetan (cf., halaber, Haase 1993, substraktuaren hipotesitik iruzkundurik):

Ce que ces particules ont de commun, c'est qu'elles énoncent ou expriment une nuance subjective qui donne à l'énonciation verbale une valeur d'insistance ou de vivacité. Mais, tandis que *be*, *ja* et *e* ont gardé cette expressivité, l'emploi de *que* s'est grammaticalisé, en devenant un signe purement morphologique (1970 § 524).

Gaskoiaz *que* partikula beharrezkoa da aditzaren ezkerrean baiezko perpaus nagusietan oro, bien artean soilik izenordain proklitiko bat tartekatzen ahal dela: *Que-t dechàm soul* 'Nous te laissons seul', *Qu'a yelàt* 'Il a gelé', *Que las ey entenudos* 'Je les ai entendues', *Augàn qu'abèm abut hèro de mèu* 'Cette année nous avons eu beaucoup de miel', *Ta pay qu'ey arribàt* 'Ton père est arrivé' (*ibid.*). Zuberoako astolasterrak aberatsak dira pasarte elebidun eta eleaniztunei doakienean (Urkizu 2002; Padilla-Moyano 2017a), eta horietan gaskoiaren lekukotza ez da nolanhikoa. (103)-(105)-eko adibideetako gaskoiazko perpaus nagusiek *que* partikula daramate —(103)-koak, gainera, *be* partikula erakusten du *babèn* forman (< *b'avem* 'nous avons')—. ⁴⁵⁶

- (103) *Bilota la nouste vin / abu conde babèn balait / que mèriteren de / pla aigaa*. 'Bilota, notre vin / bon marché nous vous l'avons donné ; / ils mériteraient de / bien lui ajouter de l'eau' (*Bala* 1)
- (104) *Et que m'as getat / Lou toupin you crei*. 'Et tu m'as geté / le pot, je crois bien' (*Bala* 20)
- (105) *Qu'eri partit d'Aroue / hamasei urthetan*. 'J'étais parti d'Aroue / à l'âge de 16 ans' (*Malqu* 302)

Fenomenoaren indarra ez da homogeneoa Gaskoinian: Pirinioetako barietateetan —eta beraz Biarnon— *que* enuntziatiboaren erabilera nahitaezkoa bada, Gers eta Landetan hautazkoa gertatzen da ("moins obligatoire"), eta Girondan ez da ezaguna. Bestalde, Gaskoiniatik ekialdera ere hedatzen da, Foix herriraino (Rohlf's 1970 § 525). Hau da, *que* enuntziatiboaren indargunea Pirinioetan da, eta mendietarik urrundu ahala araua malgutzen da, hautazko bihurtuz, eta Bordelera iritsi gabe. Gaskoiatik kanpo, "Il ne peut être surprenant que parmi les parlars espagnols ce soit l'aragonais qui dans l'emploi de la particule *que* offre l'accord le plus parfait avec le gascon" (*ibid.*). ⁴⁵⁷

⁴⁵⁶ Philippe Biu eskertu nahi dugu biarnesezko pasartearen itzulpenagatik. Bertan grafia guztiz libreak anitz iluntzen du perpausen endelegetzea.

⁴⁵⁷ Gaztelaniaz *que* menderakuntzatik kanpo ager daiteke, perpausari halako indarra emateko: *Que dice la abuela que vengas*. Frantsesez ere fenomenoaren ezaguna da hizkuntza mintzatuan: *Il a fait froid toute la semaine, avec beaucoup de pluie, qu'il a même neigé avant-hier!* Frantses adibidearen iturria: <<https://fr.wikipedia.org/wiki/Expl%C3%A9tif>>

Hemen Biarnoko gaskoiaren eragina postulatuko dugu: zuberotar elebidunek gaskoiaren *que* enuntziatiboaren erabileraren kalkoa egin zuketena formula aurkezlean. Bistan da, aurkezpenak maiztasun altuko item dira merkat harremanetako komunikazioan, auzo zein atzerriko lagunekin, eta zernahi hizkuntza ikasteen lehenbizi barneratzen direnetakoa. Hortaz, biarnesaren eta zubereraren aurkezleak berdindu ziratekeen: *Ací qu'avetz lo frair* (fr. *Voici mon frère*) → *Haur diüzüla anaia*. Kasu honetan uste dugu biarnesaren eragipena arras gertagarria dela; hipotesia hiru argudiotan oinarritua da:

- a) Lehenik, [biarn. *que* → -(a)la espletibo] egokitzapena non eta Zuberoan gertatzea koherentea da gaskoiaren eraginaren sarbidearen bi norabideen hipotesiarekin (Padilla-Moyano 2016). Hau da, Akitaniako euskal herrietan gaskoiaren eragina honako bideetatik sartzen zen: a) Landetarik Lapurdira eta Baxenabarrera, eta b) Biarnotik Zuberoara. Ikusi denez, *que* enuntziatiboaren arauak ez zuen —eta ez du— ber indarra Landetan edo Biarnon. Gaskoiarekiko hunkitzeari lotuak diren beste zenbait fenomenorekin gertatzen den bezala, bi norabideek eta beroiek ordezkatzeko dituzten gaskoi barietateen arteko diferentziak esplika lezakete zergatik -(a)la espletiboa ez den, kasu batentzat, Lapurdin ezagutzen.
- b) Bigarrenik, azken mendeetako Zuberoan gaskoiaren eragina inon baino azkarrago eta iraunkorrago izan da. Zuberotarren eta biarnesen arteko harreman bereziki estuek gain, Biarnon okzitaniarrek beste inon baino sendoago iraun du azken mendeetan (Brun 1926; Trotter 2006); paraleloki, onar daiteke Ipar Euskal Herrian frantsesaren sarrera goiztiarrago izan zela kostaldean barnealdean baino.
- c) Hirugarrenik, gaskoiaren *que* enuntziatiboaren kronologia eta zubereraren formula aurkezlearena ongi ezkontzen dira: “On pourra fixer la généralisation de *que* énonciatif autour du XVI^e siècle (Bec 244)” (Rohlf 1970 § 525). Ikusi baitugu, lehenbiziko *haur dela* 1666koa da, eta formularen maiztasuna goitituz doa XVIII. mendean zehar.

Zuberotar elebidunek gask. *que* enuntziatiboaren kalkatzea formula aurkezleko ez zaigu zail iruditzen.⁴⁵⁸ Herri antzertiko errejenten ohidurez pentsatzen bada, batzuetan handikien

⁴⁵⁸ Beharbada *que* enuntziatiboaren egokitzapena ez zen formula aurkezlera mugatu. *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriak -(a)la atzizkiaren erabilera espletiboaren kasu batzuk lekukotzen ditu: *Haren spiritia bataillaren / erdiala ceielā aguertu, / eta baketuric morouen / combatitcera manhatu. / Jouan ciradialā / moro haien contre, / eta Rodrigasec cialā / nahi ukhen eguin tradicionne. / Juntaturic Pascalina / deitzen cen princessa*

mintzamoldeen zubereraz errendatzeko beharra zuten. Eta nola *xiberotarrez* mintzarazi goi mailako zerbitzari publiko bat, erregina bat, aitasantu bat? Baliteke *-(a)la* espletiboak, aurkezpen formula markatzeaz gain, errejentek xerkatzen zituzten manera eta sonoritatearekin ongi ezkont ledin; hots, estilo edo erregistro jasoagoko marka (106)-(107), zenbaitetan txarlatanek beren burua gorago agerrarazten duteneko (108)-(109).

- (106) *Sira haur duçula / charlemaignaren coroua / olio crismoua / horren sacraçecoua. (Xarlem 1397)*
- (107) *Haur naiçula plaçaturic / erregue Thebaseco / souscrein baten guisa / heben harat eguiteco. (Edipa 407)*
- (108) *Bon jour, tous le monde, / haur naiziela barbera, / plusieurs operacions, / egiten düdana. (Malqu 298)*
- (109) *Jente hüinak, jiten niz / egün herri hüntara, / zuiñ hau deitzen beita / Konstantinople herria. / Hau naizela, aren, barbera / egün zien herrian, / aprobazionez kestione / mintzatüren niz mementian. (CanBel 275-276)*

Errealitatea da herri antzertiko testuetan euskara osoaren eta zubereraren aurkezleak batere arazorik gabe txandakatzen zirela.

- (110) *Sira houna niçu / Eguinic bidagia / Eta haur duçula heben / Erreguigna theadosa (Xarlem 719)*
- (111) *Medecy çahar bat houna duçu. / Eya cer diouan harec, / gaiça helturen direnaq / badakitça berarec. / Haur duçula Theresia, / haitaturic celiac / esplicaturen beittutu / goure malur guciac. (Edipa 933-934)*

CODA

Zubereraren formula aurkezleak oraino irauten du (Argitxu Camus, bekoz beko). Zuberotarrek pluralean ere erabiltzen dute (*hauek düützüla, horiek direla*, etab.), gorago azaldu dugun [*haur* ‘ecce’ → *haur* erakuslea] berranalisia eta horren ondoriozko hedapen analogikoa bermatzen duena. Aldiz, hiztun alfabetatuen gogoan formularen hestea, *-(a)la* espletiboa, akastuna delako hautematea hedatzen ari da, perpaus nagusitik kanpoko konpletiboa bailitzan, fr. *que* espletiboaren kalkoa. Ondorioz, *-(a)la* galtzen hasi da: *hau düzüla Joana* → *hau düzü Joana*. Formula aurkezleaz gain, *-(a)la* atzizkiaren bestelako erabilera espletiboetan (§ 2.5.2) hiztun alfabetatu *kontzienteek* balizko perpaus nagusi elidituaren adierazten ahal dute: *Bihar ekhia jalkiko dela* → Jakinerazten deizüegü bihar ekhia jalkiko dela.

bateki, / Rodrigas erreraci ciela / morouac combati ondouan ederki. / Pascalina aldiz ihessi / phartitu eta mementian / eta durundac ciala erho / çuhain baten pian. (SteEli 56-59).

2.6. Ondorioak

Egitura aurkezleak hizkuntz unibertsalean sar daitezke, naski (Julia 2015). Euskara osoak — Zuberoakoa barne— baditu 1. eta 2. graduko aurkezleak, leku aditzondoan adlatibozko formen gainean eratuak: *hona & horra (honatx, horratx)*, pleonasmok garatu dituztenak (*hona hemen & horra hor*). Horiez landara, Zuberoako euskarak berezko formula aurkezle bat garatu du, beste euskaretarik klarki absente: [*haur + aditz + -(a)la*]. Egitura horrek bi erabilera ditu: i) zein-nahi elementuren aurkeztea, *izan* edo **edun*-en forma inplikatiboen bidez; eta ii) gertaera edo ekintza baten diskurtsoan sartzea —orduan *-(a)la* atzizkidun adizkia laguntzaile portatzen da—. Zuberoako aurkezleak maizenik 3. pertsonan ageri dira (*haur düzüla*), baina baita 1. pertsonarekin (*haur naizüla*), eta are 2. arekin ere (*haur zirela zü*). 2. graduko erakuslearekiko formak (*hori düzüla*) hedakuntza analogiko berankorraren ondorio dira.

Zuberoako formula aurkezlearen lehen agerraldia 1666koa da (Tartas), eta XVIII. mendean manera klar batean hedatzen da, diozesako testuetan bezala herri tradiziokoetan ere. Itzulpenetan egin konparazio saioak erakutsi du Maisterrek *Imitatio Christi* lanaren gainerako itzultzaile edota moldatzaileek baino era sistematikoagoan atxikitzen dituela latinaren aurkezleak. Dialektologiaren ikuspegitik, aurkezleak zubereraren ezaugarri eksklusibotzat har daitezke —existitu izan diren garaietarako bederen—. Euskara osoaren aurkezleei doakienean, Zuberoan *huna* Oihenartengandik lekukotua da. Haren maiztasuna behekituz doa, XIX. mendean kasik desagertzeraino. Aldiz, *horra* berantago azaleratzen da, kontrako bilakaera erakutsiz; hots, *haur düzüla* → *hori düzüla* hedakuntzaren paraleloa.

Aurkezle batzuk nahiz besteak euskararen deixiaren bilakaerari lotuak dira. aitzineuskarak bi graduko sistema deiktiko baldin bazuen, bederen erakusleetan eta leku aditzondoetan, hiru gradueta pasatzeak berrantolatze bat ekarriko zukeen. Lehen fase batean **haur* hurbileko deixiari lotzen zitzaion, egungo 1. zein 2. graduko. Erakusle gisa berranalizatzean, *haur* 1. gradura lerratu zen, 2. graduko *hori düzüla* eta *horra* ageriz, bai eta forma pleonastikoak (*haur düzüla heben*). Beraz, Zuberoak deixi zaharrari lotu arkaismo handi bat atxiki du: *haur* leku aditzondo zaharrak XVIII. mendera arte iraun du, formula aurkezlean fosildua. Horrek guztiak Irigoyenen (1981) hipotesiaren azkartzen du.

Aldi historikoan, Zuberoako formula aurkezleak *-(a)la* atzizkiaren erabilera dakar perpaus nagusietan. Inperatibo eta jusiboaren moldeetan ez bezala (*etzazula egin, egin dezala*), *-(a)la* atzizkiaren erabilpen nahi bada espletibo hori ez da gainerako mintzoetan ezaguna. Formula aurkezlearen ezaugarri hori biarnesaren eragipenari zor zaiola defendatu dugu, hala gaskoiaren barneko desberdintasunetan nola kronologian oinarrituz. Azken buruan,

gaskoiaren eta zubereraren aurkezleen egitura bera da (*Aci qu'avetz lo frair* → *Haur duzula anaia*). Lapurdi edo Baxenabarren gaskoiaren eragina ez zen Zuberoan bezain iraunkorra izan, eta nagusiki Landetatik iristen zatekeen, hots, *que* enuntziatiboa hautazkoa zuten lurretarik.

3. Harridurazko perpausak: *ala* partikula eta harekiko egiturak

- 3.1. Sarrera
- 3.2. *Ala* harridurazko partikulaz
- 3.3. *Ala* perpaus jokatugabeetan
 - 3.3.1. [*Ala* + genitibo + izenondo] egituraz
 - 3.3.2. *Ala* gainerako testuinguruetan
- 3.4. *Ala* perpaus jokatueta
 - 3.4.1. *Ala bait-* egituraz
 - 3.4.1.1. Kontzeptualizazioa
 - 3.4.1.2. *Ala bait-* egitura Zuberoako testuetan
 - 3.4.1.3. Maister eta Inchausperen arteko konparantza
 - 3.4.2. Bestelako sintaxiak: *ala* -(e)n & *ala* -(e)la
- 3.5. Ondorioak

3.1. Sarrera

Harridura (exclamación, exclamation) emozioa adierazteko bereziki erabiltzen den perpaus mota gisa definitzen da (Dubois *et al.* 1979 s.v.; Crystal 2000 s.v.), zenbaitetan interjekzio batean kondentsaturik. Harridurazko perpaus hainbat sentimendu adierazten ahal dute: “soit de surprise (joie, douleur, pitié, ironie) soit un désir (souhait, regret, impatience)” (Lafitte 1948: 744). Gramatikaz denaz bezainbatean, *exclamation* terminoaren adiera izenordain edo partikula berezirik agerrarazten duten egituretara mugatzen da. Euskaraz harridurazko perpausak zenbait erabideren ondorio izan daitezke: a) galderazko izenordainak, nazioartean *wh- exclamative* deituak (*Zein handia den! Zenbat diru duen! Nolako etxea duzun!*); b) erakusleak (*Hori da gizon lerdena!*); c) sintagma baten lekualdatzea (*Ederra egin duzu!*); edo d) *ala*, *gero* edo *ahal* bezalako harridurazko partikulak; besteak beste (Etxepare 2003).

Atal honetan *ala* harridurazko partikularen eta haren ganean eratu diren egituren aztertzea du xede, bereziki [*ala* + genitibo + izenondo] eta *ala bait-*. Hau guztia Iparraldeko testuetan lekukotua izan arren, bi egituren deskripzio falta sumatzen dugu. Lehenik *ala* partikulari lotuko gatzazkio (§ 3.2), perpaus jokatugabeetan (§ 3.3) nola jokatueta aztertzeke (§ 3.4); azken hauetan arreta berezia eskainiko diogu *ala bait-* egiturari (§ 3.4.1); azkenik ondorio diakroniko batera etorriko gara (§ 3.5).

3.2. *Ala* harridurazko partikulaz

Euskarak baditu bi *ala* harridurazko partikula gisa erabil daitezkeenak: 1) *ala* lokailu hautakariaren homonimoa, perpausaren bukaeran; eta 2) *ala* heiagorazkoa, perpaus

hastapenean. (1)-eko adibideak dakarrena ez da lokailu hautakaria, galderazko perpausetan erabil daitekeen partikula baizik, menturaren adierazteko (Lafitte 1944 §§ 225 & 396). (2)-ko adibidean, aldiz, Iparraldeko barietateek duten *ala* harridurazko partikula datza:

- (1) *Nork erran dautzu ala Jakesek?* “Qui vous l’a dit ? Jacques sans doute ?” (Lafitte 1944 § 225)
- (2) *Españialako bidia, ala bide lüzia!* (“Müsde Ürrütia”, herri tradiziokoa)

Zenbait hiztegi-gilek *ala* partikula jaso dute. Lhandek Harrieten adibideak ematen ditu: *Ala herioa motz!* (H.) ‘Ah ! Que la mort est dure !’; *Ala gure zoratuak!* ‘Ah ! insensés que nous sommes !’ (s.v. *ala*). *OEH*-k “partícula exclamativa” gisara definitzen du, Iparraldeko tradizioan kokatuz (Lazarraga salbuespen absolutua litzateke). Haren lekukotzak ondoko zerrendara igortzen du: Etxepare, Lazarraga, Materra, Etxeberri Ziburukoa, Argaignarats, Harizmendi, Aranbillaga, Tartas, Gasteluçar, Chourio, Haraneder, Maister, Larreguy, Mihura, Baratciart, Monho, *Charlemagne*, Duhalde, *Egun Ona* (Haramburu), Jauretche, Etchahun, Bordel, *Mustafa*, Goyhetche, Duvoisin, *Chants Populaires* (Zuberoako adibide batean), *Fedearen Propagacioneco Urtecaria* (Baiona, 1877), Bordel, Bordes eta Casenave-Harigile.

Harridurazko perpausen gaineko bere lanean, Lafittek (1948) ez du *ala* aipatzen, nonbait estonatzeko gaituena, zeren mota horretako perpausen inbentario aski osoa ematen baitu, zenbait forma arkaiko emanik ere; gramatikan, ordea, bai: “*Ala!* sert à exprimer l’admiration ou l’étonnement” (1944 § 407). *OEH*-ren lekukotzari erremarkatuz, iduri du XX. mendean *ala* partikula galduxe zegoela. Ondoko adibideak *OEH*-k ematen dituenen artekoak dira (3)-(10).

- (3) *Benedika fortuna! ala enkontru hona!* (E 177)
- (4) *Ala andrea ditxabaga / sortu bazan neskaetan!* (Lazarraga 1197r)
- (5) *Ala madarikatuak iaio giñen egunak.* (EZ Man I 82)
- (6) *Birjina sakratuak, / Ala zuek dohatsu.* (Hm 190)
- (7) *Ah, heriotzeko orena, / Ala hi harrigarria!* (Gç 154)
- (8) *Ala nik iikhen diidan fortiina trixtia!* (Etch 676)
- (9) *Andozeko ibarra / Ala ibar lüzia!* (ChantP 212)
- (10) *Hala [sic] hiltze trixtia larrüttez juaitia.* (Casve SGrazi 120)

3.3. *Ala* partikula perpaus jokatugabeetan

3.3.1. [*Ala* + genitibo + izenondo] harridurazko egituraz

Harridurazko testuinguruek genitiboa agerraraz dezakete. Etxepareren hitzetan “A possessive structure where the possessed term is either a property or an event, and the possessor is the subject to which the property is attributed, or some participant in the event” (2003: 571), (13) & (14) adibideetan ikusten denez.

- (11) Itsasoaren *zabala!* ‘How wide is the sea!’ (Etxepare 2003: 572)
 (12) *Ai, nire galbuba!* ‘Oh, my being lost!’ (*Peru Abarka 77 apud* Etxepare 2003: 572)

Zenbaitetan genitiboaren erabilera hori eta harridurazko *ala* partikula batera ageri dira. *OEH*-tik bildu ditugun etsenpluetan (13) & (14) harridurak zerbaiten edo norbaiten nolakotasun bat nabarmentzen du, subjektua genitiboan emanik; izenondoa, beraz, atributu gisa uler daiteke.

- (13) *Ai! Ala gatzaren guztiz fortitza!* (Lazarraga B, 1185vb)
 (14) *Ala gure zoratuak, baikinduen pensatzen / Gu zuhurak giñela eta onak erho ziraden!* (EZ Man 82)

Gure corpusean ez dugu halako genitiborik atzeman;⁴⁵⁹ gehiago dena, iduri luke Zuberoan egitura hau ez dela aise onartzen. Zentzu horretan, argigarria da ikustea Baraciarten meditazioenen zubererazko moldaketan (*Meditacioniac*, 1844) halako genitiboak nola izan diren sistematikoki beste molde batera ekarriak (15)-(28). Ohart bedi genitiboarekiko egiturak izenondoa mugaturik agerrarazten duenean, zubererazko moldatzaileak baliatzen duen *ala* *bait*- egiturak mugagabeen duela atributua, ekialdean ohikoa den bezala.

- (15) *Oi ala gure dohaxuac, bethi goardatu baguindu gure saindutassuna!* (Brtc 100-101)
 (16) *Oh! Ala dohaxu beikinen, bethi beguiratu bagunu goure dohaxutarçuna!* (*Medit* 31-32)
 (17) *O! beraz bekhatu beniala, ala hire higuingarria.* (Brtc 108)
 (18) *Ô! Arren bekhatu veniala, alabehiz hugungarri.* (*Medit* 37)
 (19) *Ah Ifernua, ala hire dorphea! Bekhatua, ala hire icigarria!* (Brtc 128)
 (20) *Ah ifernia, ala hi terrible! Bekhatia, ala hi icigarri!* (*Medit* 60)
 (21) *O Ifernua ala hire terriblea eta hire icigarria!* (Brtc 147)
 (22) *O ifernia! Ala behiz terrible eta lazgarri!* (*Medit* 74)
 (23) *O eternitatea ala hire lucea! Ala hire ecin contcebitua! Eta, ô eternitate dohacabea ala hire desesperagarria!* (Brtc 156)
 (24) *O eternitatia, ala hire lucia! Ecin concebituzcoua! Eta, ô eternitate malerousa, ala behiz desesperagarri!* (*Medit* 81)
 (25) *Oh misericordia, ala çure handia!* (Brtc 249)
 (26) *O misericordia! Ala çu handi!* (*Medit* 148)
 (27) *Ala ene dohatsua, hain Aita onarequin eguiteco içateaz!* (Brtc 251)
 (28) *Ala irous beniz hain Aita hounareki eguiteco ukheitiaz!* (*Medit* 149)

⁴⁵⁹ Gure corpusetik kanpo dagoen Inchausperen *Imitacionian* etsenplu bat aurkitu dugu: *O guiçonaren çorokeria eta bihotzaren gogorra!* (I 23, 1). Interesgarria da markatzea Maisterrek beste sintaxi batez adierazia zuela: *Ala beita gizonaren bihotza lanphüts, eta gogor*. Inchauspek Zuberoatik kanpoko moldeak noraino onartu zituen erraiteko maneran ez bagara ere, hura baino lehenagoko testuetan genitiboarekiko harridurazko egiturarik atzeman ez izana adierazgarria da.

3.3.2. *Ala* gainerako testuinguruetan

Zuberoan *ala* partikula soilaren agerpena *Saint Julien* trajeriarekin hasten da (1770). Batez ere XVIII. mendeko herri antzertiaren tradizioko testuetan lekukoturik, XIX. mendean haren maiztasuna jaitsiko da. Batzuetan aditz laguntzailea eliditua da (31), (40) & (69). Bestalde, kontraste sistematikoa ageri da heiaigorazko partikulari jarraikitzen zaion hitza izena *ala* izenordaina den arabera: [izen + izenondo mugatua] eta [izenordain + izenondo mugagabea]; pentsatzekoa da bigarreanean kopula datzala, aditza eliditua delarik.

- (29) *Ala phena handia, / mundian praube içatia, / bay etare besteren / beharraren ukeitia!* (StJul 198)
- (30) *Beraien amourecaticq / mundiala gin içan eta / haren guisa hartan tratatcia, / ala inxolencia handia!* (StJul 327)
- (31) *O, dama ilustria, / ala çuc goure eretcian / caritate handia / exerçatcen presentian.* (StJul 339)
- (32) *Ala conxolu handia, / soloiu veritabilia, / presuna guciec compreny / ahal beno hobia.* (StJul 385)
- (33) *Ala su ederra, [...] / amorio divinouaren / marca ecinaguo handia!* (StJul 419)
- (34) *Ala hountarçun paregabia, / [...] celuco / gloriaren irabazlia!* (StJul 427)
- (35) *Ala crudelitate handia!* (StJul 524 & 1239)
- (36) *Ala suerte tristia! / Eztuta, oithian, nicq / çorthe maradicatia?* (StJul 746)
- (37) *Ayey, cer da haur? / Ala colpu handia, / Alcoran!* (StJul 1155)
- (38) *Ala berry ederra, / berry paregabia, / berry deliçous eta / alagranciaz bethia!* (StJul 1165)
- (39) *Ala memento ederra, [...] / hountarçunez eta / alagranciaz bethia! / Ala memento charmanta [...] / aspaldian desiratia!* (StJul 1218-1219)
- (40) *Ala orage handia!* (StJul 1236)
- (41) *Ala exemplu ederra / nicq cietan ekousten!* (StJul 1238)
- (42) *Ala, hau min handia, / eritarçun desolatia!* (StJul 1256)
- (43) *Gormandiçazco bekhatia, / Ala hi gora picatu!* (NLilia 6)
- (44) *Gincouaren semiac / Algouareky juntatcen, / Ala berry houna!* (NLilia 8)
- (45) *Belemeco ciotatia / Ala hic dicha houna!* (NLilia 9)
- (46) *Helas! ala beri tristia, / eta ezin beste handia!* (Petit Jean 109)
- (47) *Ala hiri brillanta / eta trono admiragarria!* (Edipa 007)
- (48) *Ala palacio ederra / eta lekhu agradabilia!* (Edipa 049)
- (49) *Ala gaiça oriblia! / Jauna, ajuta neçaçu!* (Edipa 117)
- (50) *Ala oropilo handia! / Jauna, urgaitz neçaçu!* (Edipa 128)
- (51) *Ala gaiça orriblia haur!* (Edipa 221)
- (52) *Ala dolore handia! / Othoy sustenga neçacie.* (Edipa 436)
- (53) *Ala phena handia / herritik phartitzia!* (Chiveroua 106)
- (54) *Debruen bisaia, / ala apho zanko elgera!* (Chiveroua 180)
- (55) *Ellas ala phena handia / eta eçin bestia / eta nourq eliro oray / desira hiltçia* (Xarlem 1315)
- (56) *Ala suerte tristia, / Portugaleko erreguec bethiere / aitag-emen artian / dien bethi desunione!* (SteEli 1216)
- (57) *Eta çu eritcen bacira / ala nic suerte tristia!* (SteEli 1225)
- (58) *Ala tristura handia / noula ahal dut suportatcen!* (SteEli 1323)
- (59) *Cer debru da hau? / Ala oren tristia!* (SteEli 1514)
- (60) *Aiei, ala bero handia! / Eta orage bat ere houna da!* (SteEli 1579)
- (61) *Ala solejü haundia / neskatila gastentako!* (Malqu 315)
- (62) *Ala lekhü ülhüna, / eta elhorri tegi garratza!* (Malqu 434)
- (63) *Ah ifernia, ala hi terrible! Bekhatia, ala hi icigarri!* (Medit 60)

- (64) *Ala, prozes drolia!* (CanBel 397)
 (65) *Ala fortuna tristia!* (CanBel 450)
 (66) *Eghiazko adixkida / Ala gauza ezta!* (Archu Fab 50)
 (67) *Ala erhokeria handia! Ala uxumentu tristia!* (HOrdre 203)
 (68) *Afrountu eguin dut ene creaçaliari: ala ni esteiari!!* (Myst 33)
 (69) *O bekhatia, ala hic eni oguen eguin!* (Myst 35)

3.4. *Ala* perpaus jokatueta

3.4.1. *Ala bait-* egituraz ⁴⁶⁰

3.4.1.1. Kontzeptualizazioa

Ala sarreran Urtek aditz jokatu gabeko zein jokatuetsenpluak ematen ditu: “O quam bonus est hic aer, *ala aire hau ona izan vel baita*” (I 343 *apud OEH*). Duvoisinek *ala bait-* egitura du gogoan: “Ne s'emploie qu'avec le verbe. *Ala ona baita Jainkoa!* [...] Le verbe est quelquefois sous-entendu. *Ala gauza ona arnoa, neurriz edaten denean*” (*apud OEH*).

Lhandek *alabaita* dakar azpisarrera gisara, lapurteran eta nafarreran kokaturik, zubererazko *alabeita* aldaerarekin: “*Alabaita doluegingarri! L. Ah ! qu'il est douloureux !*” Aldiz, Lhandek ez du aipatzen *bait-* bestelako adizkirekin gerta daitekeen ala ez. Alphonsa Rodriguezen obraren itzulpenaren kari, Caminok (2013: 446) heiagorazko balioa dakusa: *Ala baitu orenac jithia luçatcen!* (Lopez 351).

OEH-k ez ditu *ala* soila eta *ala bait-* egitura bereizten bere adibideetan; nolana ere, horien artean ondoko testuek *ala bait-* dakarte: Materra, Argaignarats, Aranbillaga, Tartas, Gasteluçar, Chourio, Haraneder, Maister, Larreguy, Mihura, Baratciart, Monho, *Charlemagne*, Duhalde, *Egun Ona*, Jauretche, Etchahun, Bordel, *Chants Populaires*, Bordes (*Uskal Noelen Lilia*). Lehen begi kolpean iduri luke *ala bait-* egitura ez dela XX. mendean erabili, bederen Zuberoatik kanpo. ⁴⁶¹

⁴⁶⁰ Deus baino lehen, gogora dezagun *ala bait-* egiturak ez duela zerikusirik *alba-* optatiboarekin (agianza edo igurikapenen adierazpenari lotua) edo *albait-* aurrikidun forma preskriptiboekin (Lafon 1943), antz fonologikoa goiti-beheiti.

⁴⁶¹ Zuberoakoak ez diren XX. mendeko egileengan atzeman dugu guk: *Ala baita samurra ait amen bihotza!* (Ibarrart *Koplak* “Aita zuhurra eta hirur semeak”); *Ala baitzien oilloeri maitasuna!* (Lizardi *Umezurtz olerkiak* “Maitearen apurñoak”). Asmo kultura zukeen Lizardi olerkaria apart utzirik, Ibarrartena bezalako adibideak fosil bati legezkiok, hots, Lhandek loturik jasotzen duen *alabaita* forma, bestelako adizkiekin erabili gabe. XIX. mendean Monho baxenafarrak etsenplu hau ematen du: *O Betleem! Zer ohore!! Ala baitzare altxatua! Zer ohore Zer grazia, zer fagore!* (Monho “Noela”). Baina, gure ustez, hor Monhok testu tradizio batetik edaten du: ekialdean ezagunak ziren *Noelak*; 1897an pasarte bera dakar Bordesek (“Oi Betleem” nolean).

Erabilerari doakionean, *ala bait-* egiturak bi osagai ditu, eta bien artean beste zein-nahi hitz txerta daiteke, bederen etsenplu zaharrenen garaietan (70)-(76). Denboran aitzina joan, eta egituraren bi elementuak maizago ageriko dira elkarren ondoan (79)-(82).

- (70) *Ala ni dohakabe handia bai naiz! zeren utzi zaitut zu neure Iabea.* (Mat 225)
 (71) *Ala aphezen ofizioa handi eta ohorezkoa baita.* (Arbill IV 11, 6)
 (72) *Ala zure amudioak / Ni hagitz bainau maitatu!* (Gç 92)
 (73) *Ala zuhurzia eta perfezione handi baten seiñalea baita nork bere burua guti, eta bertze guziak hañitz idukitzea!* (Ch I 2, 4)
 (74) *Ala bozkariatzen bainaz.* (He Gudu 129)
 (75) *Ala dohatsuak baitire lurraren gañean zutaz berreginduak izatu diren arimak.* (Mih 22)
 (76) *Ordean, oi! ala bertzela baitoazi gauzak, hil ondoan!* (Dh 155)
 (77) *Ala baitzuten zertaz kontsola ukho egin izateaz munduari Jesu-Kristori yarraikitzezat!* (Larregi Testament 52. kap.)
 (78) *Ala urrun baita hedatu / Merezia duzun fama!* (Monho 38)
 (79) *Parabisua ene Erresuma, ala ederra baitzare, ala baitzare maitagarria.* (Jaur 117)
 (80) *Nere begietan ala baitzare eder. "Que vous êtes joli!".* (Gy 1 apud OEH)
 (81) *Ala baitzare adimendugabea!* (Duv LE "Ifernuaren gainean")
 (82) *Ene haurrak, ala baita neke, aberastasunetan beren gogoa dadukatenak sartezen Jainkoaren erresuman!* (Duv Mc 10, 24)

3.4.1.2. *Ala bait-* egitura Zuberoako testuetan

Iduri du *ala bait-* egitura bereziki errotu zela Zuberoan. Hala gure corpusetik atera datuek, nola egile zuberotarren eta *manexen* arteko konparantzak, hori iradokitzen dute. Atal honetan Zuberoako euskara historikoaren lekukotza sistematikoa dakargu. Adibideen pisuaren sobera ez zamatzeko *ala bait-* moldea gehien agertzen duten testuetako etsenpluak alde batera utzi dira: Maisterrenak (§ 3.4.1.3 atalean emanak) eta *Meditacioniac* liburuko gehienak; azken testu honetako zenbait (16)-(28) adibide sortan kontsulta daitezke, Baratciarten testukoei erkaturik.

Aldaketa fonologikoz gain,⁴⁶² Zuberoako testuetan ez dugu kanbiamendu argirik sumatzen. Lapurdin ez bezala (70)-(82), ekialdean ez dirudi *ala bait-* egituraren osagaien arteko distantzia denborarekin aldatzen den. Izan ere, joera dibergenteenak garai bereko bi testuetan atzeman ditugu: Maister, *ala beit-* sistematikoki loturik erabiltzen baitu (cf. § 3.4.1.3), eta *Saint Julien* trajeria, non aditza maiz urruntzen baita *ala* partikulatik.

⁴⁶² Aldi historikoan *ala bait-* > *ala beit-* aldaketa lekukotzen da, *bait-* aurrizkiak Zuberoan izan duen bilakaeragatik. Testu zaharretan *bait-* baizik ez da ageri (Oihenart, Zalgize, Etchart); Tartas edo Belapeirerengan *bait-* da ohikoena, eta *beit-* han-hemenka azaleratzen da. Aldaketa XVIII. mendean gorpuztuko da, bi aldaeren arteko proportzioa ifrentzikatuz. XIX. mendean *beit-* baizik ez da lekukotuko.

- (83) *O herioa, ala baita zure memoria [...] aspre, mingar, triste, eta karratz gizon bati. (Tt Onsa)*
- (84) *O Israel, ala baita handi Ienkoaren exia, [...] ala baita kabal, eta largo, handi da, eztu firik, gora da, immenso, eta relebatu. (Tt Onsa)*
- (85) *Ala ni bainitz gizon miserabilia. (Tt Onsa)*
- (86) *«O! Iinkoaren zuhurtziaren eta szientiaren aberastarzunen handitarzuna, ala baitira inkonprehensible eta adorable zure manamendiak eta zure bide saildiak» (Tt Arima)*
- (87) *Ala beiniz ni bekhatore malerousa, çombat bekhatuz cagaturic! (Othoitce 20)*
- (88) *Ala baitut sendi nitan ahalke eta confusione handi bat hain temerari, hain erho, eta hain ingrat içanez! Ô lurra! Ô erhauxa! (Othoitce 21)*
- (89) *Ala beitura plagnitceco, / Bekhatian lo direnac. (Othoitce 39)*
- (90) *Ala baita garatz hilce triste hori! (Othoitce 53)*
- (91) *Ala beiniçan ni uxumentu handian; / Jesus houna, hilic niz ni bici? (Othoitce 54-55)*
- (92) *Ala baita çoure aholkia, / Gincou Jauna, houn ezti eta bici! (Othoitce 60)*
- (93) *Ala beita ikharagarri / Criminel baten hilcia! (Othoitce 74)*
- (94) *Ala beita luce ene egoitia! / Gaiça debeiagarria! (Othoitce 86)*
- (95) *Ala, lo eztia, / lo mundian paregabia, / beteitaçu eretcheky / Salvaçale maitia! / Ala, berry ederra, / conxolamentu agradabilia, / beteitaçu eman hareky / Salvaçale eztia! (StJul 69-70)*
- (96) *Ala favory handia, / eguiazco Gincoua, / çuc eguin beteitaçu / socorry divinoua! (StJul 155)*
- (97) *O, Basilissa maradicatia, / ene thurmentaçalia, / ala betçait ynpossible / eny hire tentatcia. (StJul 348)*
- (98) *Ala berry ederra / nahy beteiçun eman, Julien, / surmontable beita / munduco gaiça gucien. (StJul 389)*
- (99) *Ala boneur handia / çuc goury emaiten, / ala beituçu goure eretcian / conduta eztia edukitcen. (StJul 407)*
- (100) *Ala çuc beteikuçu / rencompenxa handia prometatcen / eta eguiazco gloria / gouretaco adelatcen. (StJul 425)*
- (101) *Gincoua dela laidatu / eta bethy remestiatu, / ala placer handiacq / harecq emaiten beitutu. (StJul 1090)*
- (102) *O, themplu superboua, / ala beyhiz hy urguillux. (StJul 1144)*
- (103) *Ala hontarçun handia / beyta çutan edyreyten. (StJul 1150)*
- (104) *Ala colpu handia, / Alcoran! Ala beyta / haur masacre orriblia! (StJul 1155)*
- (105) *Ala crudelitate handia / hicq beituq exerçatu! (StJul 1242)*
- (106) *Ala hau phena handia! / Ala beinian çorthe gaiztoua! (StJul 1253)*
- (107) *Ala gaiça fachousa / beita haur gouretaco. (Edipa 348)*
- (108) *Ala beita triste / munduco ene içatia. (Edipa 422)*
- (109) *Ah Olimpia, ala nic beitutut / sofriccen phena handiac. (Edipa 424)*
- (110) *Ala beita othian / haur bicy tristia! (Edipa 818)*
- (111) *Ala beteitaq eguiten / egun placer handia. (Edipa 1014)*
- (112) *Ala imprudencia handia / nic jauki ukhen beitut! (SteEli 816)*
- (113) *Ala amourio handia / beitician harec gouretako! (SteEli 1293)*
- (114) *Ala amourio infinitoua / beitut nihautan posseditcen, / bihotz bat çoure maitatceko / sobera guti duçu edireiten! (SteEli 1303)*
- (115) *Ala crima handia nic / cometitu beitut gaiski! (SteEli 1556)*
- (116) *Ala maliür haundia, / beitzeit eni agitü. (Malqu 334)*
- (117) *Ala lekhü ederrian / izan beita bastitü. (Malqu 492)*
- (118) *Ah! Malhourous niçana, ala beytut nic arragret handi eygun guisa hountan edireytez! (UskLi 226-227)*
- (119) *Ala beitzen haur doba huna! / Gogo hunez jan düet, ja. (Chiveroua 69)*
- (120) *[Arnegi] Ala betaut phena egiten / zure ganik phartitziak. (Chiveroua 166)*
- (121) *Ah, ene büürüzagia, / ala beitüt phena handia. (Chiveroua 276)*
- (122) *Ala erhokeria handia beita bihotçaren estekatcia hiltcian khiaren pare diretekien es deus kerier! (Medit 50)*

- (123) Ala beitcirade maithagarri! Ala desiratceco beitcirade! *Eta ororen gatic ala guti beitcira mundian eçagaturic eta beguiraturic!* (Medit 132)
- (124) Ala fortuna tristia, /betzait eni gerthatü. (CanBel 342)
- (125) Ala eder beitcen Mariaren arima hain chahu elkhiric Jincoaren eskietaric! (MaiMarHil 18)
- (126) Ala beita haren bicitce ichil eta gordia ene bicitce herosti eta barreatiaren condenagarri! (MaiMarHil 81)
- (127) Ala dohatsu beinintçateke, ene salbaçale maitia, [...] çoure odolaren edateco eztatutan banintz. (MaiMarHil 134)
Observe that this genitive is possible (indeed, obligatory) only with the direct object of a gerund, and in no other circumstances. This fact has not always been understood, because of apparent counterexamples like the following: *Aitaren jiteaz atsegin dut* 'I am happy at the arrival of my father', in which the genitive *aitaren* appears to be the subject of an intransitive gerund *jitea* 'arrival', from *jin* 'come', and *aitaren egite hori* 'that deed of father's', in which genitive *aitaren* appears to be the subject of a transitive gerund *egite* 'deed', from *egin* 'do'. But this is not so. In these examples, we are not looking at any gerunds at all, but only at ordinary verbal nouns which happen to be identical in form to gerunds of the same verbs. Like other languages, Basque has several suffixes for deriving nouns (verbal nouns) from verb-stems, and among these are the suffixes also used to form gerunds. It is a simple matter to show that these examples are nouns, and not gerunds, because they plainly have nominal properties, while gerunds have only verbal properties. For example, we can say *aitaren egite izugarri horiek* 'those terrible deeds of father's', in which the noun *egite* 'deed' takes not only a genitive but also an adjective (*izugarri* 'terrible'), a demonstrative and a plural marker; a true gerund can do none of these things (1997: 245).

Puntu honetan Traskekin guk halaxe ikusten dugu auzia: euskarak baditu aditz nominalizatuen formalki identikoak diren izen hutsak, eta haiek aditz-tasun osoa atxiki duten bitartean, haiek izenen ezaugarri sintaktikoez hornituak dira. Bereizkuntza hau klarki gogoratzea funtsezkoa izanen da gure proposamenaren defendatzeko tenorean (§ 4.6).

4.6. Subjektu iragangaitzen genitiboa (ISGen) ⁴⁶⁹

There seems to be no natural explanation of why TO's but no IS's are genitivized [in northern Basque], if this genitivization is considered as merely a special case of the general genitivization rule (Heath 1972: 53).

⁴⁶⁹ Genitibozko objektuari erreferentzia egitean *transitive object genitive* deitura baliatzen badugu (euskalaritzan ongi errotoa izanik), koherente iruditu zait genitibozko subjektu iragangaitza *intransitive subject genitive* (ISGen) gisa izendatzea. Ezaugarri haiek ber fenomenoaren agerpenak izanik, jarraikortasun bat bilatu nahi izan dut —eta, zeren ez, estekadura terminologiko bat.

4.6.1. ISGen: existentziaren frogantza

Ezaguna da egungo hizkuntzaren berri ematean egin daitezkeen baieztapenek anitzetan ez dutela ber indarra iraganera bihurturik (edo baliorik batere ez). Bestenaz, argi dugu hizkuntza baten historia ezagutzeko bide zuzen eta bakarra lekukotasun zaharretara jotzea dela, eta euskararen kasuan anitz dukegu oraino horietan xerkatzeko. Ene gustuko sekula ez diegu testu zaharrei aski atentziorik emanen: haiek zerratzen dute hizkuntzaren iragana, eta haiek dute iragan hori erakusten —ikusteko prest dagoenari—. Genitibozko markatzeaz denaz bezainbatean, seguru zenari (O argumentuarenari) orain S-rena emendatzen diogu, eskrutiniorik zorrotzena iraganen duten etsenpluekin.

Hasiera batean *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerialan atzeman genituen genitibozko subjektu iragangaitzen adibide ezinago garbiak,⁴⁷⁰ baina testu honen kokapen berezia gogoan izanik (Eskiula, 1750 [Oyharçabal 2004]) bitxikeria isolatu bat izan zitekeela pentsatu genuen. Ondoren, zubereraren corpus zaharra azterkatzean, ohartu ginen genitibozko subjektu iragangaitzak ez zirela batere arraroak (eta ez bakarrik Zuberoan). Askia da lekukotasunen zerrendari soño bat egitea ezaugarriaren hedadura historikoaz jabetzeko; bestalde, badirudi zenbatenaz ekialderago hainbatenaz maizago lekukotzen dela ISGen. Zuberoan: Tartas, Belapeire, *CatOlo*, *SteEli*, Maister, *StJul*, *Edipa*, irri antzertiko lanak, *Xarlem*, *Doctrina khoristia*, *Medit* eta are Constantin. Lapurdin (gutxi edo inoizka): Leizarraga, Materra, Axular, Etxeberri Ziburukoa, *Le Dauphin*-eko gutunak, Zaldubi.

Oro har, fenomenoaren maiztasuna oso baxua da Zuberoatik kanpo, egile batzuegan marjinal izanik ere. Beste zenbait egilerengan ez dakigu ISGen posible zenetz, haien testuetan ez baita testuingurua gertatzen (zorigaitzez, halakoa da Etxepareren kasua). Ondoan aditz-tasun osoa atxiki duten aditz iragangaitz nominalizatuen genitibozko subjektuak eskaintzen dira, AS-ri doazkion osagaien arabera zerrendatuak:

⁴⁷⁰ *Adibide garbi* erraitean hauxe nahi dugu adierazi: genitibozko subjektu iragangaitza eta aditz-izenaz gain, AS-ri dagokion beste zein-nahi osagai erakusten duten perpaus nominalizatuak baino ez ditugu kontuan hartuko. Hortaz, ekarri ditugun etsenpluetan aditz-izenek beren aditz-tasun osoa atxikitzen dute, adberbioak, kopulak eta era guztietako adjunktua onartzen dituztelako. Bestela erraiteko: [GEN + aditz-izen] egitura agertzea ez zaigu aski, nahiz halako zenbaitetan egiazko perpaus nominalizatua izan, batere dudarik gabe: *Erak: ene pausatze* [= 'ni pausa nadin'] / *oihan zabalik badüka?* (*Jouanic Hobe* 62, in *AstLas* 168).

4.6.1.1. Datibozko osagarriarekin

- (10) *G. Cer ikhasteco da Jesus-Christ Jauna ganic? I. Guihauren hareki Aita bethierecoari oherescatcia, gucz Meçaco sacrificio saintian*⁴⁷¹ (Bp II 106).

4.6.1.2. Atributu eta kopularekin

- (11a) *Cer cegnhare da Ama Virginaren devot içatia?* (Bp I 146).
(11b) *Jesus-Christen batheyatu içatia Jondané Johané Batistaz* (Bp II 24).
(11c) *Ostacchia oro duçu / haren hain gazte içatia* (SteEli 95).
(11d) *Balukeçu erremedio / çoure libre içateko* (SteEli 370).
(11e) *Ounxa ceikularic gaitci / çoure mesperetchaturic içatia* (SteEli 374).
(11f) *Çu aldiç etcitjala alaguera, eç hartan, eç hountan, bena bai çoure ciharen mesperetchatu içatian* (Mst III 49, 7).
(11g) *Ene eri içatiaz, / ene erren maitia, / etcitjala ez içan / batere aflegitia* (SteEli 1276).
(11h) *Eztuçu behar debeiatu / ene hounic içatekoz* (SteEli 1417).
(11i) *Jauna, justo duçu / çoure erregue içatia* (Edipa 410).

4.6.1.3. Atributu eta inesiboarekin

- (12a) *Bonurra dugunaz gaignian / arkort içateko heben, / ene alhabaren içateko / erreguina Portugalen* (SteEli 159).
(12b) [...] *haren beraren eracaxiric içateco goure diocesan. (Doctrina khiristia 6).*

4.6.1.4. Egitura predikatiboak

- (13a) *Çu beithan diagoçu ene ahoia, botcic gabe, eta ene ichilic egoitia mintçatcen çaiçu* (Mst III 21, 4).
(13b) *Haregatic çoumbait orduç ihardexi ukhen ciçun, beldurreç flakier bere ichilic egoitiaç escandal eman leçan* (Mst III 36, 2).
(13c) *Eta haur prodigouaren umiliaturic arrajitiaz aitac ukhen cian plazerac ez du erhi ideia baicic emaiten celuco Aitaren plazeraz* (Medit 146).⁴⁷²

4.6.1.5. Soziatiboarekin

- (14) *Harengatic erraiten deiçu bere plazerac eçarten dutiala guiçonon haurreki içatian* (Medit 136).⁴⁷³

⁴⁷¹ Pasarte honek atentzioa merezi du. Ohart bedi, batetik, *ohereskatu* aditzaren erregimen zaharra dugula hemen: *nor nori ohoreskatu*. Ohart, bestetik, datiboak markatzen duen sintagma *hareki Aita bethierecoari* dela, X-reki Y 'X eta Y' koordinamoldearen bidez. Beraz, 'hari [Jesu-Christi] eta Aita bethierecoari ohorescatcia'. Arkaismo honek Iparraldean utzi duen aztarnarentzat ikus Lakarra 2008, Padilla 2011: 76-77 eta Camino 2011. Zubereraz halako dozena bat etsenplu bildu dugu azken aldian.

⁴⁷² Lapurterazko originalean: eta seme prodigoak bere falta aithortzean, haren aitak izatu zuen bozkarioak erdizkara bezala ezagut-arazten daroku, Aita Zerukoak, gu humiliatuak bere aitzinean ikhustez, duen plazera (Brtc 246).

⁴⁷³ Lapurterazko originalean ere ISGen gertatzen da: hartarakotz erraten daroku, bere plazerak ematen dituela gizonen umeekin izatean (Brtc 231).

4.6.1.6. Leku osagarriekin: ablatibo, adlatibo, inesibo

- (15a) *Arimaren gorputcetic partitcean içanen den eguitecoa eta herstura* (Mat 34).
 (15b) *Iesus Kristoren Hierusalemera sartzearen gañean* (EZ Noel 101).
 (15c) *Hanitz duçu, sira, / çoure houna gitia, / eta Portugaleric houna / bidian eçartia* (SteEli 110).
 (15d) *Perssona haien ikhoustiac / bai eta gougouala gitiac / eztutia oro branlatcen / guiçonaren centçu guciac?*⁴⁷⁴ (SteEli 319).
 (15e) *Zorigaixto zela hire / gure etxian gerthatzia!* (CanBel 451, in AstLas 211).
 (15f) *Anaya, desiratu içatu dut hanitxetan çuben byen hemen içatea* (Le Dauphin, Pierre d'Etchevers).
 (15g) *Ene semia, etcitiala triste, ouhourian, eta goratarçunian, besten ikhousteç, cihauren aldiç, mesperetchian, eta aphaltarçunian içateç* (Mst III 41, 1).⁴⁷⁵
 (15h) *Bena çoumbait hountarçun bere buriari emaiten dianac, Jincouaren graciaren bere beithara jitiari baragallubat eçarten du* (Mst III 42, 2).
 (15i) *Goure berthutian aicina jouaitiaren, eta boronthate hounaren araur* (Mst I 19, 2).
 (15j) *Jesus-Christen ifernietarat jaistiaz, haren hiletaric phiztiaz, eta celietarat igaitiaz* (Doctrina Khiristia 24).
 (15k) *Bai eta zenbat errespetu haren han izaiteari* (Zby Kant 74).
 (15l) *Theadossa, cer da sugeta / çoure houna gitia, / eta ounxa beguira ciçadan / Charlemaignaq igortia?* (Xarlem 740).
 (15m) *Plazer hartçen dit çoure / desseing hounian jçatia* (Xarlem 148).
 (15n) *Badüzü mila egün / zure hunu jitia* (Malqu 400, in AstLas 251).

4.6.1.7. Denbora osagarriekin

- (16) *Etcen possible içan / haren secula combertitcia*⁴⁷⁶ (StJul 101).

4.6.1.8. Modu adberbioekin

- (17a) *Damuago baitzenduke zeure anaia haren kalteaz, eta haren hala izaiteaz, egiten eta erraiten derauzkitzun bide gabe guztiez baiño* (Ax 206).
 (17b) *Amaren hola jartetic / ounxa dit comprenitcen, / segurki ere niçala / gaiski bai agitcen* (SteEli 896).
 (17c) *Etcitadaçu hambat propy / çoure hola mintçatcia* (Boubane 126, in AstLas 117).
 (17d) *Haren hain garbiki mintzatziak eman zeron estimü handi bat mandozain apezaren* (Const 27).
 (17e) *Themporaren ounxa jitiaren araur, debocionen khambiatciac ere placer eguiten deicu* (Mst I 19, 5).
 (17f) *Beldurreç gaicen ounxa jouaitiac gora eraci citçan* (Mst III 30, 4).

⁴⁷⁴ *Perssona haien* ahapaldiko bi aditzen argumentu da: lehenbiziko aditzaren osagarri zuzena eta bigarrenaren subjektu iragangaitza. Beraz, hemen TOGen eta ISGen erregelen adibide bikoitza dugu.

⁴⁷⁵ Maisterren pasarte honetan ezinago argi ezartzen da TOGen (*besten ikhousteç*) eta ISGen (*cihauren içateç*) fenomenoaren paralelotasuna. (15c) adibidean ber sintagman dautza TOGen nahiz ISGen.

⁴⁷⁶ Irakurleak oposa lezake *combertitcia* aditz iragankor gisa agertzen dela, eta beraz *haren* TOGen etsenplu bat dela, baina guk ez dugu horrela interpretatzen, eta ber testuak *combertirazteco* (0107) emateak argiago errendatzen du afera.

- (17g) *Houn-da çoumbait orduç estecamentu, eta desircunte hounen ere bridatcia, beldurreç, hen ussiegui jitiac, eçpiritia barreia eraci diçaçun, edo çoure aski beguiratu içan gabiac, bestiac bekhatiala eror eraci ciçan* (Mst III 11, 2).
- (17h) *Eçkintek hagn ehignera nahas, besten goure sendimentien countre jouaitiaç* (Mst I 14, 1).

4.6.1.9. Instrumental, inesibo eta adlatiboz

- (18) *Andre dana Mariaren Paradussialat Corpitz eta arimatan Jesus bere semiaren indarraz igaitia* (Bp I 148).

4.6.2. ISGen erregela zertan den

Argumentuen markatzeari doakionean, ISGen erregelak lerratze ergatiboa ezartzen du. Beraz, eta espero daitekeenez, aditz iragankorren subjektuek ezin dute, inolaz ere, genitiboan agertzen ahal:⁴⁷⁷

- (19a) *Ingrat eta injusto lukeçu / nic çoure refusatcia* (SteEli 157).
- (19b) *Francesaq francesaren jcoustic / bethi plaçer eguiten dou* (Chiveroua 126, in AstLas 137).

Orain arte *Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750) da ISGen hobekien lekukotu duen testua. Trajeria osoan bilatu ondoan, hamaika adibide garbi aurkitu dugu (adibide garbi batentzat zer hartzen dugun argitzeko ikus 9. oin-oharra). Dozena batek ez lirudike oso kopuru altua, baina garrantzitsuena da kontra-etsenplurik ez izatea, erran nahi baita **zü huna jitia* bezalakorik ez dela (eta gehiago dena, **zü jitia* bezalakorik ere ez). Mendeko perpau nominalizatuetakoa subjektu iragangaitzak oro, aldiz, genitiboan izaten dira emanak, honako aditz ezaugarriak atxikitzen dituztela: atributu edo kopulak (11a-i, 12), inesiboak (12a, 15c), ablatiboak (15c), adlatiboak (15c, d) edo modu-adberbioak (17b). ISGen erregelari oposa dakioken salbuespen bakarra (20) arras kasu berezia da, subjektua izenordain indartu baten forman delako (*nihau*), eta korreferentzian:

- (20) *Eci deus eztit estimatcen / nihau mesperetchatu içatia* (SteEli 379).

Nolanahi ere den, *Sainte Elisabeth de Portugalek* ezaguna frogatzen du: euskararen markatze genitiboaren arauak ez du eraginik aditz iragankorren subjektuetan, hauek ezinbestean ergatiboan izan behar baitute emanak (21a, b):

⁴⁷⁷ Egia erraiteko, A-ren genitibizazioaren adibide garbi bat kausitu dugu (8a-f) adibideetako kalkoez landa, baina momentoko bakarra: *Sira, zure izentatzez ene / enperadore erresümako, / kuntent dira mündü oro, / sarri benaie ezagütiko* (CanBel 448, in AstLas 211). Hemen objektua ere genitiboan agertzen da, eta markagarria da aditzaren eskuin izatea, agian A (*zure*) eta O (*ene*) ongi bereizteko —fartsaren testuinguruan Sataneke enperadore izendatu duena Satani berari mintzo zaio.

(21a) *Eguia duçu: senharrac emaztiari / eguitia hala handi duçu (SteEli 430).*

(21b) *Bena segur içanen duçu / harec çouri guerla emaitia (SteEli 1140).*

Bestalde, ikusi behar liteke testu bakoitzean ISGen emankorra, ihartzen hasia ala fosildua den. Horrela, zenbait testutan ISGen arauaren kontra doazen adibideak atzeman ditugu, guti badira ere (22a-i), eta beste testuetan bat bera ere ez (hala Oloroeko katiximan nola *Sainte Elisabeth de Portugal* edo *Charlemagne* trajerietan).

(22a) *Icẽ amoriozco hunec (çu ene Aita içaiteac) (Mat 272).*

(22b) *Manatzen du bat bedera hartaz orhit izatera (Tt Onsa 34).*

(22c) *Jauna, cer da guiçona, çu hartçaç orhit içateco, edo cer da guiçonaren semia, çuc houra bisita deçaçun? (Mst III 40, 1).*

(22d) *Zer da gizona hartaz zü ohartzeko, edo gizonaren semia haren ikhustera zü jiteko? (Arch Psalm VIII).*

(22e) *Nour niz ni, ô gloriaczco eta majestatzco Gincoua, çu nitara gin nahi içateco? (UskLi 108).*

(22f) *Ez da comeni mundupian bici behar dena hain ussu mahain saintiala huillantcia (Medit 139).⁴⁷⁸*

(22g) *Jauna, çu hemen içaterat, ene anaya etcen hillen (Lg II 203).*

(22h) *Hek ethortzearekin / akhabo negua (Zby Kant “Primadera”).*

(22i) *Bakea jitearekin, kristauek lehen urtetan / Eliza bat zuten egin Sainda horren ohoretan (Zby Kant 174).*

Ikusi behar liteke, halaber, egileek zer jite duten perpausen nominalizatzeko tenorean: *hura joan dadin* ala *hura joaitea* moldeen maiztasuna aztertu behar da, eta azkenean nominalizatzen dituzten perpausetako subjektu iragangaitzak nola izaten diren emanak. Bestalde, ez da komeni arrazoin pragmatikoen ahanztea; baliteke ISGen mintzamoldeetarik hurbilago den ezaugarria izatea (beharbada horregatik herri antzertiko lanetan lekukotzen da hobekien).

4.6.3. ISGen: jatorriaren gaineko hipotesia

Orain arterainokoa ikusirik, ondorio klar batera etortzen gara: perpaus nominalizatueto argumentuen markatzeari doakionean, (Ekialde zabaleko) euskarak noizbait berdin tratatu ditu objektua eta subjektu iragangaitza eta, beraz, lerratze ergatibo bat erakutsi du sintaxiaren atal honetan. Trasken hipotesietara itzuliz, 1995eko bere lanean azalpen bat bilatu zion euskararen TOGen fenomenoari (§ 4.3.2), arraposta ingelesaren gerundioaren historian edirenez. Hortaz, Jespersenen lan batean oinarrituz (1948), paralelotasun bat ezarri zuen ingelesaren gerundioaren eta euskararen *aditz-izenaren* historien artean. Izan ere, bien kasuan *gerundioak*

⁴⁷⁸ Lapurterazko bertsioan: Ez da konbeni, diote batzuek, mundupean bizi behar dena hain maiz mahain saildurat hurbiltzea (Brct 236).

jatorri purki nominal bat izan zukeen, eta denborarekin hastapeneko izen deberbal haiek aditz ezaugarriak hartuz joan ziren, harik eta gerundio bihurtu arte. Egungo ingelesaren genitibozko subjektuak⁴⁷⁹ eta Iparraldeko euskararen genitibozko objektuak behialako izen-tasun haren lekukoak dirateke:

In both languages, the suffixes in question originally derived nouns from nouns; in both, the suffixes eventually acquired the ability to be added to verbal nouns; in both, the derivatives of verbs were originally true nouns, with no verbal characteristics; in both, the verbal nouns gradually acquired more and more of the characteristics of verbs, shedding their nominal properties along the way; in both, this process has not yet quite gone to completion, with genitive objects (in northern Basque) and genitive subjects (in English) still being the norm (Trask 1995: 227).

Funtsez, akort gara Traskekin, baina hark ez zuen azaldu zergatik euskararen ez den genitibozko subjekturik, ez iragankor ez iragangaitzik.⁴⁸⁰ Trasken hipotesiaren abiapuntu harturik, badugu egoera bat non hiru *aktanteak* genitiboan emanak baitziren, hirurak buru izen huts zeukan IS baten osagarriak ziren heinean: *haren egitea* (A), *haren egitea* (O), *haren etortzea* (S). Bidean zer gertatu zen esplikatu gabe, Trask denek ezagutzen dugun helmugara heltzen da: *hark egitea* (A), *haren egitea / hura egitea* (O), *hura etortzea* (S); hots, O baizik ez da genitiboan ematen ahal. Hipotesi horrek ondokoa dakar impliziturik: hasierako izen deberbalek aditz-tasunen hartzeko bidean, euskarak subjektua (A zein S) hastapenetik markatu zuen (uler bedi *markatzea* ‘desgenitibizatzea’). Bistan denez, hori posible da; horrela izatera, lehen ekarri ditugun ISGen adibideak Ekialdeak berantago bere kasa egin eta ondoren arrakastarik izan ez zukeen berrikuntza batean kokatzeko lirateke.

Bigarren aukera da pentsatzea hiru aktanteak genitiboan izaten zirela emanak, salbu haietako bi batera agertzen baziren, hau da, A eta O.⁴⁸¹ Kasu honetan euskarak subjektu iragankorraren

⁴⁷⁹ “The only reservation is in the form of its subject. Still today, a gerund in English takes its subject in the genitive case for many speakers: *I don’t approve of his doing that*. Some speakers, especially in Britain, have replaced the genitive by the objective: *I don’t approve of him doing that*. But nowhere is possible to use the ordinary subject case with a gerund: **I don’t approve of he doing that*” (Trask 1995: 226).

⁴⁸⁰ Nonbait, Traskek ba omen ISGen sintaxiaren berri: “Rebuschi 1995 shows that, in early texts in northern dialects, the genitive could also be used for the subject of the verbal noun of an intransitive verb” (1995: 225). Erran behar dugu Rebuschiren lan horretan ez dugula halakorik aurkitu. Nolanahi ere den, Traskek ISGen ezagutu ez balu bezala jokatu zuen.

⁴⁸¹ D. Creisselsek erremarkatu baitigu, munduko hizkuntzetan perpaus bateko argumentuak makatzean objektuek izaten ohi dute lehentasuna. Oro har, aditzetik hurbilen den argumentuak hartzen luke lehentasuna.

markatzea (desgenitibizatzea) hautatu zukeen, ergatiboaren morfema erantsiz, subjektu iragangaitzak genitiboan jarraitzen zuela. Denborarekin ISGen indargabetuz eta galduz joan zen —guk dakigula, egun ez da gehiago emankorra—, TOGen-ek luzeago iraunez. Hipotesi honek lehen ikusi diren ISGen adibideak azkenetan zegoen arkaismo baten isla izatea lekarke. Bistan denez, azalpen honek kanbiamendu gutxiago eskatzen du; kasu hauetan erraitea usu den bezala, “merkeago” zaigu. Haratago joanez, ikusmolde honek bilakaera orokorrago batean kokatzen ditu euskara historikoak lekukotzen dituen genitibozko objektuak eta genitibozko subjektu iragangaitzak.

Bestela formulatzeko, ISGen fenomenoak bi esplikabide ditu: 1) Ekialdeak egin duen berrikuntza izan dadin; edo 2) Ekialdeak atxiki duen arkaismoa izatea. Lehen aukerak sintaxi jada akusatibo batean nonbait markatze ergatibo bat ageri zela suposatzen du, beharbada morfologiarekiko erregulartze batengatik. Bigarrenean pentsatu behar da ISGen sistema ergatiboago batetik sistema akusatibora iragaiteko bidean gelditu den herexa dela. Bistan da, arkaismoaren hipotesiak bide zuzenago eta sinpleagoa eskaintzen digu, konprenitzeko errazagoa, eta aldaketaren norabidea gogoan, espero dugunarekiko koherenteagoa ere.

CODA

Oro har ISGen fenomenoa ekialdeko euskara zaharrean kokatzeko da. Egungo euskaldunek ez dukete onartzen (Videgainek eta Oyharçabalek hala gaztigatu didate), baina sintaxi zaharraren arrastorik oraino aurkitzen ahal da. Johañe Bordaxarren antzezlanean, *José Mendiague* pastorealean, ISGen arauaren bi adibide irakur daiteke (23a, 23b). Bistan da, bietan mendeko perpaus nominalizatuan adberbio bat txertatzen da genitibozko subjektuaren eta aditzaren artean. Gure ikusmoldean, halako agerraldiek nonbait ISGen ekialdeko hiztunen memorian datzala erakutsiko lukete eta, beraz, haren galera ez bide dela aspaldidanikoa.

(23a) *Beste pena bat handia / haurren hürriin joaitea / Bihotza düüt ürratüirik / ama hanitxen zortea!* “Comme beaucoup d’autre mères, / je suis contrainte d’accepter / le départ de mes enfants, / cela me brise vraiment le cœur” (*Jose Mendiague* pasterala 30).

(23b) *European gerla handia / horrek düi gose gorria / Beharrezko izanen da / gure saihets egoitea* ‘La grande guerre d’Europe / engendre la faim, / nous ne devons surtout pas / nous y engager’ (*ibid.* 166).

4.7. Ondorioak

Ezaguna den —eta oraino bizirik den— TOGen fenomenoaz apart, euskara historikoak genitibozko subjektu iragangaitzak ere onartu ditu, Ekialde zabalean bederen. ISGen adibide

argiak Iparraldeko euskara zaharrean aurkitzen ahal dira, zenbatenaz ekialderago hainbatenaz indartsuago lekukotu ere. Genitibozko markatze molde hau TOGen arauak dituen testuinguruei eta murriztapenei hertsatzen zaie: funtsean, mendeko perpau nominalizatuei.

Horrekin, euskararen sintaxia guztiz akusatiboa dela erakusteko baliatu diren parametroetako batean (hots, genitibizazioan) lerratze aldaketa bat gertatu izan da: eskema ergatibo/absolutibo bati dagokion A / S, O bereizkuntza batetik A, S / O lerratze nominatibo/akusatibo batera. Bestalde, badakigu iraganean TOGen euskara komunaren ezaugarri bat izan zela (Lakarra 1983 & 1996). Denboran gibelerago joanik, genitibozko objektua gerundioaren (aditz-izenaren) historiarekin lotzekoa bide da; konkretuki, haren jatorrizko izaera nominalaren herexa litzateke (Trask 1995 & 1997).

Gure ustez, ISGen gisara izenda daitekeen araua ere ber testuinguruan esplikatzekoa da, haren balizko hedadura orokorra testuek frogatzen ez badute ere. Izan ere, TOGen-ek berantago iraun du, eta horregatik ongi lekukotua da Ipar nahiz Hegoaldeko euskara zaharretan. Aldiz, ISGen jada lehenbiziko testuetarik ikusten dugu Iparraldera mugatua, egungo euskaratik desagertua izanik, eiki. Bestenaz erraiteko, objektuaren genitiboa (TOGen) eta subjektu iragangaitzaren genitiboa (ISGen) fenomeno orokorrago baten agerpenak baino ez dira.

Garai historikoan desgenitibizazio prozesu bat gertatu da, objektuen kasuan hobekiago lekukoturik, eta subjektu iragangaitzenez soilik azken fasean ezagutua, hauen galera besteena baino lehenagotik abiatua baitzen. Azken finean, ISGen arauaren proposamenak Trasken TOGen fenomenoaren jatorriaren gaineko hipotesia (1995) indartzen du, berorrek zuen hutsunearen betetzera baitator.

VIII.

ONDORIOAK

1. Hizkuntz atalka, labur
 - 1.1. Fonologia
 - 1.2. Kasu sistema
 - 1.2.1. Marka berriak eta kasu sistemaren berrantolatzea
 - 1.2.2. Genitibo zaharraren mapa semantiko baterat
 - 1.2.3. Ekialdeko euskarak bi komitatibo bereizi zituzkeen?
 - 1.2.4. Kasu lokatiboak
 - 1.3. Aditz sistema
 - 1.3.1. Forma jokatu-gabeak
 - 1.3.2. Erroak eta forma jokatuak
 - 1.3.3. Modua eta modaltasuna
 - 1.4. Sintaxia
 - 1.4.1. *Barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioekiko egiturak
 - 1.4.2. Haridurazko perpausak
 - 1.4.3. Subjektu iragangaitzaren genitiboa (ISGen)
2. Hizkuntz ukipenaren eragina
 - 2.1. Bokalki sudurkari sail berria
 - 2.2. Txistukari ahostunen saila
 - 2.3. Eratorpen morfema mailegatuak
 - 2.4. Hurbiltze adlatiboaren egitura berriak
 - 2.5. *-i* sail berriko partizipioak
 - 2.6. Zuberoako egitura aurkezlea
 - 2.7. Benefaktiboaren marken hedakuntza semantikoa
 - 2.8. Frantsesari kalko bat, literatur zubereran
3. Literatur hizkuntzaren eragina
 - 3.1. Ohar bat grafiaz
 - 3.2. Frantsesaren eragina
 - 3.2.1. Lapurterarena
 - 3.2.2. Zubererarena?
 - 3.2.3. Hegoaldeko tradizioarena
4. Zuberoako euskararen barne zatiketaz
 - 4.1. Asimilazio bokalikoak direla eta
 - 4.2. Ablatiboaren morfema berria: *-ti* vs *-tik*
5. Zuberoako euskararen bilakaera orokorra
 - 5.1. Zuberoako euskarak atxiki dituen ezaugarri orokorrak
 - 5.2. Zuberoako euskarak partekatzen dituen hautu eta berrikuntzak
 - 5.3. Zuberoako euskararen berezko berrikuntzak
 - 5.4. Azken hitza Zuberoako euskararen bilakaeraz

1. Hizkuntz atalka, labur

1.1. Fonologia

Tesi honek ez du Zuberoako euskararen fonologia sistematikoki ikertu. Erabaki horren arrazoiak gorabehera (ATALASEAN, § 2.2.1), guhaurren ezagutzatik erran dezakegu Zuberoako euskararen sistema fonologikoa funtsean egina agertzen dela corpuseko lehen testuetarik. Zenbait ezaugarritan bestelako itxurarik igartzeko Erdi Aroko informaziorik dakarten datu onomastikoetara jo behar da (*Censier gothique de Soule*)⁴⁸². Oro har, Zuberoako euskararen itxura fonologikoa definitzen duten elementuak XVII. mendean lekukotzen dira, Agirrek (2001b) erakutsi duen bezala. Batetik, badira Zuberoak atxiki dituen ezaugarri behiala orokorrak (bokal sudurkari etimologikoak, hasperena); bestetik, badira ekialde hertsiko mintzoek obratu dituzten aldaketa zaharrak (*j > /ʒ/; diptongoen bilakaera, u_i > u_u bezalako harmonia bokalikoak), batzuetan soilik Zuberoakoak (hala /y/ fonema, nola txistukari ahostunen agerpen testuinguruak eta fonema-tasuna). Beraz, Zuberoako testuetan ezaugarri fonologikoez suma dezakeguna, kasu gehienetan, aldaketen betetze mailari lotua da. Gauzak horrela, tesi honetan bi ezaugarri fonologiko baizik ez dugu aztertu: lehena bokal sudurkari sail berezi bat (I, § 1) eta bigarrena txistukari ahostunen lekukotza (I, § 2). Bi fenomeno horiek hizkuntz ukipenaren medioz azaldu baititugu, aitzinago aipatuko dira (§ 2.2).


1.2. Kasu sistema

1.2.1. Marka berriak eta kasu sistemaren berrantolatzea

Aztertu ditugun kasu-marka berriek euskararen kasu sistemaren berrantolatze bat ekarri zuten, morfemen espezializazio semantikoaren bidean (ikus 3. IRUDIA). Lehenik, genitiboaren marka zaharrari erantsiak izan arren, komitatiboaren morfemek lehenagoko instrumentalak adierazten zituzten balioetarik bat hartu zuketan. Bigarrenik, genitiboaren gainean eratu morfemek —motibatiboarenak, prolatiboarenak eta benefaktiboarenak— (II, § 2) genitiboaren behialako balioetarik batzuk berenganatu zituzten, kasu haren polisemia nabarmen apalduz.

⁴⁸² Erakusgarri batentzat, *ea* bokal bilkura bere horretan lekukotzen da (*Arhalea*, *Aspechea* edo *Barnechea* bezalakoak 37 direlarik, *ia* behin baizik ez da ageri). Badira, halaber, *i_u > u_u* bilakaeraren aitzineko aztarnak (*Ithurralte* & *Ithurriague*, baina *Uthurralte* & *Utthurriague*); bestenaz, *rs* taldearen maiztasun altua igartzen ahal da (*Arstoe*, *Erspile*, *Sagarspe*).

Hirugarrenik, orobat gertatu zen adlatiboaren gaineko marka berriekin, balio zehatzagoen adierazteko sortuak (II, § 3). Prozesu horiek mendeak pasa ahala bete ziren; genitiboaren gaineko marken artean, argi ezar daiteke komitatiboarena zaharrena dela, *-n* gabeko genitibozko marka zaharrari erantsia baita; ondoren, *-gatic* motibatiboarena, gero prolatiboarena, eta azkenik benefaktiboarenak, *-n-dun* genitibozko markari erantsiak. Adlatiboaren gaineko zenbait markaren garapen morfologikoak kasu sistemaren berrantolatzea hetsiko zuten, haien artean seguruenik muga adlatiboarenak destinatiboarenak berankorrenak izanik.



3. IRUDIA. Kasu sistemaren berrantolatzea, EBZ-etik euskara historikorat

Kasu sistemaren berrantolatzean, genitibo zaharretik abiatu kasu multzoak duke pisurik handiena. 122. TAULAK genitiboari lotu zenbait balioaren adierazpenaren bilakaera laburbiltzen

du. Gogoan erabili behar da balio horietan genitiboaren marka hutsaren erabilpena ez zela guztiz iraungi, testu zaharrek —bereziki ekialdekoek— hala erakusten baitute; horrela, *-(r)en* marka balio motibatiboz 1873 arte lekukotu dugu, eta balio benefaktiboz egun ere aurki daiteke. Taularen azken errenkak arras bestelakoa den aldaketa bat jasotzen du: benefaktiboaren marken hedakuntza semantikoa, motibatiboaren *-gati(k)* morfema hein batean ordezkatur—motiboaren adierazpenean, baina ez kausarenean—; frantsesarekiko ukipenak sorrarazia baita, azken aldaketa horretaz aitzinago arituko gara (§ 2.3.2).


122. TAULA. Genitibo zaharrari lotu zenbait balioaren adierazpenaren bilakaera Zuberoan.

	Abia.	XVI. m.	XVII. m.	XVIII. m.	XIX. m.	XX. m.
PTZP PROSP.	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i> <i>-ko</i>	<i>-(r)en</i> <i>-ko</i>	<i>-(r)en</i> <i>-ko</i>
DEST	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i> <i>-ra(t)ko</i>	<i>-ko</i> <i>-ra(t)ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-ra(t)ko</i> <i>-(r)en</i> (†)
BEN	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i> <i>-(ren)tako</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)en</i> (†)
PROL	<i>-(r)en</i>	<i>-tako</i> <i>-(r)en</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>
MOT	<i>-(r)en</i> <i>-gati(k)</i>	<i>-gati(k)</i> <i>-(r)en</i>	<i>-gati(k)</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)(en)gati(k)</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)(en)gati(k)</i> <i>-(r)en</i> (†) <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)entako</i>	<i>(r)(en)gati(k)</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)entako</i>

1.2.2. Genitibo zaharraren mapa semantiko baterat

Kasu polisemiko baten balioak finkatzerakoan, nahasgarri bezain antzu gerta daitezkeen termino konposatuen eretzean, egungo hizkuntzalaritzak mapa semantikoen metodologia abantailatzen du, hizkuntzen arteko konparantzarako tresna egokia eskaintzen duena (Haspelmath 2009; Malchukov & Narrog 2009; Malchukov 2010). Guk dakigula, euskararentzat proposatu den kasu baten mapa semantiko egiteko saio bakarra instrumentalarena da (Igartua & Santazilia 2013). Mapa semantiko batean, kasu baten balioak *core meaning* delakoarekiko distantziaren arabera irudikatzen dira; ezaguna denez, genitiboaren balio zentral hori edutezkoa izaten da (posesioa).

Tipikoki, munduko hizkuntzetan genitiboa kasu polisemikoa izaten da (Nikiforidou 1991); orain artekoan argudiatu denez —eta ahanzi gabe ideia inplizituki sumatzen dela Azkarate & Altunaren lanean (2001)—, ekialdeko euskararen genitibo zaharra ere nabarmen polisemikoa zen. Printzipioz bi aukera lirateke posible: a) Zuberoako testu zaharrek lekukotzen duten polisemiaren aztarnak arkaismo baten zantzuak izan litezen; edo b) itzaliz joan den berrikuntza (zahar) baten lekukotza. Gure ulertzeko maneran, badira arrazoiak lehen hipotesiaren hobesteko: alde batetik, ekialdeko testuetan bereziki ohargarriak badira ere, genitiboaren polisemiaren aztarnak mendebaldeko lekukotasun arkaikotan ere ageri dira, nabarmenki benefaktibozko balioa; hortaz, errazagoa dirudi pentsatzea hizkuntzaren fenomeno orokorra izan dela. Beste aldetik, aztertu ditugun “marka berriak” genitiboaren morfemari erantsi zaizkio mintzo guztietan, eta ez beste bati. Gauzak horrela, 4. IRUDIAN euskara osoaren genitibo zaharraren mapa semantiko batendako oinarria proposatzen dugu.




4. IRUDIA. Euskararen genitibo zaharraren mapa semantiko baten oinarria

1.2.3. Ekialdeko euskarak bi komitatibo bereizi zituzkeen

Defendatu dugunez (II, § 2.6.2.2), Zuberoako testuek, hein batean, *-(r)kila(n)* morfemaren ñabardura semantiko zaharraren aztarnak gorde dituzte. Jada hizkuntzaren aldi historikoa iritsi zeneko, *-(r)ekila* morfemaren balioa lausotua zen, gero eta gehiago *-(r)eki(n)* komitatiboaren alomorfo huts bihurturik. Onartzen bada komitatiboaren kronologian *-(r)eki* forma zaharrena dela, eta *-(r)ekin* hari inesiboaren *-n* eranstearen emaitza dela, orduan nekez idoki liteke *-(r)ekila* morfema *-(r)ekin* baino berriago izatea. Beraz, Gavelen (1929: 26) eta Lafitteren (1944: § 142) proposamenak gogoan (II, § 2.6.2.2.1), *-(r)ekila* morfema zaharra

postula genezake, printzipioz *-(r)ekin* bezain zaharra —edo berria—, gisa guztiz ekialdeko euskara zaharrak bere baitarik garatu berrikuntza, ondoren arrakastarik gabea. Ifrentzuan, *-(r)ekilan* aldaera komitatiboaren aukera morfologikorik berriena litzateke.



Hastapenean *-(r)ekila* morfemak balio berezia zukeen: *-ki* komitatiboa eta *-la* adlatibozkoa baturik, halako “komitatibo-adlatiboa” zatekeen, hots, lagundua (*accompañee*) jomuga zuen adlatiboa, hastapenean *-(r)ekin* morfemak inesibozko kutsua zukeen bezala. Denboraren iragaitearekin, *norbaitekila joan* (\approx *norbaitegana joan*) \rightarrow *norbaitekila joan* (= *norbaiten konpainian joan*) aldaketa gertatuko zen; beraz, bigarren fase batean *-(r)ekila* morfema oro har komitatiboa gehi mugimendua adieraztera iragan zatekeen. Ondoren, *-(r)ekila* morfema mugimendurik gabeko testuinguruetara ere hedatuko zen, azkenean *-(r)eki(n)* atzizkiarekiko bariazio librean gertatzeraino eta, beraz, alomorfo huts bihurtzeraino (cf. 17. TAULA).

Bi komitatiboen proposamenak paralelo aski perfektu baten bermea du. Izan ere, tipologikoki euskara bezalakoxea den *chhantyal* hizkuntzak —tibetar-birmaniar adarrekoa, Nepalen mintzatua— bi komitatibo bereizten ditu: batetik komitatibo-instrumentala, eta bestetik komitatibo-adlatiboa (Noonan, Bhulanja, Chhantyal & Pagliuca 1999: 3-4).

-(r)ekila morfemaren jatorrizko semantikaren galera horretan, Zuberoako zenbait testuk —eta biziki Maisterrenak— egoera zaharra islatzen dukete: gutxienez *-(r)ekila*-k komitatiboa mugimenduari lotua adierazten zueneko garaia. Bi morfemen balioek bat egitean, funtsean bi emaitza dira posible: i) bi morfemak bariazio librean erabiliak izatea —alomorfo bihurtzea—, eta ii) bietarik bat desagertzea.⁴⁸³ Puntu honetan, nabarmendu behar da Zuberoako testuetan *-(k)ila(n)* atzizkiaren lekukotza irregularra dela (cf. 15. TAULA): zenbait testu luzetarik guztiz absente da, eta presente denetan semantikoki markatu izan daiteke, ala *-(r)eki* atzizkiarekiko bariazio librean (cf. 16. TAULA). Oro har, Zuberoako corpuseko datuek

⁴⁸³ Bi morfemen balioen neutraltzearen ondorioa da mintzo batzuetan komitatiboan soilik *-kila(n)* izatea. Lafoni idatzi gutun batean, Lacombe dio amikuzeraz *-kila(n)* baizik ez zela erabiltzen, bederen Donapaleun —“du moins en était-il ainsi dans le basque parlé par ma mère”— (Lafon 1936: 68).

komitatiboan *-kila* gutxien erabiltzen den morfema dela erakusten dute, diferentzia handirekin, eta horrek zalantza bat pausatzen digu.⁴⁸⁴

Azkenik, *-(r)ekila(n)ko* sekuentziak ere *-(r)ekila* morfemaren jatorrizko balioaren aldeko argudio sendorik ematen du (§ 2.6.2.3): ekialdeko mintzoetan nekez atzeman dugu *-(r)eki(n)ko* eransketaren lekukorik, baina bai *-(r)ekila(n)ko*-renak. Sekuentzia horrek adierazten dituen balioak, oro har, adlatibozko erlazio espazial metaforikoetan koka daitezke, hau da, *-gana(t)ko* sekuentziaren medioz ere adieraz daitezke —horregatik *-(r)eki(n)ko* ez da kasik ageri—. Horri lotuz, ez da halabeharrez euskarak *-gana(t)ko* eransketa onartzea, baina ez ***gango*; gure ikusmoldean, ekialdeko euskarak *-(r)ekila(n)ko* sekuentzia garatu izanak logika horri obeditzen dio, eta hori ageriago gelditzen da zenbakietara joz gero, ezen *-(r)ekila(n)* morfemaren maiztasuna anitzez ere baxuagoa da *-(r)eki(n)*-ena baino.

1.2.4. Kasu lokatiboak

Kasu lokatiboak direnaz bezainbatean, ekialdeko euskarak, printzipioz, mendebalde eta erdialdeko kasu lokatibo, ablatibo eta adlatibo berberak ditu, gehi garai berriago batean adlatibozko markaren gainean sortu muga-adlatiboa (*-raino*) eta destinatiboa (*-ra(t)ko*). Hori erranik, ekialdeko mintzoetan kasu lokatiboen azpisistemak berezitasun aipagarriak ditu. Hasteko, polimorfismo ñabarra garapen morfologikoen lekukoa da:

- Ablatiboan bi aukera nagusi dira: *-(r)ik* zaharra, partitiboari lotua, eta prosekutibo zaharraren bilakaera den *-ti(k)* —printzipioz *-ti* zaharrago, eta *-tik* berriago, nahiz eta Zuberoan lehen testuetarik bi aukerak batera ageri diren—; cf. Lafon 1948 & Lakarra 1984.
- Adlatiboaren polimorfismoa bi ardatzetan gertatzen da: lehenik, *-ra(t)* & *-ala(t)* parea, zeinaren banaketa, gaingiroki, izen berezi eta arrunten araberakoa izaten baita, hurrenez hurren, egungo Zuberoan ere (Gèze 1873: 22; Larrasquet 1939: 141; Etxebarne 2011: 64); bigarrenik, *-t* bukaera hartzen duten eta ez duten atzizkien arteko lehia, funtsean bi ardatz semantikoren araberakoa: mugimenduaren iraupena eta mugimenduaren norabidea —kontrastearen berri zehatza jakiteko, ikus II, § 3.3.3, edo atal horretako ondorioak (II, § 3.3.3.3)—.

⁴⁸⁴ Batetik, badirudi Zuberoan *-kila* morfema *fase sparitan* lekuktozen dela, hots, eta horrek arkaismo izateko itxura ematen dio. Bestetik, Amiküzen *-kila(n)* orokortu da, eta ez dakigu bi datu hauek noraino uztar daitezkeen.

- Kasu berrietan, polimorfismoa are nabariagoa da. Hortaz, Zuberoako testuek zazpi aukera lekukotzen dituzte muga-adlatiboarentzat: *-dano* & *-drano*, *-rano* & *-alano*, *-ra(d)ino*, *artio* & *artino* (cf. II, § 3.4.3). Horien artean, zuberera historikoan nagusi izan dena, *-drano* postposizioa, XIX. mendean itzali da.
- Azkenik, destinatiboan *-ra(t)ko*, *-ala(t)ko* & *-gana(t)ko* pareak gerta daitezke gehi, ebentualki, *-baitara(t)ko* (cf. II, § 3.4.4).

Horietan guztietan munta handienekoa dateke *-t* morfoaren araberako bereizkuntza. Gure azterketak bi adlatibo berezien hipotesia babesten du, testu gehienek, hala edo nola, *-t*-dun eta gabeko morfemen arteko bereizkuntza lekukotzen baitute (ikus II, § 3.3.3.2). Oro har, *-t*-dun aldaerek honako ñabardurak adierazten dituzte, testuan testu:

- Itzulbiderik gabeko mugimenduak (*zeliürat*, *iferniürat* / *zelialat*, *ifernialat*), edo itzulbidea dutenak, baina luzaz egoteko lekualdatzea dakartela (*Ameriketarat*).
- Norabide eza, norabide ezezagun edo zehaztugabea.
- Diskurtsoa edo gertaldia mugimenduaren iraunaldian sartua denean.
- Egoera kanbiamenduak.

Aldiz, *-t* gabeko adlatiboek ondokoak adierazten dituzte:

- Joan-jinak, egonaldi laburrak edo xede zehatza duten mugimenduak.
- Bukaera ezaguna duen egonaldia, luzea izan arren (*mündü huntara jin*).
- Helmuga zehatza duten mugimenduak.

Hau da, ñabardura semantikoak bi ardatzetan multzoka daitezke: a) leku-aldatzearen iraupena; eta b) mugimenduaren norabidea. Oyharçabalek *Charlemagne* testuarentzat formulatu arauetarik abiatuz (1991: 401-403), zenbait zehaztapen gehitu ditugu (cf. II, § 3.3.3.3).

Azken buruan, badirudi bilakaeraren emaitza bi adlatiboen arteko kontrastearen lausotzea izan dela, batik bat adiera direkzionalean. Azken horri lotuz, ez da halabeharrezkoa XIX. mendeko Zuberoan hurbiltze adlatiboaren bestelako aukerak azalera zitezen, bereziki [DAT / ADL + *bürüz*] egitura (← gask. *cap a*), eta *aldialat* & *khantiala* postposizioak. Ildo berean, *-t* morfoaren balioaren itzaltzea Erdi Arotik euskara historikorat obratu den kasu sistemaren berrantolatzean uler daiteke: sistema zaharrak bi adlatibo izatetik (batetik *-ra* & *-ala* pareak, bestetik *-rat* & *-alat*) hainbat aukera izatera iragaitean, *-t* morfoaren araberako bereizkuntza egongaitz gertatuko zen. Hau da, sistema berriak *-ra* & *-ala* adlatibo orokorra, *-rat* & *-alat* hurbiltze adlatiboa —anitzetan adiera terminatiboaz—, muga-adlatiboa gehi destinatiboa (*-t*-dun zein gabea) bereizten ahal izanik, zehaztasun semantiko berriak bazter utz zezakeen *-t*

morfoaren araberako bereizkuntza zaharra. Nolanahi ere den, kontraste zaharraren aztarna garbiak corpuseko garai berrietan ere lekukotzen dira.

Kasu lokatiboekin finitzeko, inesiboan bada zer aipatu Zuberoako euskara zahar eta modernoan. *Inesibo arkaiko* deitu izan den ezaugarriak mendebaldean ere iraun du (cf. 147. oharra), baina bereziki Zuberoan aurki daiteke. Haren azterketa *barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioekiko egiturenarekin lotu dugu (VII, § 1), erakutsiz halako egituretan inesibo arkaikoa emankorra dela; labur erranik, *mendin gañen* bezalakoetan, ezkerreko osagaiak ez dakar genitibo higaturik, baizik eta inesibo mugagabe arkaikoa. Beste gai bati lotuz, kasu lokatiboetan izaki adimendunek deklinazio hirukoitza dute: i) *-ga* morforen gainekoa, euskara osoan bezala; ii) *-ta* morfoaren gainekoa, nonbait mugagabe gisara ulertzekoa; eta iii) *baitha* postposizioaren gaineko aukera. Irudi luke ekialdeko euskara zaharrean hiru aukeren artean *-ta* ohikoena izatea; ifrentzuan, *baitha* moldearen maiztasuna aski baxua da Zuberoan.

1.3. Aditz sistema

1.3.1. Forma jokatugabeak

Forma jokatugabeei dagokienez, Zuberoako euskara historikoak ildo batzuk markatzen ditu:

- vi) Aitzineuskaratik datozkeen **e-* aurrizkiak zein **-ra-* morfema kausatiboak gainerako mintzoetan baino indar handiagoa erakusten dute, eta iraupen luzeagoa.
- vii) Aditz-izenaren formetan Zuberoan *-tze* morfema ez da kasik sartu, *-tü* saileko aditzez kanpo.
- viii) Partizipio prospektiboan, azken bizpahiru mendeetan euskal herri guztietakoa den *-ko* atzizkia leku irabaziz joan da.
- ix) Aditzoinaren formen markatzeko joeraren barnean kronologia desberdineko prozesuak bereiz daitezke; guztien erakusgarri berezia da Zuberoako euskara.
- x) Azkenik, partizipioaren eremuan, XVIII. mendean Zuberoak berrikuntza eskusibo bat garatu du, *-i* akabantza duten partizipio mailegatuen multzo batekin.

**e-* aurrizkiari doakionean, garai historikoan Zuberoako euskarak, non-nahi hedatuak diren aditzez gainera, itxura gorde duten hamabost bat aditz ditu (*ebil*, *edeki*, *edüki*, *egor*, *egüriki*, *eitz*, *ekhus*, *ekhüz*, *erail*, *erakhats*, *herakitü*, *eratzeki*, *eratzar* & *eroan*), zeinetarik erdia ez baita XIX. mendearen akabantzara iritsi (IV, § 1). Bazterreko euskalkietan *e-* emaitza atxiki

duten aditzen sailak beteagoa dirudi erdialdeko mintzoetan baino; halere, arkaismoa emeki itzaltzen da Zuberoan ere, *i*-ren eta horren ondorengo *ü*- emaitzaren faboretan (*igor, ügürüki*).

Bestalde, non-nahi bezala Zuberoan ere, aldi historikoan kausazioaren adierazpenak *erazo/arazi/erazi* aditza abantailatu du —dudarik gabe EBZ-ren ondotik—, estrategia morfologiko hutsa den *-ra-* morfema zaharra baztertuz. Haatik, Zuberoako testuetan morfema kausatiboaren iraupena eta indarra beste mintzoetan baino nabariago iruditu zaizkigu: oraino XIX. mendean aise aurki daiteke *-ra-* morfemaren balio zaharra cf. IV, §§ 6.3.2 & 6.3.3. Bereziki aipagarria da *eragin* aditz arazlearen lekukotza (*sinhets eragin* ‘sinetsarazi’, Eskiula, ca. 1800), ezaugarri hori behiala orokorra izan zelako hipotesia sendotzen duena.

Partizipio inperfektiboari doakionean, Zuberoako testuek ez dute ustekabe handirik eman, salbu erdialdeko fenomeno batzuei lotzekoa datekeen *-aite* atzizkiaren lekukotza estonagarria (*egorraiten ≈ hartzaiten*; cf. Urgell 2006, eta ikus IV, § 4.4). Datuek gehienez ere *-te* & *-tze* morfemen arteko lehiaren hastapenaren berri ematen dute, *-ki* multzoko aditzetan, non *-tze* berria hedatzen baita. Azkenik, *-n* saileko aditzetan Zuberoak ongi gorde du *-ite* emaitza. Beraz, inperfektiboaren formak direnaz bezainbatean, Zuberoako euskara oro har gordetzailerda da, mendebaldekoa baino gehiago.⁴⁸⁵

Partizipio prospektiboari begira, ezaguna da Zuberoan, ekialde handiko mintzoekin batera, *-ko* & *-(r)en* morfemak baliatzen direla. Halere, bi atzizkien banaketa ez da bat eta bera. Oro har, ekialde hertsia goan *-(r)en* aukerak esparru handiagoa du: *-n* saileko aditzei ez ezik, *-tü*, *-ki* eta *-∅* sailetakoei ere eransten ahal zaie. Azken mendeetako Zuberoan, *-(r)en* atzizkiak bilakaera errezesiboa erakusten du, *-ko* atzizkiari lekua utziz. Hizkuntza osoaren ikuspegitik, *-(r)en* prospektiboa ekialdera gibelatuz joan da, han ere indar galtzeko. Bistan dena, bi atzizki horiek Lafonek (1965: 175) “les deux génitifs” deitzen zituenak baizik ez dira: *-ko* erlaziozkoa, eta *-(r)en* genitiboa. Interesgarriago dena, horrek lotura garbia iradokitzen du benefaktiboan lekukotu dugun lehiarekin (II, §§ 2.4.1 & 2.4.2); hots, *-(r)en* genitibo hutsak benefaktiboaren adierazpenean luzeen atxiki duten mintzoek *-(r)en* gehiago lekukotzen dute partizipio prospektiboan edo, bestela erraiteko, benefaktiboan *-ko* atzizkia daramaten hautu morfologikoen hedakuntza (*-(r)entako* vs. *-(r)en*) *-ko* prospektiboarenarekiko

⁴⁸⁵ Mendebaldeko mintzoek ere *-te* atzizkia ongi atxiki badute ere, ekialdekoek baino gehiago ere, bestelako berrikuntzak garatu dituzte; horien deskripzio egoki batentzat ikus Urgell 2006.

paraleloan dabil (-*ko* vs. -(*r*)*en*). Horrek guztiak bi elementu gramatikalen arteko lotura seinatzen du, azken buruan bi-biek -(*r*)*en* markaren behialako polisemiara igortzen dutelako.

Aditzoinaren formen indartzeari dagokionez, Iparraldeko gainerako mintzoekin batean, lau fenomeno paralelo deskribatu dugu: i) -*t* aditzoinak (*hant*, *zilhet*); ii) -*k* aditzoinak (*idok*, *jarraik*); iii) *erazi*, *utzi* → *eraz* + *i*, *ütz* + *i* berranalisiak; eta iv) -*e* → -*a* forma bereziak (*erra*, *gorda*, *busta*). Bilakaera horiek kronologia desberdinak dituzte.

Bada, aditzoinaren formen indartzeko joera Erdi Aroan abiatu zen, -*t* moldeko aditzoinen multzoarekin. Hor lehen geruza bat defini daiteke, hitz elkarketaren arau zaharren medioz sortua: *zilhegi*, *handi* → *zilhet*, *hant* (FHV 423). -*t* hura elkarketa arauetarik kanpoko kasuetara hedatu zen, nonbait baliagarria gertatu baitzatekeen homonimiaren saihesteko (*lagunt*, *xuxent*, etab.). -*t* moldeko aditzoinen saila egoera horrexetan da Euskara Arkaikoan. Ondoren, eta partikulazki Zuberoan, joera orokortuz joan da: testuetan batere anbiguotasunik ebazten ez duten formak ageri dira (*xahat*, *phozuat*, etab.), eta fenomenoak emankorra da egungo zubereran (*telekargat ditzazkezü*).

Aditzoinaren tinkatzeko joeraren bigarren manifestazioa da -*k* moldeko formen saila, -*ki* → *k* + *i* berranalisiaren ondorioz sortua. Bilakabide hau garai historikoan gertatu da: Zuberoako lehen testuetan abiatua da, eta ondoko mendeetan -*k* moldeko aditzoinen saila handituz doa. Azkenik, antzeko berranalisiak dira *erazi* → *eraz* + *i* eta *utzi* → *utz* + *i*: datuak arras sinplifikatuz, testu zaharrenek *erazi* & *ützi* aditzoinak lekukotzen dituzte, eta berriek *eraz* & *ütz* —berranalisiak ondorioak ditu, halaber, imperfektibozko formetan: *eraziten* & *ütziten* → *erazten* & *üzten*—.

Aditzaren forma jokatu gabeen artean aditzoina zaharrena da, irizpide morfologikoengatik bezala, lekukotzaren kronologia eta perifrasiaren bilakaeragatik ere. Hori erranik, Urgellendako (2016b) garai historikoko aditzoina ez dateke aitzineuskararena; beraz, ikuspegi diakronikotik aditzoin₁ & aditzoin₂ bereizi beharra genuke. Urgellen azalpenean, garai historikoko aditzoina Erdi Aroko forma litzateke, hitz elkarketaren arau zaharrak direla medio. Memento hartarik aitzina, mendebalde handian aditzoinaren erabilpena partizipioarenaren alde galduz joan zen; aldiz, ekialdean aditzoinak indartsu jarraituko zuen. Gure azterketa testuinguru horretan kokatzen da, ondorioak garbiak izanik: *historian* zehar ekialdeko euskarak joera argia erakutsi du aditzoinaren formen markatzeko, partizipioarenetik bereizteko, eta joera orokor horretan Zuberoa joan da urrunen.

Forma jokatu gabeen azterketa hesteko, Zuberoako euskararen berrikuntza bat deskribatu dugu, hots, *-i* akabantza hartu duten partizipio mailegatuen sail berria (IV, § 3); ezaugarri hori hizkuntz ukipen fenomenoetara lotua denez, beherago aipatuko da (§ 2.4).

1.3.2. Erroak eta forma jokatuak

Zuberoako testuetarik erroen arteko lehien berri ematen dituzten datu interesgarriak idoki ditugu: batetik, aditz ditransitiboan laguntzaileetan (**eradun* vs. *-i(n)*), eta bestetik aditz iragankorren balio modaleko laguntzaileetan (**iron* vs. **ezan*); horietara *-(g)idi-* erroaren zein *-kidi-* segidaren lekukotza emendatu behar zaie.

